Banco de Bilbao

Banketxearen
UZEIko ordenadore-zerbitzuan
landua

Hezkuntza Sailak onetsia 1985-11-11
© UZEI. Esterlines, 8. DONOSTIA
© ELKAR, S.A. Esterlines, 10. DONOSTIA

Dep. Leg.: NA. 1.425-1985
ISBN 84-7529-306-9

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

Lankidetzak honela banatu dira:

P. Arrieta: "6. Estatu Modernoaren garapena: Absolutismoa". (Azalpena eta testuen hautapen-parte bat). **J.Intxausti**: "1. Lurralde-Monarkia modernoak"; "2. Ameriketako jatorrizko kulturak"; "3. Ernazimentua: Europaren Pizkundea"; "4. Aurkikundeak eta konkistak"; "5. Europaren ezinegonak: Erreforma". (Hauetako azalpenak, irudien eta testuen hautapen, itzulpen eta oharrak. Gainerakoetako itzulpenak, irudi-gidoia, oin-oharrak eta zenbait testu hautapen). **J.Odriozola; M.Urkola**: "8. Europa 'argiztatua'". (Azalpena, zenbait testu). **M.Uribe-Etxebarria**: "7. Gizarte eta kultura barrokoak". (Azalpena, irudien hautapena, oharrak, testuak). **I.Tapia**: Muntaia.

H I T Z A U R R E A

Irakasle-ikasleon eskuetan jartzen dugun ***Mendez mende*** *deritzan liburu honek badu zenbait berezitasun, hemen espreski azaltzea komenigarri izan litekeenik. Eman ditzagun, ba, argibide labur horiek.*

BBBrako langaiak

Ikasliburu eta oinarrizko langai bezala ikusten dugu hemengo hau dena: Irakasle edo ikaslearentzat ikaskizunak apur bat zabalago landu nahiz osatzeko, irakasleak bere aldetik prestatu edo ikasleekin batera ikasgaiak ontzeko: guztiotarako kontsulta-leku bezala ikusten dugu liburua. Ez da buruz jaso beharko litzatekeen zerbait, lanerakoak modu ordenatu batean eskaintzen dituen bilgunea baizik.

Eta, Batxilergo Balioaniztun Bateratuan (berorren ikasturte guztietan esan nahi da), Irakuskuntza Ertainen berrikuntzarako liburu orokor bezala eskaini nahi genuke. Oinarrizko langai orokor hauetatik hasi nahi izan dugu gure egitekoan, Batxilergoa bera bezala, liburua ere balioaniztuna gerta zedin, ikasturte bakar batera mugatu gabe.

Izan ere, euskarazko ikasliburu eta kontsulta-leku orokorrik apenas dugun. Irakas-maila honetarako ez dago langai normalizaturik, eta Batxiler-adin honetan behar-beharrezkoak ditugu irakurgai eta langai ugariak, edozein eratan lanegin nahi dela ere, ikaslea histori argitalpen idatzirik gabe aurki ez dadin. Neurri apal batean bederen, eman lezake ***Mendez mende*** *honek ere laguntza-moduren bat.*

Edukinak

Liburuki honetan Aro Modernoa azaltzen da, XV. mendearen bigarren partetik hasi eta XVIII. mendeko iraultzetaraino (Iraultza Amerikarra eta Frantsesa, 1775-1789). Oro har, epealdi hori da eskaintzen dena, baina badago bestelako salbuespenik. Aroz Aro egin ohi ditugun epekapen historiko hauek (Erdi Aroa, Aro Modernoa, etab.), erarik zabalenean hartuta ere, Europara begira (edo Europatik bederen) eginak izan ohi dira.

Bildu ditugun langaiak hiruzpalau gisatakoak dira, eta denak elkarren osagarri bezala ikusten ditugu: azalpena dioguna, irudi eta irudien oin-oharrak, testu aztergarri eta dokumentuak, lauki eta taulak (organigramak, estatistikak). Irakasleak ikusi beharko du nola erabil horietako bakoitza: bakarrik, bata bestearekin, denak elkarrekin.

Edukina, azalpenaren gidoiari jarraikiz garatzen da, orrialdez orrialde; azalpen hori izan da egileon laneko ardatza. Baina horrek ez du esan nahi, irakasleak ere nahitaez azalpenari lotuta lanegin behar duenik: aitzitik, has liteke, adibidez, irudi eta irudi-oharren konkretutasunetik oinak iruzkinduz eta dokumentuetan laguntza osagarria bilatuz. Edota testu aztergarrietatik hasi, irudietara eta azalpeneraino iristeko. Ikas-bidea aukeragarria da, norberaren didaktika-eritzien arabera. Liburua ez da derriorrez testuliburu bat, baina hori ere izan liteke, irakaslearen erabakiz.

Erreformaren ildotik

Irakaskuntza Ertainen Erreformak gaien aukera jakin batzuk ere egiten ditu, baita berrikuntza lortzeko erizpide batzuk gogoratu ere. Baina, bai erabakitako horietan eta bai libre utzitako gainerakoetan, euskaraz arazo bereziak ditugu: gurean ditugun oinarri-oinarrizko langaien eskastasuna ez dugu ahantzi nahi izan. Datu erabakior hau tarteko dela, Erreformaren gai puntualei baino areago izpirituari jarraiki gatzaizkio.

Baina, uste dugunez, lehenengo une batean irakasle arduratuak, eskuetan jartzen dizkiogun langai hauetatik izango du bere aukera egiteko modurik, bai ohizko ikastaroa osatzeko, bai erreformaren bidetik ibiltzeko, hemengo hau horretarako erabat egokitua ez egonarren. Hala ere, ez dugu baztertu

nahi hemen doazen eta/edo hemengoei berehala gehi dakizkiekeen langai berriak erreformarako zuzenkiago geuk ere egokitzeko asmoa. Eta laster heldu nahi genioke egitekoari, langaiak osatuz eta berauen irakas-gidariak emanez.

Hizkuntzaren katramila

Irakurleak laster ikusi ahal izango duenez, hizkuntzak edo hiztunok baditugu Historiaren alorrean ere geure katramila eta eskasiak. Irakaskuntzako maila hauetan informazio oso samarrik eman nahi denean, edo euskaraz inoiz ez edo inoiz gutxitan erabilitako gaietan, terminologia sortu-behar franko topatzen dugu.

Zalantzarik izan dugu, noski, kasu bakoitzari irtenbide bakar bat ematean, hala ere saiatu gara --baita ikasleari zor zaion itzalagatik ere-- Euskaltzaindiak araututako arazoak eta arautu gabeak beti era berean ematen. Horrek ez du esan nahi, behin edo bestetan, lanaren luzean albora saihestu ez garenik; baina honelako zerbaitez ohartu garenean, liburuari eranskin gisa ematen diogun hitz-zerrendan eskaintzen dugu behar dena edo hobeagotzat jotzen duguna.

Hizkuntzaren zuzenketan edo hobekuntzan ikusi eta bildutako arazoek merezi ko lukete, unean uneko ardura baino haragoko lan sistematikorik, uste dugunez. Gure aldetik horretaraxe iritsi nahiko genuke, gurean ere -- Historiaz ari gara-- alfabetatze berezitu baterako langaiak bildu eta ordenatuz. Obra hau osorik burutzean egingarriagoa izango da hori, noski.

Gerokoak, eginkizun

Hemen hartzen ditugun mendeei (XV-XVIII.ak), dagokien segida emateko asmoa dugu, noski, hurrengo liburu batean. Ez da ahantzi behar, gainera, oraingo honek bere aurrekoa ***Historia/1 BBB-1.****-an izan zuela, nahiz eta berorretan eta beste* ***Mendez mende*** *honetan, edukinaren moldaeran, erizpide berberak ez izan. Testuliburu soil bezala baino zerbait gehiago egin nahi izan da: irakasle eta ikasleei, lanerako aukera ezberdinak emango dizkien langaiak eskaini, baina testuliburuen funtsezko zenbait betekizun ere jasoz.*

Hizkuntza bera eta hiztunok geurok gauden puntutik ekinda hartu beharko zaio gaina egitekoari. Liburu hau lan aldakor eta hobegarri bezala ikusi dugu, burutu aurretik bertatik. Ikusten dizkiogu akatsak eta mugak, eta are gehiago irakaskuntza dinamiko baten etengabeko berrikuntzaren barnean; baina, hala ere, kalean jarri nahi izan dugu, gehiegi luzatu gabe, zerbitzu bat eskaintzen dugulakoan.

Liburua prestatu duen lan-taldea aurrera jarraiki nahi litzateke, hau hobetzen, aldatzen eta osatzen ezezik, baita honek bere baitan dituen erizpideak berraztertu, berretsi edo baztertzen. Horregatik, edozein iradokizun egin nahi zaigula ere (edukinari, hizkuntzari edo didaktikari legokiekeena) oso gogoz begiratuko du "ofizioa" ikasten hari den lan-talde honek. Esker ainitz, beraz, aldez aurretik.

1985, Iraila

ARO MODERNOA: KRONOLOGIA

URTEAK	GERTAKARIAK
1492	Amerikaren Aurkikundea.
1498	Portugesak Indian.
1517/1555	Erreforma lutertarraren garapena.
1519	Karlos V.a, Alemaniako enperadore.
1519/1540	Ameriketako konkistak.
1541/1564	Geneva-ko Erreforma kalbindarra.
1543	Koperniko: "De revolutionibus orbium caelestium".
1545/1563	Trento-ko Kontzilioa.
1555	Augsburg-eko Bakea
1562/1598	Frantziako erlijio-gerrateak.
1568/1648	Herbehereetako askapen-gerratea (Hamabi Urteko Tregoa: 1609-1621).
1598	Nantes-eko Ediktua, Higanautak babestuz. Felipe II.aren heriotza.
1618/1648	Hogeitamar Urteko Gerratea.
1640/1652	Espainia (Katalunia), Portugal, Frantzia (Fronda) eta Ingalaterran (Cromwell) gerrate zibilak.
1648	Westfalia-ko Bakea: Oreka politiko berria.
1659	Pirinioetako Bakea (Bidasoa).
1661/1715	Luis XIV.a: Gerra, Frantziari lurraldeak bildu eta irabazteko.
1713/1714	Utrecht/Rastatt-eko Itunak: "status quo" berria.
1751	Entziklopedia.
1756/1763	Zazpi Urteko Gerratea: Ingalaterraren itsas jauntasuna. Prusia eta Austria.
1776/1783	Ipar Ameriketaren askapen-gerratea.
1789	Iraultza Frantsesa.

1
LURRALDE-MONARKIA MODERNOAK

URTEA	GERTAKARIAK
1479	Errege Katolikoekin, Gaztela-Aragoak elkartuta.
1485	Ingalaterran Bi Larrosen Gerratearen amaiera: Enrike VII.a Tudor.
1492	Granada, Errege Katolikoek konkistatuta.
1494	Italiako gerrateen hasiera (Frantzia/Gaztela-Aragoa).
1509	Ingalaterran, Enrike VIII.a Errege.
1512	Nafarroa, Errege Katolikoak konkistatuta.
1515	Frantzian, Frantzisko I.a Errege.
1516	Bolonia-ko Konkordatua, Frantziarekin.
1517/1555	Alemanian lutertarren Erreforma.
1519	Karlos V.a, Alemaniako Enperadore.
1520/1521	Gaztelako Komunitateak eta València-ko Germaniak Erregeren kontra.
1532	Bretainia Frantziako Koroapean.
1556	Karlos V.ak Koroak uzten ditu: Espainia, Felipe II.arentzat.
1569	Moriskoen errebolta Alpujarretan (Granada).
1580	Felipe II.a Portugaleko Errege.
1589	Nafarroako Enrike Erregea, Frantziako Enrike IV.a bihurtzen da.
1598	Nantes-eko Ediktua: higanautak.
1609	Moriskoak Espainiatik iraitziak.
1620	Nafarroa Beherea Frantziako Koroapean.



PENINTSULA BAT, BOST ERREGE

Oraindik 1474ean Penintsula Iberiarra gisa honetan, bost erreinutan, banatuta zegoen. Elkarren arteko loturak ezberdinak ziren: Granada, Gaztelaren basailua zen; Nafarroan, berriz, zinez Aragoako Joan II.ak agintzen zuen, eskubidez kontra izanik ere. Ez zen garbi ikusten batasunak egitekotan nola egingo ziren: Gaztela-Aragoetako erregegai-erreginak elkarrekin ezkonduz, ala Gaztela-Portugaletako erregingai-erregeak elkarrekin. Eta Nafarroak bere irtenbide dinastikoa Pirinioetatik iparralderantz aurki zezakeen. Arma bidez erabaki ziren arazo hauek: Gerrate Zibila Errege Katolikoek irabazi zuten Gaztelan (1475-79), Granada-ri hamar urteko gerra egin zitzaion (1482-92) eta Nafarroa konkistatu egin zen (1512). Portugal aparte geratu zen orduan, baina 1540an xede bera lortzeko han ere: Felipe II.ak Penintsula osoan agindu zuen, Monarkia federal baten bidez. Honelako egoera politikoak arruntak ziren Europan: Frantzian, Britainia Haundian, Alemanian, Italian...

Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren arteko zubian (XV. mendearen azkenetan eta XVI.aren lehen urteetan) Europa-k aldakuntza politiko iraunkor eta garrantzitsua ezagutzen du: **lurralde-monarkia** handien eraketa.

Hala ere, esan behar da, antolamendu berri hau ez dela Europa-ko lurralde eta Estatu guztietan orduantxe eta nonahi, aldi eta era berean gertatu. Bereziki Europa-ko Mendebaldean suertatu zen, Europalde honetako **lau Estatutan**, hain zuzen: Portugal, Espainia, Frantzia eta Ingalaterra-n. Geroago, batez ere, Frantzia eta Espainiaz hitzegingo dugulako, konbeni da lehenengo Europa osoari buruz ohar orokor batzuk egitea.

I. BATASUN-MOLDE EZBERDINAK, EUROPAn

XVI. mende-hasierako Europa bere zabalean begiratzen badugu, laster ohartuko gara zeraz: Europa-k ez zuen eraberdintasunik garaiko bere egitura sozial eta politikoetan. Europa-ren garapen sozio-historikoa, gisa ezberdinekoa zen eskualde batetik bestera, Estatu batetik bestera. Eta aldeak handiagoak ziren **Mendebalde**-aren eta **Ekialde**-aren artean.



EUROPAko EKIALDE URRUNA

Lurralde batasunaren eta egitura sozio-politikoen arazoak oso ezberdinak ziren Europaren Mendebalde-Ekialdeetan. **Iban IV.a "Izugarria"** izan liteke bi mundu urrunduon sinboloa: gizarte oso erdiarotar baten burua, berak hartu zuen lehenengoz "Zar" titulua eta berak menperatu zituen nobleak eta gobernariak. Iban-ek sortu zituen autokratismo gogor baterako botere-tresnak Errusian. Mende bat geroago Pedro I.ak birmoldatuko zuen Estatu-antolamendua.

* 1. Erteuropatik Ekialdera

Ekialdeko Europa **erdiarotarragoa** agertzen zaigu, Mendebaldeko Monarkien aldean. Erreinu haietako botere-antolamenduak eta hango boteredunen arteko harremanak urrun daude Hego-mendebaldean (Espainia-n nahiz Frantzia-n, adibidez) Erregeek beren ingurumarian eratu duten botere-sistematik.

Polonia-n, esate baterako, oraindik ere nobleziak agintzen du, eta Monarkia nobleen interesen arabera jokatzeko asmatua dago: Koroa ez zen heredagarria, hautagarria baizik, eta hautapen-unean, eta gero, nobleziak zuen benetako boterea. Bestalde, Polonia-ko nekazarien gain esku osoa eta zuzena zuen nobleziak. Beraz, goitik nahiz behetik begiratu, boteretsua agertzen zen Polonia-ko nobleza, eta, horrela, hango egoera sozio-politikoa gertuago zegoen Erdi Aroko feudalismotik, Mendebaldeko Monarkia handiak moldatzen ari ziren agin-te-sistema berritik baino.

Ohar honek areago balio du oraindik **Errusia**-z, hemengo egiturak atzeratuagoak bait ziren. Estatu hartako lurralde- eta aginte-batasunak ez dute antz handirik aipatu ditugun beste lau Estatuetakoekin. Atzerapen hau gainditzeko, ondoko mendeetan krisi larriak pasa beharko dituzte Ekialdeko monarkia hauek. Estatuaren aginte-egitura zaharra eta gizarteko antolamendu soziala ez bait dira bapatean eta minik gabe antzaldatzen.

* 2. Erteuropa eta Italia

Lau Monarkia bateratu handiak aipatu ditugu, bakoitzak, bere erara, batasun- eta berdintasun-molde berriak lortu zituelako. Geroago ikusiko dugu zer izan zen hori; baina, aurrera egin aurretik, konbeni da Erteuropari begiratu bat ematea: Inperioa eta Burdungia Herbehereekin batera, Italia ere gogoratuz.

Inperioan, lurraldeak eta agintea bera zatituta daude. Printzerri, dukerri, gotzainerri eta jaurerriek zeloski zaintzen dute beren botere berezia. Enperadoreak badu lanik franko, denak ekintza baterako elkartu nahi dituenean; ahal duelarik, nahiago du bere printzerri propioko indarrez baliatu, zeren hemendik kanpo ez bait da sekula jaun oso. Erdi Arotik datorkion antolamendua da hura, bere alde on eta mugatu guztiekin. Dena den, ez da ahantzi behar Enperadorea --Aita Santuarekin batera, eta inoiz beronen gainetik eta kontra-- Europa-ko aginterik garaiena dela, teorian honen eskua Alemania-tik urrun iristen bait da: Italia eta Herbeheretara, esate baterako.

Erregeak, Enperadore?

(Luis XIV.aren absolutismoa)

"Baina Karlomagno-ri Enperadore-titulua segurtatzeko, hain oinarri egokia eman zion bikaintasun honek (...) ez zuen luzaro iraun haren ondoren. Enperadore-dignitatearen distira, garai haietan Frantzian egiten ziren ondokoen arteko partiketek itzali zuten. Eta gero, berdin herentzidunen ahultasunak eta zabarkeriak, batez ere Rhin-aldetik honako ondorengoenak. (...). Alemanak, berriz, gure odoleko printzeak baztertuta, berehala jabetu ziren dignitateaz, edo hobeki: haren ordez beste bat sortu zuten, Inperio erromatarrarekin edo gure arbasoen Inperio berriarekin zerikusirik ez zuen beste zerbait".

"Inperio-dignitatea gizonen asmakizuna da, garbiki; Erregegoa, berriz, zalantzarik gabe Jainkozko erakundea da. Koroaren eskubideak ez daitezke baliozkotasunez bestetara. Halabeharrezko ondorio hau ateratzen dugu hortik: gure erregeak dira betidanik Alemania-ko enperadore legitimo bakarrak". (LUIS XIV: Mémoires)

Estatuen eta hizkuntzen mugak

"Lurralde nazionalaren eta hizkuntza ofizialaren barruti geografikoek, bienak osorik, bat etorri behar dutela uste izatea erabat zentzuzkoa da askorentzat. Zaila gertatzen da, nonbait, hikuntza nazional ofizialaren ondoan, beste hizkuntzak ere egon daitezkeenik

.../...

.../...

pentsatzea ere, herrialde berean eta ofiziala bezain baliozko direla, gainera. Ohartu gabe, berdintzapen automatiko bat egiten da hizkuntzaren eta estatuaren artean; bereziki agerian dago joera hau Frantzia-n, mendez mende jasaten dugun zentralizazioak egia osotzat saldu bait digu uste hori. Zentzu honetan, ez dago ikusi besterik Britainia, Euskal Herri nahiz Roselló-ra frantses bat iristean hizkuntza entzunik harriduraz beteta erakusten duten halako ezinegona eta areago ere aditzera eman ohi duten halako muzina".

*(BEC,P.: **La Langue Occitane**)*



BRITAINIA HAUNDIAren batasuna ez zen denbora gutxian egin. Irla Britainiarrak politikoki elkarretaratzea zaila gertatu zen; lau nazio zeuden han: Ingalaterra, Eskozia, Gales eta Irlanda. Lehenengo pausoa, Ingalaterrari Monarkia indartsu bat ematea izan zen. Egiteko hau, Bi Larrosen Gerratearen ondoren (1455-1485), **Enrike VII.**ak gidatu zuen (1485-1509), nobleziaren kontra.

Burgundia/Herbeheretan, ordea, eskurik izanarren, Enperadoreak ez dezake nolanahi joka: alde batetik, Frantzia-ko Erregek ere bere jaun-eskubideak badituelako hango parte batean, eta Frantzia-ko Erreinua Burgundia-ko Dukerriaren bizkar egin nahi duelako, bestetik; Herbehereetan geroz eta bizkorrakoa ageri da burgesia, laister ikusiko denez, eta honek ere agintean eskuhartu nahi du. Dena den, bi Estatu indartsu haien artean, Burgundia Dukerri handi eta independente handia zen XV. mendean.

Italia, berriz, bestelako kasu bat da. Penintsula osoa zati-zatikatuta dago. Aragoa-k hegoaldean aspaldidanik landutako interesak eta iparraldean Inperioak zituenak, laster Enperadore batberaren eskuetara etorriko dira (Karlos V.); baina horrek ez dio Penintsulari batasun politikorik ematen: Eliz Estatua han dago, Erromaren jabe; han daude Venezia eta Genova, eta Medizitarren Florentzia, eta beste hainbat printzerri.

Italia-k ez du XIX. menderarte bere batasun politikoa egingo; Alemania-ren baterakuntza, gerrate franko-prusiarraren ondoren lortuko da (1871) eta hori ere epe labur baterako. Herbehereek, berriz, Burgundia-tik at ere, beren gisara, laster bilatuko dute bestelako biderik. Azkenik, Burgundia handi posiblearen etorkizuna, bi auzolagun indartsuek (Frantzia/Alemania) itoko dute.

* 3. Monarkia berri handiak

Esan bezala, Monarkien lurralde-baterakuntza eta erret boterearen berrikuntza modernoa batez ere lau Estatutan gertatu zen, eta ez noski

beste gabe, bide luze bat urratu ondoren baizik.

Horraino iristeko, Frantziako Erreinuak Ehun Urteko Gerrate luzea (1337-1453) jasan behar izan zuen; Ingalaterra-k, berriz, gerrate hori bera ezezik, Bi Larrosen Gerratea ere bai (1455-1485), hobeitamar urtetan. Penintsula Iberiarrean, ostera, Birkonkistaren azken aldapa malkartsuari gaina hartu aurretik, Gaztela eta Aragoa-n gerrate zibil latzak eraman behar izan ziren XV. mendean, harik eta Errege Katolikoek nagusitasun osoa erakutsi zuten arte, bai beren Erreinuetan, bai konkistatu nahi izan zituztenetan (Granada, Nafarroa).

Lurraldeen biltzea ez zen samurra gertatu, ezta indar sozial nagusienak (noblezia berezi-ki) monarkia handi hauetako erregetzaren asmoetara jartzea ere. Burokrazia berriaren betekizun distiragarrietan edo erbestean sor zitezkeen obrantza handietan (Italia-n edo Ameriketan, adibidez) aurkituko dute nobleek ekinbide estimagarririk. Estatu-boterearen eraketa berrian edo haren zabalkundean emango dira garai batean hain urduriak ziren

FRANTZIAKO LUIS XI.a (1461-1483). Erregeri zuzenean egindako marrazkia da hau. Luis XI.ari "l'universelle araignée" deitu zioten bere etsaiek: "armiarma oro-hartzailea". Erreinua zabaldu, herritar xumeak babestu, noblezia esanetara jarri, Estatua erakundetu: horiek izan ziren Errege honen helburuak. Xedeok lortzeko, lurralde berriak irabazteko, ez zen beldurtu erabili behar zituen bidegabekerien aurrean.



LUIS XI.a, ETSAIEN AURKA

"Orduan handia izan zen Erregeren poza, bere burua gorrotatzen zituenen gainetik ikusita. (...). Batzuen kontra hartua zuen bere mendekua (...).

Guiena-ko dukea, bere anaia, hila zen: haren oinordekoa zen, beraz. Anjou-tarren etxe osoa galduta zegoen: Sizilia-ko Ernat, Kalabria-ko Joanes eta Mikolas hilda, adibidez, orobat Maine-ko konte bere lehengusua, Probentzako kontea. Armagnac-eko kontea hil zuten. (...).

Burgundia-ko dukea, ostera, oraindik bizirik zegoen, sarritan hitzegin zidan Erregek dukea hiltzean egingo zukeenaz" (COMMYNES Kronikariak. XV. mendekoa).

Estatu-hazkundearen arrazoiak

"Esan beharra dago zeintzuk diren Estatuaren errealitatea osatzen duten osagarriak: erret boterea, administrazioa, diplomazia eta armada. (...). Berauek aztertzen baditugu begira zer ikus litekeen: XVI. mendean oraindik alde askotatik, Estatuaren eraketa obra erdi-egina dela.

Boterea mota ainitzetako pribilegioek mugatzen dute:

- Lehenengoa, ***administrazioak*** *duen ahuleziak, batez ere finantz arazoetan, eta, ondoriobidez, bankariengana jo beharrak.*

- ***Armadak*** *eta itsas untziteriak dituzten baliabide kaxkarrak.*

- Bestalde, ***komunikabideak*** *apenas dira Aintzinatean baino bizkorragoak, eta printzearen borondatea Erreinu osoari aditzera emateko denbora-luzamendu handiak jasaten dira. (...).*

Hala ere, nazioarteko arazoak dira Estatuaren hazkundea eragiten duten kausetako bat, gerrateetako gastuek fiskalitatea eta administrazioa zorroztu egiten bait dituzte. (...). Zuzenbide erromatarraren zabalkundea, funtzionari eta ordezkarien ardura eta humanismoak lagundutako sentimendu nazionala izango dira Estatuaren hazkunde horretarako beste kausa zenbait".

(LAPEYRE: ***Las monarquías europeas del siglo XVI.*** *288-9)*

nobleen indarrak. Honela gainditzen da Erdi Aroko monarkiaren aginte-hierarkia erdi-feudala, eta honelaxe sortzen, gerorako, botere-eraketa berria Europa-n.

Izan ere, lurralde-batasuna egin eta erret agintea eraberritzeko, erregeek nahitaez botere sozio-politiko feudala txikitu egin behar zuten, edo hezi bederen. Botere-modu feudal sakabanatu hura Erregearen esku bakarrera ekartzean, XVI-XVII. mendeetako Monarkia Absoluturako tresneria sortzen ari ziren Luis XI.a Frantzia-n eta Errege Katolikoak Gaztela-Aragoetan. Honegatixe esaten da, hain zuzen, aipaturiko lau monarkia haien betekizun historikoak **zentzu modernoa** zuela: ondoko belaunaldietan erregimen hegemonikoak izango direnei jasoinak ezarri zizkietelako, alegia.

Frantzia, Ingalaterra, Espainia nahiz Portugal-en, **efikazia handiagoa** duen botere-erakundea agertzen da: zerga-bilketak hobeki egin zitzakeena; gizartea zorrozkiago begiratzen zuen administrazio-erakundea; antolamendu iraunkorragoz eratutako armada. Atzerri-harremanetarako diplomazia hobeki zaindu zen, eta inperio koloniala zabaltzeko erakundea bizkortu.

Eliza, Erregearen menpe

"Erregea zen Elizaren buruzagi denborala. Hark berresten zituen eliz legeak eta hark bakarrik dei egin edo baimendu zitzakeen kontzilioak, eta hark zaintzen zituen Elizaren ondasunak. 1516ko Konkordatuak apezpikuen eta abadeen izendapena egiteko eskubidea hari ematen zion, Aita Santuak zegokiona egin ondoren.

Hauxe zen aukerarik egokiena, familia nobleetako ondokosemeei benefizio gizenak eskainiz haiek beregana erakartzeko. Erreinuko zama eramaten laguntzera behartu zuen Erregek Eliza. Erregalien bidez, gotzaindegi eta abatetxe betegabekoetatik errentak jasotzen zituen". *(MOUSNIER,R.)*

II. FRANTZIAko ERREINUA

Frantzia-ko Erreinua deitzen dugu Languedoïl eskualdetik inguru guztietara zabaldutako erresuma. Berau izan zen lurralde-monarkien eredua hobekien lortu zuena.

Izan ere, nahiz eta gorabehera handien ondoren izan, Frantzia-ko erregeek Berant Erdi Aroan lurraldez eta aginte-antolamenduz Monarkia absoluturako urrats handiak eman zituzten. Hiru zutabe nagusi izan zituen batasun-projektu politiko hark:

1. Zerga iraunkorrak.
2. Lurraldeen baterakuntza
3. Estatuaren erakundeztapena

INGALATERRA EUSKAL HERRIAN nagusi zenean Frantzia hemendik urrun zegoen (1180). Lapurdiko Erregeak Ingalaterrakoak ziren. Frantziako lurraldeak ez ziren oraindik mugakide, eta Hexagonoaren parte handi bat Koroa ingelesaren eskuetan zegoen. Mapan ikus daiteke zer zen Errege ingelesarena, zer frantsesarena.

* 1. Monarkiaren oinarri ekonomikoa

Mende ainitz pasa zen, frantsesak zergak ordaintzen ikasi arte: "Erregek --esaten zen-- beretik bizi behar du". Erdi Aroaren azkenetan sortu zen Monarkiak asmatutako zerga-bilketarako sistema. Horixe izango da Erregetzaren baliabiderik onena.

Zerga iraunkorrak Ehun Urteko Gerratean (1337-1453) sortzen dira, etengabeko gerrate hartan premiazkoa bait zen armagizonak iraunkorki mantentzea: dirua eskatzen zuen horrek. Diru-bilketa hau zergatan egiten du Erregeak.



Berrikuntza hau XIII. mendearen azken urteetan hasi zen. 134lean gatzaren salmenta erret monopolio bihurtzen da. Ez da ahantzi behar, gatza zela janariak (arraina, okela, etab.) ondu eta gordetzeko ongarri premiatsuena. Laster beste hainbeste egingo da tabako eta pospoloekin ere. Akitania Printze Beltzaren mehatxupean aurkitzean, Languedoïl-eko Estatuek (Legebiltzarrek, alegia) onartu egingo diote Erregeri (1356) "gabela" hau eta hirietarako salgaien ate-zerga.

Zergak biltzean, ordea, dirua ezezik oso garrantzizko beste zerbait lortzen du Erregeak: Estatuek "aukeratutako" zergariak erret ofizial bihurtzea. Handik aurrera, zerga-biltzaile izateko, Erregeri erosi beharko zaio **ofizioa**, berau irabazbide desiragarri bait zen zergariarentzat ere.

EHUN URTEKO GERRATEA (1337-1453). Behin eta berriz gerrari ekinez, Ingalaterrak eta Frantziak kontinentean elkarri lurrak irabazi nahirik egindako gudateei deitzen zaie honela. Hondamendi handien ondoren, Frantziako Erregea nagusitu zen Hexagonoaren hegoaldean eta euskal Iparraldean ere.



Hegoaldeko Languedoc-en, alderantziz, ez zuen eskakizun hark erraztasun bera aurkitu: zergapean erori aurretik herriak aurpegi eman zion eskeari. Honelakorik gertatu zenean, ingelesen kontra bildutako armagizonak bidaliko ditu Koroak menpeko erreboltatuak armaz zentzatzeko.

Erreterrietan ez bezala, Languedoc-en lehendik ere jaun-zergak eta hamarrenak ordaindu beharra zuten. Arrazoizkoa eta gehiago zen, beraz, erret asmoaren kontrakorik piztea. Baina kontrako hau ez zen Hegoaldekoa bakarrik izan: XVI-XVII. mendeetan, herritar matxinadarik franko ezagutuko da Frantziako Erreinuan, zerga hauen kontra. Baina, Erregeak ez du atzera ia inoiz egingo bere eskakizunetan.

Hau dena gogortu baizik ez zen egingo XVII. mendean, Luis XIV.aren gerrateek zituzten eskakizun ekonomikoen arabera. Estatuaren euskarri sendoena zerga-sistema berria gertatu zen.



JOANA ARKeko (1412-1431). Ehun Urteko Gerratean, Frantziako Koroaren interesak, armaz ezezik fedez eta ideologiaz ere defendatu ziren. Abertzaletasun frantsesak Joana-gan aurkitu izan du ingelesen kontrako aberriaren ahotsa. Ingelesek, harrapatu zutenean, sutara eman zuten Joana Arkeko neskatila. Hemen ondoren irakur daiteke santa honen eskutitz politiko bat.

* 2. Monarkiaren lurraldeak

Bere burua "Francia Occidentalis" (=Frankerri Mendebaldarra, alegia) bezala izendatzen zen Parise inguruko Erreinu txikiak ez zezakeen X. mendearen azkenetan pentsa bere barrutia, denborarekin, inguru guztietara nola zabalduko zen.

Erregearen aginterria Orléans-en eta Parise-n artean mugatzen zen orduan. Hegoaldeko printzeek ez zuten erreinu hura aintzakotzat hartu ere egiten, eta Normandia-ko dukerriak, Ingalaterra-ra zabalduz erreinu bihurtu zenetik (1066), Frantzia-ko Erreinuari ez zion men egiten. Burgun-

Burgundia eta Frantzia

Joana Ark-ekok Burgundia-ko Erregeri egindako eskutitz batetik (1429) jasotzen dugu pasarte hau. Ikus daitekeenez, Joanak ere (Frantzia-ko erreinu-abertzaletasunaren eredu distiratsua bera izanarren) Burgundia beste Estatu bat bezala ikusten zuen: Frantzia ez zen lurraldetzat zeukan:

"Printze Garai eta Agurgarria, Burgundia-ko Duke jauna: Joana Dontzeila honek, Zeruko ene Errege, Jaun justu eta ahalguztidunaren izenean hauxe errekeritzen dizut:

..../...

.../...

Frantzia-ko Erregek eta biok egin dezazuela Bake on eta irmoa, luzarorako. Barka ezazue elkar bihotz onez, osorik, kristau zintzoek egin behar duten gisan, eta gerrarik egin nahi baduzue, zoazte mairuen kontra. Burgundia-ko Printzea: ahal dudan apalenik, eskatzen, erregutzen eta errekeritzen dizut: ez zaitez guduka Frantzia-ko erreinu santuaren aurka, eta bil itzazu zure arma-gizonak Erreinu santu honetako hiri eta gotorlekuetatik at".

dia-k eta Akitania-k ere norberak bere gisara jokatzeko askatasun bera hartu zuten.

Bi mende luze (1108-1337), Ehun Urteko Gerratea (1337-1453) eta beronen ondokoak beharko dira Hexagonoko lurralde baten izena, "Frantzia", gainerako denei ezartzeko. Hexagono-ko beste aginterrientzak, atzerria zen "Frantzia" hura.

Lurraldeak aginte bakar baten menpera ekartzeko, ez zen egon, noski, inolako aurreplangintzarik; egokierak sortu ala, aldian aldiko etsairik arriskugarrienei erasoz, lortu zen lurraldeak biltzea. Haien heriotzak, familiarteko liskarrak edo, behar zenetan, herejiak emango diote aitzakia eta aukera horretarako. Hexagonoa puzzle handi eta nahasi bat bezala osatuz doa erregealdi batetik bestera.



HERBEHEREAK ETA BURGUNDIA

XV. mendean, Burgundia-ko dukeek Estatu aberats eta ongi bildua jaso zuten Europa-ren erdi-erdian. Burgundia eta Herbehereak ziren dukerriaren bihotza, tartean Franko-konterria, Lorena, Luxemburg eta abar zirela. Garaiko Europa-n, lurralderik aberatsena zen, eta egiazki Estatu independente bat. Karlos Ausarta (1476- 77), ordea, suitzarrek garaitu zuten (1476) lehenik, eta Nancy-ko guduanhil zen berehala (1477). Ondoko banakuntzan, Luis XI. frantsesak Burgundian feuderri zituenak hartu zituen, eta gainerakoa Maximilian Austriakoren eskuetara pasa zen eta, geroago, Karlos Bostgarrenak jaso zituen herentziatan.

Ikus, Joana Ark-ekoren eskutitzean, garaikoek aintzakotzat nola hartzen zuten dukerri hau.

Lurralderik nagusienak: 5. Utrecht, 6. Holanda, 8. Brabante, 10. Flandes, 12. Artois, 16. Luxemburg, 21. Lorena, 22. Burgundia, 23. Franko-Konterria, 24. Altsazia.

Ingalaterra-ko Erregea zen "Frantzia"ren arerioetan beldurgarriena, eta arma bidez bortizki erantzungo diete Errege frantsesek haren eraso eta desleialtasunei. 1328an Guiena bakarrik geratzen zen, Hexagono barnean, Ingalaterra-ko feuderri bezala. Baina ez zen, noski, Ingalaterra-ko Errege hura bakarrik Frantzia-ko Erregearen eskumenetik kanpo zegoena. Hexagonoko hegoaldea, hau da, bere nortasun eta historiagatik Languedoïl-i kontrajarrita agertzen zena, **Okzitania** alegia, Gurutzada gogor batez eskuratu zuen Languedoïl-eko Erregeak (Muret-eko gudua, 1213), eta San Luis IX.a hiltzean Koroapean egongo da hura.

Ekialdea zen Frantzia-ko Erregearen zabal-nahiari hesia ezartzen zion beste mugaldea: Burgundia-ko Dukerria. Luis XI.aren (1461-1483) ahaleginak lurralde hura irabaztera zuzenduko dira, helburuak lortzeko armaz eta maltzurkeriaz jokatuz. Errege honek berak osatuko du hegoaldea, Probentza irabaziz.

Baina Aro Modernoaren atarian, Hexagonoari atal handi bat falta zitzaion: Bretainia, ipar-mendebaldean. Hau biltzea, armen mehatxuekin eta ezkontza bidez egin zen, Karlos VIII.aren (1483-1498) erregealdian.

Une historiko honetara iristean, Frantzia-ko Erreinuak mapetan ikusi ohi dugun "irudi geografikoa" egin samartua du, nahiz eta oraindik ekialdean hainbat eskualde mugetatik kanpo geratu, eta, hegoaldean, berdin Rosselló (Katalunian) eta Nafarroa Beherea.

Bretainia: Ezkon-politika

Frantzia-ko Karlos VIII.-aren eta Bretainia-ko Ane-ren artean ezkont-hitzarmen hau sinatu zen, 1491n, Britainia-ko dukerria Frantzia-ko Erreinuari lotuz:

"Orainartean gerraz eta liskarrez hain aldenduta izan diren lurralde hauen bake eta soseguagatik, eta gure jaun Erregek ezkontza honekin Andere horri erakusten dion ohoreagatik, honek bere eta ondokoen izenean hitzarmen hau sinatzen du:

Ezkontzaren kausaz eta arrazoiz, eta Erregeren fagoretan, Ane-k Jaun horri eta berorren ondoko Frantzia-ko Erregeei dohaintza bezala herentziatan eman eta uzten dizkio dituenak oro, gero testamentuz nahiz bestelako erabakiz atzera egiterik ez duela aitortuz: Honela, Britainia-ko dukerri eta printzerrian aipatutako Andereak dituen eskubide bakoitza eta denak, ondasun, ukantza, izen, arrazoi, ekintza eta betebeharrak oro haren eskuetan jartzen ditu.

(DOM MORICE: ***Preuves à l'histoire ecclésiastique et civile de Bretagne****)*

* 3. Estatuaren tresneria berria

Lurraldeak irabaztearekin batera, Monarkiak Estatuaren aginte-tresneria eratu eta indartu behar zuen: fiskoak, lurralde ezberdinetatik jaso zitzakeen zergekin, eman behar zituen Estatuaren funtzionariak mantentzeko baliabide ekonomikoak: gizarte haren administrazioa eraman, menpekoei justizia partitu, gizartearen asmoak gidatu, eta beste eginkizunak betetzeko erabat premiazkoa zen herriarengandik bildutako dirua.

Koroak xede garbia izango du XIX. mendera arte: Estatuaren gain duen nagusitasuna antolatzea. Bailiak eta seneskaliak eratuko dira lurralde ezberdinak gobernatzeko eta erret justizia menpekoei eskaintzeko. Parisen geroz eta indartsuagoa izanen da **Erret Kontseilua** eta beronen luzapen gisa **Pariseko Parlamentua.**

Frantzia (1440-1589)
LURRALDE-BATERAKUNTZA

XV. mendearen erdialdean, Monarkia frantsesaren lurraldeak harrigarriro txikiak ziren. Loira-iparraldearen gehiena burgundiarren eta ingelesen eskuetan zegoen 1430ean, eta hegoaldean ere erret domeinua lurraldearen erdia baino gutxiago zen. Normandia, Gaskoinia eta beste lurralde ingelesak bereganatzean osatu zuen Karlos VII.ak bere erreinuaren luze-zabala. Hala ere, Erregearen agintepe zuzeneko lurraldea aski txikia zen. Ondoko mendean (1477-1589), diplomazia (ezkontza) eta gerren bidez eskuratuko ditu Frantzia-ko Erreinuak sekula bereak izangabeko lurralde berriak ere: Britainia (1491), Borbon (1527), Verdun, Metz (1552). Nafarroako Enrike, Frantziako Errege bilakatzean (1589), erret batasun batean elkartzen dira bi Erreinuak.



Erreinuko baliabide guztietatik aterako du Monarkiak probetxu onik: baso, bide-zerga eta jaun-eskubideetatik... Hark egingo du txanponketa, erret ofizio estimagarriak hark banatuko ditu, etab.

Karlos VII.arekin (1422-61) jaiotzen da **Estatu moderno, burokratiko eta zentralizatzailea** Frantzia-ko erreinuan. Erregearen beraren erreterrian ezagutzen ziren egitura administratiboak irabazi diren beste lurraldeetara zabalduko dira. Justiziarako Parlamentu edo gorteak ezarriko ditu Erregeak Languedoc-en (Montpellier, 1439; Tolosa 1443) eta beste eskualdeetan. Zuzenbide izkribatuari lehentasuna emanez, ohiturak ordenantzatan idatziko dira, erret administrazioak bere lanerako tresna erosoagorik izan dezan. Erret Etxetik, sa-murragoa da, gainera, testu idatziak "lantzea", herritar usario idatzigabeak maneiatzea baino.

Zerga-bilketa (**taila**) ere Erregearen ardurape bakarrean dago, 1439az geroztik. XV. mendearen azkenetan **erret funtzionariak** 5.000 bat lagun dira, baina mende-erdi bat geroago 12.000, eta XVI.a bukatzean 50.000 (biztanleriaren % 3).

Ofizio publiko hauek saldu egiten ziren (1522tik aurrera), eta menpeko ez-nobleentzat bizimodu-aldaketarako gora-biderik irekiena ofizio hauek erostea gertatu zen Erregimen Zaharrean. Ofizioa zen sozialki igotzeko aukerarik erosoena, eta Erreinuko Haziendarako irabazirik garbienetakoa ere (Luis XIII.aren garaian sarrera guztietatik % 50 salmenta hauena izateraino).

Erregetzaren ahulaldietan beren gisara iharduteko joera dute ofiziodun hauek; horregatik,

Erret ordenantzak

50. Artikulua: Hildakoak

Kapituluek, monastegiek eta eliz arduradunek ezar ditzatela erregistroetan benefiziodunen sepulturen frogak; lege-fedegarri izango dira erregistro horiek; eman dezatela, gainera, heriotze-unearen froga. Horrela, prozesuan judiziorako heriotze-unea jakin beharko denetan baliagarri izango da albiste hori.

51. Artikulua: Jaioak

Bataioak ere erregistratu egingo dira, froga gisa: jaiotzaren garaia eta ordua emango dira bertan, eta gero erregistro horretatik jakin ahal izango dugu bakoitzaren adin-nagusitasuna.

111. Artikulua: Hizkuntza

Mandatuetako hitz latinoen ulertzapenaz sarritan eztabaidak sortu ohi direnez, hemendik aurrera hau da nahi dugu-na: mandatu, erregistro, inkesta, kontratu, komisio, hilburuko eta beste edozein justizi ekintza ama-hizkuntza frantsesez, eta ez bestez, eman, erregistra eta egin dakizkiela alderdiei.

(VILLERS-COTTERÊTS. 1539)

BRETOIERA GALTZEN

Ordenantzek (1539) ez zuten agindu, administrazioa "frantsesez" (oïl hizkuntzaz) eramatekorik baina praktikan --latina utzi ondoren-- Pariseko Erregeren hizkuntza hartu zen, gainerakoen kaltetan. Bretoieraren kasua adibide bat da hemen. Lurralde-batasuna ezezik, hizkuntz batasuna ere bilatzen zuen Koroak.

Estatuen hizkuntz politikak indar handia izan ohi du, hiztunek beren hizkuntza gorde edo gal dezaten. Ez da hori norberaren aukera librea bakarrik izaten; ikusi besterik ez dago:

A. Estatuak beretzat hartzen duen hizkuntza, ofizialtasun hori praktikatzen bada behintzat, aurrera irten eta zabaldu egiten da.

B. Baina Estatuak laguntzarik ematen ez dien hizkuntzak edo itxuraz bakarrik laguntza ematen zaienak, atzera egiten dute.

Hemen ikus daiteke britainierak nola galdu duen, frantsesak (**oïl** hizkuntzak) bultzata, lurralde handi bat.



bizkorraldietan (Richelieu edo Luis XIV.arekin, adibidez, XVII. mendean) **erret ikuskatzaileak** eratuko dira: hau da, Erregearen izenean ofiziodunen lana ikuskatzera joango direnak eta, azkenik, joan ezezik, tokian tokiko erret ordezkari zuzen bezala gelditu ere egingo direnak. "Intendants de police, justice et finances" diren ordezkari hauen bidez moldatzen da, beraz, Estatu zentralizatua.



ZERGA-BILTZAILEA. "Arazo zibilen burubidea" deituriko liburutik hartuta dago irudia (Anbere, 1557). Estatu modernoaren oinarri nagusiena zerga--bilketan datza, dirurik gabe ez bait dago ez gerra, ez politika boteretsurik. Ongi ulertu zuten hori Pizkundeko Monarkia handiek.

Hau dena osatzeko, lurralde guztietara zabalduz doan Estatu-erakundearekin batera Monarkian indartsua den beste aginte-elkartea bereganatzen du Koroak: **Eliza.** Bolonia-ko konkordatuaren bidez (1516), eliz benefizio handietako arduradunen izendapena Frantzisko I.aren esku geratzen da, eta ondoko belaunaldietan areagotu baizik ez da egingo erret eskubide hau.

Botere-bilketa nekagaitz honen prozesuaren ondorioz, Monarkia Absolutua jabetuko da Frantzia-ko gizarteaz. Baina, horretaz, aurrerago mintzatuko gara.



BATASUNIK BEHAR OTE? Erregeek lurraldeen bategitea nahi bazuten ere, asmo hori ez zen gogoz ikusten gizarteko hainbat lekutan. "Generalitateko Egunkaria" deituan hitzok idatzi zituen, adibidez, funtzionari katalan ez-ezagun batek: "Ffora castellans e gascons" (=kanpora gaztelau eta kaskoinak). 1461eko martxoaren 27koa da eskuizkribu hau, gaztelau eta kaskoinak Barcelona-tik bota zituzten egunekoa.

III. PENINTSULA IBERIARRA

Hispania, Sefarad edo **al-Andalus**: Peninsula batberaren hiru izen ezberdin baizik ez dira, latinez, hebraieraz nahiz arabieraz. Baina izen bakoitzaren pean Penintsula horretako gizarteaz ikusmolde kultural eta politiko bana ezkutatzen dira.

Aspaldiko aniztasun etno-ideologiko horren aurka (mende luzetan elkarrekin bizi izan ziren islamdar, judu eta kristauak, Penintsulan) egindako batasunaz hitzegin behar dugu orain. Bestalde, ohizko erakunde politiko ezberdinak lurralde-baterakuntzan ere nola gorde ziren ikusiko dugu, eta inoiz herrien eta nazioarteko eskubideen kontra egindakoak ere bai.

"Beste" batasuna?
ESPAINIA = GAZTELA + PORTUGAL

"Gerratearen azkenak erabakiko zuen, zalantzarik gabe, etorkizunean Espainia-ren norabide politikoa. Joana (Enrike IV.aren ustezko alaba) garaile ateratzen baldin bazen, Gaztelaren etorkizuna Portugal-i lotuko zitzaion eta, ondoriobidez, itsasalde atlantikorantz joango ziren haren interesak ere. Alderantziz, Fernando eta Isabel-en garaitzapenak, ***Espainia*** *hitzak Gaztella eta Aragoa esan nahiko zuen, eta batasun honen ondorioz Mediterraneoko interes aragoarrekin lotuko zen, hertsiki, Gaztela". (J.H.ELLIOTT)*







BATASUNEAN GALTZAILEAK

Erreinuen, eta Erreinuetako dinastia eta talde sozial ezberdinen interesek gerra eta bortxakeria handiak piztu zituzten boterearen bila eta bakearen kontra, XV. mendean Penintsula Iberiarrean. Azkenean, Errege Katolikoen abildade eta indar armatua nagusitu zen guztien gainetik. Baina orduko galtzaileak ezin dira ahantzi:

1) **Karlos**, Biana-ko Printzea (1421-61): Nafarroa, Aragoa, Katalunia eta Napoli-ko errege ere izan zitekeena eta agian Aragoa-ko Fernandoren kaltetan Gaztela-ko Isabel printzesarekin ezkontzekoa.

2) **Pedro** Portugal-ekoa Joan II.aren kontra Katalunia-ko errege aldarrikatua, gazterik hil zen.

3) **Joana**, "la Beltraneja" Enrike IV.aren alaba itxura guztiz. Isabel-ek eta Gorteek oinordekotzat aitortu zuten (1462); ondoko gerrate zibilean, Portugal-eko Alfontso V.arekin ezkondu zen (1475), Gaztela-Portugalen arteko beste batasun moldea ahalbideratuz. Gerratean eta politikan, Isabel-ek aurrea hartu zion, Fernandorekin ezkondu (1469) eta gerra irabaziz (1479). Heriotza arte (1530) erreginatzat aitortu zuen bere burua, argazkiak dioen bezala ("Yo la Reyna").

* 1. Lurraldeen bilketa

Gaur egun ezagutzen dugun Penintsulako geografia politiko honetara iritsi aurretik, gorabehera handiko historia izan du **Hispania** bezala izenda dezakegun lurralde honek.

Oso denbora laburrean ezik (1580-1640), Hispaniak ez du batasun politiko burujaberik eza-

gutu: a) Orain bi mila urte, Erromatarrek, eman zioten nolabait batasuna, baina haien aginte-kokagunea kanpoan, Erroma-ko hirian, zegoen, ez Hispania-n. b) Geroago, bisigotuek, ostera, ezin izan zuten, Toledo-tik, Penintsula osorik menperatu. c) Erdi Aroan, Birkonkistaren zazpi mendeak behar izan ziren Erreinuak elkarretaratzeko, eta d) ahalegin hori bukatu aurretik ere, Portugal-ek hartuta zuen bere bide independente eta burujabea.

Penintsularen baterakuntza politikoa, gorabehera historiko handiak ezagutu dituen zerbait da, hortaz. Xede horren atzetik Gaztela-ko Monarkia saiatu zen berezikiago, beste eskualdeak berera ekarriz eta, besterik ezinean, **erret batasun pertsonalak** moldatuz. Gainerako Erreinuetan, komunitate politikoek zituzten helmugak oso bestela agertzen dira. Ez dago gogoratu besterik: Aragoa-n Mediterraneo-aren deia, Portugal-en Aurkikundeak, etab.

Kanpotiko erasoz, bisigotuen erreinuak erabat lur jo zuenean (711-19), al-Andalus-en batasuna, kasik osoa, berehala egin zen: arabiarrek Penintsula ia osorik hartu zuten beren menpe, hamar urte eskasetan.

Baina erabat menperatugabeko alde ahulenetatik hasi zen batasun islamdarra urratzen: Erreinu kristauek, zabaldu eta elkartu ala, egin zuten Penintsularen bigarren batasun ia osoa: Errege Katolikoena, alegia. Ibilbide historiko honen abiapuntuak hiru izan ziren, batez ere:

1. Ihesi zetozen noble bisigotuen iparraldeko aginterriak: Asturietako indargunea.

2. Bisigotuen kontra lehendik ere inde-



ISABEL, FERNANDO: ERREGE KATOLIKOAK. Ezkontzaz (1469), gerra zibilaren ondoren, hauengan elkartu ziren Penintsulako bi Erreinu handi, Gaztela eta Aragoa. Batasun hori iraunkorra gertatu zen, eta ondoko arma-garaipenek osatua (Granada, Nafarroa), baina Portugal aparte geratu zen orduan.



Aginte osoagoaren egarria

"Aragoa ez da gurea; premiazkoa da berriz ere hura konkistatzera joatea", esaten omen zion ***Erregina Katolikoak*** *bere senarrari, hangoen lege-abantaila eta askatasunaz gogaituta. Hala kontatzen du Francesco Guicciardini Florentzia-ko enbaxadariak.*

Beste behin, Isabel alaba lehenjaiotzat aitortzeko aragoarrek eragozpenak jartzen zituztela ikusirik, hala zioen Erreginak: "Hobe genuke aragoar horiek arma bidez menperatuko bagenitu, eta ez ibili beti haien Gorteen arrokeria jasaten". (SOLDEVILA, F.: ***Hist. de Catalunya****)*



ERREGE KATOLIKOAK GRANADAn SARTZEN (1492). Zazpi mende t'erdiko historia zuten Peninsulan islamdarrek. Haien azken Erreinu independentea Granada zen. Gaztelak Erdi Aroko pentsamolde politiko pluralista galdu ala, geroz eta zailago gertatu zen egoera politikoa. Nazioarteko gerra honi ekin zioten, beraz, Errege Katolikoek, Erreinu mairuaren kontra diplomazia eta armak elkartuz. Hortik aurrera haragi bizitan jarri zen Penintsulan beste gatazka nazional eta sozial bat, moriskoena.

pendentzia gorde zuten herriak: Mendialdeko euskaldunak bereziki, Nafarroatik hasita.

3. Geroxeago, frankoek lagunduz indarberritu zen Katalunia Zaharra.

Abiapuntu horietatik hasita sortuko ziren ondoko batasun politikoak; hauek lortzeko hiru irteera-molde aurkituko dira bereziki:

a) **Armazko** zabalkundea, hau da, konkista armatua: Hegoalderako erasoan irabazitako lurraldeak edo Penintsulatik kanpokoak horrela eskuratzen dira.

b) Paradoxaz bada ere, erregeek egin zituzten oinordekotzaren **partiketak**: Nafarroatik Gaztela eta Aragoa (1035) jaioko dira.

c) Ezkontzazko edo **itunbidezko** lurralde-batasunak, halanola Gaztela-León (1037, 1072-1157, 1230), Aragoa-Katalunia (1137), Gipuzkoa (1200), Bizkaia (1200), Araba (1332).

Batasun eta konkista horien ondoren, XV. mendearen azkenetan, Errege Katolikoen berreraketa politikoaren aurretik, ikasgaiaren hasierako mapan ikus daitekeen gisan ikusten dugu Penintsula: Gaztela da lurralderik luze-zabalena duena, Aragoa dator ondoren; Portugal ez da ahantzi behar, eta lurrez eta bizilagunez guztiz txikiagoak diren Nafarroa eta Granada dauzkagu, gainera.

Errege Katolikoen politika, mapa hori aldatzera zuzenduko da, gogoz edo erasoz. Lehen-lehenik, ezkontideetatik bakoitzak bere Erreinua ekarriko du: Isabel-ek Gaztela (1474) eta Fernando-k, Aragoa (1479).

Ondoren, armaz hartuko dira bi Erreinu txikiak: mairuen Granada, gerrate nekagarri baten bidez, eta nafarren Erreinua, eraso armatu labur baten ondoren (1512). Horrela, Portugal izango da Errege Katolikoek ezarritako lurralde-baterakuntza horretatik independente geratuko den bakarra. Orduan osatu zen, hurrengo mendeetarako, XIII.etik kasik aldatzeke zegoen Penintsulako mapa politikoa. Lurralde-baterakuntza honen esanahi politikoa berehala aztertuko dugu.

Penintsulako lurraldeen-baterakuntza hau ez zen halabeharrez edo berez gertatu, ezta osorik lortu ere: Granada-k hamar urtez eutsi zion erasoari, bere independentzia gordetzeko. Nafarroa, bi zatitan banatu zen, azkenik Nafarroa Behereak Erreinu independente bezala segiz. Portugal, ostera, finkatua geratuko da bere mugetan.

Nafarroaren konkista (1512)

"Italia-ko gerretan zaildutako armada handi eta gogortu hark, Alba-ko dukearen armagizonek alegia, Nafarroaz jabetzeko ez zuten izan oztopo larririk. Uztailaren 21ean Huarte-Arakil-en ziren abangoardiak (...). Joanes Erregek ez zuen deus eskaintzekorik, Errege Katolikoa bait zen indarra zuena eta honek nafarren artean ere bazuen laguntzarik. (...).

Arma-ekintzak bizkor bete ziren, Gipuzkoan eta Aragoa-n indar berriak bildu ondoren. Abuztuaren 10ean hartu zen Irunberri. 15ean, Logroño-ra hurbildu zen Fernando, eta Bianan eta Lizarran (nahiz eta hemengo gazteluak oraindik bereari eutsi zenbait astetan) goardizioak jarri ziren berehala. Irailaren 3an menperatu zen Erronkari, eta 9an Tutera. Egiaz, menperatutzat eman zitekeen Nafarroa osoa".

*(LACARRA J.M. **Hist. Navarra**)*

* 2. Monarkia federala eta pluralista

Honela, mendez mende batutako Estatu hauek guztiok bakoitzaren barneko aginte-piramidearen gailurrean Errege-Erregina berak izan zituzten. Hori zen lortutako batasuna, ez gehiago. Ikus dezagun, ba, Koroape berean denak bilduta egoteak zer esan nahi zuen.

Gaztela-k, Aragoa-k eta Nafarroa-k beren andolamendu politiko bereziak osorik gorde zituzten. Alde horretatik, ez zen inolako aldakuntzarik izan. Penintsulako antolamendu politikoak jite **federal** bat zuen. Granada-n, lurralde islamdar konkistatua izan arren, mairuen lege, erlijio, usario, jazkera eta hizkuntza errespetatu egin ziren,

Gaztela eta Aragoa

"Gaztela eta Aragoa elkartzean, bi Erreinuetako erakunde propioetatik bat ere ez zen aldatu. Bien arteko muga ere mugazainek zainduta zegoen, eta pasatzean muga-zerga pagarazten zieten bidariei. Gaztelauak, legez atzerritarrak ziren Aragoa-n eta alderantziz; horregatik, ez zezaketen kargurik har ondoko erreinuan. Gorteek, bakoitza bere aldetik bilduz segi zuten; moneta ere ezberdina zen eta legeak ere bai". *(DOMINGUEZ ORTIZ, A.)*

"Batasuna bera ere dinastikoa zen huts-hutsik: ez zen hura bi herrien batasuna, bi Erret Etxeena baizik. Aurrerantzean, Gaztelak eta Aragoak Errege-Erregina berak izateaz aparte, teorian ez zen deus aldatzen ez egituretan, ez eta gobernukeratan ere".
(J.H.ELLIOTT)

Juduen lege-egoera berria

Hona nola deskribatzen duen XV. mendeko judu espainiar batek bere herritarrei legez ezarri zitzaien bizimodu gogorra:

"Jantzi arraroak janztera behartu gintuzten. Eragotzi egin ziguten salerosketan ibiltzea, nekazaritzan nahiz artisautzan aritzea. Bizarra luze uztera bortxatu gintuzten, eta ilea luze eramatera. Zetazko jantzien ordez, arlote jantzita ibiltzera behartu gintuzten, jendearen iseka gure gain ekartzeraino. Bizarrik kendu gabe, izaki galduak ematen genuen. Nornahiri ikusten zitzaion aurpegian, jasaten zuen gosea". *(KAMEN,H.)*

hasieran. Erreinu kristauetan, zer esanik ez, erabat gorde ziren ohizko goberna-moldeak.

Alde honetatik, Errege Katolikoen Erreinuetako eredu politikoa, Europa-ko "monarkia berrien" eredu teorikotik oso urrun dagoela esan behar da. Erreinu bakoitza Penintsulan aparteko bere barrutian bizi izan zen, eta Isabel Erreginaren testamentuak argi azpimarratu zuen bakoitzaren berezitasuna. Bestelakorik da, Erreginak hori nahi zuen ala ez.

Bide horretik, Ameriketako lurraldeak, adibidez, Gaztela-renak ziren, eta ez Aragoa edo Espainiarenak. Zentzu honetan, ez zegoen, egon, Espainiarik, Espainia-ko Erreinuak baizik.

1492an, Amerika aurkitu eta Granada konkistatu zen urte hartan, Penintsulako gizartea **pluralista** da, erlijioz, kulturaz, hizkuntzaz eta politika antolamenduz: juduek eta musulmanek beren erlijio-kulturak dituzte oraindik, katalanek eta gaztelauek beren tradizio politiko eta linguistikoak administrazioetan; Erreinuetako Gorteak eta Batzarrak, bakoitzak bere gisara biltzen ditu... Kanporako politikak ere joera ezberdinekoak dira: Gaztela-k, itsas bide aurkitu berriak beretzat gordez, Ameriketara eta Atlantikora jotzen du. Aragoa-k, berriz, Mediterraneo-ra, Erdi Aroko tradizioari segiz, baina baita Gaztela-ko indarrei ateak irekiz ere (Italia-n eta Ipar Afrika-n).

Erreinuen barne-konstituzio ezberdinek edo halako pluralismo zabalak ez dute esan nahi, ordea, Errege Katolikoek, Isabel eta Fernando-k, beren erret agintea indarberritzeko ahaleginik egin ez zutenik. Izan zuten, horretarako, aukera-

rik, eta etekin ona atera zioten egokiera historiko bakoitzari.

*** 3. Koroapeko Estatuen erakundeztapena**

Lurraldeak batasun batean biltzea garrantzizkoa izan arren, bazegoen bestelako beharrik ere Monarkiaren garaipen eta zabalkunde hartan.

Izan ere, ez da ahantzi behar XV. mendean, krisialdi eta gerrate zibil odoltsuen ondoren, bake sozialaren atarian zeudela Errege Katolikoak, Erretaulkira igotzean. Katalunia-rako lortu da antolamendu sozial berria, nekazarien egoera

Moriskoak, Espainian

"Espainia mairua (...), leku batzutan, zazpi mendez egon zen musulmanen eskuetan. Mairuak, beraz, kristauak eta juduak bezalaxe, Espainiaren egiturakoak ziren. (...). Baina Birkonkistak aldatu egin zuen hau dena. (...). Granada 1492an erori zen. Botere politiko musulmana galtzeak, mairuen nazio-existentzia ukatzen zuen: ordutik, kristau-herri bateko minoria bihurtu ziren. Hala ere, haiek ez zuten sekula onartu kategori galtze hau. (...). 'Gu ez gara lapurtalde bat, erreinua baizik'. Amets hau ez zuten utzi nahi izan moriskoek, eta gogo horretxek eraman zituen, 1609an, arrazaren hondamendira". (KAMEN,H.)



EUSKAL HERRIKO FORUAK. Hemen euskal tradizio baten berri ematen da: Erregeek euskal "usario eta ohiturak" zinegin behar zituzten, beren erregealdiaren hasieran. Mendietaren pintura honetan Errege Katolikoa agertzen zaigu Bizkaiko Foruen juramentua egiten. Erret absolutismoarentzat muga bat zen ohitura hau.

Baionako Elizbarrutia

Baionako Elizbarrutia, Nafarroa eta Gipuzkoara ere zabaltzen zen. Lapurdi, Baigorri, Garazi eta Arberu ez ezik, Hondarribia, Pasaia eta Bortzirieta besarkatzen zituen (Bera, Lesaka, Aranatz, Igantzi eta Etxalar), Lerin eta Bertizarana eta Baztan osoa ere. Berrogei bat parrokia. Felipe II.ak eskatuta, 1566an Pio V.a Aita Santuak birmoldatu zituen elizbarrutien mugak, estatuarteko mugetara ekarriz, honela Euskal Herriaren bi mugaldeak elkarrengandik banatuz. *(GOIENETXE,E.)*

birdefinituz (Guadalupe-ko Epaia, 1486). Gaztela-ko nobleak inguratu dira Erregeen gortera. Orduan, Monarkia boterez eta lurraldez indartzearekin batera, aginte horren erakunde-tresneria birmoldatzeko egokiera suertatu zitzaien Errege-Erreginei.

Fernando-k, **Katalunia**-ko erakunde zaharrak (beharbada bere borondatearen kontra) onartu egin zituen, hango Gorteak beren hartan gordez (1480-81), ohizko sistema politikoa osorik birretsiz eta erret agintea ongi mugarrituz. Katalunia-ren bakea onarpen horren gain segurtatu zen.

Gaztela-n, alderantziz, erret aginte absolutu bati oinarriak ematen hasi ziren Errege Katolikoak. Hain zuzen, bi erreinuak erret batasunean ezik instituzioetan erabat banatuta zeudelako, posible gertatu zen biek hain bide ezberdinak hartzea.

Gaztela, erregeen morroin

"Honela (Villalar-ko guduan eta ***comunero****-en buruzagiak heriotzera emanez, 1521) izan zen garaitua gaztelauen protesta. Hiriek orduantxe galdu zuten beren botere politiko osoa. Harez gero, Gaztela Erregeren esanetara geratu zen erabat; honek, bere borondatearen edo aldartearen arabera egin eta desegiten ditu gauzak. Herri gaztelauak (ez bait zuen inoiz koroarekin batean legegintzan betean parte hartu), orain ahalmen hau osorik galtzen du; zerga-kontrolean ere eskuharmen efikazik gabe geratzen da herria".*
(SOLDEVILA,F.)

Nobleek sortutako anarkia gainditzeko, udalen eta Koroaren arteko lankidetza erabaki zen Gaztela-ko Gorteetan (Madrigal, 1476): "Hermandadea" deituriko indar armatua Koroaren eskuetatik egongo zen handik aurrera. Justizi eta polizi betekizunak zituen Hermandadeak, batez ere bide-lapurren kontra, eta bizitza laburra izan bazuen ere (1486), lagungarri ona gertatu zen Erregeentzat.

Hemen, gogoratzekoa da bereziki Toledo-ko Gorteen lana (1480), berauek erakundeztatu bait zuten Gaztela-ko Monarkia berritua. Gaztelako Erregearen ondoko lehen erakundea **Erret Kontseilua** izango zen: izendapenak egiteko, mesedeak eskaintzeko, epaitegi bezala eta tokian tokiko gobernaera zaintzeko Erakundea zen hau. Erreinuko



GAZTELA, ERREGEEN MENPE. Errege Katolikoen eta Karlos V.aren politiken ondorioz, Gaztelako herriak ere galdu egin zituen (zeuzkanetan ere) bere botere-tresnak, beti ere Koroaren probetxutan eta politika handinahi eta gerrazale baten ildotik. Garaiko marrazki honetan ikus daiteke Burgos-ko bizilagun hau: nekazariek eraman zuten, sistema berrian ere, zerga-zama pisuena.

handiki aberatsek ez zuten bertan eskurik, Erregek izendatutako konfidantzazkoek ezik; honela, ba, nobleek galdu egin zuten garai batetako aginte politiko hura eta familiatik jatorriz zegokien botererik gabe geratu ziren.

Erret burokrazia bat garatzen hasten da Erakunde hauen barnean: Erret Kontseiluaren ondoan beronen **Erret Idazkariak** agertu ziren, hau da, Kontseiluaren eta Erregearen beraren artean tarteko zirenak. Hauek, geroz eta boteretsuago izango dira.

Erreinuetan justizia egiteko **chancilleria** deitutako epaitegiak sortu ziren. Behe-epaitegi guztietatik hauetara jo zitekeen gora. **Erret gorentasunaren** izenean (=preeminencia real), esku osoa zuen Erregeak menpekoen artean justizia egiteko. Hori zen Errege Katolikoek beti defendatu zutena.

Baina, hala ere, ez da pentsatu behar Erregeek beste klase berri bati (burgesiari, adibidez) lagundu nahi ziotenik. Monarkiak Koroaren interesak eta indarra zaindu nahi zituen; lehenago nobleziarekin egin zuen bezalatsu, Gorteen nahiz udalen indarrak ez zituen gehiegi lagundu nahi.

Inkisizioa, monarki euskarri

"Inkisizioaz diharduten libururik gehienek eta gaurregun Espainian zabalduenek, tribunal hau nazioaren funtsezko osagarri eta salbabide bezala ikusten dute.

Legendazko Errege Katoliko batzuek sortua eta urrezko aro batean jaioa izango litzateke Inkisizioa; herri erlijioso baten herentzian sakratuena zena hiru mendetan haretxek sinbolizatuko luke, beraz. (...). Errege Katolikoek erreinuan ezarritako bakeak, Austria-ko Etxeak bortxatuta emandako erlijio-batasunak, ordurarte lortu gabeko nazio-identitatea eman zioten Espainiari.

Baina urte haietako bakeak eta batasunak, XX. mendeko historilariei galdera bat utzi diete: zergatik lur jo zuen egitura hark guztiak? (...). Austriarren ***pax hispanica*** *hura ustela izan zen,barneko justizia mantetzeaz arduratu gabe bortxaz ezarritako ordena zelako". (KAMEN,H.)*



INKISIZIOAK KONDENATUAK. Monarkia absolutistek ez zuten ideia-tolerantziarik. Espainian, ideien kontrolerako, Koroaren menpeko eliz erakunde hau (Inkisizioa) erabili zuen aginteak segurantzi erakunde bezala.

Germanien kontrako zigorra (1523)

"Agermanatuen porrotak ofiziodunen indar ekonomiko eta politikoaren azkena ekarri zuen València-n, eta estamentu pribilegiatuen indartzea. Altxamenduaren ondoko errepresioa, ***comunero****-en kontratoa baino askoz gogorragoa izan zen: València-ko erreinuan 100 eta gehiago izan ziren heriotzera emanak, Mallorca hirian bakarrik beste 200 (****comunero****-etatik 23 izan ziren Gaztela-n), eta ondasunen bahiketak esan nahi zuena ahantzi gabe. Ondorio demografikoak ere oro har hondamendi latza izan ziren".*

(DURAN, E.)

Erregeek, hortaz, gizarte osoaren gainetik ikusi nahi zuten beren agintea.

Xede politiko hori lortzeko, ahalegin guztiz saiatu ziren **baliabide ekonomikoak** segurtatzen: 1474ean, Errege Katolikoak Gaztela-ko Errege-Erregina gertatzean alegia, 900.000 erreal--errenta jasotzen zen zergatan; hogeitamar urte geroago (1504), 26.000.000 ziren: "alkabala" edo salerosketen gain zihoan zerga zen iturririk emankorrena.

Erregeak bere gisara erabil zitzakeen diru horiek, eta askatasun hau benetan oinarrizkoa zen Koroarentzat, hori ongi zihoala, ez bait zuen Gorteetara zerbitzu-eske joan beharrik: "zerbitzu" deitu hau batez ere gerra-garaietan izaten zen premiazkoa, diru lagungarri bezala.

Gaztela-ko Gorteen aginpideak neurtu eta Erregetzarenak librekiago eramateko, saiatu ziren Errege Katolikoak haiekin ahalik gutxien kontatzen. Eta kontatu behar zenetarako, **Gorteak** eskutik eramatearren, zeharbidezko beste neurri batzuk hartu zituen Koroak. Hirietako ordezkariek osatzen zituzten Gorteak; hortaz, hiri haiek kontrolatuz gero, Gorteak ere errazkiago jarriko ziren Erregeen esanetara.

Hiri bizitza gidatzeko, lortu zen Gorteek hirietarako **korregidoreak** onartzea (1480); erret ordezkari bezala bidaltzen ziren haiek. Funtzionari berri hauek sortzean, bi xede lagundu ziren: udal-bizitzan erret agintea indartzea, eta Gorteetako hiri-ordezkarien borondate librea ahultzea.

Ekonomia indartuz, noblezia berengana bilduz, udaletan eskusartuz, Gorteak heziz, admi-

nistrazioa eta justizia birmoldatuz, finkatu zen Erregeen boterea Gaztelako gizartearen gain: Errege Katolikoek abildade aparte izan zuten Koroaren interesak eta komunitate politikoarenak elkartuta erakusteko.

* 4. Balioztapen historikoa

Europa-ko Monarkia handien sorkuntzan bi alde nagusi daude gogoan hartu behar ditugunak: lurralde-batasunaren arazoa eta Koroaren botere-eraketarena.

Lurralde-baterakuntza haiek **armaz** eta **diplomaziaz** lortu ziren, eta ez elkartzera eramandako herrien edo monarkia guztien borondatez. Batasunaren "borondate" politikoa, gehienetan, ezarria izan zen, indarrez bortxatua eta maiz armaz eraikia. Diplomaziak edo ezkontza egoki batek ezin zuena, armada indartsuenak lortu ohi zuen.

Prozesu historiko luze eta malkartsuen ondoren osatu zen Monarkia haiek bilatzen zuten halako baterakuntza hura; baina ez tartean ezbehar sozial eta politikorik gabe: esate baterako, Granada-ko gizarte arabiarra, azkenean, erabat desagertuko zen baterakuntza haren ondorioz. Adibide bat da hori. Luzarora, Bretainiak eta Nafarroak nortasun politiko independentea galdu egin zuten. Hegoaldeko Okzitania, Iparraldeko Languedoïl-eko projektu frantsesak irentsi zuen, etab. Herriek sufrituko zuten, Monarkiek irabaz zezaten.

Monarkiak indartu eta borobiltzeko etengabeko **gerratean** biziko da Europa XVI-XVII. men-

Frantzian frantsesez?

*Nahasia zen hizkuntz arazoa. Erreinua banatzen zuten bi hizkuntzen baitan (oïl eta oc hizkuntzetan) dialektu ugari aurkitzen zen. Elizgizonak latinez mintzatzen ziren, eta herria pikarderaz, normandieraz, burgundieraz edo gaskoinez. **Nazio** hitzak Erdi Aroan **"hizkuntza"** esan nahi zuen, eta nazio pikardiarraz hitz egiten zen, edo nazio **burgundiarraz**".*

XIII. mendearen azkenetan pentsatu zuten erregeek Estatuaren oinarritzat hizkuntza (=oïl) hartzea; hau da: menpekoek nazio bakar bat egin zezatela erabaki zuten. Harez gero, hauxe izan zen xedea: Frantzia izan zedila Estatu bakarra, nazio bakarra eta hizkuntza bakarrekoa; labur esateko: izan zedila Estatu nazional bat". (BIARD)

deetan, eta haietatik indartsuena garaile irtetean bakarrik lortuko da, aldi baterako, bakerik.

Europa osoari begira, XV-XVI. mendeetako baterakuntza haiek **oso mugatuak** eta **nolabaitekoak** izan ziren: Ekialde osoan ez ezik, Mendebaldean ere lurralde "natural" handiak geratzen dira batasunik eta aginte bateraturik lortu gabe: Italia, Alemania, adibidez.

Errenazimentuko Monarkiek sortutako "batasun naturalek" ez ziren hain jator eta iraunkorrak gertatu. Inoiz, batzuen batasuna orduantxe desegin zen lehenagotik zetorrena izan arren: Herbeheretako kasua da honelakoxea (1568). Bestalde, Ingalaterra-k ere, bere Erreinu Batua moldatzean, Irlanda bortizki zapalduz egin zuen baterakuntza.

Ustez, geografikoki "naturalagoa" eta "osoagoa" izan zitekeen baterakuntza erdi egina geratzen da inoiz: Hala nola, Penintsula Iberiarra ezin baturik, Portugal-ekiko saioaldiak (1580-1640) porrot egitean. Lurralde-baterakuntzak, aginte monarkikoaren batasuna esan nahi du, ez beti Estatuen eraberdintasunik eta, gutxiago, herrien berdintze nazionalik.

Lau Monarkia haiek egindako baterakuntzak elkarren artean **oso ezberdinak** izan ziren, eta bakoitzaren barruti barneko bazkideen kasuak ere ezberdinak dira: Irlanda-k Erreinu Batuan, edo euskal Herrialdeek Gaztela-ko Erregearekin erret baturik zituzten egoera politikoak osoki bestelakoak dira, eta bestalde, ikusi dugunez, egoera eta eboluzio ezberdinak dituzte, Monarkia berean, Aragoa-k eta Gaztela-k.

Nafarroa: Egoera politiko berria?

"Hala ere, Nafarroak ez zuen galdu bere erregimen berarizkoa: Gaztela-ko koroari eranstea Barcelona-ko Etxeko Erregeek segi izan zuten gisara egin zen, autonomia gordez (horretan, salbuespena izan zen Nafarroarena)".

(VICENS VIVES, J.)

"Erreinu hartako arazoaz arduratzeko Nafarroako Kontseilua sortu zen. Nafarroako Gorteak beren egitekoan ihardun zuten, eta Erregeekin batera legegintzan segi. Diputazio iraunkorrak ere berean segi zuen. Nafarroak bere moneta propioa mantendu zuen. Fernando-k berak ere zilarrezko errealak txanpondu zituen (...). 1513an, dukata onartu zen Nafarroan moneta-unitatetzat". *(SOLDEVILA, F.)*

Baterakuntzaren **abiada** oso bizia izango da une batzuetan: Penintsulan Errege Katolikoekin, adibidez, bukatutzat eman liteke urte gutxitan (1479-1512); baina bukaezineko lana izango du Frantzia-k mendez mende lurraldeak biltzen: Rosselló (1659) edo Korsika (1769), berandu samarreko adibideak aukeratzeko.

Erakunde-**modernotasuna** aitortu ohi zaie Pizkundeko Monarkia handiei. Izan ere, gaitasun berezia erakutsi zuten gizarte osoa aginte batbaren menpera bildu eta efikaziarik handienarekin, indar guztiak elkartuta, lanegiteko. Horri esker ere bai, XV-XX. mendeetako inperio kolonial europarrak sortuko dituzte Monarkia hauek mundu zabalean. Hala ere, esan beharra dago, efikazia beretsua erakutsi zuela Holanda-k bere Errepublika antolatzean eta munduko bere zabalkunde kolonialean.



FUNTZIONARIEN ESTATUA. Monarkia handiek lehenengo eta berezikiago Absolutismoak gero, Estatuari erakundeztapen berri eta eraginkorra eman zioten. Hortik jaio zen Estatu modernoa eta nahi bada, Estatu burokratikoa ere. XIX. mendeko karikatura prusiar honek prozesu historiko horren fruituak kritikatzen zituen.

AMAIUR (1522)

"Azken nafarrek, Amaiur eta Hondarribian eutsi zioten ahaleginari. (...). Hamar hilabetez egon zen Nafarroako ikurrina haizetara Amaiur-en. Joanes Orbara-kok, Urdazubiko Abatak, indarberritzen zituen abertzale setiatuak bere albiste eta dei abertzaleekin. (...).

Uztailaren erdialdera inguratu zen Amaiur aurrera armada gaztelau ugaria. Bestalde, agindutako laguntzak ez ziren garaiz heldu. (...). Kanoi eta minaz zuloa urratu ondoren, "Erretordea txundituta geratu zen, setiatuek nolako adore eta kemenez aurpegi ematen zuten ikustean". (...).

Azkenik, janari eta munizioak agortuta, 1522ko uztailaren 19an menpera zen gotorlekua (...). Migel Jatsuko, Xabierko jauna, San Frantziskoren anaia (bere Belaztar lagunekin) Iruñeko San Mikolas gaztelura eraman zuten. Emakumez jantzita, ihes egitea lortu zuen; baina emandako hitza janez, lepamoztu egin zituzten Belaztarrak, edo pozoindu". (J.ESTORNES)

2
AMERIKETAKO JATORRIZKO KULTURAK

URTEAK	MEXIKO-ERTAMERIKA	URTEA	PERU
-5.000/-2.000	Aro Arkaikoa Mexikon: Calco.		
-1.500/200	Aro Preklasikoa Mexikon: Teotihuacan (I-II).		
300/900	Aro Klasikoa Mexikon: Teotihuacan (III-IV). Olmekak. Maien Inperio Zaharra (Istmoan).	500	Motxiken inperioa, kostaldean.
		900/1100	Tiwanaku, mendialdean.
989/1697	Maien Inperio Berria (Yucatán).	1000/1400	Hirien eraikuntzaren aroa.
1000/1520	Aro Postklasikoa Mexikon: Toltekak eta ondoren Aztekak.	1150	Tximuen inperioa, kostaldean.
1000/1200	Toltekak: Tula hiria.	1200	Inken historia berriaren hasiera.
1224	Iparraldeko herrien inbasioa: Txitximekak.		
1325	Aztekak: Tenocktitlan hiria (Mexiko).	1438/1530	Inken inperioaren eraikuntza eta zabalkundea, mendi-kostaldeetan.
1427/1440	Mexiko: Itzcoatl errege, eta Tlacaelel erreformatzaile.	1445	Tiwanaku, inkek konkistatua.
1427/1520	Inperio aztekaren konkista eta eraketa. Moctezuma.	1493/1525	Huayna Capac.
1502/1520	Moctezuma II.		
1519/1521	H.Cortes, Mexikon.	1531/1533	Pizarro Perun.

ESKIMALAK. Herri hau da Asiatik azkena Amerikara pasatakoa, berau da, gainera, arrazaz asiarrena. Inguru-gogorrari bere bizimoldeak egokitzean lan gaitzak izan ditu herri honek.





Mundu Berria
BARRUTI ETNIKOAK

1. Eskimala, 2. Karibetarra, 3. Brasil-Amazonarra, 4. USA: Hego-ekialdea, 5. Nahuatl-a, 6. Txibtxa, 7. Inka, 8. Kaliforniarra, 9. USA: Ipar-mendebaldarra, 10. Guanakoa, 11. USA: Hego-mendebaldarra, 12. Larrebelardiak (Far West), 13. Arro Handia, 14. Algonkino-irokesa, 15. Atabaskoa

Europarrek Amerika aurkitu (1492) eta harentzat izena asmatu aurretik (1508), lehenagotik ere Amerikarik, egon, bazegoen: 42 milioi kilometro karratuko kontinentea eta 80 bat milioi bizilagun zituena. Europarrek ez zuten Amerika sortu, topatu baizik.

Horregatik, bidezkoa ez ezik ezinbestekoa da europarrak agertu baino lehenagotik amerikarrek bizi izandako historiaz oinarrizko albiste batzuk ezagutzea. Guk izan dezakegun jakin-min bera sumatu zuten Kolon-en garaikoek, "Mundu Berri" bat aurkitu zela harrituta jakitean: Nolakoak ote ziren lurralde haiek? Nolakoak hango herriak?

I. AMERIKETAKO LURRALDEAK ETA HERRIAK

Ameriketako lurraldeak bi azpikontinente handitan banatuta daude; lepazintzur estu batek lotzen ditu biak elkarrekin: Ipar Amerika, Ertamerika eta Hego Amerika dira lurraldeok. Ameriketa ipar-iparraldetik hego-hegoalderaino 16.000 kilometrotan luzatzen den kontinentea da. Alde handiarekin, Lurreko kontinenterik luzeena da Ameriketa (azaleraz Asia luze-zabalagoa bada ere).

* 1. Geografia ezberdin ugariak

Alaska-tik Patagonia-raino, bizkarrezur orografiko handi bat du Amerikak (Mendi Arrokatsuak-Andeak), baina ez zaizkio lautada ederrak falta mendikate horietatik Ekialderantz, Atlantikoraino, Kanada-n, Estatu Batuetan edo Amazonian.



AMAZONIA. Ekonomia eta bizimoldeak bizitza tropikalera egokituak: etxebizitza irekiak, ehiza eta arrantzara emanak. Gaur egun ere honelakoxe etxeak ikus daitezke, hiri modernoen inguruetan ere (Beni, Bolivia).

Klimari gagozkiola ere, alde nabariak ditu Amerikak, bere luzeagatik klima-mota guztiak agertzen bait dira hango lurraldeetan. Itsas korronteak, lurraren erliebeak eta haizeen nondik norakoak, latitude bereko eskualdeetan ere, klima ezberdinok eman dituzte. Bestalde, Ameriketa osoan ez dago aldibereko negu edo udarik, Europa-n bezala: Hegoaldean negua denean, Iparraldean uda da.

Klima erabat kontrajarriak ere badaude kontinentean. Alaska-ko eskimala larruz jantzi-jantzita agertzen zaigu liburuetan, baina Ertamerikako edo Amazonia-ko indioak larru bizian ikusi ohi ditugu. Bero-hotzek eta euriak eskualde klimatiko oso ezberdinak sortzen dituzte: badago basamorturik (Kolorado edo Atakama), badago oihan tro-

pikalik (Amazonia), urte guztian izoztutako lurraldeak (Kanada-ko iparraldea) eta sekula elurrik ezagutu gabekoak (Puerto Rico, Karibea).

Klima hain ezberdindu hauek lurraldez lurralde, biogeografia oso aldakorra eskaintzen dute, bai latitudez aldatzean, bai altueraz itsasertzetik mendietara jotzean. Landaredia nahiz abereak (flora eta fauna) biziki aldatzen dira iparraldetik (elur-oreina, azeri urdina, foka, hartza, bisontea, etab.) Amazonia-ra (hegazti, narrasti eta intsektuak ugari) ez ezik, latitude berean aurkitzen ditugun Amazonia horretatik Andeetako goi-lautadara (llamak, bikuinak, alpakak) edo oihan birjinara (lehoia, tigre amerikarra).

Lur horietan eta bizilaguntzat dituzten abere-landare horiekin, nahitaez herriek ere bizimolde eta kultura bereiziak sortu zituzten. Europa-tik begiratuta, denak "indiarrak" baizik ez zirenak, haiengana hurbilduz gero, herri eta izaera ezberdineko bezala ageri dira.

* 2. Gizakia eta herriak

Oso eztabaidatua izan da gizakia Ameriketan noiztandik dagoen. Hala ere, beti segurutzat eman dena zera da: gizakia Ameriketara beste nonbaitetik etorri zela. Ez da han bertan sortua.

Orain 30.000/40.000 bat urte agertu zen Amerikan gizakia. Aspalditxo, bestelakorik uste zuten historilariek (askoz beranduago agertua zela alegia), baina gaur egun gutxi gorabehera horretan utz dezakegu, nahiz eta oraindik ere zalantza asko izan horretaz historilarietan. Beraz, Europa-ko

Bering itsasartea

"Bering Itsasarteaz egin berri diren ikaslanek diotenez, Tertziarioaren parte on batean bazen han istmo bat baina itsasartea irekita geratu zen Pliozeno Aldiaz geroztik. Koaternarioaren hasieran, Pleistozenoan, glaziaraldi bakoitzean lur-zubia berregin egiten zen Bering-Chuckhi-ko plataforma kontinentalari esker, gaur egun itsaspean ehun bat metrotara dagoen eta halako egokieratan agerian geratzen zen plataforma hura medio. Orain 10.000 bat urte, behin-betirako desagertu zen lur-zubi hura" LL.PERICOT,59.



Artoaren jatorburua

"Gaur egun aski segurutzat eman liteke ***teosinte*** *landarea dela arto modernoaren arbaso zuzena. Batetik besterako eraldakuntza hori orain 15000-8000 urte tartean gertatu zen. Lehen arto hartarako aldakuntza gizonak gidatutako selekzio bati esker jazo zen".*

(G.W.BEADLE)

neanderthaldarraren garaiko gizakirik ez zen izan Ameriketan, gehienez ere Cro-Magnon-aren hasiera-garaikoak.

Eta nondik agertu ziren gizon-emakumeak kontinente hartan? Honetan ere bestelakorik frogatu nahi izan bada ere, hipotesirik segurtatu eta onartuena hauxe da: Bering Itsasartea zehar heldu ziren lehenengo bizilagunak, eta ez etorkin-olatu bakar batean soilik, zenbait olatualditan baizik. Horrelaxe joan ziren, iparraldetik Patagonia-raino, arraza guztiak Ameriketa osoa betetzen. Beste nolabait esateko: oro har, Ameriketako herrietatik arrazaz asiarrenak iparralderantz daude, eta azkenik eskimalak dira, hain zuzen, mongoloideenak.

Milaka urtetan bizitza erdi-nomada eraman ondoren, zenbait amerikar, ehiza eta bilketa utzirik, lur-lanetara eman zen, landare laboragarriak sortuz. K.a. 1.800aren inguruan, dagoeneko, artoa zen jendearen janaria. Aurkikunde horri esker, ekonomia eta gizarteko bizimoldeak oso aldatu ziren, K.a. azken milakadan kultura hiritar bat sortzeraino: Ertamerika eta Peru izango ziren berrikuntzaren erdigune bizkorrenak.

Ordutik hasita mailaketa sozial bat sumatzen da gizarte haietan, aberats eta pobreen artean, agintedun eta menpekoen artean. Buruzagiak banatzen zituen lurrak, janariak eta artisau-lanak; eta aginte erlijiosoa izan ohi zuen, gainera.

Baina antolamendu sozio-ekonomiko hauek oso puntu jakinetan gertatu ziren oraindik. Orduan (orain 2.000 urte) eta ia gaur egunerarte Ameriketako herri eta lurralde askok holako garapen sozialik ez du ezagutu; baina hobekuntza ekonomiko

haien gain sortu ziren Ameriketako kultura eta Estatu handiak.

Sabana, estepa, goi-lautada nahiz basamortuetan, ehiztari eta biltzaile ziren amerikarrak: Estatu Batuetako lautada handian, Kanada-koan, Argentina-ko Pampa-n, Paraguay-ko Chaco-n, etab. Baina lurralde zabalak landu ziren lurgintzarako ere: lehenengo, sabana nahiz oihanetan sakabanaturiko herri nekazariek taldean laneginez; gero, Estatu-erakunde eratuagoak sortzean, botere antolatu haien esanetara ihardunez.

Artoaren garrantzia

"Artoaren jatorburuak ez du bakarrik eskola-jakingarritasuna. Berau da, izan ere, eguzki-energia, karbono-dioxidoa, ura eta lurreko mineralak janari bihurtzen, zerealik emankorrena. Janari-kontsumotarako laboreetan munduan hirugarren lekua du artoak: Urteoro 200 milioi tonelada baino gehiago ematen dira, hau da, gariaren edo arrozaren uztak baino zertxobait gutxiago bakarrik. Uzta horretatik giza janari bezala zuzenean hartzen dena erlatiboki gutxi da, baina haragi, esne, arrautza nahiz beste abere-produktu bihurturik datorkiguna gogoan hartzen badugu, artoa Mendebaldeko janari-iturri garrantzizkoena dela esan behar".

(G.W. BEADLE, 84)



HERRISKA INDIARRA. Hona nola marraztu zuen Th. de Bry-k (1590) Ipar Ameriketako indiarren herriska bat (Virginia): Etxeak, tabako-sailak (E), artasoroak (H eta G), etab. Hor daude herri haien oinarriak. Zibilizazio handietatik kanpo ere, honelako herri-multzoak ezagunak izan ziren (halanola, "pueblo" deitu Ipar Ameriketako indiarren artean).

URREA URTZEN. Hamaseigarren mendeko W. Raleigh ingelesak honela ikusi zituen indiar guaianiak: beren urrezko idoloak urtzen ari dira. Amerindiarrek bazekiten urrea lantzen, baina produkzio ekonomikorako funtsezkoa izan zitekeen burdina ez zuten ezagutu. Atzerapen honekin ezin europarrek zekarten erronkari gaina hartu.





LABORANTZA. Honela lantzen ziren Peru-n lur-sailak: makila-aitzur bat zen lanerako tresna; lurrean zuloa egin eta ereiten zen patata. Zibilizazio haietan lurra lantzeko golderik ez zen asmatu. Beraz, lan-indar eskasez atera behar zen nekazal produkzioa.

* 3. Kultur oinarriak

Inoiz edo besteko harremanen bat salbu, amerikarrek ez zuten Aintzinateko beste herrien albisterik izan. Ertamerikako eta Andeetako kulturek, alde horretatik, ez zieten deus zor beste kontinenteetako zibilizazio handiei. Ez dugu ahantzi behar Egypto-n edo Mesopotamia-n bi mila urte lehenago aurkituta zegoela hainbat aurrerapen, baina hemengo gizarteen artean ez zen egon inolako kultur trukaketarik.

Amerikarrek, hala ere, beren aldetik, bakarrik, egin zituzten asmakizunak, horrela hango jatorrizko zibilizazioei oinarriak emanez. Teknika berri ugari asmatu zuten: lurgintzaren iraultza egin, zeramika eta idazkera asmatu, eta kobrea eta urrea lantzen ikasi. Eurasiak eta Amerika-k, bakoitzak bere gisara lortu zituen aurrerapen horiek.

Amerikarrek ez zuten, ordea, beste hainbat gauza baliagarri eskuratu: burdina eta altzai-

rua, bolbora eta beira, alfabetoa eta gurpila ez zituzten ezagutu, edo arruntki erabili, europarrak han agertu ziren arte.

Hala ere, ahalegin eta eskarmentu neketsuen ondorioz hango Aro Neolitikoan egindako aurkikundeek, sekulako oinarri kultur-ekonomiko sendoa ezarri zieten gerorako hango gizarteei. Eta es hangoei bakarrik, geroago baita munduko gizarte aurreratuenei ere. Artoa eta patata --XVIII. mendetik hona hainbat europarren oinarrizko janariak-- iraultza neolitiko hari zor zaizkio.

Baina, berehala gure egunetara jauzi egin gabe, itzul gaitezen orain 2.000 urteko Amerika hartara.

Kristo-ren nahiz Erroma-ko Inperioaren garairako, Amerika prest zegoen --egindako aurkikundeen ondorioz-- gizarte-molde ezberdinak sortzeko. Posible zen, bide horretatik jo nahi izanez gero, gizartea Estatu-erakunde konplexu batetan antolatzea, edota Estatu-erakundeztapen handirik gabe, tribuzko gizarte soilagoa eratzea.

Ameriketako herriek --ez da harritzekoa, hainbeste eta hain sakabanatuak izanik-- bide bi urratu zituzten ondoko mendeetan, eta europarrak, hara iristean, gizarte-molde ezberdin oso hedatu bi ezagutu ahal izan zituzten.

Ameriketako garraio-indarra

"Amerindiarrek zeukaten garrantzizko herentzia bakarra llama izan da, "Andeetako aharia": nahiko zamari txarra, baina Mendialde garaietako aide urritura molda zitekeen bakarra. Gainerako animalia guztiak (bikuina eta indioilarra ezik) Europa-tik etorriak dira: idi-behiak, ahari-ardiak, ahuntzak, zaldiak, zakurrak, hegaztiak.

Mandoak ziren, ordea, bizitza ekonomikorako garrantzizkoenak, eta berauek gertatu ziren "kamioizale" premiazkoak. Salbuespenak gutxi dira: Ipar Amerikako eta Brasil kolonialeko zenbait eskualde, eta panpa argentinarra; hemen batez ere gurpil handiko gurdien tiratzailea idi-parea izan ohi zen, XX. menderarte.

Espaziorik gehienetan, ordea, manda-taldeen txilin-hotsa zen nagusi".

(F.BRAUDEL,298)

Indiarrekin zer egin?

"Zerbitzari onak izan behar dute hauek, nonbait, eta argiak gainera: esan ala ikasten dituzte gauzak; eta laster bataiatuko lirateke, ez bait dute, itxuraz, bestelako sektarik. Nik, Jainkoak nahi badu, hemendik irtetean, sei bat eramango dizkizuet zuei, Jaun-Andere Agurgarrioi, mintzatzen ikas dezaten. Irla honetan (Guanahani) abererik ez dut batere ikusi, papagaioak ezik".

*KOLON: **Egunkaria**, 1492-XII-24*



INDIARREN TRIBU-BIZITZA. Gaur egunerarte iraun dute indiarrek beren bizimolde eta ohiturekin. Tribu-gizartearen barne-loturak honela agertzen dira, dantza erritual hauekin. Europarron erasoa handia izan bazen ere, Kolonaurreko gizarte tribalak ez ziren bapatean desagertu.



* 4. Tribuak eta Estatuak

Iraultza neolitikoak lurgintza eta landare etxekotuak segurtatu zituenetik, posible zen ehizak eta bilketak manten zitzaketen baino talde sozial zabalagoak elkartuta bizitzea. Gizartearen ondoko eboluziorako pauso handia zen hori.

Baina janari-baliabide berriek ez zuten, ordea, gizarte haren antolamendu-moldea alde aurretik erabakitzen. Egiazki gertatu zenaren argibide laburtu bat emateko, aipa ditzagun bi gisatako gizarte-antolamendu: tribuarena eta Estatuarena.

a) Gizarte tribalak

Antolamendu honen ardatza, alde batetik, taldearen odol-jatorrizko azpitaldeetan datza (klanak, leinuak) eta taldekideen artean dauden kultur, hizkuntz eta lurralde-batasunetan, bestetik. Ez du, ordea, Estatu erakunde handi zentralizaturik izaten tribu-antolamendu honek.

Gizarte-eraketa hau, historian zehar, Ameriketa gehienetan aurkitzen duguna da: Hegoaldean, Andeetatik Atlantikorako lurralde dena artzen zuen (Argentina, Uruguay, Paraguay, Brasil eta Guaianak), eta Iparraldea, berriz, bere zabal osoan.

Kontinentea, gehien-gehienik, gisa honetako gizarteek estaltzen zuten. Gizarte tribalak lautada edo oihan zabaletan sakabanatzen ziren; ez zuten erakunde boteretsurik, baina gehienetan ekonomia autarkiko bat eramateko lain ziren. Inoiz, hala ere, harreman-sare hedatuagoak sor zitzaketen. Halanola, Illinois edo Ohio-ko Hopewell-tarrak Florida eta Mendi Arrokatsuetaraino iristen ziren beren merkatal harremanetan (K.a. 300-K.o. 550).

Baina indarra, antolamendua eta, azkenik, botere bortitza ez zegoen gizarte tribaletan, laster sortu ziren Estatu "zibilizatuetan" baizik. Gehienbat hauek izan ohi dira, Amerikaren historiaz ihardutean, aipatzen direnak.

b) Gizarte "zibilizatuak"

Hiru erdigunetan bana genezake Estatu "zibilizatu" hauen barrutia: Ertamerika, Karibe-ingurua, Andeak. Hiruron artean badaude kidetasunak, baita aldeak ere.

Herri "zibilizatuek", erakunde sozial eta politiko indartsuetara jo zuten; zibilizazio klasiko hauen hastapen-unea K.o. 300. urtearen inguruan jar dezakegu.



AIMARAK. Hona, gaur eguneko aimarak: goian, ama-semeak indiarren azoka batean; behean, aita-semeak, Titikaka lakuan. Aimaren herria inkaurreko zibilizazio handi baten sortzailea izan zen: Tiwanaku-ko kultura. Peru-Bolivietako goi-lautadan bizi dira. Inkek menperatu bazituzten ere, ez zuten galdu beren hizkuntza. Euskaldun misiolaririk franko bizi izan da hauen artean.



Kulturaren sorlekua

Ameriketako kulturen lehen sorlekua non dago? Mexiko-n eta Peru-n garatutako zibilizazioek badute elkarrekin zerikusirik, baina zein da horietan lehenengoa? Begira zer dioen honetaz aditu batek:

.../...

...//...

"Edota pentsamendu amerikarra toki batean baino gehiagotan, aldiberean eta bere gisara jaio zen.

Edo, alderantziz, sorleku bakarra izan zuen, azalpen sumagarririk utzi gabe, gero kontinentean zehar zabaldu aurretik.

Hipotesi hauek zera ematen digute aditzera: Ameriketako kulturaren sorburuen arazoa oraindik ilun dagoela". (L.SEJOURNE, 293)

Historia isilerazia

Kolonaurreko herri amerikarren Historia ezagutzeko behaztopo itzelak izan dira ia gaur egunerarte: konkistariek idatzitako historiak bakarrik eman ziren argitara, hasiera hartan.

*"Ameriketako errealitate historiko hartaz ideiaren bat izateko nolako oztopoak tartekatu diren jakin nahi duenak aski du zera gogoratzea: XVI. mendeko ikerkuntza bikainetatik **batere** ez zen argitara eman XIX. mendearen azkenalderarte; batzuk argitara berriak dira orain gutxi eta beste zenbait, oinarrizkoak gainera, artxibategietako itzalpeetan daude oraindik itxaroten. Lehenengo hirurehun urte eta gehiagotan, konkistarien azalpenetara mugatzen zen gure jakintza, gero historilari gortesauen albisteetara (...). Orduan metatutako gaizki-ulertzapenak eta kalumniak guganaino iritsi dira, borondate on edo txarragoz, dotrina finkatu bezala. Hori guztia oztopaharri larria da Ameriketako jatorrizko herrien historia ezagutzeko". (L. SEJOURNE,86)*

* 5. Zibilizazioen erdiguneak

Gisa honetako kultur eta politika-antolamendu estatalak, hiru erdigune geografiko handitan lekutu ziren: Ertamerikan, Karibe-inguruan eta Andeetan. Europa-tik begiratuta halako batasun-modu bat ikusi ohi diegu kultura hauei, baina, antzak ez ezik, desberdintasunak ere badituzte, erdigune geografiko hauek. Hona haien berezgarriak laburbilduta:

a) Ertamerika (Mexiko, Guatemana, Honduras, Nikaragua)

Kultur erdigune honen berezgarri batzuk hauek izan litezke: Eskailerazko piramideak, pilota-jokoa; zenbaki-sistema hogeitarra, hogei eguneko hilabeteak, eguzki- eta liturgi egutegiak, idazkera hieroglifikoa, papera eta eskusoinu gisara tolestatutako liburuak.

b) Karibe-ingurua (Antilak, Venezuela, Kolonbia, Panama)

Osaki kultural berezi gutxiago du. Mandioka laboratzen zuten, eta urrea lantzen. Ez zegoen harrizko eraikuntza handirik. Zurezko lanek leku sinalatua zuten.

c) Andeak (Kolonbia-Txile)

Hildakoen kultuak garrantzi esanguratsua zuen. Era askotako lurrontziak; kobre eta brontzea berarizko moduz lantzen ziren. Kontaketa eta kal-

kuluetarako "quipu" deituriko korapilo-sistema erabiltzen zuten. Patata eta koka hemengo labore ezagunak ziren.

x x x

Azpimarra dezagun, zibilizazio-erdigune hauek mendez mende gorpuztutako historia zutela, edozein zibilizazio handik bezala epe eta gorabehera ezberdinak bizi izandako historia. Europarron ezjakintasunaren erruz, Aurkikundeaurreko historia hura Historiaurre bailitzan agertu izan zaigu, izan ere Aurkikundeaurreko mendeen historia amerikarren hizkuntzatako tradizioetatik baino gehiago monumentuetatik ezagutu ohi bait dugu.

Konkistatzaileek ahalegin lotsagarriak egin zituzten batzutan --eta ez kontraesanik gabe-- Ameriketako Historiari bere agiri idatziak isilarazten; adibide ona da Diego de Landa-k maien idatziekin egin zuena: ahal izan zuen dena sutara bota, eta gero Maien historia idatzi berak, indiarrek kontatzen zizkiotenekin.

Konkistako kronikarietatik ezagutzen duguna, gehienez ere europarrek han XVI. mendearen hasieran aurkitutakoen albistea da. Baina ezin da ahantzi Amerika-ko zibilizazioak, munduko beste tokitan bezala, elkarren ondotik agertu izan zirela. Mexiko-ko aztekak edo Peru-ko inkak oso erraz gelditzen zaizkigu burutan, baina horiek Estatu amerikar zibilizatuen katean azken begiak baizik ez dira: Lehenagotik ere hainbat herri pasata zen Ameriketan.



ANTILAK. IPAR AMERIKA. Zibilizazio handietako eraikuntza itzelen ondoan, bestelako gizarte eta etxe-modu hauek ere ezagutu ziren Ameriketan. Goian, Antiletako indiarren etxe bat; behean, Ipar Amerikako larrebelardietakoa. Antiletakoa, gizarte egonkor batena da; ipar amerikarrena, ostera, gizarte nomada batena.



II. ERTAMERIKAKO ZIBILIZAZIOAK



Denboraren hariari jarraikiz, bi herri handiren historiak bakarrik jasoko ditugu hemen: **maiak** eta **aztekak**. Gainerakoenak, jakingarriak izanda ere, beste baterako utziko ditugu.

A) MAIAK

Mexiko-ren hegoaldean, Guatemala eta Honduras-en daude maien lurraldean, Yucatán penintsulan edo inguruetako lurretan: 325.000 bat kilometro karratu ditu eskualde honek. Espainiarrak hara iritsi zirenean (1520), 400.000 edo 500.000 bat bizilagun ote zituen uste da gaur egun. Maia haiek ez dira desagertu: hiru milioi t'erdi lagun badira

oraindik maia hizkuntzaz mintzatzen direnak, denak jatorriz maiak ez badira ere.

Gureganaino bizirik iritsi zaigun herri honek munduan izan diren kulturarik ederrenetako bat sortu zuen.



ZAPOTEKA. Ertamerika da gaur egun ere Ameriketan indiarren portzentaiarik handienetakoa duena. Mitla hiriko argazki honetan, historia eta oraingo gizartea elkartzen zaizkigu: hondakinak eta gaurko jazkeraz ageri den neskatila zapoteka.

APEZ NAGUSIA. Uaxactun-en aurkitutako hilobi bateko lurrontzi margoztutik jaso da marrazki hau. Apez Nagusia eserita ageri da, hieroglifikoei begira, eta bi zerbitzari ditu atzean: bata, eskuetan sukarri bat duela, eta bestea apezaren gain lumazko babeskina luzatuz.

* 1. Gizartea eta ekonomia

Maien **GIZARTEA** lau klasetan banatua zegoen: nobleak, apaizak, herria eta esklabuak. Berdintasunik gabeko gizartea zen hura.

Nobleak (al mehenob) izan ohi ziren tokian tokiko buruzagiak; espainiarrek **kazikeak** deitu ohi zituzten. Beren jatorriari garrantzi handia eman ohi zioten.

Apezek (ahkin) itzal handiagoa zuten oraindik. Apez nagusi bat zegoen. Apez hauek, ordea, betekizun oso ezberdinak zituzten, erlijioz-



koak ez ezik, baita jakintza eta artearekikoak ere. Aztiak (chilan) bereziki estimatuak ziren, baina ez hola sakrifiziogilea. Apezen ardurapean zeuden era berean erlijio-bizitza, medikuntza eta zientzia (astronomia, idazkera, etab.).

Herritarrek (maceguales) --hauetakoak ziren bizilagun gehienak-- lana zuten egiteko nagusia: nekazaritza eta eraikuntza. Maiak oso herri langilea izan ziren. Ez dago pentsatu besterik, adibidez, Uxmal-en egindako lanek (burdina ezagutu ere egin gabe, gainera) zer-nolako ahaleginak eskatu zituzten.

Esklabuena da laugarren klasea. Maiak ez ziren esklabu-herria, hauek gerra-prisonerak bait dira, ondoko herriekin gerran harrapatutakoak; inoiz, baita herriko gaizkileak ere. Nolanahi ere, Greziak ezagutu zuen hainbateko esklabutzarik ez zegoen maien artean (ik.I, 99. or.), nahiz eta hemengo herritarrek (=hiritar libreak?) bizimodu gogorragoa jasan behar.



Artoa: balio sozio-ekonomikoa

"Azteka, maia eta inken biztanleria trinkoa, eta beraien kultur maila txundigarria, ez ziren lortu ahal izango artorik gabe. Uzta-uneko janari-beharretan ezezik, igartu, ondu, garraiatu eta biltegietan sartu ondoren epealdi luzeetarako balio izaten zien artoak. Azteken azken Errege Moctezuma-ri eman behar izaten zitzaizkion zergen artean, erreinuko hogei probintzietatik erret biltegietan 7.500.000 kilo arto pilatzen ziren". *(G.W. BEADLE,84)*

Gizarte hau **NEKAZARI-EKONOMIA** baten gain eraikita zegoen. Lurren laborantza era oso primitiboan egiten zen: basoa erre eta, beste gabe, ereiten zen behar zena, esku-makila zorrotz batekin egindako zuloetan. Pentsa daitekeenez, lur-erreketa horiek luzarora lurra agortu egin zezaketen. Maien kultura, erakunde politikoa eta ekonomia osoa landare baten emankortasunaren gain jaso ziren: **Artoa** da guztiaren funtsa, nahiz eta kotoia eta heneke: a eta beste ere landu. Gaur egun ere, maien elikadura %85etan artoa da.

Lanerako **indarraren arazoa** buruhausterik handienetako bat gertatu zen maientzat: burdina ez

zuten erabili, gurpila ez zuten ezagutzen, eta ez zeukaten animalia zamaririk; gizona izan zen zibilizazio haren zamari bakarra. Halako hiri eta eraikuntza izugarriak jasoko zituen herriarentzat neke gaitza ziren, beraz, lan-energiaren eta teknikaren falta horiek.

Eta zama, izan, herritar xumeentzat gogorra izan zitekeen, segun nola eratu gizarte osoaren egiteko handiak, eta herritar eta boterearen arteko harremanak.



ARTOAREN JAINKOA. Yun Kax zer artoaren jainkoa. Gazte itxuran marrazten zuten maiek jainko hau, eskuetan artaburua zeukala. Lurgintzaren eta laborarien jainkoa zen Yun Kax. Artoak bezala, jainko honek ere etsai asko zituen, maien ustez: euriaren, haizearen, lehortearen, gosearen eta heriotzaren jainkoak zituen bere kontra. Gizakientzat jainko adiskidea zen Yun Kax, bizitzaren, ontasunaren, oparotasunaren jainkoa.

* 2. Gizarte antolamendu politikoa

Eraketa politikoak badu antz bat Grezia-koarekin: aztekek nahiz inkek egingo zutenaren

BONAMPAKeko PINTURAK. 1946an aurkitu ziren pintura hauek. Berauen esanahia ez da oraindik ziurtasun osoz argitu. Gertakariak IX. mendekoak dira. Beharbada, noblezia maiak nekazarien edo atzerritarren kontra lortutako garaipenen bat gogoratzen da: garaituek tortura jasan dute, nonbait, opalduak izan aurretik. Pintura maiaren artelan maisua da hau.





PERTSONAIA MAIA. Maien gizartea klasetan banatuta zegoen: Aberatsek, batzutan, hilobi ederrak utzi dizkigute, artelan bikainez apainduta. Hemen ikusten dugun pertsonaia Comalcalco-koa da; iztukuz egina da irudia.

alderantziz, maiek ez zuten apenas sortu Estatu zentralizaturik. Maien gizartean, **Hiri Estatu**-tan banatu ziren lurraldea eta boterea: Hiri independente horien buruzagi "gizon jatorra" (halach uinic) delakoa izan ohi zen, baina ez zuen berak aginte osoa: buruzagi, apaiz eta adituen kontseilua izaten zuen ondoan.

Barneko eta kanpoko politikak "gizon jatorraren" eskuetan zeuden, eta zergaz biltzeaz gain, herriska eta herrietarako bere funtzionari ordezkariak hautatzeko eginkizuna zuen. "Batab" deituak ziren ordezkari hauek, baina beti ere armagizonen agintariaren esanetara egin behar zuen. Oso errespetatua izan ohi zen arma-buruzagi hau, baina epe jakin baterako izendatua.

Oro har, agintedunen boterea guraso-semeen katean herentziatan pasa ohi zen, horrela funtzionarien mundua beti bere hartan mantenduz. Apezen artean ere halaxe zen, eta apezgoa ere familiartean, horretarako klase batean, gorde zen.

Izadiko indarren hezitzailea zen maien erlijioa, uzta onak ekarri eta zaintzeko asmatua; horregatik, eta jakitez jantzienak apezak zirelako, maien eraketa politikoa teokratikoa gertatu zela esan ohi da.

* 3. Jakintza eta artea

Kulturak eman izan dio maien historiari duen itzal handia, izan ere **JAKINTZA** hura, bere gisara lortutakoa izateko, harrigarria gertatzen bait da. Aipa ditzagun fruiturik jakingarrienak.







ERAIKUNTZ TEKNIKAK. Lau une ezberdinetan erakusten zaizkigu hemen maiek eraikuntzan erabili ohi zituzten teknikak. Burdinazkorik ez zeukatelako, harrizko zizelekin atera behar zituzten harri-blokeak; ondoren, garraioa zen arazo larriena: gurdirik eta trakzio-animaliarik ez zutenez, arrabolez eta tiraka garraiatzen ziren pisu handiak.

1. Monolitoa ateratzen.
2. Monolitoa garraiatzen.
3. Monolitoa eraikitzen.
4. Monolitoa lantzen.



ARTOAREN ZABALKUNDEA

"Artoaz ezagutzen dugun agiririk zaharrena arkeologiak eman digu. Haren datapena 7000 bat urtetaraino iristen da.

Milakada gutxitan, ordurarte zituzten arto-mota gehienak hobetu zituzten kolonaurrekoek: arto koloreztatua, arto urdina, arto horia, pentsu-artoa, arto gozoa, arto dentadua, arto gogorra, arto irintsua, arto tunikatua, arto leherkorra. Kolon-en garaian 200 edo 300 arto-mota laboratzen ziren.

Aintzinako nekazari indiarrek, beren sorlekutik (Mexiko-ren hegoaldetik, agian) beste tokitara eraman zuten artoa, eta tenperatura moderatu edo tropikaleko klimatara egokitu, San Lorentzo ibaiaren bokaletik gaur egun Txile-ko erdialdean dauden lurraldeetaraino". *(G.W. BEADLE, 84-85)*

MAIAK

"Sendo eta indartsuak dira, gogatsuak eta bortitzak, inoiz gutxitan egoten dira gaixorik eta lanerako egonarri aparta dute. Txinarren antz handikoak dira. Alàiak, hiztunak eta lagunartekoak, gogokoak dituzte txantxa eta barrea. Fidakorrak dira, atzerritarrekin eskuzabalak, ondrauak barru-barrutik, sogile onak, irudimentsuak eta badute ederraren sena. Haien artean, familiarteko sentimenduak oso estuak dira. (...). Baina ohiturak oso libreak dituzte, senar-emazteek errazki elkar zapuzten dute, batzutan 10 edo 12 aldiz ezkontzeraino iristen dira, emakume eta neskatilek beren amorante eta seme-alabak dauzkate, eta, hori gorabehera, oztoporik gabe ezkontzen dira". *(R.MOUSNIER)*

KULTURA EKOLOGISTA

"Petén-go oihanak ez du ematen zibilizazio baten garapenerako leku egokia denik; baina, hala ere, maiek gainditu egin zituzten horko ingurumenduaren mugatasunak. Inguruak ezarri zien laborantza-sistema, iraupenerako ezezik, soberakinak sortzeko ere pentsatuta zegoen. Baliabide naturalen eskastasunak aurrerapen teknologikoaren parte on bat eragotzi zuen, baina garatu zuten teknologiaz abildade guztiz baliatu ziren, produkzio handia ez, baizik produktuen onketa estetikoa areago bilatzen zuen herri honen beharrizanak asetzeraino. Inguruak eta produkzio-sistemak, bizilagunen kontzentrazioa eragotzi egin zuen; baina, hala ere, beste lekutan hirigintzaren fruitu ziren gizarte-antolamendu eta kontrol-sistema batzuk sortu zituzten maiek. Beren egokitzapen ekologiko hau arrakastaz egin eta nekazal oinarriak eta zutabe teknologiko eta sozio-politiko asegarriak jarri ondoren, maiek beren arreta osoa lorpen erlijioso eta intelektualei eskaini zieten. Hauek dira, hain zuzen, zibilizazio maiaren sinboloak. (...).

(Zibilizazioa izadiarekin adostasunean garatze horretan) maiena da, oraingoz dakigunez, balio ekologiko honetan halakorik lortu duen goi-kultura bakarra". *(BETTY BELL, 453)*

MAIAK. TEKNOLOGIA ETA LANA

"Primitibotzat eman dezakegu maien teknologia. Itxuraz, metala ez zen ezagutu Aro Postklasikoa arte, eta garai honetan ere joia eta apaingarrietan bakarrik agertzen da, gehienbat beste eskualdeetatik ekarritakoetan. Erabat ezezagunak ziren metalezko erremintak; zernahitarako harrizko erremintak erabili zituzten maiek: esteletaroko harlosak ebakitzeko, blokeak egiteko, eta eskulturarik finena egiteko ere. Ez zuten gurpilaren printzipioa ezagutu; ez zuten inolako ibilgailurik, eta eltzegile-tornua ere ez zuten ezagutzen. Galtzadetan erabili zituzten arrabolek iradoki zezaketen, noski, gurpilaren printzipioa, nahiz eta gurpil-ibilgailuen aurkientza beti ere, dirudienez, trakzio-animalien baliagarritasunarekin oso lotua egon, eta maiek, ez zeukaten animalia etxekotuetan txakurra baizik". *(MORLEY/B.BELL, 444-5)*



MAIEN ARRANTZALE-HERRIA. Kostaldeko herriska bat da, arrantzale-herria nonbait. Chichén Itzá-ko mural batetik jaso da marrazkia. Itsasoan hiru ontzi agertzen dira; brankatik arraunketan doaz arrantzale bana, besteak arrantzan ari dira. Uretan hainbat arrain ageri da. Eskuineko etxea tenplu bat da, bertatik suge lumadun bat irteten da, eta ondoko gelan otoitzean ari da bat. Zuhaitz artean, lastozko etxe maiak; han eta hemen jendea bere zereginetan. Giro baketsua erakusten du muralak.

Idazkera hieroglifiko oso nahasia asmatu zuten: gaur egun ere ez dakigu oraindik idazki hauek nola irakurri eta itzuli. Zinu eta irudi batzuk ezik, gainerakoa ilunpean dago adituentzat ere.

Aritmetika hobeki ezagutzen dugu. Astronomiari leku eta betekizun nagusia eman ziotenez, kalkuluetarako aritmetikak garapen ikusgarria izan zuen. Hogeitarra zen zenbaki-sistema, ez hamartarra: 1/20/400 alegia, eta ez 1/10/100... Zeroa ere asmatu eta erabili zuten.

Sonatua da maien **egutegia** ere. Europarron eguzki-egutegia bezain zehatza da, eta hilar-

APEZAK

Maien artean "Gobernua teokratikoa izan bada, soilik erlijioak eta errito-zeremoniek herriko jendearengan izan zuten indar nagusiagatik izan da, nonbait. Apezek ez zuten jakintza ekonomikoki baliozkorik, apez egyptiarretan bestelakorik gertatzen zen bezala, hauek gai bait ziren Nilo-ren goraldi ongarriak iragartzeko. Apez maiek ez zuten kontrolatzen, gainera, garrantzizko iharduera ekonomikorik,Mesopotamiako apezek erregario-sistemaren monopolioarekin egin ohi zuten gisara".

(BETTY BELL, 455)



ZENBAKIAK. Aritmetikan gailurrik garaiena jo zuten maiak. Zenbakietan zeroaren kontzeptua ere lortu zuten. Geroago aztekek bezala, maiek puntu-marraz idazten zituzten zenbakiak. Sistema hogeitarra zuten. Hona lehenengo zenbakien idazkera.



EGUTEGI MAIA. Maiek bi urte-modu ezberdin erabiltzen zituzten, 360 edo 365 egunekoak. Hogeiko multzotan banatzen ziren egunak elkarren segidan. Egun jakin bat izendatzeko, multzoaren zenbakia eta egunaren izena ematen zen: 2 Muluc, adibidez. Ondoan ikus daitezke egunen izenak, hieroglifikotan lehenengo eta letra latinoz azpian.

gi-egutegia ere kasi balioberdinekoa gaurko jakitunenarekin. Hala ere, kalkulu horiek ez zituzten egin tresneria optikoz baliatuz, behategietatik puntu finkoak aztertuz baizik.

Maiek emandako **ARTELANEK**, oihan tropikalean galduta aurkitu zirenetik, txundituta utzi izan gaituzte europarrok. Arkitektur eraikuntzetan eman zituzten maiek beren artelanik onenak, eta gaur egunerarte oso egoki mantendu dira, aztekenak baino egokiago.

Arkitektura, batez ere erlijiosoa izan zen maien artean: tenplua eta jauregia. Tenpluak angeluzuzenak izaten ziren, eta piramide moztu baten gainean eraikitzen ziren, alboetatik eskailerak zituztela eta hauetatik nagusiena aurpegiz aurpegi emanez. Jauregiak plataforma baxuagotan



"CARACOL" BEHATEGIA. Chichén Itzá-n dago behategi hau: argazkian ikusten denaren eraikuntz egitura ondoko marrazkian ageri da. Behategi hauetatik lantzen zituzten maiek beren astronomia eta egutegia. Erlijio-ospakizun eta jaiak ere honelakoetatik behatutakoaren arabera eratzen ziren.



MAIEN HIRIA. Hiri maia deitzen dena erlijio-ospakizun eta jaietarako biltokia zen, jende arruntaren bizilekua baino. Hiri hauetan batez ere erlijio-,jakintza- eta gobernu-arduradunak bizi ziren, herri xumea (nekazariak) landetan bizi ziren bitartea.

eraikitzen ziren. Arkitektura maiaren berezgarrietako bat ganga faltsuarena da, ez bait zuten sabai launik egiten. Hala ere, ez zuten benetak gangadurarik ere lortu.



CHICHEN ITZAko "GAZTELUA". Honelako tenplu-piramideak eraikuntza oso tipikoak dira maien arkitekturan. Hemengo hau airosoa eta ederra da benetan, kasu honetan Mexiko-tik eragin handia jasotako Chichén Itzá hirikoa da.

MAIEN HIRIAK

"Zibilizazio konplexuetan, agi denez gehienetan, hiriak faktore erabakiorrak izan badira ere, benetako hirigintzak --hau da, biztanleria trinkoa duten bilguneek-- ez du lekurik izan maien Aro Klasikoan. Haien nekazal sistemaren izaerak aski sakabanatuta bizitzera behartu zituen maiak, zeremoni lekuetan bilduz bakarrik, batez ere erlijio-ospakizunetarako. Eskualdearen isolamendua izan liteke hain luzaro iraundako bizi-molde hau mantendu zuen faktore garrantzitsu bat, zeren izan ere bestela biztanleria hain sakabanatua (batere gotorleku edo kolonia defendatzailerik gabe) guztiz ahula izango zitzakeen kanpotiko eraso eta inbasioen aurrean". *(B.BELL)*



ARKU FALTSUA. Maiek etengabe erabili zuten beren eraikuntzetan arkua, baina arku-molde hura arku faltsua zen, harlandu irtenez osatua. Hemen Uxmal-eko bat ikus daiteke; ondoan zenbait arku faltsu maiek eraikiak.



MAIEN ARKITEKTURA

"Egiazko arku jatorra erabili ez bazuten ere, harlandu irtenekin tenplu eta jauregi handiak jaso ahal izan ziren, inoiz baita zenbait oinekoak ere. Arkitektura maiaren berezgarri nagusia bere dekorazio fin eta konplexuan datza, bere tamainan baino areago. Tikal-eko sare-gailurreriek bezala Uxmal-eko mosaiko-fatxada eder-ederki landuek finezia estetikoaren halako kezka bat erakusten dute masen ezarpen itzel bat baino gehiago". (B.BELL, 445)

MAIEN ESKULTURA ETA PINTURA

"Maien arte grafikoa ere oso garatua zegoen. Eskulturek formalegiak izatera jotzen dute, estilizatuegiak, eta marrazkiak nahasiegiak gaur eguneko gusturako, baina ukaezina da lanketa horretan eman den ardura. Zeramikan, libreago eginak dira lanak, hainbesteko formaltasunik gabe eta, marrazki askok, Uaxactún-eko plater sonatuan ikus daitekeena bezalakoek, erakusten duten estilizazio-mailak ez du galtzen gaur eguneko zeramika modernoaren ondoan ere. Bonampak-eko muraletako irudi batzuk, berriz, Europa-n zenbait mende geroago bakarrik lortuko zen naturalismoarekin eginda daude". (B.BELL)

Arkitektura honen beste adierazgarri ezagunena baxuerliebeena da. Harriz nahiz iztukuz egindako **baxuerliebez** jantzita zeuden eraikuntza hauek. Arkitekto, eskulturagile eta modelatzaileak oso elkar hartuta lanegin zuten: irudien proportziotan, argi-itzalen jokoan artista apartak gertatu ziren maiak. Mukulu biribileko estatua exenturik ez da ia inoiz agertzen, eta eskultura maia dekoratiboa da. Bi eskola-modu aurki daitezke erliebe hauetan: Petén eta Chiapas-ko erliebe errealistak, eta Yucatan-goa, sinbolista eta abstraktua.

Pintura-arloan ez da guganaino lagin gehiegi heldu, hala ere ditugunek erakusten dutenez, perspektiba eta konposizioaren zentzu ona zuten maiek. Zeramikatik ezagutzen duguna ugariagoa da: lurrontzi apainak, polikromiaz koloreztatuak.

HONDAMENDIA, ZERGATIK?

"Gizarte maiak ematen digun irudi erlatiboki egonkor eta barea gorabehera, zibilizazio maiaren hondamendiaren zergatiak gizarte horretan bertan bilatu behar dira, ez kanpoko indarretan, naturalak nahiz gizatiarrak izan hauek. Lurrikarak, gaixotasunak, aldakuntza klimatikoak edo landarediarenak kausa posible bezala aipatu izan dira. Maien eskualde-erdigunean ez da aurkitzen gerrateen probarik, eta hala ere, seirehun urteko bizitzaren ondoren, Petén-go zeremoni leku handiak utziak izan ziren. (...) Zergatik? (...). Ikonografiak ez du erakusten erlijio bakarraren baitan inolako aldakuntzarik, ezta zaharra beste berriren batez trukatu zenik ere. Beste zibilizazioetan hainbeste aldakuntza piztu izan dituzten gizarte-urduritasunik ere ez dugu aurkitzen".

(BETTY BELL, 456)

B) AZTEKAK

1519an, Cortés-ek eta beronen soldaduek, alde aurretik entzuna zuten "mendiz handikaldeko inperioa" aurkitu zutenean, ikuskizunak txundituta, hura dena azteken egintza zela uste izan zuten. Baina, egiaz, Mexiko-n eta inguruetan, aztekak berak eta inperioa etorri, edo sortu, berriak ziren orduan oraindik.

Tolteken Tula hiria iparraldetik zetozen herri barbaroen (txitximekak) eskuetan erori zenetik (1168), azteken Tenochtitlán hiriburua eraiki arte (1325 edo 1370.ean), epealdi gutxi ezagun bat dago tartean: herri txitximeka ezberdinek (horietakoak dira aztekak ere) ez zuten iritsiko nagusitasun garbirik inguruko edo kidekoen gain. XIV-XV. mendeetan hasten dira indartzen aztekak, aliantzak bilatuz eta herri ahulagoei erasoz.

Azteken herriari izen ezberdinak eman izan zaizkio (**azteka**, **mexika**, **nakuatl**, **tenochka**, eta abar), baina, hemen, zabalduena erabiliko dugu: "aztekak".

AZTEKAURREKO HISTORIA

Aipatu baizik ez dugu egingo historiaurre hori. **Zeramikaurreko** Aro luzea izan zuen Mexiko-ko lurraldeak (K.a. 15.000-1.500). Ondoren Aro **Preklasiko** deitua (K.a. 1.500-K.o.300) eta Aro **Klasikoa** (K.o. 300-900) ezagutu zituen, Aro **Klasikondokoa**-rekin Konkistaraino luzatuz (900-1520).

Elkarren ondoan eta kontra, batabestearen ondoren, kultura edo Estatuak sortu zituzten herri denak aipatu gabe ere, gogora ditzagun batzuk bederen.

Olmekek (K.o. 200-500). La Venta kulturgunean lehenengo, Teotikuacán hiriburuan, zibilizazio garatua sortu zuten: 125.000 bizilagun zituen hiriak K.o. 600. urte inguruan, artisautza ederra eta merkatal harreman zabalak Ertamerikako beste herriekin, 750ean edo toltekek desegin zuten arte.

Azken milakadaren atarian iparraldetik herri berriak mugitzen hasten dira. Hizkuntzaz uto-aztekak dira, baina kulturaz oso atzeratuak oraindik, Teotihuacán, Monte Albán edo Tajin hirietako kulturak lehenago sortu zituztenen ondoan. Hala ere, herri uto-azteken (Tolteka, Otomi, Txitximeka...) erasoz eta indarrez, aro berria hasten da Mexiko-n, 900aren ingurutik aurrera, inork oraindik ez dakien arrazoiengatik lehengo hirietako jatorrizko kulturak ito arte.

Toltekek hartu zieten erreleboa olmekei (XI-XII. mendeetan) Tula (980-1168) eta Colhuacán hirietan bilduta. Azteken oroitzapen historikoetan, toltekak kultura handiko herri jantzitzat jotzen ziren.

Bien bitartean, Ertamerikan, baina hegoalderago, **mixtekek** ere beren loraldia ezagutu zuten, X. mendean lur jo zuten arte.

Mendeak zehar herriak bizilekuz aldatu egin ziren, emigrazioa gehienetan hegoalderantz eginez: Herri indartsuago batek bultzata (toltekak, aztekek erasota, Yucatan-a XII. mendean, adibidez) edo norberaren inperialismoak eraginda (aztekak, beren erreinua zabaltzean).

Hola-moduzko zerbait gertatu zen maiekin ere: bi loraldi ezagutuko zituzten, Inperio Zaharra (IV-IX. mendeetan, Istmoan) eta Berria (987-1697, Yucatán-go penintsulan), batasun politikorik zabalena Mayapán-go hiri-elkartearekin (1200-1450) lortuz. Ondoko mendeak, gainerako amerikarrentzat bezala, erresistentzi belaunaldiak izango dira. Guatemala (1525) eta Yucatán (1536) laster jausi ziren espainolen eskuetan, baina maien azken erdigune independenteak berandurarte iraun zuen, Martin Urtsuakok Petén (hain zuzen garai bateko Inperio Zaharraren kokagunea berriz ere) menperatu zuen arte (1697).

* 1. Gizarte-antolamendua

Azteken gizartea klasetan banatuta zegoen, garbiki: klase gidariak, merkatariak, artisauak, herritar xumeak eta esklabuak.

AZTEKAURREKO HIRIAK. Aztekaurreko herriek hondakin ugari utzi zuten. Bi hirietakoak dakartzagu hona, irudiotan. **Teotihuacán** (I. mendean eratua) eta **Tula** (X. mendean toltekek sortua). Teotihuacán-en loraldia 350-650 urteetan jarri behar da, baina toltekak etortzean (850. urtea) bukatzen da hori. Tolteka hauek berenganatu egingo dute lehengo kultura eta Tula eraikiko, aztekentzat herri bereziki kultua bilakatuz. Goian Tula-ko "Atlanteak"; ondoan Teotihuacán-eko "Eguzkiaren Piramidea" (milioiren bat metro kubiko lur: 10.000 langile 20 urtetan lanean).





Gidarien artean sartu behar dira apezak, gerlariak, funtzionariak eta auzapezak (=auzo-buruzagiak). Hauek denak osatzen zuten noblezia; baina, berez, nobletasuna ez zen gurasoengandik jasotzen: norberak, gerrakoan, bete zituen egintzengatik baizik. Holakoei lur laboragarri bereziak ematen zitzaizkien eta zergetatik libratu egiten zen. Bestalde, hiritar guztien egitekoa zen gerrarena eta gerra-jokabidearen ondorioz irekitzen ziren gizartean hiritarrarentzat hobebide sozialak.

Merkatari eta **artisauek** geroz eta pisu handiagoko lekua hartu zuten azteken gizarte-eraketan. Hirietan toki bereziak izendatzen zitzaizkien artisauei, eta Tenochtitlán/Mexiko-n ofizio bereziko auzoak aurkitu zituzten espainiarrek: orfebre-auzoa, harripitxien auzoa, lumagintzaren auzoa, etab. Halako toki sozial pribilegiatu bat



GERLARI AZTEKAK. Azteka orok joan behar zuen soldadu, larrialdietan, nekazariak nahiz artisauak. Apezek berek ere maiz hartzen zituzten armak. Baina egiteko hau batez ere gerlari profesionalena zen.



INDIARREN ARTEKO GERRAK. Ertamerikan herri asko bildu ziren elkarren ondoan. Mendeak zehar, gainera, iparraldetiko etorkinak ere sartu ziren, jende-uholde ezberdinetan. Elkarren etsai gertatu ziren, ba, sarritan hango herriak. Hona kodize batetik hartutako marrazki hau: Bi hiriren (Tlatelolco eta Cuauhtinchan) arteko gerra-moldeak erakutsi nahi ditu.

aitortu zitzaien artisauei (**tolteka** ohorezko izena eman ohi zitzaien, herri haren trebezia aitortuz ere, nonbait).

Baina **merkatariena** da beharbada historilariak gehien harritu dituen ofizioa. "Pochteka" deitutako hauek klase berezia osotzen zuten: Inperio osoa gurutzatzen zuten beren bidaietan. Baina haien egitekoa ez zen saltzailearena bakarrik: bisitatzen zituzten herrialdeetan espioi-lana egiten zuten, eta erregeari probintzietako albisteak biltzen zizkioten (ez da ahantzi behar, armaz menperatutako herriak zirena). Su-piztaile bezala jokatu izan zuten inguruko herrietan, beti ere Tenochtitlán-go agintarien esanetara.

Herritarrak (macehualli), gehienak, **nekazariak** ziren, eta berauek ziren ekonomia osoaren euskarri oinarrizkoenak. Zergak hauen bizkar egon ohi ziren. Langile hauen azpitik **jopuak** eta **esklabuak** zeuden, eta gerrateetan prisoner hartuak, gaizkileak eta zorrengatik beren buruak saldutakoak ziren. Esklabuei ez zitzaien, eskierki, tratu txarrik ematen; baina gerrakoan harrapatuak tenpluetako opalkuntzatarako eman ohi ziren asko.



MERKATARI AZTEKAK. Kodize zahar batetik ateratako irudiotan zera ikusten da: bi merkatari azteka eraso eta zigortuak (odoletan), eta beren zigortzaileak. Lauron gainean, merkatari zigortuen bidekoak (makila, karga-andak, abanikoa). Bidelapurren arriskua ezezik, merkatari hauek arrisku politikoak ere izan zitzaketen, espioien azpilana ere egiten bait zuten merkatariok herri menperatuetan.

* 2. Eraketa politikoa

Azteken antolamendu politikoa demokratikoa zen. Familiak "calpulli" direlako **klan-auzoetan** biltzen ziren. Mexiko hiria auzo-molde hauetan banatzen zen; tenplua eta ikastetxeak zituen, gobernaetxeak, etab. Kaleak luzeak eta zabalak ziren.

Klan, auzo edo "calpulli" bakoitzak bizitza oso autonomoa zuen, buruzagi berezi baten ardurapean, "calpullec" deitua berau. Honek, batez ere betekizun administratibo-ekonomikoak izan ohi zituen, beti ere oreka ekonomikoa bilatuz.

Calpulli edo auzo bakoitzak bere ordezkaria bidali ohi zuen Tenochtitlán-go **Goi-Kontseilu**-ra. Honek egiteko administratibo, politiko eta juridikoak betetzen zituen, eta beroni zegokion lur-sailen banaketak klan guztien artean egitea. Lur-sail hauek erakundeekin zuten betebehar ekono-



ERREGE AZTEKA. Erregea aukeratu egin ohi zen azteken artean, baina espainiarrak iristean, erakunde hau monarkia heredagarri bihurtuta zegoen kasik.



TENOCHTITLAN/MEXIKO. Azteken hiriburua *Tenochtitlan/Mexiko* zen. XVI. mendeko marrazkia da hau. Ez dirudi zuzenean hartutakoa denik, idazleen azalpenetatik iruditatua baizik. Hala ere, hiria lakuaren erdian nola eraiki zen gogoratzeko balio du. Hiri eta laku honetan gertatuko ziren gerora azteken eta espainiarren arteko gudurik sonatuenetako batzuk. Lau auzotan eratuta zegoen hiria (ik. ondorengo irudi sinbolikoa).

AZTEKEN JUSTIZIA

"Gaizkile-zigorrak oso gogorrak ziren, eta familia, gizartea eta Estatua aldartekerietatik eta moralik ezetik babesteko pentsatuak. Heriotz zigor-mota ezberdinak zeuden: ezkon-nahastaileak harrikatu egiten ziren, giza hiltzaile eta lapur handiak hurkatu, traizio larria zutenak zatikatu, eta, horrelakorik egindakoa noblea zenean, lepamoztu; sexu-desbiderazioak, abortoak, azoketako moral-hutsegiteak, abusario burokratikoak edo isil-estalpenak heriotzera emanez zigortzen ziren. Juramentu faltsoak eta kalumniak, mingaina eta ezpainak moztuz; eta lupemeak pikutan jarriz. (...). Halako animaliakeriekin ere, justizia egiten aurrerapenik egin zen (...), izan ere norbera bakoitzak ezin zuen horrela bere eskuz justizia egin, ezta ezkon-nahastaileak berean topatuta ere. Delitoak epaitu eta zigortzeko eskubidea Estatuak beretzat gorde zuen".

(W.KRICKEBERG, 84)

GIZAKI-OPALKUNTZAK

"Mexikarren erlijio-ospakizunetan gizakien opalkuntzek leku nabarmena zuten, tolteken garaietatik hasita. Prisonerak edo horretarakoxe erositako esklabuak ziren opalgaiak. Inoiz, kategoria berezietatik ere aukeratuak izan zitezkeen (emakumezkoak, gazteak). Heriotza horrek --hala uste zen-- opalduari betiereko bizitza segurtatzen zion; horregatik, estoikoki onartzen zen, eta borondatez eskatu ere bai batzutan. Opaltzekoak jainkoaren jantziak eta apaingarriak janzten zituen eta ***ixiptla*** *deitzen zioten, hau da, jainkoaren "irudia". Apezek opal-harrian etzanarazten zuten opalgaia; haietako batek, kolpe batez irekitzen zion bularra obsidianazko labanez, eta bihotza ateratzen zion, harrizko kutxa batean erretzeko. Zeremonia batzuetan, lepamoztu, ito edo erre ere egiten zituzten opalgaiak. Ospakizunean, hildakoaren haragirik jan ere bai".*

(J.SOUSTELLE, 58-59)

mikoa hau zen: tenplu-ospakizunetan, Estatu-erakundeetan nahiz gerrateetan sortutako gastuak kitatzea.

Baina, erantzukizun ekonomikoaz gain, politikoak ere bazituen kontseiluak: Hiriko lau klanen buruzagi militarrak ere kontseilari hauek aukeratu ohi zituzten. Azkenik, hauetatik hautatzen zen armadaren buruzagi nagusia (tlacatecuhtli), bienbitartean, barne-politikaren ardura beste batek eramaten zuela (cihuacoatl).

Kontseilua subiranoa zen, teorian, bata nahiz bestea kentzeko; baina ez zuen sekula esku-

bide hori erabili. Espainiarrak iristean, erakunde hau monarkia heredagarri bihurtuta zegoen ia.

Justizia, oso bortitza eta gogorra zen. Eta gizarteko klaseen artean alde handiak zeuden, baina gizabanakoak bere klan-erakundean bazuen babesik. Libertaterik gabeko gizartea zen hura, pentsamentu librerik gabekoa, ondasun pertsonalik gabea.

Gerra-ekintzetatik,aukera politikotik edo norberaren abildade profesionaletik zetozen erosotasun sozial, politiko eta ekonomikoak. Maien artean baino hobebide sozial irekiagoak aurkitzen ditugu azteken artean.





ESKLABU ZIGORTUAK. Gaizkile, zerbitzari zorpetu edo familia pobreetatik salduak ziren esklabu gehienak. Prisonerak edo herri garaituek esklabutzat emandakoak ziren beste batzuk, baina gutxi hauek opalkuntzetarako izaten ziren. Normalean, nahiko tratu ona ematen zitzaien lehenengo haiei, nahiz eta delitoren bategatik edo bidaietarako segurtasun arrazoiengatik uztarria jarri lepoan, irudian ikus daitekeenez.

ZERGA-BILKETA. Irudi hieroglifiko hauek argibide handiak ematen dizkigute aztekek ezarrita zeukaten zerga-bilketari buruz. Soconusco probintziako albisteak dira: lehenengo, probintzia horretako herrien izenak daude (1-8 zenb.); ondoren, ordainketa egunak adierazten dira (9, 12 zenb.); gero, tributuen berri ematen da: koilareak (10,11 zenb.), kolórezko lumak (13-18 zenb.). Bakoitzetik zenbat ale aditzera emateko banderatxoz (27-30 zenb., adibidez) eta lumaz (25, 32 eta abarretan) egiten da. Banderatxoa=20 ale, luma= 400 ale. Antolamendu politikoa zerga-bilketa honen gain eraiki zen, eta XVI. mendearen hasieran zama gaitza ziren herrientzat zergak.



JANARIAK. Ertamerikako biztanleek batez ere landare-janariak hartzen zituzten; horizen haien elikaduraren oinarria. Ez zeukaten apenas okela ugari emango zien animaliarik; baina, hemen ikus dezakegunez (1550.aren inguruko irudia), aztekek ehiza eta arrantza ere egiten zuten Mexiko-ko lakuan.



ARTA ZILOAK. Jakien artean artoa zen guztietatik nagusi, eta uzta bildu orduko gorde eta zaindu beharra zegoen: horretarako, holako arta ziloak asmatu ziren. Irudi txikian, XVI. mendeko ziloa; argazkian, berriz, gaur eguneko lurrezko zilo bat (Puebla, Mexiko).

* 3. Bizitza ekonomikoa

Calpulli-a zen herri aztekaren oinarrizko erakunde politikoa ezezik, herritarrei segurtasun ekonomikoa ematen ziena. Auzo bakoitzari Goi-Kontseiluak izendatutako lurrak, calpulli-ko auzo-lagunen artean auzo-kontseiluak banatzen zituen.

Dena den, han, lakuan, palafitoetan bizi zirenez, bertan bederen ez zegoen lur banagarririk. Hori zela eta, irla artifizialak (chinampas) sortu zituzten, zotalak metatuta; gaur egun ere ikus daitezke "chinampas" hauek.



Aztekak nekazariak zirela esan dugu. Artoa, babarrunak, tomateak, kakaoa, eta abar laboratu zituzten. Handik zabaldu ziren geroago Europa-ra tomatea eta txokolatea. Kotoiak eta maguey-ak eman zietan ehungintzarako haria. Edaritarako pulkea hartu ohi zuten, hau ere maguey landaretik aterea.

ZERGA BILDUAK (XVI. m.)		
Artoa	140.000	anega
Indibaba	105.000	anega
Olio-aziak	105.000	anega
Gatza	6.000	opil
Eztia	1.700	pitxerrandi
Kautxu--pilotak	16.000	ale
Mantak	187.560	karga

Azienda, oso eskasa zen, abere etxekotuetan guztiz pobrea bait zen hango ekonomi sistema: zakur ilesoil bat, indioilarra eta erlea. Gure harategietako aukerarik ez zegoen; jendea batez ere landare-janariz bizi zen, etxeko hegaztirik ere apenas zegoen, ez ardi, ez behirik; baina ehizea ugaria zen (basahateak, eperrak, antzarak...).

Industriarik emankorrena ehungintza zen; baina ehule-lanaren ondoan guk Europan ezagutzen ez ditugun bereziagoak ere bazituzten aztekek: **lumagina** eta **obsidianagina** oso ezagunak ziren gizarte hartan. Lumaginek janzki eta apaingarri zoragarriak egiten zituzten lumekin. Obsidiana harria, berriz, tresnak egiteko erabiltzen zen, metalak oso gutxi landu bait ziren Mexiko-n. Zura, ostera, dexente gehiago erabili zen, altzarietarako gutxiago izan bazen ere. Zeramika bai, oso landua izan zen, nahiz eta lurrontzigintzarako tornurik ez erabili.

Merkatalgoa, joanetorri handikoa izan zen azteken inperioan, monetarik ez izan arren. Lehenik hiriburuan eta bertako azoketan, noski, eta gero eskualde guztietara zabaltzen zen merkatal sarean. Barne- eta erbeste-merkatalgoa arestian aipatu ditugun **pochteca** haien eskuetan zegoen, zergak eta tratatuak bezala. Pitxi, luma, esklabu,

Azteken iragarkizunak

"Espainolak agertu baino urte asko lehenago, lau belaunalditan bederen, gurasoek biltzen zituzten beren seme-alabak, eta zaharrek familiarteko gazteak, eta etorkizunean gertatzeko zirenak kontatzen zizkieten.

*Jakizue, zioten, bizardun batzuk etorriko direla, buruak **apastle**-z (hau da, lurrezko ontzien antzekoz) estalita, (...). Eta kolorez jantzita agertuko dira (ohitura hau berria bait zen haientzat). Eta hauek etortzean gerra guztiak amaituko dira, eta nonahi bakea eta adiskidetasuna izango da lege. (...). Eta gehiago zioten: gure jainko guztien hondamendia izango da orduan, eta ez da bat baizik izango munduan, eta bakoitzari emazte bat baizik ez zaio geratuko. (...). Eta zahar guztiak honela zebiltzan itxaropenez eta beldurtuta (...). Honegatik zion halako beldurra Moctezuma-k Cortes-en etorrerari".*

(JERONIMO MENDIETA, 1525-1604)

larru, lurrontzi, ehun, paper, erretxina, eta janariak ziren salgaiak.

Garraio-lanak gizakien bizkar egiten ziren, animalia zamaririk ez zegoelako, alde batetik, eta gurpilik ez izanik, gurdirik ere ez zutelako bestetik. Jende xumea eta esklabuak ziren hango zamariak.

MEXIKOko KULTUR AROAK

Yucatán-go kultur historia baino nahasiagoa da, Mexiko-ko goi-lautadaren inguruetan elkarren ondoren bizi izan zirenena. Herri eta kulturak elkarren lehian bizi izan ziren. Historia hori apur bat argitzeko, hona laukian laburtuta:

AROAK	ESKUALDEAK	KULTURGUNEAK. HERRIAK
LEHEN AROA K.a 1200-400	México Michoacán	Opeño Zakatekak Ticomán Cuicuilco
	Veracruz	Tres Zapotes
	Oaxaca	Monte Albán (I,II)
	Petén-Usumacinta	Maiaurrekoa
BIGARREN AROA K.a. 400-K.o. 200	México	Teotihuacán Olmeka: La Venta
	Oaxaca	Monte Albán (III)
ARO KLASIKOAK	Petén-Usumacinta	Maiak: Inperio Zaharra
	Espainiarrek aurkitu zituzten kultura eta herriak	Tolteka Txitximeka Mixteka Totonaka Taraska

Azteken ekonomiaren ondasun-iturri on bat **gerra** izan zen: harrapakinak, zergak, esklabuak eta bestelako etekin osagarriak eman ohi zituen gerrak. Horretarako, eta aztekek munduaz eta erlijio-bizitzaz zuten ikusmoldeari erantzuteko premiazkoa zen gerra egitea.

*** 4. Pentsamendua eta kultura**

Aztekak aipatzean, konkistari espainolek ikusitako ospakizun-hilketa odoltsuak gogoratu ohi ditugu, berehala: izan ere, milaka lagun hiltzen ziren urteoro, jainkoei eskainita, Mexiko-ko aldareetan (10.000 bat edo). Irudi eta oroitzapen hori badugu ere, esan beharra dago ez zela hori horrela gertatzen ari betidanik.

XV. mendean hasten dira ugaritzen sakrifizio-hilketak, batez ere seigarren errege aztekarekin (Ahuitzotl, 1486-1502); lehenago, azteken aurretik alegia, gutxiago oraindik: toltekek lora, tximeleta, suge eta txoriak eskaintzen zituzten sakrifizioetan, ez gizakiak. Azken garaietako erlijio-berrikuntzak aldaketa ideologiko handi baten ondoren egin ziren. Hona erreforma honen bi arrazoi nagusi:

a) Hazkunde demografikoa

Bizilagunen ugaltzeak zirikatuta, politika erasole bati ekin zitzaion, eta lur berrien bilaketari (gerrate eta inperioaren hedatzeari). Beharraren ondorioz aukeratutako irtenbide honek (gerrak, alegia) zuzenestapen ideologikoa eskatzen zuen. Arrazoi "etikoen" bila hasi ziren, beraz, politikari aztekak.

Munduaren sorkuntza (Aztekak)

"Munduaren hastapenetan, dena zen bizigabea, beltza, hila. Jainkoak, ilunpetan, Teotihuacan-en bildu ziren, eta elkarri zera galdetu zioten: 'Nor arduratuko da mundua argitzeko?' Bi jainko agertu ziren horretarako prest.

Beren buruak sutara botatzeko unean, batek zalantzak izan zituen eta atzera egin zuen: Hilargi bilakatu zen hura. Besteak, jainkotxo apal eta pobreak (garai batetako herri azteka xumearen irudia, noski), zalantzarik gabe bota zuen bere burua: Eguzki bilakatu zen hau.

Baina hilda zeuden gainerako izarrak, ez ziren mugitzen zeru-sapaian. Han zeuden jainko guztiek beren buruak eskaini zituzten haiei jaten emateko. Premiazkoa zuten janaria, ordea, 'ur preziatua' zen, hau da, ***odola****".*

(M. SIMONI)

Oinarrizko ideia: *Munduaren bizi-indarra odolez mantendu behar da: azteken sakrifizioak eta "gerrate loratuak" deiturikoak munduaren izatena mantentzeko egiten ziren.*

Munduari segida ematen

"Berrogeitamabi urteoro munduaren ziklo bat bukatzen zen, eta orduan ikuskizun zen jainkoek munduari bizia berrituko zioten ala ez.

Urte horien Aroa bukatzean, lurraldeko su guztiak itzaltzen ziren, eta herri azteka osoak barau eta otoitz egiten zuen, izarrak halako kokagune jakin batetara berriz itzuli ondoren, larrialdi izugarri hura amaitzen zen arte.

Une hartan berriz pizten zen su sakratua, eta zuzi-eramaileek lurralde osoa ibiltzen zuten, jainkoek gizadiari beste berrogeitamabi urte ematen zizkioten berriona zabalduz".

(J.E. FAGG)

b) Aldakuntza ideologikoa

XV. mendean, hiru erregealditan luzatuko da erreformatzaile handi baten itzala: **Tlacaélel**-ena. Beronek eratu zuen, inperioak behar zuen Estatu-tresneria. Baina ez zen hori bakarrik izan bere egitekoa; ideia politiko-ideologiko zabal eta luzea eraman nahi zuen aurrera Tlacaélel-ek. Historia osoaren eta munduaren ikusmoldea azteken baitandik birpentsatu zuen bere herriari bizitzeko eta ekintzarako mistika berria asmatuz. Aldiberean, azteken artean xenofobia berri bat sortu zen: armaz konkistatutako herrien artxiboak erre egin ziren, azteken historiografia "chauvinista"ri lana errazteko.

Munduaren historia ideologia berriaren arabera birmoldatu zuen, eta pentsamendu horren ardatza erlijioa zen. Horregatik, azteken gizartea ezin da ulertu, erlijio hori ezagutu gabe: herri hautatutzat zeukan azteka-herriak bere burua; Eguzkiaren herria zen. Etengabe, Eguzki hori bere indarrean mantentzera deituak zeuden aztekak. Munduari bere bizian eusteko, inperioa indartu ala, geroz eta eskaintza bikainagoak egin behar zizkieten jainkoei. Gaizkiaren eta Ongiaren arteko borroka aspergabean giza sakrifizioak ziren biziaren salbagarri bakarrak. Azteken ahaleginei esker salbatzen zen gizadia.



TLACAELEL ERRET AHOLKUEMAILEA.

Erretaulkiaren atzean kuzkurtuta ageri dena Tlacaélel erreformatzailea da. Honela eman zen, sinbolo gisa, politikari eta pentsatzaile haren irudia, bere garaiko Erregeen gain izan zuen eragin isila aditzera emateko.

c) Artelanak

Politika, gerra, kultura eta gizarte osoa betebehar horretara zuzendu zen Inperioan, munduaren salbaziora alegia. Hori bera ikusten da artelanetan ere. Arkitekturan eman zituen azteken sormenak bere fruiturik miresgarrienak. Harlanduzko **tenplu** piramideak handitasunez jantziak dira, barne-egitura nahasirik gabeak, masa handiz moldatuak. Tenplu hauek ez ziren jendearen biltoki izaten; tontorrean jainko-kapera agerian zegoela, sinestunek kanpotik partehartzen zuten ospakizunetan.

Azteken harrizko **eskulturak** oso ezagunak dira; jainko-jainkosak gisa ezberdinetan ematen zituzten. Maiek ez bezala, aztekek mukulu libreko anitz eskultura egin zuten, harriz eta buztin errez. Erliebeak ere aberatsak dira Mexiko-n.

Tlacaélel-en erreforma

"Xochimilco, Cuitláhuac eta Chalco-ko jendeak menperatu ondoren, Tlaclaélel-ek ideologi erreforma baten bidez, azteken boterea indartzea erabaki zuen. Gaur egun 'kontzientzia historiko' deituko genukeen moduko zerbait sortzea egoki iruditu zitzaion, aztekek herri-harrotasun bat izan zezaten. Horretarako, bildu zituen, ba, jaun mexikarrak, eta guztiek bat hartuta herri garaituen kodize zaharrak eta liburu marraztuak sutara botatzea erabaki zuten, izan ere berorietan herri aztekak ez bait zuen garrantzizko leku seinalaturik. (...).

Liburu marraztu zaharrak erre ondoren ematen diote aztekek hasiera ikusera historiko-erlijioso berriari".

(M.LEON-PORTILLA, 90)



AZTEKEN OPALKUNTZAK. Europarrak arras txunditu zituen gauzetako bat giza opalkuntza odoltsuena izan zen, Mexiko-n. Obsidianazko laban batekin bihotza ateratzen zitzaion opalgaiari. Tlacaélel-en erreformaren bidetik, oso ugaritu ziren erlijio-hilketa hauek azteken artean. Honelako kaiku batean jasotzen zen hildakoaren odola, berehala jainkoari eskaintzeko: eskaintza hauek mundua biziberritzeko egiten ziren.

Aurpegi eta Bihotz

Pertsona *ideia, asko kostata lortu den kontzeptua da Mendebaldean (Grezia, Erroma).* ***Pertsona*** *hitza bera latinetik datorkigu eta "mozorroa" esan nahi du. Aztekek, beren* ***náhuatl*** *hizkuntzan, bi hitzekin adierazten dute kontzeptu beretsua:* ***ixtli*** *"aurpegia" eta* ***yóllotl*** *"bihotza". Lehenago, azteken monumentuak ezagutzen ziren, ia bakarrik; gaur egun ezagunagoa da haien filosofia ere. Hona nola deskribatzen den nortasun heldua:*

"Gizon heldua:
harria bezain bihotz irmoa,
zuhaitz-enborra
bezain gogorra;
aurpegi jakitun,
bihotz eta aurpegi baten jabe,
abila eta adikorra.

Emakume egina,
harengan begiak jartzean...
emakumetasuna
haren aurpegian..."
(M.LEON-PORTILLA, 146-147)



TENPLU-PIRAMIDEA. Honelako eraikuntzak oso ezagunak dira azteken kulturan. Beren neurriengatik, lan itzelak eman zituzten; lan-indarrak bilduko zituen gizarte eratua eta botere politiko indartsua eskatu zituen eraikuntz modu honek.

Arte xehetan, espiniarrak agertuta gero ere, eskuizkribu, zeramika eta zurezko lanetan franko lan egin zuten aztekek. Bestalde, pintura-eskola ezberdinik ere bazegoen.

III. ANDEETAKO ZIBILIZAZIOA: INKAK

Aurreko kulturaldien ondarea jasoz, inguruetako herriak menperatuz, ekonomia indartsua moldatuz eta Estatu modernoago bat eratuz, inkek Inperio zabalena antolatu zuten Hego Amerikako Andeetan eta Pazifikoko kostaldean.

Baina ez da pentsatu behar mende luzeetako obra izan zenik: hain zuzen, espainolak han agertu aurretik ozta-ozta burututako Inperioa zen inkena.



INKAURREKO KULTURAK. TXIMU INDIARRAK. Inkaurreko inperio hegoamerikarren artean handienetako bat tximu indiarrena izan zen. Hemen ikusten dugun hau inperioko muga-gotorleku bat da, Paramonga-koa. Tximuen inperioak 1000tik 1470.eraino iraun zuen, inkek menperatu zuten arte. Antolamendu sozial eta politiko handia zuen, eta Peru-iparraldetik kasik Limaraino iritsi zen. Ondoko mapan ematen dira inkaurreko zenbait kulturaren adibide batzuk, beren barruti eta epealdiekin.

TIWANAKU/INKAREN URKAMENDIA. Titikaka Lakuaren inguruan, andearteko "Altiplano"an beraz (batezbeste 3.400 metroko altuera du), inkaurreko kultura handia jaso zuten aimara indiarrek. Hona hemen zibilizazio hartako monumentu bat, eta Titikaka ondoko "Inkaren Urkamendia" deitua.





INKAURREKO HISTORIA

Ertamerikako kulturen garai beretsuetan, Hego Ameriketan ere kultura eta zibilizazio ederrak garatu ziren, baita inkaurreko mendeetan ere. Kronikari espainolek haietaz ezer gutxi esan bazuten ere, ugariak izan ziren inkaurreko kulturak, Andeetan eta Peru-ko kostaldean. Hain zuzen, historiaurre horixe da Inken zibilizazioari aurretik jarri zitzaion oinarria.

Gaur egun Peru-Boliviek hartzen dituzte lurraldeetan bizpahiru alde geografiko berezi beharko lirateke: kostalde luze eta mortua, Ekuador-tik kasik Txileraino doana; kosta-ondotik barnerantz doazen Andeetako bailara handiak, eta Andeetako lehenengo eta bigarren lerro-katearen tartean dagoen goi-lautada (altiplano)

Kulturaldi eta inperialismoak hiru eskualde hauetan ezagutu ziren. Aldi berean edo elkarri txanda hartuz, herri eta lurralde ezberdinek kultura aberatsak sortu zituzten. Ezin gaitezke historiaurre osoa laburbiltzen hasi, baina gogora ditzagun une eta leku batzuk.

Ezagutzen dugun lehenengo kultura bateratu hiritarra **Chavin** hiriaren inguruan zabaltzen da, ipar Andeetan (K.a. I. milakadan).

Artoaren ekonomia zuen zibilizazio honek; eraikuntza handiak jaso zituen eta irudiz hornitutako monolitoak. Nahiko hedakuntza zabala izan zuen eta aipatu ditugun lurraldeek batasun bat lortu zuten orduan.

Mende batzuren buruan batasun hori hautsi egin zen (K.o. I.an edo), eta tokian tokiko kulturgune sakabanatuak jaio ziren: **Nazka**, **Recuay**, **Motxika**, etab.

Bienbitartean **Tiwanaku**-n, goi-lautadan, esanahi historiko handia izango duen kulturgunea garatzen ari da, gaur egun ere historilarientzat misterioz betetako kultura. Loraldirik bikainena lortu zuen Tiwanaku-k eta --**Wari** hiriaren bidez ere bai-- lortutako zabalkundeari esker kultur batasun berria egiten da (K.o. 1000-1100). **Aimara** indiarren lorpenik ederrena izan zen hau. Ordurarte ezagututako kultur batasunik zabalena zen, baina ez zuen iraun ahal izan eta berriz ere hirurehun bat urtetan eskualdetan zatikatuko da Peru-Bolivialdea.

Hala ere, izan zen batasun kultur-politikoa egiten ahalegindu zen herririk: Inkaurreko azken inperio handia **Tximu** herriarena izan zen (1200-1470), Ekuador-mugatik beharbada Limaraino iristen zena.

Elkarren ondoan eta lehian mendez mende jasotako eskarmentuaren gain eraiki zen Inken Inperioa, baina, Pizarro Peru-ra iristean, oraindik gaztea zen "Tahuantinsuyu".

* 1. Lurraldeak bategiten

"Tahuantinsuyu" deitu ohi zioten inkek beren Inperioari. Inperioaren hiriburua **Cuzco**-n zegoen. Huraxe zen, Amerikak koloniaurrean ezagutu zuen erreinurik handienaren bihotza. **Lau eskualde** nagusitan, "Lau Eguzkialdeak" deituetan, banatzen zen erreinua (mapan ikus ditzakezu). Espainiarrak iristean, 4.000 bat kilometro zituen luzean, Kolonbia-tik Txilera.

Historia laburra zuen erreinu hark, apenas ehun urte: XV. menderditik hasita batu berriak ziren erresumako lurraldeak. Cuzco-tik goi-lautadara igo eta Tiwanaku konkistatzean (1445) hasi zen benetan zabalkunde handia. Azken konkista zabalak, Pizarro agertu baino urte gutxi batzuk lehenago, egin zituen Huayna Capac-ek (1493-1525).

Legendek diotenez, 1.200.aren inguruan hasia zen inka-herriaren historia politiko berria, baina historia-historia esan dezakeguna Pachacutec konkistariarekin hasi zen (1438-1471), lehenengo Cuzco defendatuz, eta ondoren inguruetako herriak menperatuz.

Agintarien politika hobeki ezartzeko, herri konkistatuei **hizkuntza** bakarra eman zitzaien: kitxua edo "runasimi" deitua izango zen --gainerako dialektu eta beste hizkuntzen gainetik--, mintzaera ofiziala. Horretarako, irakasleak bidaltzen ziren hiriburutik herrietara, eta tokian tokiko jauntxoen semeak Cuzco-ra joan behar izaten zuten kulturaz eta hizkuntzaz jabetzera.

Erreinuari batasuna ematen zion beste zerbait **erlijioa** zen. Herri menperatuen jainkoak



INKEN INPERIOA. XV. mendean eraiki zen Inperio hau. Lau lurralde nagusitan banatuta zegoen. Ekuador-tik Txile-erdialderaino iristen zen, Andeetako mendilerroa jarraikiz.

PERU-BOLIVIETAKO KULTURA ETA INPERIOAK

DATAK	AROAK	KOSTALDEA			LURRALDE GARAIAK				DATAK		
		Ipar.	Ert.	Hego	Ipar.	Ert.	Cuzco	Titikaka			
1500	KLASIKO-ONDOKOA	Inkak Tximu	Inkak Tximu	Inkak Txintxa	Inkak -	Inkak	Inkak -	Inkak -	KLASIKO-ONDOKOA	1500	Batasuna
							Lehen Inka				Barreiakuntza
1000	KLASIKOA	Tiwanaku	Tiwanaku	Tiwanaku	Tiwanaku (lekukoa)	Wari		Tiwanaku Berantkorra	KLASIKOA	1000	Batasuna (Wari/Tiwanaku)
500		Motxika		Nazka	Recuay		Tiwanaku klasikoa			500	Barreiakuntza
K.										K.	
500	SORBURUAK							Lehen Tiwanaku	SORBURUAK	500	
			Chavin		Chavin	Chavin					Batasuna (Chavin)
1000										1000	

errespetatu baldin baziren ere, Eguzki Inkaren kultua bereziki zaindu zen, jainko honi, guztien gainetik, lehentasuna aitortuz.

Erromatarren inperioan bezala, Peru-n ere garrantzi handia izan zuen **galtzada**-sareak. Miresgarriagoa da hemen hori, Andeetako mendialdeak sekulako eragozpen geografikoak bait ditu, horrelako bide-urraketak egiteko. Kostaldeko "Inkaren Bidea" Tumbes-tik Txile-raino iristen zen; baina batez ere mendialdeko kaminoek izan zuten lotura-betekizunik behinena. Leizeen gainetik bidea luzatzeko, zubi esekiak ere bota zituzten inkek. Cuzco-n, Apurimac ibaiaren gainekoak, adibidez, XIX. menderaino iraun zuen.

Herri berriak irabazi nahi zirenean, lehenengo **propagandaz** hurbiltzen ziren inkak haiengana, beren Erreinuaren bikaintasunak erakutsiz. Baina, nahi zena lortzen ez bazuten, gerrari ekiten zitzaion eta, erasoak menperatu orduko, asimilazio-lanari heltzen zioten, garaituen buruzagiak Cuzco-ra ekarriz eta, okerrenean, taldekako leku-aldaketarekin zigortuz ("mitimac" deituak).

Armada, diplomazia, hizkuntza, erlijioa, galtzadak, leku-aldaketa bortxatuak: guztiak ziren inperio batbera eta bakarra egiteko tresnak. Lu-

Inkak: Erreinuko lurraldeak

Erreinua ***Tahuantinsuyu*** *bezala izendatzen zen: kitxuaz "Lau Eguzkialdeak" esan nahi du gutxi gorabehera; Cuzco hiriburuko begirapuntutik ikusten zen mundua.*

Chinchasuyu*-k iparraldeko lurraldeak hartzen zituen, kostaldeko eta mendialdeko erdialde-iparraldeak bilduz.*

Collasuyu*, hegoaldeetara zabaltzen zen, eta Bolivia, Argentina eta Txile-ko goi-lautadak eta kostaldeak osatzen zuten Eguzkialde hau.*

Antisuyu*-k ekialdeko lurraldeak biltzen zituen, Amazoniako oihanetaraino zabalduz.*

Contisuyu*, azkenik, Cuzcotik Pazifikorainoko Eguzkialdea zen.* *(D.LAVALLEE, 779)*

"Inka" izena

"Inka" izenak aldiberean bi gauza esan nahi ditu: garai batean tribu txiki eta apal bati ematen zitzaion izen hori, geroago erreinu handi baten talde gidaria bilakatuko zen tribuari alegia. Baina izen bera erabili izan da tribu honen buruzagia izendatzeko. Beraz, berdin esan liteke "herri inka", "inken kultura" edo "Huayna Capac Inka".

Inken hizkuntza

"Inperioari batasuna eman zion faktoreetako bat kitxua hizkuntzaren zabalkundea izan zen. Ez dakigu, segurtasun osoz, jokabide hau zenbateraino gertatu zen ohartuki egindako politika. Dena den, administrari inkek kitxuaz hitzegiten zuten, eta zalantzarik gabe beren menpeko funtzionari apalagoetara eta jende xumearen artean ere zabaldu zuten. Hala ere, zabalkunderik handiena geroago izan zuen kitxuak, espainiarrekin eta misiolari kristauekin".

(G.H.S. BUSHNELL)

Huacchacaita aellaspan, huacchaihuacchai purirccanqui puncun puncunta purispa micjunata tarirccanqui huaccha caihuan makkalliscca, huaccha Diosta ccaterccanqui.

rraldeak bategin orduko, berriz, herriak eta gizartea ere batasun estuan bildu eta egituratu behar zen.

* 2. Antolamendu sozio-politikoa

Erreinuko aginte osoa, garaiena eta jainkotarra **Sapa Inka** deituarena zen: hura zen ororen Errege eta jabe. Inti Eguzki-Jainkoaren semetzat ezagutzen zen. Zuzenean honen menpe zegoen Estatu osoa eta erlijio-bizitza; nobleen artean nobleena eta apezen artean Lehen-apeza Inka erregea zen.

Azpian, hurrengo, **nobleak** zetozen, hau da, Erregearen odol berekoak, espainiarrek belarri-handiak ("orejones") deituak, noblezia osokoak. Beste maila batean nobletzat jotzen ziren herrialdeetako nobleak ere, zenbait funtzionari

CUZCO HIRIA. HARGINAK. Inkek Cuzco zuten beren hiriburua. Ezkerretan dago hirigunea, eta mendi-maldan ikusten diren eraikuntzak Sacsahuamák gotorlekukoak dira. Inkak oso hargin onak izan ziren eta kalkulu zehatzak eginez lanegiten zuten. Porlanik erabiltzen ez zutenez, harlanduak elkarri ongi doituta, beste gabe, jasotzen zituzten murruak. Ondoko harri honetan (bera eman ohi da adibide onena bezala) ikusten da nola egin zen hori: 12 alde ditu harlandu honek.



garai, armagizon eta Inkak halakotzat aitortzen zituenak.

Beste klase abantailatsua **apezak** ziren. Inka bera zen berauen burua. Erlijio-ospakizunen arduradun eta jakinduriaren gordetzaileak ziren, eta, nobleekin batera, hauek bakarrik ziren zergatatik libre zeudenak.

Mailarik apalenean **"yanaconas"** deituak zeuden. Itxuraz, gerrakoan prisoner hartuak, esklabuak, berauen seme-alabak, etab. ziren. Estatuaren eta funtzionari handien zerbitzari leial bezala ikusiak zeuden, eta askotan handikien konfidantzazkoak bilakatu ohi ziren.

Libre izanik, baina Estatuko erakunde boteretsuaren borondateari lotu-lotuta, **herri xumea** zegoen, azkenik. Estatu inkaren baliabide politiko-ekonomiko aberatsena herria zen. Lana zen honen egitekoa, mota askotako lanak: batez ere, nekazaritza, askotan gerra, eta batzurentzat artisautza.

Norberak bere lurretan ez ezik, Estatuarenetan ere lanegin beharra zuen: herritarraren betebeharretako bat zen hau, gerrara joatea bezalaxe. "Mita" deritzon ohiturari erantzunez, herri eraikuntzetan (zubi, tenplu, bide...) parte hartu beharra zegoen, baita salgaien eta Estatuaren garraioan nahiz armadan ere. Estatuaren langile ari zirenak beronek mantentzen zituen.

Norberarenean nahiz Estatuarenetan, baina lurgintzan eman behar zuen herriak bere izerdia, nolatan artisaua ez zen. Lanaren eginbehar hau zintzoki betearazteko, adinez banatuta zegoen biz-



PRINTZESA INKA. Hierarkia sozial oso mamitua zeukan inken gizarteak, dena (ekonomia, politika, erlijioa, kultura...) Inkaren inguruan biltzen zen. Hona Printzesa inka bat, apain jantzia. Cuzco-ko pintura-eskolako lana.

Agintea eta zoriona

"Gutiengo baten probetxutan eraturiko sistema politiko-administratiboa zen inkena. Gobernu autokratikoa.

Talde nagusiaren agintea erlijioan oinarritzen zen, eta herria honen menpe, ezjakintasunean eta etengabeko lanetan. Alferkeria --grina txar guztien ama-- zigortu egiten zen; herriak beti ekinean edukitzeko, eta ahalegin horri eustearren, inoiz agindu zen milaka eta milaka zorri, zerga gisa, biltzeko ere.

*Zorion negatiboa baizik ez zen hura: bizitza erabat arautua zegoen, janariak eta jantziak berdinak ziren, klan eta **ayllu**-ari lotuta zegoen gizabanakoa (...), guztien gainetik Estatua, dena arautzeko". (F. MORALES PADRON)*

ANTOLAMENDU POLITIKOA



AGINTEKERIAREN AJEAK

"Inken gobernua, alde batzutatik begiratuta, totalitarioa izan zen. Batez ere efikaziaren kezka eta bizilagunen ongizatearen ardura izan zituen. Bere aurretik izandako zibilizazioez eskuzabalki probetxatu zen, izadi egoskor bati etekinik onena ateratzeko. Eraikuntza eta arte-obra izugarriak jaso zituzten, eta beren sistema sozio-ekonomikoaren sinpletasunagatik miresgarriak gertatzen zaizkigu inkak gaur egun ere. Honek guztiak gobernamendu zentralizatu oso boteretsu bat eskatzen zuen, aginte oro Inkaren eskuetan bilduz. Erregea zen Inperioaren giltzarria. Piramide-antolamendu honek explikatzen ditu Inperio haren indarra eta hauskortasuna, aldi berean". *(D. LA VALLEE)*

tanleria osoa, eta errolda honen arabera banatzen ziren herri-lanak.

Soldaduska zen herritarraren beste betikizun bat. Hain denbora gutxian eta hainbeste herri txikiren kontra jasotako Erreinuak, nahitaez, armada ugaria eskatzen zuen. Eginbeharrekoa zen denentzat soldaduska, eta, uste denez, bizilagunetatik hamarretik bat beti armadan zegoen. Expedizioak arreta osoz prestatu ohi ziren, administrazioa eta bizitza politikoa arretaz zaindu ohi ziren bezalaxe.

Ikusi dugu galtzadek zuten garrantzia: haiei esker, komunikabide bizkorrak eta efikazak zituen Erreinuak. Izan ere, efikazia zen administrazio inkaren dohainetako bat: agintearen itzala eta eragina Erreinuko bazter guztietara iristen zen, bizkor eta indarrez.

Lau Eguzkialde (suyu) handien burutzat "capac" deituak zeuden, beti ere Inkaren aholku-emaile minak. Biztanleria osoa --lanerako eta gobernatua izateko-- "ayllu" zeritzen senitasun bereko famili taldeetan banatuta zegoen; horretan "curaca" buruzagiaren begiradapean bete behar zituen herritarrak bere egiteko ekonomiko, erlijioso eta sozialak.

Hauetatik oinarrizkoena, noski, Erreinuaren sistema mantentzeko premiazko produkzioari eustea.

Inken bideak

(Inperioak milaka kilometro zituen luzean, eta tartean mendi-haran malkartsuak. Horri guztiari batasun politiko-ekonomikoa emateko erabat premiazkoak ziren bideak).

"Ongi daudela iruditzen zaigu eratuak gaurko gure bide eta kaminoak: tarteka beren ostatuekin, beren gasolindegiekin,etab. Ez dira gaur goizeko asmaketak horiek! Erdi Aroko Inken Inperio hark ere bazituen bereak: hogei kilometrotik hogei kilometrora "tanbo" zeritzeten etxe batzuk zituzten bidariei ostatu emateko eta gudarientzako edozein klasetako gauzaz beteak (erropak, oinetakoak, animalientzako jatena, etab.). Bi edo hiru kilometro bakoitzeko, berriz, "txaski" izeneko langileen etxeak zeuzkaten; korreo-lana egiten zuten, alde batetik bestera berriak ahoz eramanez. Urte garairik hoberenean izaten zuten bi mila kilometro bost egunetan egindakorik, eta jeneralean galtzadaren 5.000 kilometroak hogeiren bat egunetan ibiltzen zituzten: geroago espainiarrek jarritako zaldiek baino lau aldiz denbora gutxiagoan, alegia".

*(ZELAIA: **Egutegia**)*

* 3. Sistema ekonomikoa

Sistema ekonomikoaren funtsa laborantza zen, gainerako sektore ekonomikoak (meagintza, arrantza, merkatalgoa...) erabat bigarren mailakoak ziren. Gizarte haren eta Estatuaren zimentarri ekonomikoa ulertezina izango litzateke laborantzaren sostengurik gabe.

Areago oraindik: lurraren ustiaketa sistematiko eta planifikaturik gabe konpreniezina da inken ekonomia.

Labore-lurrak hiru motatan banatu zituzten, plangintza zehatz bati jarraituz; gizartean onartuta zegoen hiru klaseen arabera egiten zen banaketa hori. Lehenengo motako lurren etekina Eguzkiaren kultu-betekizunetarako uzten zen, apezentzat; bigarren partea, Inkarentzat eta beronen familiartearentzat zen, nobleziarentzat alegia; ezbehar publikorik suertatuz gero honetaz balia zitekeen. Hirugarren partea zen herriari banatzen zitzaiona.



MALDETAKO ZAPALDAK. Inken Inperioaren bihotza Andeetan lekutzen zen. Nahitaezkoa gertatu zitzaien mendiei labore--sailak irabaztea. Horregatik, mendi-maldetan sekulako lur--mailaketa hauek egin zituzten, higaduraren kontra lur gozoa zapaldetan babestuz.

Herriari banatzeko lurrok ayllu-ei partitzen zitzaizkien, eta ayllu-ko familia bakoitzari lur-sail bat zegokion; sail honen neurriak familiaren beharrizanen eta lurraren emankortasunaren arabera mugatzen ziren. Honela, ezkontzean (24 urte baino lehen ezin zitekeen ezkondu herritarra) ezkonberriei ere, zegokien lur-saila ematen zitzaien, eta haurrak jaio ala osatzen zitzaien zati berriekin. Lur-sailok norberarenak ziren, baina ez zitezkeen ez sal, ez ondokoei laga.

Lur hauetan artoa, kinua (arroz-mota bat) eta batez ere patata ereiten ziren; lurralde beroagoetan, berriz, kotoia, babarrunak, piperrak edo kalabaza ere bai. Hauetatik batzuk handik zabaldu ziren gero mundura.

Sekulako ahaleginen ondoren irabazi zituzten indiarrek labore-sailak, mendi-maldetan egundoko mailaketa-lanak eginez, bailara-behetik hasi eta tontorretaraino.

Ehizak eta arrantzak zeresan kaskarragoa izan zuten. Etxeko aziendak ere ez ziren ugariak; mendialdeetan llamak, alpakak eta bikuinak ziren laguntzarik onenak, baina zamari bezala gutxi erabili izan ziren, eta haragitarako ere apenas. Artile eta larruari probetxurik onena atera zieten; ehungintza etxekoandreen lana izan zen.

Merkatalgoan ez zen monetarik ezagutu. Tokian tokiko azoketan truke bidez egiten ziren salerosketak. Kontabilitatea zehazkiago eramateko bazuten inkek zenbaki-sistema hamartarra, eta berau erabiltzeko **quipu** deitu lokarrizko tresna bat. Estatuak bazituen **quipu**-zainak dei genitzakeen funtzionariak, hau da, kontagailu horiek erabili

Nekazarien produkzioa

*"**Ayllu** bakoitzak hiru partetan banatutako lur-sailak izaten zituen, bat erregearentzakoa, bestea Eguzkiarena, eta hirugarrena **ayllu**-arena berarena; lehenengo bien laborantza zen, herriarentzat, Estatuari zerga ordaintzeko modu arrunta, eta bion fruitua zen gobernua eta erlijioa mantentzeko baliabidea ere".*

(G.H.S. BUSHNELL, 136)

QUIPUa:
Estatistika eta Historia

"Nonahi ere, inkek bazuten uneoro Erreinuko estatistiken informazio zabala. Beren goardizioez jakin beharko zutena bazekiten, berdin burokraziaren lanaz, eskualde ezberdinetako bizilagunez eta baita lanetarako zeuzkaten gizonezkoen eta emakumezkoen arteko portzentaiak ere.

*Oroimen-lorpen miragarria zen hau, hain zuzen **quipu** deituriko tresnaz lortutako ahalmena. (...).*

*Horretarako arduradunak (oroimen-dohainez horrela jantziak) buruz jakiten zuen **quipu**-aren lokarritxo eta korapilo bakoitzak zer esan nahi zuen. Bizitza osoa ematen zuen datu horiek jaso eta gogoratzen, eta bere ardurapean zituen funtzionariei xehetasun denak eman ziezazkiekeen.*

*Bestalde, gertakari historiko oroigarrien bilduma mota bat zen, gainera, **quipu**-a, edo gutxienik talde agintariak gogoratu nahi zuen Historiaren bilduma".* *(J.E.FAGG, 47)*

eta merkatal bizitzaren berri zehatzak artxibatzen zituztenak. Estatuak zaintzen zuen, beraz, ekonomi sektore hau ere.

Inken gizartean harreman ekonomikoak oso antolatuta zeuden. Horri esker, egingarriak gertatu ziren zibilizazio hartan hainbat lan publiko eta artelan.



QUIPUa. Kontaketarako tresna hau estatistika ekonomikoak jaso eta benetako artxibategiak egiteko erabiltzen zuten funtzionariek. Tresna oroitgarri bat zen, mnemoteknikoa. Honetaz baliatuta, oroimen ona zutenak, azkenean, boteretsu gertatzen ziren Inperioan. Hemengo quipu hau baino askoz konplexuagoak ere bazeuden, noski. Ondoko marrazki historikoan, Inkari zilo batzuetako kontuak ematen funtzionari bat.



* 4. Kultur bizitza

Jakintza, erlijioa eta artea ere, Estatuaren barnean, eratuta zeuden.

SACSAHUAMAN. Cuzco gaineko muinoan dago inken gotorleku hau; hiriarekin ere lotuta zegoen, tunel ezkutuen bidez. Lerro hautsiko hiru murru paralelo zeuzkan, defentsarako aproposak. Inken eraikuntzarik miresgarrienetakoa da.



Jakintzak balio politiko garbia izan zuen inken erreinuan. Cuzco-n zeuden ikastetxe nagusiak eta hara eramaten ziren, ikastera, funtzionarigaiak eta herri menperatu berrien buruzagigaiak. Inkak ez ziren izan zientzi sortzaile handiak, topatu zutena hartu, eta hari erabilera praktikoa ematen saiatu ziren. Administrazioak behar zituen aritmetika eta egutegia, esate baterako, erabili zituzten, eta pisu-neurriak ere bai.

Inken bikaintasuna batez ere **arkitekturan** aurkitzen dugu: eraikuntz tekniketan benetan maisuak izan ziren. Arkitektura megalitikoa izan zen inkena: adibiderik onenak eta harrigarrienak Cuzco-n aurki litezke, hiri honen ondoko Sacsahuaman muinoan eta Machu Picchu-n, Urubamba bailarako mendi galduetan. Erabilitako tamaina eta teknikengatik obra iraunkorrak eta oso sendoak dira inken eraikuntza hauek. Zalantzarik gabe, obra handi

Inken eraikuntzak

"Eraikuntza erraldoi hauen hondakinak misterioz beteta daude guretzat. Ez dakigu, urruneko harrobietatik, mendikate, amildegi eta zintzurrak zehar nola eraman zituzten harritzar hauek. Ez zuten horretarako inolako makinarik, ez animaliarik. Polea bera ere ezezaguna zen inkentzat, nahiz eta beharbada zurezko enbor borobilak erabili izan, harez gero eguraldiak ustel arazi dituenak. Milaka langilek egindako garraio-lana dela pentsatu beharko da (...), baina berriz ere beste zerbait harrigarrirekin topo egiten dugu: nola landu ote zituzten harriak, bultzaka ekarri ondoren, eraiki-puntuan? Harrien tamaina ezberdina, alde aurretiko plan baten araberakoa zen. (...). Ez zen ia inoiz porlanik erabiltzen; elkarren gain juxtu-juxtu moldatzeko moduan lantzen ziren harriak. (...). Oraindik ere, zutik jasan dituzte inken murruek gainerako edozein eratako eraikuntza lur-joarazten duten lurrikarak". *(J.E.FAGG, 51)*



MACHU PICCHU. Andeetan galdutako hiria da, misterioz betea. Kitxuaz "Mendi Zaharra" esan nahi du. Espainiarrek ez zuten ezagutu gotorleku hau, baina indiarrentzat noski ezaguna zen. Jauregi hau 1912an aurkitu zuen Hiram Bingham ipar amerikarrak. Hiri galdu honen historia arras ezkutua da oraindik ere jakitunentzat, hainbat hipotesi erabili izan bada ere.

Inperioaren bi ahuleziak

"Inperioak bi ahulezia handi zituen. Lehenengoa zera zen: Erregeak ez zuen bere ondorengoa izendatzeko modu finkorik, eta bere emazte nagusiaren edozein seme izan zitekeen horretarako hautatua. Horregatik, Huayna Capac bere ondorengoa izendatu gabe ustekabean hil zenean (1525), haren heriotzak Huescar-en eta Atahuallpa-ren arteko borroka piztu zuen. Bakoitzak izan zuen bere lagun-talde indartsua, eta Inperioa ahulduta utzi zuen horrek. Hain zuzen, espainolak agertzean gertatu zen hori. Zoritxar handia izan zen horrela suertatzea, zeren bestela zalantzarik gabe Atahuallpa, urte gutxiren buruan, onartua izango bait zen, zalantzarik gabe. Beste ahulezia, Inkaren inguruan biltzen zen gehiegizko zentralismoa zen. Ofizial guztiak haren aurrean ziren erantzule (...), baina maila berekoen artean ez zegoen ia loturarik. Piramide bat zen erakundea, baina lotugabeko blokez egina: oinarrietan eraso ziotenean, lur jo zuen denak". (G.H.S. BUSHNELL)



hauek izerdi eta gastu sozial nekagarriak ezarri zituzten beren garaian.

Pisu astuneko megalitismo honen ondoan, arte higikorra ere ezingo da ahantzi. **Zeramikan**, Cuzco-aldean eman ziren lurrontzi jatorrenak, gehienetan irudi geometrikoz apainduak. "Aribalo" deituriko pitxerrandia eta zurezko "kero"a dira ezagunenak; sukalde-ontzi zenbait Inperio osora zabaldu zen, toki bakoitzeko berarizko materialak erabiliz.

Idazkerarik ez zeukatenez, literaturan ez zuten obra handirik eman. Kitxuen Literatura batez ere ahozkoa da, mintzatua.

Aberastasun hobea erakusten du inken erlijioak. **Viracocha** deitzen zuten beren jainko gorena, munduaren sortzailea, hasiera eta azkenik gabea. Erromatarren modura, inkek ere ez zuten ito herri menperatuen erlijiorik. Jatorrizkoak eta herriengandik jasotako jainko txikiak asko ziren.

Eskaintzak eta erlijio-ospakuntzak jai handietan egiten ziren bereziki eta tenplu ederrik bazen horretarako. Ezagunena Cuzco-ko **Coricancha**. Opariak, norberaren baliozko gauzak izaten ziren, normalean. Otoitz, bekatu eta barauaren kontzeptuak ezagutu zituzten. Inoiz edo bestetan giza sakrifiziorik egin bazuten ere, inkek ez zuten azteken erlijio odoltsurik izan.

ARIBALOA. Arkitektura izan zen inkek ongien landu zuten artea, baina gainerakoetan ez zuten lortu haren pareko bikaintasunik. Hala ere, inken zeramikak zabalkunde handia izan zuen. Lurrontzietan ezagunena **aribaloa** izan zen: honelako pitxar bat zen aribaloa.

IV. ITURRIAK. KIDETASUNAK ETA ALDEAK

Amerikaren Aurkikundean, "Mundu Berria" ez ezik, kultura eta zibilizazio ezezagunak aurkitu zituzten europarrek. Kultura haiek askotan "atzeratuak" ziren konkistarientzat, Europa-ko aurrerapen tekniko eta antolamendu konplexurik ez zutelako. Baina, behin baino gehiagotan, miretsita geratu ziren espainolak halako gizarte boteretsuak topatzean. Hauxe da azteka eta inken kasua, eta gero hobekiago ezagutu zen maiena.

1492an aurkitutakoaren ondoren, ez ziren, beraz, Europa edo Ekialdea bakarrik zibilizazio handiak sortutako munduak. Amerikak ere bereak emanda zituen.

Kultura handi haiei buruz dakizkigunak, batez ere konkistarien luma edo ahotatik ezagutu ditugunak dira. Espainolek menperatutako herri haien ahotsa ez zaigu, ia inoiz, zuzenean iritsi, konkistariek erre egin bait zituzten jatorrizko artxibo eta idazkiak. XVI. mendeko misiolariek (Sahagún, Motolinia, Mendieta...) jaso eta orain, XIX. mendetik hona, argitara emandakoez baliatzen gara bereziki orduko amerindiarrei buruz mintzatzeko. Azken urte hauetan, ordea, Ameriketako indiarren hizkuntzetako ahozko legendak ere jaso dira eta, horrela, konkistariek eman ez zuten beste aldea ere (indiar menperatuena, alegia) ezagutu ahal izango dugu, Amerikaren erroak jatorkiago dastatzeko. Zorionez, geroz eta gehiago jakin dezakegu konkistako galtzaileek pentsatzen zutenaz.

Historilariek, gaur egun eskuetan dituz-


HYSTORIA EC
cleſiaſtica yndiana compueſta porel
fray geronimo de mendieta predi.
de la orden de nro ſeraph. ſ san fran.
natural de la ciudad de viter ymo
rador en la prouin del ſancto evange
lio en las yndias.
Con algunas aduertencias del ſ
fray joan dedomayquia predic.
y guardian de ſan fran. de la dicha ciu
dad de vitr. ſacadas de cartas y
otros borradores del autor.
Dirigida año ſ fray antonio
de ortco lector jubilado y comiſſ
general de todas las yndias.

AITA MENDIETA (1525-1604).Gasteiztarra zen eta Bilbon egin zituen bere ikasketak. 1554ean Mexiko-ra joan zen misiolari bezala. Obra handi hau idatzi zuen 1573-97. urteetan, gero 1810erarte argitaragabe utzia. Mexiko-ko kultura indiarra eta konkistaren lehen mendea ezagutzeko iturri nagusi bat da euskaldun honen liburu hau.

EKONOMIA DESEGINDA. Europarren eta indiarren arteko topaketa bortitza izan zen, politikan ezezik, ekonomian ere. Bry-ren (1590) marrazki honetan, inkak beren urrezko ontzi eta pitxiak biltzen ageri zaizkigu, espainiar garaileen agindupean. Ondasun eta edertasun hauek, asko eta asko, urtu egin ziren: dena konkistarien eta Koroaren artean banatu zen. Horrela hasi zen kolonien ustiaketa.



ten datuekin, nola epaitzen dute kolonaurreko zibilizazio haien balioa? Labur ditzagun jaso litezkeen eritziak.

Maiak dira beren projektu kulturalean iraupenik harrigarriena erakutsi zutenak: behin eta berriz heldu zioten ahaleginari, horretarako lurralde berriak ere bilatuz. Maia-herria(k) ez zu(t)en, azteka edo inken pareko inperialismo-grinarik izan, eta mendetan bizi izan ziren bere(n) baitan erakunde politiko polizentrista batekin (Tenochtitlán edo Cuzco-ren antzekorik gabe, itxuraz Mayapán-go elkarteak ez bait zuen izan beste hauen alkantzurik). Sen politiko berezia izan zuten, beraz. Zientzietan, paregabeko abstrakzio-gaitasuna erakutsi zuten maiek (zeroa, lekugunezko zenbaki-sistema). Nahitaez, gogoan hartu behar da maien astronomi jakintza.

Aztekak dira, Amerikako kultura handien artean, antolamendu demokratikoena zutenak. Ez da hori ahantzi behar, herri hark zuen erlijio-ospa-

Inken sozialismoa?

"Inkek, izan ere, bete zuten sozialismoaren oinarrizko hastapen hura: haien artean ez zegoen produkzio-baliabideen jabetasun pribaturik. Hala ere, haien gizartea osatzen zuten hiru klaseak (hau da, apezgoa, noblezia eta hirugarren estatua esan ditzakegunak) elkarrengandik erabat banatuta zeuden, gutxienez Frantzian 1789aren aurretik zeuden bezalatsu. Inkak, gure Errege Eguzkia (Roi Soleil) bezain jainko-ezkubidezko botere absolutuz jantziak zeuden; inken politika anexionistan herrien taldekako leku-aldakuntza bortxatuak ere egin ziren. Mundu Zaharrean ez da halakorik ezagutu... XX. menderarte".

(H.LEHMANN)

kizunetako hilketa higuingarrien beste aurpegia aipatzean. Konkistari espainolek ahalegin guztiak egin zituzten, eta H.Cortês-ek ez txikienak, azteken alde onak ezkutatzen. Hala ere, esan beharra dago, bere burua "herri hautatutzat" zeukan azteka-herria ingurukoekin bereziki krudela izan zela gerrateetan. Baina artelanak eta jakintza ere beti miretsi zituen, eta miretsi ez ezik landu ere. Hargin abilak izan ziren aztekak, eta maisuak harlanduetako grabatu leunduetan. Urregintza eta luma-lanak ere, aztekak dira, inondik ere.

Inkei buruzko eritziak, oso banatuak izan dira historilarien artean. Batzuentzat, herri aurreratuagoen itotzaile izan zen hura; honela, ba, batez ere herri gerlari gogorra da inkena, hauentzat. Indarkeriaz eta agintekeriaz egindako erreinua izango litzateke, hauen eritziz. Kritika honen kontra, XVIII. mendetik hona Peru-n haien obrarekiko mirespen handi bat piztu da. Gaur egun badirudi neurri batetan, joera hau nagusitu dela historilarien artean ere.

Ez espainolen konkistaren aurretik, eta ez geroztik, ezagutu da Andeetan halako gizarte ordenaturik. Eta, erakunde bezala, maien eta azteken gizarte-antolamentua baino hobea lortu zuten inkek. Erreinuko herrientzat, segurtasun ekonomiko egoki bat iritsi zuten gizartean. Horixe da, hain zuzen, espainolek berehala hautsi zutena. Baina, segurtasun horren truke, agintedunek herritarren ekimena zeharo ito zuten. Azteken artean norberaren libertadeak edo balioak zuen lekurik ez dago inken Inperioan. Inkek produkzio-sistemarik efikazena sortu zuten. Batez ere, Estatua antolatzen, galtzadak urratzen eta ehungintzan beste amerikar guztiei hartu zieten aurrea.

AMERIKARREN EKARPENAK

Amerikak, gaur eguneko munduko kulturei eskaini dien ekarpena batez ere lurgintzari dagokiona izan da. Indiarrak izan ziren lehenengoak kakahuete eta artoa, patata eta manioka laboratzen. Haiengandik ikasi zuen Europak eta munduak kina-azalaz eta koka-zuhaiskaz baliatzen. Berdin kautxuaren izerdiaz eta ekilorearen olioaz; tomatea, bainila, kakaoa eta tabakoa ere laboratu zituzten.

Hala ere, indiarrei gurpila eta gurdia faltatu zitzaizkien, ez zuten golderik, eltzegile-tornurik edo hausporik, ezta burdinarik nahiz beirarik; ez zuten ezagutu ganga jatorrik. Haien artean, kultura gehinetan egiten ziren giza opalkuntza ankerrek espainiarren eta mundu kristauaren arbuioa piztu zuten.



GURPILIK EZ. Ameriketako kultura eta ekonomien garapenerako mugapenik handienetako bat gurpil eta gurdirik eza izan zen. Mundu Zaharrean aurrerapen tekniko hori askoz lehenago iritsita zegoen: hona hemen orain 4000 bat urteko lurrezko gurditxo bat, Hungarian idoroa.

Kultura amerikarren mugak

"Aisia libre ugariko kulturek automugapenak sortzen dituzte: bizilagunak gauzen menpe gutxiago zeudelako edo, paradoxaz gizonaren beraren ahalmenetara mugatuta zeuden zibilizazio amerikarrak.

Giza muskulu-indarraren maila ez zuten gainditu artoaren kulturek.

Gizaki haietako bat, XVI. mendeko edozein europar baino hogei aldiz ahulagoa zen bere baliabideetan, baina hango lur oneko hektarea batek bizilagun gehiagori eman zezaiokeen jaten, eta amerikar batek bere denboraren hiru laurden libre zeuzkan --subsistentzi lanetatik aparte-- nahiago zituenetan emateko.

Baina, azkenean, halako erraztasunek aurrerapen teknikoa ezindu egin zuten, aurrerapenari berari sortzeko arrazoia kendu bait zioten".

(P. CHAUNU)

Eta zer esan Ameriketako zibilizazio haiei buruz garai bereko kultura europarrarekin alderatzen baditugu? Zenbait puntutan, zalantza handirik gabe erantzun liteke: Garai bereko kultura europarren eta asiar gehienen azpitik zeuden Ameriketakoak. Zergatik?

Hona arrazoi garbi batzuk: a) **Gurpilik** ez zuten ezagutu: beraz, lan-teknikan oinarrizko atzerapen bat zuten. b) Benetako animalia **zamaririk** ez zuten izan, eta hortaz produkzio-sistema bere lan-energiatan arrunt pobrea izan zen. c) **Burdina** oso gutxi erabiltzen zen. d) **Golderik** ez zuten ezagutu, laborantzaren betekizun ekonomikoa oinarrizkoa izanarren. e) Ipartorratz, inprimategi eta bolborarik ez zuten. f) Sistema politikoak eta erlijio-bizitzak oso atzeratuta zeuden, eta ez ziren gai europarrei ezer hobeagorik eskaintzeko.

Alde negatibo horien ondoan, eman ditzagun Amerikaren ekarpenak. Gezurra badirudi ere, lurgintzako zenbait aurkikunde da Amerikaren herentziarik onena: **patata** eta **artoa**. Ordutik sartu ziren munduko ekonomian hainbat gosete isilarazi



KULTURA ZAHAR ETA BERRIAK. Amazoniako ibaiondo bat: kultura zahar eta berriak nahasian. Ontziak edozein tiburenak izan daitezke, baina ontzietan daudenak "zibilizatuak" dira, jazkeraz. Ondoan motorrak ere badaude. Etxeek lastozko estalkiak dituzte (Amazonian ohi denez), eta irekiak dira alboetatik; teilatua duen hori, herriko eliza da: bi eraikuntz molde elkarren ondoan, beraz. Lurralde guzti honetan (Beni, Bolivia) ez da harririk aurkitzen.

duten janariok: azkenik, Europa-ko herri xumearen gosea aseko dutenak (XVIII. mendetik hona). "Indiabak", txokolatea, tapioka, kautxoa, tabakoa, etab. amerikarrak dira. Azkenik, beste ikuspegi osoago batetan, esan beharra dago amerindiarrak lortuta zuela bere bizitzan izadiarekin oreka-modu bat, dudarik gabe Mendebaldeak galdu duen oreka-zentzua.

Eritzi historiko horiek gorabehera, kolonaurreko herrien historiak, Mesopotamian, Egypton edo Grezian bezala, berriz ere, gizakiaren pentsamenduaren sormena erakusten digu: gainerako munduarekin harremanik gabe, gizarte miresgarriak eta aurrerapen tekniko bikainak egin bait zituzten.

Aurreratua nahiz atzeratua izan, Amerikak bere bidea egiteko eskubidea zuen, baina bapatean europarra agertu zen han, eta konkistarien jokabideak eten beldurgarria sortu zuen gizarte haietan.

Indietako Peru-n:
Sistema ekonomikoaren etena

*"**Encomienda** deituaren gain eraiki zen Espainiaren sistema Ameriketan: sekulako "hazienda"k (lurrak) banatu ziren handiki espainolen artean, egindako zerbitzuen ordainetan. Era guztietako gehiegike rietarako ateak ireki zituen erabakiak, eta Peru-ko ordenamendu sozio-ekonomikoa hautsi egin zuen horrek. Milaka indiarrek beren lurrak utzi egin behar izan zituzten eta herrisketan bildu, edota noraezean etxeetako zerbitzari nahiz esklabu bezala geratu. Gisa berean, meatzetako lan bortxatuetan eman behar izan zuten bizia, **mita**-n alegia; giza langile ikaragarri irentsi zuen, hain zuzen, honek. Dirudienez, konkistaondoko lehenen hogeitamar urtetan biztanleria erdira jaitsi zen Peru-n".*

(D.LAVALLEE)

3
ERNAZIMENTUA: EUROPAREN PIZKUNDEA

URTEAK	GERTAKARIAK
1438/1450	Gutenberg-en lanak, inprimagailua asmatzen.
1441	Jan Van Eyck-en heriotza.
1447	Brunelleschi-ren heriotza.
1478	Botticelli-ren "Primadera".
1489/1501	Brocar inprimatzailea, Iruñean.
1492	Nebrija: "Gramática Castellana".
1494	Savonarola, Florentzian agintari.
1498	Alcalá-ko Unibertsitatea.
1502	Rojas: "La Celestina".
1502/1520	Alcalá-ko "Biblia Políglota".
1503/1513	Julio II.a, Aita Santu.
1511	Erasmo: "Eromenaren laudorioa".
1513	Machiavelli: "Printzea".
1513/1521	Leon X.a, Aita Santu.
1519	Leonardo da Vinci-ren heriotza.
1520	Raffaello-ren heriotza.
1520/1550	Bibliaren itzulpen herritarrak Europan.
1523	Joanes Antxieta musikagilearen heriotza.
1528	B. Castiglione: "Il Cortegiano".
1536	Erasmo-ren heriotza. Michelangelo: "Azken Judizioa".
1545	Trento-ko Kontzilioa. Etxepare: "Ling. Vasc. Prim.".
1549	Du Bellay: Frantsesaren defentsa.
1564	Michelangelo-ren heriotza.
1571	Leizarraga: "Testamentu Berria".
1575	Huarte Donibaneko: "Examen de Ingenios".
1588	Joanes Antxieta eskultorearen heriotza.



Pizkundea: Erdi Aroaren ondoren Europa-ko zibilizazioan bizi izandako aro historikoa izendatzeko erabili izan da "Pizkundea" kontzeptua (erdaratan: "Rinascimento" it., "Renacimiento" esp., "Renaissance" fr., ing.). Kontzeptua eta berorren edukina eta epealdia mugatzean eztabaida luzea ezagutu da historilarien artean. Hala ere, Europa-ko historiaz ihardutean, beti hitzegiten da "Pizkundeaz".

Batzurentzat, batez ere mundu klasikoaren berpizkundea adierazten du hitzak; besterentzat, berriz, Erdi Aro ilun luzeari kontrajartzen zaion kulturaldi bikaina da bereziki; eta hirugarren batentzat, norbanakoaren garrantzia azpimarratzen duen historialdia da baitipat.

EUROPA, XVI. MENDEAN. Aro Modernoa hastean, gutxienik bi barruti handi ongi berezi behar dira: bion muga marra beltzago batekin adierazi dugu. Ekialdean egitura sozio-ekonomikoak oso erdiarotarrak dira eta Pizkundea ere beranduago edo inoiz ez da iristen. Batez ere Mendebaldean kokatzen da ikasgaian deskribatzen dugun Pizkundearen fenomenoa.

Mendebaldeko Europa-n, Pizkundeak bi erdigune kultural nagusi ditu: Italia eta Herbehereak. Politikaren aldetik, oraindik bizirik dago, eta halaxe mantendu nahi du Karlos V.ak, Inperioaren amets zaharra: Erresuma handiak dauzka Karlos-ek bere agintepean (Alemania, Espainia, Italiaren parte on bat...). Batasun politiko horren kontra bi indar-

-molde datoz bizkor: Mendebaldean Estatu "nazionalak" (Frantzia bereziki) eta Ekialdetik Inperio Turkiarra. Bestalde ideia erlijioso, zientifiko eta politiko berriek laster erasoko diote ideia eta egoera zaharrei (Protestantismoak, Zientziaren iraultzak edo Herbehereetako askapen-gerrateak, adibidez).

Guk, hemen, alde guztiok ikutuko ditugu, ororen gainetik aroa bere osotasunean hartuz eta ikuspegi horiek elkarrekin batera begiratuz.

Pizkunde-sorburuak nolanahikoak direla ere, zera dago oso argi: beronen lehen agerpenak XIV. mendeko Italia-n gertatu ziren. Hala ere, benetako garapena XV.ekoa izan zen han. 1450.era baino lehen nagusituta zegoen Italia-n mugimendu intelektual hau, eta mende horren bigarren partean hasi zen Alpeetatik Iparraldera pasatzen.

Italia-tik kanpo, Pizkundeak molde ezberdinak ezagutu zituen, tokian tokiko kultur tradizioek ere izan zuten eraginaren ondorioz. Ez zen, gainera, ideia zaharren eta berrien arteko gatazkarik falta izan. Dena den, 1520.aren ingururako joera berriak garaile ageri ziren Europa-n.



BIDAIAK. Pizkundean, itsasoz lurralde handiak aurkitu zituen Europa-k (Afrika, Ameriketa, Asia...). Mundua oso zabaldu zen, alde horretatik. Baina Europa txikia bera ere oso handia zen garai hartako ibilgailu eta bidarientzat: Ekialdea alde batera utzita ere, Mendebaldea eta Mediterraneoa zabalak ziren 1500ean. Erreinuen gobernua, gerra egitea, edo merkatalgoa oso geldiak eta garestiak ziren bitarte geografiko hauengatik ere.

B I D A I A K

Merkatari eta enbaxadarien bidaia bizkorretan denbora hau behar izaten zen Europa-n. Hemendik irten gabe ere, mundua oso handia zen XVI. mendearen hasieran (1500), ikus daitekeenez.

Harreman diplomatikoak bezala, militarrak edo kulturalak ere oso dorpeak gertatzen ziren: salgaien zabalkundea bezala ideiena ere guztiz mantso egiten zen.

Parise/Brusela	5,5 egun
Parise/Metz	6 "
Parise/Bordale	7 "
Parise/Tolosa	8/10 "
Parise/Marseille	10/14 "
Venezia/Londres	26 "
Venezia/Konstantinopoli....	41 "
Venezia/Madril	41 "



ANTWERPEN (Amberes). XIII. mendeaz geroztik industri eta merkatal hiria zen, baina Brugge-k egiten zion itzal. XV-XVI. mendeetan, Ameriketako merkatalgoari esker, sekulako arrakasta ezagutu zuen: 1520-1560. urteetan hango produktuen birbanalekua zen hau, 1575-1576etan beheraldia hasi zuen arte. (Sevilla-Bilbo-Antwerpen izaten zen bidea).



I. PIZKUNDEKO GIZARTEA

XV. mendearen azkenetara iristean ez ziren batere ugari Europa-ko bizilagunak, eta oso ezberdinki banatzen ziren, eskualdeetan. Hala ere, gaina hartu zitzaion azkenik Izurrite Beltzak ekarritako hondamendi demografikoari. Europa indarberrituta ageri zen, hegoaldean bereziki.

« BIZITZA HIRITARRA. Ondoko marrazki honetan Nürnberg-eko Merkatu-Plaza ikus daiteke. XVI. mendean hirien bizitza aberastu egin zen, industria eta salerosketa-molde berriekin, lehenengo Italian eta Flandes-en, eta geroago Erteuropa-n, Iparraldean eta bestetan ere. Aldakuntza sozio-ekonomiko hauek ahalbideratu zituzten bizitza modernoaren sorkuntzak (zientzia, teknika, etab.). L.Strauch-en marrazkia (1599)

A) HIRIAK ETA BIZILAGUNAK

Napoli zen, agian, hiri europarrik handiena, bere 200.000 biztanlerekin; Londres, ostera, haren oso azpitik geratzen zen, 60.000 lagunekin. Handiagoa zen, dezentez, Parise: 150.000 bizilagun. Penintsula Iberiarrean, hirien tamaina ez zen gaurkoaren batere kidekoa: Madrilek 12.000 lagun bakarrik zituen (ez zen oraindik hiriburua), baina

Burgos, Toledo eta Sevilla-k 50.000tik gora, eta Salamanca-k agian 100.000 bat. Lisboa, ordea, atzerago geratzen zen: 40.000.

Bestalde, Europa-ko hiriburuen artean ere alde handiak zeuden: Eki-iparraldean, Mosku-k beharbada 150.000 biztanle izan zitzakeen, baina Estokolmo ez zen 7.000tara iristen.

Euskal Herrian, Bilbo-k --bere auzo eta guzti-- 7.000 eskas zituen, 1500aren inguruan. XVI.an zehar ez zituen 10.000 lagun bilduko inoiz; baina Donibane-Lohizune 12.000tara iritsi zen (1578). Ez Europa-k eta ez Euskal Herriak zuten gaurko biztanle-banakuntzarekin zerikusi handirik.

Orduantxe topatzen ari zen Ameriketaren ondoan, Europa lurralde txikia zen, noski, eta berdin Afrika nahiz Asiarekin alderatuz gero. Biztanleria bakana zuen, eta bizitokien arteko harremanak ez ziren samurrak gertatzen (bide-sare eskasa, segurtasunik eza, etab.). Merkatalgo- eta diplomazi-harremanetarako, ideien zabalkunderako, Europa oraindik ere handiegia eta baldarra gertatzen zen, geografiaz eta bere gizarte sakabanatuaz, baina ez noski egituratuta ez zegoelako.

Garraioa eta prezioak

"Garraioak garestitzen zituen batez ere prezioak. Indietako espeziek Toledo-n Lisboa-n baino bi aldiz gehiago balio zuten. Arkanjel-eko ale-prezioaren %75 Mosku-tik (650 miliatara zegoen berau) ekartzearen kostua zen.

Rouen-dik Amiens-erako garraioak bakarrik heren bat garestitzen zuen alea bi hirien artean. (...). Parise-tik Rouen-era Sena-n zehar zihoazen merkatalgaiek hamabost atesari ordaindu behar zituzten, Rouen bertakoak pagatu aurretik. Nürnberg-etik Frankfurt-erakoan (150 milia), lau eskolta ezberdin hartu behar ziren, esku-barruti batetik bestera igarotzean, eta Frankfurt-en beste atesari bat ordaindu behar zen, gainera. (...). Garraio-gastuek iharduera ekonomikoa eskualdearen mugetara lotzen zuten funtsean".

(HALE)



BILBO, XVI. MENDEAN. Europa-ko itsas merkatalgo handiena Mediterraneo-tik Atlantiko-ra pasa zen Pizkundean. Bilbo-k indar handia hartu zuen orduan, Penintsulatik Ipar Europa-rako portua bait zen berau: Gaztela-ko artileak eta Ameriketako produktuak hemendik zuten beren irtenbidea. Merkatalgo hau kontrolatzeko sortu zen, 1511n, Bilbo-ko Kontsulatua. Dena den, ez da pentsatu behar ordurako hiri handia zenik: hiri- eta landa-bizitzak oso hurbilak ziren oraindik. (F. Hogenbergius-en marrazkia, 1544).



EUROPAko 'NAZIOAK' BRUGGEn (1487)

BRUGGEko nazioak: zenbait herritako merkatariek beren egoitza bereziak izan ohi zituzten merkatal hiri handietan. Euskaldunek, "bizkaitar" bezala, beren kontsulatua zuten, XIV-XV. mendeetan: ezagguna da han "Biskayers Plaatz" deitua. Mapa ingeles honetan ikus daitekeenez, Europa-ko merkatal nazio nagusien artean zeuden gure merkatariak.

KLASE SOZIALEN JATORDUAK

(Luxuaren kontra Ingalaterra-n emandako arautegian (1517) klase sozialen jatorduak ere arautzen ziren. Nobleen eta elizgizonen jatorduetako janariak ezin izan zitezkeen zerrenda honetakoak baino gehiago, zeren plater-kopuruaren arabera neurtzen bait zen kategoria soziala ere:)

Kardinalak	9	plater
Artxapezpikuak	7	"
Dukeak	7	"
Markesak. Konteak	7	"
Apezpikuak	7	"
Kontepeko jaunek	6	"
Abadeak	6	"
Ganbarako Lord-ek	6	"
Gainerakoek (ondasunen arabera)	5/4/3	plater

"Eta norbaitek edo norbaitzuk beheragokoekin bazkaldu edo afaldu beharrik balute, bidezkoa izango da denei eta bakoitzari norberaren mailari dagokion gisan serbitzea". Adibidez: 500 libera dituen merkatari batek 7 platereko bazkaria eman diezaioke apezpiku bati, baina 3 soilik har ditzake merkatari lagunekin edo bakarrik jatean.

SANDRATIko BIDEA. Kostalde kantauriarretik Meseta-rako garraioa ez zen erraza, errepide modernoak egin diren arte. Horregatik ere, garrantzi handia zuten bide jakin gutxi batzuek XVI. mendean: hauetako bat zen Sandrati zehar zihoana. Honela marraztu zuen mendi-lepo hau J. Hoefnagel-ek: "La Sierra de Sant Adrian en Biscaia" (1567) dio hark.



B) ESTAMENTUZKO GIZARTEA

Gizarte europarra, Erdi Arotik zetorkion ohizko antolamenduz eratuta zegoen. Hori da orain hemen interesatzen zaiguna: hiru estamentutan banatuta bizi ziren garaiko europarrak. Nobleek, Elizak eta hiritar lauek osatzen zituzten, jakina denez, hiru estamentuak. Ikus dezagun, hortaz, nola elkar-trabatzen ziren hirurak, orduko gizartean.

Lehen datu jakingarria, estamentu bakoitzeko partaideen kopurua da: Espainian, adibidez, bizilagunetatik %2a zen noblea, %3a elizgizonak eta gainerako %95a langileak. Agintea eta jabetasuna, oro har, gutxi haien eskuetan zegoen bereziki, eta zergak eta lana beste hauen gain zetozen. Europa osoan, klerua eta gehienetan noblezia ere lege bereziz babestuak zeuden, hirugarren estamentu lauetik aparte.

Noblezia zen bere barnean kidekotasunik berdinduena zuena. Elizgizonen artean, ez zen beste hainbeste gertatzen, egoera sozio-ekonomiko oso kontrajarriak ikusten bait ziren honen baitan (hierarkia handi, monastegi eta konbentuak, parrokietako arduradunak, etab.).

Baina hirugarren estamentua zen batez ere bere baitan izan-molde ezberdinenak zituena; interes-talde, ogibide eta egoera sozial ugaritan banatzen zen estatu laua: artisauak, merkatariak eta langile arruntak, artista edo idazle zenbait ahantzi gabe.

Ideiaz eta burubide sozialez halako bizitasuna erakutsi zigun Pizkundean ikus dezagun antolamendu hirukoitz horren barnean nolako erraztasun nahiz

Estamentuen zereginak

"Langileek, munduan bizi izateko premiazkoak direnak inguratu behar dizkiete elizgizon eta zaldunei; eta zaldunek defendatu behar dituzte elizgizonak eta langileak, laidogarririk egin ez dakien; eta elizgizonek eskolatu eta irakatsi behar diete beste bi motatako lagun horiei, eta gidatu egin behar dituzte, Jainkoa atsekabe ez dezaten edo grazia gal". *(CAXTON:* ***Mirror of the World****, 1481)*

Nobleak eta Burgesak

(Garaiko landa-nobleen estuasunak honela kontrajartzen zituen hauetako batek hirietako bizitzarekin:)

"Nerea zurearekin alderatzean, ez ezazu inbiriarik izan... Gu landetan bizi gara, oihan eta gotorlekuetan. Gure baso, larre, mahasti eta soroak uzten dizkiegun herritar abailduen lanari esker bizi garenak gara gu. Hortik jasotzen duguna eskasegia da, horretarako eman den lanaren ondoan... Babesik izango badut, printzeren bati lotu beharrean aurkitzen naiz. Bestela, nornahik hartuko ninduke harrapakin errazegitzat... Ezin gaitezke ondoko auzunera aldendu, arrantza edo ihizera joan, armaduraz jantzita ezpada... (...). Etorkizunaren kezkaz beteta dago eguna, etengabeko errebolta eta ekaitzak ditugu ... Urteren batean uzta txarra badugu, orduan pobrezia deitoragarria dator gainera, ezinegona, asaldua".

(U. von HUTTEN, 1488-1523)

EUSKAL HERRIA (1500)	
Nafarroa	102.000 bizt.
Bizkaia	67.000 bizt.
Gipuzkoa	58.000 bizt.
Araba (1530) ..	50.000 bizt.

eragozpenak zeuden estamentu batetik bestera igarotzeko. Adibidez, Pizkundeko kultur gizon askok, bere obra burutzeko, premiazkoa zuen gizartean gorabidea irekita izatea.

Mendebaldeko bizilagunetatik %90, hirietatik kanpo bizi zen, eta hiriak ziren, hain zuzen, ogibidea aldatu eta hobetzeko bizitokirik egokienak. Beraz, nekazariak ziren aldakuntz itxaropenik eskasena zutenak. Gora egitekotan, hirira jo beharra zegoen; han zeuden ofizio berriak eta gora-aukerarik onenak. Garaiko mentalitate eta sentierei esker, izen handiko idazleek nahiz artistek han aurkitzen zituzten egokiera libre eta erakargarriagoak.

Burgesia zen hirietan nagusi: hirugarren estamentuko talderik azkarren honek agintzen zuen haietan. Beren interesak zaintzeko, burgesak gremioetan biltzen ziren. Ofizio bat hartzeko, ofi-

BURGESIAREN IRABAZIAK (1500)	
Hamburg-eko hirian, lau taldetan banatzen zen burgesia, irabazien arabera:	
Irabaziak (Lübeck)	**Ogibideak**
40.000/5.000 marko	Merkatari eta jabe handiak
5.000/2.000 marko	Garagardogileak eta itsasgizonak
2.000/600 marko	Dendari handiak, harakin eta arotz sonatuak
600/150 marko	Merkatariak, sagardogile txikiak
150tik behera marko	Artisau pobreak, morroinak, kale-garbitzaileak

BURGESIAREN IRABAZIAK. Hansaren merkatal hirietako burgesiaren adibide bat dakargu hemen. Klase sozialetatik burgesia da irabazietan bere barnean alderik handienak dituena: irabazirik larrienak merkatari handienenak dira; hirian burges pobreenak morroinak eta dira (1500).



DONIBANEko EMAKUMEAK. Hoefnagel bidariak, XVI. mendeko euskaldun herritarrik franko marraztu zuen (1567). Hona Donibane-Lohizuneko bi emakume (ezkerretan), eta beste bi baiones. Donibane-k munta nabaria hartu zuen mende haren azkenetan.

zioari zegokion gremioko bazkide izan behar zuen edonork. Hortaz, gremioa zen ogibidea norberari eta ondokoei segurtatzen zien elkargoa, askotan ikastun pobreagoen kontra, gainera.

C) HERRITAR XUMEAK

Herritar pobreek ez zuten beren egoera hobetzeko aukera handirik. Pobre-aberatsen arteko alde ekonomikoak oso larriak ziren oraindik: Valladolid hirian, adibidez, irabazi apaleko zaldun batek artisau koalifikatu batek baino 18 aldiz gehiago irabazten zuen, edo koalifikazio gabeko batek, hark baino 29 aldiz gutxiago.

Hirietatik kanpo, landetako nekazariak ez zuen bizimodu samurra, batez ere Europa-ko Ekialdean (Polonia, Errusia). Mendebaldean ere gehienak inoren lurretako langileak ziren; askoz gutxiago, sailen baten jabeak. Lurgintzarako, animaliaren bat eta goldea zituenak zuen biziera jasoena; horiek ere ez zituenak (gehienak ziren halakoak)

Ingalaterra-ko pobreak

(Biztanle-piramidearen irudia erabiliz, honela deskribatu du historilari batek Pizkundeko gizarte ingelesa bere klase sozialen banaketan:)

"Hirietako biztanleetatik bi heren gutxi gorabehera pobreziaren mugan edo azpitik bizi ziren; gaineko beste herenak gizarte-piramidean gora egiten zuen, piramidearen erpinerantz orratz bat izateraino, artisau, merkatari eta profesional zori onekoetatik hasi eta, azkeneko puntan, komunitatearen gastuen heren bat bere poltsatik ordain zezakeen merkatari norbanakoarenganaino iritsiz". *(Joan SIMON)*

Pobreak zergapean

"Printze onak zergarik arinenak ezarriko dizkie gizarteko behartsuenentzat diren merkatalgaiei, halanola ale, ogi, garagardo, ardo, janzkiei eta giza bizitzarako funtsezkoak diren artikuluei... Baina egiaz, hain zuzen, produktu horietxek jasan behar izaten dituzte zamarik astunenak; lehenik, nekazariei egiten zaizkien bortxakeriengatik...; gero, inportazio-eskubideengatik, eta azkenik, monopolioen bidez probreei egin ohi zaien ondasunen odol-hustuketagatik, eta hau dena printzeak interes-huskeria bat jaso dezan".

(D.ERASMOk Karlos V.ari)

bere beso-aitzurrez bakarrik lantzen zuen lurra. Nekosoa zen lana, beraz.

Hala ere, XVI. mendearen hasieratan prezioak nekazariaren probetxutan egin zuten gora, zenbait eskualdetan (Frantzian bederen). Eta bere hobekuntza sozialerako beste bi bide ere bazituen base-

NEKAZARIAREN ITXAROPENAK PARISE, XV-XVI. mendeak

Baserritarrak, aleak eta abereak saltzen dizkio hiritarrari, eta bere ekonomia hobetzeko lurrak erosi behar ditu gero.

XV. mendearen azkenetan irabazle irteten da nekazaria salerosketa horretan: gari-zekale nahaskitik heltolitro gutxi salduz gero, badu aski diru lur-sail berriak erosteko.

XVI. mendea gora dihoan ala, lurrak garestitu egiten dira Parise inguruan, eta aleek bereziki prezio oso apala dute: saltzaile bezala gutxi irabazten du nekazariak,-eta, erosle bezala, ezin ditu bere ukantzak zabaldu.

ERREGEALDIA	*NAHASKI--HEKTOLITROA	*BEHIA	*HEKTA-REA LUR
Luis XI., 1461-1483	6	-	44
Karlos VIII., 1438-1498	2,50	12	21
Luis XII., 1498-15	2,75	-	146
Frantzisko I., 1515-1547	8	43	400

*Nahaskiaren, behiaren nahiz hektarea lurraren erosketa egiteko, hiriko langile batek zenbat soldata-egun behar zituen adierazten da zenbakietan.

NEKAZARIEN ITXAROPENAK. Hiriak handitu eta ugaritu ala, nekazariari merkatu hobea sortzen zaio bere produktuak saltzeko: zenbat eta prezio hobeak izan barazki, ale eta abarrek, are errazkiago erosi ahal izango ditu hark --salmenta haien irabaziekin-- lur-sail berriak, eta alderantziz. Dena den, prezioak aldakorrak dira, ikus daitekeenez.

rritarrak: baserritik bertatik hirirako artisau-lanari ekitea, edota seme-alabak hirira bertara zuzentzea, burgesian sartzeko aski indar ekonomikorik izanez gero bederen. Baina horixe zen, normalean, nekazari arruntak eskuetan ez zuena, dirua, izan ere errentek, hamarrenek eta jaunaren eskubideek zurgatzen bait zizkioten irabaziak: Portugal-en, adibidez, bildutakoetatik %70 ordainketa horietan joaten zitzaion nekazari apalari.

Ez zen, gainera, marginatutako talde alboraturik falta, ijitoak, moriskoak, juduak edo esklabuak esate baterako. Espainia-n, batez ere, "odol-garbiaren" edo "kristau zaharren" leinargitasuna oso aintzakotzat hartu zen, kristau "jatorrak"



BANKARIAK ERREGEREKIN. Bankariek eta Banku-eragiketek geroz eta leku handiagoa izan zuten Europa-ko ekonomian ezezik, Monarkiak eraikitzen ari ziren Estatuen finantzaketan. Karlos V.a Enperadoreak, adibidez, bankariei esker ordaindu zituen bere gerrate luzeak. Erdi Aroaren azkenetan eratuz zihoazen bankarien elkarteak: hemen, Ingalaterrako Erret Bankua bilduta ikusten dugu, Enrike VI.arekin.



EUROPAko INDUSTRIA. XVI. mendean Europa-ko ekonomia nekazal ekonomia da oraindik batez ere. Baina badaude eskualde industrialagoak ere: Toskanatik Flandes-a, adibidez, aurki daiteke halako bat. Eta ez da falta beste eskualde txikiagorik, Ingalaterra, Frantzia edo Espainian.



KLASEARTEKO HARREMANAK. Hamaseigarren mendeko "Egutegi" bateko marrazkia da, eta gizarte europarraren klase-banaketa erakusten digu. "Jauna" da ondasunen jabe, eta serbu, zerbitzari nahiz morroiak ditu bere menpean.

talde alboratu horietatik ongi bereziz. Berezketa sozial hauek ez zirela aski, pentsatu izan zenean, neurri gogorragoak hartu ziren: halanola, 1492an, Espainia-ko juduak erbestera bidali ziren (150.000 bat lagun), eta, geroxeago, haien ondorengo sasi-kristauei hesi sozial hertsiak ezarri zitzaizkien.

Gizarte-molde honen zerbitzutan antolatuta zegoen ekonomia ere: antolamendu ekonomikoa zen egitura sozial horren sostengurik irmoena.

D) OINARRI EKONOMIKOAK

Piramide-gizarte honen erpinean boterea eskuetan zuen Monarkiak, alor ekonomikoan eskumen bizia zuen Pizkunde-garaian. Egia da, Estatuak ez zuen



ABERATSAK/POBREAK. Izurriteak eta goseteak jotako gizartea zen XVI. mendekoa. Biztanleriarik apalenak ez zuen premiazkoa zen babes sozial eraturik. Pobreek konbentu eta nobleen ateetara bildu behar izaten zuten, eskean. Jauregi eta eraikuntza ederren ondo--ondoan, pobre ondratu, "pikaro" eta bidelapurren mundua zegoen. Hona hemen eskekoak nola pilatzen ziren Tuilleries-eko Erret Jauregiaren aurrean, ogia banatzean (garaiko marrazkia).

Europa-ko eskualde guztietan gisa berean eskusartzen arazo ekonomikoetan; baina denek zuten politika ekonomiko asmotsu bat. Politika ekonomiko honek xede nagusi bat izan ohi zuen: sustatu eta kanpoko lehiaketatik babestu egin behar ziren produktu nazionalak, eta urrea norberaren altxortegira bildu behar zen. Monarkia bakoitzak bere autarkia ahalik osoena lortu nahi zuen, bide horretatik. Ekonomian ikusi zen nazionalismorik zabalduena, Pizkundean.

Erret aginduek modu askotan jokatu zuten **ekonomiaren gidakuntza** honetan: meatzetan, industrian, merkatal monopolioetan, nekazari eta artzainen arteko lehiaketa ezagunetan, zerbitzu publiko eta pribatuetan (posta, zerga-bilketa), eta abar. Are handiagoa izan zen oraindik Monarkien interesa kolonietako politika ekonomikoa gidatzen.



Jatordu eskasak

Mendebaldean XVI. mendearen erditik aurrera xurraldiak agertu ziren jatorduetan. Suabian, hala dio Heinrich Müller-ek 1550ean, "nekazarien artean, garai batetik oso bestela jaten da. Orduan bazen okela eta jatekorik ugari; erromeria eta jaialdietan mahaiak bete-beteak ageri ziren. Gaur egun dena aldatu da. Garai batetik hona, egiaz nolako makurrak, nolako eskasia!. Nekazarien jatena gehienetan behinolako jornalari eta morroiena baino okerragoa da". (...). "Nere aitaren garaietan --hala idazten zuen noble normandiar batek, 1560an-- egunero zeukaten okela, platerak ugariak ziren, ura bailitzan edaten zen ardoa". (BRAUDEL)

Jendearen handinahiak

"Itxuragabeko harropuzkeriak ditu orain jendeak, eta buruberoak dira..., eta lehenago jaunen aurrean apalak zirenak, eta gartxuak zirenez, ardoari ur asko botatzen zioten kristauek..., orain ardo hobea edan nahi dute, beren jaunek bezala, batere ur eta bestelako nahaskinik gabe; hori dena guztiz arrazoiz kontrakoa da".

(S.CHAMPIER Kronikariak, Lyon)

PATATAREN HEDAKUNTZA. Hamaseigarren mendean ekarri zen Ameriketatik Europa-ra landare hau. Beronen ezagumendua XVII. mendean zabaldu zen. Lehenengo, abereentzat erabili zen. Dezente geroago, XVIII-XIX. mendeetan bilakatu zen pobreen oinarrizko janari, goseteen zikloak hautsiz.



MEATZAK. Erteuropa-n loraldi bikaina izan zuten meatzek XVI. mendean (Hartz, Saxonia, Bohemia, Silesia, etab.). Ustiaketarako teknika berriak asmatu ziren orduan: ura ateratzeko ponpak, haizerrotak... edo indar hidraulikoa eta animaliak... Hala ere, meatzarien lana oso gogorra zen. Bestalde, meatz-produkzioaren inguruan erakunde kapitalista aurreratuenetako bat jaio zen, Europaren ekonomi garapenean pauso berri bat emanez. (Garaiko marrazki honetan ikus daiteke orduko meatz bateko lan-sistema).

Gaztela-n, adibidez, ezaguna da Koroak nola lagundu zuen **Mesta** deituaren politika: Elkargo horretan biltzen ziren artalde-jabe handiak. Hiru bat milioi buru zituen Mesta-k, eta Errege Katolikoek gogoz lagundu zioten elkargoari, 1489tik aurrera. Artalde hauen artilea zen batez ere etekinik oparoena zekarrena: artilea Ipar Europa-ra saldu ohi zen, eta merkatalgo honetarako sortu ziren garai hauetan Burgos (1494) eta Bilbo-ko (1511) Kontsulatuak. (Merkatalgo amerikarraz ere ikusi dugu zerbait aurreko ikasgaian).

Monopolioak, sektore ekonomikoren baterako arautegiak edo ekonomi bizitza indartzeko hiriren bati, adibidez, ematen zitzaizkion lege-abantailak ziren Koroaren politika ekonomikoaren eskuharmen-tresnak. Dena den, gaur eguneko Plangintza Ekonomikoen razionaltasun aurrikuslera iritsi gabe beti ere.

Politika ekonomiko ofizialaren babes honetan ez dakigu ongi nork zein zerbitzatzen zuen: agintea gizarte-taldeen pobretxutan ari zen, ala aitzitik talde sozialak ziren boterearen menpe zihardutenak. Izan ere, ekonomiaren mundua ulertzeko teoria ekonomiko argigarri osorik apenas zegoen, nahiz eta zenbait eritzi teoriko ere ez falta.

Teoria ekonomikoen iluntasunak gorabehera, Europa-ko Monarkia handi berrituek argi zekiten --Estatuaren burokraziak eta hainbeste gerratetako premiek ongi erakutsita jakin ere-- Koroari oinarri ekonomiko seguruak eman behar zitzaizkiola.

Estatuaren sarrerak ez zeuden oraindik garbiki eta alde aurretik ziurtaturik. Egiaz, Koroak ez zuen lortu erreinuko bizilagunen estatistika onik, eta, ondorioz, ez zegoen jakiterik zergapekoak

zenbat ziren. Estatistika onaren faltaz, urteko aurrekontuak edo Parlamentuak onartutako zerga bereziren batetarako kalkuluek kale egiten zuten sarritan. Adibidez: Ingalaterrako Enrike VIII.ari Parlamentuak onartu zion 100.000 liberatako zerga berezi bat 60.000tan geratu zen, horretarako zerga-ordaintzaileak gaizki ezagutzen zirelako.

Zerga-bilketa egiteko ere, Koroak ez zuen oraindik burokrazia egokirik, eta ez zen hau batere tresna ziur eta bizkorra gertatzen. Horregatik, Estatuak bankariei saltzen zien zerga-bilketarako urteko eskubidea: hauek bertan behera ordaintzen zuten diru-kopuru baten truke, eta ondoko hilabetetan bilduko zuten zerga-kopurua geratzen zitzaien bankariei. Gisa honetan biltzen zuen Estatuak bapateko beharretarako (gerrateetarako batipat) premiazko dirua; bankariek, berriz, Estatua baino biltzaile hobeak izanik, diru-poltsa beteagoa jaso zezaketen.

Jendea ez zegoen Koroari zergak gogoz eta amodioz ordaintzeko. Ez zeukan horretarako mentalitaterik. Batez ere herri xumeak --neke eta pobrezian bizi zenak-- ez zuen ikusten zergatik ordaindu behar zizkion zergak Errege aberatsari. Bestalde, egoera ekonomiko samurragoan bizi zirenak --elizgizonak, nobleak-- saiatzen ziren zergen zama hirugarren estamentuaren bizkar uzten... Hau zen, hortaz, "petxari" deituen estamentua; besteak, "pribilegiatuak" ziren, esan ohi zen bezala.

Gizarteko talde aberatsenak zergetatik libre zirenez, sistema fiskalak Haziendarentzat efikazia handia galtzen zuen. Saiatu ziren Erregeak egoera Koroaren alde aldatzen; baina gehienetan egoerak bere horretan iraun zuen. Espainian, adibidez, halaxe segi zuen 1812rarte.



ONTZIGILEA. Batez ere pobreentzat bizitza gogorra baldin bazen ere (prezioak gora egin bait zuten, XVI.ean), gizaki apalaren bizi-moldea hobetu egin zen, artisau trebeek eskaini ahal izan zituzten etxe-eta lan-tresnei esker. Hona ontzigile bat (Amman eta Sachs-en grabatua, XVI. mendekoa).

Gremioa: Elkargo itxia?

"Gremioetako maisuen artean onartua izateko geroz eta eragozpen gehiago zeuden: beraz, are eta bakanagoak ziren ofizioz gora egitea lortzen zuten ikastun saiatuak. (...).

Maisuak bere semeak ikastuntarako inolako mugarik gabe har zitzakeen bitartean, familiaz kanpokorik bizpahiru bakarrik onar zitzakeen. (...).

Maisu-klasearen joera beren buruak betikortzea zen, eta beren egoera soziala tradizioaren eta familiaren gain eraikitzea, eta ez talentuaren gain edo merkatu-gorabeheren arabera". (HALE)

Esklabutzaz

"Jaiotzatik, naturak menpeko izatera deitu ditu batzuk, beste batzuk agintera deitu dituen bezala... Hortaz, gizon askok iharduera fisikotan bakarrik dihardu, eta holakoak --gorputz-arimak oso bestelakoak diren bezala-- izpiritu-lanetan dabiltzanetatik ezberdinak dira... Izan ere, haiek izaeraz dira esklabuak eta haientzat hobe da menpeko izatea agintari baino".

(B.CASTIGLIONE, 1528)

Alde on edo txar horiek guztiak gorabehera, Monarkia handiek lortu zuten, hala ere, zerga-bilketa hobetzea. Ingalaterra-ko Enrike VII.ak (1485-1509), esate baterako, hirutan biderkatu zituen Koroaren sarrerak, 52.000 liberatatik 142.000raino jasoaz.

Pizkunde-garaiko lorpen fiskal hauek zeregin askotarako bildu zuten dirua: Monarkien erakunde estatalak ordaintzeko, erbesteko diplomazia, mundu berrietako lehenen aurkikundeak, Europa-n hegemonia lortu nahirik egindako gerra eta abarretarako Boterea indarberritzeko, politika ekonomiko hau ez zen erreminta batere traketsa gertatu erregeentzat.

JAKITATE HUMANISTIKOA

Gizon eskolatuak "ez du mugatu behar bere ikaslana logikara, baizik eta filosofia naturaleko alor orotan izan behar du familiartekotasun teoriko bat..., eta ez dadila ibil izadiko ordenamendu jainkotiarraz oso arduratuta, bienbitartean giza arazoak zabarkeriaz begiratuz. Zuzenbide zibilaz jakin behar du..., iraganaldietako gertakarien historiak ongi ezagutu behar ditu..., norbera jaio aurretik gertatutakoaz deus ez jakitea betiko haurtzaroan geratzea da".

(CICERON)

MERKATARIEN MATEMATIKAK

"Alfabetatutzat jo ditzakegunen artean ere (irakurri, idatzi eta liburuetatik ikasten zekitenen artean alegia), ez zekiten alfabetatuok batuketa, kenketa, biderkaketa eta zatiketa birekin egiten baizik. Erdia baino frakzio txikiagoen eragiketak gehienentzat matematiketako ezkutukiak ziren; inork gutxik zekizkien. Biderkatzeko taula ez zen ikasten, eta batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketako zeinuak ez zituen inork erabiltzen. Batuketa eta kenketa ez ziren zehatzak, zeren eta ezkerretik eskuinera egiten bait ziren. Gutxienik, bazeuden zortzi biderketa-metodo, eta gehiago oraindik kenketarako". *(HALE)*



E) EUROPA: BOTEREA ALA IDEALAK?

XVI. mendearen hasieran ez zegoen oraindik batere argi agintearen piramidea, edo banaketa, nola egingo zen Europa-n. Erpinari (Enperadoreari) erabat loturiko botere-sistema batetik, eta Monarkia "nazional" sakabanatuak bestetik, bata besteei kontrajarrita zeuden.

Modernotasunaren atari honetan nabariak ziren, garai berean, Gurutzadaren ametsa (Granada; Aita Santuen erreguak) eta merkatalgorako bake-egarria (Venezia-ren interesak, adibidez).

Nolabait esateko, Erdi Aroko Kristandade-ametsaren eta Monarkia modernoetako botere-banaketaren ideien arteko gatazka argi ageri zen. Lehiakide sinbolikoak aipatu behar bagenitu, Karlos Enperadorea eta Frantzia-ko Frantzisko I.a gogoratuko genituzke, bi horien artean suertatu bait zen Europa-barneko boterearen banaketa-borroka: Europa Kristandade oso bakartzat hartuz eratu agintea ala ez, zen eztabaidaren tema.

Seta hori Europa-tik kanpora ere zabaldu zen, konkista kolonialarekin batera, herri ezagutu berrien ebanjeliokuntza Kristandade-zabalkunde bezaIZKRIBAUAK. Erdi Aroaren azkenetan, erreinu eta herrietako "usario eta ohitura" idatzigabeak idazten hasten dira. Euskal Herrian bertan, Bizkaiko Foruak ere bai (Foru Zaharra, 1452; Foru Berria, 1526), eta Frantzian Karlos VII.ak (1422-1461) lekuan lekuko legeriak biltzeko agintzen du. Lege idatziarekin batera, "usario" haien aplikazioa ere molde berri batez egin liteke (erret tribunal berrietan, etab.). Legegizonen taldeak indartu baizik ez dira egingo. Hona hemen "Notario eta idazkarien erret kolegioa" liburuko marrazki bat (XVI. mend.).



MACHIAVELLI (1469-1527). Politikari eta diplomatikari florentziar hau, politikaren teorizatzailea izan zen. "Il Principe" idatzi zuen (1513), Italia atzerritarren atzaparretatik askatzeko asmo ezkutuarekin beharbada. "Machiavelli-ri eta antzeko idazleei eskertu behar zaie gizonek zer egiten duten, eta ez zer egin beharko luketen, agerian eta zurikeriarik gabe esana", idatzi zuen Francis Bacon-ek. Politika-munduaren burubide makurren deskribapena da Machiavelli-ren lana.

la ulertu eta eginez. Horretarako, ziotenez, gerra bera ere premiazkoa izan zenean, arma bidezko konkistari ekin zioten europarrek. Horrela, ba, Gurutzada-zentzua hartzen zuen herrien menperakuntzak, harik eta kolonietan eratutako interes politiko-ekonomiko berriek --berehala, gainera-- Gurutzadaren ideia erdiarotarra trukatu zuten arte. Granada-n azken loraldia ezagutu zuen asmoa, XVI. mendean zehar motelduz joan zen Ameriketan, politikarientzat bederen ito zen arte.

Izan ere, izpiritu berri baten egunsentian zegoen europarren mentalitate politiko modernoa.



II. PIZKUNDEAREN IZPIRITUA

Pizkundearekin aro modernoen atarian aurkitzen gara. Modernotasunaren berrikuntzak gizaki berri pizkundetarraren baitan du bere funtsa. Beste era batera esateko: Humanismoak gizakiaz zuen ideiak gidatzen ditu Pizkundeko kultura eta pentsamendua, eta horretxek eman zion Europa-ri bere modernotasuna.

Petrarca-k (1304-1374) klasikoen **humanitas** ("gizatasuna") haren albistea aldarrikatu zuene-

INPRIMATEGIA: INDAR SOZIALA

"...segurtaturik zegoen inprimategien zabalkundea. XV. mendearen azkenetan, liburu inprimatuen kopuru osoa sei bat milioikoa zen, horietan 30.000 bat titulu ezberdin. Mila bat inprimatzailek egina. Kopista profesional batek, bizkor laneginez, sei hilabete behar zituen 400 folio-orri egiteko; ez da harritzekoa, ba, ordurarteko ohiturak hautsi baldin baziren. 1470ean Vespasiano da Bisticci-ri burla egiten zioten sozialki apalagoak zirenekin zebilelako, baina berrogei urte geroago Maximilian Enperadorea bera zen erretratu bat egiteko inprimatzaile baten lantegira zetorrena". (HALE)

tik, gizatasun-molde baten ideia eta praxia zabaldu zen Italia-ko printze eta elizgizon handikien gorteetan. 1400az gero indarrean zetorren korronte hau: harremanak berritu egin ziren Grezia-rekin (Ferrara-Florentzia-ko Kontzilioa, 1438-39; Konstantinopoli-ren hondamendia, 1453), eta Aita Santuek onartu eta lagundu egin zuten joera. Ikastegi berriak ireki ziren, sona handiko maisuekin (Ficino, Pico della Mirandola...).

Idazle klasikoen egarri

"Ilunabarra iristean, nere etxera joaten naiz, ene ikastokira. Atarian eranzten ditut eguneroko nere lan-arropak, lokatza eta izerdiz zikinduak, eta jauregiko jantzi gortesauak janzten ditut. Eta janzkera apain honekin sartzen naiz klasikoen Gortean; ongi hartzen naute han, eta berriz ere han dastatzen ditut nereak bakarrik ditudan janariak, horietarako jaioa bait naiz. Badut aski ausartzia haiekin mintzatu, eta haien ekintza eta burubidearen arrazoiez galdetzeko, eta haiek gizatasun osoz erantzuten didate. Eta lau ordubete luzetan munduaz ahantzi egiten naiz, ez dut inolako laidorik gogoratzen, ez naiz pobreziaz arduratzen eta herioaren aurrean ere ez naiz izutzen. Haien munduan sartzen naiz osorik".

(MACHIAVELLI, 1513)

A) HUMANISMO PIZKUNDETARRA

Aurkikundeetan, espazioa menperatzen ari zen gizaki pizkundetarra, hala ere geografian baino zuzpergarriagoa gertatu zitzaion gizatasunean murgiltzea garaiko intelektualari.

* 1. Gizaki eredua

Hain zuzen, berraurkitua izan zen Aintzinate klasikoan gizaki berriarentzat eredu egokiak idoro



LATERANeko KLAUSTROA. Aita Santuen inguruan hainbat artista eta humanista bildu zen Pizkundean. Lorenzo Valla (1407-1457) handiak Vatikanoko Bibliotekan lanegin zuen, itzulpen biblikoak egiten. Azkenik, Lateran-eko Kalonjea izan zen, nahiz eta Inkisizioaren aurrean idazlanen defentsa ere egin beharrean gertatu.



GIZAKI-EREDUA.Pizkundeko idazle humanistek, Aintzinateko klasikoei jarraituz, gizaki--eredu berri baten helmuga eskaini zioten Mendebaldeko gizarteari, batez ere gizabanakoaren balioak ondu nahi zituena. Horrela, gizakia geroz eta autonomoago bilakatzen da Jainkoaren aurrean, eta --zer esanik ez-- munduaren aldakuntzarako berorren behatzaile ezezik alda-indar ere bai gainera. (Gizabanako hori honela pintatu zuen Michelangelo-k).

Argitalpen pizkundetarrak

(Argitalpenen gaiak Pizkundean geroz eta klasikoagoak izango dira, humanisten eraginez:)

"Strasbourg-en, adibidez, 1500.aren inguruan %10 liburuk bakarrik zuen Aintzinate klasikoa gaitzat, 1500-1520. urteetan, berriz, edizioetatik %33, autore latino eta grekoenak edo humanisten idazlanak dira. Han, beste lekutan bezalatsu, argitalpen-kopurua 400 edo 500 eta 1.500 edo 2.000 aleren artean zebilen. Testu klasikoentzat batezbesteko kopurua mila bat aletan jarri liteke, eta, horrela, 200.000 ale izango lirateke Virgiliusenetatik argitara emanak 1500-aren aurretik, eta 72.000 Erasmo-ren "Adagia"tik 1500 eta 1525aren artean".

(HALE)

ziren. Horixe zen humanistek beren garaikoei eskaini nahi izan zietena.

XV. mendearen azkenetan, Humanismoa mentalitate bat bezala defini zitekeen: aintzinako testuen estudioak moldatutako pentsamolde eta sentiera zen, eta giza hezkuntzarako egitasmo bat eskaintzen zuen, programatua eta batez ere historiaz, filosofia moralaz eta erretorikaz ziharduten obretan finkatua. Gizaki berri en eredua, beraz, Aintzinate klasikotik landu nahi zuen Humanismo pizkundetarrak. Erdi Aroko "Jainko-Hiriak" ezezik, testu klasikoek ere gizarte eder bat erakusten zieten humanistei Erroma-n eta Grezia-n: inprimategi eta bolborarik ez zuena, Aita Santurik gabea eta Amerika ezagutu ez zuena, baina gainerakoan giza balio bikain eta miresgarriz hornitua, benetan harrigarriro aberatsa.

* 2. Iturrien jatortasuna

Gizaki eredu hura ezagutu eta aztertzeko premiazkoa zen testu zaharrak beren jatortasunean ezagutu eta aztertzea. Hauxe izan zen humanistek beren buruei ezarri zieten zereginik leinargiena: obra klasikoak berreskuratzea. Kupidarik gabe egin zuten lan, asmoa burutzeko. Antigoaleko munduaren berreraikuntza intelektuala zen ahalegin honen helmuga. Literatura klasikoaren hitzak ezezik, idazle haien gizartea eta testuinguru osoa berregin nahi zuten humanistek. Ez zen idazlanen azterketa hotz hutsa, beraz.

Jatorrizko iturburuen jatortasuna guztiz premiazkoa zen humanistentzat, eta klasikó greko-erromatarretan ezezik baita mundu biblikoan ere. Jatorrizko iturburuak aipatzean, mendeak zehar tartekaturiko itzulpenak (Mendebaldean San Jeronimo-ren "Vulgata", adibidez, Biblia-ren kasuan) gainditu egin nahi ziren: Oxford-en azterlanak San Paulo-ren testu grekoaren gain hasi zirenean (1496), arras bide berrietan sartu zen Bibliaren exegesia. Hortaz --pentsa zitekeen--, ez zegoen ohizko kultura erdiarotarraren menpe egon beharrik, jatorrizko iturriak zuzenean dasta zitezkeen eta.



ALCALA: UNIBERTSITATEA (1498). Italian ezezik Penintsula Iberiarrean ere piztu zen humanistek zekarten kezka: Mundu klasikoa berpiztu, Bibliaren iturriak jatorkiago ezagutu... Cisneros-ek babes instituzionala eman zien kezka hauei Unibertsitate berri hau (Salamanca-ren ondoan bestelako hautabide bat ere bai) eraikiz eta Biblia Poliglota argitara emanez (1502-1520).

* 3. Hezkuntza berria

Gizaki pizkundetarra, ba, nonahira irekita zegoen; zernahi balio berri, jakitate arraro eta ez-ohizko esperientzia interesgarri zen humanis-



ANTZERTI KLASIKOA. Histori, olerti- eta pentsamendu klasikoen irakurketarekin batera, teatro klasikoari ere eman zitzaion lekurik Pizkundeko kulturan, antzerti erdiarotarraren ondoan beste gisa honetakoa gehituz. (1493ko liburu bateko marrazkia).

tentzat. Gizakia, osorik, edozertaz arduratua eta giza aberasgarri oroz jantzia nahi zen humanisten artean: gaitasun humanistikoak (hizkuntzak, zuzenbidea, historia, etab.) ziren bereziki maitatuak, baina zenbaitzurentzat natur zientziek, eta teknikoek ere, zeresan handia zuten (medikuntza, astronomia, etab.) gizatasun asebete hura lortzeko. Leonardo da Vinci (1452-1519) kezka honen adibide egokia da.



PICO DELLA MIRANDOLA (1463-1494). Adimen goiztiarra izan zen humanista hau, eta oso gazterik erudizio zabalena lortu zuen. Hogeitamaika urterekin hil zen, pozoinduta; baina Pizkundeko jakitun unibertsalaren eredua bezala geratu zen ondokoen oroimenean.

Gizatasun oso hori lantzearren, humanistek betekizun zabala eman zioten hezkuntzari: Buru-bihotzak elkartu eta hezitzeko eginkizuna. Jakite soingorria ez, baizik gizakiaren alde guztietatiko ontzea zen hezkuntzaren xede jatorra. Gizakiaren izaera morala lantzeko tresna zen hezkuntza, eta horretarako gisa berean joko dute humanistek mundu klasikora eta tradizio kristauora ere. Pico, Colet, Lefèvre, Erasmo eta More, adibidez, ahalegin guztiz saiatu ziren honetan.

Humanismoak Erasmo-rekin (c. 1469-1536) jo zuen bere goia, eta orduan ezagutu zituen zabal-

kunde eta nagusitasunik handienak Europa-n. Hain zuzen, Erdi Arotik Modernotasunerako pasa une honetan, Humanismoaren indarra ideien zabalkunderako gaitasunean egon zen.

* 4. Nazioarteko gizartean txertaturik

Humanismo europarrak **nazioartekotasun** nabaria izan zuen. Eskutizketa aberatsa izan zuten humanistarik sonatuenek; norberaren albisteak eman ezezik, urrun zeuden beste humanista lagunenak bildu eta zabaldu egiten zituzten Ficino-k Florentzia-tik edo Erasmo-k Basilea-tik. Nazioarteko

ERASMO ROTTERDAMeko (1469-1536). Pizkundean, idazle humanista emankorrena eta zabalduena Erasmo izan zen. Izpiritualitate ebanjelikoa, Elizaren erreforma, kristauaren askatasuna eta tolerantzia, Bibliaren irakurketa zuzena, mundu klasikoaren eder-sena... hauetxek izan ziren Erasmo-k zabaldutako mezu batzuk. Honen liburu, eskutitz eta ideiek sekulako arrakasta izan zuten Europa osoan, eta Espainian ere bai, harik eta pixkaka 1530-1560 urteetan kontrarreformismo itxi bat nagusitu zen arte.





LUIS VIVES (1492-1540). Filosofo eta pedagogo hau valentziarra zen jaiotzez; jatorriz, ordea, judua ere bai. Bizitzarik gehiena Herbehereetan eman zuen, hain zuzen Espainia-ko ideia-giroaz beldur zelako beharbada. Europako humanista eta printze handiekin harreman hertsiak izan zituen. Bere azken urteetan, Espainia-ko pertsegizioak ikusita hala idatzi zuen (1534): "Egun zailak ditugu orain, ez gaitezke ez mintza, ez isil, arriskurik gabe"



T.MORE (1478-1535). Humanista batzuk erantzukizun politikoak ere hartu zituzten; hauetako bat Sir Thomas More, Ingalaterra-ko Kantzilerra. Erasmo-ren adiskidea izan zen, eta "Utopia" liburu sonatuaren autorea. Beste humanista tolerante asko bezala, eztabaida erlijioso amorekaitzek tartean harrapatu zuten, eta Enrike VIII.ak heriotzera eman zuen: "I die, the King's loyal servant,but God's servant first", esanez hil zen. (Hemen, bere familiakoekin).

lagunartea zen humanistena. Hauetatik askok Mendebalde osoa ezagutzen zuen, bidaien bidez edo bere egoitza hiri batetik bestera askotan aldatu zuelako ere. Eskutizketa haien argitalpenak ongi erakutsi du zer-nolako harreman-sare kulturala zegoen Europa-n Pizkundekoan: idazle humanista ez zen bakarrik eta isolatua bizi. Europa osoko irakurlego baten idazle irakurria zen, adibidez, Erasmo.

Lagunarte hori, behin baino gehiagotan, nabarmenago agertzen zen oraindik **Akademia** deituriko ikastegietan. Italia-ko merkatari, burges edo printze aberatsek --aski kulturtzale eta aberats zirenean-- eraiki eta beren ardurapean hartu ohi zituzten ikastegiak: Florentzia, Erroma edo Napoli-n halaxe gertatu zen. Erakarmen- eta zabalkunde-ahalmen azkarra izan zuten halakoek: ikasleak bildu, ideiak zabaldu, mugimenduari batasuna eman ... dena egin zuten Akademia hauek. Horrela, Unibertsitate zaharretan hain errazki aurkitzen ez zuten babesa ematen zien humanistei gizarteak.

Hala ere, humanistak ez ziren erabat Unibertsitatetik kanpo geratu. Egia da, **Unibertsitate** gehienek molde zaharrei heltzen zietela (Eskolastikaren eskola-modu zaharrak gordez), baina Italia eta Espainia-koetan, adibidez, Pizkundeko jakintza berriek bazuten lekurik. Europa-ko Unibertsitateak ezagumendu berezietan adituak ziren, maiz; halanola, Bolonia-n Zuzenbidea irakasten zen bereziki, Parise edo Oxford-en Teologia, Padova-n Medikuntza... Alcalá-ko "Biblia Poliglota"rako Cisneros-ek, esate baterako, humanista-multzo bat bildu zuen, lana burutzeko (1502-1520).

Humanisten ondoan, garaiko **inprimatzaile** trebeak aipatu behar dira. Kultur mugimenduen heda-

kuntzari berari eta hauetaz axolatuei sarbide erosoagoa eskaintzen zeregin ederra bete zuten inprimategietatik kaleratzen ziren liburuek.

Asmakuntza berriari harrera ona egin zioten Erregeek (Portugal-eko Joanes II.ak, 1483; Frantzia-ko Luis XII.ak, 1513). 1500.ean jada inprimategi ugari zeuden Europa-n: 73 Italia-n, 50 Alemania-n, 45 Frantzia-n. Nafarroan ere bazegoen inprimategi bat (gerora Biblia Poliglota argitara emango zuen Brocar-ena, 1489-1502): hogeitamar bat edizio egin ziren hemen, XV. mendean.

Bide honetatik, Europa osoan ugaritu egin ziren lehenago hain urri ziren liburuak. Adibidez: Virgilius-en obretatik 200.000 bat ale zeuden ira-

Inprimategia Europa-n

"Munduan zehar laster zabaldu zen inprimategiaren asmaketa: kanoigileak printze kontratatzailearen bila bezala, inprimatzaileak ere beren tresneriarekin bidez bide irten ziren, hiri batean lantegia jarriz edo mezena berri baten atzetik handik aldeginez. 1470ean inprimatu zen liburu bat lehenengoz Parise-n, 1473an Lyon-en, 1479an Poitiers-en, 1470ean Venezia-n, 1471n Napoli-n, 1473an Lovaina-n, 1474ean Krakovia-n.

1480an, 110 hiri europar baino gehiago ezagutzen ditugu bertako inprimategiei esker. 1480-1500.en tartean Espainiara ere iristen da olatua, Alemania-n eta Italia-n ugari dira lantegiak, eta Eskandinavia-ra ere iritsi da teknika berria. 1500ean, Europa-ko 236 hiritan daude inprimategiak".

(BRAUDEL)

MIGEL EGIAko, INPRIMATZAILEA

Seguruenik lizatarra zen. Brocar inprimatzailearen alaba batekin ezkondu zen eta aitaginarrebaren lantegian ikasi zuen inprimatzaile-ofizioa. Alcalá-n egin zituen lanik onenak, Brocar zaharraren lantegietan zamarik handiena eramanez, noski (Biblia Poliglota). Beste zenbait hiritan ere lanegin ondoren (Valladolid, Toledo, Sevilla, etab.), Lizarra-ra itzuli zen (1546), argitalpenak Adrian de Amberes inprimatzaile berriarekin batera kaleratuz.

Migel Egia-kok bi aldetatik garrantzi handia izan zuen Penintsulan: liburugintzan teknikari bezala ezezik, baita mugimendu erasmistaren partaide bezala ere. XVI. mendearen lehen hamarkadetan Lizarra-tik irten eta 1546an, zahartuta, itzuli zen arte gorabehera handiak ikusi zituen Egia-k.

Batez ere Alcalá-ko egonaldian garaiko obrarik sonatuenak eman zituen argitara, beti ere erasmismoaren izpiritu ebanjeliko-liberala zabaldu nahiz. Mugimendu honi eraso zitzaionean, Egia ere salatua izan zen Inkisizioaren aurrean, eta, absolbatua izan bazen ere, nahiago izan zuen, azkenik, bere sorterrira erretiratu.



BROCAR-ek Iruñean inprimaturiko liburua (1499).

kurleen eskuetan (1500), eta Erasmo-ren "Adagia" liburutik 72.000 ale banatu ziren hogei urtetan (1500-1520). Honek denak sekulako aldakuntza zekarkion kultur bizitzari, lehenago banan-banan eta eskuz egiten bait ziren liburuak: gutxi eta oso garestiak, beraz. Orain, berriz, argitaldi bakoitzean testu klasikoetan batezbeste 1.000 aleko emanaldiak egiten zirela uste da.

Baina datu baikor horiek gorabehera, egoera hura gaurkoarekin alderatu nahi balitz adibidez, ez da ahantzi behar, **gizarte osotik** begiratuta zein ahula zen kultura haren bizitza. Langile pobreetatik %1k ere ez zekien irakurtzen, eta gutxiago ziren oraindik idazten zutenak. Hirietako egoera askoz jasoagoa zen: Thomas More-k, londrestarretatik %60 alfabetatutzat ematen zuen. Halere, ez da pentsatu behar --elizgizonen artean ere-- alfabetakuntza hark beti liburu bat irakurtzeko gai egiten zuenik: alfabetatuak ere ez ziren gehienetan kultur irakurketa altxagarri batetarako gai, etxeko kontuak eramateko baizik. Orduko alfabetatua urrun zegoen oraindik humanisten latinezko argitalpen ederretatik ezezik zabalkiago orduantxe eskaintzen ziren, herri-hizkuntzazko liburu jaio berrietatik ere.

Inprimategia Euskal Herrian

Nahiko garaiz sortu ziren Euskal Herrian inprimategiak. Lehenengo inprimatzailea (beste leku askotan bezalatsu) alemana izan zen: A.G. Brocar (+1523). Maguntziarra zen eta ***Nafarroan****, Iruñean, jarri zuen lantegia eta hemen lanegin zuen 1489-1501. urteetan. Garaiko inprimatzailerik estimatuenetakoa zenez, Cisneros-ek Alcalá-ra eraman zuen "Biblia Poliglota" deitua inprimatzeko (1510).*

1502-1546. urteetan, Nafarroan ez zen egon inprimategirik, Lizarra-n Egia lanean hasi zen arte.

Bizkaian *kasik mende bat geroago (1578) jarri zuen Marés-ek lehenengo inprimategia; berehala izan zuen* ***Gipuzkoak*** *ere berea, P. de Borgoña-rena (1586).* ***Araban*** *XVIII. mendearte itxaron beharko da (1714).*

B) HIZKUNTZAK. LITERATURA

Izan ere, aukera berri bat sortzen da Europa-n Pizkundearen hamarkada hauetan: latina indarberritu egin zen Europa-ko kulturan, indarberritu eta txukundu; baina, aldiberean, hizkuntza herritarrak erabilpen berrietara zabaltzen dira, asko-

tan latinez ari ziren humanista berei esker, gainera.

*** 1. Herri-hizkuntzak**

Urte gutxiren buruan hizkuntza hauen lehenengo **gramatikak** agertu ziren: lehen-lehenik, Nebrija-ren "Gramática castellana" (1492) gaztelaniarentzat, eta ondoren italierak (1525), ingelesak (1530) edo portugesak (1536) ere izan zituzten beren gramatikak. Herri-hizkuntza hauen arauketa ez zen egin zalantza eta eztabaidarik gabe, ezta humanistek indarberritu nahi zuten latinari lurrik jan gabe ere, edota behin baino gehiagotan hizkuntza ez hain zabalduen, baina bizien, kaltetan izan gabe.

Gerora hizkuntza nagusia zein izango zen 1520-1560. hamarkadetan erabaki zen, latintzale eta herritartzaleen arteko liskarren ondoren: urte horietan garbi geratu zen indarra nondik nora zihoan.

Monarkia berriek beren arazoetarako aukeratutako hizkuntza bilakatu zen erreinuetan nagusi, latina baztertuz eta ondoko beste herri-hizkuntzak ere zokoratuz. Hala gertatu zen batez ere Frantzia-n eta Espainia-n; Erreforma protestantea zabaldu zen erreinuetan, berriz, ez ziren berdin-berdin gertatu aldakuntzak, hauetan Bibliaren itzulpenak eta predikuak herri-hizkuntzaz (ofiziala ez izanik ere) egiteko ohitura sortu bait zen.

Honela, Pizkundearen altzo honetan jaioko dira hizkuntza herritarren luma-jende argiak. XVI. men-

Maximilian-en hizkuntzak

(Pizkunde-garaian, Europaren gobernari izan nahi zuenari hizkuntzak ikastea eskatzen zitzaion, izan ere Erdi Aroan latina zen europar guztientzat "lingua franca", hau da denen komunikazio-hizkuntza, baina XVI. mendean Monarkia bakoitzak berea indartu nahi du. Maximilian Enperadoreak, adibidez, hizkuntza hauek ikasi zituen:)

Umetan, alemaniera
Eskolan, latina
Nekazarientzat, valoniera
Emazteagandik, frantsesa
Gortean, flandesera
Diplomazian, espainiera
Armadan, italiera

(HALE)

Gaztelaniaren alde

"Jainkoak eta naturak eman digun hizkuntzak ez du izan behar guretzat latinak, grekoak edo hebraierak baino gutxiesgarriago. (...). Bere buruaren aski etsai da inoren hizkuntza norberarena baino maiteago duena".

(C. de VILLALON, 1558)

dearen azkenetan emanda dago ingeles, frantses edo gaztelaniaren Urrezko Arorako funtsa. Gertakari honen alkantzua ulertzeko aski dugu izen-zerrenda labur bat gogoratzea.

* 2. Literatura nazionalak

Ingalaterra-n prosa-lana eta literatur hizkuntzaren ontzea liburu gutxi baina oso zabaldu batzuei esker egin zen.

Tyndale/Coverdale-en Bibliak (1535) jarri zizkion oinarriak geroko (1611) itzulpen ofizialari: hau eguneroko irakurgaia bihurtu zen familietako otoitzaldietan. "Elkar-otoitzerako Liburua"rekin batera (1549-1552), itzulpen hauek dira, XVI. mendean, ingeles-hiztunen literatur sena ongien hezi zutenak. Jendearen hizkuntz jabetasun eskolatu hau izan zen gerokoen ongarria, eta, horrela, Shakespeare-ren (1564-1616) obrak lur ongi gozatua aurkitu zuten bere garaian.



ORLANDO FURIOSO (1516-32). Humanistek latinaz izan zuten arduraz aparte, Pizkundean aukera egokiago bat izan zuten hizkuntza herritarrek ere, literatur lan berrietarako. Ariosto-ren (1474-1533) poema epiko honek italierari hizkera literario finkatuago bat eman zion, eta ondoko belaunaldietan eragin luzea izan zuen, Cervantes bera barne.

Italia-n, printzerri eta errepubliketako hiriburuetan biltzen ziren luma-gizon eta artistak: Dante, Petrarca eta Boccacio-ren ondare naharoa zuten aurrekoengandik hartuta. Hirietako akademietan --latinaren ondoan, zeharbidez-- italierazko literaturak geroz eta leku handiagoa zuen; literatur joerak petrarkismoaren barnean landu ziren bereziki, Pizkundean. Bembo-ren "Rime" (1530) deituak eredu izan ziren askorentzat olertian; nobelan, Sannazaro-ren "Arcadia" gogoratu behar da. Poesia epikoan Ariosto-ren "Orlando Furioso" izan zen mende honetako baliorik aberatsena (1516-32; 1538an, Bilbon ere argitara eman zena): italie-

raren hizkuntza literarioa finkatzen laguntza irmoena eskaini zuen.

Gainerako hainbat lan aipatzen sartuko ez bagara ere, eman ditzagun hemen Baltasar Castiglione-ren "Cortegiano" (1528) eta Machiavelli-ren "Principe" (1513), biek izan bait zuten oihartzun zabala Europan: batak zaldun gortesauaren eredua finkatzeko eta bigarrenak printze pizkundetarraren politika deskribatuz.

Frantzia-n --Villon poetak (1431-1465) urratutako bideak luzatuz eta frantsesaren ofizialtasun-babespean-- Literaturak obra ederrak ezagutuko ditu, XVII. mendeko Urrezko Aroari ataria eman ziotenak.

Ezingo ditugu bi prosista goren ahantzi: Rabelais-ek (1494-1553) "Pantafruel eta Gargantua" nobelan garaiko gizarteaz kritika ironiko bizia eman zuen, eta Montaigne-k (1533-1592) bienbitartean bere "Essais"etan (Entseguak) norbanako bakoitzaren barne-askatasun eskubidea defendatu zuen. Lan horren osagarri bezala, Ronsard (1514-1585) izan zen ahots poetiko bikainena, norberaren eta inguruaren (gizartea, izadia) balio eta itxaropenak kantatuz. Ondua geratzen zen beraz, hitz-lauezko hizkuntza, ondokoek hobeagorik ere eman zezaten.

Espainia-n, gaztelaniaz, Pizkundeko idazleak Italia-ra begira egin zuten lan, harik eta hizkuntzari arintasun berri bat eman zioten arte, izan ere bi Penintsulen arteko harremanak onak bait ziren.

Poesian Boscán-ek (1492-1542) eta Garcilaso de la Vega-k (1501-1536) erakutsi zuten Italia-ren


LINGVAE VASCONVM PRIMI-
tiæ per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem ſanctimichælis veteris.

EUSKAL LEHEN LIBURUA (1545). Herri txikien hizkuntzak askotan babes sozio-politiko onik gabe geratu baziren ere, garai honetan ez zen falta izan ahaleginen bat edo beste. Euskaraz argitara emandako lehenengo liburua hauxe da, Bordale-n inprimatua.



LA CELESTINA (1499-1502)."Tragikomedia" deitu hau, Erdiaroaren eta Pizkundearen arteko muga-mugan dago, ez denboraz bakarrik, baita bere mezuetan ere: morala/grinak, maitasuna/diru-gosea, idealak/errealismoa. Fernando de Rojas-ena da obra, lehen ekitaldia ezik. 1500aren inguruko letra europarretan lehenengoenetako lekua merezi du, bere balio literarioengatik. (Lehen edizioko marrazki apaingarri bat, 1499).

arnasa, baina ez ziren ahaztu bertoko erdal tradizioaren oinarriak ("Cancionero general", 1511). Prosan bi obra maisu gogoratuko ditugu XVI. mendearen hasieretan: "Amadis de Gaula" (1508) eta "La Celestina", biak ere nobelaren tradiziokotzat eman daitezkeenak (nahiz eta bigarrena "tragikomedia" bezala ezagutua izan).



FRAI LUIS LEONgo (1527-1591). Gaztelaniazko poesia lirikoak XVI. mendean izan zuen gailur jasoena da autore honen obra, Fernando de Herrera (1534-1597) ere gogoan izanik. Biok dira Urrezko Aroaren ataurre bikainak.

Tradizio literario honen luzagarri eta gizarte kraskatu baten ezagugarritzat har dezakegu "novela picaresca" delakoa ("Lazarillo de Tormes", 1554). Beste zentzu batetan, gizarteko kezka erlijiosoen agergarri bikaina da Teresa Jesus-enaren obra osoa.

Eta, antzertia ahantzi gabe (Lope de Rueda: "entremeses" deituak), poesiaren bigarren uhin gorena gogoratuko dugu: Donibane Gurutzeko (1542-1591) eta Frai Luis Leon-goren (1527-1591) olerkiak. Bigarren honek, Herrera (1534-1597) sevillarrarekin batera (bi olerti-molde ezberdin erakutsiz, noski) Barrokoaren atarian uzten gaitu.

Bukatzeko: beste alor batetan, une historiko honek genero berri bat ere landu zuen berezikiago,

Indietako albisteak emanez idatzitako historiografia ugaria, hau ere behin baino gehiagotan modu klasikotan landua.

Aipuen zerrenda honetan ikusten denez, geroz eta laikoago agertzen zaigu Pizkundeko Literatura, bai bere gaietan, bai idazletan ere, humanista sekularrak ezezik, soldadu eta konkistariek ere luma hartu bait zuten. Baina ez da ahantzi behar Europa-k bere erraietan eta eguneroko bizitzan zeramala erlijioa orduko bere azalpenetan, beti eliztar agertu ez bazen ere. Gizartea, bere osoan eta erakundeetan, erlijiosoa zen, eta modernotasunaren prozesuan indar balaztagarri edo eragile bezala joka zezakeen erlijiotasun horrek. XVI-XVII. mendeetako erlijio-arazo larrienak beste ikasgai batean ikusiko badira ere, Pizkundeko erlijio-bizitzaz zerbait esan beharra dago hemen.

C) ERLIJIO-BIZITZA

Erdi Aroaren azkenetan, Europa-k "Mendebaldeko Zisma" ezagutu zuen (1378-1417): aldi berean bizpahiru Aita Santu zituela aurkitu zen Eliza. Geroxeago, Ekialdeko eta Mendebaldeko Eliza kristauen artean elkarrizketak eduki ziren. Elizaren batasun-premia haragi bizitan sentitzen zen Europa-n; baina, Aurkikundeekin batera gizakion erlijio-arazoa nahasiagoa agertu zen: Indian bestelako erlijioak aurkitu zituen Vasco da Gama-k (1498), eta Cortês-en kronikariek xehetasun guztiekin azaldu zituzten mexikarren ospakuntza erlijiosoak. Arrazoi berriak agertu ziren, beraz, 1500aren inguruan, gaiaz kezkatuta egoteko.



HERIOREN DANTZAK. Erdi Aroaren azkenetan heriotzaren larria geroz eta gehiago larriagotu zen fededun eta predikarien artean. Erlijiotasun herritar horrek "Herio"ren irudi eta antzerkietan ematen zuen bere itolarria. XVI. mendearen hasieran, erlijio-bizitza askatuago baten premia sumatzen zen.

Erlijiotasun ahula

"Predikari buruberoek jendeen sen inkontzienteak iratzartzen zituztenean, hostia santuaren profanazio-susmurruek edo errituzko hilketek juduen triskantzaren batera eraman zezaketen herria. Superstizio asko zegoen, gauzarik sakratuenen artean ere, eta predikariek ez zieten berauei aski erasotzen. Egoera ilun hau osatuz, aparizio, sorginkeria eta kiromantziaren irrika bizia zegoen fededunen artean". *(TUCHLE)*

* 1. Erlijiotasunaren bizipena

Europa-k, Kristandade-giro batetan bizi zuen bere erlijio-bizitza; hau da, Erregeen Gorteetatik behera, azken herritar xumeenarenganaino, europarrak oro erlijio-ospakizunez inguratuta eta -mentalitatez gidatuta bizi ziren. Eguneroko zereginak bizimodu horren barruan kokatzen ziren, orobat kofradia sozio-ekonomiko gremiotarren eta boteredunen azalpenak ere. Elizak eta eliztarrek zerikusi zuzena zuten gizarteko bizitza arrunt eta ez hain arruntarekin.

Herriak bere erlijiotasun-moldeak eratuta zeuzkan. Urtearen gurpilean, eliz egutegiak eratzen zituen lanegunak eta jaiak. Gizartearen erlijiozko eraketa hau usarioz betidanik onarturiko ohitura zen. Erlijioak ez zuen herriarengan betebeharren kontzientzia bakarrik mamitzen, baita jolasaren eta jaiaren mundua ere.

Baina garaiko sentiera erlijiosoak bere bizipenean jaitasun hainbat larritasun zuen: Bekatuaren herstura, heriotzearen itomena, salbamenaren larria... denak ken ziezaiokeen kontzientzi baretasuna Pizkunde-garaiko sinestunari. Predikuek,



"EROMENAREN LAUDORIOA" (1511). Erasmo-ren obra hau ez da, inondik ere, haren lanik handiena, baina bai gaur eguneko irakurlearentzat irakurterrazeenetakoa. Liburutxo honetan jasotzen dira garaiko eliz bizitzari Erasmo-k egiten zizkien kritikak.

herio-ospakizunek (antzerkiek), arteak nahiz eliz literatura herritarrak bortizki zerabiltzaten gai horiek. Fededunak ez zuen bake onik Erdi Aroaren azken hamarkada haietan.

Jaiera herritarrak ugariak ziren, eta sinestunarentzat kontzientzi aringarriak gertatzen ziren: Ama Birjinaren Santutegi ugarietara egun hautatuetan erromesaldiak egiten zituzten, Santa Ana-ren jaiera oso zabaldu zen urte haietan, Gurutze-Bidea (Kalbarioak) guztiz gogokoa zen, Santu Zaindarien jaierak ere oso zabalduak zeuden... Kristauari predikariek erakusten zizkieten arrisku guztietatik ihes egiteko, halere, ez ziren aski, nonbait, eta ortodoxiari bere saihespideak eta disidentziak agertzen zitzaizkion.

Inoiz edo bestetan, han-hemen, jaiera haiek hustekeria eta superstizio bilakatzen ziren, erlijio-erakunde ofizialak zituen eskastasunei ere (sakramentukeria, diruzalekeria nahiz jatortasunik eza...) nolabait erantzun nahiez. Batez ere Alemanian sorginek oso kezkatu zuten eliz hierarkia, eta Aita Santuek ere hainbat erabaki hartu zituzten sorginkeriaren kontra (Inozentzio VIII.aren erabakiak, 1484; "Malleus Maleficarum", sorginen aurkako esku-liburua).

DEBEKUAK:
Judu sasi-kristauen ondokoei

"Ez dezakete eduki edo ukan funtzio publikorik, ez postu edo ohorerik; ez ditzakete har ordena sakratuak, ezta ondoko zerarik izan ere: juez, alkate, agoazil, magistratu, juratu, administrari, pisu-neurrien funtzionari, merkatari, notari, izkribatzaile publiko, abogatu, ahaldundu, idazkari, kontuhartzaile, diruzain, mediku, kirurgilari, dendari, artekari, trukari, pisu-ikuskatzaile, kobratzaile, zerga-biltzaile. Era berean ezta beste antzeko edozein kargu publikorik izan ere".

(TORQUEMADA, 1494)



SORGINAK ERRETZEN. Heretikoen kontrako borrokekin batera sorginena ere oso bizirik zegoen XVI. mendean Europa-n, zenbait eskualdetan. Arazoa aurreko mendeetatik zetorren, eta ondorengoan joko zuen goia sorginen pertsegizio honek, Inkisizioaren eskutik. Euskal Herriak ere gerora ezagutuko zuen holakorik. Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borroka bezala ikusten zen orduan hau dena. Hona Alemaniako sorgin-erreketa bat. (Garaiko marrazkia).

Baina mugimendu kezkagarriagorik izan zuen hierarkia katolikoak Europa-n, sorginkeriak baino funts gehiago zuten talde edo pentsalari heretikoekin. Ez da ahantzi behar XV. mendea erlijioski ere oso urduria izan zela: Elizaren erreforma behin eta berriz eskatu zen, eta ez bakarrik Eliza ofizialaren ustetan garbiki heretikoak zirenek bakarrik, baita erabat eliztar leialtzat --beraz, eliz barrukotzat-- hartu izan direnek ere. Elizak guztien bizitzak gidatzen zituenez, bidezkoa zen erakunde horren jatortasun-eskakizuna ere askoren ahotan agertzea.



SAVONAROLA (1452-1498). Erlijioarekin arazo sozial eta politikoak ere nahasian zebiltzan Pizkundean. Savonarola domingotarraren kasua adibide jakingarria da: bere predikuen bidez aginte politikoa ere eskuratu ondoren (1494), "diktadura" bat ezarri zuen Florentzian, erreforma erlijioso baten izenean. Hainbat aldakuntza egingarriren asmoak ere gehiegikeriek ito zituzten azkenik, Aita Santuaren eskomikoa tartean zela. Sutan erre zuten Savonarola florentziarrek.

* 2. Eliza eta Estatua

Gisa berean, Estatuak ere geroz eta osokiago jabetu nahi zuen menpekoen bizitzaz (zergak ezarriz, boterea burokraziaz hornituz, armada hobetuz, hizkuntza ofizialak indartuz). Erlijio-bizitza ez zen, honetan, salbuespen bat: politika orokor baten izenean, beharrezkoa zen Elizarekikoa ere aro berrietara egokitzea, Monarkia handien esanetara, alegia. Frantzia eta Gaztela-ko erregeak ahalegindu ziren Erroma-rekin akordio horiek sinatzen.

Garai hauetan Frantzia-k bi konkordatu egin zituen (1472, 1516). Lehenengoak --tartean suertatu ziren interes eta indarrak errudun-- ez zion bake onik ekarri erreinu hartako erlijio-bizitzari. Bigarrenak, berriz, egoera iraunkorragoa sortu zuen: Erregeri eskumen zabala eman zitzaion gotzainen izendapenetan, eta harez gero, hierarkia handia Koroari begirago geratu zen Aita Santuari baino.

Gaztela-ko Erregeek ere --bazuten indarrik eta-- lortu zuten Koroarentzat eskubiderik erreinuko Elizaren gain: Inkisizioa (1483) eta Eliz Zaingoa Granada (1486) eta Ameriketarako (1508). Tresna instituzional hauei esker, Errege Katolikoek eta ondorengoek beren zerbitzutan ere erabili ahal izango zuten Eliza, metropolian eta kolonietan.



ADRIAN VI. (1522-1523). Politikatik hurbil (Karlos V.aren kontseilaria), baina eliz erreformaren zalea zen Adrian VI.a. Gasteiz-en zegoela aukeratu zuten Aita Santu. Holandarra jatorriz, Erteuropa-n bizi-bizi zeuden kezkak eraman zituen Erroma-ra. Kuriaren *erreforma* eta turkiarren kontrako kristandadearen defentsa eratzea izan ziren Adrian-en bi egiteko behinenak. Baina honen aitasaindugoa laburregia gertatu zen horretarako.

* 3. Hierarkia eta apaiz xumeak

Baina boteredunen arteko harreman berregokitu hauek beste gabe ez zuten herritar edo eliztar xumeen erlijiotasuna hobetu. Egia da, inoiz edo bestetan, akordio hauek Elizaren berrikuntzari lagundu ziotela: Gaztela-n, adibidez, Errege Katolikoek elizgizonen eta -emakumeen bizimoldea serioski *erreformatu zuten*, Cisneros-en laguntzarekin, baina ez zen horrela izan beste toki askotan.

Ohitura handia zegoen gotzainak beren egoitz hirietatik kanpo bizi izateko, batzutan gotzain-aulki bat baino gehiago zuztelako, bestetan beren elizbarrutiko zereginaz gain gortean edo erakunde politikoetan kargudun zirelako. Elizbarrutietan ez zen artzain arduratsurik falta, baina bazen bestelakorik ere: diruzalekeria ere ez zen batere harritzeko aristokraziak bere bigarren semeentzat



VATIKANOA. Elizarekiko kritika zorrotzenak Erroma-ra eta hierarkiagana zuzendu ziren Pizkundean kundean. Aita Santuen kultur zaletasun eta obrak ere mundutarregitzat ematen zituzten erreformazaleek. Erroma-ko buruetatik hasita, hierarkia eta elizgizonen burubideak aldatu beharra aldarrikatzen zen idatzi eta predikuetan, guztientzako pobretasun ebanjeliko jatorrago baten premia alegia.

Kultura burgesa

(Kulturgintzak baldintza sozio-historiko batzuk bete behar ditu posible izateko. Gutxieneko baldintza horiek definitu ondoren, non bete ziren esaten digu hemen historilari batek:)

*"**Burges** hitzak ezer gutxi esan nahi du kultura burgesarekin lotuta ez bada, eta horretarako lau baldintza behar dira:*

1. Diru-, zerbitzu- edo merkatalgai-trukean diharduten bizilagunen taldekatze hiritar aski esanahitsua.

2. Giza talde guzti honen ikusmoldeen ordezkapena nazio-, eskualde- edo lekuko gobernuren batean.

3. Talde burges honen bizimolde propioko izaera eta balore berezien aitorpena, beroriek ohartuki nobleenekin nahiz lehen-ondasun produzitzaileekin kontrajarrita ulertuz.

4. Eraikuntza eta mezenazgoaren bidez garaiko kulturan aztarna fisiko eta intelektuala uzteko lain aberastasunik aski izatea.

Erizpide hauekin hasten bagara, zaila da Oder ibaiaren ekialdean (Krakovia-n Novgorod edo Mosku-n ere lanak) kultura burges bat idorotzea. (Hain zuzen, Italia-n edo Flandes-en gertatutakoaren alderantziz).

(HALE)

aberaspide egokitzat bait zeuzkan eliz karguak (gotzaindegiak, abatetxeak, parrokiak...). Asmo horiekin aukeratutako eliz kargudunetan maizegi ikusten ziren utzikeria eta ardurarik eza.

Gotzain-hiri handietan ezezik, herri txikiagoetan ere bazegoen axolagabekeriarik: parrokietako kargudunek sarriegi uzten zituzten, osorik, beren lanak elizgizon pobreagoen eskutan, lanari zegokion ordainak, ordea, erdibana partituz. Horrela, apaiz-jende behartsua sortu zen, borondatez ez, baizik halabeharrez pobrea, laguntzeko baino lagundua izateko hobea. Ondorioz, erretorea herritik urrun zelarik, ordezko ezjakinagoen ardurapean zeuden herrixketako fededun asko.

Aje guztiok ikusita, behin eta berriz eskatzen zen Elizaren Erreforma, eta Aita Santuek ere, horretaz kezkaturik, Kontzilio bat bildu zuten (Laterandar V.a., 1515), aski indarrik gabekoa, izan ere Pizkundeko eliz ahaleginik emankorrenak ez bait zituen Erroma-k hemen eman, humanistak babesten, artean eta abarretan baizik.

DIRUZALEKERIA ELIZAN

Brandeburg-eko Albert-i --Mainz-eko artxapezpiku izendatu ondoren-- Magdeburg eta Halberstadt-eko gotzaindegiak ere bere eskuetan gordetzeko eskubidea eman zion Aita Santuak. Orduan hogeitabost urte zituen. Eskubide horregatik, Aita Santuak erantzukizun ekonomiko gogorrak ezarri zizkion, eta Fugger-tarrei mailegu bat eskatuz ordaindu zituen Albert-ek. Baina mailegu hori itzultzeko modurik izan zezan, elizbarruti haietan bilduko ziren San Pedro-ren indulgentzien salmentetako irabazietatik erdia utzi zion Leon X.ak. Hauxe da, hain zuzen, Erroma-ko San Pedro Basilika berria eraikitzeko diru-bilketarako eman zen indulgentzia sonatua: egokiera honetantxe piztu zen Luter-ek bere garaiko erlijioari egin zion kritika.

(HALE)

D) PIZKUNDEKO ARTEA

Humanismoak biziki azpimarratutako balorea zen gizabanakoaren **sormena**. Artegintza eta artista bera balioztatzen zituen ideia zen hori.

* 1. Artearen sorburuak eta garapena

Ez da, beraz, sobera harritzekoa, XV. mendearen azkenetan arte-munduak giro berri bat aurkitu baldin bazuen. Oso zabaldua zegoen artistarekiko estimuaz gain, 1500aren inguruan lanean ari ziren artistek beren aurrekoen ondare osoaren altxorra zeukaten, batez ere Italia-n: alde batetik, XV. mendetik jasotako teknika berriak, eta, bestetik, artelanari erosotasun sozial hobea eman ziezaiokeen bizigiroa.

Izan ere, Pizkundea aspaldidanik aberastuz zetorren mugimendua zen: lehenagotik XIII-XIV. mendeen mugetan jaiotako korrontea esan nahi da. Bata bestearen ondotik bide luzea egindako artisten lana zen hura: Giotto (1266-1337), Martini (1283-1344), geroxeago Fra Angelico (1387-1455) edo Piero della Francesca, (1410-1492) **pinturan**, Masaccio (1401-1428), Uccello (1395-1475) edo Botticelli (1444-1510) ahantzi gabe. **Eskulturan**, berriz, Ghiberti (1378-1455) eta Donatello (1386-1466) dira lehenengo Pizkunde-aldian, beste zenbaitekin batera, Michelangelo-ren obra handiari atarikoa emango diotenak. Eta **arkitekturaz** zerbait diogula, gogora ditzagun Brunelleschi (1377-1446) eta Alberti (1404-1472).

Artisten lorpen sozialak

"Artisten irabazietan ageri da batez ere haien igoera soziala. XV. mendearen azken laurdenean, Florentzian prezio erlatiboki altuak ordaintzen dira fresko-pinturengatik. Santa Maria Novella-ko famili kaperako pinturagatik 1.100 urrezko florin ordaintzen dizkio G. Tornabouni jaunak Ghirlandaio-ri. Erromako Santa Maria sopra Minerva-ko freskoengatik 2.000 urrezko dukat kobratzen ditu Filippo Lippi-k (hau da, florin-kopuru hura bera). Kapera Sixtotarreko sapaian egindako freskoengatik Michelangelo-k 3.000 dukat jaso zituen.

Mende horren azkenetan zenbait artista aberastu ere egingo da: Lippi-k nahiko ondasun biltzen du, Perugino-k etxeak dauzka, B. de Maiano-k etxalde bat. Leonardo-k, Milano-n, 2.000 dukateko soldata jasotzen du urtean eta Frantzian 35.000 libera. "Cinquecento"ko maisu sonatuenek, Raffaello eta Tiziano-k adibidez, itxurazko irabazbideak dituzte eta bizimodu bikaina daramate". (H. HAUSER)



LEON X.a, (1513-1521). Aita Santu hau Pizkundearen beraren irudi bizia da. Humanista, artista eta jakitunen babeslea. Bakezalea izan zen, eta printze kristauekin akordioak bilatu zituen (Frantzia-rekin, adibidez, Bolonia-ko Konkordatua, 1516). Baina mundu guztiak eskatzen zuen eliz erreforma ez zen atzeratu baizik egin, eta Aita Santu honen garaian lehertu zen Erreforma lutertarra Alemanian.

PIZKUNDEKO MUSIKA. Pizkundeko musikaren lehen sorlekua Iparraldean jarri behar da, baina laster hango maisu onenak Italia-ra emigratu zuten. Batez ere J. Des Prés-ek (1450-1521) zeregin emankorra izan zuen bi Pizkunde-guneak eta -aldiak lotzen, Italia-ko Pizkunde Garatuari ateak bete-betean irekiz (Palestrina, Vitoria, etab.). Koru-polifoniarekin Meza polifonikoak landu ziren musika erlijiosoan eta "madrigal" deitua musika ez-sakratuan.

Batez ere XV. mendean zehar luzatu zen artista-loraldi bikain honek ("Quattrocento" deituak) eman zion bere funtsa Pizkundearen ondoko Pizkunde-parteari ("Cinquecento"). Ikus, irudietan, artista hauen obra batzuk. 1490tik 1520ra bitartean jotzen du bere gailurra Pizkundeak Italia-n. Belaunaldi pare bat lehenagotik zetorren historia, eta gerorago ere nahiko luzatuko zen oraindik, baina Pizkundearen bihotza, artelanetan, urte horietantxe ezar dezakegu.

XV. mendean, artistak **familia apaletatik** sortuak ziren, klase ertain apaletik. Familia eskolatu, funtzionari jasoetatik edo aristokraziatik inor gutxi izaten zen artista. Pizkunde italiarreko lehenengo belaunaldietako artistek prest egon beharra zeukaten suertatzen ziren lan-modu xumeenak ere egiteko. XVI.aren hasieran egoera hau guztiz aldatu zen. Michelangelo gazteak, familia abe-



ratsetik zetorrenez, lanak izan zituen bere aita konbentzitzen margolari-ofizio ezteusa nahi zuelako: azkenik, margolariak botikarien gremiokoak zirelako eman zion horretarako baimena, baina ez eskultoretarakoa, hauek igeltserotakoak bait ziren. Baina, handik urte batzuetara, Michelangelo eskultorea Julio Aita Santuari erronka botatzeko lain bazen, Erroma-tik Florentzia-ra ihes eginez.

* 2. Balioztapen sozialak

Beren lanaren **balioaren kontzientzia**, bi bidetatik piztu zitzaion Pizkundeko artistari: hasteko, Alberti-k (1404-1472) eta Leonardo da Vinci-k (1452-1519), artelanari teoria bat sortu zioten sostengutzat; horrela, lanaren arrazoi eta esplikabideak azaltzeko gai bihurtu ziren artistak. Bigarren, geroz eta onarpen sozial zabalagoa izan zuen arteak. Teoria eta praxi soziala elkarren lagungarri gertatu ziren, ba.

Gizarteak artistarekiko zuen **oniritzi hau** era askotan ageri zen. Italia-ko hiri aberatsenetan halako harrotasun hiritar bat sumatzen zen: hiriak zeuzkan artelanez (elizak, jauregiak, aldareak, margazkiak...) harro eta beteta hitzegiten zuten florentziarrek, adibidez. Gremio bakoitza saiatzen zen hiriko eliza nagusian norberaren aldarea ederrena izan zedin.

Grina horrekintxe egin zen, 1401ean, Florentzia-n Bataiategiko ateak lantzeko lehiaketa: Ghiberti-k irabazi zien Brunelleschi eta Della Quercia-ri. Txundigarria, zinez, egun beretan eta leku berean nola suertatu ziren halako artista erraldoiak, denak batera.

Erroma, Mezena-hiria

"Leon X.arekin (1513-21) jotzen du bere punturik gorenena Erromako gorteak. Enperadore baten gortea ematen du Aita Santuaren Kuriak; kardinalen etxeek printze-gorte txikiak ematen dute,eta eliz jaunenek, berriz, batak besteari aurrea hartu nahi dioten etxe aristokratikoak. Elizako printze eta dignitariotatik gehienak arte-zaleak dira; hilezkortasunaren antsiaz ematen diete lana artistei, eliz artelanen fundazioren baten bidez, edo beren jauregien eraikuntza edo apainketetan enplegatuz. Bankari aberatsak ere haien antzera jokatu nahi dira, mezena bezala alegia". *(H.HAUSER)*

FLORENTZIA: QUATTROCENTOa



BRUNELLESCHI

ALBERTI



MAIANO



ARKITEKTURA. Arkitektura hau "Quattrocento"koa da. Eraikuntz eta dekorazio-elementu klasikoak berreskuratzen ditu "Quattrocento"ak: Erdi-puntuko arkua; kolomak, pilastrak, eta berauekin batera *ordena* klasikoak; kasetoidun kainoi-gangak eta erdi-laranjako kupula; dekorazioan, berriz, grutesko deituei toki zabala ematen zaie. Egitura eta oinplanoak matematikoki eratzen dira, espazioen argitasun garbia bilatuz.

ESKULTURA. Arkitekturak bezala eskulturak ere, bere ereduak Aintzinate klasikoan bilatzen ditu. Gotikoaren eta "*nazioarteko estiloaren*" *ondoren* mundu klasikotik ere dastatzen du: irudi lerdenak, lerroaren dotorezia, xehetasun landuak, biluziaren lanketa klasikoa, marmol eta brontzearen erabilpena. Gai erlijiosoen ondoan, profanoak presente daude. Mukulu biribileko eskulturaren ondoan, erliebeak leku nabarmena izan zuen.



GHIBERTI

DONATELLO



VERROCCHIO







MANTEGNA



MASACCIO

BOTTICELLI

PINTURA. Giotto-rekin (1266-1337) ireki zen berrikuntzak XV.ean segida handia izan zuen. Perspektibaren teknikak, espazioaren masa-lerroen monumentaltasuna (freskoak), marrazkiaren domeinua, giza biluziaren eta jantzien jabetasuna... Denak eraman zuen gora Pizkundea "Quattrocento"an. Pinturako arazo tekniko guztiei eman zitzaien irtenbidea. Azken bikaintasun osoa (oreka, batasun osoa, ordenamendua, konposizioa) "Cinquecento"ak lortu zuen, hala ere.

FLORENTZIA / VENEZIA

Pizkundeko pinturaren historian bi eskola handi kontrajarri ohi dira: Florentzia eta Venezia. Biek eman zituzten obra maisuak, baina teknika eta pinturaren zentzu ezberdinekin beti ere. Florentzia, lerroaren marrazkian eta mugimendu linealean da lehenengoa; Venezia, berriz, kolorean, gorputz eta hutsarteak argiz eta kolore bidez ematean alegia. Eskola bakoitzak bere garapen-bidea egin zuen, belaunaldiz belaunaldi. Hona Florentziakoaz zer dioen kritikari ezgun batek: "Ez dago eskola banakoiago edo indibidualistagorik. Florentziako maisuetatik bat ere ez zen mugatu inoiz aurrrekoen errepikapen oihartzun hutsa izatera. Hala ere, guztiek --lehenengotik azkenekoaganaino-- gudu bat bera jo zuten zentzu honetan. Giotto eta Michelangelo ez daude kontrajarrita. Bion eta artista guztion indarrik onenak pinturaren ukipen-balioak eta mugimendua, edo bi balio horiek batera, adierazten eman ziren Florentzian" (B.BERENSON).

"Ukipen-balio" horiek, ukimenari dagozkionak dira: lerroa, marra, bolumena... Ikusmenak, ordea, kolorea da jasotzen duena: Ikus-balioak maisukiago eman ziren Venezian, baina linea-marrazkia batez ere florentziarra da.

Noble eta artisauek, herritar askok, hartzen zuten parte hiriko berrikuntza ederretan. Hain zuzen, hiriek edo mezena boteretsuek eskatutako lanetatik bizi ziren artistak. Kofradiak, Herriko Etxeak, Monastegiak edo Printzeak elkarren lehian zebiltzan, artistarik onenak zaintzen, eta, ondorioz, artelanak **jendaurrean** zeuden, elizetan ezezik jauregi eta plazetan ere, hirietako bizilagunen eder-sena ere heziz.



ARTEAREN TEKNIKA BERRIAK. Estilo eta izpiritu berriak ezezik, Pizkundeak bere artegintzarako teknika berriak ere izan zituen. Pinturan oleoa asmatu zen eta zabaldu. Arkitekturan ere makina berriak moldatu ziren, pisu handiak garraiatzeko. Grabatu zahar hau Erroma-n San Pedro eliza jasotzen ari zirenekoa da eta garai hartako tresneria erakusten digu.

* 3. Tresnak eta arazoak

Bere begi berriekin munduan ikusitakoa oihalera eramateko, Pizkundeko pintoreak arazo larri batzuei erantzun behar zien, tekniken bidez. Eta arkitekturan berdin: Erroma-tik ezezik Konstantinopoli-tik ere jasotako osakiak eraikuntza berean harmonia osoz elkartzeko irtenbide tekniko berriak asmatu behar ziren. Belaunaldiz belaunaldi hobetuz joan zen arte-produkzioa Pizkundean, eta aurrerapen horren arrazoi bat tekniken berrikuntza izan zen.

Florentzia-n problema teknikoen kontzientzia garbia izan zuten XV. mendeko arte-gizonek; hona, adibidez, bat: nola eman, oihalaren azalera hondorik gabean, espazioaren sakona? Perspektiba egoki landu baten arazoa zen hau, eta justu Leonardo jaio baino lehen (1452) asmatu zen perspektiba geometrikoaren teknika (lerro bidez emana alegia). Ondoko mendeari zegokion argi-margozko perspektibaren teknika lantzea, hau da, "Cinquencento"ko maisu handiei zor diegu bigarren lorpen hau.

Denbora berean lanerako tresnak ere hobetu egin ziren. Pinturan, esate baterako, ordurarte nagusi zen tenplearen teknikari oleozkoak hartu zion aurrea. Erraztasun handiak ekarri zituen horrek.

VENEZIAren KOLOREA

"Bere jatorburu urrunenetatik, nahi bada bere garai bizantziarretik hasita, Veneziako artea kolorearen bila doala dirudi. Kolorea izan zen Veneziaren grina handi eta bereizgarria: gauza guztietara eraman zuen berau, arkitekturara eta dekoraziora, etxe- eta jauregi-tresnetara, soinekoetara, jai eta zirimonia erlijiosoetara, azkenik ohituretara ere. Plaza, kale, kanale, Veneziako laku eta abarrek (...) harritu eta liluratu egiten gaituzte gaur egun ere beren kolore-edertasun aldakor, baina iraunkorrarekin. (...). Teoria eta eritzi askoren ondoren ere, jakin ez dakigu oraindik zergatik sortu zen pintura veneziarraren mirari hori".

(J. DE ENCINA)

* 4. Maisu handiak: Florentzia/Venezia

Hiru izenetara mugatuko dugu hemengo azalpen hau: Leonardo, Raffaello eta Michelangelo. Hirurak XV. mendean jaioak, hurrengoaren lehenengo hamarkadetan eman zituzten lanik ederrenak.

Leonardo da Vinci (1452-1519) pintore bezala hartzen dugu hemen, baina artista honen jakin-grina zabalagoa izan zen, natur zientzietan, injineru-lanetan edo mota askotako asmaketetan. Pintura-lan asko ez dizkigu utzi, baina bai preziatuak: "Azken Afaria", "Gioconda", "Arroketako Ama Birjina", etab.



LEONARDO DA VINCI (1452-1519). Artearen eta zientziaren grinak inork ez bezala elkartu zituen bere baitan Leonardo-k. Sonatuak dira honen makina-projektuak, eta beronen eskutik lortzen dira pinturan, lehenengoz, hain osorik Pizkunde Garatuari zegozkion balio plastikoak. XV-XVI. mendeen arteko zubia da, alde askotatik.

Michelangelo Buonarroti (1475-1564) artista osoa izan zen, pintore eta arkitekto, baina batez ere eskultore. Alor denetan obra maisuak utzi dizkigu ia larogeitamar urte bizi izan zen artista honek. Florentzia-n eta Erroma-n lanegin zuen, Medici-tarrentzat eta Aita Santuentzat. Eskultura oso ezagunak egin zituen: "Dabid", "Pietà", eta "Moise". Baina haren pintura-lana ere gotorra izan zen, Aita Santuak eskatuta egina: Sixtoren Kaperako sapaia eta hondoko paretan "Azken Judizioa". Arkitekto bezala, berriz, Erroma-ko San Pedro Basilikaren plano berritua eta bertako kupula paregabea, itzela baina hala ere sotila.

Raffaello Sanzio-k (1483-1520) Michelangelo-k baino bizitza laburragoa izan zuen, 37 urte zituela hil bait zen. Honen lana --arkitekto-lana ukatu gabe ere-- pintura izan zen eta urtez laburra (1500-20), baina lanetan ugaria: "Madonna"-k (Ama Birjinak) oso ikusiak dira, eta Vatikano-ko geletakoak ez dira gutxiago: "Eztabaida", "Atena-ko Eskola", etab. Erretratutan ere maisua izan zen



GIZA ANATOMIA (Michelangelo). Pizkundean, giza gorputz biluziaren marrazketak eta pinturak leku nabaria izan zuten. Horretan XV. mendeko lorpenen ondoren, (Gogora Botticelli, adibidez), hurrengo mendeak obra maisuak eman zituen. Michelangelo-ren lana oso berea izan zen, alde honetan ere: eskultur zentzu batekin margotu zuen gizakiaren gorputza artista honek. ("Adan-en Sorkuntza"rako saio-lana).



BORGOko ERREKETA (Raffaello). Raffaello, bere Madonna baketsuekin gogoratu izan da, batez ere; baina gorputz biluzi nahiz jantzi dinamiko hauek ere harenak dira: indarrez beteak. Erroma-ko "estantzieta-ko" irudi hauek banan-banan beren balioa dute, noski, baina batez ere beren osoan begiratu behar dira: Raffaello-k "Cinquecento"ko baliorik bikainenetako bat erakutsi zuen "estantzietan", konposizioarena.

Raffaello: "Leon X.a". Sekulako arrakasta soziala izan zuen artista honek, oraindik bizi zela: benetan estimatua eta maitatua zen. Honen pintura atseginean ongi elkartzen dira koloretasun beroa (gorriak, horiak, doratuak) eta hotza (berdeak, urdinak), halako eder bare bat lortuz.

Gisa batera edo bestera, Florentzia-ko bideei segitzen zieten hauen ondoan, esan beharra dago Italia-n beste hainbat eskola egon zela pinturan: Unbria-n, Iparraldean; baina badago bat, bere nortasun aparteko eta Florentzia-koaren ondoan duen osagarritasunagatik, nahitaez aipatu behar dena: **Venezia.**

Florentzia, marrazkiaren eskola maisua da, gainerako arte-erdigune guztien gainetik; baina Venezia lehenen-lehenengoa da bere argi-koloreen jabetasunean. Koadro hauetan espazioen perspektiba ere lerroz marraztu baino areago, argi-ilunez eta margoz janzten da, joko horrekin gorputzen sakona ere emanez. Kolore bizi eta distiratsuak topatzen ditugu Venezia-ko pintoreen lanetan.

C I N Q U E C E N T O a





LEONARDO



LEONARDO. "Ama Birjina eta Haurra, Santa Anarekin". "Leda". "Gioconda". Leonardo-ren ekarpenik famatuena, pinturan, "sfumatto" deituaren teknika da: argia oihalean berdinki zabaldu ordez, iragan leunez eta pixkaka aldatuz eramaten du argia. Argilunetan eta konposizioan ere maisua da artista hau, eta marrazkilari paregabea, gainera. "Gioconda"n elkartu zituen artistak edertasun klasikoaren ideala eta norbanakoaren balio konkretua, honela, beronekiko ere Pizkundeak izan zuen arreta mantenduz.

MICHELANGELO. "Ama Birjina eta Haurra", eta Julio II.aren hilobirako lanak: "Moise" erdian. Giza gorputza, mugimendua, arropen tolesturak, aurpegien bakea edo suharra, materiaren lan-teknikak, hori dena ederki eman zuen Michelangelok, irudi hauetan ikus daitekeenez.

RAFFAELLO. "Julio II.a". "Ama Birjina txoritxoarekin". "Atena-ko Eskola". Irudiek zera erakusten dute: Raffaello-ren konposizioaren eta perspektibaren maisutasuna. Irudimenezko eszenatan ezezik, trebea da Rafaello erretratuetan ere.





RAFFAELLO

MICHELANGELO





Ikusi besterik ez dago nolakoa izan zen **Giorgione** (1477-1510), **Tiziano** (1477-1576), **Veronese** (1528-1588) edo **Tintoretto**-ren (1518-1594) artelana: kolorez betea, argiz blai, Mediterraneo-ko eguzkia eta Ekialdeko margoa... Venezia-k hiru mundutan dastatuta zekien bere pinturaren maisutasun hura: Italia-ko beste tradizioetan, Bizantzio-tik zetozkion iradokizunetan eta oraindik aipatu ere egin ez dugun Ipar Europa-n (Burgundia, Flandes). Hain zuzen, Herbeheretako eskolarekin hurbiltasun nabaria ikusten zaio Venezia-koari.

* 5. Europa-n zehar

a) Burgundia



J. VAN EYCK (1385-1441). Herbehereetako burgesia berriak eskatzen zuen pintura eman zuen "eskola flandestarrak" XV. mendetik oso garaiz hasita: erretratuak, etxe-barnetegi atseginak, elizetarako koadroak... Hemengo hau "Arnolfini senar-emazteak" (1434) koadroa dugu.

Italia bezalatsu, Burgundia-ko Dukerria (eta beronen barruan gaurko Benelux osoa) hiri eta gizarte urduri eta aberats baten erdigunea zen. Arkitekturan bereziki eraikuntza gotiko bikainak jaso ziren XV. mendean; baina pinturak Pizkundeko joera berriak oso garaiz landu zituen hemen.

Pizkunderako aldakuntza hau pixkaka-pixkaka gertatu zen, bapateko eraldakuntzarik gabe, tradizio zaharrak eta sormen berria elkartuz. **Van Eyck** anaiak (**Hubert**, 1366-1426; batez ere, **Jan**, 1385-1441) dira lehenengo izen handiak, eta berauen obra puntarenekoa "Bildotsaren Adorazioa" da. Gogora ditzagun, gainera, R. **Van der Weyden** (1400-1464) Prado-ko Museoan duen "Jaitsiera"rekin, **H.** Memling (1435-1494) XV. mendean; eta ondokoan ere, **Bosch** (1460-1516) irudimenez betetako koadroekin, **Brueghel** (1525-1569) bere izadi alaiekin.

Herbeheretako pintura honek hango gizarte burgesaren eskeari erantzuten zion: gizarte aberatsa,



R. VAN DER WEYDEN (1400-1464). "Jaitsiera" honek konposizio--balio bereziak ditu. Talde eskultoriko bat bezala eratuta dago koadroa. Begiratzekoak dira irudien arteko linea-erlazioak (Jesus/Ama Birjina, adibidez), eta denen artean lortzen den osotasun batua. Oinazea eta nahigabea bortizki adierazia ageri da, aurpegietan

natura hurbila zuena, baina baita bere etxe-barru eta janzki ederrak maite zituena ere. Paisajeak leku nabaria izan zuen pintura honetan, baina pertsonaiak ahantzi gabe, hiritarraren nortasun banakoa jasoz... Benetan gizarte aberats bati zegokion pintura oparoa. Italia eta Herbeheretatik ikasi zuen Europa-k Pizkundeko pintura.

b) Alemania

Hortik, Alemania hurbilak ere eman zituen artista galantak, bakoitza bere balio eta nortasunarekin: Nork ez ditu gogoratuko **Dürer** (1471-1528) apartaren grabatuak, **Grünewald**-en (1470-1528) pintura bortitza, edo Hans **Holbein** Gaztea (1497-1543), hainbat erretratu margotu zituena.

c) Espainia

Espainia da agian, Pizkundeko bi erdigune jatorrenetatik (Italia/Herbehereak) geografiaz urrunduta egonda ere, bi tradizioak ongien elkar-



ALBERT DÜRER (1471-1528). Marrazkiak eta grabatuak izen handiak izan zituen Pizkundean. Marrazkilarien artean izenik sonatuenetakoa Dürer--ena (Durero) da. Koadro honetan bere aitaren erretratua ematen digu; hau pintura izanik ere, ageri da berton marrazkilariaren esku trebea.



SAN JUAN DE LOS REYES (Toledo). Penintsula Iberiarrean, Flandes-ek eta Italia-k eraginda piztuko da arte berria. Lehenengo, bertako gotikoaren gain txertatuko da, korronte pizkundetarra. Errege Katolikoek eraikuntza garrantzitsuak egin zituzten, estilo pizkundetarra itxuraldatueta bertakotuz: "Isabel estiloa" sortu zen eta berehala "platereskoa". Gotikoaren egituraren gain dekorazio berriaz jazten da arkitektura.

tzea lortu zuen herrialdea; izan ere, elkarrenganatu berriak ziren bi erreinuek (Gaztela-k/Aragoa-k), bakoitzak bere aldetik, aspaldidaniko harremanak bait zituzten bi erdigune haiekin. XVI. mendean batez ere, Penintsulan ez zen falta izan ez italiarrik, ez flandestarrik; azkenean, bestalde, agindu ere espainolek agintzen zuten bi lurralde haietan. Merkatalgoak nahiz dinastiek, soldaduek nahiz kultur gizonek, Italia-rekin eta Herbehereekin lotuta zeukaten Penintsula.

Kanpoko eraginen aztarnak Gaztela eta Aragoa-n, bitan banatu ziren hasieran (bata Flandes-a begira zegoen, bestea Italia-ra hain zuzen), baina laster Penintsula osoan Italia-ren eragina nagusituko da Pizkundean. Pedro **Berruguete** pintoreak (1440?-1504?) bere "Auto de Fe" utzi zigun; baina, XVI. mendearen bigarren partean, garaiko maisu handia kanpotar bat gertatu zen, Domenikos Theotokopaulos kretarra; baina honetaz geroago esango da zerbait.

Pinturaz esan dugunak balio du, era beretsuan, eskulturarentzat ere: XVI. mendean Italia-ra begi-

ESTILO NAHASTUEN AURKA

"Eta ez zaitez ausart erromatarra modernoarekin (gotikoarekin, alegia) nahasten, ez bila berrikeriak pieza baten laboreak besteenaz trukatuz, oinaren moldurak buruari emanez. Ezagutzen dut nik, eta zuk ere bai, leiho batzuetako eskubandetan leihoburu eta zangoetako moldura berberak ezarri zituena... Eta ez da falta taulamentuetako koroak eta hortzaxkak basamentuetan jartzen duenik".
(SIGUENZA, 1605. Arkitektura gotikoaren eta sasi-erromatarraren kontra).



ISABELDARRA
San Pablo, Valladolid



PLATERESKOA
San Esteban, Salamanca



HERRERATARRA
Escorial-a, Erret patioa

ARKITEKTURA. Espainian Pizkundearen lehen azalpenak 1480aren inguruan agertzen dira, baina 1525.aren ingururarte ez da bete-betean nagusituko Pizkundea. 1. Aro berriaren atarian "estilo isabeldarra" daukagu: nabe bakarreko eraikuntzak gehienetan, kanpo- eta barne-dekorazio aberatsekoak, egitura gotikoen gain. 2. Platereskoa zilarginen gisara landutakoa da, dekorazioaren aldetik; hormak kuxineztaduraz estali ohi dira, baina koloma edo taulamenduetan apaingarri-molde oro erabiltzen da (mudejar, italiar, burgundiarrak). 3. Pizkundeko azken aroan, soiltasun osora bihurtzen da arkitektura: "estilo herreratarra". Escorial-ean aurkitzen dugu eredua: eraikuntza biluzia, lerro garbikoa.

ESKULTURA. Artista italiarrak (Fancelli, adibidez) dira Espainian joera pizkundetarrak eman zituztenak, eta batzuetan obrak berak ere handik ekarritakoak gainera. Hauen ondoren berehala datoz artista espainiarrak ere: Ordóñez, D. Siloe, A. Berruguete. Ez da falta beste atzerritarrik ere: J. de Juní, esate baterako.

BERRUGUETE: "Moise" (Toledo)



J. de JUNI: "Ehorzketa" (Segovia)



PEDRO BERRUGUETE (1440-1504).Autorretratua. Hau ere Italia-n egona, han ezagutu zituen Pizkundeko joerak. Hango moldeak beretu arren, Gaztela-ko neurritasunari berean eutsi zion: gartxua, arkaizantea, beti ere pertsonaien espresibitatea arretaz zaintzen du.





LUIS DE MORALES (1509-1586). Pizkundearen azken aldikoa da. "El Divino Morales" esan ohi zitzaion. Ama Birjinak pintatu zituen bereziki. Hemengo hau Orreaga-koa da (Nafarroa). Itxura guztiz, Leonardo-ren teknikak ongi ezagutu zituen.

ra egin zen lana. Lehenik, hango artistak Peninsulara etorri zirelako, eta gero espainolek, han ikasita lanegin zutelako. Adibiderik onena Alonso **Berruguete** (1488-1561) da, Michelangelo-ren ikasle izana, eta beronek bezala gorputzen mugimenduari garrantzirik handiena emango ziona. Honen aurretik eta ondoren ez zen pizkundetar eskultore handirik falta izan (Forment, Ordóñez, Siloé, Juní...). Obra ugaria aberatsa utzi zuten, Katalunia-n, Andaluzia-n, Gaztela-n.

Arkitekturaren alorrean, Espainia-n --kanpoko eraginak jaso ondoren-- berarizko estiloa sortuko da, **platereskoa**, dena apaingarri dekoratiboz jantzia. Baina Errege Katolikoen garaitik Felipe II.aganaino aldakuntza handia jasan zuen arkitektura horrek, Escorial-ari amaiera eman zitzaion arte (1584). Estilo gartxu hau herreratarra deitu izan da, Juan de **Herrera**-k (1530-1597) eman bait zuen eredua.

d) Frantzia

Bere hurbiltasun geografikoari esker, Frantzia-k eragin errenazentista, Herbehereetatik eta Italia-tik. Hala ere, ez zen halakorik berehala gertatu, Monarkia boteretsuak eta nobleziak gaztelu erdiarotarretan gehiago pentsatzen bait zuten, jauregi italiarretan baino.

Arkitekturan, batez ere, egitura gotikoak izan ziren nagusi, XVI. mendea ondotxo aurreratu zen arte. Frantzisko I.a ez zen Blois-etik Parisera aldatu 1528rarte. Lehenaldi honetako berrikuntze-



GAZTELU JAUREGIA. Parise-n eta inguruetan gaztelu berriak jasotzen ditu Erregek Pizkundean. Hemen ikusten duguna (Boulogne oihaneko Madril deitu gaztelua) 1528an hasi zen eraikitzen Frantzisko I.a.

tan Italia-k, egiturak baino areago dekorazioa ematen die eraikuntzei. Horixe ikus liteke, adibidez, Blois-eko Gazteluko eskailera hexagonalean. Baina Italia-ko artistek Erregeren Gortean babes ona zutenez, asko izan ziren Frantzia-ko bidea hartu zutenak: Leonardo da Vinci edo A. de Sarto, esate baterako, Fontainebleau-n bizi izan ziren, aldi batez.

Gortea Fontainebleau-ra aldatu zenetik (1533), hara bildutako artisten eragina iraunkorragoa gertatu zen: Fontainebleau-ko Eskola. Eskulturan bereziki, fineziaz betetako irudiak emango dituzte hango artegizon italiarrek. Giro honi esker, mendearen bigarren partean ez da faltako jatorriz frantsesak diren izen sonatuak: Jean **Goujon** (1510-1566) edo Germain **Pilon** (1536-1590) izango dira horietako batzuk. Horrela lortu zen, belaunaldi baten buruan, Pizkunde italiarraren garapen frantsesa.

Pinturan ere kanpotiko eragin berak jasoko



J. COUSINi egozten zaio "Karitatea" deituriko koadro hau. Cousin-en pinturak bádu zerikusirik Fontainebleau-ko eskolarekin, eta Michelangelo-rekin ere.

ditu Frantziak, hastapenetan batez ere Flandes-ko hurbiltasuna bortitzago dela. Arte landua da, artifizioski ondua, manierista. Biluzi asebeteak eta eszena mitologikoak oso zaindu zituen Pizkunde frantses honek. Margolarietatik Jean **Cousin** (1490-1561) gogoratuko dugu hemen bere "Eva prima Pandora"rekin.

* 6. Arte pizkundetarra Euskal Herrian

Euskal Herriko Pizkundeaz behar hainbat ez badakigu ere, gaur egun badago funtsezko azterketarik garai hartako arteaz. Dena den, lehenik komeniko da mende hartako gizarteaz ere zerbait esatea.

a) Gizartea eta ekonomia

XVI. mendea, Euskal Herrian, hazkunde demografikoarena izan zen. 1498tik 1591ra, Gipuzkoa adibidez 58.300 biztanletatik 76.800etara pasa zen. Iparraldean, batez ere, kostaldeak ezagutu zuen antzeko goraldi bat, barnealdea atzera geratzen zen bitartean. Bizkaiak %38tan gehitu zuen bere biztanleria (1478-1557etan). Mendearen bigarren partean, Herbehereetako gerrateak balazta-ondorioak izan zituen Jaurerrian ekonomian lehenengo eta demografian ondoren. Bitartean, goraldi gipuzkoarra zerbait areago luzatuko zen (XVI. mendearen azken alderarte). Dena den, gorakada hiri-gunetakoa da bereziki baserri-aldeetakoa baino. Nafarroan ere biztanle-ugalpena nabaria izan zen mendearen lehen partean, Bizkaian eta Gipuzkoan baino zerbait beranduago hasita, baina baita biziago ere.

Aberatsen mezenazgoa

"On Errodrigo Gotzainak, bere ehorzketarako kapera bat eduki nahi zuen Oñatiko San Migel parrokian. Horretarako baimena lortzearren, Oñatiko jaun eta Gebarako konteari zera agindu zion: baimen-truke, parrokiari klaustro eder bat eraikiko ziola. Nahi zuena lortu ondoren, 1525etik aurrera bete zuen agindutakoa, maisu hargina zen Pedro Lizarazuko urretxuarra obrarako ekarriz. *(M.A. ARRAZOLA)*



DONOSTIA. XVI. mendea bukatzean (zehazkiago 1616an) honela ageri zen Donostia. Urgull mendiari atxeki-atxekita. Ez da ahantzi behar Donostiaren zabaldura XIX. mendekoa dela, eta Urumea ere ibai irekia zela orduan. XVI. mendean, Donostia bere harresien barnean bizi zen.

Hazkunde demografiko honetan, euskaldun askoren irtenbidea emigrazioa izango da, hargin, izkribau, nabigari, artisau edo morroin-lanetara joanez. Era berean, kanpotarrak ere badatoz Euskal Herrira, batez ere hemengo kostaldeko hirietara. Honela, hazkunde begetatiboarekin eta izurriteak ere hain ugari eta gogorrak izan ez zirelako, Euskal Herria handitu egiten zaigu XVI. mendean.

Ekonomiak ere, demografiaren pareko hazkundea izan zuen: laborantzaren produkzioa hazi egin zen (Bizkai-Gipuzkoetan %30-40-taraino, Araban %20 bat, adibidez), beti ere bere oinarria herri-lurretan zuela. Horren ondoan, arrantzak itsasbide berriak urratuko ditu (Groelandia, Terranova, Norvegia...), urrundu den balearen atzetik eta bakailaoaren bila. Itsasora beharrak (arrantzaz gain, garraio-lanek eta "Indietarako" zereginek) indus-

BAKAILAOA. XVI. mendean, euskal arrantzaleek arrantzu-leku berriak bilatzen dituzte, eta urruna doaz beren ontziekin. Arrantzale-ekonomia honen aurretik eta ondoren ahalegin sozial handia dago: ontzigintzaren industria eta --hemen ikusten dugun bezala-- arrainaren kontserba-ontzea.



tria ere bizkortu egin zuen: orduan eratu zen XIX. menderarte luzatuko zen burdin produkzioaren sistema (burdinolak, ola zaharrak). Hemengo ontzigintzak hornitzen zituen batez ere Gaztela-ren gerra-ontziteria eta Ameriketarako joan-etorria ere.

Bedua: Errenteria

Zestoako Beduan biltzen ziren Urola bailarako burdinkiak, eta hemendik hartzen zuten itsasbidea berauek, Beduari bait zeuden kaiak, errenteria eta loia.Hona biltzen zen Bizkaitik Zumaiako portura zetorren mea, inguruetako oletara zetorrena noski. Beduatarrenak ziren, gainera,burdin garraiorako inguruko bideak. XIX.az geroztik, itsasotik urrunduta geratu da Bedua, baina mendetan izan zen Gipuzkoako kostaldean bailara hartako lantegietarako erabat premiazko kaia eta lehengaien biltegia. Euskal itsasertzean, han-hemenka kokaturik zeuden antzekoak. Holakoetatik eta holakoetara zuzentzen zen burdingintzaren bizitza ekonomikoa; "Peru Abarka"n irakur daitekeen bezala: "Zenbat (irabazten du) itzainak, ikatzak olara eramaten, errenterietatik mea ekartzen?". Errenteria izeneko herri eta auzoak honelako ibai-barnetan ezagutzen ditugu, Gernika-n eta Pasaia ondoan, adibidez.

Mendearen azken herenean geldialdi bat sumatzen da euskal Hegoaldean, Felipe II.aren politika hegemonista ahultzen hasi bait zen Europan. Erret Haziendak porrot egin (1575), Flandes-ko gerrateak harako merkatal ardatza hautsi eta "Armada Garaitezina"ren hondoratzean, Ingalaterra, Frantzia eta Holandarentzat sortu ziren aukera hobeak. Baina mendearen azkenetako aldakuntza honen aurretik euskal gizarteak egokiera ona izan zuen XVI.ean eta hedakuntza sozio-ekonomiko honen barnean gure Pizkunde artistiko-zientifikoaz esan behar da hemen zerbait.

b) Arte-bizitza

Penintsula osora bezalatsu, Euskal Herrira ere kanpotik etorri ziren eragin pizgarriak. Aipatu dira Euskal Herritik Bizkaiak eta Gipuzkoak Flan-



IGARTZAko BURDINOLA (1615).Hemen ikusten dugun grabatu honek Beasaingo ola zahar hura erakutsi nahi du, Espainiako Felipe III.ak hara bere ikustaldia egin zuen unean. XVI. mendean jarri ziren Euskal Herrian burdingintza modernoago baten produkzio-oinarriak: Industri Iraultzarainokoa, ordukoaren garapena izan zen. Lantegi hauetako lanak nonahira iristen ziren: "...no solamente a Castilla, Andalucía y al resto de España, sino también a Francia, Inglaterra, Flandes, Italia y otras provincias de Europa,y a las Indias occidentales, en las flotas que van de Sevilla y a las orientales de Asia, donde los portugueses tienen su comercio y navegación...",dio garaiko dokumentu batek.

des-ekin zituzten harreman komertzialak, eta ez dira ahantzi behar Nafarroako Erreinuarenak; Bilbo-ko Arte Ederren Museoan bada zer ikusi, eta herri txiki eta handiagoetako elizetan ere aurki liteke obra ederrik, pinturan eta eskulturan: Zumaia, Zarautz edo Aizarna, Gipuzkoan; Urduña, Lekeitio edo Portugalete, Bizkaian. Urduñako erretaula, ikusgarria da eskola honen adibide bezala.

Flandes-tarren presentzia hau zabala izan zen bezala, ez zen era berean errotu hemen "mudejar" deitua (musulmanengandik zetorren arte-moldea). Urola bailaran (Gipuzkoa) dauzkagu estilo honetako lanak: Loiola dorrea, eta Antxieta jauregia Azpeitian, Floreaga dorrea Azkoitian.

Kanpotiko hirugarren eragin bat azpimarra behar da, oraindik, euskal pizkundearen atariko bezala: "Errege Katolikoak" edo "Isabel" estiloa, alegia. Gotikoaren gain emandako dekorazio-fineziak gogoratu ohi dira korronte honetaz iharduetan: Guenes-ko (Bizkaia) portada apaina ez da adibide txarra.



GUENES. Eliz portada honetan ikus daitezke estilo isabeldarraren ezaugarriak: gotikoa izanik ere, apaingarriek aro berrien zantzua dute.





OÑATIko UNIBERTSITATEA. "Arte platereskoaren kimu arraroa, eta antolaketa orokorrari begira Espainiako beste hainbatetatik bat bada ere, kanpo-aldearen eta patioaren antolaketari begira, gailenetakoa da" (Lampérez).



AGURAIN: KORUA. Dekorazio platereskoaren obra maisua. "Obra miresgarria", Arrazolaren hitzetan. Bere osotasunean, eta xehetasunetan ere, etorri eta teknika onak erakusten ditu.

ZIORTZAko KOLEGIATA. Klaustro pizkundetar hau Bizkaiko onena da. Beheko eta goiko klaustroetan arku-molde ezberdinak ditu; dekorazioaren aldetik oso gartxua.





Horrela, hiru korronte osagarri horiek (flandestarrak, mudejarrak, isabeldarrak) eman zioten ataurre zuzpertzailearen ondoren, euskal Pizkundeak hegaldi jaso eta luzea ezagutu zuen. Euskal Pizkunde artistikoan elkarren jarraiko hiru epealdi aipatu ohi dira: 1. Lehen Pizkundea edo Platereskoa, 2. Pasa-epealdia, 3. Erromatartasuna.

ARKITEKTURAn, platereskoaren lehenengo epealdian, bi obra nagusi daude Gipuzkoan nahitaez aipatu beharrekoak: Oñatiko Unibertsitatea eta Donostia-ko domingotarren San Telmo konbentua. Biak izan ziren jaun handikiek jasoak: hura Errege Katolikoen zerbitzari izandako gotzain Mercado Zuazola-kori zor zaio, eta bigarrena, berriz, Karlos V.aren Idazkari Idiakez-i. Bizkaian, Ziortza-ko kolegiata da une honetako eraikuntza eredua; Araban, Agurain-go beheko koruak merezi du ikustaldi bat, eta Nafarroan ez luke galdu behar Bianako eliz portada Euskal Herrian arkitektura plateresko onik gozatu nahi duenak.

Lan hauen ondoren, bigarren ekinaldi bat ezagutu zuen euskal Pizkundeko arkitekturak. Euskal harginak, arkitektur egiturei platereskoaren apaingarrik eranzten hasi ziren, bestaldetik koloma klasikoa eta gurutze-ganga gotikoa elkartuz. Elkartasun honetan, harmonia berri bat lortu zuten gure artistek.

Horrela jaio zen "eliza gotiko-euskalduna" edo "eusko-pizkundetarra". XVI. mendearen bigarren partea osorik bete zuen korronte honek. Basilika-oinplanoa izan ohi dute eliza hauek, altuera berdineko hiru nabetan banatuta; gangaren euskarritzat, koloma klasikoak (gehienetan, doriko-toskanarrak). Mendea aurreratu ala, are korapilatzen dira gurutzeriak. Egitura honek espazio ireki za-



ARTE FLANDESTARRA. Pizkundeko euskal artean kanpoko eraginik bizienetakoa Flandes-tik jasoa da. Oraingo euskal erakustokietan dauzkagun eskola hartako koadro hauek ere eragin beraren lekukoak izan daitezke, nolabait: G. DAVIDen (1460-1523) "Ecce Homo" eta Q.METSYSen (1446-1536) "Trukalariak" (biak Bilbon, gaur egun).





ELIZA KOLOMARIA (Markina-Xemein). Honelako elizek, espazio zabal eta lasaiak izan ohi dituzte. Ugariak dira Euskal Herrian: eliza "gotiko-euskaldun" edo "eusko-pizkundetarra" esan ohi zaio mota honi.

balak sortzen ditu eliza hauetan. Dituzten zutabe garai eta sendoengatik, "eliza kolomariak" deitu izan zaie. Eurrez ditugu honelako eraikuntzak Bizkai-Gipuzkoetan, nahiz eta Araban eta Nafarroan estilo hau aski gutxiago zabaldu izan: Gipuzkoan aipagarriak dira, adibidez, Irun eta Errenteriakoak, Eibar eta Bergarakoak (S.Pedro, S.Marina), Segura, Idiazabal eta Zumarraga-koak. Bizkaian, Elorrioko Sorkundea, Errigoiti-koa, Markina-Xemeingoa, Guenes-koa ere gogoan hartuz.

XVI. mendea
BIZKAIKO ERAIKUNTZAK

Eraikuntza berri eta berreraikuntzetan lan handia egin zen Jaurerrian, mende honetan. Begira estatistika hau:

11 Zaharberrikuntza
4 Berreraikuntza
11 Zabalkuntza
15 Eraikuntza berri

41 Eliza berri edo berritu

Iparraldean ere, ekonomia bizkortu ala, jasotzen dira eraikuntza berriak: gazteluak eta elizak, batez. Gazteluetan batzuk gogora ditzagun: Azkaine, Donibane-Lohizune eta bestetan berriak, eta ez da falta zahar-berriturik (Ezpeleta edo Senpere-koak, Lapurdin; Aiherra-koa, Nafarroa Beherean; Iruri-koa, Zuberoan). Baina Iparraldean bada, hemen azpimarratu behar den zerbait: erai-



ANTXIETA JAUREGIA. (Azpeitia). Etxe honek bi balio historiko ditu. Bata, beronen eraikitzaileagatik, hain zuzen Joanes Antxietako musikagileak jaso bait zuen; bestea, berriz, Euskal Herrian estilo mudejarrak utzi dituen ale gutxietan interesgarrienetako bat delako. Harlanduz egina da beheko oinplanoa; goikoak,ostera, adreiluzkoak dira.

PIZKUNDEko EUSKAL MUSIKA

XVI. mendeko Euskal Herria, bere harreman zabalengatik, herrialde irekia zen: gure Joanes Antxietako Herbehereetan egona zen, adibidez, eta hemengo hainbatek franko lanegin zuen erbestean; baina, hemendik kanporako harremanekin batera, euskal musika herritarraren aztarnak ere joan ziren kanpora, eta bertoko musikagileen lanetan edo kanpokoen obratan topa litezke: Des Prés handia, lau ahotsetara emandako meza batean, Euskal Herriko doinu batez baliatu zen bezala ("Une Mousse de Bisquaye"), Antxieta-k euskal zortzikoa erabili zuen inoiz. Musikaren beraren eraginaz aipua egitean, ordea, ez ditugu ahantzi behar musikagileak, musika-sormen bizkorra erakutsi zutenak.

Lehenik, Joanes **Antxieta**-ko (1461-1523) gogoratu behar da (ez da nahasi behar, noski, izen bereko eskultorearekin, nahiz eta biak ere azpeitiarrak izan). Errege Katolikoen kapera-maisua izan zen (1489). Kasik berrehun bat orrialde musikatu ezagutzen ditugu haren lanetatik. Hau da, Pizkundean, gure Herriak eman zuen musikagilerik garaiena.

Gontzal **Bizkargi**-ko, aitzitik, batez ere musikaren teorizatzaile bezala da ezaguna (1460-1530). Antxieta-ren garai ber-berekoa da eta sorterriz ere auzokoa, azkoitiarra bait zen. Burgos-ko Katedralean zegoen 1511n, hango kapera-maisu bezala. Ofizioko gizona zen Bizkargi, batez ere garaiko teoria musikalak ezagutu eta zabaltzen. Honen "Arte de canto llano e contrapunto" liburuak (1511) sei argitalditaraino izan zituen XVI. mendearen lehen erdialdian. Bigarren lan teoriko bat ere idatzi zuen (1530), eta baditu Pizkundeko modu berriz obra polifonikoak ere.

XVI. mendearen bigarren partean ugariak ziren Euskal Herriko musika-jendearen izen ezagunak, hemen berton nahiz erbestean, kapera-maisu eta organojole gisa. Mugimendu oso bat topa liteke musikaren munduan, bi sorgune aberats dituena: Bata Iruñeko Katedralean eta beraren babespean pizturiko erdigune gipuzkoarrean (Azpeitia, Arrasate eta batez ere Azkoitia). Bestea Arantzazuko Santutegian, 1616an sortutako hango kaperarekin. Baina, data horretan jada Barrokoaren atarian gaude.



PIETATEKO ERRETAULA. (Oñati). Tordesillas izan zen diseinaria eta lau euskal eskultorek egin zuen lana (Aiala, Iragorri, Mendiguren, Olazaran). 1536an bukatuta zegoen. Estilo plateresko garbia da, bizi-ki aberatsa, bertatik bertara ikustekoa. Erdiko panela ageri da hemen, Pietateko Andra Marirena.

kuntza erlijioso herritarrak munta handia du. Lapurditik Zuberoaraino banatzen dira eliza herritar hauek: eliza zuri ieltsatuak, zurezko egitura ederrekoak, batzutan nabearen luzean galeriak edo selaruak dituztela.

Arkitektur eraikuntza berriekin ESKULTURA osagarrien eskea piztu zen: erretaulak jasotzen dira eta berauetan dekorazioa eta irudiak landu behar ditu artistak. Eskulturarentzat ere aukera berri bat da, beraz.

Berriz ere, Oñatin biltzen dira lanik onenak. Hango San Migel parrokian, Pietateko kapera ikusi behar da, euskal irudigile trebeek (Aiala, Iragorri, Olazaran) 1536an amaitua: erretaula, On Errodrigo-ren hilobia eta burdinsarea (erreja) ongi begiratzekoak dira. Oñatin bertan, Unibertsitateko kapera eta Bidaurreta-ko erretaula ez dira galdu



ERRETAULA (Portugalete: Sta. Maria). Hona erretaula zabal ederra, hainbat lan eskultoriko jasoz. Erretaulok beren osoan ezezik, irudiz irudi begiratzekoak dira, norberaren herriko elizatik hasita. Beaugrant eta Aiala-k landu zuten hau, egituraz gotikoa den eliza honetan beren molde pizkundetarrak txertatuz.

behar. Eta Gipuzkoan badago beste zenbait leku leinargitsu: Bergaran erretaula (S.Pedro), Azpeitian hilobi bat (Zurbano-rena), adibidez.

Bizkaian Lekeitiora joan beharko genuke, lehenik zuzen. Hemengo erretaula nagusian, molde zahar eta berriak bildu ziren Pizkunde urte haietan. Mende honetan elizgintza gaitza burutu zen Bizkaian, garaiko hazkundearen adierazgarri. Kanpoko arte-langilerik franko ere erakarri zuen horrek: Crial, Guiot de Beaugrant, etab. Baina batez ere bertoko eskultore bat ekarriko dugu hona: Joanes **Aiala**-ko. Oñatin eta Portugaleten lanegin zuen: aurpegien ederra, jantzietan joera kurbilineoak, buruetan errealismo herritar bat dira honen estiloaren zenbait berezgarri.



JOANES ANTXIETA: "Jasokundeko Ama" (Zumaia). Antxietak eta beronen ikasleek (Bengoetxeak, adibidez) maiz ohi duten gisara landutako irudia: gorputza mugimenduan, parteen harmonia kontrajarri batez jokatuz.

Lehenengo Pizkunde-aldiko saioaldi hauen ondoren, euskal Pizkundeko garairik oparoena dator. XVI. mendearen bigarren partean eta XVII.ean luzatzen da bigarren arte-aldi hau. Eskola eta izen handi bat ezagutu zuen garai honek: **Joanes Antxieta**-ko, azpeitiarra (1540-1588). Honen lanek eta beronen eskolakoenek ez-ohizko eragina izan zuten Euskal Herrian ezezik, Errioxan eta Gaztelan ere. Badirudi Italia-n ikasi zuela, Michelangelo-ren lana oso bertatik segiz, eta beronen jarraitzailetzat eman behar da gure Antxieta. Michelangelo zaharraren oldarra indartsu jaso zuen eskultore honek. Antxietaren lana eskerga eta gaitza da: Zumaiako erretaula da lehenengo gogoratu behar duguna, Tolosako klaratarretako sagrarioa ere bai. Baina Antxietaren obrarik zabalena Nafarroan daukagu, azken urterik onenak Iruñean bizi izan bait zituen: ikustaldi bat merezi du hainbat erretaula bikainek (Kaseda, Agoitz, Tafalla...).



A. BENGOETXEA: "San Bizenteko erretaula" (Donostia). 1583an hitzarmendu zen Bengoetxea aldare hau egiteko, eta J.Iriartekorekin egin zuen lana. Azpiaulki baten gainean dago eraikita erretaula hau. Ikus daitekeenez, hainbat kale eta pisutan banatzen da obra osoa.

Egindako obraren ondoan, Antxietak eskola bat sortu zuen. Haren bi ikasle ekarriko ditugu hona, bereziki: Anbrosio **Bengoetxea** alkizarra, eta Jeronimo **Larrea**. Biok iturri berean ikasi bazuten ere, gerora bakoitzak bere bide jatorra egin zuen, batez ere Bengoetxeak Antxietaren estiloa baretu egin zuen, bakeatu, bere barruak eskatzen zionaren arabera. Alkizarraren lanak ugariak dira Gipuzkoan (erretaulak, sagrarioak, Kristoak). Larrearenik berriz, Oiartzunen (erretaula) eta Azpeitian ikus daiteke (Ecce Homo, Kristo zigortua).

Bizkaian Martin **Zubiate**-ko aipatu behar da Durango-n utzi zuen erretaula handiagatik (Santa Maria). Gainerakoan, eliza berrietako hainbat eskulturaren egileen izenak ez dira gehienetan ezagunak; baina sorkuntza-lan ugaria burutu zela aitortu behar da. Nafarroan, ostera, lan anonimoak ezezik, baditugu artista ezagunak ere: Joanes **Beauvais**-eko (Lizarrako San Joan) edo Pedro González de **San Pedro**.

PINTURAK, lehenaldiaren ondoren, ez zuen eman, Euskal Herriko Pizkundean, arkitekturaren tamaina bereko loraldi emankorrik. Garaiko gure pintorerik garaiena Frantzisko **Mendieta** izan zen: obra ezagunа utzi zigun, "Foruen Zina" deitua, beste dudazko batzuekin batera.

E) PIZKUNDEKO ZIENTZIA

XVI.ena batez ere "erlijio-iraultza"ren mendea da; "zientzi iraultza"rena, berriz, XVII. mendeari egotzi ohi zaio. Hala ere, Pizkundekotzat eman liteke zientzia modernoaren egunsentia, kosmoari



ESKOLA eta ZIENTZIA. Pizkundean berritu egin ziren kultura eta jakintza zabaltzeko erakundeak, Akademia, Eskola eta Unibertsitate berriak sortuz. Erliebe honetan, Bolonia-ko eskola-ikasle batzuk.

buruz sistema aristoteliko-ptolomaiko erdiarotarra zalantzan orduan jarri bait zen. Hiru epealdi handitan jaso zen zientzia berriaren eraikuntza hau: 1) XVI. mendearen lehen partean Koperniko-ren teoria eraiki zen. 2) Bigarren, hurrengo berrogeitamar urtetan Galileo-k eta Kepler-ek birretsi egin zuten teoria hura. 3) Azkenik, Newton-ek eta, azken sintesi heldua emango diete hipotesi zientifiko modernoei, XVII. mendearen azkenetan.

Zientzia positiboen kontzeptua bera zegoen oraindik definitu gabe Pizkundean. Erdi Arotik zetorren Filosofia ez zen Zientzia positiboei laguntzeko lantzen, Teologiaren zerbitzutan baizik. Ezagumenduen modernotasuna, benetan definitu, hurrengo mendean definituko zen, gainera. Honegatik ere are zailagoa zen jakitunentzat ere jakinkizun zientifikoak nola landu eta eskuratu behar ziren jakitea: formulazio matematikoaren faltaz eta natur errealitatea behatzeko tresnak eskas zituztelako, noski.

Jakintsua, bakarrik

Joandaetorrikoak dira jakintsuak, leku jakin batean ezin finkatuak, ezinegonak eta nardariak, beti prest errege, lagun edo gotzain printzeren batekin haserretzeko, mentura berritan sartzeko beti gertu. Ongien lekutuek ez dute erreparorik zaputz egin eta aldegiteko: Tycho Brahe, Danimarka-ko Erregea utzi eta Enperadorearenera doa handikiro, eta Leonardo da Vinci Antwerpen-era joan zen, (Frantzia-ko Erregearenetik). Baina (...) beti ere Pizkundeko jakintsua gizon bakartia da. Babesleak izan ditzake, baita miresle eta ikasleak ere; ez da talde politiko edo intelektual batekoa; ez da Eskola batekoa eta maiz asko bere lagunak dira lehiakide eta kontrakoak ere. Haren bizitzako ezinegona pentsamentu-agresibitateari dagokiona da (...) eta hauxe haren bakardadearen zeinua ere".

(J.ROGER)

Kosmologiatik gizonaganaino

"Pentsamendu mendebaldarraren historian, Koperniko-ren obrak data erabakior bat finkatzen du. Izan ere, obra hartatik dago XVII. mendeko "Zientzi Iraultza", (zeren eta Aintzinateko eta Erdi Aroko

.../...

Kosmo itxi eta hierarkizatuak garaialdi modernoetako Unibertso berdindu eta mugagabeari egiten bait dio leku).

"Iraultza kopernikarrak" badu zerbait harrigarririk: aldez aurretiko deirik gabe eta prestaketarik gabe agertzen zaigula. Ez Nikola Cusa-ko (agian ezagutu zuena), ezta Leonardo da Vinci (Kopernikok ziurki ezagutu ez zuena) aitor bait ditzakegu Kopernikoren "aintzindaritzat". Inork ez zuen errezelatu --Aristarko Samoko-ren ondoren eta Seleuko-z geroztik-- Eguzkia munduaren erdigunean egon zitekeenik eta Ludia orbita-bidez mugi. (KOYRE,A.; ROSEN,E.)



KOPERNIKO (1473-1543): "...hau da astronomia osoa irauli nahi duena! Baina, Eskriturak dioen bezala, Josue-k Eguzkiari agindu zion gelditzeko, ez Ludiari" (Luter). Bizi zela ez zen kondenatua izan, baina 1616an "Index"ean (liburu debekatuen zerrendan) sartu zuten haren obra eta hantxe egon zen bi mende, debekatuta.

Baina aitortu behar da, jakintsu argi eta ausartik ere ez zela falta izan mende honetan. Aipa ditzagun hemen kosmologia eta giza anatomia landu zituzten bi izen, Koperniko eta Vesalio. Halabeharrez, bion obrak urte berean argitaratzea egokitu zen: 1543.ean Koperniko-ren "De Revolutionibus Orbium Coelestium" (=Zeru-munduen iraul-bideez") eta Vesalio-ren "De humani corporis fabrica libri septem" ("Giza gorputzaren egituraz zazpi liburu").

Koperniko (1473-1543) oso garaiz hasi zen bere teoria astronomikoak lantzen (1506?), baina urte asko eraman zizkion gero lana burutzeak. Bere liburu handia argitara eman aurretik ere zabaldu zen jakitunen artean berorren berririk, baina Erroma-k ez zien eragozpenik jarri teoria kopernikarrei. Hala ere, zenbait erreakzioren beldurrez, autorea saiatu zen bere obra honen liburuaren argitalpena atzeratzen.

Koperniko-k, Ptolomeo-ren teoria onartuaren kontra, Eguzkia jartzen zuen planeten erdian, Ludia beraz kosmoaren erdigunetik kenduz. Kosmo osoaren irudia itxulipurdikatzen zuen horrek. Ideia hau ez zen erabat berria, zeren greziarren artean hori bera esanda bait zegoen Aintzinatean, baina tradizio erdiarotar luze eta Bibliaren ulerpen testual baten kontra zegoen aurrez aurre.

Koperniko-k bere azalpen eta sostengu teoriko landua eman zion teoriari, eta honi esker Europa-ko Unibertsitateetara ere iritsi zen pixka-pixkaka. Dena den teoriaren zabalkundeak ez zuen, nahitaez, onarpena esan nahi, eta gutxi izan ziren oraindik, XVI. mendean, sistema kopernikarra mundua ulertzeko bere balio zientifiko osoarekin

onartu zutenak; gehiago izan ziren hura kalkulu-taulak berritzeko eta erabili zutenak. Momentuko edo berehalako arrakasta gorabehera, XVII. mendeko iraultza astronomikorako oinarriak jarrita geratu ziren Koperniko-ren liburuarekin: martxan zegoen "Iraultza Kopernikarra".

Vesalio-ren obrak beste kezka pizkundetarrago bati erantzuten zion, noski: gizakia bera, bere gorputz material eta konkretuan aztertzen zuen **Vesalio**-k (1514-1564). Xehetasunez egindako ikasketa eta irakasle-lan baten ondoren eman zen argitara *honen obra. Herbehereetan jaioa*, Italian egin zuen bere maisu-lana, azkenik Karlos V.aren eta Felipe II.aren mediku bezala bukatzeko. Giza anatomia aztertzeko grina bizia izan zuen jakitun honek, eta Medikuntzak beren lan horien bidez --Medikuntzak ezagumendu anatomikoekin duen zerikusiaren neurrian-- Medikuntza modernoaren oinarriak jarri zituen.

Pizkundeko anatomistek Galeno-ren jatortasun testuala bilatu zuten lehenengo (ordurartekoak arabiarrek itzuliak eta biziatuak bait zeuden); baina, Galeno-rena zuzen eta ongi ezagututa ere, beste galdera berri bat sortu zitzaien berehala: idazlan zaharrek ala giza gorputzaren disekzioak erakutsi behar zuten benetako anatomia? Hautabide bat zegoen anatomisten aurrean: Galeno-ren idazlanetan ala gorputzilen disekzioaren bidez ikasi anatomia?

Pizkundeko artistek giza gorputzaren formak maitekiro marraztu zituzten bezala, anatomistek barrutik ezagutu nahi izan zuten gizakia. Behagrina honek bultzatuta eta Padova-n disekziotarako aurkitu zituen erraztasunei esker, pauso handi



VESALIO eta GIZA GORPUTZA. Pizkundeak gizabanakoaz zuen ardura zientzietan ere azaldu zen. Esate baterako, gorputzilen disekzioaren bidez aurreramendu handiak egin ziren giza anatomia ezagutzen, eta, bide batez, Medikuntzari bide berriak urratzen.

Anatomia berria

"Egiaz, Vesalio-ren aurretik bizi izandako anatomistek ere egin zituzten aurkikunde interesgarriak eta den bezala irudiztatu zuten Natura zenbait ikuspegitatik, ez Galeno-k egin zuen gisara; baina denek zeukaten ausartzia handiegitzat maisu hura zuzenean errefusatzea, azkenean haren altuerara igotzea bait zen guztien grina. Egoera eta burubide hauek ez ziren batere ongarriak Anatomiaren aurreramendurako, eta, benetan, erori egin zen zientzia Vesalio hilezkorra agertu zen arte, honek hautsi bait zituen gero aurreritzien kateak, Naturaren behaketa arretatsua ikaskizun garrantzitsuen eta bazterrezinena bezala gomendatuz".

(KURT SPRENGEL)


Johann Huarts
Prüfung der Köpfe
zu den
Wissenschaften
Worinne er die
Verschiedenen Fähigkeiten
die in den Menschen liegen
zeigt
Einer jeden den
Theil der Gelehrsamkeit bestimmt
der für sie eigentlich gehöret
Und endlich
den Aeltern Anschläge ertheilt
wie sie
fähige und zu den
Wissenschaften aufgelegte Söhne
erhalten können
Aus dem Spanischen übersetzt
von
Gotthold Ephraim Leßing.

HUARTE DONIBANEko (1529-1588). Donibane-Garazin jaio zen mediku hau. Bizitzarik gehiena Andaluzian eman zuen, hara joan bait ziren haurraren gurasoak. 1575ean, "Examen de ingenios para las ciencias" eman zuen argitara, Europan egundoko arrakasta izan zuen liburua (itzulpen asko ezagutu zituen, eta dozenaka edizio). Euskal Herriak eman duen pentsalaririk ezagunena munduan.

HUARTEren IDEIAK

"Oraindik aro galendarrean landutako Huarteren ideiak, tenperamentuei buruzkoak alegia, ez datoz bat gaur egun gai honetaz dauzkagun eta defendatzen ditugunekin. Gure ideiak razionalagoak dira, harenak baino egiatik hurbilagoak, nahiz eta gureak ere egia horretatik urrun egon oraindik. Hala ere, begibistan dago Huartek bokazioen nondik norakoa oinarri zientifikoetan finkatu ezezik, garbiki ikusi zuela giza gorpuzkeren eta tenperamentu ezberdinen arteko korrelazioa ere. Hau da, izan ere, gaur egun gure zientziaren kezkarik lehiatsuenetako bat". *(G.MARAÑON)*

bat eman zuen Vesalio-k: Galeno-k ez zuela sekula giza gorputzik disekatu, eta abereetan ikusitakoa gizakiari aplikatu baizik ez zuela egin, frogatu zuen, eta, hortaz, giza anatomiarekiko ezagumendu guztiak berregin egin behar zirela. Hogeitabost urte zituen Vesalio-k hau esatean; ondoko hiru urtetan burutu zuen bere atlas anatomiko erabat berria (700 orrialdeko lana, 300 marrazkirekin).

Tradizio zaharretik puntu makur aski geratu zitzaion oraindik Vesalio-ri, baina 200 eta gehiago puntutan aldendu zen tradizio galendarretik, eta disekziorako teknika berria eta terminologia anatomiko berritua eskaini zituen gainera. Honi guztiari esker, ondokoek samurrago urratu zuten Medikuntza modernoaren bidea: Colombo, Falopio, eta abarrek. Iraultza honen egoitza batez ere Padova-ko hiria izan zen, eta oro har XVI. mendeko zientzia anatomikoa Italia-n egin zen.

Gizakiaren ezagumenduan beste urrats handi bat eman zuena euskaldun bat izan zen XVI. mendean: Joanes **Huarte Donibaneko** (1529-1588). Donibane-Garazin jaio zen, eta txikitatik Andaluzia-ra joan bere gurasoekin; liburu bakar batek eman dio mundu osoan izan duen sona Huarte Donibanekori: "Examen de Ingenios para las Sciencias" (1575). Obra honek mendez mende, eta modu iraunkorrean, izan zuen oihartzuna, egin zaizkion itzulpen eta edizioetatik neur liteke; inoiz, gainera, izen handiko itzultzaileak izan zituen Europa-ko kulturan: Lessing idazle alemana, adibidez, XVIII. mendean.

Huarte Donibanekoren mezua honela laburbil liteke: gizakiaren egitura materiala ezezik, beronen bidez "izpiritua" atzeman behar da; gizakiaren



MARTIN AZPILKUETAko (Barasoain, 1493 - Erroma, 1586). "Doktore Nafarra" deitu hau Pizkundeko kanonistarik sonatuenetakoa da. Frantzisko Xabierrekoren osaba, erbestealdi baten ondoren Orreaga-ra etorri zen; gero Salamanca-n (14 urte) eta Portugal-eko Coimbra-n (16 urte) irakatsi zuen. Inkisizioaren aurrean, Karrantza Toledo-ko Artzapezpiku nafar pertsegituaren defentsa bere gain hartu zuen, eta 1567an Erromara aldegin zuen horretarako. Zuzenbide kanonikoaz aparte, musikaz eta teoria ekonomikoaz ere arduratu zen. Ia mendea betetzera zihoala hil zen.

izaera eta izan-moldeak ezagutu behar dira. Psikologiaren oinarriak deskribatu nahi izan zituen Huarte-k bere liburuan: gizaki bakoitzaren gorpuzkeran aurkitzen zituen pertsonaren izpiritu-gaitasunen eta izakeraren eustarriak; gorpuzkerari dariona da, beraz, halako edo holako tenperamenturen jabe izatea. Horren arabera, bakoitzaren "jeinua" ezagutuz gero, zientzietarako halakoren gaitasunak ondoriozta daitezkeela, uste zuen. Izakera abil eta desabilak bereizten ditu Huartek, "bizi-izpiritu"etan (tenperamentu organikoetan, alegia) oinarrituz. Klasikoek ere aipatu zituzten "umore" heze eta lehorren konbinazioan aurkitzen du giza-gaitasunen funtsa.

Pizkundean, San Ignazio, Azpilkueta "Doktore Nafarra", Huarte eta, nahi bada, aita Vitoria dira Mendebaldeko kulturan pisurik handi eta zabalena izan zuten euskaldunak.



JULIO II.a Aita Santua (1503--1513). Pizkundean, gisa berriko Aita Santuak izan zituen Elizak. Hau, adibidez, Italia-ko printze hegemoniko bat bezala jokatu zen, atzerritar "barbaroak" handik botatzearren. Burubide honek eten egiten du printze denboralen artean Aita Santuek zuten arbitro- eta alogatzaile-betekizuna, printzeen artean bat gehiago bihurtu bait zen, horrela, Aita Santua ere.

III. BIZITZA POLITIKOA

Erregeren menpeko bizilagunen eguneroko bizitza politikoan eta gertaera politiko sonatuetan ikusten dugunaren azpitik, Pizkundean ere (lehenago feudalismo erdiarotarrean edo geroago Absolutismoan bezala) mentalitate eta pentsamendu politikoak daude. Herri xumeak zergak ordaintzean, edo herritar berauek kontzeptuetan eta politika-arduradunek erakundeetan egin edo bizi dutenak pentsamentu euskarri bat zuen.

A) IDEIA POLITIKOEN LERRO NAGUSIAK

XVI. mendeko politika-ideien mugimenduak hiru lerro nagusitan bil litezke:



MAXIMILIAN I.a (1493-1519). Inperioa berrantolatu nahi izan zuen, Enperadoregoa ere indartzeko, izan ere 240 Estatu bait zeuden Inperioan, zaldun inperialen lurraldeak, Bohemia, Suitza etab. kontatu gabe ere. Arrakasta handirik gabeko asmoa gertatu zen Maximilian-en hau.

a) Lurralde-monarkia batu eta absolutuak menpeko jendeen artean atxekimendu geroz eta osoagoa lortzen ari dira. Piramide feudalean tarteko boteredunek, zituzten agintea eta eskubideak lausotuz doaz, erpina indartuz doan bitartean. Era berean, Monarkia handiek ez dute batere maite Enperadorearen balizko aginte goren unibertsala; Alemanian bertan ere, behin baino gehiagotan, "nazio germaniarraren" sinbolo bezala hartzen dute Karlos V.a, Kristandade osorako Enperadoretzat baino areago.

b) Aita Santuaren botere izpiritual unibertsala ere mugatu egiten da, bi zentzutan gutxienik: 1. Geroz eta gutxiago onartzen da hark erreinu kristauetan izan zezakeen botere denbora-

la; Monarkia handiek, beren konbenentziek eskatzen duten gisan bakarrik jotzen dute Erromara. Aginte politikoa sekularizatu egiten da. Erreforma protestanteak ere botere zibilaren sekulartasun hau lagundu egiten du. 2. Bestalde, eliz arazoetan ere Monarkiek eskuharmen autonomoagoa lortzeko asmoa erakusten dute: Konkordatuak, Eliz Zaingoak (Patronatuak), etab. Eliztarren mentalitateak onartu egiten du hau ere.

c) Baina ideia politikoen munduan berrikuntza, geroxeago eta sakonago, beste nonbaitetik dator, Herbehereetan leialtasun dinastikoaren kontra abertzaletasun errepublikazale bat jaiotzetik, alegia. Hango burgesia indartu ala, libertatearen ideologia definituz joango da ondoko belaunaldietan.

EUROPA POLITIKOA (XVI. mend.)

"XV. mende-hasierako Europa,gorputz politiko oso ezberdinek osaturiko mosaiko bat da. Guztiz ezberdinki eratutako, baina beren independentzian irmoki oinarrituriko erreinuen ondoan, hiri-errepublikak edo hiriren baten inguruan jaiotako jaurerriak, laiko nahiz elizgizonen printzerriak ahantzi gabe; Alemanian edo botere inperialaren asmadizoa zapuztu duen Italian honelako jaurerriek, gainera, benetako autonomia dute. Inperio Sakratua sakabanatuta dagoenez eta Kristandade-gidaritza denboralerako Aita Santuen nahikeriak hondatuta, monarkien esanahi nazionala garbiki sendotzen da Frantzian eta Ingalaterran; Granada-ren konkistak (1492) Espainien batasuna burutzen du. Europaren beste muturrean, Suediak --gatazka luze baten ondoren eta Batasun Eskandinaviarra desegitean-- independentzia osoa lortzen du (1523)".(P.JEANNIN)



KARLOS V.a eta AITA SANTUA (1530). Bolonia-n ospakizun handiak egin ziren, Aita Santuaren eta Enperadorearen arteko adiskidetzeak goraipatuz. Xehetasun guztiz eraman zen protokoloa, Aita Santuaren lehentasuna agerian geldi zedin, eta Enperadoreak harekin bat-batuta errege guztien gainetik zuen gorentasuna aitortzeko. Klemente VII.a Aita Santuak orduan koroatu zuen Karlos V.a.

Europarrak, Gurutzadara?

"Kristauak etengabe burrukatzen dira elkarrekin... Batak besteari hala dio: 'Anaia, lagun nazazu gaur holako printzeren aurka, eta bihar nik lagunduko zaitut beste haren kontra'. Ez beldur izan, ez dute beren artean bat hartuko. Norbera bere buruaz bakarrik arduratzen da; inork ez du interes amankomunean pentsatzen".

(Bayazid Sultanak, 1481-1512)

Europa-ko herri xehea, eguneroko beharren zamapean abaildua, ezin da oraindik iritxi politikarien ideia berri askatzaile hauek ezagutu eta aintzakotzat hartzera; baina politikaz arduratuen artean eztabaida politiko teorikoak arretaz begiratzen dira. Dena den, ideia argienek ere ez dira praktira erraz eta berehala jaisten: Erregeren erabateko aginte osoaren defendatzaile suharrenek ere ezin zituzten asmo haiek (Monarkia bera alde edukita ere) gizartean osoki praktikatu, horretarako tresneria administratibo egoki baten faltaz. Monarkia handienen Estatua ere ahula zen oraindik.



SULEIMAN I.aren ISTANBUL (1520-1566) Inperio berri baten hiriburua da Istanbul. Otomandarren hiriburu bilakatu zen Ekialdeko kristauen garai bateko Konstantinopoli hura. Suleiman-en erasoek, Mendebaldean eta Mendebaldetik egin nahi zen botere-sistemaren banaketa zalantzan jartzen zuten, halakoak izan bait ziren, izan ere, turkiarren erasoaldiak (Belgrado, 1521; Rodas, 1523; Hungaria, 1526-26; Viena, 1529, etab.). Europa kristauaren arriskurik larriena Inperio Otomandarra zen.



B) PROJEKTU ETA PRAXI POLITIKOAK

Erdi Aroko Europa-k, Kristandade bezala, bere batasun politikoa bi botere-ardatzen inguruan eratu zuen: Aita Santuaren eta Enperadorearen inguruan esan nahi da. Baina boteregune goren horien projektu politikoa erdiarotarregia zen --zaharregia, inondik ere-- Aro Modernoaren hasieran; ez zen Monarkia handien lehiaketa politikorako pentsatu eta egokitua.

Izan ere, ikusi dugu dagoeneko, Pizkundean Lurralde-Monarkiek hartu zuten indarra. Egia da Erteuropan, XV. mendearen azkenetan, ahaleginтzen zela Inperio Germaniarra erakunde-antolamendu egokituago bat moldatzen, baina nabaria zen saio haien ahulezia, eta ezina ere: barnean, jaun feudalak aski indartsu ziren oraindik Alemanian Estatu modernoaren asmoa itotzeko; eta kanpotik, Estatu "monarkiko-nazionalek" eginahal guztiak eta bost egingo zituzten berrikuntzaren egitaraua halaxe ito zedin.

Nongo enperadorea?

(1453an galdu zuen Konstantinopoli-k bere hiri-sakratutasuna: Errusiak hartzen dio bere gain segida. Zar-a, Enperadore Erromatar-Germanikoaren lehiakidea da, beraz. Elizgizon batek Mosku-ko Koroarentzat sakratutasun gorenena eskatzen du testu honetan. "Jainko-Hiria"ren oihartzunak sumatzen dira hemen:)

"Iban da Ludiko kristau guztien Enperadorea, bera da Eliza apostolutarraren buruzagia, izan ere orain berau ez bait dago Erroman edo Konstantinopoli-n, Mosku hiri bedeinkatuan baizik. Mosku da bakarrik, mundu osoan, eguzkia baino ere distiratsuagoa den Hiri bakarra".

(FILOFEI Abadeak, 1510)



MONARKIEN HIERARKIA. Sistema feudalak ongi mailakatuta zeukan agintarien arteko antolamendua, baina Pizkundeko berrikuntzek koloka jarri zuten hau. Zurezko grabatu honetan, (1501ekoa da) Inperio kristauak Pizkunderako amesten zuen hierarkia ikusten da oraindik: Enperadorea, guztien buru; lehen mailako erregeak gero (Espainia, Frantzia); hirugarren mailako errege soilak ondoren ("reges simplices" dio), etab.



MAXIMILIANen ARMADA. Botere baten hegemoniak zerikusi zuzena zuen garaiko gerra-teknika berrien jabetasunarekin, XV-XVI. mendeetan zabaldu bait ziren suzko arma berriak: kainoien galdaketak teknikari onak eskatzen zituen, adibidez. Irudian, Maximilian Enperadorea galdategi bat ikustatzen.

Hala ere, Inperioari ez zitzaion falta izan gidari asmotsu eta bipilik, Europa banatuaren barnean ere politika inperialari hamarkada luzeetan oraindik indarrean eusteko: Maximilian eta Karlos V.a izan ziren batez ere gidariak.

Benetan egoera ahula zen Enperadore-boterearena, bizpahiru arrazoin nagusik bait zekarkioten halako ahulezia bat Enperadoreari: a) **Lurralde-printzeak** ziren benetako agintariak, eta zentzu honetan, Enperadorea bera ere bazen norbait, lurralderen bateko jauna ere bazenez, bere herrialde edo printzerrian. Habsburg-etarrek, adibidez, Austrian benetan agintari boteretsuak ziren, baina handik kanpora, Inperioko beste lurraldeetan, gehiago ziren ohorezko agintari, beste ezer baino. b) Hala ere, lurralde-printzeen ondoan, Enperadoreak bazuen teorian bederen bereak ziren **Inperio-zaldunak**, lurralde-jaunengandik libre eta Enperadoreari zuzenean zetxezkionak. Beroni indargarri izan zekiokeen nobleen klase honek, ordea, bere interesak zituen, Inperioarenekin kontrajarriak. c) Itxuraz, **Inperio-hiriak** izan zitezkeen agian botere inperialaren euskarri onak, baina Dietan partehartzen hasi zirenean (1489) indargeturik zeuden, printzeei aurre egiteko.

XV. mendean Habsburg-etarrek Enperadoregoa eskuratu eta hurrengo hauteskundeetan (hautatua bait zen Enperadorea, eta ez herentziaz egina) berriz ere Koroa beretarren artean gordetzea lortu zutenean, pentsa zitekeen Enperadorearen ahalmenak indarberrituta aterako zirela, segida dinastiko horren ondorioz.

1495ean (Worms-eko Dietan), Inperioaren antola-berrikuntzarako bi asmo kontrajarri agertu

ziren: alde batetik, printzeek Inperioari ezarri nahi zioten antolamendu federala, botererik gabeko ohorezko Enperadore bat bakarrik onartzen zuena; bestetik, Maximilian-en kontraproposamena, printze-kontseilua aholkuemaile huts bihurtu eta Enperadoreari lehentasun beterazle osoa aitortuko ziona. Printzeen eta Enperadorearen bi jarrera kontrajarrion artean lehiaketa antzu bat egon zen, bizirik 1510erarte.

Hala ere, Habsburg-etarrek aurrera egin zuten, eta Pizkundeko hamarkada hauetan bi-faktore aipagarrik zerikusi zuzena du berauen garaipen politikoan. Berrogeitamar urteko egitekoa izan zen (1477-1526). Faktore bat Alemaniakoa bertakoa da: Printzeek, azkenik, armada iraunkor bat eman zioten Enperadoreari, aldiberean Erregentzi Kontseilu batez agintea murriztuz bazen ere (1500); garai berean Habsburg-etarrek beren lurralde propioetan administrazio-erreforma bat bultzatu zuten, kanpo-politikarako baliabide ekonomiko finkoak segurtatuz.

Eta, honela, bigarrenera gatoz: Habsburg-etarren kanpoko ezkon-politikaren arazora, alegia. Maximilian-en beraren ezkontzak lehenengo (Burgundia-Herbehereak, 1477) eta beronen seme-alabenek gero (Gaztela-Aragoa, 1516; Hungaria-Bohemia, 1526), erreinu handi zabalak elkartu zituen dinastia honen inguruan. Urte gutxitan, etxe dinastiko berak eskuharmen zuzena du Europa-ko lurralde guztiz ezberdinetan: Mediterraneo-tik Ipar Itsasora, Erteuropa eta Italia-tik Penintsula Iberiarrera (eta Ameriketaraino, beraz).

Habsburg-etarrak ez ziren, ba, boteretsu Enperadorea ahaltsua zelako, Enperadorearen prin-



GRAN CAPITAN deitu zitzaion Gonzalo Fernández de Córdoba-ri (1453-1515). Arma-gizon sonatu honek ezarri zuen Italian Fernando Katolikoaren politika, horretarako Karlos VIII.aren armada frantsesa handik jaurtiz (1494-1507) eta Napoli-ko Fernando III.ari berari ere erasoz. "Kapitain Handiak" eratu zuen espainiaren armada profesionala, oinezkoei berriz ere lehen lekua eman zien, alkabuzarien laguntza emanez eta zalduneria bigarren lagungarri bezala utziz.

"IL SACCO DI ROMA" (1527). Atzerritarren menpe ez zeudenean, haien erasoen beldur ziren Italia-ko herri eta hiriak. Hango printze eta errepublikak saiatu ziren defentsa antolatzen, batzuetan (Florentzia-ko Medici-tarrek bezala) Italia barnean oreka bilatuz. Baina kanpotarrek behin eta berriz ekin zuten beren gudalosteekin. Lapurreta eta triskantzarik latzenak zakuraketa honetan ezagutu ziren, Karlos V.aren soldaduek zortzi egunetan Erromako hiria zakuratu zutenean.



tzerri propioak (Austria) eratu eta Inperiotik kanpo Koroa berrien baliabideak eskuratu zituztelako baizik.

Inperioaren elbarria agerian geratu zen, hain zuzen, urte hauetan: Suitza-ko kantonamenduak Inperiotik ezarritako zergen kontra asaldatu egin ziren, Maximilian-en aurka beren independentzia praktikoa ere lortuz (1499; eskubidezkoa Westfalian, 1648). Dena den, esan den bezala Inperioaren beraren gain izan gabe ere, Habsburg-etarrek sekulako indar politikoa bildu zuten beren eskuetara. Karlos V.aren erregealdian ikusi zen hori garbi.

Estatu-arrazoia

"Munduaren hasieran, bizilagunak gutxi zirenean, abereak bezala sakabanatuta bizi izan ziren. Gerora, ondokoak ugaritzean, eta hobeki beren buruak defendatzeko asmoz, beren arteko sendo eta adoretsunea bilatu zuten eta beronen esanetara jarri ziren. Hortik sortu zen onaren eta zintzotasunaren ezagumendua, eta hori dena txar eta gaiztakeriatik bereiztea. Norbaitek ongileari kalte egiten baldin bazion, horrelako gaizkile hori jendeak gorrotatu egiten zuela eta alderantziz kaltetuaz errukitzen zela, edo eskerronekoak hondratu eta eskergaiztokoak gaitzetsi egiten zirela ikustean, eta norberak ere halakoxe irainak jasan zitzakeela pentsatuz, hiritarrek legeak ematera bortxatu zituzten beren buruak eta lege-kontrakoak zigortzera. Honela jaio zen justiziaren kontzeptua".

(N. MACHIAVELLI, 1515)

EUROPA BAKARRIK KRISTAU?

"Batetik, turkiarrek Europaren parte on bat hartuta zuten, eta europarrak, bestetik, itsasoaz haraindiko lurraldeetara zihoazen. Bi prozesu hauek tarteko zirela, "Europa" izenari bere esanahi geografikoa joaten ari zitzaion, eta ez bi arrazoi horiengatik bakarrik: Afrika-n ere, ziotenez, Joanes "Preste"ak gobernatutako inperio kristau bat zegoen eta beronen legendak ere eroparren nortasun izpirituala jatorra lausotu baizik ez zuen egiten. Era berean, Ameriketan eta Indian aurkitutako herrien egoera izpiritualaz sortu ziren eztabaidek zalantza berriak ekarri zizkieten europar kristauei (¿posible ote zen lehendik ere haiei Ebanjelioa zabaldua izatea? ¿Kristauak ote ziren, asmoz edo benetan?))". *(HALE)*

C) BOTERE EZINKONPONDUAK

Estatu modernoaren eraikuntza arma-ekintzez jasotakoa da. Ez da harritzekoa, beraz, Pizkundeak gerrate odoltsuak ezagutu baldin bazituen.

* 1. Italia gutiziatua

Pizkundearen erroak aipatzean, Italia eman dugu haren sorterri behinena bezala: Italia eskolatua zen, aberatsa, urduria, sormen handikoa... Italia miretsia zen, gutiziatua. Baina Italia, bere barruan, oso banatuta zegoen, Erreinu, Konterri, Dukerri eta herrialdetan. Eta batasun-faltaz gainera, interes atzerritarren topalekua zen Penintsula mediterranear hau.

Erdi Aroko bi botere nagusiak --Inperioa eta Aitasaindugoa, alegia-- hantxe borrokatu ziren; Aragoa-ko Trastamara-tarren eta Frantziako Anjou-tarren borroka-leku ere izan zen. Maximi-

Italia, babesik gabe

"Halako iraultza itzelen gudaleku eta biltokia den Italia gogoan hartzen badugu, ugate eta uresirik gabeko landa dela ikusten da. Alemania, Frantzia edo Espainia dauden bezala, indar militar eta hiritarrek babestua egon balitz, gainera etorri zaizkion armada atzerritarrek ez zuten halako aldakuntzarik ekarriko, eta etorri ere ez ziren etorriko.
(N. MACHIAVELLI, 1515)

XV . MENDEKO ITALIA. Europako lurralderik kultuena zen Italia Pizkundean, baina ez zuen batasun politikorik. Bestalde penintsula hartan topo egiten zuten Monarkia handien interesek ere. Italiako printzerri eta errepubliketan kultur bizitzak egundoko garapen zoragarria izan zuen: hango merkatariak, bankari aberatsak eta agintariak artista, idazle eta jakitunen mezena bilakatu ziren.



lian-ek ere bizirik eutsi nahi zien han omen zituen eskubideei.

GERRA BIZIA

(Pizkundean armada berriak eratu ziren (hemen Maximilian-en garaiko soldadu bat). Batez ere, Italia-n gerra-modu berriak entseatu ziren, garaiko idazle batek dioen bezala:)

"1494.aren aurreko gerrateak luzeak ziren, guduak ez batere odoltsuak eta hirien setiapenetako metodoak geldiak eta ez seguruak; eta artileria erabiltzen bazen ere, hain abildaderik gabe egiten zen ze ez zuen apenas kalterik egiten. Horrela, ba, Estatu bateko agintaria oso nekez eragotzi zitekeen bere agintetik. Baina, frantsesak Italia-ren gain etorri zirenean, gure gerrei halako mugikortasuna ezarri bait zieten, handik aurrera 1521erarte, gudu bat galtzen zenean, Estatua bera galtzen zen bertan behera".

(F.GUICCIARDINI, 1525)

Testuinguru historiko honetan jarri behar da Pizkundean Italiak ezagutu zuen gerratealdi luzea; luzea diogu, zeren 1494tik 1559raino hirurogeitabost urtetan luzatu bait zen.

Lehen ekinaldian (1494-1516) Frantziaren eta Aragoa-Gaztelen arteko borrokan Napoli-ko erreinuaren jabetasuna izango da eztabaidakizun: Errege Katolikoen garaiko gerra italiarrak dira. Espainiak orduan finkatzen du Italian bere hegemonia armatu eta politikoa.

Ondoko urteetan Karlos V.aren (1517-1556) eta Frantzisko I.aren (1515-1547) arteko gatazkarik gogorrenak Italian gurutzatuko dira. Interes guztien trabalekua gertatu zen Penintsula hau; horregatik, premiazkoa da protagonista hauen interesek zein zentzu zuten ulertzea.

* 2. Karlos V.a / Frantzisko I.a

Karlos V.ak hain gazterik jasotako herentzia, eskerga zen. Hamazazpi urte zituen Gaztela-ko Koroa hartu zuenean. Enperadore gaztearen ingurura erreinu ezberdinetako aholkuemaileak bilduko dira: flandestarrak, italiarrak, gaztelauak ... Denei entzungo die; baina geroz eta nabariago da Karlos V.a batez ere Gaztela-ko Erregea dela, hemendik jasotzen bait zituen bere politika handirako laguntzarik onenak ere.

Karlos-en ideia politikoak, funtsean, "batasun kristaua"ren asmoari lotuta daude: "universitas christiana" deitzen zitzaion horri. Karlos V.ak, ikusi zuen ez zela obragarria Inperio bakar baten erakunde-asmoa; baina, bestalde, Kristandadeari ardatz politiko hegemoniko bat eman nahi izan zion, Europa Erreforma lutertarretik eta turkiarren erasoetatik ere zaintzeko. Herentziaz emandako ondarea bere hartantxe osorik pasa nahi izan zien semeei.

Baina, halabeharrez, xede horrek haren erreinuetan, eta kanpotik ere, oztoparri gaitzak aurkitu zituen. Alde batetik, Erreforma Protestantea lehertzean boterearen banaketa gatazkatsu bat suertatu zen Europa osoan, baina bereziki Inperioaren barnean. Honetaz geroago esango dugu zerbait. Eta bestetik, kanpoko arerioak ere zelatan zeuden: Kristandadearen bihotz-bihotzean Frantzisko I.aren Frantzia, eta Kristandadeari Erteuropan eta Mediterraneoan erasoka ziharduen Turkia. Zaila zen Karlos-ek eskuetan zuenari eustea, eta zailago eta ezina Inperio erdiarotarraren ideia praktika politikoan berreskuratzea. Aski eta sobera zen bakea gordetzearekin.



KARLOS V.a (1517-1556). Enperadore gazte honek gidatu zuen Europan Habsburg-etarren boterea. Honen garaian lurralde eta herri oso ezberdinen buru izan zen Etxe hau. Karlos-en asmo politikoa (kristau botere hegemoniko gidari bakarraren asmoa, alegia) ideia zaharkitua zen; hala ere, hori nola lortuko, etengabeko gerratetan agortu zituen bere erreinuen indarrak Karlos V.-ak.



FRANTZISKO I.a (1515-1547). Karlos V.aren aurka arrazoi ugari zuen Frantziako errege honek. Fugger bankariek eman zioten laguntzari esker, Karlosek Enperadoregoa kendu zion. Habsburg-etarren lurrek inguratzen zuten Frantzia alde guztietatik; Italian eta Burgundian kontrako interesak zituzten; Errege nafarrak ere lagunak behar zituen Gaztela konkistariaren kontra (arreba Nafarroa-ko Erregina zuen Frantzisko I.ak).Guztiongatik, Enperadoreak ezarritako hegemoniaren aurka zegoen Frantzia-ko Koroa.

XVI. mendearen lehen partean bi gizon horien inguruan ardaztu zen nagusiki bizitza politiko europarra. Mende-erdi hartako harreman larrienen kondairaren haria bi erregeon arteko gerrateena da, gehienbat.

* 3. Gerratea, lege

Aldi bereko bi erregealdi hauen garaiko gerrateak ia etenik gabekoak izan ziren. Bi epealditan bana genitzake berauek, tarteko muga-data 1529an ezarriz (Cambrai-ko edo Damen Bakea):

1.an, Karlos-ek Burgundiako herentzia (Frantziak parte on batean bereganatua) berreskuratu nahi du, bere osoan; Frantzisko I.ak, ostera, Italian ditu jarrita begiak: Anjou-tarren peninsulako eskubideak indarberritu eta indarrean jarri nahi ditu, Frantziako Koroaren probetxutan. Indarka eta inkimanka honetan oreka berri bat definitu nahi izan zen Damen Bakean: Burgundian galdutako eskubidezko lurraldeak Frantziari utziko dizkio Karlos-ek, baina Italia erabat Enperadorearen botere hegemonikoaren eskutan geratu zen.

2.ean, Italia-ko arazoak, ustez behinik behin, konpondu samartu zirenean, Karlos V.ari erasotzeko aukera politiko hobea eman zion Frantzisko I.ari larriagotuz zetorren Alemaniako Erreforma Protestanteak. Eta honekin batera baita Turkia eta Frantziaren artean lortutako gerra-elkartasunak ere.

Baina, azkenean, halako gerrate luzeek agortu baizik ez dituzte egiten erreinuen indarrak. Frantzia eta Espainia alderdi bien ezinak,

eta Frantziak laster biziko dituen barneko arazoek nazioarteko politikan bestelako egokiera ekarriko dute.

1556-59etako urteetan egin ziren Bakeak, eta Felipe II.arekin aro politiko berri batera pasatzen da Europa. Erdi Aroko Inperio kristauaren ideia ito da, Karlos V.aren Inperioaren hegemoni asmoa ere bai: Espainiako Monarkia izango da nagusi berria, hurrengo berrogei edo berrogeitamar urteetan.



KARLOS V.a Enperadorea. Goizegi zahartuta (52 urte bakarrik zituen orduan), gaixoentzako ibilgailu berezian ibiltzera behartua (Lintz, 1552). Karlos V.ak ezin zuen gehiago. Urteak ziren gaixorik zebilela, etsita zegoen, eta bere seme Felipe-ri koroa uzteko egokiera baizik ez zuen itxaroten, zama astun hura uzteko. 1555ean egokiera hori iritsia zela uste izan zuen. Urriaren 25ean, Brusela-n, Estatu Nagusien aurrean, hitzaldi zirraragarri baten ondoren, entzulegoa eta bera ere malkotaraino hunkiturik zirela, bere bizitza luzeko lanak gogoratuz, Felipe-ri utzi zion Herbehereetako subiranotasuna. Hiru hilabete geroago, 1556ko urtarrilaren 16an, inolako zirimonia handirik gabe, Brusela inguruan bizi zen etxetxoan, bere idazkariari eman zion Mundu Zahar-Berrietako lurralde espainiarren abdikazioaren akta.



YUSTE. Hona bildu zen Karlos V.a, osasunez gaixorik, gerraz abailduta, bere azken urteetan. Munduko Erregerik boteretsuena zen oraindik, baina helburu politiko nagusienetan garaitua erretiratu zen: Alemanian erlijio-batasuna galduta, gidaritza inperiala hondatua, Alemania eta Espainia berriz ere banatuta...

4
AURKIKUNDEAK ETA KONKISTA

URTEAK	GERTAKARIAK
981	Erik Ilegorria, Groenlandian.
1000	Vikingoak Ameriketan: Vinland (Massachusetts).
1405/1433	Zheng He-ren erregealdian, txinarrak Indikora (Hego Vietnam, Java, Sumatra, Birmania, India, Pertsia, Arabia, Itsaso Gorria, Eki Afrika).
1415	I. Bilaketaldia portugesek: Ceuta, konkistatuta (Afrikarako abiapuntua).
1418/1460	Enrike Nabigariaren bidaiak, Portugaletik.
1430/1450	Atlantikoko Artxipelagoen konkista: Gaztelatik Kanariak (1402/35), Portugaletik Madeira (1423-25) eta Azoreak (1427/39).
1434/1444	II. Bilaketaldia portugesek: Bojador-etik Lurmutur Berderaino.
1446/1475	III. Bilaketaldia portugesek: Lurmutur Berdetik Kongo-raino.
1460	Enrike Nabigariaren heriotza.
1487/1488	Covilha portugesa, lurrez Indiara eta Eki Afrikara albiste bila.
1482/1498	IV. Bilaketaldia portugesek: Kongo-tik Ekaitzen Lurmuturrera eta Indiaraino (Kalikut, 98-maiatza-20).
1492/1504	Gaztela Ameriketara: Kolon-en bidaiak.
1493/1494	"Inter caetera" Aita Santuaren Bulda, eta Gaztela eta Portugal-en arteko Tratatua.
1493/1516	Antiletako kolonizazioa: Santo Domingo (1492), Kuba (1508), Puerto Rico (1510).
1513	Balboak Hego Itsasoa (Pazifikoa) aurkitzen du.
1517	Portugesak Txinan.
1519/1522	Elkanoren bidaia, munduaren itzulbiran.
1519/1521	Hernán Cortés-ek Mexiko konkistatzen du.
1531/1533	Pizarro-k Peru konkistatzen du.
1542	Portugesak Japonian.
1565	Filipinetatik Ameriketarako itzulbidea aurkitzen du Urdanetak.



Erdi Aroa bukatzera zihoan Europan: Ekialdean, turkiarrak Asiarako bidea istera zetozen(1453); Mendebaldeko monarkia indartsuenek orduantxe ari ziren, gerrate luzeak pasa ondoren, beren lurraldeak borobiltzen...

Penintsula Iberiarrean, berriz, Birkonkista amaituta (Portugal, 1250-52) edo amaitzear (Granada, 1492) zegoen. XV. mendean, itxaropen berrien belaunaldiek gidatzen dute Europa. Berezikiago, urruti-minak jotako gizartea da Penintsula Iberiarretik munduko itsasoetara irten nahi duen hau.

Indar eta gogo horiei esker XVI. mendeak giza espazioaren aldakuntzarik handiena ezagutuko du; gaurdaino --Ludi-kanpoko espazioetara iritsi aurretik-- gertatu izan den espazio-irekierarik zabalena. Hogeitamar urtetan burutu zen, itsasoak gurutzatuz, munduen bilaketa hura. Hau da, portu-

PENINTSULAREN HEGOALDEA. Aurkikundeetarako indar sozialak hemen zeuden prestatuenak, XV. mendearen bukaeran. Lurralde-barruti honetan, Portugal-ek mende-erdi bateko esperientzia zeukan; Atlantiko-Mediterraneotako itsas teknikak hortxe zuten bilgunea; Birkonkista, bukatzear zegoen bertan, eta Afrika-Europen arteko merkatal zubia zen lurralde hau.



VIKINGOAK AMERIKETAN. Marrazkia XVI. mendekoa da (Olaus Magnus, 1557): Eskimalak eta vikingoak borrokan. Europako hegoaldetarrak baino aski mende lehenago iritsi ziren Groenlandia eta Ameriketara vikingoak. Hala ere, hauen bidaiek ez zuten segidarik izan, eta aurkikunde haien oroitzapena galdu egin zen.

gesek Indiara joatea erabaki zutenetik (Covilha-k, lehorrez, Indiara egin zuen bidaia, 1491), Elkano-k bere itzulbira bukatu zuen arte (1522). Lehenagotik lan gaitzak eginda zeuden; ondoren, beste hainbeste egiteko, baina urte horietako belaunaldia izan zen pauso erraldoia eman zuena.

Ez zen hura Europa mundura zabaltzeko lehenengo aukera handia: gogora dezagun vikingoen unea, Erdi Aroan bostehun urte lehenago. Segidarik gabeko aukera izan zen, hala ere, vikingoena; klima-aldaketak Ameriketarako bidea moztu bait zuen: behinolako Groenlandia (="Lurralde Berdea") jelapean geratu zen, zuri.

Europa-ko Iparralde vikingoek ez, baizik hegoaldeak egin zituen Ludiaren aurkikundea eta

Vikingoak Ameriketan?

"Beranduko haien kristautzearen aurretik (...) eskandinaviarren Groenlandia-ko lehenen kokalekuak X. mendekoak dira. Handik, berandu-berandueni ere 1000. urtean, Vinland aurkitu zuten (hau da, oraingo Massachusetts Estatuaren hegoaldetik San Lorentzoren bokalera doan lur amerikarraren zirrinda bat), (...). XV. mendearen azkenetan, Europako Hegoaldeak bere itsas menturei ekitean, (Eskandinaviatik 2.500 kilometrotara, beraz) ibilaldi haien oroitzapena galduta zegoen. XIII-XIV. mendeetako eskandinaviarren atzerakada gutxiago izan zen gizonaren erruz, orduan gertatu zen klima-zitaltzeagatik baino".

CHAUNU



batasuna, Afrika inguratuz, "Mundu Berria" topatuz, India, Txina eta Japoniarako bideak irekiz.

Baina XV. mendearen hasieratan ez zegoen batere argi, lan handi horretan hain zuzen Europa lehenengoa izango zenik. Izan ere, Txina zen XV. mendeko lehen partean mundu berrien aurkikunde-ahaleginei ekiteko prestatuena, gizonez, eskarmentuz eta teknikaz. Baina txinarrek ez zieten segidarik eman beren itsasbidaiei: itxuraz, Afrika inguratu eta Europarako bidea asmatzera zihoan unean, Txina bidaiak utzi eta bere barnekaldea zabaldu eta segurtatzera itzuli zen. Itsasoari sorbalda eman eta lehorraldeari heldu zion.

Horrela jaio zen europarrentzako vikingoen ondoko bigarren zabalkunde-aukera, eta europarrek ez zuten egokiera galdu. Ez ziren hauek asko, garaiko gizadian %15 bizilagun bakarrik: orduko amerindiarrak baino gutxiago, Asiaren heren bat, goitik jota afrikarrak hainbeste. Baina Europa aurretik zihoan munduaren bila, bizilagunez aberatsena izan gabe ere, ez bait zen beste arrazoirik falta.

I. AURKIKUNDEAK, ZERGATIK?

Aurkikunde geografiko berrien arrazoiak ematen hasita, ez dago gertatutako guztien esplikabide osoa arrazoi bakar batean laburbiltzerik. Aurkikundeetara bultzatu zuten zioak ezberdinak eta ugariak izan ziren. Nagusitxoenak gogoratuko ditugu hemen.

Vikingoak aurretik

*"Eskandinaviako **saga** poemetan istorio harrigarriak kontatzen dira: (Groenlandia eta Massachusetts-en) famili taldeek jasotako koloniek nola iraun zuten lau-bost mendetan zutik, Ipar Europa, Irlanda, Norvegia, Suedia eta Danimarka-rekin eta Koloniako portu rhindarrarekin, eta Erroma "Ama Aberri" izpiritualarekin ere harremanetan leialki. Gogora dezagun Gardar-eko azken gotzaina (Groenlandia),Mathias beneditarra, 1492an izan zela aukeratua: Kristobal Kolon Amerika "bilatzera" irten zen urtean...". (P. CELERIER)*

Ameriketarako Ipar Bidea itxita (XVI.ean)

(Ivar BAARDSONek, Groenlandiako gotzainaren diru-zainak, honela idatzi zuen, 1341-1364. urte inguruan:)

"Ezin daiteke (Groenlandiako) Ekialdean kosta gora joan, geroz eta ugariagoak bait dira Iparraldetik datozen jelak: orain gutxi aldatu egin behar izan da betidandik ontziek, Islandia-tik Groelandia-ra etortzean, segi ohi zuten kosta-bidea, kostaldetik urrun geratzen den beste batekin trukatuz".



ZALDUN-LITERATURA. Familia noble eta "hidalgo"en artean, zaldun-irakurgai hauek irudimena eta bidaietarako gogoa biziki akuilatu zituzten. "Kalifornia" eta honelako zenbait izen ere, adibidez, liburu horietatik atera ziren lurralde berriak izendatzeko. Konkistarien abentura-grina piztu baizik ez zuen egin literatur molde honek.

* 1. Arrazoi geopolitikoak

Bazuen Europak orduan abantailaz betetako erdigune geografiko bat: **Penintsula Iberiarraren hegoaldea**, Portugal-en eta Espainian.

Mediterraneoaren eta Atlantikoaren topalekua zen. Bi itsaso oso ezberdinetako tradizio kultural, tekniko, ekonomiko eta politikoak ikutzen zituena.

Ekialdetik Mediterraneoko gizarte eta tradizioen ekarpenak biltzen ziren hara: Erdi Aroko azken belaunaldietan bereziki, Pizkunde goiztar baten bizitza ernagarria. Genova, Pisa, Florentzia edo Veneziako merkatarien kapitalismo ibiltaria iritsi zen Italiatik, hauxe bait zen garaiko lurralderik aberatsena.

Iparraldea ere ez zegoen orduan Andaluziatik batere urrun. Izan ere, genovarrek lehenik (1277) eta euskaldunek gero (1296) behin eta berriz gurutzatzen zuten Gibraltar-eko itsasartea, harantz eta honantz. Horregatik, Ipar eta Kantauri Itsasoak, biak, Berant Erdi Aroan inoiz baino gertuago zeuden Mediterraneotik.

Ez da harritzekoa Atlantikoaren mina piztu baldin bazen. Florentziar eta genovarrek Kanariak eta Madeira aurkitu zituzten (XIV. mendean), baina, ordukoz, inolako ondoriorik gabe. Ferrer katalanak ere (1346) antzeko beste irtenaldi bat egin zuen Atlantikorantz, ondoriorik gabe hau ere, zeren mediterranearrak ez zeuden prestatuta oraindik, beren ontziekin Atlantikoa menperatzeko. Horregatik, aipatutakoak baino interesgarriagoa izan zen, mailorkarrak "koka baionesa" batzurekin egin-



TXINA, MUNDUA ZABALTZEN

Txinak izan zuen, XI-XV. mendeetan, munduko itsas indarrik handiena, eta XV. mendean hartu zuen bere erpinik garaiena, hain zuzen orduan lortutako aurrerapen teknikoei esker: korasta-lema sasikoa, iparrorratza, busola, itsas handiko oihal-jonkoa.

Ming-darren garaian, itsas bidaia handiak antolatzen dira (1405-1433), diplomazi, kultur eta merkatal asmoekin. **Zheng He** (1371-1434), Yunnan-go islamdarra da itsas tradizio hau biltzen duen pertsonaia. Zazpi bidaia handi eratu zituen. Ikus ezazu mapa batean zer izan zen ahalegin hura:

1405-7. urteetan: Hego Viêtnam, Java, Sumatra, Malaka, Zeilan, Kalikut Hego Indiako kostalde mendebaldarrean).
1407-9. urteetan: Kotxin, Kalikut eta Zeilan.
1409-11. urteetan: Malaka, Siam, Malabar eta Zeilango kostaldeak.
1413-15. urteetan: Golko Pertsiarraren sarrerako Ormuz. Eskalarik gabeko 6.000 kilometroko ibilaldia: Sumatra-tik Eki Afrikara (Somalia) eta Aden-a.
1417-19. urteetan: Berriz ere Ormuz. Ontzi batzuk berriro Sumatra, Arabia eta Somalia-ra.
1421-22. urteetan: Sumatra, Golko Pertsiarra eta Eki Afrika.
1431-33. urteetan: Meka-ko portua, Jeda, eta Kalikut.

Itsas bidaia hauetan, itsas handiko dozenaka jonko joaten ziren, ibilaldi bakoitzean 20.000 bat gizon zihoazela. Honela zabaldu zituen Txinak bere jakintza geografikoak, kartografia ere hobetuz, eta inoiz (europarrok Ameriketan bezalatsu) landare eta animalia ezezagunak ere bilduz (jirafa, zebra, ostruka).

Zheng He desagertzean, Txina bere baitara bildu zen: politikak kontinente-barneaz jabetzeari eman zion lehentasuna, eta beste batetarako utzi kanpoko aurkikunde eta diplomaziak.

Berehala Europa-k hartuko dio aurrea, aurretik zihoan Txina-ri.



MUNDUAREN IRUDIA: AFRIKA. Erdi Aroko azken bi mendeetan aldatuz zetorren munduaz europarrek zuten irudia; baina, hala ere, oso urrun zegoen oraindik errealitatetik. Hona hemen 1457ko mapamundi genovar batean Afrika nola marraztu zen.

dako ibilaldia (1352), bi itsasoetako tekniken munduak hurbiltzen ari zirela erakusten bait zuen horrek.

Penintsula Iberiarraren hegoaldea zen, egokiera historiko boteretsu batez, itsasoen bilaketaren ahalegin hari segida emango ziona. Espainia kristauak, urte gutxitan (1225-1260), doblatu egin zuen bere lurraldea, 174.000 km^2 berri irabaziz. Egokiera historiko hartan, Penintsula Iberiarraren **hegoaldea** zen itsasoen bilaketari segida emango zion lurralde hautatua, une eta lekugune egokienetan gora zetorrena bait zen hura. Bazirudien orduan, XIII. mendean, Birkonkista bukatzera zihola. Ez zen, ordea, hala gertatu, eta gero Izurrite Beltzak (1348-1350) ekarri zuen biztanle-galerari gaina hartzea kosta egin zen. Hala ere, bizilagunez indarberrituta zegoen berriro ere Andaluzia, XV. mendearen azkenetarako.

MUNSTROAK. Erdiarotarren irudimenak honelako gizaki eta izakiak marrazten zituen, lurralde ez-ezagunetako bizilagunak nolabait irudiztatu nahiz. Luzaz lanegin zuen jendartean tradizio horrek: e.b. "Libro de las Maravillas del mundo"ren edizio hau Valencia-n eman zen argitara, 1533an.





Itsas tekniken topaleku hartako --Andaluziako-- gizarteak bazituen, beraz, aurkikundeetarako baliabide sozio-teknikoak. Horietaz baliatzeko **borondatea** izango zen, azkenik, datu erabakitzailea; baina gizartearen nahi hori bera ere pedagogia luzearen fruitua zen.

Topatu, Kanariak, Madeira eta Azoreak XIV. mendean izan ziren topatuak, denak ia urte beretsutan (1341-1342), baina ez zen hura benetako aurkikundea gertatu oraindik, segida-asmorik gabekoa izan bait zen. Hurrengo mendean, teknikengatik kostatik libreagoa zebilen nabigazioak irlarte hauetan, Mediterraneoaren bi heren zituen itsasalde berria eskuratu zuen. Erronka bat zen hori, ondoko urteetarako.

Larogei urte lehenago topaketa urte gutxitan egin zen bezala, orain berriro ere bateratsu (1421-1435) ekiten zaie irla haien konkista-kolonizazioei (Kanariak, Gaztela-ren babesean; Madeira eta Azoreak, Portugal-etik). Ez zen hori dena ausaz gertatzen, eta bai azukrearen ekonomialdia jaiotzen ari zelako. Urte horietantxe ikutzen zuen Bojador Lurmuturra Portugalek (1434).

Ekonomi interes berak gidatzen zituen hegoaldetarrak Afrikara ere, hau da, hasieran batez ere Marokkora. Hain zuzen, Marokko zen Afrika barneak Mediterraneoaldeari eskaini ohi zion merkatalgoaren irtenleku naturala: garia, Sudan-eko urrea, esklabu beltzak. Erdi Aroaren azkenetan larrituz zetozen Europa-ren beharrizanek erantzun bat eskatzen zioten hornibide horri. Segun nola erantzuten zion Marokko-k europarren hornikuntz eskeari, halaxe izan zitekeen europarren politika



ENRIKE NABIGARIA (1394-1460). On Enrike Infantea matematikari eta kosmografoa zen, bidaia portugesen eratzailea, gainera. Sagres-en Nautika-Eskola bat sortu zuen. Ozeano edo "Mare Tenebrosum" deitua nabigaria zela erakutsi zuen bere ikasketa eta bidaiekin.

AURKIKUNDEETAN,
Zer gertatu zen 1441ean?

(Afrikaren kostalde ezaguna luzatzen ari zirela, 1441ean bizpahiru gauza esanahitsu gertatu ziren portugesen aurkikunde lanetan:)

"Antao Gonçalves-ek Lurmutur Zuria ikutu zuen 1441ean. Hango bizilagunekin izan zen modurik trukaketarako: larrukiak, olioa, foka-larruak. Zerbait geroago Nuno Tristão-ren karabela elkartu zen Gonçalves-ekin. Aurkikundeen historiako garrantzizko urte hau (1141) gogora dezagun bere gertakariekin: ***Karabela,*** *aurkikunde-bidaietan sartzen da orduan, tresna kunplitua; esklabuen lehen ehiza, horra motore ekonomiko eragilea. Denboraz, esklabuak lehenago dira urrea baino, aurkikundeetan. Hasieratik bertatik, esklabu--trafiko handia eratu zen".*

(P. CHAUNU)

afrikarra. Agian, Afrikaren konkistari edo, hala nahiago izanik, kostaldetik itsas bide berritzeari heldu beharko zitzaion.

Teknika, prezio, itsas tradizio eta demografiaren --arrazoi guztien-- geopolitikak prestatu zuen Penintsula Iberiarraren hegoaldea Afrika-Ameriketako aurkikundeetarako, beraz.

XV. mendearen azkenetan, Birkonkista bukatzean hortaz, bi itsasoen bilpuntu hori zen mundu ezezagunetara irteteko prestatuena zegoen eskualdea Europan. Hantxe biltzen ziren itsas teknikarik onenak, Mediterraneoko merkatarien zuhurtzia eta irabazpide berrietarako grina, han zebiltzan Granada-ko kostaldea zaintzen, berezikiago azken urteetan (1483-1492), Atlantikotik etorritako euskaldun ipartarrak...

Datu asko ziren --Portugal-eko eskarmentu ederra eta ongi antolatua ondoan zela-- abiapuntu hartatik zerbait berririk ez sortzeko.

Espezien merkatal iraultza

"1505ean, Indiatik jaurti egiten dituzte Meka-ko merkatari arabiarrak. Saiatuko da Venezia esan eta zabaltzen, itsas bidaia luzeak espeziak alferrik galdu egiten zituela: Alexandrian 80 dukat balio zituen piperrauts kintalak, 40 edo 20 bakarrik balio zituen, ostera, Lisboa-n.

1506an, "Veneziaren gain zetozen hondamendiak" deitoratzen zituen garaiko batek; "hau dena portugesengandik dator" dio autoreak.

Malakak eta Molukek ugari bidaltzen dituzte espeziak Europara, eta hemen zabaldu baizik ez da egiten, kategoria sozial berrietara, espezien kontsumoa (...).

Eta portugesen lehiakide izan ote zitezkeen merkatari europarrak? Bidaiei buruz legenda ikaragarriak zabaltzen dituzte portugesek, haiei atzera eragiteko. Ozeano Indikoan menturatzen direnak indarbidez eragozten dituzte karraka portugesek. Harez gero, portuges bilakatu zen itsaso hura". *(G. LEFRANC)*

* 2. Arrazoi sozio-ekonomikoak

Aipatu dugu lehentxeago: Gibraltar-eko itsasartearen inguruan, Penintsularen eta Ipar Afrikaren artean, ekonomi interesgune bizi bat aurkitzen dugu. Gatazka biziak biltzen zituen barrutia zen hau.

Portugal-en (1384-1434) eta Nafarroan (1385-1480) batez ere **urrea** desagertu egin zen erabat. Valencia-n eta Aragoan antzeko zerbait gertatu zen. Penintsula Iberiarra zen urrearen



NABIGAZIO BERRIETARAKO AURRERAPENAK

Aintzinatetik jasotako ontzi-molde zaharren aldakuntza, XII-XIII. mendeetan hasi zen. Bi ontzi-moduren artean zegoen ARAZOA: a) Arraun-ontzi luze eta mugierraz baina zamari ahularen, eta b) Belaontzi mozkote eta gidakaitz baina zamari onaren artean.

Itsas bidaia onak eskatzen dituen NABIGAZIO-BALDINTZAK hauek dira, laburki esateko: 1) Indarra, ontzi eta karga ahalik handienak bizkor eramateko, 2) Segurtasuna, itsaso eta giro ezberdinetan ibiliz ere *eguraldi-aldarte gogorrenak* gainditzeko. 3) Norabidearen jabetasuna, edozein puntutatik edozein portutara iristeko.

1. **Indarra**, giza besoz lortu zen lehenik, arrauna besoaren luzagarri bezala erabiliz. Grezia-n eta Erroma-n, adibidez, arraunlariak bizpahiru errenkatan joaten ziren. Esklabuek eta galeretara emanek egiten zuten lan hori. Lan gogorra eta garestia zen, onenean ere arraunlariak mantentzea eskatzen bait zuen behintzat.
Horregatik, ontzia belaz hornituz, haize-indarraz baliatzen hasi ziren itsasgizonak. Baina premiazkoa zen horretarako ere teknikak asmatzea.

2. **Segurtasuna**-ren beste baldintzak nabigazioa erabat lot zezakeen, izan ere, Aintzinatetik ohi zenez, nabigazioa itsasertzari segiz bait zen seguruena: Kostaldea begi-bistatik galduta, nola ibili itsaso zabaletan? Egunez ibili behar ahal zen nahitaez? Nola sar itsaso ezezagunetan: Mediterraneo-tik Atlantiko-ra, Atlantiko-an Ekuatorea gurutzatuz, Ozeano batetik bestera...? Itsaso itxi bateko nabigazio-teknikek Ozeano irekietarako balio ote zuten? Galdera guztioi erantzun behar zitzaien lur berrien bila joateko.

3. Segurtasunaren beste alde bat da, itsasoan marinelak ontziari segurtatu behar dion **norabide gidatua** ere. Portu batetik bestera, bidea galdu gabe eta ahalik lasterbide laburrenetik joateko premiazkoa zen norabidea ziurtasunez ezagutu eta gordetzea. Honetarako, ordea, marinelak lehenengo ez zuen ontziaren jabetasuna galdu behar, eta gero, ur bareenetan ere norantz jo asmatu behar zuen.

Indarra, segurtasuna eta norabide gidatua eskainiko zituzten teknikak lantzen ahalegindu ziren Berant Erdi Aroko itsasgizon europa-

.../...

rrak. Arazo hauei erantzuteko garrantzizko AURRERAPEN TEKNIKOAK egin ziren XIII-XV. mendeetan. Hona funtsezkoenak:

A. Lehen-lehenik, izan zuen muntagatik, aipa dezagun **korasta-lema.** Hau da, arraun-lema utzi eta ontziaren gilari lotutako lema-molde mugikorra. Ipar Itsasoan asmatu zen lema hau, XIII. mendearen lehen partean, Baltiko-n egin zituen hobekuntzak, laster Euskal Herrira iritsi zen (1282-97) eta, euskal marinelei esker, XIV.ean Mediterraneoan zen asmakizun berria.

B. Baina gidagailua alferrikako asmaketa zen, indargailu hobeagorik lortu ezik: ontzien belamendua berritu zen aldi berean. Horretarako, **belamendu** hura zabalagotzeko alegia, masta anitzeko ontzi oihaliniztuna sortu zen. Berrikuntza honi esker, indarrean ezezik, maniobragarritasunean ere asko irabazi zuten XV. mendeko ontzi berriek.

C. **Ontzigintza** berriak Mediterraneoko (ontzi luze, arinak) eta Atlantikoko (ontzi borobil, sendo, astunak) tradizioen erdibidea hartuko du: ez Mediterraneoan bezain luze, ez Atlantikoan bezain pisu; baina, teknika hobetuekin, indar eta gidagailu hobez hornituak dira ontzi berriak.

D. Honela, ontzien maniobragarritasuna lortzean eta belamendu berriekin indarra eskuratzean, oraindik noragailu berriak moldatzeko zeuden: **a**) Itsaso berrietara jotzeko, garai bateko nabigazio enpiriko hutsa (orratz imandu eta maparik gabea) hobetu nahi zen, eta **b**) Itsaso (eta zeru-izarpe) ezberdinetan ibiltzean hango lekuneak eta indarrak (korronteak, haizeak) ezagutu eta haietaz baliatzeko mapak behar ziren. Aurkikundeen aurretik eta horiek egin ala, teknikak zorroztu egin ziren erronka guzti horiei erantzuteko.

a) Ez zen batere erraza gertatu itsaso zabaletara, kostalde ezagun nahiz ezezagunetatik urrun sartuz gero, norberaren egonpuntua zehaztea. Horretarako, itsasoa menperatuta ere, zeru-izartegiaren jabe izan behar zuen marinelak. Une honetan zabaltzen da **busola** edo otana, hau da, lehenagotik zetorren iparrorratz imandua kutxatila batean haize-arrosaren gain sartzean lortu zen tresna berria. Aurrerapen praktiko handia izan zen hau, itsasontziaren zinbili-zanbuluetan norabideak zehazkiago jakiteko.

b) Norberaren egonpuntua jakin ondoren, berriz, itsasbideak zehaztu behar ziren, eta hori ez zuten, beste gabe, izarrek edo otanak esaten: mapak behar-beharrezkoak ziren. **Kartografiak** aurrerapen handiak egin zituen, katalan eta italiarrei esker XIV-XV. mendeetan, eta batez ere portugesek (1430-40) landu zuten **nabigazio astronomikoarekin** batera, lagungarri baliagarriena gertatu zen hura.

Aurkikunde tekniko guzti hauen ondoren (ontziak, otana, mapak, astronomia), itsasorik ezezagunenetan ere jakin zitekeen norbera non zegoen, eta noiz eta nola berriz ere etxera zitekeen. Lurralde ezezagunei ere beldurra galtzeko lehen pausoa zen, agian.



KARABANA-BIDEAK. Mapa honetan ikus daiteke, Afrikako merkatal bide-sarea (XV-XVI.etan). Ekonomia oso bat biltzen zen hor:urrea, esklabuak, gatza... Portugal-ek merkatalgai horiei Europa-rako bidea erraztu nahi zien bere nabigazio-ahaleginekin.

eskasia larrienik sentitzen zuena. Europa osoa zorretan zebilen Ekialde Urrunarekin, eta merkatal trukean hara ihes egiten zuen Europa-ra iristen zen urre apurrak.

Baina, etorri, nondik etorri ohi zen, ordea, urrea? Saharako karabanek ekarri ohi zuten, Sudan eta Ghana-tik. Baina karabana horien garraio-indarra eskasa zen Europa-ko ekonomia indarberrituaren eskeari erantzuteko (eguneko 200 kg eta 35 km dromedario bakoitzak). Afrikaren urrea Maghreb-etik ez, baizik beste nonbaitetik bilatu beharko zen, beraz, Europa-ko ekonomiaren urregosea asetzeko.

Baina urrea ezezik, bestelako behar edo luxurik ere bazuen XV. mendean Europa-ko gizar-



ESKLABU-MERKATALGOA. Aurkikundeek oso bizkortu zuten esklabuen merkatalgoa, eta alderantziz: esklabu-negozioaren irabaziek biziki bultzatu zuten bidaien politika. Ameriketan indiarrak desagertu ala, esklabuen harrobi bihurtu zen Afrika europarrentzat: "Beltzen tratuak" mendetan iraun zuen. Hona 1910eko esklabu beltz bat (geure mende honetakoa!).

Piperrautsa

"Malabar kostaldekoa (India) da jatorria. Indiarrek "pippali" deitzen zute, eta Alexander-en soldaduek "peperi"tara aldatu zuten izena. Bere ohizko merkatal bidean, Indiatik Hego Arabiako kostaldera (gaur eguneko Yemen-era) etortzen zen, eta handik Egypto-ko Alexandria-ra,karabanetan. 408an, Alariko bisigotuak Inperio erromatarrarengandik 3.000 libra piperrauts jaso zuen ordainetan, beste hainbat gauzaren artean. Piperrautsaren prezioa oso altu mantendu zen portugesek Lisboa-ra kargamendu handiak ekarri zituzten arte (XVI. m.)"

teak: sukalderako **espeziak.** Bidaietan Afrikan behera egin ala eta Ekialde Hurbilean turkiar otomandarrak merkatal sareari eragozpen berriak jarri ondoren (1453), Indiarako itxaropen berri bat eskaini zuten bidaia afrikarrek. Lehenengo aurkikunde-bidaiak bultzatzeko espezien bilaketak askotan esan den baino eragin txikiagoa izan baldin bazuen ere, aurkikundeen **ondoren** indartu baizik ez da egingo XVI. mendean, piperrautsa, kanela, intxaur muskatua, iltze-belarra, zingibera eta azafraia ekarriz Indiatik, eta bainila Mexiko-tik.

Bidaiek erraztu nahi zuten egitekoa, **salgaien garraioa** zen: salgaiak eraman, salgaiak ekarri. Lehor-garraioak batetik eta itsas garraioak bestetik ez zituzten aurreko mendeetatik eboluzio berak izan. XV. mendearen azkenalderako, lehorreko garraioek lortuta zituzten beren hobekuntzak (adibidez, zabalduta zegoen Sahara-n dromedario edo ganbelua; Europan ere bai, zaldientzako koilarea); baina itsas garraioa geroz eta merkeagoa gertatuko zen. Horra beste alde ekonomiko hobeago bat merkatarientzat.

Arrazoi ekonomiko hauekin batera, nahasian, bestelakorik ere agertu ohi da, aurkikundeetako agiri edo bidarien egunkarietan: arrazoi



URRE-BILAKETA. Aurkikundeetarako ezten bat, urrearen gosea izan zen; Europa-ri falta zitzaion urrea inguratu nahia, alegia. Karibean, adibidez, indiarrei ezarri ohi zitzaien zerga-modu bat ibaietako urre--pipitena zen. Hona, garaiko marrazki batean, indiarrak urre-urak galbahetzen.

ideologiko eta erlijiosoak. Gaur egun pentsa daitekeen baino eragin handiagoa izan zuten orduan.



AITA SANTUEN BULDAK. Erregeek Aita Santuen babesa bilatu zuten beren aurkikunde eta konkistetarako. Portugal eta Gaztela-k ere horrela segurtatu zituzten eskubideak. "Inter caetera" Bulda hau izan zen guztietan sonatuena (1493), mundua bi Erreinu hauen artean banatuz.

* 3. Arrazoi politiko-ideologikoak

Afrika aldeko lehenengo bidaiak eta konkistak, adibidez, gurutzada baten gisa agertzen dira: Aita Santuen Buldak ere tartean dabiltza, kristauak Birkonkista horrela luzatzera deituz. Misio-lanak errazteko egin nahi dira aurkikundeak eta gerrak.

Eliza Katolikoan, XVI. mendean indarberritu zen misio-eginkizunaren deia. Herri berriak aurkitzeko eta aurkitu ondoren kristautzeko eliztarrek inoiz gutxitan izan dute halako grina bizirik. Banaka nahiz taldetan, xede honek eragin handia izan zuen XV.ean ere. Asmo hau aski garbi gorde zenean, fruiturik onenak eman zituen --eliza kristauen zabalkundetik aparte ere-- herriarteko zuzenbidea (Vitoria) eta herrien Antropologia moderno bati lehen oinarriak ematean (Sahagún, Motolinía).

Bestalde, esan behar da, Errege-Erreginak ere hasieratik bertatik saiatu zirela misio-ahalegin horretan. Egon zitezkeen uneko komenentzia politikoak ahantzi gabe (Erret boterea indartzea, etab.), misio-eginkizunari lehenen toki bat aitortu zitzaion, garaiko lege eta erret dekretuetan, gero legezko asmoak eta egintzak askotan banatuta ibili baldin baziren ere.

Ehundaka eta milaka lagun sartu ziren Indietako abenturan, aberastasunen bila ez, baizik

AURKIKUNDE-ESKUBIDEAK
Aita Santuak Erregeri

"Geure kabuz, konkista hori --hau da, Bojador eta Nam lurmuturretatik Ginea osoan gaindi Hegoaldeetako lurraldeetarantz doana-- Alfontso Erregerena eta beronen ondorengoena dela aitortzen dugu eta ez beste inorena, eta eskubidez behin-betirako horrelaxe izango dela aitortzen, gainera".

(NIKOLAS V.aren Bulda, 1455)



BIRKONKISTATIK KONKISTETARA. Birkonkista bukatzean, espainiarrak prest zeuden kanpoko jentilen herriak menperatzera joateko: "Santiago Matamoros" deitua, Inka azpiratuta duela agertzen zaigu marrazkian. Inkatar batek honela ikusi zuen konkista (1600.eko marrazkia).

bestelako xede hauengatik. Adibide eredugarriak dira, honetan, Euskal Herritik bertatik eman ditugun izen sonatu batzuk: Joan Zumarraga (Durango, 1476-1548), Frantzisko Xabier-koa (1506-1552) edo Jeronimo Mendieta-koa (Gasteiz, 1525-1606).

Aurkitu edo konkistatutako herrien eskubide-defendatzaile suharrak gertatu ziren hauek, nahiz eta garaiko ideologiak inoiz edo bestetan haien baitan kontraesanik ere sortu. Hau dena aurkikunde-ondokoa bada ere, aldeaurretik zegoen misio-asmo eta grina erakusten digu.

Erdi Aroko gurutzaden alde erlijiosoak eta Birkonkistaren azken ekinaldietako beroak ere akuilatu zuten aurkikundeen xede hau, batzuentzat misio-asmo garbi eta jatorra, zenbait konkistari eta agintedunentzat, nola ez, interesen aitzakia ideologiko zuritzailea.

Izan ere, ez da ahantzi behar europarren ustez, munduaren partiketarako eskubideak Europa-tik banatzen zirela XV. mendean. Oraindik ere Erdi Aroko ideia zen nagusi: lurralde-banaketaren eskubidea, mundua kristautu-betebeharrarekin lotzen zen.

Eginkizun honetarako izanik, Aita Santuak egiten zuen, Errege kristauen artean, aurkikundeetarako lurralde-banaketa. Hori zen bidezkotzat jotzen zena. Horregatik, Portugal-ek bezala Gaztela-k, Aita Santuen Bulden bidez zuzenetsi zituzten Indietako beren jabekizunak. Jokabide honen azpian pentsamolde erdiarotarra dago, eta Erbeheretan nahiz Ingalaterran --interesek ere bizkortuta noski-- pentsamendu modernoagoa jaiotzean, ez da onartuko Bulda haietatiko eskubiderik, eta Espainian ere apenas 1550etik aurrera.



MERKATALGO KOLONIALA. Mapa honetan ikus daiteke Aurkikundeek sortu zuten merkatal sare kolonial berria. Gaztela-k Amerika irabazten du, Portugal-ek Afrika eta Asia; baina elkarrekin topo egiten dute berehala (Brasil-en eta Moluketan, adibidez). Historian, lehenengoz, XVI. mendean besarkatu zen mundu osoa.

Baina XV. mendean oraindik irten zitezkeen munduaren bila, mendebaldarrok aipatzen ditugun arrazoi juridiko eta ideologiko hauekin, ekonomiak zirikatuta eta egokiera geopolitikoez baliatuz.

* 4. Aurkitzaileen gizartea

Abiapuntu txiki batetik egin zen Aurkikundeen lana: Hispania eta Italiako 300.000 kilometroko lurralde batetik. Eta hemendik, arazoan parte hartu zutenak 1520rarte dozena mila batzuk bakarrik izan ziren. Gutxiengo baten egitekoa izan zen, beraz.

Esaten dugun hau, areago da oraindik Portugal-en: 1421-1460an Enrike Nabigariaren inguruan bilduta, Kristandadearen %2 baino ez zen Aurkikundeetan gainerako kristau-herri guztiek hainbat eman zuena. Egia da, Aurkikundeak ez zirela egin Enrike edo Kolon bezalako banako batzuen borondate hutsez, baina beti ere europar gutxiengo baten egitekoa izan ziren haiek. Europarretatik 10.000/20.000 lagun izan zitezkeen, XV. mendean, aldiberean, eginkizun hauetan zebiltzanak. Ez gehiago. Atzetik, gizarte osoaren indarra eta heldutasuna

Euskaldunak bi tekniken artekari

"Asko dira, beraz, XV. mendean, Mediterraneora datozen ontzi atlantikarrak. Euskaldunak dira, itxuraz, bidea irekitzen dutenak. Hauek ekarri dituzte Mediterraneora Iparraldeko ontziak, mende bat lehenago italiarrei Ipar Itsasoko portuetara iristen lagundu zien bezalaxe". (J. HEERS)

Euskal Herria, tekniken erdigunean

(Aurkikunde-bidaietarako itsasontzia batez ere karabela deitua izan zen. Karabela Euskal Herriko itsas-bizitza eta ontzigintzarekin lotu-lotuta dago. Hala diote gaur eguneko historilaririk onenek:)

"1282-1297. urteak mugarri ziurrak dira ***korasta-lema****-ren zabalkundean. Hain goiztarra den data horrek esplikatuko luke lema-modu horri zergatik deitu zaion, Europa-ren parte on batean, Baiona-gisakoa" (B. Gille)*

Euskal Herriak harreman handiak zituen Europa-ko Iparraldearekin,eta XIII. mendeaz geroztik euskal marinelak Birkonkista burutzen eta, gero, garraio-lanetan zebiltzan Mediterraneoan. Bi itsas tradizio eta tekniken erdi-erdian aurkitu zen Euskal Herria Berant Erdi Aroan.

Ez dugu ahantzi behar, gainera, Euskal Herrian ontzigintza indar handiko zerbait izan zela. Kanpoan ikasi nahiz berton asmatzen zena aplikatzeko industria ere bagenuen.

Bere osoan, hemen jaio zen, ondorioz, Aurkikundeetarako tresnarik ederrena, karabela harrigarria. (CHAUNU)

NONGOAK ZIREN EUSKAL ONTZIAK

(XV. mendean ugari dira euskal ontziak Mediterraneoan. Genova-ko eskribauek jasotzen zuten horren berri eta haien agirietatik ezagutzen ditugu itsasgizon haiek:)

"Ontziak euskal portuetatik zetozen. Patroi bat bakarra da 'Sevilla-n bizi den euskalduna'. Guztiak beren portu atlantikarretatik datoz (Mediterraneora). Askotan, zoritxarrez, eskribauaren irudimenak hain antzaldatu ditu herrien izenak, zaila gertatzen da, ezinezkoa ez bada, zein herriz ari den jakitea. (...).

Laredo-ko ontziak Genova-n euskaldunen artean aipatu ohi dira. Patroien zerrendak Bizkaiko kostaldeko portuak ematen dizkigu,errenkan: Hondarribia, Pasaia San Pedro, Donostia, Orio, Zumaia, Ondarroa, Durango, Mendexa, Lekeitio, Getaria, Bakio, Plentzia, Zarautz, Areeta, Portugalete. Izenik gehienak porturik handienetakoak dira,eta patroi denak ahalegintzen dira beren sorterria eta auzotasuna aditzera ematen: Deba, Mutriku, Bermeo eta batez ere Bilbo". (J.HEERS)



SEVILLA (XVI. mend.). Amerikaketarako eta handik honako merkatalgoan joanetorri handikoa izan zen Sevilla-ko portua, beroni eman bait zion Koroak horretarako monopolioa. Han biltzen ziren ontziak, merkatalgaiak eta merkatariak: flandestarrak, genovarrak, frantsesak, euskal marinel "indianoak", etab. Sevilla-n zegoen Kontratazio-Etxea.

zeuden; baina Europa osoari begiratzen badiogu, benetako partaideak ez ziren sobera.

Zer gertatu zen, ordea, Aurkikundeak eratu eta gidatu zituzten abiapuntuetan? Sevilla eta Lisboa dira, noski, jakingarrienak. Sevilla-k 45.000 bizilagun zituen hasieran (1500), 125.000 bat mende bat geroago (1600). Hasierako 10.000/20.000 Aurkikunde-lankideak 300.000/400.000 bat ziren 1600ean: hamar/hamabost aldiz biderkatu ziren, beraz.

Lurralde- edo hiri-aurkitzaile hauetan ere, benetako talde eragilea txikia zen: tokian tokiko judu-kristauak, Italiatik etorritako bankari eta merkatariak, inguruko teknikari batzuk, handik eta hemendik etor zitezkeen hidalgo pobre eta abenturari lehiatsuak...

Hain gizon-emakume gutxiren eskuetan egon zen Afrika, Amerika eta Asiako Aurkikundeen gidaritza. Horregatik ere, jakingarriagoa da hori dena nola gertatu zen ezagutzea.

II. AURKIKUNDEEN HISTORIA

Aurkikundeek beren historiaurrea izan zuten. Ez ziren bapatean eta ustekabean gertatu. Gertakarien arrazoi batzuk ikusi ditugu, baina nola gertatu ziren ere ikus dezagun.

Euskal teknika eta gerrak

"Ene ustez, itsasoak eman dio euskaldunari, funtsean, hiritar bizieran teknikak duen garrantziaren kontzientzia. Zurezko ontzigintzaren kondaira garbiki mintzo zaigu Euskal Herriko ontzitegien loraldiaz XIV-XV. mendeetan barrena. Wilchensea edo La Rochelle (1372) tankerako guduak aipatzean, ingelesen etsaiek (=euskaldunek) zuten trebetasuna azpimarratzen da".

(J. CARO BAROJA)

Karabela harrigarria

*"Bizkorra zen itsasontzi arin hau. Beren masta ugariengatik eta belamenduaren erdigunea baxu zuelako ere, karabelek belamendu handia eraman zezaketen. Haizea popatik zutela, oihalontzietan XIX. mendeko **clippers** haien abiada-markarik onenetara iritsi ziren karabelak. Erdi Aro kristauko ontzi motelen eta XV. mendean Portugal-en Aurkikundeetarako prestaturiko materialaren artean abiaduraren oinarrizko alde hauxe dago. Ikuspegi honetatik, 1500-1750-en artean ez zen egon aurrerapenik. Bi mende t'erditan, lehendik lortutako abiadura absolutua izan zuen muga, karabelek Lurmutur Berdetik Antiletara bitartean egindako marka".*

(CHAUNU)

KOKA BAIONESA edo NAFARRA. Euskal ontzi hauek teknika berria erakusten dute: korasta-lema daramate, hain zuzen. Irudi hau harlanduzko irudi batetik jasoa da, XIV. mendekoa (Baiona-ko Katedralekoa). Euskal Herriko itsasontzigile eta marinelak, teknika berria hartu eta zabaltzen hasi ziren orduan, ipar eta hegoalde.



Euskal ontzien teknikak

"1351ko otsail-martxotan, hiru euskal ontzi ikusten ditugu Barcelona-ra iristen, denak Donostiakoak. Irailean laugarren bat, Flandes-tik dator zuzenean. Bestalde, euskaldunek aspalditik zituzten harremanak Mediterraneoarekin. Izan ere, euskaldunak erakutsi zizkieten ontzi ipartarren berezgarriak mediterranearrei. Ordutik, garai batetako ontzi latindarra antzaldatu egiten da eta Ozeano handiari aurpegi eman diezaiokeen "koka" itzela bihurtzen. Hortaz, kostaldetik urrun eta eskalak bakanduz ibil daiteke. Eta hau dena, XIII. mendearen azkenetatik aurrera zalantzarik gabe. Dena den, XIV. mendean eskribau barcelonarrak arruntki mintzatzen dira bi zubi eta lema bakarra dituen "coca bayonesa"z.

Euskal ontzien etorrera behin eta berriz aipatzen da Probentzan, Avignon-etik Prato-rako Datini-tarren eskutitzetan. 1393ko maiatzean, Bourbon-go Dukeak Napoli-ra joateko bai omen ditu, soldataz hartuta, 'hiru ontzi bizkaitar prest' Marseille-ko portuan". *(J. HEERS)*

* 1. Lehen baldintzak eta tresnak

Europa-k bere baitandik mundura egin zuen zabalkundea, aurrebaldintza batzuen ondorio bezala gertatu zen; baina ez --honetaz zerbait esan da arestian-- alde aurretik porrot egin gabe ere, Atlantikora "goizegi" egindako irtenaldiak egin gabe, alegia.

Genova-k egin zuen probetxu hobeko **irtenaldi mugatua**: XIII. mendeaz geroztik merkatariek, lur-lehorretik baino merkeagoa zen itsasbidea asmatu zuten Ipar Itsasora iristeko. Hau da, Europako bi lurralde aberatsenak, Italia eta Flandes/Burgundia alegia, 40 aldiz hobekiago lotuta zeuden itsasoz (Gibraltar itsasartetik, noski), lur-lehorrez baino: XV. mendean urteoro 8.000 tona salgai zihoazen Atlantikoan zehar Italiatik Flandes-a (lehorrez baino 40 aldiz gehiago, esan nahi da). Baina irtenaldi honen xedea abiapuntu jakin batetik besterako lasterbide merkea aurkitzea izan zen bakarrik. Eta, horregatik, arrakastak oso ga-

raiz izanda ere (Kanariak, 1312), irtenaldi hark bere helmuga Ipar Itsasoan zuen, ez hegoaldean (Afrika) edo Itsaso Ilunbetsuaren handikaldean (Amerika). Etxe-ataritik (Mediterraneotik) irteteko bakarrik balio izan zuen Genova-ren merkatal ahalegin hark.

Bestalde, garaikoek **munduaz zuten irudiak** ez zuen batere berotzen lur ezezagunetarako jendearen gogoa. Irudimenezko lurraldez eta itsasoz osatuta zeuden garaiko mapak. Inoiz edo beste haize eta korronte indartsuek bultzaturik Ozeanoan galdutako ontzien, edota ongi prestatuta joan (Vivaldi-tarrak, 1291; Ferrer katalana, 1346) baina itzuli gabekoen oroitzapenak jakintsuengan ere bazuen eraginik. Hala ere, XV. mendean finkatuz zihoan Afrikaren ingurubiragarritasun teorikoa; teorikoa diogu, zeren hipotesi berriak egintzetan obratu arte ez zen jakingo errealitatea eta arriskuak nolakoak ziren. Ekonomiak eta politikak lagundu beharko zioten geografoen irudimenari, munduaren irudia aldatu eta beroni beldurra galtzen. Bestela, ohizko mapak ez bait ziren bide-urraketarako pizgarri.

Aurkikunde-ondoko irabazien itxaropenak bete zuen oinarrizko beste baldintza bat, espedizioetarako baliabide ekonomikoak bilduz.

Baina baldintza ekonomiko hau iraunkorki eta premiazko neurritan aurrera ateratzeko, nahitaezkoa zen Aurkikunde-ekonomiaren politika ofiziala. Beste nolabait esateko: Estatuak berak (Erregeek, esan dezagun) politikaz eta Haziendaz partehartu gabe, zailegi zen Aurkikundeak aurrera eramatea. Hauxe izan zen Enrike Nabigariak erakutsi zuen puntu nagusia. Merkatari eta teknikari

Irudimenik ez, mundua "ikusteko"

"1520aren inguruan, Europako bizilagunetatik oso gutxik ikusi ahal izan zuen oraindik maparik. Eskola eta unibertsitateetan ez zen geografiarik irakasten, ikastetxe oso gutxi batzuk kenduz gero. Hauetatik gehienak, Alemanian zeuden; Ptolomeo irakatsi ohi zen. Espazioa kontzeptuz pentsatzeko ohiturarik ez zegoenez, (...) jendearen irudimenak ezin zuen norberaren lurraldea grafikoki ikusi (...).

Gobernaria --erreinuaren "ikuskera"rik ez izaki--, kapaz zen probintzia elkarren osagarriak batere erreparorik gabe banatzeko. Muga estrategikoak gordetzearren geroko belaunaldiek, erabat beharrezkotzat joko zituzten lurraldeak ez zituzten garai haietan mapa nazionalean ikusten(...). Ezinezkoa gertatzen zen bidaiak irudimenez segitzea, europarren erdiarotar munstro harrigarriekin imaginaturik ez bazen. (...). Herri berriak ezin ziren uler, irudimena Europa-n kateaturik zegoelako".

(J.R.HALE)

Itsasaldi motelak

"Itsaso berrien miaketak denbora-galtze handiak izaten zituen, beti ere haizeek lagundu behar bait zuten. Alde handiak izaten ziren, haizealdiaren arabera.

1494eko abenduan, Kolon 32 milia igo zen Haiti-ko kostaldean 25 egunetan...; 1502ko abuztuan, karabela on aukeratuekin, alisioaren kontra 170 milia egin zituen 28 egunetan. Egokierarik onena suertatzen zela, milia t'erdikoa egin zezaketen orduko, geldiuneak aparte".

(CHAUNU)



JOANES II.a, Portugal-ekoa. Errege honek (1481-95) indarberritu zuen Enrike Nabigariaren Aurkikunde-politika. Beronen garaian iritsi zen Itxaropen Oneko Lurmuturreraino B. Dias; Gaztela-rekin bi erreinuen arteko barruti-banaketa sinatu (Tordesillas, 1494) eta Indietarako Vasco da Gama-ren bidaia prestatu ere honen erregealdian egin ziren.

Euskal teknika aurkikundeetan

"Karabelarik zaharrenak Bizkaiko Golkoan agertu ziren: 40 edo 50 tonelada, bi oihal karratu. XIII. mendeaz geroztik ezagutu da izena. Ontzi bizkaitar hau, pixkaka-pixkaka antzaldatuta, Enrike Nabigariak Bojador Lurmuturra pasa ondoren erabiliko du. Bizkaitarra, bere oihal karratuekin, karabelak belamendu latindarra hartu zuen, horrela portugesen esploraketara egokituz".

(CHAUNU)

hiritarrek Koroaren lankidetza behar zuten, edo hobeki alderantziz: Koroak bategin eta gidatu behar zituen gizarteko bilaketa-gogoak, horretaroko beharrezko abantaila eta baliabideak inguratuz, akordioak, legeak eta diru-erakargarriak emanez. Behar honetatik jaio ziren Aurkikunde-aurreko kapitulazio deituak.

Itsasaldiak batez ere arriskua esan nahi zuen, eta bihotz-jasogarriak eskaini behar zituen Administrazioak, jendea eta dirudunak biltzeko: irabazpideei ez-ohizko segurtasunak eman, alegia. Eta ez hori bakarrik, bide berriak ireki ala, baita Aurkikundeen erakunde ofizialak sortu ere (Casa da Guinê, Portugal-en; Casa de Contratación, Sevilla-n).

Zorionez, gizartean borondatea eta erakundeak sortuz gero, gainerako baliabideak --**teknikoa** bereziki-- inguratzea posible zen Europa-n. Teknikaren aldetik, batez ere aintzakotzat hartu behar duguna itsasontzia da eta, ontzietan, Aurkikundeetarako baliozkoena, **karabela** zen. Honek, bere masta ugariengatik, belamendu zabala eraman zezakeen, eta popatik haize bizia zuela, XIX. menderainoko bela-ontzi onenen parekoa gertatu zen. Aurkikundeetan aski marineleria eramateko lain, lehorrera urbiltzeko kalatu edo zingo eskas egokikoa, itsasaldi luzeak egiteko modukoa.

Karabela horretako lemazainak, bere norabide-tresnak izanik (otana, mapak, etab.), ausartki hel ziezaiekeen itsasbide berriei.



EKIALDEKO MERKATALGOA. Afrikan bezala, eta lehenagotik ere, ganbelua izan ohi zen Ekialdetik Europa-rako merkatalgoan garraio-indarra: garraio-modu motel eta garestia. Cresques kartografo katalanak honela irudiztatu zuen Katai-rako (Txina) merkatal karabana bat (1375).

* 2. Portugesen Aurkikundeak

Birkonkistaren luzagarri bezala, Atlantikoko irletara Portugal-ek eta Gaztelak eman zuten pausoa da Aurkikundeetarako ataria. Afrikan, gainera, Ceuta bere menpe harturik (1415) zeukan Portugal-ek.

Enrike Nabigariaren lorpena izan zen (1421-1460) Atlantikoan behera joateko asmoa portugesei talde-eginkizuntzat ematea. Bojador Lurmu-



PORTUGESAK INDIAra. Mapa honetan India-rako itsas bide portugesak agertzen dira. Ikus ongi haize alisioen indarra: gezurra badirudi ere, Afrika inguratzeko errazagoa zen Brasil-era hurbilduz egitea. Begira Vasco da Gama Ameriketatik zein gertu egon zen. Itsaso berrietako haizealdiak ezagutzeak garrantzi handia izan zuen Aurkikundeetan. (Geziekin adierazten da udako haizeen norabidea, nagusi diren haizeen maiztasunaren arabera).

Zergatik ez txinarrak?

"... Aurkitzaile txinarrek ez zuten inguratu nahi (Portugalek Afrika edo Espainiak Amerika bezala) erbesteko zibilizazio handiren bat, beren merkatal bideetan topatzen zutelako. Gauza ezezagunak maite zituzten, bitxikeriak, eta batez ere zergak kobratu nahi zituzten lurralde berrietan, haietan merkatalgoa eratu baino. Ez zuten erlijio-zabalkunde baten zabal-grina. Ez zuten gotorlekurik jasotzen, edo koloniak jartzen. Mende-erdi eskas batean hainbat kostaldetan agertu ziren, eta gero, bapatean, ez ziren gehiago itzuli: Txina bere nekazal lanetara itzuli zen, bere barnera".

(J. NEEDHAM)



VASCO DA GAMA (1469-1524). Marinel honek ireki zizkion Portugal-i India-ko ateak, eta Europa-rarteko itsas bidea (1498). Espezien merkatalgoak etor-bide berria zuen ordutik Mendebalderaino iristeko. Indikoan, arabiarren nabigazioak asko lagundu zion bidaia burutzeko Vasco da Gama-ri.

turra pasa (1434) eta Sērra Leoa-raino iritsiko dira, Enrike hiltzean Ginea-ko Golkoaren ate-atean (1460) zeuden portugesak. Bienbitartean, lehenengotan Afrikako urre eta esklabuen bilaketa zen hau Asia-rako grina bilakatzen da Portugalen: asmoa, aldatu eta luzatu egin da, beraz (1441-45). Hala ere, bidea, egin, ez da berehala egingo. Hurrengo hogei urtetan Ginea aldea bakarrik. Joanes II.a erretaulkira igotzean bizkortuko dira ekintzak (1481)

1482-1499 urteetan burutu zen ahaleginik handiena. Lehenik iparraldetik hego-hegorainoko Afrikaren albo luzea (Ekaitzen Lurmuturrerainokoa, 1487-88): pasabidearen bila zebilela Bartomeu Dias-ek, konturatu ere egin gabe, Indikorako bidea hartu zuen.

Ondorengo pausoa, hain zuzen, Indiarakoa zen, baina, hori eman aurretik, ia bederatzi urte pasa ziren aurrera jo gabe. Bienbitartean, nonbait, Covilha enbaxadari portugesak India-ra lurlehorrez egindako bidaiari esker (1487-91) Ekialdeko albisteak ezagutu ziren Lisboan. Une egokia zen azken saioari ekiteko

Vasco de Gama izan zen bidai buruzagia. Lisboa-tik irtenda (1497: beraz, Portugal-ek Amerikaren berri bazekien), Kalikut-eraino iritsi zen bidaialdi berean (1498). Orduan gurutzatu zuten lehenengoz aldenik alde Mendebaldeko ontziek Ozeano Indikoa. Ordurarte merkatari arabiarrak ziren, teknikaz eta merkatuz, barruti haren jabe.

Bidea ezagutu orduko, Portugal-ek bizpahiru fronte ezberdinetan hasten zuen bere merkatal lehiaketa: Indikoan arabiarren kontra, Atlantikoan

Euskaldunak Kanarietan

"Hainbeste asmo eta xede ezberdinez jaiotzen ziren ekintza suharretan, bada beste bat benetan gogoangarria: itsaso gutxi ezagunak miatzeko ahalegina. Hain zuzen, 1393an gidatu zen Kanarietara lehenengo esplorazio-bidaia. Sevilla, Gipuzkoa eta Bizkaiko biztanleek egina izan zen, Gaztelako Enrike III.aren kronikak dioenez. Ondoren, beste bidaia sonatuagorik ere sortu zen, baina lehenengo hau euskal jendearen oroimenean geratu zen geroago ere".

(J. CARO BAROJA)



AFRIKA. Hau da Afrika-ren lehen mapa inprimatua (1508). Kontinentearen profilak geroztik ezagutu denarekin antz handia du; hala ere, neurri eta xehetasunetan bada alderik franko. Dena den, Afrika ezagutzeko, bere barrendegietan ezagutzeko alegia, XIX. menderaino itxaron behar izan zuten europarrek.

Gaztela-rekin lehian, eta Europa osoan merkatari italiarren monopolioekin. Espezien Ekialdeko bidea berea zuen norgehiagoko horretarako.

* 3. Gaztela ere Indietara: Kolon

Portugal-ek bizpahiru belaunalditan etorkizuneko itsasbideak honela urratzen zituen bitartean, Gaztela ez zegoen geldirik; bai Atlantikoko irletan, bai Atlantikoaren barruti osoan, Portugal eta Gaztela elkarren lehiakide agertu ziren. Aita Santuarekin kontatuz edo elkarrekin bakarrik (Alcaçova-ko akordioa, 1479, etab.), bi erreinuak beren eskubideen esparrua mugatzen saiatu ziren; baina, beti ere, norbera gehiagoren egarriz geratzen zela. Lasterketa honetan nork nori aurrea hartuko zion, zen arazoa.

Portugal-eko Erregearengandik (arazo hauetaz arduratuena izan zitekeen Joanes II.arengandik) ezezkoa entzunda, Kolon bere "ametsekin" **Gaztela**-ra, Errege-Erreginengana, hurbildu zenean



KOLON (1451-1506). Errege Katolikoen laguntzarekin Amerika aurkitu zuena genovarra zen. Kolon gaztearen erretraturik ez da ezagutzen, eta Aurkikunde ondoren egin zizkiotenetatik ez dakigu zein den benetan jatorra, kontaezin ala ezagutzen badira ere. Capriolo-ren grabatu bat da hemengo hau.

Kolonen kontrako eritziak

"Adituek zera esan zioten Erreginari Kolonek eskaintzen zuen Mendebaldetik Ekialderako proiektuaz: 'oinarri ahuletan eraikia zela asmoa'. 'helmuga lortzeak zalantzazkoa eta ezinezkoa ematen zuela, edozein pertsona eskolaturentzat'; 'proposatzen zen Asia-rako bidaiak hiru urte eskatuko zituela, ontzia itzultzen baldin bazen, noski, ze dudazkoa bait zen hori'; 'Ozeanoa, Kolonek zioen baino mugagabeki zabalagoa zela eta askoz ibilgaitzagoa,gainera'. Azkenik, 'ez zirudiela Jainkoak baliozko lurralde biztanlegabeak, bere herriari hainbeste gizalditan ezkutatuta eduki ziezazkiokeenik'". *(S.E.MORISON)*

(1485), ez zetorren --eta berak bazekien-- harrérarik txarrena egin zekiokeen tokira. Hala ere, une huraxe ez zen egokierarik aproposena, Granada-ko gerratea gori-gori bait zegoen. Zalantza guztien artean, La Rábida-ko frantziskotarren laguntza ezinbestekoa gertatu zitzaion Kolon-i. Baina gerrate-lehentasunen eragozpenak ez zuen esan nahi Isabel Katolikoa asmoaz arduratzen ez zenik: 1492ko urtarrilean hartu zen Granada, eta urte bereko apirilean lortu zuen Kolon-ek bere espediziorako erret babesa.

Kolon genovarra zen (1451) eta portugesekin 1484era arte bidaia onak egina, gainera (Ginea, 1475-79). Hango eskarmentuaren ondoren eta bere aldetik egindako ikasketak iradokita, "Mendebaldeko Bideari" heldu nahi zion berak, Indiaraino iristeko. Ludia borobila omen zen eta, ustez, portugesen Afrikako bidea baino motzagoa. Ez dakigu ziur, "Mendebaldeko Bidearekiko" ziurtasunak Kolon-i nondik sortu zitzaizkion.

Kolon: kapitulazioak

(Ameriketarako bidaia prestatzeko sinaturiko hitzarmenetan, Erregeek eskubide eta gorentasun hauek aitortzen zizkioten Kolon-i:)

"Itsaso Ozeano horietan, bere esku edo ahaleginez, aurkitu nahiz irabaziko dituen irla eta lehorraldeetako gure Almirante egiten dugu On Kristobal Kolon; eta hori, bizitza osorako, eta heriotzondoan bereorren ondoko eta oinordekoentzat, ere betirako segidan batabestearentzat, Gaztelako gure Almirante Nagusiak dituen gorentasun eta abantaila guztiekin"

(Capitul. de Sta.Fe,1492)

Garaiko jakintsuen arabera, **Kolon-en hipotesiak** eta, batez ere, haren kalkuluek ez zuten oinarri zientifiko onik. Mundua borobila izanik ere, bidai proposamena itxurazkoa izateko premiazkoa bait zen "Mendebaldeko Bide" haren luzea ongi kalkulatua izatea. Honetan, egiaz, Kolon baino zuzenago zebiltzan haren kontra agertu ziren jakitun batzuk, gero ezagutuko ziren Amerika eta Pazifikoa aurkitzean jakin zen bezala. Tarteko hau dena ez zuen gogotan hartzen Kolon-ek. Ludiaren borobiltasunaz zuzen zebilen genovarra, baina oso oker haren gerri-neurriak ematean: garaiko Toscanelli-ri jarraikiz (3.000 milia), Kolon-ek 2.400 milia kalkulatu zituen 10.600 miliako distantziarako (Kanariak/Japonia). Horregatik, Guanahani-ra



(Bahamak) iristean Zipango (Japonia) inguruetan zela uste izan zuen.

Erreginaren baiezko politikoaren ondoren, Palos-ko portuan prestatu ziren **Bidaiara**-ko hiru Karabelak, Pinzon-darrek aginduta: Santa María, Pinta, La Niña. Larogeitamar lagun zihoazen, Kolon almirantearekin, "irla berrien bila". 1492ko abuztuaren 3an irten ziren, eta geldialdi baten ondoren irailaren 6an utzi zituzten atzera Kanariak. Bidaia nahiko erraza gertatu zen, nahiz eta bidai lagunak "gehiago ezinik, bidaiaren luzeaz kexu izan", Kolon-ek dioen bezala. Urriaren 11n Kostalderen bateko argiak ikusten ote ziren izan zen esamesa. Hurrengo egunsentian jakin zen egia: Bahametako Guanahaní irlatxoaren aurrean zeuden. Asia ondoa izan behar zuela uste zuen Kolon-ek: ez zekien oraindik Amerikarik bazenik.

BIDAIAK ETA HAIZEALDIAK. Ontziak beladunak zirenez, bidaiak urtearo jakinetan egin behar izaten ziren, haizealdiak lagun, joan-etorriak bide jakinetatik eta arin egin ahal izateko. Kolon-en bidai itsasoetan haizeak honela izaten ziren, adibidez, abuztuetan. Bidaia taldean egiten zen (1560rarte, 100 tonako 80 bat ontzi; geroago 300 tonakoak), urtean bi aldiz. "Indietarako Ibilia" (=Carrera de Indias) deitu zen ohizko ibilaldi hau. Amerika aurkitu ezezik, harako itsasbiderik onena asmatu zuen Kolon-ek (ik. 1493ko itzulera eta 1498koan Española-ra joandako ontzi-taldearena).

Euskal marinelak

"Bizkaiko konterrian eta Gipuzkoako probintzian bizi zirenak, nabigazio-zereginetan iaioak dira eta itsas guduetan saiatuak. Bazituzten horretarako ontzi eta tresneria egokiak. Eta itsas gerrateetan nagusienak diren zereginetan, munduko beste edozein nazio baino adituagoak ziren".
F.del PULGAR:XV.eko kronikaria

Ordurarteko Aurkikundeetan, Afrika "espero" eta aurrean zegoen arakatu beharreko kontinentea zen; Afrika aldea bilatzaileen kalkuluetan sartuta zegoen. Amerika, ordea, ez zuen Kolon-ek espero eta ez zuen, beraz, bilatu: bidean suertatu egin zitzaion, Asia-ra zihoala

Karibe aldeko irletan itzuli bat eman ondoren (Kuba eta Santo Domingo), Kolon-ek bere ontzia harkaitzetan galdu zuen. **Itzultzean**, beraz, bi ontzi zirela bakarrik eta harakoan joandakoetatik batzuk "Navidad" gotorlekuan geratu behar izan zuten. Itzulerako bidaia ez zen batere samurra gertatu: Portugesen Madeira ikutu eta, ekaitzaren uretan galdurik, Lisboa-ko portuan babestu behar izan zuen Kolon-ek. Joanes II.arekin egon ondoren, Palos-en bukatu zen bidaia (1493ko martxoaren 14ean).

Indietarako bidai moldeak

XV. mendearen azkenetan eta XVI. hasieran, hiru bidai molde bereizi behar dira Ameriketako Aurkikundeetan, Penintsula Iberiarra ezezik gainerako europarrak ere gogoan hartuz:

a) Espainiak Ameriketako Mediterraneo-ra (Karibe-ra) egiten zituen bidaiak. Kolon-ek erakutsitako bideari jarraikitzen zitzaion holakoetan.

b) Ameriketako iparmendebalderantz egiten ziren bidaiak: ez mediterranearren eta bereziki Bristol-eko marinelen bidea da hau, eta Asia-rako pasabidea bilatzen zuten.

c) Santo Domingo eta Kuba abiapuntu bezala hartuta egindako bidaiak; kontinentea ezagutu nahi dute eta, ahal dutela, Zipango-rako pasabidea aurkitu. Azkenik, Pazifikoa aurkitu eta konkistetarako bidea urratuko dute. (CHAUNU)

Bidea asmatu zen, beraz, baina egitekoaren hasiera zen hura: **lurralde berriak** eskuratu egin behar ziren, hangotarrekin harremanetan jarri, "Indiak" ezagutu... Lehiaketaren esparru geografikoa, antza, zabalagoa zen orain, bai gaztelauentzat, bai portugesentzat. Merkatal harremanek eta kolonizazioak galdera misteriotsu bat zeukaten aurrean. Erantzunaren bila, bizkortu baizik ez zen egin Aurkikundeen lasterketa.

* 4. Ameriketako Indiak

Kolon-en albisteek urduri jarri zuten Europa, eta Monarkientzat Aurkikunde-kapitulu berri bat hasi zen ordutik aurrera.

Kolon-ek ere ez zuen bere egitekoa lehenengo bidaiarekin bukatutzat eman, **beste hiru bidaia** egin zituen Ameriketara (1493-96, 1498-1500, 1502-4). Guztietan Antiletako irlak ikutu zituen (Sto. Domingo, Kuba, Puerto Rico, Jamaika) eta azkeneko bietan baita kontinentea ere.

Bigarren bidaian 17 ontzi eta 1.500 lagun joan ziren. Benetan, Monarkiak bere zeregin handitzat hartzen zuen Mendebaldeko Indietakoa. Kolon berriz ere Asiaren bila zihoan Atlantikoan zehar; uste horretan iraungo du hirugarren bidaian kontinentea ikutzean ere.

Irekitako bide hauetan zehar, ondoko edo garai bereko **bidaiak ugariak** izango dira, lehenik, noski, Gaztela-tik, baina baita beste erreinuetatik ere. Portugesek Brasil aurkituko dute (Cabral, 1500); Caboto, ingelesen zerbitzuan, ipar Ameriketara iritsiko da (1497-98). Espainolek joan-etorrian etengabe ziharduten, 1500aren inguruan: Bastidas, Ojeda, La Cosa, Alonso Niño, etab. "Indiak" geroz eta zabalagoak gertatzen ari ziren.

Une honetan (1501) irteten da Indietarako, bere bidaia argigarrian, **Americo Vespuccio** (1451-1512). Portugal-eko Erregearen esanetara doa, eta Kontinentean hegoalderantz joaz, Patagoniaraino iritsiko da, Río de la Plata atzera utzita. Bidaia honetan jakiten da lehenengoz, Mendebaldeko Indiak laugarren Kontinente ezezaguna direla, "Mundu Berria": hain handia bait zen aurkitutako ibai ez ezaguna. Orduan konturatu zen Europa, Kolon-ek aurkitutakoa ez zela Asia-ren ekialdea; hortaz, bilatzen zen espezien herrialdea ez zela oraindik aurkitu. Baina, aldiberean, han zegoen kolonizaziorako kontinente oso bat gaztelauen zain.

Euskaldunak itsasoetan

"Aurkikunde eta konkisten aroa, euskal izen gutxi-asko sonatu baina ugariz jantzia dago. Nabarmentzen direnak, itsasgizonak dira, ekintzara emanak. (...). Isasti-k, XVII. mendean, honela idazten zuen, Gipuzkoaz bakarrik ari zela: '(bertakoek)... Ozeano gehiena gurutzatu dute, Florida eta Indietaraino, Norvegia, Ingalaterra, Irlanda eta hainbat irletara, lemazain iaio eta eskarmentu handiko bezala'".

(J.CARO BAROJA)

Mundu berria

"... Antipodetara joan naiz, eta nere nabigazioaren arabera munduaren laugarren partea da (...) hura (Amerika). Konturatu ginen lurralde hura ez zela irla, kontinente bat baizik, hondartza guztiz luze-luzetan zabaltzen bait da, eta kontaezin ala bizilagun ditu".

(AMERICO VESPUCCIO, 1501)



AMERIKA "BASATIA". Mundu Berria ulertzea oso zaila egin zitzaion Europa-ri: hemen ez bezalako izadi eta gizarte-moldeak zeuden han; kultura eta ohiturak ere maila eta gisa ezberdinetakoak ziren. Sarritan, han ikusitakoak karikaturatu egin zituen europarrak, benetan ulertu baino. F. de Oviedo-k honela irudiztatu zuen emakume indiamerikar antropofago bat (1535).

Kolon-en asmo kolonialak

"Nik, neurekin dakardan jende honekin, beldurrik gabe ikustatuko nituzke irla hauek, izan ere ikusia bait dut, gure marineletatik hiru lur lehorrera jaitsi eta han zegoen indiarren jendetzak nola ihesegin zuen, inolako kalterik egin gabe. Ez daukate armarik haiek, eta biluzik dabiltza, eta ez dute armatan inolako trebeziarik eta oso koldarrak dira: milak ere ez luke zer eginik hiruren kontra. Eta honegatik onak dira agindutakoa egiteko, eta lanean jartzeko, ereiten eta antzeko lanetan ibiltzeko; hiriak jaso, jantzita ibiltzen erakutsi, eta gure ohituretara ekartzeko ere onak dira" *(KOLON, 1492)*

Besteak beste, **Antilak** dira Mundu Berriko historia berriaren ataria. 1.000 bat bizilagun espainol zeuden Santo Domingo-n, 1500ean; indiarrak berak laster hasten dira urritzen, etorkin europarrak elkarren ondoren olatu gisa agertu ohi diren bitartean (1502an, adibidez, 2.500 bat). Santo Domingo-tik egingo da Antila Handien konkista.

Antiletan bildu ziren europarrak, eta Santo Domingo beren erdigunetzat hartuta, hemendik zabaldu ziren, lehenik, irletara (Puerto Rico, Jamaika, Kuba: 1508-11), eta **kontinentera** gero. Amerikaren ekialdeko kosta (Floridatik Panama-raino), 1503-21 urteetan miatu zen, kolonizazioaren arduradun izango zen erakundea sortzean hasita (Casa de Contratación, 1503). Orduan (1513) aurkitu zuen Balboa-k Pazifikoa, horrela Vespuccio-ren teoriak egiaztatuz.

Urte hauetan **bi arazo** piztuko dira Antiletan: alde batetik, Koroak lurralde berrien ustiapen ekonomikorako antolamendu politiko egokitua sortu behar zuen, eta, bestetik, indiarrekin gertatzen ari zena ikusita (tratu txarrak, esklabutza, heriotzak...), fraide domingotarrak asaldatu egiten dira, kolonizatzaileei bortizki erasoz (Montesinos, 1511). Kolonizazioaren bidegabekeriaren gatazkak dira.

Guztion azpitik **arazo ekonomikoa** dago, eta indiarren esklabutzaren arazoa: Burgos-ko legeek gizaki libretzat eman zituzten indiarrak (1512). Beraz, etorkin espainolek ez dute idoro uste zuten bezain aberaspide erosorik: urre ugaririk ez zegoen eta morrontzarako banatutako indiarrei legeek bederen eskubideak ezagutzen zizkie-

ten. Eta okerragoa oraindik: indiarrak hiltzen ari ziren, europarren gaitz berriekin. Ez urre, ez esklabu: aberaspide errazik ez.

Antiletako espainiarrek --pobretuta-- hobe zuten Lehorralde Irmora jauzi egiteko prestatu.

*** 5. Ludiari itzulbira: Elkano**

Ameriketa ez zela India garbi ikusi zenean, hasierako galdera bera biztu zen berriz: Nondik eta nola joan Indiara "Mendebaldeko Bidea" eginez? Nola luza bidea Ameriketatik Asiaraino?

Fernando Katolikoak, bere azken urteetan ere, oso gogoan zuen **espezietarako bideren bat** bilatu beharra. Ertamerikatik Pazifikorako bidea itsita ikusten zenez (Balboa, 1513), hegoalderantz zuzendu ziren ahaleginak: Irten zen bidearen bila Solís (1516), baina Solís-en Itsasoa edo Río de la Plata deituan hil egin zuten indiarrek, eta halaxe bukatu zen espedizio hura. Hala ere, geroz eta ezinegon handiagoa sumatzen zen Gaztela-n eta Portugal-en Pazifikorako pasabidea aurkitzeko.

Kolon bezala, Portugal-etik etorritako gizon bati zegokion projektu berria aurrera eramatea: Fernão **Magalhaes** (Fernando Magallanes). Indiarako bidaietan ibilitakoa zen, eta bilatzen zen pasabidearen berri bazekiela esanez agertu zen Gaztelan. Karlos I.ak onartu egin zion Moluketarako pasabidea aurkitzeko espedizioaren asmoa.

Bost itsasontzitan 265 lagun irten ziren itsasora, bi urtetarako janariz hornituak (1519).

Mundua, eskuragarria

"Mundua ez zen sekula izan XVI. mendean bezain handia. Lehenago, Ludia batasun bat izatera iritsi gabe zegoen, ez zen "ekumene" bat. Ondoren, Ludi hori bospasei urteko bidaia batek besarkatzen zuen, denbora hori behar bait zen Lisboa edo Sevilla-tik Japonia eta Manila-ko antipodetara eta handik hona joan-etorria egiteko. Sevilla-ren Atlantikoan, gizon-emakumeak ohitu egin zi-"en distantzietara, Ameriketako urre-altxorra eragile handia izan bait zen horretarako". *(CHAUNU)*



ELKANOren ONTZIA. Honelakoa zen Elkano-ren "Victoria" ontzia, 1602an argitara emandako liburu batean agertzen zenaren arabera.



ELKANOren BIDAIA. Bidaia hau batez ere Magalhaes-en bidaia da, izan ere espedizioa honek gidatu bait zuen itsaso ezezagunetan, Amerikatan hegoaldeko pasabidea aurkituz eta Pazifikoa lehenengoz gurutzatuz. Elkano-k osatu zuen bidaia, portugesek irekitako bidea berak ere Europa-raino luzatuz. Ibilaldia neketsua izan zen oso.



J.S.ELKANO (1460-1526). Grabatu zahar honek, marinel getariarraren irudi idealizatua ematen digu. Elkano, mundua hiru urtetan itzulbiratu ondoren (1519-1522), Pazifikoan hil zen, Urdaneta gaztearekin batera Loaysa-ren bidaian zihoala.

Hiru urte eta hilabete luzatuko zitzaien bidaia. Hiru hilabete t'erdi eskasetan, adibidez, 20.000 km ibili ziren Pazifikoan. Bidaiaren gorabeherak egunez egun jaso ziren; egunkari hauetatik onena Pigafetta-rena da, dirudienez Elkano-rekin batere ongi konpondu ez zen veneziar batena.

Bidaia honek bi arazo argitu zituen: Amerika ez zegoela Asiarekin bateginda, eta Ludia borobila zela. Ordurarteko eztabaida eta zalantzak hantxe bukatu ziren.

III. AMERIKA, AURKIKUNDEAREN BIHARAMUNEAN

Kolon-en eta hainbat marinelen berehalako lana, aurkitutako Ameriketaren luze-zabalak eta **xehetasun geografikoak** argitara ekartzea izan zen. 1520 baino lehen, oro har, Ameriketaren ekialdeko kostaldea ezaguna zen, mugak esan nahi da. Baina muga haietatik barnera zegoena, edo Balboa-k topatutako Pazifikoa, erronka bat bezala, deika zeuden. Antiletako aberastasun mugatuak agortzera zihoazela ikusi zenean, bertan bildutako europarrek lurralde eta erreinu berrietarako deia sentitu zuten.

1516tik aurrera espedizio berriak irtengo dira Irletatik, Yucatân aldera: Lehorralde Irmoaren bilaketa amerikarra (Amerikatik Amerikara) hasi zen orduan. Ekinaldi berri honen abiapuntua Kuba zen, eta bertatik irtengo ziren konkistarako indarrak. 1517-1540 urteetan burutuko dira kontinenteko konkista handiak: Mexiko eta Peru.

* 1. Konkista handiak



CORTES eta MOCTEZUMA. Cortésen eta Moctezuma-ren lehenengo topaketa bakezkoa izan zen (1519). Baina, espainiarrek Erregea prisoner hartu eta Alvarado-k noble azteken hilketa egin zuenean aldatu zen egoera: herri aztekak ez zuen onartu, handik aurrera, Moctezuma-ren harreman-politika eta konkistarien kontra erreboltatu zen, bere gidari berriekin.

Pazifikoa (1513)

(Núñez de Balboa-k aurkitu zuen Hego Itsasoa, gero Pazifikoa deituko zena. Aurkikunde hauetarako ibilaldiak ez ziren samurrak izaten).

"Irailaren 6an sartu ziren itsasertzetik lehorrerantz. 8an, ostegunez, iritsi ziren Ponca buruzagi indiarraren lurretara; hemen utzi zituzten gaixorik soldadu batzuk. Gidari berriak hartuta, Caurecuá kazikearen lurraldera abiatu ziren. Abialdia ikaragarri gogorra zen, beroagatik eta atmosfera-hezetasuna halakoxea zelako. Dena eragozpena zen: lurrin-kiratsak, lianak, lore arrotzak. Oharkabean paduretan ito zitekeen nornahi, edota kaimana zelatan dago. Garo erraldoiek behaztopatzen dute pasabidea. Ibaiek mozten dituzte bideak. Ohitu gabeak gainean ditu beti intsektu ankerrak. Matxetez urratu behar da aurrerabidea (...).

Istmoa gainditzeko mendikatea bat dute aurrez aurre. Larunbat osoa, irailaren 24a, malda gora igotzen eman zuten, tontorrera iritsi gabe. Hantxe loegin zuten, haize hotzak jota. Igande-goizean egingo zuten Aurkikunde bikaina".

(F. MORALES PADRON)



EUROPARREK EZAGUTZEN ZUTEN AMERIKETA. Aurkikundeak egin ala, eta haietan jasotako albisteak mapetan ikusiz, europarrak osatzen ari ziren lehendik zeukaten Ameriketaren irudia. Hona Thorne-ren mapan erakusten zen "Mundu Berria" (1527).

Aurreko ikasgaian ikusi dugunez, Mundu Berria ez zen hutsik zegoen kontinente bat. Biztanleztatuta ezezik, zenbait lurraldetan zibilizazio handien egoitza ere baziren Ameriketak. Ikusi dugu, adibidez, nolako erakunde sozio-politikoz antolatuta zeuden azteka edo inken Erreinuak.

Espainolak eta haiek elkarrekin topo egitean, ikusteko zegoen batabestearekin zein burubide izango zuten. Bakezkoa ala arma-bidezkoa izango zen, alegia; harreman kultural eta komertzial leiala ala garbitasunik gabeko beste burubideren bat. Mundu Zaharrak eta Berriak, elkarri giza eskubide berak aitortuz jokatuko zuten, ala ez?

a) Mexiko-ren konkista

Hernán **Cortés** izan zen Kubatik zihoan espedizio handiaren buruzagia (1519). Ez zen irten nora zihoan jakin gabe, aurreko beste espedizioetakoen albisteek gidatuta baizik. Nora zihoan bazekien, baina zer aurki zezakeenik deus gutxi. Hala ere, argi zegoen hura ez zela, inola ere, espedizio arrunt bat: Ameriketan, ordurarteko marka guztiak onduz 11 ontzirekin zihoan Cortés, eta inoiz Irletatik Lehorralde Irmo-ra joandako jendetzarik handiena zeraman: 400 soldadu, eta zaldiak.

LURRALDE BERRIETARAKO TEKNIKARIAK ETA TRESNERIA

(XVI. mendean moteldu egin zen Euskal Herriko ontzigintza. Hala ere, mende hartako ekintza handietan euskal industriak eta gizonek leku on bat izango dute:)

*"**Concepción** ontzian, Joan Sebastian Elkano zihoan maisu bezala, maisu soil gisa. Baina alde tekniko eta ekonomikoari begiratzen badiegu, esan beharra dago Bizkaian erosia zela ontziteriaren tresneriarik gehiena, hala zioen behintzat Navarrete historilariak: artileria, bolbora, baleztak, ezpingartak, eskopetak, geziak, itsas tresneria (arpoiak, ingudeak, etab.). Izan ere, hemengo arma eta tresna-fabrikek eta olek hornitu bait zituzten Indietako lurraldeak (...)".*

(J. CARO BAROJA)

Kontinentera iristean, aurreko espedizio batean galdutako bat berreskuratuko du Cortés-ek: berau izango da indiarrekin hizkuntza maiaz mintzatuz lagunduko dion interpretea. Yucatán-en aurkitu zen Cortés, maien lurraldean; kostaldea segiz, Mexiko-ko Golkoan sartu zen, azteken herrialdera helduz.

Berehala zabaldu zen azteken artean kanpotar etorri berrien **albistea**: Mexiko/Tenochtitlán-a horren berria iritsi zenean, erabatekoa izan zen harridura. Alde aurretik zabalduta zeuden iragarkizunen arabera agertzen ziren, nonbait, arrotz ezezagun haiek: aintzinako tolteken Quetzalcõatl jainkoa bezala ikusi zuten Cortés. Ustekizun honi esker errazagoa gertatu zen dena. Sineskari hauek oso bizirik zeuden azteken pentsamentu-korronte batetan.

Cortés-ek aurkitu zuen beste lagungarri

Konkistarien arteko borrokak

(Konkistarien artean ere liskarrak, odoltsuak gertatu ohi ziren Ameriketan. Indiar adiskideei argitu beharra zegoen behin baino gehiagotan nola gerta zitekeen horrelakorik. Bernal Díaz del Castillo kronikariak gogoratzen du Cortés-ek buruzagi indiarrari nola argitu nahi izan zion arazoa:)

"Erregeen erregeak (=Gaztela-ko Erregek) lurralde hain zabalak izanik, izakera oso ezberdineko herriak ditu bere menpe. Horrela gu bezalakoak, gaztelauak, onak dira. Beste batzuk, ordea, gaiztoak, etsai hauek bezala, Bizkaia deitzen den probintzia batekoak bait dira jatorriz, bizkaieraz* --hizkuntza zarpailagoz-- mintzatzen dira, zuen artean batzuk otomiz (ez aztekeraz) egin ohi duten bezala".*

(L.SEJOURNE)

** Euskal Herria. Euskaraz*

HERNAN CORTES (1485-1547)

XVI. mendetik hona, Hernán Cortés konkistaririk sonatuena izan bada, ez da bakarrik obrantza benetan ez-arruntak bete zituelako izan: bere idazlanen literatur arrakasta berdingabeari ere zor dio fama hori Cortés-ek. Mexiko-ko kronikari eta historilariei ere aitortu behar diegu zabalkunde horren meritua (Gómara, Díaz del Castillo, Solís, Prescott).

Pertsegituaren itzala ere izan du Cortés-ek, Karlos Bostgarrenak kendu egin bait zion (1527) Espainia Berriko Gobernua, jaurerri eder bat (Oaxaca-ko Bailara) utziz izan bazen ere. Baina, sona gorabehera, Mexiko-n independentziaren ondoren eztabaidakizun gordina eta beroa izan da Cortés: Historia nazionaleko pertsonaiarik eztabaidatuena da mexikarrentzat, gaur egun.



bat **Inperio** aztekaren barneko ezinegona eta kexua izan ziren. Indarrez eta armaz menperatutako herri asko zeuden azteken menpean. Cortés-ek berehala ulertu zuen zenbaterainoko laguntza eman ziezaiokeen, sosegu gabeko herri zapaldu haien aliantza egoki batek, bai Inperioaren indarrak ahultzeko, bai estualdietan babesik idorotzeko. Politika zuhur hau Cortés-en armarik onenetakoa gertatu zen. Espainolen aliaturik leialena **Tlaxcala** izan zen, azteken Inperioak ingura-inguratuta zegoen erreinu independentea. Bigarren aliatu handia, berriz, **Texcoco** hiria izan zen.

Azteken artean zabaldu ziren ustekizunekin batera, ez da ahantzi behar **Moctezuma** erregearen nortasuna ere. Espainolekiko politika bakezale bat defendatu zuen bere herritarren artean. Bere pentsamoldez, gainera zetozkion indar elkartuen aurrean akordiozko bideak segi nahi izan zituen Moctezuma-k. Harrerarik onena egin zion Erregek Cortés-i, Tenochtitlán hirian sartzean: berak erakutsi zion hiria, tenplurik ederrenaren tontorretik.

Baina, espainolak galduta aurkitu ziren halako hiri eta herri handiaren barnean, eta mesfidantzaz beteta. Segurtasun hobeago baten nahiez, Moctezuma bahitu egin zuten: Erregea bera izango zen, horrela, bizi-segurtagarri ezezik, erreinuko berriak emango zizkiena. Zoritxarrez, Cortés-en kanpoaldi batean (1520, maiatza), soldadu espainolek sekulako sarraski eta triskantza egin zuten: urteko jairik handienera bildutako noble aztekak garbitu egin zituzten. Gerrarako deia gertatu zen izugarrikeria hura: beraz, "Gau Tristean", hiritik ihesegin behar izan zuten espainolek.

Tlaxcalarrekin

(Hona espainolek Tlaxcala hirikoekin izan zuten elkarrizketa:)

"Horrela, ba, bidera irten zitzaizkion Tlaxcala-ko jaunak. Indarberritzeko jakiak eraman zizkieten: lurraldeko hegaztiak, arrantzak, galeta zuri eta gozoak. Eta hala esan zieten:

- "Jaunak, hartu erreparorik gabe". Eta besteek erantzun:

- "Non bizi zarete? Nondik zatozte?". Eta indiarrek:

- "Tlaxcala-koak gaituzue. Lasai hartu duzue janarietatik, izan ere zuen herrira etorri zarete. Tlaxcala da zuen etxea. Hona hemen zuen etxea. Tlaxcala, Arranoaren hiria...".

Eta honela eraman zituzten, bide-erakusle bezala lagunduz. Eta gero, Erret Jauregian sar zitezen, laga egin zituzten. Ohore guztiak eman zizkieten, nahi zutena eman eta beraiekin bat hartu zuten, hertsiki, eta beren alabak eman zizkieten etorri berriei. Eta hauek galdetu:

- "Non dago Mexiko? Urrun ahal da?". Tlaxcalarrek zera erantzun zuten:

- "Ez duzue, dagoeneko, hain urrun. Agian hiru egunetan hel zaitezkete haraino. Hiri ederra da. Gizonak adoretsuak dira eta gerlari onak... Nonnahi dabiltza beren konkistak egiten".

(B.SAHAGUN, XVI. mendekoa)



Cuauhtémoc-ek Cortes-i

"... Nere hiri eta menpekoak defendatzeko egin behar nuena egin da, eta ezin dut gehiago, eta zuregana bortxatuta eta preso natorrenez, har ezazu gerrikoan daukazun sastagai hori eta hil nazazu bertan behera". (BERNAL DIAZ)

CUAUHTEMOC (1502-25)

Cuauhtémoc, Guatemozin deitua, izan zen azteken azken Erregea (1520-1525). Errege gaztea izan zen, baina espainiarren kontra bere herriaren erresistentzia azkeneraino gidatua zuena. Gaur egun ere, mexikarrentzat askatasunaren sinboloa da, eta haren irudia Mexiko hiriko kalerik handienean ikus daiteke, Erreformaren hiribidean.

Moctezuma, espainolak jainkotzat hartu ondoren, Cortés-ekin hitzarmen bat egiteko bidetan sartu zen, harik eta honek bahitu eta azteka asaldatuek harrikatuta hil zen arte. Moctezuma-ren anaia Cuitláhuac-ek hartu zuen segida: "Gau Tristean" Cuitláhuac zen azteken gidaria, espainolei erasotzean. Baina 1520an "gorrinak" hil zuen Cuitláhuac.

Orduan, Cuauhtémoc egin zen bere herriaren kargu: azken erresistentziarako buruzagi bihurtu zen. Ia hiruhilabete iraun zuen espainolek eta tlaxcalarrek Mexiko-ri ezarri zioten setiapenak: 650 oinezko, 194 alkabuztun eta habailari, 84 zaldun, 13 ontzi (bergantin), eta kontaezin ala indiar zetozen hiriaren kontra.

Ura moztu zioten Mexiko hiriari setiatzaileek, eta, kanpoko etsaien armak gutxi izanik, hiri-barnean "gorrina" zabaldu zen. Hirira sartzean, hildako, zauritu, emakume, haur eta gaixoak baizik ez zituzten aurkitu espainolek.

Baina ez zen hor bukatu Cuauhtémoc-en historia. Cortés eta espainolak konbentzituta zeuden urre eta metal preziatuen altxor handiak zeuzkatela aztekek, ezkutatuta. Aurkitu ez zituztenez, prisoner hartutako buruzagi aztekak torturatzera eman ziren espainolak. Ondoko asteak gogorrak izan ziren Cuauhtémoc-entzat.

Tradizioak dioenez, txingarretan etzan erazi zuten espainolek, torturaz bortxatuta, altxorren berri eman zezan. Bera bezala torturatua zen bere ministrari batek, kexu zela, hitz egin ote zezakeen galdetu omen zion, eta Cuauhtémoc-ek erantzun: Eta ni? Arrosazko etzalekuren batetan ote nago, ba, ni?

Azkenik, Cortés-ek urkamendira eman zuen, dirudienez errebolta baten prestakuntza salatuta. Printze gazte hau da, Hego Ameriketan Tupac Amaru bezala, indiamerikarren libertate-sinbolo bat.

Aztekak, gorrinak jota

"Espainolak Mexiko-tik aldegin eta berriz erasotzeko prestatzen ari zirenean, izugarrizko gaixotasun bat zabaldu zen gure artean, izurrite orokor bat. Haren hats hilgarriak asko harrapatu zituen, gorputzeko parte guztietan joz: aurpegia, burua, bularra, etab. (...). Gaitz guztiz hondagarria zen. Jende asko hil zen. Harez gero inork ez zuen ibiltzeko indarrik, zerraldo geratzen ziren, ohean etzanda. Ezin zen inor mugitu... Ainitz hil ziren gaitzak jota, pausaldi eta errukirik gabe. Gaixotasuna pustulaz agertzen zen. Asko eta asko gosez hil zen, besterik gabe: inork ez zuen inor zaintzen, bata besteaz ez ziren arduratzen".

(CODEX FLORENTINUS. Azteka)

Moctezuma errebolta batean hil ondoren, aztekek beren erresistentzia antolatu eta eskubideak zaintzeari ekin zioten. Lehenengo Cuitlâhuac-ekin (berehala hil zen hau, gaixorik) eta batez ere **Cuauhtémoc** buruzagi zutela.

Aliantza antiaztekak indarberritu, Mexiko-ko lakurako ontziak prestatu eta ahal bezainbat armaz hornitu ondoren, Mexiko setiatu egin zuten espainolek. Aztekek, beren ezbehar guztien artean, erresistentziarik gorriena eskaini zuten, harik eta hiria eta Cuauhtémoc espainolen eskuetan erori ziren arte (1521-abuztua-13).

Horrela desagertu zen azteken inperioa. Hilabete gutxitan, akordioak eta armak erabiliz, Cortés-ek lurralde handia eskuratu zuen: 300.000 km^2 urte haren azkena baino lehen, beste 200.000 sei hilabete geroago. Urte gutxi gehiagotan beste milioi erdi bat. Orotara, laster, Espainia doblatzen zuen lurraldea eskuratu zuen Cortés-ek: "Nue-



MEXIKOren KONKISTA. Tlaxcalako irudi hauetan hiru protagonista ikusten ditugu: ezkerreko zaldizkoak Cortés eta beronen soldaduak dira; ez datoz bakarrik: bidean lagun izan dituzten tlaxcalarrak ageri dira ondoan; azkenik, eskuinian, aztekak ikusten ditugu beren arku eta ezkutuekin. Tartean espainolen txakurrak, indiarrek ezagutzen ez zuten animalia baina konkistarientzat gerran laguntzaile ona gertatu zena.

va España" deitu zitzaion konkistatutako lurralde honi.

b) Peru-ren konkista

Antiletatik azteken berri jakin zen bezala, Balboa Panamá eta Pazifikora iristean (Hego Itsasoa deitu zitzaion orduan, 1513), soldadu espainolek hegoaldean zegoen beste Inperio handi baten **albistea** jaso zuten. Hortaz, konkistarentzat --Mexiko-koa ezagutu ondoren-- beste helmuga bat zegoen itxaroten Hego Itsasoaren haraindi. Erreinu horren izena Andagoia arabarrak (1495-1548) jasotako izen batetik dator (**Biru**= "Peru"), eta beronek egin zuen Hego Itsasoan (=Pazifikoan) hegoalderantz lehenengo irtenaldia (1522).

Almagro eta **Pizarro**-k jarraikiko dute, gero, egitekoa. Bidaia luze batean (1526) aberastasunak eta Inken Inperioaren albisteak bildu ondoren, kapitulazioak sinatu eta Erregerengandik ahalmenak jasotzeko Espainiara etorri zen Pizarro. Konkistarako legezko baldintza hauek garbi utzi orduko, espedizioa prestatzen hasi ziren taldean.

1531n irten zen taldea "Tahuantinsuyu" deituriko Inperioaren bila. Unerik egokiena zuten --oraindik jakingabe ere-- Inken Inperioari erasotzeko, gerrate zibil batean banatuta aurkitzen bait zen boterea. Hegoalderantz eginez, 1532ko udazkenean Cajamarca-n ziren, Peru-ko lehenen herria eraiki ondoren (San Miguel de Piura).

Atahuallpa (1502-1533) zegoen Cajamarca hirian, hau da, Inperioaren iparraldeko probintzietako hiri nagusian.

Peru-rako kapitulazioak

(Honela deitzen zen Erregearen eta aurkitzailearen edo konkistariaren artean sinatzen zen akordioa, "kapitulazioak". Erregeak eskubide batzuk aitortzen zizkion konkistariari, Koroarentzat aurkituko zituen lurraldeen truke. Hona, adibidez, zer agintzen zien Karlos I.ak (1529) Peru-ren konkistara joango ziren Pizarro eta lagunei:)

"Sona Handiko Hamahiruak" hidalgo aitortzen zituen; Pizarro, kapitain jeneral; Almagro, Pizarro-ren ondokotzat eta Tumbez-eko gobernari; Luque apez lagunarentzat gotzaindegia agintzen zen eta indiarren babesletzat izendatzen". (F. MORALES)



PERUren KONKISTA (1531-1533). Inken erret familiako batek, Huamán Poma de Ayala-k, konkistaren historia marrazkitan eman zuen, XVI. mendea bukatzean. Honela irudiztatu zuen Atahuallpa eta pizarrotarren topaketa.

Hegoaldeko **suyu**-etan, berriz, haren anaia **Huáscar**-ek, Inka jatorra bera izateaz aparte, segitzaile ugari zituen.

Bien arteko gerra-giroaz baliatuz, Pizarro Atahuallpa-rekin jarri zen harremanetan. Cortés-ek Mexiko-n Moctezuma-rekin egindakoa berrituz, atxilotu egin zuen Pizarro-k Atahuallpa, esanetara edukitzearren. Horrela zegoela, anaia Huáscar hiltzera emateko agindu zien Atahuallpa-k beretarrei: ezin erabaki hoberik hartu, hegoaldeko probintziak espainolekin bat har zezaten.

Gerra zibil honetan --Atahuallpa prisoner zegoela, gainera-- Inperioaren **piramide-antolamenduak** lagundu baizik ez zion egiten Pizarro-ri: unerik egokiena aurkitu behar zen bakarrik Inperio osoa desburututa uzteko. Horixe egin zuen Pizarro-k, bere kabuz edo inguruko ofizialek bultzata: Atahuallpa itota hilerazi (1533). Aste gutxi ge-



F.PIZARRO (1478-1541). Extremadura-k konkistari asko eman zituen XVI. mendean; hauetatik bat F.Pizarro izan zen (Trujillo-n jaioa). Alfabetatu gabea zen. Italia-ko gerrateetan parte hartu ondoren, oso garaiz joan zen Ameriketara (1502). Balboa-rekin Pazifikoa aurkitu zutenetakoa da. Ondasunik aski bildu ondoren, konpainia pribatu bat eratu zuen zenbait lagunekin, aberastasun berriak eta bi Ozeanoen arteko pasabidea bilatzeko. Bidai saio batzuren ondoren (1525-28), "Piru" deitzen omen zen Inperiora joatea erabaki zuen, horretarako eskubideak Koroarengandik segurtatuz (Kapitulazioak, 1529). Konkistarako bidaiari 1531n ekin zitzaion. Espainiarren zaldiak eta suzko armak, eta indiarren banaketa politikoak erraztu zioten lana Pizarro-ri. Huáscar eta Atahuallpa heriotzera eman eta bi urteren buruan eskuratu zuen inken Inperioa. Orduan bi alderditan banatu ziren konkistariak: Almagro-ren jarraitzaileen eskuetan hil zen Pizarro (1541), soldadu gutxi batzuekin erreinu oso bat artu zuena.

roago Cuzco hiriburu nagusia soldadu espainolen eskuetan erori zen. Inken ondoko erresistentziak ez zuen aldatu ahal izan garaitzapen horren funtsezko ondorena.

Horra aro berri baten hasiera: Peru kolonialarena.

* 2. Konkistaren arrazoizkotasunak?

Aurkikunde-bidaietara irteteko, aurkitutako lurraldeak menperatzeko edo hango ondasunak banatzeko, aldeaurretik hitzarmen bat sinatu ohi zen hartara zihoan buruzagiaren eta Koroaren artean. Izan ere, ez zitekeen nornahi bere kabuz besterik gabe eginkizun horietara irten. Aldeaurretiko hitzarmen hauei **kapitulazioak** deitzen zitzaiela esan dugu arestian.



KONKISTARIEN ALTXORRA. Konkistari guztien ametsa izan zen urre-altxorrak eta "El Dorado" deitu ohi zen lurraldea topatzea. Baina batez ere Peru-n bihurtu zen egia amets hura. Urre eta aberastasun hauek kendu egin zitzaizkien indiar bentzutuei. Gerra-harrapakin horretatik sortu zen Europa-n Peru "urreztatuaren" legenda.

Cortés = Quetzalcóatl?

(Cortés Mexiko-ra iritsi zenean aztekek eta berauen Errege Moctezuma-k bereziki jainkotzak hartu zuten. Horregatik ondoko gertakari hau:)

"Jainkoak entzun gaitzala: haren ordezkari Moctezuma men egitera dator. Beronek dauka bere ardurapean Mexiko hiria. Hala dio: 'handia da jainkoaren nekea eta akiturik dago'".

Luzapenik gabe, Quetzalcóatl jainkoaren ezaugarriekin jantzi zuten (Cortés) kapitaina: turkesazko mozorroa, ketzalaren lumazko gainjantzia. Hona zer dioen Kodex Florentziarrak:

"Orduan kapitainak bere mandatuak eman zituen: indiarrak, beraz, lotu egin zituzten, oin eta lepoetan kateak jarri zizkieten. Hau egin ondoren, sua zeriola hasi zen kanoi handia. Une horretan, (erregearen) mandatariek kordea galdu zuten, guztiz estutu ziren eta zerraldo erori. Beren sen onera ekarri zituzten espainolek, zutik jarrerazi, eta edateko ardoa eman zieten, eta jaten. Horrela, ba, baretu ziren azkenik, eta adore hartu". *(CHAUNU)*

Indiak, erregeentzako

"Munduaren jaun bezala iragandako Aita Santuek, oraingo honen aurretik dignitate eta aulki hartan izan direnek alegia, aipatutako Errege-Erreginei eman zizkieten Itsaso Ozeanoko Irlak eta Lehorralde Irmoa: Haiei eta hauen ondorengoei, haietan aurkituko zuten oro. Diotenez, hala esaten da eskritura batzuetan; horrelakorik nahi bazenu, irakur ditzakezu, noski. Beraz, Majestateok Irla eta Lehorralde Irmoetako Errege eta Jaun dira, dohaintza haren arabera. Eta eskubide hau aditzera eman zaien irlek ontzat hartu dituzte Majestateok, obeditu eta zerbitzatu egin dituzte, menpekoek egin behar duten eran borondate onez eta inolako erresistentziarik gabe".

(D. DE ENCINAS, 1531)

1488-1520: Aurkikunde--bidaiak eta ekonomia

"Baliozko produktuen bilaketa seriosa eta praktikoa, batez ere urre eta espeziena, izan zen europarrak mundura hain bizkorki eraman zituen arrazoirik erabakiorrena. Horregatik ireki zen, batez ere, Europa mundu osora. 1488an biratu zuten Itxaropen Oneko Lurmuturra; 1492an aurkitu ziren India Mendebaldarrak; Indiaraino, itsasoz, lehenengo aldiz 1498an heldu ziren portugesak; 1500ekoa da Brasil-en lehen deskribapena; Balboa-k 1513an, alde aurretiko usteak itsaso "berri" bat ikustean birretsi zituenean, Amerika kontinente bereizitzat ezagutu zen. 1520an ingurubiratu zuen Magalhaes-ek Hego Amerika".

(J.R.HALE)

Akordio horren bidez, bidaiarako dirua eta lana jartzen zituenaren geroko eskubideak mugatzen ziren alde batetik, eta Indien jabetasun gorena aitortzen zitzaion Koroari bestetik. Aurkikundeak, konkistak nahiz ondasun-banaketak ez zitzakeen nork bere gisara egin: guztientzako lege idatzi edo ohiturak zeuden, eta hauen barnean bakoitzari zegozkion kapitulazioetakoak aitortzen zitzaizkion.

Adibide gisa, "quinto real" zeritzana gogora dezakegu. Horren arabera, eskuratutako ondasunetatik bostena Koroarentzat gorde behar zuen konkistariak. Bosten hau Erdi Aroko gerra-ohituretatik zetorren araua zen.

Gaur egun enpresetan bezala, arriskuak eta irabaziak nola bana mugatzen zuten kapitulazioek, eta, batez ere, konkistaren kapitain buruzagiari eskubide politikoak segurtatzen zizkioten. Koroak zekarrena segurtapen hau izaten zen, ez besterik; bestelako laguntza edo arriskutan sartu gabe normalean.

Horrela, alde aurretik konponduta geratzen ziren konkistariaren, beronen lagunen eta Koroaren artekoak. Baina arauketa horren azpitik beste arazo bat zegoen: Nor zen, izan ere, Gaztelako Erregina, bereak ez zituen eta milaka legoatara zeuden lurrak, eta menpekoak ez zituen indiarrak eta berauen ondasun eta erreinuak inori eman, norberarentzat hartu edota indarbidez banatzeko? Hau da: zertan oinarritzen zen halako **eskubide** gorena?

Gertatutakoak zuzenesten hasi gabe, haiek ulertzeko bederen, garaiko ideiak ezagutu behar dira.

Aita Santuen **Buldak** izan ziren Portugal-Gaztelentzat eskubide-oinarri, XV. mendean; haiek oinarriztatu zizkieten aurkikunde nahiz konkistetarako eskubideak. Ahal zenetan, batak besteari aurkikunde-barrutiak murriztu eta norberarena zabaltzeko ere balio izan zuten Buldek. Aurkikundeen aurreko diplomazia zera zen: lehenengo Aita Santuagandik lortu eskubide-dohaintza eta, gero, halabeharrez, nazioarteko hitzarmenez segurtatu aitortutako eskubidea ahalbideratzeko babesa. Hau da: premiazkoetan, Gaztela-k eta Portugal-ek --bi Estatu aurkitzaileek-- hitzarmenez moldatuko dute kolonizaziorako nazioarteko zuzenbidea.

Erdi Aroan, Aita Santuen Buldek, Birkonkistarako eskubidea eman ezezik, betebeharra ezarri ere egin ohi zieten Errege kristauei. Gisa berean, oinarri juridiko-ideologiko bera bilatu dute Erreinu kolonizatzaileek, aurkitutako lurraldeetarako. Ez bakarrik hedapen geografikoz, baita kontzeptu juridikoz ere, kolonizazioa Birkonkistaren luzapen bezala definituko da, horrela kristau europarren konkista-eskubideak finkatuz. Gurutzada bezala definitzen da konkista, lehenengo hartan bederen.

Eugenio IV.ak (1442), Nikolas V.ak (1455) edo Alexander VI.ak ("Inter Coetera" Buldarekin, 1493), munduaren konkistarako Portugal-Gaztelen monopolio-eskubideari funtsa eman zioten, batari eta besteari nondik norainoko barrutia zuten mugatuz. Praktikan mamituta, edo moldatzear, zeukaten mopolioak oinarri juridikoa aurkitu zuen Bulda haietan. Erdi Arotik hasita, Aita Santuen botere denborala oso eztabaidatua zen, baina aurkikundeen politika mugarritzeko Gaztelak eta Portugal-eko Erregeak oinarri teoriko horretaz baliatu ziren XV-XVI. mendeetan. Zalantzarik gabe esan liteke,

Noble azteken triskantza

(Eman zen jaialdirako baimena; gerlari gazteak ez zekiten arriskuaren berri. Jaia bere unerik onenean zegoenean, hilketari ekitea erabaki zuten espainolek. Goitik behera armatuta agertu ziren; irteerak itxi, ateak zarratu... Ez zeukan inork eskapabiderik. 1520-ko maiatzaren 23an egin zuten Cortés-en soldaduek itxuragabeko hilketa hau, kapitaina Mexiko-tik kanpo zela).

"Oinez zihoazen soldaduak, zurezko ezkutuekin, edota metalezkoekin, ezpatak eskutan. Dantzariak inguratu zituzten lehenengo, tinbalariei eraso zieten hurrengo, estokeekin ekin zieten musikazaleei: bi besoak moztu zizkieten. Gero, buruak. Eta, han, zokora bota zituzten moztutako buruak. Berehala, dagaz armatuta, jendea sakailakatu zuten lantzaz eta estokez, beren ezpata zorrotzez zaurituz. Batzuei sorbaldatik eraso zieten; bapatean zerraldo erori ziren, sabel-hesteak lurrean sakabanatuz. Burua erdibituta geratu zen zenbait, deseginda, mila zatitan txikituta, halaxe joan ziren buruak. (...). Batzuek ihesari eman zioten, besteak tarraka, hesteak oinetan trabatzen zitzaizkiela. (...). Zenbait,hildakoen ondoan etzan zen, luze, hildako itxurak egiten, norberaren burua salbatzeko".

B. SAHAGUN (XVI. mendekoa)

momentuko komenentziek ez zutela gutxi lagundu orduan Aita Santuaren ustezko "aginte goren denborala" onartzen.

Esan bezala, Bulden ondorengo irtenbide juridiko praktikoagoa, Gaztela eta Portugalen artean sinatutako tratatuetan jarri zen: **Nazioarteko tratatuak** dira aurkikundeen bigarren zimentarri juridikoa. Portugal-en Afrikako aurkikunde barrutia arautu zen lehenengo (Alcaçova-Toledo, 1479-80), eta Atlantikoa goitik behera bitan banatu, gero (Tordesillas, 1494). Azkeneko erabaki honek teorikoki, Atlantikoa ezezik, Pazifikoa ere erdi-

KONKISTA-KOLONIZAZIOAK. Hona nola laburbildu duen historilari ezagun batek konkista-kolonizazioetako gertakarien esanahia.

Ley xviij. Que donde fuere posible se pongan Escuelas de la lengua Castellana, para que la aprendan los Indios.

El Emperador D. Cárlos y los Reyes de Bohemia Gobernadores en Valladolid á 7 de Junio y á 17 de Julio de 1550.

HAbiendo hecho particular exámen sobre si aun en la mas perfecta lengua de los Indios se pueden explicar bien, y con propiedad los Misterios de nuestra Santa Fe Católica, se ha reconocido, que no es posible sin cometer grandes disonancias, é imperfecciones, y aunque están fundadas Cátedras, donde sean enseñados los Sacerdotes, que hubieren de doctrinar á los Indios, no es remedio bastante, por ser mucha la variedad de lenguas. Y habiendo resuelto, que convendrá introducir la Castellana, ordenamos que á los Indios se les pongan Maestros, que enseñen á los que voluntariamente la quisieren aprender, como les sea de ménos molestia, y sin costa: y ha parecido, que esto podrian hacer bien los Sacristanes, como en las Aldeas de estos Reynos enseñan á leer, y escribir, y la Doctrina Christiana.

KOLONIZAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

1. Konkistak, buruzagi adoretsu baten menpeko talde txikiek egiten zituzten, sarrienik. Eginkizun hauetarako eskubidea, "kapitulazioak" deituriko erret akordio baten bidez izaten zituzten, normalean. Agiri honetan egiten ziren kargudunen izendapenak.

2. Aurkitutako herriak eta kulturak oso ezberdinak ziren: nondik nora gabeko talde indiarrak batzutan, eta inoiz inperio biztanletsu eta aberatsak, antolamendu handikoak.

3. Geografia eta klima, askotan, oso kontrako izan zituzten konkistariek: mendialde handiak, tropikoa, itsas zabal ezezagunak.

4. Konkistarako maina denak erabili ziren: indiarren arteko ezinikusiak, haien beldurra eta susmoak, halako gizaki arrotzak ikustean izan zuten sorpresa; armak, zaldiak... Gerra eta akordioa.

5. Konkistariak ez ziren fineziaz hezitakoak: beren helburuak lortzeko (urrea, ondasunak, esklabuak, agintea...) mota guztietako krudelkeriak egin ziren. Giza bizitzak ez zuen lar balio.

6. Aberastasunak, aintza, abentura, kristau-fedea...: honek guztiak zirikatu zituen konkistariak Mundu Berria berentzat irabazten. Nahasmendu horretan, burubide makurrik franko ikus daiteke.

(A. DOMINGUEZ ORTIZ).

bitzen zuen, eta gerora (Urdaneta eta Legazpi Ekialdera iristean, adibidez) garrantzia izango zuen Tordesillas-ko tratatuak. Dena den, akordioak norberaren kontra suertatzen zirenean (esate baterako, Espainiak aurkitutako Molukak Portugal-i zegozkion), Buldak ahantzita armabidezko lasterbiderik ere hartu izan zen. Zuzenbidearen itzal onean, alde batetik, edo norberaren interesen itzal hobean, bestetik, Portugal-ek eta Gaztela-k mundua erdibanatu egin zuten, beren artean.

Baina Zuzenbidea eta Legeak, denak, sostengatzen zituen **ideologia** ezin da ahantz, honaino iristean. Interesek zirikatuta, eta garaiko mentalitateak bultzata ere bai, ekintza guztien azpian pentsamendu-giltzarri bat dago: munduaren salbabiderako izanez gero, Ebanjelioa zabaltzeko alegia, Kristandadeak eskubide osoa zuen --Aita Santuaren gidaritzapean, eta besterik ezean-- munduaz jabetzeko. Zentzu horrekintxe heldu zitzaion Granada-ko konkistari; esanahi ideologiko bera eduki zezakeen Indietarako luzapen-asmoak ere, baina berehala aipatuko ditugun eztabaidek oso koloka utzi zuten oinarri teoriko hau.

Kolonizazioaren eraikuntza ideologikoan, bazegoen interesen estalki zurigarri zen alde bat, faltsoa: konkista egitekotan nahiago zen kontzientzia "onarekin" egin, eta horretarako ere balio zuten asmo "ebanjelikoek". Baina, arruntki, arrazoi "onak" eta "gaiztoak" nahasian bizi ziren Pizkundeko konkistarien baitan: interes zirtzilen ondoan, idealismorik bikainenak, elkarrekin nahastuta. Eta konkistari eta Erregeengan ezezik, baita orduko talde sozial ezberdinetan ere.

Konkistako gertakari harrigarrien aurrean, Penintsulako gizarte osoa mugitu zen. Ga-

Indiarren kontra, zergatik

(1511ko Gabon aurreko igandean, Montesinos domingotarrak Hispainiola-ko irlan egin zuen hitzaldi honen ondoren hasi zen Ameriketako indiarren aldeko eskubide-eztabaida hau, Penintsulako Unibertsitate eta politikarien artean:)

"Zein eskubiderekin eraso diezue, gerra anker batez, jende hauei, bake-bakean beren herrian bizi ziren hauei? (...). Zergatik uzten dituzue horrela, erabat denegaturik? (...). Zuek akabatzen dituzue, egunoro urrea ekar dezatela eskatzean. Eta arduratzen ahal zarete horiei gure erlijioa irakasteaz? Ez ote dira, ba, gizakiak? Ez ote dute, gero arrazoimenik, arimarik? Ez ote duzue, ba, zuek zeuron buruak bezalaxe, horiek ere maitatu beharrik? Egon seguru: Burubide horrekin, ez duzue mairu edo turku batek baino salbabide hoberik zuek".

(ANTONIO DE MONTESINOS, 1511)

"Asiento"

(Beltzen merkatalgorako Erregeak, hitzarmen baten bidez, norbaiti ematen zion monopolio-eskubideari deitzen zitzaion "asiento").

"XVI. mendearen hasieratik 1595eraino ez zen egon 'asiento' orokorrik. Koroa espainolak merkatari partikular batzuei hainbesteko esklabu-kopuru ezberdinak ekartzeko eskubidea ematen zien: 4.000, 1518an, Laurent de Gorrevod-i. (...); beste 4.000, 1528n H. Ehinger-ekin egindako hitzarmenean. (...). XVI. mendearen erdialdera, Sevilla da lizentzia hauek negoziatzen diren azoka handia.

Baina portugesak dira benetako esklabu-hornitzaileak. Espainia eta Portugal-eko Koroak bategitean (1580), haiek areagotu egin zuten beren nagusitasuna esklabu-trafiko horretan. 1595etik aurrera Portugal erreboltatu arte (1640), Lisboa-ko merkatariekin sinatu zituzten 'asiento' orokorrak Errege espainolek: Koroari buru bakoitzeko 20/25 dukat ordainduz, urteoro 4.000/5.000 esklabu Mendebaldeko Indietara sartzeko monopolioa aitortzen zitzaion 'asientariari' (...). Mende-erdi batean, 150.000 beltz eraman ziren Ameriketara legez, kontrabando bidez sartutakoak kontatu gabe".

(J.-P. BERTHE)

raiko indar sozialek eta pentsalariek beren ekintza eta hitza libreki eman zituzten, Aurkikunde ondoko lehenengo larogei urtetan (1492-1577). Amerikaren konkistak eduki zituen bere defendatzaileak --ofizialak edo ez--, baina ez zen falta izan haren salatari suharrik, bai hastapenetan bertan haren zilegitasuna ukatzeko, bai obraz gertatzen ari zenaren **kritika gordina** egiteko ere.

Lehenengo,fraide domingotarrek eraso zioten beren begiz ikusitako konkistari. Amerika espainola oraindik oso txikia zen (1511): Antiletako irlak, besterik ez. Montesinos-ek konkistarien abusario itxuragabeak gogorki salatu zituen Abenduko hitzaldi batean: hark esandakoak eta erantzun zizkiotenak ekaitz bihurtu ziren, Antiletan bezala Penintsulan ere. Baina Montesinos ez zegoen bakarrik: domingotar asko eta prestuak izango zituen laster, laguntzeko. 1512an bildu zen eztabaidarako teologilarien taldea (Burgos), eta ondorioz puntu hauek utzi ziren garbi: libreak ziren indiarrak, Ebanjelioa eskaini behar zitzaien, beren etxe eta ondasunak gordetzeko eskubidea zuten, lanaren truke soldata zor zitzaien, etab.

Eztabaida honen barnean bi izen handi agertzen zaizkigu, handienak eta sonatuenak: Bartolomé de Las Casas eta Francisco de Vitoria. Vitoria, jatorriz bederen, euskalduna. Kolonuek indiarrei ematen zieten tratu txarra ikusirik, bere munduko ondasunak utzi eta indiarren giza eskubideak defendatzen jarri zen Las Casas. Egiteko honetan, XVI. mendeko gizonik erraldoiena bezala agertzen zaigu hau. Indiarren defentsan sutsuena eta zuhurrena izan zen, garaiko politikak eskatzen zuen bezain azeria. Bazekien konkistak, nahitaez, aurrera egingo zuela, azkenik, eta halabehar horren barruan errealismoz jokatu zuen.

Vitoria, berriz, erradikalagoa izan zen: Konkistaren beraren bidegabekeria salatu zuen. Lagun bati idazten zioenez, "nik ez dut ulertzen gerra honen justizia". Salamanca-ko Unibertsitatean emandako irakaskuntza "nazioarteko zuzenbidearen" oinarri izan da gero (1539). Behingoz bederen, teologia kristauaren ahots jator eta askatzailea gertatu zen Vitoria-ren irakaskuntza, indiarren eta gizaki ororen jatorrizko askatasunaren kontrako argudioak argiro deseginez.

Baina, zoritxarrez, hau dena bero eta argi eztabaidatu zenerako (1539-1550), beranduegi zen, indiarrak salbatu eta haiei kendutako eskubideak itzultzeko. Funtsean eta luzarora konkistaren zentzua gehiegi aldatu ez bazen ere (1542ko Lege Berriak, 1549-50 konkistaren geldialdia), arazo historiko larri bat argitan utzi zuen eztabaidak. Ondorioz, gainera, misioaren eta kulturapenaren zeregina definitzen lagundu zuen.

Izan ere, amerindiar bakoitzaren eskubideak ezezik, herrien eta kulturenak ere aintzakotzat nola hartu, eta kulturen arteko harreman eta elkar-bizitzarako nolako bizimoldeak sortu zen funtsezko galdera. Ameriketako indiarrek kultura, gizarte eta zibilizazioak beren hartan gorde eta garatu ahal izateko zer egin? Erantzun gisa, projektu sozio-kultural handi bat sortu zen, bereziki Mexiko-ko misiolari etnógrafoen artean (Olmos, Sahagún, Motolinia). Projektu intelektual honetan, euskaldunak ere ez ziren falta izan: Zumarraga, Mendieta, etab. Amerindiarren ahots ordezkaria ziren. Baina Amerika amerindiarraren asmoari Felipe II.ak etorkizuna moztu zion, haien idazlanak eta ahaleginak debekatuz (1577). Hemeretzigarren menderaino ez ziren argitara eman idazlan haiek, Amerika-ren drama kezkagarria salatzen baït zuten.



LAS CASAS DOMINGOTARRA. Europa-ko kristau argien eta jatorrenen kontzientzia bortizki hunkitu zuen konkistaren arazoak. Salatari handiak izan zituen armazko ekintza hark: honelakoen artean sonatuena Frai Bartolome de Las Casas izan zen (1474-1566). Salatari suhar hauen eraginez, une batean konkistak geldierazi ere egin ziren, halakoxea izan zen piztutako kontzientzi problema.

ESKOLA KOLONIALA. Marrazki mexika honetan indiarren misioetako eskola-eszena bat ageri zaigu. Misiolarien eginkizunetako bat indiarrak eskolatzea izan zen, Monarkiak ez bait zuen bestelako eskola-sistemarik sortu. Begira nola irudiztatzen zuten aztekek, txirbil-zeinu horien bidez, mintzaketa (gaurko komikietakoarekin konpara liteke).



*** 3. Herri eta zibilizazioen topaketa**

Erdi Aroko zibilizazioek, norberaren esparruetatik kanpo, Ludiaren parte oso txikia ezagutzen zuten: bakoitza bere mundu-barrutian bilduta zegoen. XIII. mendean, munduaren lehorraldeetatik %30 ozta-ozta eta itsasoetatik %5 bakarrik ezagutzen zuten europarrek. Aztekek edo mexikarrek, berriz, kontinenteen %1 soilik. XIII-XV. mendeetan, Europa mundu berrietara abiatu zen arte, txinarrek edo arabiarrek zuten mundu ezagunik zabalena. Hauek, adibidez, Mediterraneoa eta Europaren hegoaldea, Ekialde Hurbila, Itsaso Gorritik beherako kostalde afrikarra, Indikoa, etab. berenak edo ezagunak zituzten mende haietan. Europa motzago zebilen, eta ez ezagupidez bakarrik.



TIRANIA ESPAINOLA. "Tirania espainolaren ispilua" tituluarekin argitara zen, Amsterdamen, Las Casas-en obra hau, frantsesera itzulita. Monarkia europarren arteko gatazka eta gerretan kanpaina politikoetarako ere erabili zen ameriketako konkistaren eztabaida.

EUROPA: BIZILAGUNAK (1450)

Hamabostgarren mendeko Europa ez zen, biztanlez, gaurkoaren antzekoa: askoz eskasagoa eta bakanagoa zen biztanleria. Hauek dira datu batzuk:

Alemania	11.000.000 biztanle
Frantzia	10.000.000 biztanle
Italia	8.500.000 biztanle
Espainia	5.000.000 biztanle
Ingalaterra	2.500.000 biztanle
Portugal	900.000 biztanle

Elkarrekin topo egitera zihoazen bi kontinenteek (1492) **demografia** oso bestelakoak zituzten. Apala zen oraindik Europa-ren biztanleria, ondoko laukian ikus daitekeenez. Italiak zuen erlatiboki biztanleriarik trinkoena, baina ez zen 10 milioitara iristen. Penintsula Iberiar osoan sei bat milioi izan zitezteen Aurkikundeen garaian. Europako Mendebaldean bizilagunak nahiko bakan banatuta zeuden, biztanle-kontzentrazio handirik gabe. **Ameriketaren kasua** ezberdina da.

Aurkikundeek lehenengo eta konkistak gero, biztanleriarik trinkoena zuten lurrak berehala ikutu zituzten: Karibea, Ertamerika eta Peru. Zibilizazio eta arto-ekonomiarik garatuenak zituzten lurraldeak, hain zuzen.

Jakingarria da ondoko hamarkadetan Ameriketan gertatu zena. Kontinente osoko 80/100 milioiak (1492aren ingurukoak) 15 milioitara jaitsi ziren urte gutxitan. **Hondamendi demografiko** hau historian ezagutzen diren bizpahiru handienetako bat da; batez ere, Europatik eramandako gaitz berriek (baztangak, adibidez) sekulako hilketak egin zituzten indiarren artean. Ikusi besterik ez dago, bizilagunak nola urritu ziren urtez urte.

Irletatik irletara (Sto. Domingo-tik Kuba-ra, adibidez), edo irletatik kontinentera (Kuba-tik Mexiko-ra), lanesku indiarraren eskasiak bultzata pasa ziren konkistariak: espainolek geroz eta indiar gutxiago zuten beren lanetara bortxatzeko. Beraz, krisi demografikoak **arazo ekonomikoa** sortu zuen.

Ameriketako historian ongien ezagutzen dugun despopulatze-kasua **Anáhuac**-ekoa da. Mexi-



AITA VITORIA (1483-1546). Las Casas-en ondoan, Aita Vitoria izan zen Ameriketako konkistari buruz obra teorikorik handiena egin zuena, eta Salamanca-ko Unibertsitatea, eztabaida intelektual honen erdigunea. Jatorriz (ez jaiotzez) euskalduna zen honi zor zaizkio Nazioarteko Zuzenbidearen oinarriak, pertsonaren eta herrien eskubideen funtsa definituz. *Hona hemen Vitoria-ren obra bat.*

AMERIKAren DESPOPULAKETA. Ameriketako biztanleriarekin konkistaren biharamunean gertatutakoa ikaragarria izan zen. Hitzek baino gehiago esaten dute historilarien zenbaki hauek.

AMERIKA DESPOPULATZEN: Anáhuac

Anáhuac: Mexiko-ko goi-lautada deitzen da horrela. Eskualde horretan biltzen zen azteken Erreinuaren erdigunea. Hona, jakinak diren datuak:

1519	25.200.000 biztanle
1532	16.800.000 biztanle
1548	6.300.000 biztanle
1568	2.650.000 biztanle
1580	1.900.000 biztanle
1605	1.075.000 biztanle

ko-ko eskualde honek 514.000 kilometro karratu ditu eta 25.200.000 biztanle zituen Cortés bere soldaduekin han agertu zenean (1519). Beraz, garai haietan, Europa-k ez zuen --urrutitik ere-- beste halako eskualde biztanletsurik. Espainolak sartu bezain laster hasi zen hango biztanleriaren hondamendia: Hamahiru urte nahikoa izan ziren ia milioi t'erdi bizilagun galtzeko. Bi zibilizazioren arteko topaketa batean --dakigunez-- inoiz gertatu den ezbehar demografikorik ikaragarriena izan zen. Izurrite Beltzaren (1348-50) pareko hondamendia.

Honela, ba, denbora gutxian Indiak hustu egin ziren biztanlez. Egoera berriari erantzuteko, europarrek aspaldidanik ezagutzen zuten **esklabu-merkatalgo** bat gidatu zen orduan Ameriketara, Afrika-n eskuratutako esklabu beltzena. Kolonia amerikarren premiei esker, esklabuen salerosketak XVI-XVIII. mendeetan loraldi triste bat izan zuen, merkatalgo desgizatu horretarako monopolio bereziak sortuz (asiento).

Indietako biztanle-galera hura ez zen izan gaixotasun berrien ondorena bakarrik. Beste-

Bi ekonomien elkar-osagarritasuna

(Ameriketako gizarte europarra garatu ala, eta Espainian produkzio industriala aurrera atera ala, Koroak Atlantikoaren bi aldeetako ekonomien elkar-osagarritasuna geroz eta argiago ikusi zuen:).

"Monarkiaren konstituzioari jarraikiz, komeni da Ameriketan lurgintza, eta hango izadiak oparo ematen dituen laboreak, bizkortzea, batez ere Espainiako lantegietako lan eta manufakturetarako lehengaiak direnean. Honela, aldiberean, bi kontinenteen merkatalgoa zaindu eta lagundu egiten da".

(Indietako Kontseilua, 1786)

lako arrazoi sozialak ere izan ziren tarteko. Kolon-en bigarren bidaiarekin (1493) eratu zen Ameriketaren **ustiapen ekonomikoa**, Sto. Domingo irlatik hasita: bidaia hartako 1.500 espainolentzat, aberastasun ekonomikorik handiena ez zen gertatu urrea, irlako 1.100.000 bizilagun indiarrak baizik.

Indiar lanik gabeak (gogora, adibidez, arto-ekonomiak uzten zuen asti librea) lanesku merke eta erosoa eskaintzen zuen. Tentagarria zen Mundu Berriaren antolamendu ekonomikorako hartaz baliatzea, eta halaxe egin zen. "Repartimiento" deitua sortu zuten espainolek: indiar-talde bana ematen zitzaien Penintsulatik etorritako kolonuei. Horrela jaio zen "encomienda" delakoa: Erregeak kolonuari "gomendatzen" zizkion indiarrak, kristau fedea eman ziezaien (misiolari bat mantendu behar zuen zeregin horretarako), Erregerentzat zergak bil eta Inperio kolonialeko legeak betearaz zitzan. Indiar "gomendatu" hauek kolonu gomendariarentzat egin behar zuten lan, gainera.



INDIARREN GOMENDARIA. Ameriketako sistema kolonialean, "gomendariek" betekizun ekonomiko esanahitsua izan zuten. Indiar "gomendatuen" (hala esaten zen) eta gomendariaren arteko harremanak menperatu/menperatzaileen artekoak izan ziren (halabeharrez eta misiolari "babeslearen" ahaleginen kontra, jeneralean). XVI. mendeko marrazkia da hau.

Pentsa daitekeenez, lan-antolamendu honek gehiegikeria larriak ekarri zituen. Praktika desbideratuak sortu ezezik, indiarren funtsezko giza libertatea itotzen zuenez, laster hasi ziren sistema horren eta kolonuen burubideen kontrako kritika haserretuak. Eta ez arrazoirik gabe; ikusi dugu lehenago zerbait.

Kritikak gorabehera, bide honetatik, indiarren gizarteak europarren esanetara jarri ziren osorik: produkzio ekonomikoan, bizitza politikoan eta etnien menperapen kulturalean. Mexiko eta Peru-ko zibilizazio handien egiturek lur jo zuten, eta hauek eta gainerako amerikar guztiak, --pro-

jektu kolonial haren barnean-- etorkizunik gabe geratu ziren XVI. mendetik aurrera. Lurren jabetasunik gabe eta laneskua etorri berrien probetxutan galduta, oinarri ekonomikorik gabe geratu ziren jatorrizko gizarte eta Inperioak.

Ekonomi eta produkzio-sistema zaharrak behera botatzean, berriak sortu eta eratu behar izan ziren. Hondamendiaren ondoren, kolonizatzaileak jaso behar zituen egokiago zetozkion sistemak, koloniari etekin ekonomikorik ateratzeko. Horregatik oso ohartuki asmatu eta arreta guztiz zaindu zen **ustiapen-sistema berria.**

Estatuak eta metropoliak politika ekonomiko gidatu bat eraman zuten Ameriketan: Europa-tik harako joan-etorriak lehenik, eta hango iharduera ekonomiko osoa gero, Koroak ongi zaindu zituen.

Bidaietarako, Estatuak monopolioa ezarri zuen: "Indietako Ontziteria" zeritzanaren egitekoa zen Metropolia eta Indiak urtean bitan lotzea. **Merkatal monopolioa** zen Ameriketako kolonizazioa-



POTOSI: MEATZAK. Amerikaren Aurkikundeak Europa-ri urre- eta zilar-aldi berri bat ekarri zion. Penintsula Iberiarra igaro eta merkatari atzerritarren bidez, Europa-ko herrialde industriatuetara joan zen urre/zilar-korronte hura. Metal preziatu hauek prezioen iraultza ekarri zuten Europan. Hona, 1552ko marrazki honetan, Ameriketako zilar-meatzik sonatuena: Potosí, 1544ean aurkitua Peru-n (gaur eguneko Bolivia-n).



ren indar eragile nagusia, eta merkatal ikuspuntu honetatik begiratzen zen ekonomia osoa. "Merkatalgoa da monarkiaren arima" idatzi zen.

Hasieran (1521-30), merkatal harremanak %85 Antilekin egiten ziren, baina 1550etik aurrera Mexiko eta Peru-ra zuzentzen zen, %85ean, Penintsulako harremana. Bestalde, Espainiak (1561-1650) bi edo lau aldiz gehiago jaso zuen Ameriketatik, hara bidali zuen baino. Metropoliaren alde jokatuko zuen ekonomi sistema bikoitza sortu nahi izan zen Atlantikoaren bi kostaldeetan.

Lehengaien monopolioa eratu zen, gainera: gatza, tabakoa, perlak, meatzak, joku-kartak edo esklabu-merkatua Koroaren monopolioak ziren berez, eta eskubide hau hark, zuzenean nahiz bitartekoez baliatuz, erabiltzen zuen.

Urre eta zilarraren ustiapenak (ibaietan lehenengo eta meatzetan gero) garrantzirik handiena izan zuen Ameriketako ekonomian. Ez dago gauza bera esaterik **industriaz**. Industri atzerapen edo moteltasunaren zioa bi puntutan laburbil genezake: a) metropoliak berak izan nahi zuen Amerika-rako produktu-hornitzaile (nahiago zuen, hortaz, hango

PARAGUAYko MISIO-HERRIAK. "Reducciones" deitu zitzaien josulagunek antolatutako indiarren herri hauei. Haietako baten planoa da hau: Candelaria.

XVII-XVIII. mendeetan eraiki ziren, indiar sakabanatuak bildu, kristautu, eskolatu eta herribildu bezala gizartean antolatzeko: 300.000 bat guarani bildu ziren honelakoetan. Sistema sozio-politiko planifikatu jakingarri bat garatu zen erredukzio hauetan: ondasunak guztienak ziren eta bizimodua oso araututa zegoen, baina indiarrek ez zuten jasan behar gomendazio-morrontzarik.

Irudian ikus daiteke erredukzioen hirigintza nolakoa izaten zen: Eliza (I), kanposantua (II), elizetxea (III), bulegoak (IV), baratza (V), alargun-etxea (VI), plaza eta herritarren etxebizitzak.



LURGINTZA BERRITUA. Europarrek Amerika topatzean, berehala hasi zen hango laborantzaren aldakuntza: espainiarrek labore berriak eraman zituzten Ameriketara. Azukre-kanabera, adibidez, Europa-tik eramana da. Garia ere bai: honelako laboreak europarren gisara landu ziren (tresnak, animaliak, nekazal sistemak,etab.). Garai bateko laborebakarra (artoarena batez ere) hautsi egin zen, indiarrentzat ere.

industria ez indartu), eta b) Indietako hiriak ez ziren batere "hiritar" izan (nekazari-jendea zen hirietakoa, industria eta artisautzara oso gutxi emana).

Industriaren alderantziz, Amerikako **lurgintza**-ren eta **abelazkuntza**-ren kasua bestelakoa da. Mundu Zahar-Berrien artean animali eta landare-trukaketa interesgarria egon zen, eta --ondorioz-- Ameriketako lur-sail zabaletan erabat berritu zen sektore ekonomiko hau. Batez ere, meatz-hirietako bizilagun ugarien mantenurako premiazkoa zen nekazaritza, eta horregatik sektore batek besteari lagundu zion. Potosi (Bolivia) ez da, horretan, adibide txarra.

Mahastia eta ardoa, olibadiak eta olioa, kakaodi eta kakaoak garapen ona ezagutu zuten; tabakoak ere bai, noski. Produktu koloratzaileak (Brasil makila, anila, kotxinila...) ere ez dira ahantzi behar. Europa-tik hara eramandako landare berriek arrakasta ekonomiko aipagarria izan zuten; eta hain handia zeren azukre-kanaberak eta kafeak, esate baterako, gaurko gizon-emakumeontzat ez dute ematen jatorriz amerikarrak ez direnik ere.

Abereekin ere antzeko zerbait gertatu zen han. Jatorriz, etxekotutako animaliaz ez zen batere aberatsa amerindiarren mundua: Europa-tik eraman ziren zaldi, behi, ardi, txerri, asto, txakur, katu eta itxitura-hegaztiak. Konkistakoan, zaldiak zeregin behinena izan zuen, eta ondoko belaunaldietan mandoak oso ugaritu ziren, garraio luzeetarako zamari bikainak gertatuz. Gizonak zainduta, ugaritu, behi eta ardiak ugaritu ziren biziki, Ameriketako ekonomian (meatzen ondoren) bigarren aberastasuna izateraino. Bestalde, txakur edo zal-

diak basati bihurtu ere egin ziren inoiz, hiri txiki jaioberrientzat arrisku bihurtuz ere (Argentina-n, adibidez).

Belaunaldi gutxitan, Europa-koen luzagarri, eta osagarri, ziren gizartea eta ekonomia eraiki ziren Ameriketan, hango jatorrizko gizarteetatik geroz eta urrunago zeuden errealitate berriak. Hau dena, ordea, prozesu gidatu baten fruitua izan zen, eta ez --bere osoan behintzat-- ausaz gertatzen zen zerbait. Monarkiak hurbiletik zaindu eta gidatu zuen hori dena. Horretarako, **erakunde eta antolamendu politiko** kolonial bat asmatu zen.

Amerika kolonialaren erakundeztapen hau Penintsulan berton hasten da, inperio kolonial osoa metropoliko botere-erdiguneari lotuz, bai ekonomian eta administrazioan, bai kulturan eta erlijio-bizitzan ere.

Amerikarekiko harremana Sevilla-ren monopolioa izan zen XVIII. menderarte. Handik irten behar zuten ontziek; hara sartu behar zuten lehenik, handik zetozenek. Horrela, Penintsulakoek

Casa de Contratación (1503)

(Erakunde honek egiteko nagusi hauek izan zituen, 1503-1778:)

1. Nabigaziorako lemazainak eduki behar zituen. Hauen egitekoa zen, gainera, Indietan ontzien lemazain izan nahi zutenak alde aurretik aztertzea.

2. Kontratazio-Etxeak eman behar zituen, mapetan, egindako Aurkikundeen ondorioak. Lemazain nagusien eginkizuna zen hau, erret lemazainek eta etxeko kosmografoek laguntzuta.

3. Ontzi, merkatari eta merkatalgaien kontrola Kontratazio-Etxearen ardurapean zegoen.

4. Koroari zegokion "erret bostena" bildu behar zuen, gainera, Monarkiaren gastuetan laguntzeko.

(F. MORALES PADRON)



"JAUREGI HAUNDI" Dorretxea. XVI. mendean Euskal Herriko baserri eta etxeetatik milaka lagun joan ziren "Ameriketak egitera". Batzuek sona handia lortu zuten Aurkikunde eta Konkistetan: Elkano, Legazpi, Urdaneta, etab. Euskal lurren pobretasunak eta hemengoen itsasorako gaitasunak asko lagundu zuten horretan. Marrazkikoa, Legazpi Filipinen konkistariaren sortetxea da, Zumarraga-n (Elgarresta auzoan).

edo Europa-ko merkatariek zerbait nahi zutela ere, errazkiago kontrolatzen ziren hiri bakar batetik harreman-molde guztiak. Sevilla-n zeuden Amerike-tako ekonomiaz eta gobernuaz arduratzen ziren era-kundeak. **Casa de Contratación** (1503) deitua da ezagunen eta funtsezkoena.



FILIPINETATIKO ITZUL-BIDEA. Pazifikoa aurkitu ostean (1513), Ekialdeko Espezien Irlak Mendebaldetik joanez idorotzea izan zen hurrengo erronka Gaztela-ko Koroaren itsasgizonentzat.

Magalhaes-Elkanoren bidaiak erakutsi zuen harainoko bide bat, baina hango merkatalgaiak ez zegoen Afrika inguratuz portugesen bide beretik ekartzerik, nazioarteko ohiturak hautsi gabe bederen.

Ameriketatik Ekialderako bidea ezaguna zenez, beharrezkoa zen --joana etorre-rarekin osatzeko-- Pazifikoa honantza gurutzatuz, bidaia osoaren joan-etorria burutzea. Ahaleginak egin ziren Elkano-ren ondoren berehala (Loaisa-ren espedi-zioa, 1525), baina berrogei urte pasa ziren itzul-bidea asmatu zen arte (1565).

Ez da harritzekoa: mapan ikus daitekeenez, Ekialdetik Ameriketaraino bela-on-tziz iritsi ahal izateko, itzultzean, joan-bidetik gorago desbideratu behar zen, haize onak bilatuz eta Kuro-Sivo korronteaz baliatuz.

Etorbidea egiteko desbiderazio horren beharra asmatu zuen Urdaneta-k, ikaske-ta eta ahalegin saiatuen ondoren: Filipinetatik Acapulco-rako bidea irekita geratu zen horrela, gerora "Manila-ko galeoia" deituarentzat.

Kontratazio-Etxeak merkatal betekizuna zuen bereziki. Horregatik, beste erret kontseilu politiko baten agintetik zegoen: **Indietako Kontseilutik** alegia (1524). Hauxe da Indietarako erakunde gorena, eta bere indar osoan iraun zuena XIX. menderarte. Era berean, Indietan Elizari oro har, eta misiolariei berezikiago, eman zitzaien funtsezko egitekoagatik, eliz boterea ere Koroaren eskuetara bildu zen, Aita Santuen onarpenarekin **Erret Zaingoa** (Patronato Regio) sortuz: eliztarren bizitza zuzenki Zaingo honen eskuetatik zegoen, eta ez zuzenean Erroma-tik. Hiru erakundeok elkar osatzen zuten, eta hauetxek izan ziren Monarkiak Ameriketarako, Penintsulan, izan zituen nagusienak.



Ameriketan bertan, barruti administratibo handitan banatu zen Kontinentea. Zabalenak **Erreinuordeak** dira (Virreinato); lehenengo bi eraiki ziren (Mexiko eta Peru), geroago, beste bi (Río de la Plata, Nueva Granada). XVIII. mendearen azkenetan 31 probintziatan banatuta zegoen lurralde guztia. Gobernua eta justizia eramateko, gainera, beste erakundeak sortu ziren, hango beharrizanetara egokituak (Audiencias, etab.).

Tresneria politiko hau izan zen Gaztelako Koroak eta gizarteak Ameriketan ezarri zutena. Beronen bidez moldatu zen Amerika berria, bere alde on eta txar guztiekin.

BILAKUNDEAK ETA KONKISTAK, AMERIKETAN

Hego Amerika luzea zen, zabala; baina, batez ere, ezezaguna. Mendi eta lautada itzelak zituen: distantziak milaka kilometrotan neurtzen ziren. Basoak, basamortuak nahiz ibaiak sinetsi ezin halakoak gertatzen ziren. Herriak, batzutan tribu txikitan banatuta, bestetan erreinu eta inperio gaitzetan. Bilakundeak eta konkistak iparraldetik hasi ziren (Panamatik, 1526-31), hegoaldetik beranduago. Zabalkunderako erdigune nagusiak Panama, Cuzco/Lima, Quito izan ziren iparraldean; hegoaldean, Buenos Aires, baina batez ere Asunción (Paraguay). Ik. Irala bergararra hegoaldetik Perurainoko bidea egiten; Lope Agirre araoztarra Amazonetan.

5
EUROPAREN EZINEGONAK: ERREFORMA

URTEAK	GERTAKARIAK
1512/1517	Lateran-eko Kontzilioa.
1516	Erasmo: Testamentu Berriaren itzulpen berria (grekotik zuzenean latinera).
1517	Luter-en tesiak.
1519	Karlos IV.a, Alemanian enperadore.
1521	Luter eskomikatuta.
1524/1525	Nekazarien errebolta Alemanian.
1529/1531	Erreformarekin hitzarmen politikoa, Alemanian.
1533	Lutertarrak armatuta
1534	Ingalaterrako Elizaren buru Erregea.
1536/1538	Kalbin Geneva-n, lehenengo aldiz.
1536/1555	Erreformaren kontrako gerrak, Alemanian.
1541/1564	Kalbin Geneva-ko Erreformaren buru.
1545/1563	Trento-ko Kontzilioa, hiru ekinaldi banatutan.
1546	Luter-en heriotza.
1547	Ingalaterrako Enrike VIII.aren heriotza.
1555	Augsburg-eko Bakea: Alemanian erlijio-bakea.
1558/1603	Ingalaterran, Elisabet I.a.
1562/1598	Frantzian erlijio-gerrateak.
1564	Kalbin-en heriotza.
1571	Leizarraga: "Testamentu Berria". Lepanto-ko Gudua.
1572	San Bartolomé Gaua.
1598	Felipe II.aren heriotza. Nantes-eko Ediktua: higanauteen eskubideak.



XVI. mendeko Europan erlijio-arazoak lekurik handiena izan zuen. Mende hura erabat ulertezina gertatuko litzateke garaiko ahalegin, ezinegon, liskar, erreforma eta gerrate erlijiosoak gogoan hartu gabe. Elizen arteko lehiaketek eta herritarren erlijio-bizikizunek gizarte-bizitzako hainbat alde ezberdin ikutu zuten: eliz zereginak edo pentsamendua bezala erakunde politikoak, artea bezalatsu ekonomia.

Erlijio-arazoak guztiz kezkaturik ageri zaigu, ba, mende hartako Europa. Alde honetatik, Erdi Aroko izpiritu-balioak oso bizirik zeudela esan genezake. Eta ohar honek, berdin balio du katoliko nahiz protestanteentzat: denak borrokatzen dira, eta guztiek ematen dituzte beren ahaleginak halako edo honelako ideia erlijiosoren baten alde edo kontra. Ez da, beraz, batere harritzekoa eliz projektu handietan gizarte osoa buru-belarri murgilduta ikustea. Horixe gertatzen da, hain zuzen, elizaren "erreforma" deituekin ere.

EUROPAko GATAZKA-GUNEAK. (XVI. mend.). Mende hartako gatazka eta gerrek erdigune, fronte eta molde ezberdinak izan zituzten Europan. Mapan ikus daitezke horrelako nagusienak. Monarkia kristauen edo katoliko-kristauen artekoak dauzkagu multzo batean, eta kanpotik erasoka zetorren Inperio turkiarra bestean: alboko fronte hau arriskutsua zen, baina europarren borrokak batez ere beren artekoak izan ziren. Banan banan ikus daitezke arazoak, mapan.

* 1. Bi Erreformak

Erreformaren asmoa eta eskea Erdi Arotik zetorren; ez zen, inondik ere, XVI. mendeko asmakizuna. Eliza Katolikoan eta gizarte osoan Elizaren eta eliztarren berrikuntza eskatzen zen: Ordena erlijioso eta Diozesietan, adibidez, eta behin baino gehiagotan aginte politikoa bera aurretik zela. Hobekuntz gogo honek, ba, era askotako erreforma txiki eta handiagoak bultzatu zituen Eliza Katolikoaren barnean. Hortaz, Erromatik gidatutako nahiz Erromarekin etengabe egindako **Erreforma Katolikoa** aipatu behar da. Izendapen-modu honen barnean sartuko lirateke Elizak bere kabuz eta bere gisara moldatutako erreformak, eta, era berean, baita Erreforma Protestanteak eraginda, azkenik Trentoren ondoren Eliza erromatarraren barnean ezagutu zen berrikuntza (zentzu batean Kontrarreforma ere izan zena).

Baina "Erreforma" izena batez ere, Eliza katolikoak egindakoari baino areago, **Erreforma Protestantea**-ri eman ohi zaio. Erreforma hau Erromatik urrunduz eta haren kontra egiten da, eta jokabide honek ondorio sakonak izan zituen mende hartan eta ondokoetan. Europa kristau mendebaldarra bi zatitan banatu zen orduan: Hego Europa ka-

Erlijioa eta politika

"Moderniaren lehenengo mendeetan, batez ere, pentsaezina da erlijio-oinarririk gabeko gizarterik. Bossuet-ek oso ederki esan zuen pentsamendu honetan: 'Inolako oinarri erlijiosorik gabe eraikitako agintea duen Estatuaz zer esan beharko genukeen galdetuko bagenu, berehala ulertuko genuke galdera kimeriko horiei erantzutea funtsik gabeko zerbait dela. Erlijiorik gabeko herriak, aldi berean hiritartasunik gabeak ziren, benetako menpetasunik gabeak, eta erabat basatiak ziren'.

Garai hartako gehienentzat, fede-batasunak zimentarri sendoa emater zion ordenamendu sozialari. 'Une foi, une loi, un roi' (=Fede bat, Lege bat, Errege bat) esaera zahar frantsesak aditzera ematen duena garaiko monarkia guztiena izan zen". *(H. LAPEYRE)*



tolikoa, eta Ipar Europa eta Erteuropa protestanteak. Hautsi egin zen, beraz, pixkaka pixkaka Europa mendebaldarrak Erdi Aroan lortutako batasun erlijiosoa.

* 2. Erdigune, molde eta belaunaldiak

Erreforma protestanteak bere erdigune nagusiak izan zituen, eta sorleku hauetatik zabaldu zen Europara, nonahi era berean errotu ez bazen ere. Lehen-lehenik **Alemania** da aipatu behar dena: Alemanian 1517an eman zitzaion hasiera mugimendu berriari eta bertatik zabaldu ziren Protestantismoaren lehenen ideia berarizkoenak. Lutertarren Protestantismo Ebanjelikoa da hau.

Alemaniatik hasita, **Suitza** da berehala (Zwinglio, 1525-31) Protestantismoaren beste sortetxea: Hemen, gainera, molde berriko pentsamendu eta teologia agertuko dira. Suitzako hirietan, beti ere Alemanian gertatzen ari zenari begira, gidari erreformatzaileek lehenik eliz modu ezberdinak eraiki zituzten, gerora batasun helduagoa PROTESTANTISMOAREN ERDIGUNEAK. Hogei Bat urteren aldearekin, bi erdigune nagusitan ondu zen Protestantismoa: Alemanian (1517-1555) eta Suitzan (1535-1564). Erdigune horietatik zabaldu zen gero beste herrialde eta erreinuetara: Alemaniatik Ipar Europara, Suitzatik Frantzia, Herbehereak eta Eskoziara, adibidez.

Eliza eta Estatua

"Elizaren eta Estatuaren arteko harremanetan ez ziren leku guztietan irtenbide berak aurkitu. Monarkia handietara etorriz, ikus dezagun lehenik Ingalaterrarena, adibidez. Gainerako monarkietan baino zorrotzagoa zen herri honetan Aita Santuak ezar zitzakeen eskakizunekiko oposizioa. XIV. mendean zehar erabaki-zerrenda luzea hartu zen Aulki Santuaren kontra eliz babestaileen (patroiok, erregea bera nahiz partikularrak izan) eskubideak defendatzeko. Neurri hauetatik garrantzizkoena "Praemunire facias" arautegia izan zen, gerora Enrike VIII.ak abildade osoz erabiliko zuena".

(H.LAPEYRE)



INPERIOko AUZITEGI BAT. XVI. mendeko marrazki honetan Habsburgetarren tribunal bat ikusten da. Protestantismoak, arazo erlijioso bat ezezik politikoa eta juridikoa ere sortu zuen: "Heretiko" deituei zein tratu eman behar zitzaien gizartean eta erakundeetan? Legeak eta gizarte-harremanak berak ere birmoldatu beharra zegoen Inperioan. Horretarako, antolamendu instituzionalek eta armek ere izan zuten zeresanik.

lortuz. Protestantismoaren bigarren belaunaldian hedapen-indar azkarra erakutsi zuen Protestantismo suitzarrak, batez ere Kalbin-en gidaritzapean, 1540aren ingurutik aurrera. Kalbindarren bigarren Protestantismoarekin topo egiten dugu, beraz, hemen.

Erdigune nagusi hauetatik zabaldu zen beste zenbait lurraldetara Protestantismoa: Eskandinavia, Herbehereak, Eskozia, Frantzia, Danubialdera... Batzuetan, herrialdeak erabat protestantetu ziren; bestetan, gatazka gogorrak sortu ondoren gutiengo bezala geratu ziren erreformatuak.

Baina, Alemania eta Suitzako bi erdigune nagusi haiek ezezik, bada hirugarren bat ere: **Ingalaterra.** Neurri handi batean, hemengo Erreforma beregaina eta autonomoa zen, jaiotzean bederen Alemania edo Suitzara begira jaio ez zena. "Anglikanismoa" zen, hau da, batez ere Erromaren aurrean librea eta askea izan nahi zuena, "ingelesa"; kalbinismo edo luteranismotik bestelakoa, "nazionalagoa" eta, beraz, esportaezina.

Erreformaren barnean, ez da ahantzi be-



BATASUN EZINA. Honelako irudi mitologikoen bidez irudiztatu ohi zuen propaganda katolikoak Protestantismoaren batasunik eza. Labur esateko: pizti bakarra eta buru asko.

har, **batasunik ez** zen gorde ahal izan, ez erakundean, ezta doktrinan ere. Alde batetik, Eliza ofizial handiak dauzkagu, normalean tokian tokiko aginte politikoak babestuak (honela, Alemanian, Eskandinavian, Suitzan edo Ingalaterran); baina, bestetik, minoria protestante saihestuak, tokiko Eliza ofizialari kontrajarriak (menonitak Herbeheretan, etab.) eta agintearen babesik gabeak. Batzuetan jatorrizko herrialdean ofiziala zena (kalbinismoa Suitzan, adibidez), erbestera zabaltzean, lehenengo batean behintzat ez-ofiziala gertatzen zen lurralde berrian (kalbinismoa bera adibidez Ingalaterran edo Alemanian).

Eliza protestante handi bakoitza saiatuko da, horregatik ere, bere ortodoxia mugatzen, eta komeni zitzaizkionetan legearen indarraz ezartzen. **Ortodoxia protestantea**, ba, ez zen Erromaren aurrean edo kontra bakarrik definitzen, baita talde saihesbera guztion aurka ere. Horregatik idatzi izan ziren "Aitorpenak" edo fedezko "Azalpenak", hau da, Eliza bakoitzaren sineskizunak ofizialki eta modu erabilgarrian laburki aditzera ematen zituzten formulak.

Protestantismoa: batasunik ez

(Elizaren eta Erreformaren batasunak biziki kezkatzen zuen Luter. Honela idazten zion Melanchton teologo lagunari 1538an:)

"Etorkizunean zenbat maisu ezberdin agertuko zaigu? Nahasmendua azken muturreraino iritsiko da. Inork ez du onartuko besteren eritzi edo agintaritzak gobernatzea. Bakoitzak bere buruaren 'rabbi' izan nahiko du: begira hor, adibidez, Osiander edo Agrikola...! Bada hor eskandalorik franko! Nolako arinkeria, gero! Onena zera izango litzateke, printzeek Kontzilio baten bidez aurrea har diezaietela gaitz hauei. Baina aitasantuzaleak ezkutatu egingo lirateke: halakoxe beldurra diote argiari!". *(M.LUTER)*

II. ERREFORMAREN ARAZO SOZIO-ERLIJIOSOAK

Erreforma protestantearen sorrera-arrazoiak ezin litezke kausa bakar batera laburbil edo muga. Historilariak, eztabaida garratz eta luzeen ondoren, gaur egun ados datoz gertakari haren iturburu konplexuak azpimarratzean; baina ez dute

Hierarkia aberatsa

(Elizaren orduko sistema ekonomikoak abusario handiak sortu zituen hierarkiaren eta fededun herritarren artean. Hemen aipatzen denaren kontra altxa zen Luter-en ahotsa:)

"Albert Brandeburg-ekoaren kasua eskandalagarria zen. Mainz-eko Artzapezpiku bilakatu ondoren, Magdeburg eta Halberstadt-eko apezpiku izaten ere utzi zitzaion aldi berean. Hogeitabost urte zituen orduan. Horretarako eskubideagatik ordainkizun astunak ezarri zizkion, ordea, Aita Santuak. Erantzukizun ekonomiko horiei aurre egiteko Fugger-tarrengana jo behar izan zuen, mailegu bila. Hala ere, Leon X.a Aita Santuak diru-bilketarako beste aukera eskaini zion: Albert-en eliz-barrutietan, San Pedro elizaren eraikuntzarako egingo zen indulgentzi predikaldian jasotakoaren erdia eman zion Aita Santuak Artzapezpikuari".

(J.R.HALE)

adostasun bera kausa bakoitzaren munta edo lehentasuna neurtzean. Hona, ba, Protestantismoaren agerpena ulertzeko aipatu ohi diren arrazoiak eta egiten diren bereizkuntzak.

* 1. Egiturak eta erabaki pertsonalak

Hasteko, bi maila ezberdinetako kausak bereizi behar dira Erreformaren jaiotza esplikatzean: pertsonalak eta egiturazkoak. Hau da, erreformatzaileek beren erabaki erlijiosoak hartzeko zituzten arrazoi subjetibo eta pertsonalak, alde batetik, eta erreformatzaileengan ez baizik gizartean edo Elizan zeuden baldintza sozio-historikoak, bestetik. Egia da, haiek eta hauek elkarrekin trabatuta egon litezkeela; baina, hala ere, ez dira nahasi edo berdindu behar.

Luter-en asmoak, nortasunak edo historia **pertsonalak** garrantzi handia zuten noski, gero egin zuena burutzeko gaitasun bat eman ziotelako; baina hori dena ez zen aski garaiko fededunen elkartean, Elizan eta gizarte osoan halako mugimendu erlijioso eta soziala piztu eta aurrera atera ahal izateko. Protagonista gutxi batzuen borondateak ez



ERREFORMATZAILEAK. Nortasun handiko gidariak izan zituen Erreforma protestanteak. Batzutan elkarrekin lanean, bestetan elkarren kontra, mugimendu bizia gidatu zuten. Hemen ikus daitezke batzuk: Luter, Kalbin, Buzer, Zwinglio, Melanchton, etab. Hauek izan ziren edozein mugimendu sozialek beharrezkoak dituen lemariak.

dezake Erreforma osorik esplikatu, milaka eta milaka lagunek onartu behar bait zituen erreformatzaileen erreforma-proposamenak, asmo berri hau benetako mugimendu sozial bilaka zedin.

Erreformaren arrakasta, askoz ere sakonago eta zabalagoak ziren **egoera eta egitura**-tan oinarritu zen: garaiko klase-interesetan, orduko erlijio-sentieran, politikoen arteko botere-nahietan, Elizaren desegokitasunetan, herri eta nazioen sentimenduetan, etab. Egoera estruktural horien ezinegonei ahots egoki eta entzungarria eman zieten Erreforma-gidariek, eta egiteko horixe izan zen, azken finean, Luter nahiz Kalbin baten meritua: garaikideei bide onargarri bat proposatzea, alegia. Hortik aurrera laguntza modu ezberdinak bildu ziren erreformatzaileen ingurura.

Erreforma, gizartean

(Erreforma protestante jaio berriaren alkantzu soziala Alemaniatik honela ematen zion aditzera Nuntzioak Erromari:)

"Luter mila bider hil da ere, beste mila Luter jaioko dira, eta badirudi Hutten horrek ere, inbiri ezkuturen batek zirikatuta edo, bere lehentasuna nahi lukeela. (...). Hura hilda ere, gainerako noblezia honek eramango du, bai, aurrera hasitako ahalegin hau". *(Alexander Nuntzioak, 1521)*

* 2. Kausa erlijioso-kulturalak

Orduan, alde bateko nahiz besteko eliz arduradunen artean, eta gaur eguneko historilarietan ere, puntu batean zegoen eta dago akordio teoriko osoa: XVI. mendearen hasieran, Eliza erromatarrak behar-beharrezkoa zuen Erreforma eraberritzaile bat. Eliztarrak ezezik, agintari politikoak ere bat zetozen premia hori aitortzean.

Banatuagoa ageri zen, ordea, eritzi hori erreforma nork, nola edo noiz egin behar zuen eztabaidatzean: Erromak ala Erregeak, Kontzilioak ala Aita Santuak? Nola egin, gainera: goitik behera, dekretu bidez, ala kristau-herri osoak parte-hartuz? Eztabaidek eta interes zaharkituek Elizaren eraberrikuntza eta eguneratzea balaztatzen zuten bitartean, Protestantismoaren proposamena

Jainko Errukiorra

(Honela azaltzen du historilari batek Luter-en bekatuarekiko gogoeta:)

"Erromatarren Epistola-ri iruzkinak egitean (1515-16) aurkitu zuen Luter-ek bere teologiaren pentsamendu ardatza. Bekatua eta tentazioa gauza beretzat ematean (Pedro Lonbardiarrari jarraikiz), gizakiak bizitza osoan bekatari eta ezduin irauten duela konbentzitu zen, eta betiko zoriona merezi izateko zearo ezgai dela, beraz. Jatorrizko bekatua sakonegia izan da gizakian, larriegia. Baina Jainkoak ez ditu bekatariaren hutsegiteak aintzakotzat hartu nahi: ez dizkio egozten. Jainkoa erruki hutsa da". *(DELUMEAU)*

UNIBERTSITATEA ETA ERREFORMA. Alemaniako hamabost Unibertsitatetako estatistika da hau (1501-1560). Guztira 7.317 ikasle pasa ziren hirurogei urtetan (bakoitzari bost urteko egonaldi bat emanik), baina oso era ezberdinean banatu ziren urteak zehar: 1501-20 urteetan gora egiten du ikasle-kopuruak; 1521-1550etan, berriz, beheragotik dabil; Augsburg-eko Bakearen aurretxoko eta ondorengo urteetan dator gorakada berria. Erreformak eta erlijio-arazoek ez zioten lagundu, nonbait, Unibertsitateari urte haietan. Hala ere, ikustekoa da Luter-en Unibertsitateko erritmo bereziagoa: handiena bera izan zen, baina 1516-20etan ezagutu zuen lehenengo goraldia eta, beheraldiaren ondoren, besteek baino lehenago indarberritu zen (1536-45) berriz ere. 1501-1560 urte horietan, unibertsitari alemanetatik % 18 Wittenberg-etik pasa ziren.

UNIBERTSITARIAK ALEMANIAN

Urteak	*Ikasleak (15 Unib.)*	*Wittenberg*
1501-05	*3.346*	*527*
1506-10	*3.687*	*308*
1511-15	*4.041*	*364*
1516-20	*3.850*	*600*
1521-25	*1.994*	*379*
1526-30	*1.135*	*250*
1531-35	*1.645*	*371*
1536-40	*2.307*	*586*
1541-45	*3.121*	*879*
1546-50	*3.455*	*640*
1551-55	*3.670*	*866*
1556-60	*4.334*	*960*
	36.585	*6.730 (%18)*

Luter-en Unibertsitatea (Wittenberg) izan zen ikaslez lehenengoa: 6.730 ikasle. (Hurrengoa: Leipzig, 5.941 ikaslerekin. Unibertsitatearteko batezbestekoa, ordea, askoz beherago zegoen: 2.444 ikasle).

jaio zen, egitekoa zenari askoren ustez oinarri hobeak eskainiz.

Horregatik, ba, garaiko erlijio-sentierari erraza gertatu zitzaion Protestantismoari baietza ematea: pentsamendu berri honen muina garaiei ongi egokitua zetorrelako. Fedezko zuzenespena, apaizgo unibertsala edo Biblia soiletiko hutsezina (Protestantismoaren funtsezko ideia ardatzak hiru horietara laburbilduz esateko), garaiko beste hainbat premia erlijiosori erantzutera zetozen.

Bekatu pertsonala-ren zentzua oso bizia zuen Pizkundean herritar fededunak: antsia eta itolarria, handiak ziren norberaren eda bekatu "kolektiboen" aurrean. Erdi Arotik zetorren larria zen hau: XIV-XV. mendeetan gerrate eta izurriteak benetan lazgarriak izan ziren. Ezbehar hauek epeka

epeka, etengabe, errepikatzen ziren, eta kristau-herriaren bekatuen zigor-ordaina zirela pentsatu ohi zen. Herioaren beldurra hezurretaraino sartuta zegoen jaiera eta eliz ospakizunetan: 1465-1500. urteetan, adibidez, ehun bat edizio izan zituen "Ars moriendi" liburuak (Heriotza onerako gidaliburu batek). Ikonografian, teatroan eta predikuetan heriotzaren presentzia zirarragarria zen: San Bizente Ferrer edo Savonarola-ren hitzaldietan, edota garaiko herio-dantzetan (52 bat honelako antzerki ezagutzen dira, esate baterako). Fededunen itolarri honi aringarririk emateko, Elizak batez ere Santuen jaierak eskaintzen zituen; baina, hala ere, herriaren baitan benetako kristau-baikortasunik piztu gabe. Apaizeriak ez zuen asmatu erlijiotasun estu honi erantzuten. Protestanteen "fedezko zuzenespena"ren doktrinak, hain zuzen, egoera honi aurpegi eman nahi zion. Jainkoaganako konfidantzazko fede baten premia aldarrikatzen zuen honek.

Hor, beraz, apaizeriaren ezgaitasun bat ageri zen, eta ez da batere harritzekoa garai beretsuan, hain zuzen, **kristau-apaizgoa**-ri buruz ere doktrina berriak agertzea. Eliztar laikoen erlijio-bizitzak apaizengandik bide autonomoagoak hartu zituen: Alemanian eta Herbehereetan Mistikak loraldi ederra ezagutu zuen. Fededun laikoek "Kristoren antz-bidea" liburuan edo herbeheretar Biziera Elkartuko Anaien lagunartean, adibidez, apaizen ohizko sakramentuetatik urrun ere, fedearen bizipen pertsonalagoa lor zezaketen. Hori zen izpiritualitate berriek eskaintzen zutena. Eliz erreforma baten faltaz apaizaren irudi soziala hondatzen ari zen bitartean, fededun herritar landuek otoitz-modu berrietan zehar egin zezaketen Jainkoaganainoko bidea. Kristau bataiatu arruntak,

Bataiatuen apaizgoa

"Honela dio San Paulok: 'Zuek, kristauok leinu aukeratua zarete, erret apaizgoa, herri santua, Jainkoak bildu duen herria, ilunbeetatik argi miresgarri batera deitu zaituzten Haren bertuteak zabaltzeko bildutako herria'.

Hau da apaizgo unibertsalaren teoria. Mezu hau ulertu zuenetik, Hierarkiaren baliagarritasuna ukatu gabe ere, Luter-ek ez du ikusiko apaizen eta fededunen artean izaerazko ezberdintasunik".

(DELUMEAU)

Doktrina lutertarren indarra

"Doktrina benetan iraultzailea eskaini zien Luter-ek bere garaikoei. Harreman berriak ezarri zituen Jainkoaren eta gizakiaren artean; gisa berri batez azpimarratu zuen Jainkotasun ezkutu eta agertuaren paradoxazko izaera. Teologia lutertarrak, lehenago ezezaguna zen jaiera-modu bat sortu zuen. Izadiaren gaizkia, Jainko-haserrearen aurrean dugun bekatu-izua, Jainkoaren eskakizunen aurreko giza erantzun-ezin osoa: hori dena poz eta kontsolamendu-iturri bihurtzen da Luter-engan".

(K. HOLL)

ba, bere eskuetan har zezakeen, apaiz ordenaturik gabe ere, bizitza ebanjeliotar jator baten ardura: kristau denak ziren apaiz, gainera, Bataio hutsaren indarrez.

Baina kristau herritarraren eskola, batez ere, **Biblia**-n zegoen lehen-lehenik (hala zioten maisu berriek, humanistak ere tartean zirela): izan ere --Sakramentuek ez bezala-- aukera ematen bait zuen honek norberak bakarka (eta eliz Hierarkiatik aparte ere) Jainkoagana hurbiltzeko. Inprimategiaren zabalkundearekin, gainera, erraztasun hau areagotu baizik ez zitzaion egin sinestunari: 1520aren aurretik, Biblia osoaren 156 edizio egin ziren, latinez, eta herri-hizkuntzatan ere hasiak ziren argitalpen biblikoak. Bere burua ez erreformatu eta ez garbitzen zuen Elizaren aurrean, kristau xumeak Biblian aurki zezakeen, ba, bere salbamen-segurtasuna, Hierarkiagan topa zitekeen laguntzan baino hobeki. Humanistek ere Jainko-Hitzaren grina azkartu egin zuten, aldiberean norberaren barne-erlijiotasuna goraipatuz (Sakramentu-zalekeriaren kontra): Bibliaren argitan, Ebanjelio-bizitza barnetasun isil eta ezkutuan hobeki bizi zitekeen, eliz edo herri-ospakizun arranditsuetan baino.

Hona, ba, arrazoiak: erreformaren baten gogoak, salbamen-gogo larriak, kristau laikotasunaren balioztapen berriak eta, beronen parean, apaizgo hierarkikoaren desbalioztapenak nahiz Bibliaren berraurkikundeak, guztiok lagundu zioten Erreforma Protestantearen sorrerari. Arrazoi erlijioso-kultural hauei sozio-ekonomikoak ere gehitu zitzaizkienean, Luter edo beste erreformatzaileen ideiek ateak irekita aurkitu zituzten.

* 3. Arrazoi sozio-ekonomikoak

Eliza erromatarra, fededunentzat sineskizunen eta doktrina jakin baten altxorra izateaz gain, erakunde sozio-ekonomikoa ere bazen. Eta eliz antolamendu horrek, ondasun ekonomiko batzuren gain zeukan jasota bere bizitza eta **presentzia soziala**. Herrialde eta erreinuetan katedral, monastegi, parrokia eta beste eliz eraikuntzek beren lur, mendi, eskubide ekonomiko, hamarren edo zerga-eskubideak izan ohi zituzten, elizgizon eta elizemakumeak mantendu eta eliz erakundeak bere bizkar zituen zerbitzu sozialak eramateko. Izan ere, garai haietan Estatuak ez zuen oraindik zaintzen gizarteko hainbat beharrizan: bidez bide zebiltzan pobre eta eskaleak, gaixoak eta izurriteak jotakoak edo eskolatu beharreko haurrak... holako askoren aterpe izan ohi ziren konbentu eta elizetxeak.

Eliza aberats baten arazoa zegoen tartean, egoera honen alde izpiritual eta material on eta txar guztiekin. Eta ez dugu ahantzi behar, gainera, ondasunek berekin ekarri ohi duten alde politikoa. Estamentu-gizarte hartan, maizenik, on-



SANT'ANGELO GAZTELUA. Erromako Aita Santuak indar erlijioso, moral, politiko eta ekonomikoa ziren. Eta indar armatua ere bai: Klemente VII.a gaztelu honetara bildu zen, Karlos V.ak Erroma setiatu zuenean (1527). Arrazoi sozio-politikoek ere nahasitako gerrate hauek ez zioten eliz berrikuntzari sobera lagundu.



FELIPE HESSEkoa (1504-1567). 1524ean protestante egin zen, eta mugimenduari erakunde politiko-armatu bat ere ematen ahalegindu zen, Enperadorearen kontra erlijio-libertatea zaindu nahiz.

dasunak zituenak **aginte politikoa** bere eskuetan izan ohi zuen, ez gertatzez bakarrik, baita eskubidez ere. Gotzain eta abadeak, adibidez, behin baino gehiagotan lurralderen bateko jaunak ere izaten ziren. Alemanian, esate baterako, hainbat eliz jaurerri topa genitzake XVI. mendearen hasieran. Baina, elizgizonak jaunak suertatzeaz gain, alderantzizkorik ere gertatu ohi zen: laikoek, eliz fundaziogile bezala eta, eliz ondasunen gain eskubideak ere izan ohi zituzten. Laiko askok bazuen, beraz, eliz ondasunetan eskuhartzeko ohiturarik: hortaz, elizgizon eta laikoek elkarren gain eskumen politikoa gisa askotan izan zezaketen. Bestalde, eliz agintearen (apezpiku, Aita Santu, etab.) eta aginte zibilaren (errege, jaun, etab.) arteko mugak behin eta berriz birmugatu beharra izan zen: berdefinizio hori Konkordatuen bidez lortzen zen inoiz edo bestetan, baina bi botereen arteko gatazka urrutitxo joanez gero, gertagarria zen bien arteko etena ere.

Erroma galdua

(M.Luter-ek honela idatzi zion Aita Santuari, 1520an:)

"Erroma galduta dago honez gero. Jainkoaren haserrea, erori da haren gain, Kontzilio orokorren etsaia bait da, ez du argibiderik,ez erreformarik onartzen, eta, hala ere, ezin du bere izaera haserrekor eta antikristaua balaztatu. Horregatik eman dit min zu, Leon jaieratsu hori, Aita Santu garai hauetan gertatu zarela ikusteak, garai hobeagotan izatea merezi zenuen hori. Aulki erromatar hori ez da zure duin, ez zure antzekoen duin, izpiritu gaiztoarentzat izan beharko luke horrek".

(M.LUTER)

Eliz antolamendu politiko-ekonomikoa handia zen, beraz, eta maila horretan gizartean aldakuntzak gertatuz gero, oso arrazoizko bezala ager zitekeen askorentzat elizaren egoera ekonomikoa ere aldatu beharra, garai berrien eskakizun sozial berriei egokitzapen horrekin erantzun ahal izateko. Horregatik ere zartatu zen, beraz, eliz eraikuntza hura, tokian tokiko galdakizunen zamapean, kasu bakoitzean era ezberdinean noski.

Alemaniako Erreforma Protestantearen sorrera-arrazoi sozio-ekonomikoak puntu nagusi hauetan laburbil genitzake:

1) **Erromaren kontrako aierkundea** bizia zen Kristandadean. Alemanian bereziki, tradizio

luzea zuen sentimendu honek: "Izan dadila libre Alemania. Ez dezagun ahantz alemaniarrak garena" (U. Hutten, 1520). Eta Hutten ez zen lehenengoa Erromaren kontra askatasun nazionala eskatzen: Bohemiak ere, XV.ean, bere heroi nazional bezala ikusi zuen Hus heretikoa eta antierromatarra.

2) **Nobleziaren burubide anti-inperiala:** XVI. mendearen hasieran, Alemanian ikusteko zegoen oraindik boterea nola banatuko zen, eta lurraldeetako eskumena nola eratuko. Karlos V.a, Maximilian baino ere arrisku okerragoa izan zitekeen lurraldeen jabe ziren jaunentzat. Luter-ek ongi ulertu zuen arazoa noble hauen laguntza bilatu zuenean, alegia, "Nazio alemaniarreko noblezia kristauari" idatzi zionean (1520). Luter-ek aukera historiko asmotsu bat eskaini zien nobleei.

3) **Egoera ekonomiko-soziala** ezin da saihestu Erreforma lutertarraren berehalako zabalkunde soziala ulertzeko. Noblezia txikia zen (nekazariak eta zaldunak) ekonomi aldakuntzek gehien zigortutakoa, Pizkundeko merkatalgoaren eta gerra-tekniken arrakastak laborariak eta zaldunak gogor jo bait zituen. Noblezia hau indarberritzeko ez



"NAZIO ALEMANIARREKO NOBLEZIA KRISTAUARI" (1520). Luter-ek, Alemaniako fededunei ezezik, hango indar sozialei ere zabaldu zien bere mezua. Hemen jasotzen dugun hau esanahitsua da zentzu horretan.



NEKAZARIAK. XVI. mendean (eta XX.erarte ere) Europa batez ere nekazari-herria zen. Mende hartako egutegi bateko irudiak dira hauek. Klase sozial honen ezinegonei itxaropen berri bat piztu zien Erreforma protestanteak.

zen bide txarra eliz lurralde zabalak eskuratzea. Bestalde, nekazalgo xumea ere kasik etengabeko erreboltan bizi zen 1475-1517. urteetan Alemanian. Alemaniarren nortasuna finkatzeko, nobleziaren hobe-nahiak asetzeko, agian herri osoan oreka berri bat ekar zezakeen Erreformak, Elizaren ondasunak birbanatzean.

III. ERREFORMA PROTESTANTEAK

Arestian esan den bezala, Protestantismoan erreforma-gune bat baino gehiago ezagutu ziren XVI. mendean, eta erdigune nagusienek aparteko beren gidariak ezezik, garrantzizko bereizgarriak izan zituzten doktrina eta eliz antolamenduetan.

Hemen hiru erdigune dira berezikiago aipatuko ditugunak: Alemania, Suitza eta Ingalaterra. Lehenengo bietan, nortasun handiko teologo eta erreformatzaileak izan ziren gidari, Luter eta Kalbin esan nahi da; hirugarrena, ostera, Erroma eta Ingalaterraren arteko harreman-haustearen ondorioa izan zen hasieran, Zisma bat areago, herexia baino.

Luter, Worms-eko dietan (1521)

"Majestate horrek eta Printze Jaunok erantzun soil eta zehatza nahi duzuenez, ez hortzik ez adarrik duena emango dizuet, hau da, Eskritura Santuen lekukotasunarekin edo jendaurreko argudio eta arrazoi argi eta agerikoen bidez garaitzen eta gezurtatzen nauten kasuan salbu (bestelakoan ez bait dut Aita Santuagan ezta kontzilioetan bakarrik sinesten: izan ere begien bistakoa bait da sarritan erratu direla eta beren buruak kontraesan dituztela), eta ni bestalde neurez aipatutako pasarteekin konbentzituta bait nago eta nere kontzientzia Jainkoaren hitzari lotuta dagoenez, ez dezaket eta ez dut nahi atzera egin, ez bait da segurua eta aholkagarria zerbait kontzientziaren kontra egitea. ***Hemen nago, ezin naiteke bestela joka. Jainkoak lagun nazala. Amen".***

* 1. Luteranismoa

Luteranismoa, hau da, Luter-ek sortutako erreforma-mugimendua izan zen gerora "Protestantismo" deituari hasiera eman ziona (1517). Lehenen

unetik noski geroko asmo eta etorkizuna erabat mamitu gabe baldin bazeuden ere, urte hartan erein zen lehenen hazia esan dezakeguna. Bizitza luzeko errealitate historikoek (eta halakoxea izan da Erreforma Protestantea), hasiera-une jakin bat izan dezaketen neurrian bederen. Mugimenduak izena, eta izana ere hein batean, Luter-i zor dizkio.

a) Martin Luter (1483-1546)

Martin Luter, nekazari-familiako semea zen, eta Erfurt-eko Unibertsitatean ikasi zuen Filosofia; doktoregoa lortu ondoren augustindar ermitauen artean egin zen fraile. Laster apaiztu zen, eta Wittenberg-en irakasle izendatu zuten. Ordena barruko arazoengatik Erroman egonaldi bat egiteko egokiera izan zuen (1510): ez zen batere pozik etorri han ikusitakoarekin.

Ondoko urteetan eboluzio teologiko sakona eta erlijio-bizialdi beroa izan zituen. Ahalegin hauetan zebilela, salbamenaren larriak eta beldurrak atzeman zuen Luter, garaiko beste askori gertatu zitzaion bezala. Erantzun bila zebilela, bere ikasketa bibliko eta mistikoak izan zituen Luter-ek argigarri eta aringarri: izpirituaren baretasuna eta salbamen-segurtasuna bide horretan ikusi ahal izan zituen.

Indar handikoa izan zen Luter-ek pertsonalki Erreformaren jaiotzan eta ondoko mugimenduan izan zuen eragina: idazlanen bidez eta ekintzarekin, bere ingurura bildu zituen orduko kezka, hobe-nahi eta interesak. Buruzagi, gidari eta Jainkoaren ahots suhar bezala, profeta-egitekoa bete zuen Luter-ek: bazetorren uholdeari ubidea eman



MARTIN LUTER (1483-1546).Fraile augustindar hau gertatu zen Erreformaren lehenengo guraso eta gidari. Pentsalari eta ekintzailea izan zen Luter. Europaren esperientzia erlijiosoan ildo sakon eta luzea ireki zuen.



LUTERen KONTRAKO BULDA. Berehala izan ez bazen ere, erantzun zion azkenik Aita Santuak Luter-en erronkari: "Exsurge" Bulda (1520).

zion, eta mugimendu osoari bere nortasun bikainaren eraginkortasuna. Garaiko askoren ahots bilakatu zen, eta arrakasta hori ezin zaio uka.

b) Erreforma, mugimenduan (1517-1555)

Erreformaren lehen **PROPOSAMEN** teologikoa gertakari oso arrunt baten inguruan egin zen: Erromako San Pedro elizaren eraikuntza laguntzeko indulgentzien predikaldia eratu zen Alemanian, 1517an. Limosna eta otoitza nahasiegiak agertu ziren prediku haietan: ez zen dena doktrina katoliko zuzena, eta Luter-ek bere **95 Tesi**-en bidez egin zien aurre gehiegikeriei. Eliza garbiago baten gogoarekin hasi zen, beraz, Erreforma lutertarra. Inork ez zekien oraindik norainoko ondorenak izan zitzakeen keinu hark.

1518an Erromara deitu zuen Luter Aita Santuak, baina Saxonia-ko Federiko Hauteslearen babesa izan zuen augustindarrak, hain zuzen Karlos-ekin lehian enperadoregaia zen Hauteslearena. 1519-20tan garbi geratu ziren Luter-en pentsamendu teologikoaren oinarriak, eta Erreforma ez zela Elizari egiten zion kritika moral hutsa, zerbait funtsezkoagoa baizik. Leon X.a Aita Santuak bere Buldekin erantzun zuen, 1521ean Luter **eskomikatzera** iritsiz. Estualdian, berriz ere, Federikok babestu eta salbatu zuen presondegitik.

Erreforma lutertarra berrogei urte eskasetan finkatu zen Alemanian, Luter-en Eliza Ebanjelikoari "ortodoxia" bat landuz eta "status" sozio-juridikoa aitortuz: 1517-1555. Tarte horretan, Enperadorearen eta Aita Santuen aldetik ahalegin teologiko eta armaturik handienak egin ziren Ale-

Luter-en erantzuna

"Eta erronka botatzen dizuet zuri, Leon X. horri, eta zuei Kardinaloi, eta Kurian zerbait zareten guztioi, eta aurpegira esaten dizuet: Bulda hau benetan zuen eskuetatik atera bada eta zuen ezaupidearekin, kristau guztioi bezala niri ere Bataioak eman didan boterearen indarrez zera esan nahi dizuet: egizue penitentzia,urrun zaitezte Jainkoaren kontrako birao satandar horietatik, eta berehala gainera".

(M.LUTER, 1520)

maniaren batasun erlijiosoa gordetzeko. Azkenik, Augsburg-eko Dietak (1555) bere erabakiekin politika horren porrota erakusten du: onartu egiten da Inperioaren mugen barruan erlijio-aniztasuna. Akordio horren ondorioz, hirurogeitamar urte baino gehiagoko bakealdia ezagutu zuen Alemaniak (1555-1618), hogeitamar Urteko Gerratea arte. Baina ez diezaiogun aurrea hartu eskuartean daukagun historiari.

Aipatutako berrogei urteetan (1517-1555), Luteranismoa jasotzeko **ZEREGIN** nagusi batzuk bete behar izan ziren:

1) **Doktrina-bilduma** oso bat landu zuen, mugimendu erlijioso handi batek premiazkoa duen pentsamendu-garapen heldua lortu arte, bide batez ondoko hainbat "heterodoxia" saihestutik bereiziz.

2) **Eliz Erakunde** Ebanjelikoa moldatu zen, hau da, Eliza lutertar berria. Izan ere, Erromatik urrundu eta teologia berria borobildu ala, beharrezkoa ikusi zen Luteranismoan eliz bizitza ere molde berri egokiagoetan eratzea: Liturgia berriztatu, fededunen elkarte-barneko harremanak birmoldatu eta aginte politikoarekiko harremanak berreratuz.

3) **Eliza Ebanjelikoaren status politiko**-rik gabe zaila zen, oraindik hain tolerantzia eskasa zuen XVI. mende hartan, Eliza berriaren egoera-etorkizunak segurtatzea: "cuius regio, eius et religio" printzipioa izango zen status horren funtsa, hau da, hiritarren erlijioa erabakitzeko eskubidea aitortzen zitzaion lurralde bakoitzeko Printzeari: menpekoek Printzearen erlijio hori ala



WITTENBERGeko ELIZA. Luter ez zen predikari eta teologoa bakarrik izan: eliz elkarte bat ere antolatu zuen, horretarako liturgi ospakizunak eraberritu eta premiazko beste eliz erakundeak sortuz. Wittenberg-etik burutu zuen hau dena eta han dago Luter-en etxea ere.

Luter, dilema politikoa

"Erdi Aroko zuzenbide zibil eta eliztarraren arabera, Elizak eskomikatua zenez, erbesteratua izan behar zuen Luter-ek. Eliz eskomikoa, beso laikoak bete erazi behar zuen. Baina Inperioa, egiaz, negoziatzen hasi zen Luter-ekin. (...). Hilabete hauetan, nazio alemanaren bozeramailegia gertatu zen Luter, haren beharren eta desiren abogaduegia bihurtu zen alegia, erbestera beste gabe bidali ahal izateko. Baina, horregatixe hain zuzen, erreformatzailearekin jendaurreko negoziaketa bat edukitzeak haren itzala areagotu baizik ez zuen egingo. Arrisku hauxe zen Aita Santuaren Nuntzioek baztertu nahi zutena".

(E. ISERLOH)

erbestea aukeratu behar zuten, beraz. Erabaki politiko honen bidez lurralde protestantea mugatuta geratu zen Alemanian; baina hori ez zen Alemanian bakarrik izan: Alemaniatik kanpo ere izan zen horrelakorik.

4) **Europako Iparraldean** ere beste hainbeste egin zuten hango Erregeek, urte gutxitan Baltikoan ere aginte politikoak, Koroak, egin bait zuen bere erlijio-aukera: Danimarka (1536) eta Norvegian (1537), adibidez, eta librekiago Suedia (1526-29) eta Finlandian (1527). Honela, ba, Luteranismoak segurtaturik izan zituen Europako geografia politiko-erlijiosoan lurralde-barrutiak.

Hau dena, ordea, ez zen bapatean gertatu, epez epe baizik, gorabehera handien ondoren alegia. **HIRU EPEALDI** luzetan bana genezake urte haietako aldakuntza sozio-erlijiosoen historia:

1. **Proposamen lutertarraren gizarteratzea (1517-1525).** Luter-en proposamen erlijiosoak oihartzun sakona izan zuen Elizan ezezik, gizarte alemaniarrean ere. Hiru iraultza soziali aurre egin behar izan zitzaion urte haietan: lehenik,



NEKAZARIEN GERRATEA (1524-25). Gerrate gogor eta anker honen aurrean, Luter behartuta aurkitu zen jokabide sozio-politiko jakin bat hartzera, printzeen alderdiari bere itzala emanez. Batez ere Th. Münzer izan zen laborari erreboltarien predikari eta gidatzailea.

zaldunen erreboltari (1521-22); berehala, anabaptistenari (1522-24), eta azkenik nekazarienari (1524-25). Iraultza hauetan ideia erlijiosoek leku nabarmena izan zuten, eta Luter ez zen arazo hauetatik kanpo geratu, izan ere Luter-en beraren mezu erlijiosoak gizarte-arazoetan izan zezakeen eraginaz aparte, erreboltarien artean ere ez bait zen teologorik falta izan, heterodoxia berriei bide irekiz (Münzer-en anabaptistak, adibidez) eta, inoiz, aginte zibilaren beraren bidezkotasuna ere zalantzan jarriz.



LEIPZIGeko EZTABAIDA (1519). Akordio politiko eta gerrak baino lehen, Erreformak topaketa eta eztabaida teologikoak piztu zituen.

Nekazarien errebolta izan zen gogorrena, zinez gerrate krudela gertatu bait zen. Une sinalatua da hau Luter eta Luteranismoaren eboluzioan: Alemania, itxuraz, anarkiara zihoan, doktrina berriek bultzatuta. Luter-ek Estatuaren babesa bilatu zuen, bidegurutze hartan, gizarte osoari eta Erreformari ordenamendu egokia eskaintzeko. Gerrate zital hura sekulako triskantzarekin bukatu zen: 20.000 nekazari lepamoztu zituen Lorenako dukeak.

2. **Elkarrizketen aldia (1526-32).** Zazpi urte eman ziren Elizan eta gizartean sortutako gatazka liskartsu eta odoltsuei irtenbidea bilatu nahirik. Enperadorearen estualdi larriaz baliatuz (turkiarrak Danubialdean gora zetozen honen kontra, eta Frantzisko I.a erasoka, bestaldetik), Printzeek erlijio-askatasuna irabazi zuten, Dieta eta elkarrizketen ondoren. Orduan finkatu zen --Enperadore katolikoaren aurrez aurre-- Alemania



KARLOS V.a eta SAXONIAko JOANES FEDERIKO. Alemaniako tragedia erlijioso-sozialaren irudia da garaiko marrazki hau. Enperadoreak armaz ere menperatu nahi izan zituen protestanteak. Hauek ere bazituzten beren erakunde armatuak eta gidariak. Gidariotako sonatuena Saxoniako Hauteslea: azkenik, Enperadorearen eskuetan erori zen hau, eta presondegira zihoala Karlos-ekin topo egin zuen bidean (Lintz, 1552). Enperadorea agurtzera hurbildu zen Joanes Federiko presoa.



AUGSBURGeko BAKEA (1555). Bake honek muga garbi bat ireki zuen Erteuropako erlijio-gatazketan. Hamarkada batzuetarako, oreka egonkorrago bat lortu zen, Alemanian bereziki.

protestantea. Elkarrizketan galtzaile irtendako Enperadorea berriz ere erasora pasatzeko moduan izan zenean, beranduegi gertatu zen, protestanteak Smalkalda-ko Elkartean bildu bait ziren.

3. **Gerrate armatua eta tregoa (1532-55).** Urte hauetan ere ez zen falta izan elkarrizketarik (Worms eta Ratisbona), hala ere bereziki gerra aitortua izan zen ordukoa, arma bidezkoa alegia. Mühlberg-eko guduaren eta Luter-en heriotzaren ondoren (1546), bazirudien Enperadorea irabazle zela, baina Kontzilioaren itxaropenak, une hartako ezinak edo Enperadorearen beraren nekeak borroka uztera eraman zuten Karlos V.a.

4. **Augsburg-eko Bakea (1555).** Ondoko hamarkadetarako Augsburg-en moldatu zen Alemaniako erlijio-bakea, hiru baldintza hauen gain: Printzerrietako erlijioa buruzagiak erabakiko zuen; Eliza katolikoa uzten zuten eliz printzeek beren ondasunak galdu egingo zituzten ("reservatum ecclesiasticum"), eta urteak lehenago protestante egindako hiri eta herriei beren fede berrian segitzeko eskubidea aitortzen zitzaien.

Une honetatik aurrera, nahiz eta bitartean Frantziak erlijio-gerrate luzea ezagutu eta Eliza katolikoak Trento-ko Kontzilio-ondoko Kontrarreforma azkarki eragin, bake-modu bat ezagutu zen Alemanian, baina ez inondik ere eztabaida teologikorik gabea.

Augsburg-eko Bakearen berezgarriak (1555)

"Augsburg-en apenas azaldu zen argudio teologikorik. Konfesioen arteko etorkizuna printze eta lege-gizonek erabaki zuten. Jadanik inork ez zuen pentsatzen dogma eta kultuaren harmoniatan. Eliz politikan bake iraunkorra bilatzen zen, Inperioko Konfesio ezberdinen artean". (E. ISERLOH)

c) Luteranismoaren doktrina

Erreforma lutertarra ez zen izan eliztarren ohitura eta burubideak garbitu eta jatortzeko

ahalegin hutsa. Luter, eliz ohituren eta Zuzenbidearen berritzailea ezezik, teologo bikaina ere izan zen, eta garaiko gizon-emakumeen kristautasun jatorrago baterako oinarri teologikoak bilatu zituen: Luter-ek **Teologia** bat landu zuen.

Arestian esan bezala, Luter-en oinarri teologiko hauek, garaiko kezka eta galdera erlijiosoei erantzun egoki bat eman nahi izan zieten, eta Eliza Ebanjeliotarraren eliz bizitzari funtsezko pentsamendua eskaini. Luter-en gogoeta hau 1517aren aurreko urteetan eta ondokoetan ondu zen, bere idazlanetan obra miresgarri bat burutzeraino.

HIRU ZUTABE nagusitara ekar genezake Luter-en eta Eliza Ebanjeliotarraren Teologia: Kristauaren fedezko zuzenespena, kristau-apaizgo orokorra eta Biblia soiletiko kristauaren hutsezina.

Jatorrizko bekatutik eta bekatu pertsonaletik askatzen gaituena ez da norberaren ahalegina eta onbidea. Bere izpiritu-estualdietan zebilela, Luter-ek harako bertset bibliko hura jo zuen begiz: "Gizakia fedez zuzenesten da, Legearen obrarik gabe". Haren esperientzia erlijiosoari egokiro zetorkion ideia zen hori: bekatutik garbitu, ez zen fededuna bere ahalegin eta obra onen poderioz garbitzen. Izan ere --hala zioen Luter-ek-- aski erakutsita zeukan gizakiak bere bekatuzko izaera, gaizkia gizakiaren beraren baitan txertatutako zerbait zen; jatorrizko bekatuak erro-errotik jota zegoen gizakia, eta berez ez zuen salbamenerako ahalegintxo bat ere egiterik: "Beti bekatu egiten ari gara, baita ona egiten dugunean ere", zioen Luter-ek. "Zintzoak ez dezake deus onik egin".

Horrela deskribatzen zuen gizakiaren bekatuzko izaera, eta zeharbidez orduko kristau as-



LUKURRERIAREN KONTRA (1519). Fedezko sineskizunak zabaltzeaz gain, ohitura txarren kontra gogor eraso zuen Luter-ek, batzuetan sermoiak ezezik, kaleko afixe hauek ere erabiliz. Lukurreriaren kontrakoa da hau: "Ordain edo eman interesa" dio maileguemaileak.



LUTER: BIBLIAREN ITZULPENA (1522-1536). Luter-en Bibliaren itzulpen alemana ez zen izan lehenengoa, baina lortu zuen oihartzunagatik eta eraginagatik (linguistikoa, literarioa, erlijiosoa) obra maisutzat aitortu behar da.

koren bizi-esperientzia. Bere buruaz eta bere buruaren indarraz etsita egon behar du, hain zuzen, zintzoak, bere salbamena lortu nahi badu. Zeren giza etsipen horrek ematen dio aukera Jainkoari, bekatuzko gizaki galdu hau salba dezan: sinestunak Jainkoarengan duen **fidantzazko fedea** da kristauaren salbagarria, zeren horregatik Kristoren justiziaren estalkia ematen zaio, beregan duen bekatua ezkutatzeko. Hortik aurrera, Jainkoak Kristoren zuzentasuna ikusiko du kristauarengan, eta ez honek berez darion bekatua. Gizakia, beraz, duen fidantzazko fedeaz Kristoren justiziari erantzunez, zuzenesten du Jainkoak.

Kristauaren zuzenespena, ba, ez da Sakramentuen bidez gertatzen, ez da kanpo-zinu batzuen fruitua. Ez da apaiza santu egiten gaituena, Kristo bera baizik, gure fidantza osoa aitortzen diogunean. Zentzu honetan, eliz Hierarkiaren betekizuna era berri batez ulertzen du Luter-ek, bataiatu guztiek duten **apaizgo orokorra** azpimarratu eta lehen mailara ekarriz: kristau-herria bera bilakatzen da eliz elkartearen oinarri eta funtsa Luteranismoan, ez Hierarkia. Kristau-elkarte laikoa salbamenaren protagonista bihurtzen da, fidantzazko kristau-fedea bere baitandik bizi bait du, eta ez garai batean Hierarkiagandik bakarrik jaso zitzakeen Penitentzia eta gainerako Sakramentuetatik.

Fidantzazko fede salbagarri hori gidatu eta segurtatzeko Jainkoaren Hitza eman zaio fededunari. Mundu honetan bere bekatuan galduta gerta zitekeen kristauak fede-zuzpergarria **Biblian** du, eta norberak bere kabuz eta bere gisara irakur lezake hori: ur horren gardena dastatu nahi duenak ez du giza tartekorik behar. Aski du Hitza bere



IRLA BRITANIARRETAKO ERLIJIO--ARAZOAK. Irlanda katolikoa, Ingalaterra anglikanoa, Eskozia kalbindarra eta tokian tokiko minoriak: hori dena aski nahasia zen, dena politikarekin eta politika erlijioarekin, bata bestearekin nahas zedin.

biluzian bilatu, giza baitandiko ezina aitortuz eta fedearen fidantzaz saiatuz. Sineskizuna bataiatuaren eta Jainkoaren arteko arazoa da, Hierarkiatik aske eta superstiziozko zinurik gabe. Sakramentuak, Aita Santua eta Hierarkia osoa ere kristauarentzat elkarte-lagungarriak dira, baina inondik ere ez graziaren (salbamenaren) emaileak. Elizaren ulerkera hau Erromarenetik bestelakoa zen, hala uste zuten bederen garaiko teologoek.

* 2. Anglikanismoa

1534ean, oraindik Luter lan eta lan ari zenean eta Kalbin Geneva-ra iritsi baino urte batzuk lehenago, Ingalaterrako Elizak Erromarekiko loturak hautsi egin zituen, Parlamentuak "Gorentasun-Akta" onartzean. Horrela burutu zen Monarkiaren ordurarteko aldakuntz prozesu bat, eta holaxe eman zitzaion hasiera hango Eliza eta gizartearen aro berri bati.

Monastegiak, Ingalaterran

"Monastegien kontrako erasoa, Elizaren aberastasunek pilatutako ezinikusiaren azalpen bezala ikusi behar da: Koroak diru-baliabideak behar zituen, eta aberatsek lurrak. (...). 1535ean, urteko 200 libera baino gutxiagoko sarrerak zituzten monastegiak disolbatu ziren lehenik; 1536-1539etan komunitate handienak (borondatez nahiz bortxatuta) jarri ziren erret esanetara; 1540an eman zen agiri bat, ondasun guzti haien ukantza Koroaren eskuetara pasatuz. (...). Koroak,urtero 100.000 libera gehiago izango zituen harez gero, horrela bere sarrerak doblatuz". *(G.R.ELTON)*

Garai hartako beharrizanei Enrike VIII.-aren Monarkiak ematen zien irtenbidea zen hori. Baina historia lehentxeagotik zetorren.

a) Erreforma-garaiko sozio-politika

Gainerako Eliza osoan bezalatsu, Ingalaterran ere lehenagotik zetozen **aurrebaldintza sozio-ekonomikoak** izan zituen Erreformak, gutxienik XIV. mendearen azkenetatik zetozenak. Herrian, beste tokitakoaren gisara, erlijioak bizitza sendoa zuen. Komentuetxeetan ere, Ordena askotan, zintzotasun osoa ikusten zen, eta bestalde Humanismo kristau aberatsa ezagutu zuen Ingalaterrak. Alderdi on hauen ondoan, ordea, alde ilunagorik ere bazegoen: erlijiosoek, apaizek edo hierarkiak ez zuten beti herriarengan izenonik. Elizgizonen burubide eta jokabideak, XV. mendetik, zenbait heretiko eta herritarren kritikapean zeuden.


LIBELLO HV
IC REGIO HAEC
INSVNT.

Oratío Ioannís Clerk apud Ro.pon. in exhibitione operís regíj.
Reſponſío roman.pont.ad eandem ex tempore facta.
Bulla ro.pon. ad regíam maieſtatem, pro eíus operis confirmatione.
Summa indulgẽtiarũ, libellum ipſum regium legentibus, conceſſarum.
Libellus regíus aduerſus Martinum Lutherum hæreſiarchon.
Epiſtola regía ad illuſtríſſimos Saxoníæ duces pie admonítoria.

"ASSERTIO SEPTEM SACRAMENTORUM" (1521). Enrike VIII.aren obra hau lutertarren kontra idatzi zuen Erregeak; Erromarekin eten baino hamar urte lehenago. Ortodoxia katolikoa zaindu nahi zuen liburuak, eta horregatik "Fedearen defendatzaile" izengoitia eman zion Aita Santuak Enrikeri.

Batez ere, Erromak eratu ohi zituen diru-bilketek halako etsaigo bat pizten zuten herri xumearengan. Kontrakotasun honek, gainera, politikaren korronteetan ere bazuen laguntzarik. Ingalaterrako Koroak Erdi Aroan lurralde handiak eduki zituen Frantzian; baina handik aldegina zen Ehun Urteko Gerratearen ondoren (1338-1453). Monarkiak politika berri bat asmatu nahi zuen, Kontinentetik kanpo, itsasora itzulia, merkatalgora emana, eta geroz eta gehiago Aurkikundeetan partehartuz eta kolonietara zuzendua.

Pixkaka marrazten ari zen politika berri horrek, baliabide berriak eskatzen zituen, Ingalaterraren bizitza eta ahaleginak modu independenteago batez gidatu ahal izateko. Erreinuko indarrak politika-projektu horretarako bildu nahi zi-

ren, eta, zer esanik ez, ahalegin haiek beregana zitzakeen ardatza Erregea zen.

Erromatik urrunduz eta Ingalaterrako Elizaren buruzagitza eskuratuz, beraz, politika orokorrago baten korrontean sartzen zen Koroa, eta, areago oraindik, norabide berean saiatzeko baliabide ekonomiko ugariagoak bil zitzakeen bere eskuetan.

b) Erabakiak eta doktrina

1532-34etan, lau saioalditan, jarri zituen Parlamentuak politika berrirako oinarri juridiko-ekonomikoak. Batez ere, azpimarra ditzagun hauek: Lehen fruituen eliz zerga jasotzeko eta elizaren gain zerga berriak ezartzeko eskubideak aitortu zitzaizkion Erregeri. Zutoin onak ziren hauek. 1536-40.etan monastegien ondasunak ere Koroaren eskuetara pasa ziren bapatean: honen urteoroko sarrerak bikoiztu egin ziren, eta, laster gertatuko zen bezala (1542-51), gerra-politika aurrera eramateko ere beti sal zitezkeen lur irabazi berri horiek: "Koroak dirua behar zuen, eta aberatsek lurrak".

Erreformara, konturatu gabe

"Ingalaterra urte haietan (1517-1534), lagun gutxi batzuk salbu (...), gertakarien ikus-miran Erregea zerbitzatzen saiatu zen. Erasmistek, ostera, (...) heretiko bezala salatzen bait zituzten, ukatu egiten zuten hori arrazoi guztiz; are gehiago: propaganda erreformista baztertu, edo gutxienik egiteko horretaz isilaldi zuhur bat gorde zuten".

(G.E.ELTON)



The Communion

commaund vs, to celebrate a perpetuall memory, of that his precious death, vntyll his comming again: heare vs (o mercifull father) we beseech thee: and with thy holy spirite & worde, vouchsafe to bl✠esse and sanc✠tifie these thy gyftes, and creatures of bread and wyne, that they maie be vnto vs the bodye and bloude of thy moste dere-

Here the priestes must take the bread into his handes.

ly beloued sonne Jesus Christe. who in the same nyght that he was betrayed: tooke bread, and when he had blessed, and geuen thankes: he brake it, and gaue it to his disciples, saying: Take, eate, this is my bodye which is geuen for you, do this in remembraunce of me.

"ELKARTE-OTOITZAREN LIBURUA" (1549). Liturgi liburuek munta handia izan zuten Erreforman, zeren berauen bidez zabaldu bait ziren herrian ohitura liturgikoak ezezik, baita doktrina berriak eta eliz erakundearen bizimoduak ere. Horretarako, ofizialtasun osoa zuten "Book of Common Prayer" hauek.



ENRIKE VIII.a (1509-1547). Ingalaterrako Erreforma Errege honen erabakiz hasi zen: bera izan zen aldakuntzaren eragilea eta gidaria. Hasieran, zisma-zentzua izan zuen, Errege "Elizaren buru" aitortzean; besterik ez. Humanista zen Enrike, politikoa ezezik, eta Pizkundeko kultur korronteen zalea.

Ingalaterrako Erreformak lehen protagonista bezala pertsonaia politiko bat izan zuen: **Enrike VIII.a** (j. 1491. 1509-1547). Luter-en garai-garaikoa zen Enrike VIII.a.Katalina Aragoakoarekin, Karlos Bostgarrenaren izebarekin, ezkondu zen Enrike (1509), baina hogeiren bat urte geroago, ezkontzaren baliozkotasuna dudatan jarriz, Aita Santuagana jo zuen, Ana Bolena-rekin ezkontzeko irtenbide bat eman ziezaion. Nahi zuen baliogabetasun-agiria ematen ez zitzaionez, bere pausoak ematen hasi zen Erregea ondoko urteetan (1531-35), enbarazo zirenak tartetik kenduz (More eta Fisher-en hilketak), lege berriak aldarrikatuz, beharrezko aldakuntza politiko eta ekonomikoak ezarriz.

Enrike-ren obra hau ondoko erregealdietan finkatuko zen hobeki, Maria Katolikoaren (1553-58) parentesialdiaren ondoren. Batez ere Eliza Anglikanoaren kredoa formulatzeko zinezko ahaleginak egin ziren: lehenik "Hamar Artikuluak" (1536), gero "Sei Artikuluak" (1539) eta "Berrogeitabi Artikuluak" (1553) aldarrikatu ziren horretarako. Liturgiari eraketa berri bat ezarri zitzaion "Book of Common Prayer" deituarekin (1549 eta 1552).

Oinarri hauek 1559an, Maria Erregina hil eta Isabel erretaulkira igotzean, birretsi eta harago eraman ziren: Isabelen erreginaldian Anglikanismoak joera protestanteak beretu zituen Teologian, hasierako Zisma hura jite berriz koloreztatuz. Handik aurrera, geroz eta gehiago, ingeles onak, aberria maitatzeko eta dinastiari leialtasuna gordetzeko, aitasaindugoa gorrotatu eta katolikoak mezpretxatu egin behar zituen. Izpiritu honek XIX. menderaino iraun zuen gutxienik.



ELISABET I.a, PARLAMENTUAN. Erdi Aroaren azken partean, kanpoan eta barnean, krisi larriak pasa ondoren, Ingalaterrako Monarkia sendotu egingo da Enrike VIII.a eta Elisabet I.arekin (1558-1603). Hemen, Parlamentuarekin bilduta ikusten dugu Erregina: Koroaren eta Parlamentuaren arteko norgehiagokan, XVII. mendeko iraultzak erakutsiko zuenez, ez zen oreka eroso eta iraunkorrik lortu. Hala ere, Ingalaterrakoa gertatu da bizitza parlamentariaren eredua Mendebaldean.



JOHN KNOX (1514-1572). Frantzian eta Ingalaterran erbestealdi luze batean gorabera handiak izan ondoren protestante egin zen. Kalbin eta Geneva-rekin harreman estuak izan zituen, Suitzako Erreformatzaileak eta Teologia berria ezagutuz. Eskoziara itzuli zenean (1559), ongi etorririk onena egin zion herriak. Laguntza honi esker hartu ahal izan zuen Knox-ek Eskoziako Erreformaren gidaritza kalbinzalea. Orduan izan zen debekatua han kultu katolikoa (1560).

ANGLIKANISMOA: ELIZA MODERATU BAT

"Hasieratik bertatik Eliza Anglikanoak Protestantismo Erreformatuaren era --funts-funtsetik moderatua-- ezagutu zuen, fedearekiko arazo guztietan. Kalbin-engandik urrunduz, parte batez Wittenberg eta Geneva-ren tarteko jarrera bat hartu zuen, eta Erromarekiko ere ez zen erabat itxi handik etor zitezkeen doktrinetan. Horregatik, ingeles joeren arabera, muturreko burubideak arbuiatu izan zituen, eta alde askotatik "kontrakoen elkarbidea" izatera iritsi zen Eliza Anglikanoa".

(K. ALGEMISSER)

MAGDEBURG HIRIKO ELKARRIZKETA (1529). Protestantismoa jaio eta berehala sentitu zen sakabanatuta ageri ziren indarrak bildu-beharra. Suitza eta Alemaniakoen artean Magdeburg-en egin ziren topaketa hauek: batasun-gogoa, eta ezina ere, handiak ziren.





ZWINGLIO ETA SUITZA. "Haren Erreforma, eta oro har Suitzako Erreforma osoa, arazo humanistikoagoa, eta berezi-bereziki politikoagoa, izan zen Luter-ena baino. Aintzinatetik datorren "aberriaren" ideiari zeregin politiko eta nazionala eman zion Zwinglio humanistak" (H.Tüchle).

* 3. Kalbinismoa

Erreforma protestantearen barnean Suitzak aparteko lekua izan zuen XVI. mendean, hara bildu bait ziren ortodoxia katolikotik nahiz inguruko ortodoxia erreformatuetatik ihesi zebiltzan asko. Alde horretatik, aterpe babesgarria izan zen Suitza erlijio-arazoaz kezkaturiko hainbatentzat. Bestaldetik, ordea, Suitzan garatu zen zenbait sistema teologiko ere, batzuk han bertan jaioak, besteak kanpotik ekarri eta han errotuak.

a) Suitza eta Kalbin (1509-1564)

Suitzaren historia independentea 1499an hasten da. Kantonamendutan eratuta, Erreforma hastean hamahiru ziren hauek (gaur egun 22 dira). Suitzako inprimategietatik zabaltzen ziren Europara humanista askoren lanak (Erasmo-renak, adibidez, Basilea-tik), eta baita protestanteen izkribuak ere.

Zwinglio-k (1484-1531) sortu zuen bere inguruan lehenengo Erreforma protestante suitzarra, eta orduan zatitu zen Suitza bitan, kantonamendu katoliko eta protestantetan alegia. Bitasun

hau finkatu eta hobeki mugatua geratuko da, alde batetik, "Fede-aitorpen helbeziarra"rekin (1536) eta Kalbinoren obra erlijioso-politikoaren bidez, eta, bestetik, kantonamendu katolikoek erreforma trentotarraz beren fede-biziera segurtatzean.

Erdigune erreformatuak hiriz hiri izendatu nahi balira, Suitzako lurraldean hainbat erreforma-egoitza gogoratu beharko litzateke: Zurich, Berna, Basilea, Geneva...; edota hurrenez hurren haietako buruzagiak eman: Zwinglio, Haller, Ekolanpadio, Farel eta Kalbin...

Hain zuzen ere, Joanes **Kalbin** (1509-1564) da Suitzako Erreformaren aitagoia eta gerora Erreforma hari bere behin-betiko aurpegia eman ziona. Jaiotzez ez zen suitzarra, pikardiarra baizik, frantsesa beraz. Ikasketa guztiak Frantzian egin zituen, eta Zuzenbidean lizentziatu zen; Parisen, ebanjelismo humanistarekin harreman beroak izan zituen, eta San Ignazio Loiolakoa han zen urte beretsuetan, baina ez zuten elkar ezagutu. Parisen hartu zuen Erreformarako bidea, batez ere aintzinako Elizaren jatortasunera itzuli nahi zuelako. Hiritik ihes egin behar izan zuen, lehenengo Nafarroako Erreginaren Gortera (Nérac hirira) eta gero Basileara: hemen eman zuen argitara bere oinarrizko "Institutio Religionis Christianae" (Erlijio Kristauaren Ikasliburua, 1536).

Honela, ba, bere doktrina landuta zeukanean, pasa zen Kalbin Geneva-tik (1536): Farel erreformatzaileak, lagun ziezaion, han gelditzera behartu zuen. Baita honek, hasieran gogoz kontra izan arren, egitekoari heldu ere; baina genevarrek ez zuten ongi hartu ezartzen zitzaien berrikuntza erlijioso-politikoa: Farel eta Kalbin-ek hiritik



JOANES KALBIN (1509-1564).Kalbin izan zen protestantismo suitzarrari azken moldaketa eman ziona. Erreformatzaile honen gaitasun teologikoa eta trebetasun antolatzailea erabakiorrak gertatu ziren Erreforma-molde hau eraiki eta mundura zabaltzeko.



GENEVAko ARMARRIA. Kalbin-ek, bere egoitza eta teorien probalekua Geneva-ko hirian aurkitu zituen. Hiria irabazi zuenean, beronen babes ofizialari esker eratu zuen Kalbinek eliza kalbindarra.

Kalbin-en Genevan Estatua, elizaren sostengu

"Kalbin-en Geneva-ko iharduera politiko-eliztarra da haren mezutik eskierki gutxien ulertu izan dena, izan ere haren baldintza eta xedeak gaizki ezagutzean bizkarreratu zitzaizkion joka-moldeak bakarrik hartzen bait dira gogoan.

Baldintzak: *plazer eta negozio-hiria izandako Geneva (...), bizimodu, pentsaera eta politikan askatasun-zalea alegia, eta batez ere bere apezpikuaren, Saboiako dukearen eta jaunen kontrako errebolta zuritzeko Erreformara emana.*

Xedea: *biziera eta fede berriaz beren hiri txikia munduarentzat eredu bihurtzea beren lanbidetzat hartuko zuten genevarrak gidatzea izan zen Kalbin-en helburua. Ohiturak garbitu egin behar ziren horretarako, doktrina segurtatu, Estatua Elizaren sostengu leial bihurtu". (E.LEONARD)*

alde egin behar izan zuten. Itxuraz bederen porrot egin zuen honek lehenengo saioaldi honetan (1538); esan beharra dago, hala ere, hazia ereinda zegoela, eta hiru urte geroago berriro deitu zutela Geneva-tik. 1541ean hasi zen Erreforma Kalbindarra eratzeko benetako ekinaldia, erreformatzailearen heriotzeraino iraungo zuena (1564).

b) Finkapena eta doktrina

Kalbin-en Erreforma ez zen "Eliza Erreformatua" deituaren barrutira mugatu; alderantziz Geneva-ko hiria bera ere eraldatu eta hango bizitza zibila moldatzera iritsi zen. Kalbin-en irakaskizunek eliz murruetatik kanpo ere eragin bortitza izan zuten, gizarte zibilerako ere eskaintzen zen teologia bait ziren harena. Baina gizartera hel zedin, Kalbin-ek betekizun bikoitz bat hartu zuen bere gain: bata eliztarra eta bestea zibila eta politikoa. Eliza genevarra eratzen zuen aldi berean ihardun zuen hiriko bizimodua ere antolatzen.

Kalbin, Hiriko Kontseiluak deituta itzuli zen Geneva-ra (1541), eta Kontseiluak berak eman zion egoitza egoki bat. Eginkizun ofiziala zuen, ba: Geneva-ko eliz antolamendu erreformatua eratzea eskatzen zitzaion. Berehala ekin zion lanari eta 1542-45. urteetan burututa zuen bere egitasmoaren **ORDENAMENDU JURIDIKOA**, Kontseiluaren onarpenarekin: eliz arautegia, liturgi arauak, Geneva-ko doktrina...

Lau ofizio-modutan banatu zituen Elizako betekizunak: artzain, irakasle, zaharrena eta dia-

konoena. Artzainen egitekoa predikuak eta sakramentuak dira; irakasleei dagokie teologia irakatsi eta Biblia azaltzea; zaharren eginbeharra, kristauen burubidea zaintzea da, eta, azkenik, diakonoen eginkizuna eliz ondasunak administratu eta pobre eta gaixoak zaintzea ziren.

Aginte zibila-ri ere (Hiriko Kontseiluari eta burgumaisuari) aitortzen zitzaion eskumenik eliz antolamendu honen gain: Kontseiluak birretsi behar zuen artzainen izendapena, eta irakasleena ere Kontseiluaren esku zegoen. Horrez gain zaharren presbiterioa Kontseiluaren eskumakila zen, eta hiriko burgumaisua zen berorren lehendakaria ere. Erakunde hau ez zen xuxen-xuxen Kalbin-ek nahi zuena, eliz erakundeari berari beregaintasun handiagoa zor zitzaiola uste bait zuen. Dena den, ez dago zalantzarik: Geneva-ko Eliza kalbindarrak aginte zibilari halako menpekotasuna baldin bazion ere, alderantziz ere gertatu zen. Izan ere, neurri handi batetan Eliza hain eratu hark zeresan indartsua izan zuen hiri-bizitzaren moldakuntzan.

Bi epe-tan egin zuen Kalbin-ek bere Erreforma: 1541-55.etan Geneva-ko abertzaleek (ez ahantzi erreformatzaileak frantsesak zirena) eta askatasun-zaleek aurre egin zioten Kalbin-en ordenamendu-asmoari. Gatazka biziki gaiztotu zen kalbindarren eta "libertinoak" deituen artean, harik eta 1555.eko hauteskundeetan erreforma-zaleek burgumaisugoa eta Kontseilua gehiengoz menperatu zuten arte. Altxamendu armatu bat zapaldu eta erreboltariak heriotzera edo deserrira eman ondoren, Kalbin-en arrakasta segurtaturik geratu zen.

Halako eliz eta gizarte-aldakuntzak egin ahal izateko, Kalbin-ek oinarri teologikoak eman

Kalbinismoa eta ekonomia

"Oro har, ados daude historilariak, protestantismoak kapitalismoaren gain izan duen eragina aitortzean, baina eztabaida dago eragin horren moduaz. Weber eta Troeltsch-en arabera, gizabanakoari emandako egitekoa azpimarratu zuenean, Kalbin-ek eginkizunak ahalik ongien betetzera bultzatu zituen bere segitzaileak, izan ere konbentzituta bait zeuden horixe zela beren betebeharra. Denbora berean, aszesi kalbindar latzak edozein gehiegizko gozamen debekatu egiten zuen eta, kontsumoa mugatzean, kapitalaren metaketa errazten zuen".

(G.MARTINA)

Kalbinismoaren abantailak

"Azkenik, Eliza Katolikoa, heretikoei arrakastaz erantzuten hasi zen unean, Kalbinismoak --sinesmen ekintzale bezala--- bazituen abantaila nabari batzuk Luteranismoaren aldean. Haren doktrinak definituagoak ziren eta zorrozkiago formulatuta zeuden; kalbinistei eliz erakundearen sistema zelularrak ahalbidatu zizkien beren gisako hedakuntza eta garapena, agintari sekularrak kontra izan zituzten lekuetan ere ". (J.H. ELLIOTT)

behar izan zituen. Paradoxa bada ere, Kalbin ez zen teologoa, lege-gizona baizik; teologiatik zekiena bere gisara ikasia zuen erreformatzaile honek, baina autodidakta bezala ikasitakoa Luter-ek baino era sistematikoago batean eskaini zuen. Kalbinismoaren **DOKTRINA**, horregatik ere, luteranismoarena baino argiago laburbil liteke bere puntu nagusietan:

1. **Jainkoaren Hitza** da gidari bakarra, eta giza gogoetak "arinkeriak" dira haren ondoan: Izpirituaren eraginpean, teologoak Hari entzuten jakin behar du. Haren esanetara egon, alegia.

2. **Jainkoaren erabateko subiranotasuna** da kreazioaren, salbamenaren edota kondenazioaren azken xedea. Jainkoak bere aintzarako sortu du gizakia, eta bere sorkaria den hau ardura osoz begiratzen du (ez dago, beraz, patu itsurik). Jainkoa da gure bizitzan gidatu eta eramaten gaituena, baina hala ere gu geu gara gure burubidearen erantzule. Hemen sortzen da teologia kalbindarraren misteriorik latzena:

3. **Predestinazioa**. Jainkoak alde aurretik hautetsi gaitu, salbamenerako nahiz kondenaziorako. Gure portaerak ez du erabakitzen bata ala bestea suertatuko zaigun: gizakiaren obrak salbamenaren adierazgarriak dira, inondik ere ez eragileak. Kristoren zintzotasuna egotziz hartzen gaitu Jainkoak bere grazian, eta horrela salbatzen gaitu.

4. **Eliza**, aldiberean, ikuskorra eta ikustezina da. Batez ere, Jainko-subiranotasunaren tresna da Eliza gizakion artean, tresna salbatzailea baino lehenago. Xede hori bete dezan, tokian

Geneva-ko Akademia

"1559ko Ekainaren 5ean ireki zen ofizialki Geneva-ko Akademia. Elizaren Erreforma Unibertsitatearen Erreformarekin osatu behar zen. Ez dago egiazko federik kulturarik gabe. (...). Beharrizan bati erantzuten zion eskolak: 1563-an 1.200 eskola-lagun zituen eta 300 ikasle, Kalbin, Beza eta Viret-en ingurura bilduta". (G.LIVET)

tokiko Elizan batasun osoa zaindu behar da, doktrinan eta sakramentuetan. Doktrina-arazoetan eta harremanetan, Geneva-tik kanpoko Elizekin jokabide malguagoa mantendu zuen Kalbin-ek.

Ideia hauek eta Geneva-n sortutako Eliza ereduak zabalkunde-indar sendoa erakutsi zuten Europako beste zenbait lurraldetan, batez ere Luteranismoaren lehenengo belaunaldiaren oldarra moteldu zenean.



TEODOR BEZAkoa (1519-1605). Kalbin-ek bere ingurura baliozko gizon asko bildu zuen. Hauetako bat izan zen Beza (1558): lehenengo, ideia kalbindarren hedatzailea, eta Geneva-ko elizaren buruzagia gero, Kalbin-en heriotza ondoren.

c) Kalbinismoaren hedakuntza

Geneva-ko Eliza kalbindarrak, errotua eta eraikita geratu ala, handik kanpoko hedakuntzari ematen dio hasiera. Erakundez eta doktrinaz hain heldua ageri zelako ere kalbinismoak, alde batetik, erakarmen-indar handia erakutsi zuen, eta, bestetik, Geneva-tik at zabaltzeko ere grina bizia. Kalbinismoa, mugimendu ibiltaria gertatu zen Europan: bidez bide, predikari eta liburu-saltzaileen ezpain eta inprimakietan lurralde berriak berenganatzeko gaitasun aparta izan zuten kalbindarrek.

Uholde hau ahalegin berarekin zabaldu zen lurralde protestante eta katolikoetara. Egia da, kasu bakoitzean metodo eta lanbide ezberdin eta lekura egokituak erabili zituela: batzutan, printzeen botereaz baliatu zen, eta bestetan herri xehearen atxekimendua izan zuen bakarrik, inoiz bataz eta besteaz baliatzen zela.

"Bere aurrekoen Erreforma humanista, dogmatiko eta pietistak bilduz eta osatuz, Kalbin-i esker arima eta izakera ezberdinentzako ñabardura aberatsez hornituriko erlijiokera osatu bat eskaintzen zuen Protestantismoak (Léonard).



PREDIKARI HIGANAUTAK (Lyon): 1559az geroztik eliza kalbindarrak ugari zabaldu ziren Frantzian.1598an, zentsua egitean, 953 eliza agertzen dira, 800 artzain, 400 teologi ikasle, eta 274.000ren bat familia 1.250.000 lagunekin.

Kalbin **Frantzia**-tik zetorren, jaiotzez eta ikas-jatorriz frantsesa zen. Ez da, beraz, batere harritzekoa hark lehenik bere ahaleginak Geneva-tik Frantziara zuzendu baldin bazituen: bere oinarrizko liburua, latinez idatzi ondoren, berehala eman nahi izan zuen frantsesez ere, eta ehun eta gehiago artzain bidali zituen Geneva-tik hara. Ardura honi esker, Luteranismoak eta Zwinglianismoak ez zuten Frantzian apenas lekurik izan.

Frantziako kalbinismo hau jentilgizonen, negozio-gizon, lur-jabe eta langileen artean zabaldu zen. Baina, batez ere, erreinuaren erdigunetik urrundutako probintzietan izan zuen arrakastarik onena: Ekialdean, Normandian, Biarnon edo Hegoaldean. Fenomeno honetan ez zen, noski, arrazoi psiko-sozialik falta izan: Erret Gorte gorrotatuaren kontrako politika, edo bertakotarren independentzi izpiritua.

Mendearen erdi aldera eratu ziren Frantziako lehenengo Eliza Erreformatuak, bakoitza bere aldetik eta aske. Nolabaiteko erakunde- eta doktrina-batasuna lehenengo Sinodo handian lortu zen (1559): "Confession de foi" eta "Discipline" deituak izan ziren horretarako agiriak. Erakunde aldetik, Frantzian sakabanatutako eliz elkarteak eta artzainak, denak, berdinak ziren elkarren artean, eta inori ez zitzaion besteren aurretik lehentasunik aitortzen.

Erreforma eta Politika

"Erdi Aroak Modernoari emandako heredentziak baldintzatu zuen mugimendu erlijiosoek beti ere gisa politikoa hartu izana, indar politikoak mugimendua babestuz nahiz erasoz. Mendebaldean arrunta zen Eliza estatalak eta Alemanian nagusitutako lurraldezko Elizen sistemak eman zieten behinbetirako beren izaera, alde batetik, Erreforma protestanteaaren historiari, eta, bestetik, katolikoen defentsa eta berrikuntzari ere". *(H.TÜCHLE)*



ERLIJIO-HILKETAK. Erlijio- eta politika-arazoak nahastean, borroka haiek bortizkeria latzagoa ekarri zuten. "Amboise-ko altxamendua" deituan, higanautek Errege gaztearengandik Guisa-tarrak urrundu egin nahi izan zituzten. Xede hori lortu baino lehen agerian jarriak izan ziren, eta erreboltarietatik asko heriotzera emanak (1560).

Ahal izan zenetan, lekuko jaun edo printzearen babesa bilatu eta aurkitu zuten, baina Koroak ez zuen lagundu eta batzutan, aitzitik, bai gogorki eraso (Enrike II.ak batez ere, 1547-59).

Erlijio-gerrateak (1562-1598)

Hogeitamasei urtetan luzatuko dira Frantzian erlijio-gerrateak. Armak hartu eta bakeak egin, etengabeko odolketa izan zen hura, Erreinua erabat hondatzeraino. Katolikoen buru Guisa-tarrak izan ziren; protestanteenak, ostera, Condé-tarrak. Landetako herri-herriskak bertako jaunen menpe geratu ziren, Erregek apenas eskurik zuela. Hiriak, utzita zeuden; doktrina politiko muturrekoenak zabaldu ziren. Alderdi bakoitzak atzerrian ere bilatu zituen aliatuak: armada espainola Parisen sartu zen (1590-91) katolikoei laguntzeko. Frantzia deseginda ageri zen.

Etorkizunean irtenbide hoberik irekitzeko, "politikoen" erdiko alderdi bat eratzen da. Moderatuen alderdia zen honek Enrike Nafarroakoa hartu zuen burutzat. Hala ere, luzea izan zen oraindik gerra. Azkenik, Frantziak ez zuela Errege protestante bat sekula onartuko ikusita, katoliko egin zen Enrike (1593). Hala ere, bakea eta tolerantzia erlijiosoa ez ziren heldu 1598rarte: Nantes-eko Ediktua. Hauxe izan zen Aro Modernoko azken tolerantzi legea.



JOANA ALBRETekoa (1528-1572). Nafarroako Erregina (1555) zen, eta Frantziako Enrike IV.aren ama bilakatu zen historiarako, bere seme hau Erretaulkira igo zenean (1589). Protestante egin zen 1556an, eta 1567an kalbinnismoa ezarri zuen bere erreinuan. Erregina honi eskaini zion Joanes Leizarragak Testamentu Berriaren bere itzulpena (1571).



ENRIKE IV.a (1553. 1589-1610). Nafarroako Erregea (1572) eta Frantziakoa gero (1589), bere ama Joana-k kalbindar bezala hezi zuen. Hau hilberri zela, Margarita printzesa katolikoarekin ezkondu zen; baina higanauten buruzagi izan zen, hala ere. Enrike III.a asasinatuta hiltzean, Errege gertatu zen eskubidez, eta eskubidea obratara ahal izan zuen geroxeago katoliko egin zenean (1593), Guisa-tarren Ligaren kontra ere.

Horregatik, Frantziako protestanteak ("higanautak" deituak) beren defentsarako elkartu egin ziren, elkarte hau laster alderdi erlijioso, politiko eta armatu bilakatuz. Hemendik jaioko dira mendearen bigarren parteko erlijio-gerrateak.

Kalbinismoaren erdigune hauen artean kokatu behar da euskal Iparraldeko protestantismoa ere, Nafarroako Joana Albret-eko Erreginarengana bildua. Biarnon zuen mugimendu honek jatorrizko sorlekua, Gortearen inguruan, eta Zuberoa eta Nafarroa Beherera zabaldu zituen zuhaitz berriak zenbait adar. Noblezia, apaizeria eta legegizonek osatzen zuten bereziki Euskal Herrian alderdi higanauta. Ondorioz, ondoko hamarkadetan, erlijio-gerrateetako eszenategi bat izango da Euskal Herria ere.

Oro har, nagusitasun osorik lortu ez bazuen ere, Kalbinismoak oinak ongi finkatu zituen Frantzian, eta geroago ikusiko ditugun estualdien ondoren, gaurdaino luzatuko da Eliza Erreformatuen bizitza, aldi hobe eta txarragoekin. Frantsestu egin zen, beraz, Kalbin-en proposamen erlijiosoa.

Alemania-ko lurralde lutertarretan, gezurra badirudi ere, irabazi onak egin zituen mugimendu kalbindarrak. Izan ere, kalbinismoak bazituen Luteranismoaren gain abantaila batzuk: doktrina hobeki formulatuak, eliz elkarte egokiago antolatuak, mugimendu osoaren erdigune bakarra (Geneva) eta propaganda-sare oso mugikorra. Alemanian, Palatinatura eta bertotik hainbat printzerritara iritsi zen Kalbinismoa (Brandeburg, Anhalt, etab.). Beti ere, 1555ean Luteranismoak ezarritako (Augsburg-eko Bakea) egoerarekin ados ez zetozenek kalbindarren proselitismoan aukera berria aurkitu zuten.

Horrelako zerbait gertatu zen **Ingalaterra**-n ere. Eliza Anglikanoak hasieran ez zuen Eliza Katolikotik bereiziko zuen dogmarik. Enrike VIII.a hiltzean, Eduard VI.arekin (1547) hasten da doktrina-eboluzio protestantea Eliza Anglikanoaren barruan. Maria Erreginaren ondoren (1553-58) Geneva-n erbesteratuak itzultzean, joera kalbindarra indartu baizik ez da egingo: Elisabet I.aren erregealdian bereziki, Eliza ofizial honen doktrina zentzu horretan hobeki mugatuko da ("Hogeitemeretzi Artikuluak", 1563, 1571), baina kalbinismoaren eritzien kontra gotzainen zereginari eutsiz beti. Honegatik, Eliza ofizialetik kanpo geratuko da Kalbinismo ingelesaren hegal bat, puritanismoa deitu zena.



MARIA STUARD (1542-1587). Eskoziako Erregina (1542-67), gatazkaz betetako ingurua izan zuen: Frantziako Erregina ere izan zen ezkontzaz; bera katolikoa izanik, Eskozia kalbindar bihurtu (1560) zitzaion. Ingalaterrako Errege baten biloba zelako, beldur zen Elisabet I.a (lehengusina), ez ote zion hark saldukeriaren bat egingo, eta azkenik heriotzera eman zuen Maria. Izpiritu ongi landua izan zen literaturaren aldetik ere Eskoziako Erregina hau.

Izan ere, Britainia Haundian (Ingalaterra eta Eskozia bategin aurretik ere) Kalbinismoak egoitza erosoa zuen **Eskozian**. Hasiera batean gorabehera latzak jasan ondoren, Eskoziako Parlamentuak Eliza Katolikoa abolitu eta "Aitorpen kalbindarra" onartu zuen (1560). J.Knox (1505-1572) izan zen hemengo predikari eta gidaria, eta Geneva-ko Erreforma oso-osorik hartu zuen, doktrinatan ezezik baita erakundean ere (gotzaineria kenduz, adibidez).

Garaitzapen handia izan zen Kalbinismoarentzat Eskoziako hau, baina ez zen kaskarragoa gertatu **Herbehereetakoa**. Gainerakoen artean, leku nagusia lortu zuen herrialde honetan Kalbinismoak: doktrinaren aldetik lehen finkapena laster definitu zen ("Confessio belgica", 1561). Ondoko urteetako askapen-gerrateak egin zuen gainerakoa. Herbehereetako Erreforma erlijiosoa hango burgesia eta herri-kontzientziaren bateratzailea gertatu zen. Geroztik Herbehereek, eta Europa osoak ere,



HERBEHEREAK (1566-1648). Herbehere aberatsetan XVI. mendeko gatazka gogorrenek egin zuten topo elkarrekin: Monarkia handien interesek, erlijio-borrokek, askapen nazionalaren gudateak, burgesi boteretsu goranahi batek eta molde monarkiko zaharrek... Eszenategi honetan bildu ziren denak (Vischer-en grabatua).

izan duten bilakaera sozio-politikoari begiratzen badiogu, orduko iraultza hura (batez ere kalbindarra zena) mugimendu aintzindaria izan zela esan beharko litzateke. Espainiaren kontrako gerrate luze hartan (1565-1609) eta independentzia lortu arte (1648), Herbehereetan geroz eta gehiago Kalbinismoa izango da borrokari lagunduko dion sostengu ideologikorik indartsuena.



Hamarkada batzutan, ba, Protestantismoa finkatuta geratu zen Europan: nortasun sozial eta juridikoa aitortu zitzaion. Bienbitartean, Eliza Katolikoa ere ez zen geldi geratu: aldakuntza erlijioso haiek erronka bat ziren Katoliko jarraitu nahi zuten guztientzat. Eta Erreforma Protestanteari Katolikoak ere eman zion aurpegi.

MAURIZIO NASSAUkoa (1567-1625). Herbehereetako askapen-gerratean gidari handiak topatu zituen Espainiak aurrez aurre. Maurizio, bere garaiko gerra-gizonik handienetako bat izan zen, Espainiak hain handiak eman zituen garai berean. Berak eskuratu zuen Breda (1590), Nimega (1591), etab.1609an Espainiarekin Hamabi Urterako Tregoa sinatzea lortu zuen, 1621ean berriz ere borrokari ekinez.

IV. ERREFORMA KATOLIKOA

Eliza Katolikoaren eraberrikuntzarako hainbat saioaldi ezagututa zegoen Eliza erromatarrak, azkenik XVI. mendean ezagutu zuen benetako Erreforma bat. Baina aldiberean Europan bestelako eliz erreforma bat ere lanean ari zelako (Protestantea alegia), Erreforma Katolikoaren barnean zuzenean Protestantearen kontra egindako lana "Kontrarreforma" bezala ezagutzen dugu.

Erreforma Katolikoa, eliztar askok eskatzen zuenaren kontra, ez zen mendearen lehen partean egin; aitzitik, beranduko berrikuntza izan zen, batez ere mendearen azken hamarkadetakoa.

Han-hemenka, modu isolatu batean, XV. mendetik hasita gutxi-asko ikusi ziren erreforma-gogoek ez zioten Eliza Katolikoari antzaldaketa osorik ekarri. Luter-en aurreko erreforma-ahaleginen historia oso bat idatz liteke (hainbeste izan bait ziren), baina beti ere saio haiek ez ziren iritsi Elizaren egitura eta bizitza dena eraberritzera. 1517an, "nahi baino ezin" horretan zebilen Elizan Luter-en ahotsa lehertu zen, eta eliztarrentzat aro berri bat hasi.

Ordudanik, eliz Hierarkiak nahi ala ez, erreformek beren bidea urratuko zuten; Erreformaren gogoak bide autonomoa zuen, nahiz eta Aita Santuek susmoz, mezpretxuz edo eskomikoz jokatu. Alferrik zitzaien Erromari, edo botere katolikoei, beren zigorra erabiltzea: fededunen kezkei Erreforma Katoliko batekin lagundu behar zitzaien, edo bestela uholde protestanteak irentsiko zituen kristau-lurraldeak.

Eliza, erregeren menpe

"Felipe II.a izan zen Eliza espainiarraren ustiapen ekonomikoa eraberritu zuena. Gurutzada-Buldaren ohizko sarrera--bidea oparoa gertatu zen; Indietara ere zabaldu zen hau. 1561ean "Subsidio" delakoa lortu zuen Pio IV.arengandik: hau da, prebendadun guztiei hainbanaketaz urtero ezarri ohi zitzaien zerga (420.000 dukat). Geroago, Pio V.ak "Excusado" deitua eman zion, hau da, parrokia bakoitzeko lur--sail onenaren etekinetatik hamarrena. (...). Zerga hauen bilketa ez zitzaion Estatuari deus kostatzen, Gaztelako Elizak berak zuzenean biltzen bait zituen".

(A. DOMINGUEZ ORTIZ)

1517az gero, gutxi batzuek berehala, besteek geroago, zenbaitek askoz beranduago, azkenean gehienek ulertu zuten Eliza erromatarra berritu premia. Baina Trento-ko Kontzilio erreformatzailea ireki zen arte (1545) ia hogeitamar urte igaro ziren, eta beste hamazortzi hura burutu zen arte (1563). Nabaria zen, beraz, Kontzilioak zekarren atzerapena. Hala ere, Aita Santuen Erreforma Katolikoa ez zen bakarrik goitik behera ezartzen zen zuzterrik gabeko egitasmo bat.

Heretikoen kontra

(Kontrarreformaren barruan, heretikoen aurkako jokabide--arauak ere landu ziren. San Ignazio Loiolakoak erizpide hauek eman zizkion Kanisiori, protestanteen kontrako apostolutzan kontuan har zitzan. Lagundiaren gobernurako, ugaria izan zen Ignazioren eskutizketa: 6.740 gutun 1549-56 urteetan).

"Erregek ez luke jasanbehar heretikorik bere Kontseiluan, eta ezta honelako gizaki-motarenganako estimurik azaldu ere, izan ere beren burutan duten inpietate heretikoa garatu eta laguntzeko xedea besterik ez dute izaten holakoen jendaurreko nahiz ezkutuko eritziek. Bestalde, oso ongarria izango litzateke herexiak jotako inork inolako aginterik ez balu,batez ere ez probintziaren edo lekuren bateko goi-aginterik, ezta kargu publiko edo dignitaterik ere. Azkenik, desiragarria izango litzateke nornahik neurri hau ezagutu eta onartuko balu: alegia, norbait heretiko ezaguna edo benetan errezelagarria denetik aurrera, ez luke halakok ohore edo aberastasunetarako eskubiderik eduki behar; aitzitik, kendu egin beharko litzaizkioke horiek".

(S.IGNAZIO LOIOLAKOA, 1554)

* 1. Erreformarako indarrak

Eliza Katolikoaren erreforma erabakiorra gertatuko zena Aita Santuek onartu eta gidatutakoa izan zen; baina erreforma haren oinarri eta indarrik onen eta zabalenak Eliza osoaren baitandik sortu ziren. Azken finean, eliz elkarte osoak burutu zuen Erreforma Katolikoa, ez Hierarkiaren parte batek bakarrik.

Berrikuntz gogoa era eta leku ezberdinetan agertu zen, herritar soilen artean bezala Ordena erlijiosoetan, humanista kristauen artean edo ebanjelismo katolikoan ere. Azkenik, errota berera iritsi nahi zuten ur ugari ezberdinak Aita Santuek bildu zituzten ubide bakarrera. Protestantismoaren sorburuez esan den bezala, hemen ere lagun bakar baten borondate hutsak deus gutxi lortuko zuen alde aurretik borondate sozial zabal baten sostengurik izan ez balitz. Gisa ezberdinetan agertu zen, ba, nahi hau:

Fededun laikoen elkarteak: Eginkizun sozial eta erlijiosoak izan ohi zituzten kristauarte

hauek, eta batez ere errukietxe eta heritetxeetan egiten zuten lan. Estatuaren aldetik garaiko premia latzei (epidemia, izurrite, gaixo kroniko; umezurtz, alargun, zahar...) nola erantzun handirik ez zegoenez, gizarte-betekizun estimagarriak eskaintzen zituzten lagunarteok, beren emana isilpean eskainiz eta elizkizunetan partehartuz. Honelako elkarte ongileetan ez zen falta, gainera, elizgizon hierarkikorik.

Ordena eta erlijioso-elkarteak. Hauetan, bi alde daude bereizi behar direnak: batetik, lehendiko Ordenak zaharberritu egin ziren, eta bestetik erakunde berriak sortu. Hamaseigarren mendea oso aberatsa gertatu zen bi zentzu hauetan. Karmeldarrek edo Frantziskotarrek, adibidez, berrikuntza handia ezagutu zuten beren baitan: Espainian, e.b., San Pedro Alcantara-koaren edo Sta. Teresa Avila-koaren inguruan sorturiko mugimenduak gogora ditzakegu. Eskierki, Ordena zaharraren barruan bizimolde hertsiagoak antolatu eta erakundeztatuz egiten zen, holakoetan, kimu berri erreformatua adar autonomo bezala ezagutuz.

Ordena berrien aldetik, ostera, egokiera historikoari hurbilagotik erantzun nahi zioten elkarteak eratu ziren. Hauetakoa da San Ignazio Loiolakoak eraikitako Jesusen Lagundia (1540), eta Loiolatarra hiltzean (1556) munduan zabalduta mila bat lagun zituena.



Jamas podrya vsciybyr. lo mvrcho qve debo. alos de Japon. pves dyos nro señor. por
por respeto dellos. me dyo mvcho conocymiento de mjs Jnfyrnitos malldades, pozq
estando fveza de mj, no conoscy mvrchos males que abya en my, basta que me
vy en los trabajos y pelygros de Japō, claramente me dyo dyos nro señor a sentyr,
tener extrema necessydad. de quyntubyesse grande cuydado de my, apoya Bea vrā
santa ebangelyo. el cargo que me da. de tantas santas animas de la Compañya
que estan aqui
conosciendo evydentemente en my por sola la myserycordya de dyos vra grande

SAN IGNAZIO LOIOLAkoa (1491-1556). Eliza katolikoaren Erreforman lekurik behinena du Jesus-en Lagundiaren eraikile honek. Erreforma hark izan zuen talde gidaririk indartsuena izan zen josulagunena. Euskal Herriak munduari eman dizkion gizonetatik ezagunena, noski.

FRANTZISKO XABIERekoa (1506-1552). Nafar euskaldun hau, bere familiartekoekin batera, atzerrira irten beharrean aurkitu zen, Gaztelako Erregeak Nafarroako Erreinua konkistatu zuenean. Erbestealdian Ignazio Loiolakoarekin egin zuen topo Parise-n (1529): Jesus-en Lagundian sartu zen, eta Ekialde Urruneko misicetan aintzindari izan zen: "Indietako Apostolua".

Diozesiak. Baina erlijiosoen elkarteetatik kanpo geratzen zen fededun herritarra. Herrietako apaiz arduradunek zaindu behar zituzten kristau bataiatuen fedea eta ohiturak; horregatik ere, premiazkoa zen apaizeria horren portaera eta burubidea hobetzea, zeren bere heziera eta ohituretan agerian bait zeuden zituen hutsuneak. Asmo honetan Erregeek berek ere partehartu zuten batzutan, eta gotzain arretatsuren bat edo besterik izan zen lehenagotik ere: Alemanian, esate baterako, Nikolas Kusakoa (1401-1464), edo Espainian Cisneros Kardinala (1436-1517) Errege Katolikoen babespean. Berrikuntza hau laguntzeko, ikastetxe berriak ere eraiki ziren: Alcalá-ko Unibertsitatea eredu bat izan zen (1500), eta Trento-ondoko Seminarioek zeregin zuzena izan zuten apaiz berrien prestakuntzan.



FELIPE II.a (1527. 1556-1598). Espainia hegemoniko baten burua izan zen Errege hau; honen erregealdian Europaren nagusia zen Espainiako Monarkia, eta Mundu Berria eta Filipinak ere bere eskuetan zituen: "Eguzkia sartzen ez zen Inperioa". Indar guzti hori, bere esanetara ere bazeukan Elizaren fedearen alde jarri zuen Felipe II.ak: Kontrarreformaren buruzagia izan zen.

Humanista kristauak. Ebanjelismoa. Puntareneko izen banaka horien ondoan beste jakitun-multzo txiki bat ere aipatu behar da. Lehenik, humanista kristauak, idazlan klasikoen maitasunarekin batera, Biblia eta Eliz Gurasoen zaletasuna zabaldu zutenak: Ingalaterran Pole kardinalaren ingurura bildu ziren; Espainian, berriz, Cisneros-ek deitu zituen "Biblia Complutense"aren lanetara. Bestalde, ebanjelismo bihozkor bat aldarrikatu zuten intelektualak ere bai: Erasmo Erteuropan, Lefèvre d'Etaples Frantzian, etab.

Han-hemen sakabanatuta ageri zaizkigun asmo hauek, batasuna eta osotasuna iristeko, Erromaren gidaritza behar zuten, baina hauxe zen, hain zuzen, Trento-aurreko erreformen punturik ahulena. Beldur zen Erroma, Erreformaren estalkiarekin, ez ote ziren berriz ere Aita Santuaren kontrako Kontzilio-zalekeriak piztuko. Erromatik, edo ez zen

aldakuntza beharrik ikusten edo, mesfidantzaz eta errezeloagatik, nahiago zen han funtsezko aldakuntzarik ez egin. Horregatik porrot egin zuen **V. Kontzilio Laterandarrak** ere (1512-17): presezki Luter-ek bere tesiak kaleratu baino zazpi hilabete lehenago bukatutako Kontzilioak.

Molde ezberdineko **Aita Santuak** izan zituen Elizak XV. mendearen lehen partean. Oro har, nortasun handikoak izan ziren (Administrari eta politiko bizkorrak), baina Erreformaren arazo honetan uzkurrak eta ez batere erreformazaleak (Gasteiz-en aukeratutako Adrian VI.a ezik). 1534etik aurrera arras aldatuko da hori, eta ondoko Aita Santuek gogoz heldu zioten egitekoari.

Paulo III.a (1534-1549) izan zen Erreforma Katolikoaren lehenengo bultzatzailea. Kardinale-Batzorde batek prestatutako Erreforma-proiektuak lur jo zuen, Erromako Kuriak erasota, eta urte beretsuetan (1537-44) tartekatu ziren Kontzilioaren asmoak gerrak hondora bota zituen. Hala ere, egokiera hobean, Aita Santu berak deituko du, azkenik, Erreforma Katolikoaren Batzarrea: Trento.

Kontzilioa burutu eta haren erabakiak obratzeko unean, Aita Santu arduraz beteak izan zituen Elizak: San Pio V.a (1566-72), Gregorio XIII.a (1572-85) edo Sixto V.a (1585-90), adibidez. Horrela, Erreforma Katolikoak baliozko gidariak topatu zituen, Trento-ko egitaraua betetzeko.



G. CONTARINI KARDINALA (1483-1542).Elkarrizketaren eta Kontzilioaren beharra nagusitu zenean,horretarako gizon iaiorik ere izan zen Eliza katolikoan, Contarini kardinala, adibidez. Kontzilioaren prestakuntzan partehartu zuen, bere idazlan eta ahaleginekin. Katoliko-protestanteen arteko elkarrizketetan ere egon zen (Ratisbona, 1541).



CANONES,
ET DECRETA SACROSANCTI OECVMENICI ET GENERALIS CONCILII TRIDENTINI:
Sub Paulo III. Iulio III. Pio IIII. Pontificibus Max.
Nunc demum ad prototypa & originalia acta & actitata, à Secretario & Notarijs dicti Concilij, qui hoc ipsum ad calcem operis subsignarunt, collati; & iam postremum summa fide diligentiaque excusi.
His accesse Index dogmatum, & Reformationis.
ANTVERPIAE,
Ex officina Gulielmi Silvij, Typographi Regij,
M. D. LXV.

KONTZILIOAREN LEGEAK. Alde dogmatikoarekin batera, ohitura eta eliz disziplina berritzeari ere begiratu zion Trento-ko Kontzilioak. Han emandako legeek mendetan gidatu dute Eliza katolikoa.

* 2. Trento-ko Kontzilioa (1545-1563)

Karlos Enperadorearen agintepeko hiria zen Trento, teorian, gotzain-hiria gainera, eta, Italian egonik ere, lurralde germaniarren atari-atarian aurkitzen zen. Hiri honetantxe bildu zen, ba, Aita Santuak deitutako Kontzilioa. Hiru epealditan egin zen Batzarrea: 1545-47 urteetan lehenengo, gerotxoago 1551-52etan eta kasik hamarkada beteko tartearen ondoren 1561-63etan.

Vatikano II.eko 2.500 lagunekin alderatuz, batzarkideak gutxi izan zirela esan liteke: Kontzilioa irekitzean: 31 Kontzilio-guraso bakarrik, eta lehenengo bi epealdietan ez ziren 70etik pasa; azken Dekretuak sinatzen 225 lagun ageri dira. Baina, gutxi izanik ere, nortasun handiko gizon-saila bildu zen Trento-n, Hierarkiatik bezala teologo jakitunetatik. Domingotarrek eta josulagunek hara bidali zituzten beren ikastunik prestuenak: haiek Cano eta Soto, hauek Salmerón, Laínez eta Kanisio.



TRENTOko KONTZILIOA. Kontzilio-guraso eta teologoak ez ziren asko izan,baina bai gaitasun handikoak. Inperio eta Monarkien interesak ere han gurutzatu arren, Elizaren berrikuntzarako lan gaitza eta estimagarria egin zuen Kontzilio honek, beti ere Kontrarreformaren izpirituarekin noski. Hala ere, "izpiritu trentotarrak" eta ondoko legeriak kristau Elizen arteko ekumenismoari ez zion lagundu, eta elkarren arteko borroka eta lehia nagusitu ziren geroko mendeetan, Trentoko arrazoi eta aitzakiak tarteko hartuta.

Zailtasun eta behaztoporik ez zitzaion falta izan Kontzilioari: Protestanteak kontra jarri ziren hasieratik bertatik (beraz, ezin zitekeen kristau guztien batasunerako batzarre erabakiorra izan), batzarrean erabakiak hartzeko prozedura bat bilatu behar izan zen (hitza eta/edo botoa nork eta nola izango zuen, etab.), eta nolanahi ere zertan lanegin erabakitzea izan zen arazorik larrien eta eztabaidatsuena.

Bi ideia eta betekizun nagusi izan zitzakeen Kontzilioak: Kredoko sineskizunen definizioa nahiz eliztarren ohituren garbikuntza. Aita Santua eta Enperadorea ez zetozen bat inondik ere: hark doktrina-arazoei heldu nahi zien, eta honek nahiago zuen disziplina-arazoei lehentasun osoa eman. Irtenbide bezala, batzuk eta bestek aldiberean lantzea erabaki zen, azkenik. Apezpiku eta teologoek, elkartuta egin zuten lan.

Inoiz edo bestetan eztabaida garratzik ere egon zen. Bi joera egertu ziren nagusiki: batak Protestanteekin ahalik hurbilen lanegin nahi zuen, eta besteak nahiago zuen Eliza Katolikoaren doktrina bere baitandik, gardentasun hutsean, definitu. Azkenean bigarren hau izan zen nagusitu zena.

Dekretu-errenka luze batean aztertu eta erabaki zituen Kontzilioak fede-sineskizunak eta eliz arauak. Haien artean garrantzi berezia izan zuten zuzenespenari eta Mezari zegozkienak; bigarrenen artean, berriz, apezpikuen egoitza-gordetzeari eta apaizgai-ikastetxeei (seminarioei) buruzkoak leku behinena izan zuten.

Protestantismoak piztu zituen eztabaiden ondoren, doktrina finkatuagoa uztean, Eliza Kato-

Kontzilioaren asmoa

"Beste ezer baino lehen, gure garaiko heretikoen errore nagusienak kondenatu eta anatematizatu nahi ditu Sinodo santuak, eta egiazko doktrina katolikoa zabaldu eta irakatsi, eta halaxe egin du kondenatuz, anatematizatuz eta definituz" (TRENTOko Kontz.)

Kontzilio historikoa

"Funtsezko hiru puntutan laburbil genezake Trentoren alkantzu historikoa:

1) Krisi guztiz larri bat gainditzeko Elizaren indarberritze-gaitasuna piztu zuen.

2) Disziplina- eta dogma--batasunak azpimarratu zituen (...), garai bereko korronte protestanteen alderantzizko joeren kontra.

3) Azkenik, Elizaren historian aro berri bat hasi zen orduan, gure egunetaraino luzatu dena". (G.MARTINA)



ERREFORMA/KONTRARREFORMA. Bien alegoria hau 1598koa da. Apezpiku baten irudipean ageri da, eskuinean, egiazko Eliza. Ezkerrean, Erreformaren eskatima eta nahasmendu-izpiritua. Tartean, parroko bat, norekin jo ezin asmatuz.

likoa indarberrituta atera zen Kontziliotik, berrikuntzaren egitekoetan lur-zoru sendoago bat zuela alegia.

Eliz ohituren aldetik, berriz, Hierarkiaren arima-ardura eta erlijiosoen bizitza garbitu nahi izan zen herrietako eliz arduradunen betebeharrak hobeki zainduz eta erlijioso-Ordenen barnean leialtasun hobea sustatuz. Gaur egun harritzekoa ere bada gotzainen egoitza-gorde beharrari (diozesi-hiriburuan bizi beharrari alegia) nolako erreparoak eta aitzakiak jartzen zitzaizkion ikustea. Dena den, Kontzilioko eztabaidak gorabehera, berrikuntzarako zutabeak jarrita geratu ziren Batzarre hura amaitzean.

San Ignazio eta Kontzilioa

"San Ignazioren erlijiotasunak moldatu zituen, Trento-ko Kontzilioan Elizak definitutako doktrinara kontzientziak erakartzeko tresnarik eraginkorrenak. Erlijiotasun hori sentimendu- eta borondate-balioek osatzen zuten ekin-minak eta Jesus-en Lagundiko bazkideei ezarri zien "munduan bizitzeko" obligazioak. Elizaren erreforma-motari (honen faltari egotzi bait zion askok Erreformaren fenomenoa), eta heretikoen aurka doktrina ortodoxoa nahaspiderik gabe zehazki definitu beharrari erantzun nahi izan zien Kontzilioak bere sorburuetatik bertatik". *(M. ARTOLA)*



GALERA VENEZIARRA (Lepanto, 1571). Mendebaldeari kanpotik zetorkion erasorik gogorrena turkiarrena zen. XVI. mendean, berandurarte, Mediterraneoan edo Danubialdean arrisku estua zen Inperio Otomandarra. Honi aurpegi emateko Liga Santua eratu zen, Venezia, Espainia eta Aita Santuaren artean. Guduan galera hau bezalakoek parte hartu zuten: 60.000 bat zauritu eta hildako izan ziren itsas gudu hartan, alde bietakoak.

* 3. Trento-ondoko erreforma

Trento-ondoko Erreforma Katolikoan bi alde ezberdin bereiz litezke nahiz eta biak elkarrengandik erabat banatzerik ez egon: lehenengo, Kontziliotik zetozen erabakien obratzea eta, bigarren, eliztarren artean bertan sor zitekeen berrikuntza bizi-berrigarria.

Aita Santuen gidaritzapean burutu zen lehenengoa, han-hemen aurkitu zituen behaztopo edo erraztasunekin. Zalantzarik gabe, Erreforma Katolikoaren garrantzizko alderdia izan zen Kontzilioak eragindako hobekuntza hau. Hala ere, benetako bizi-berritzea eliz gorputz osoan ezagutu zena izan zen, bigarrena alegia: teologo, idazle, artista, erlijioso, apaiz, sinestun, hau da, eliztar ez-hierarkikoen artean, mila modutan ageri da bizi horren isuria eta emana.



ITSASARMADA GARAITEZINA (1588) Felipe II.ak Ingalaterraren aurka bidalitako Itsasarmada hau sinbolo bat bilakatu zen: Ekaitzek eta ingelesek garaituta hondora joan zenean, porrot honekin batera orduko munduaren ikusmolde bat hondatu zen (katoliko espainiar hegemonikoa). Eskozia eta Hebridak irletaraino sakabanatu ziren ontziak.

Erreformaren alde hau behin baino gehiagotan Kontzilioaren aurrekoa ere bada, eta ondokoa denetan ere, ez zen beti Kontzilio-osteko erabakiek erraztasunik aurkitu zutelako gertatu: Espainian, adibidez, "erret eskubidea salbu" baldintzarekin onartu ziren erabaki haiek, eta Frantziak dekretu dogmatikoak bai, baina erreforma-dekretuak ez zituen ametitu.

Kontzilioaren ildotik lan gaitza bete zen XVI-XVII. mendeetan, Elizaren bizi-berrikuntza hura lortzeko. Eliza Erromatarrari gainera zetorkion uholde protestanteari hesi bat jartzea izan zen lehenengo kezketako bat: ahalegin hauxe da Kontrarreforma. Izan ere, azkenean, egiaz Trentokoa Eliza Katolikoaren erreformarako Kontzilioa bilakatu zen, ez kristau-herriaren (Protestante eta Katolikoen arteko) batasun-Kontzilioa.

Geroz eta gehiago, Erromako hiria Elizaren benetako erdigunea izaten hasi zen: adibidez,

Pio V.ak "Kristau-ikasbide Erromatarra" (1566), "Meza-liburu Erromatarra" (1570), etab. argitara zituen. Ondorengo hamarkadetan, eliz eginkizunetarako oinarrizko liburu hauek ugaldu egingo dira: argitalpen hauen bidez, eraberdinean,aurpegi bat bera eman zitzaion Eliza osoari. Joanetorri handikoa izango da hau dena eliz batasun eta berdintasunaren kontzientzia finkatzeko. Trento-ondoko Elizak, ba, izan-molde jakin bat hartzen du mundu osoan, alde honetatik Erdi Aroan ezagutu ez zen batasun-modu berria alegia: handik aurrera modu erromatarragoak hartu zituen Eliza Katolikoak.


MISSALE
ROMANVM.
Ex Decreto sacrosancti Concilij
Tridentini restitutum.
PII V. PONT. MAX.
iussu editum.
Cum Kalendario Gregoriano.
Cum Licentia Summi Pontificis.
VENETIIS,
Apud Iohannem Variscum, & Socios.

"MISSALE ROMANUM" (1580). XVI. mendeko Erreformetan, Vatikano II.aren ondokoan bezala, liturgi ospakizunei berarizko lekua eman zitzaien, protestanteen artean bezala Eliza Katolikoan ere. Hona, orduko Meza-liburu erromatar ofizialaren azala.

Elizatik urrunduei begira, berriz, Erreformatzaile protestanteen aurka politika bortitza ezarri zen: Inkisizioa, adibidez, indarberritu egin zuen Pio V.ak. Heretikoen kontra, Italian bezala Frantzian, Alemanian eta Ingalaterran, esku latzez jokatu zen, egokiena halaxe ikusi zenean. Baina ez beti fruiturik onenarekin: Ingalaterrako Elisabet erreginaren kotrako eskomikoak behinbetirako eten zituen Erroma eta Irla Britainiarraren arteko harremanak. Laztasun bera izan zuen Gregorio XIII.ak ere San Bartolome Gaueko hilketen ondoren eskerronezko ospakizunak eratzean: oraindik jaiotzeko zegoen, nonbait, tolerantziaren ideia.

Baina ez zen heretikoen pertsegiziotan bukatu, Kontrarreformaren barruan ere, berrikuntza hura: diru eta giza indar ugari eman zen eliz kultura eta apaizeriaren gaitasunak lantzen. Erroman eta Alemanian ikastetxe berriak eraiki ziren. Alemania katolikoa bere hartan zaintzea izan zen ardurarik larriena. Kanisio jesuita izan zen Alemaniako defentsa katolikoaren gizona, bere prediku, irakaskuntza eta idazlanekin. Ikastetxe-sare bat

Bortxa erlijiosoa

"Erantzukizun izugarria heretikoen pertsegizioarekin Aita Santuak bere gain hartu zuena; orobat, erreformatuek ere geroago. Jainkoaren ohoreaz eta arimen salbamenaz kezkatuta ari ziren XVI. mendeko intoleranteen asmo sakonek argitzen dute, noski, burubide hori. Miguel Servet sutara botea izan zen Geneva-n, 1553ko urriaren 27an. Beza kalbindarrak heretikoen kontrako bortxa-eskubidea eta haiek heriotzera emateko eskubidea onartu egiten ditu".

(G.LIVET)

eraiki zen erdi- eta goimailatarako Alemanian ezezik, Frantzian, Espainian edo Italian.

Baina Kontrarreformak propaganda, prediku edo irakaskuntzarekin batera bestelako biderik ere erabili zuen: politika. Augsburg-eko Bakean (1555) oinarrituta erlijio katolikoaren defentsa politikoari heldu zitzaion Alemanian, baina baita Frantzian eta Espainian ere. Bavaria, honela gorde zen Eliza Katolikoaren barnean, eta orobat Kolonia eta Münster gotzain-printzerriak. Austria, zenbait kantonamendu suitzar eta Herbehere katolikoak ere, gisa berean, politikaren babesak salbatu zituen Erromarentzat.

Espainian, XVI.aren bigarren partean, pentsamenduak eta jokabide sozialek hertsialdi bat jasan zuten, Protestantismoari ezezik, Erasmismo eta Humanismo kristauari ere bideak moztuz. Inkisizioak eta liburu debekatuen Indizeak aurreko hamarkadetako ahots kristau kritikoak isilerazi egin zituzten. Espainiako Monarkiaren interesen artean suertatu zen, egokiera historiko hartan, Eliza Katolikoaren defentsa; horregatik, Kontrarreforma hein handi batean espainiarra da. Hala ere, gogorkeriak eta politika gorabehera, Erreforma Katolikoak udaberri-loraldi bikaina izan zuen Espainian. Santu, pentsalari eta idazle garaienak orduantxe suertatu ziren, garai berean: "Urrezko Mendea" izan zen hura.

Loraldi horren barnean, gainera, bada aipatzeko besterik ere: Eliza Katolikoak, Europako hesi itogarriak hautsita, Mundu Berrirako bidea hartu zuen. Ameriketako Misio-lana handia eta miresgarria izan zen. Aurkikundeak gidatzen zituen botere beraren babespean izan arren eta kolo-

nizazio orok dakartzan ezbehar guztien artean ere, ehundaka eta milaka lagunek han egindako lan gizatzailea goragarria izan zen, hobeagorik ezean bederen.

Europako eliz erreforma bakealdi luze bati esker burutu zen Alemanian, Espainian eta Italian; baina bakeak ez zuen tolerantzia indibiduala esan nahi, agintearen nagusitasun osoa baizik. Esan beharra dago, gainera, XVI. mendearen bigarren partean Europak bi gerra-leku izan zituela: Frantzia eta Holanda. Alde ilun hauetxek dira berehala ikusiko ditugunak, bai baketuta ageri diren Estatuetan, eta baita hain zuzen XVI. mendearen bigarren partean gerrate luzeak jasan zituzten beste hauetan ere.

V. TOLERANTZIAREN UTOPIA

Ez katolikoek, ez protestanteek bilatzen zuten tolerantziarik elkarrentzat: bakoitzak, nagusitasuna eta botere garailea nahi zuen eskuratu. Hiritar banakoaren libertate-eskubideak ez zeuden oraindik, oro har, europarren berehalako xedeen artean. Pentsamolde eta sentiera honek kupida gabeko ondorioak zekartzan erlijioz saihestuentzat, heretikoentzat nahiz arrazoi batengatik edo besterengatik susmagarri izan zitezkeenentzat.

Pertsegizioetarako, erlijioa benetan zinezko arrazoia izan zen askotan, baina sarritan baita aitzakia estalgarria ere, boteredunak bere komenentzien politika bultza zezan. Fedeaz egiazki kezkatutako agintarien ondoan, itxurazko arrazoi horretaz baliaturik bestelako interesen zerbitzuan

Eliza ala alderdia?

(Erlijio-gerrateetan alderdi politiko-armatuen --katolikoen eta protestanteen-- eta haiekin kideko ziren Elizen arteko bereizketa egin beharra dago gertakari haiek ongi ulertzeko:)

"Elizaren eta alderdiaren artean bereizketa beti egitea zaila gertatzen bada ere (protestanteen nahiz katolikoen artean), hala ere funtsezkoa gertatzen da bi aldeok bereiztea.

Alderdiak bere antolamendu, lagun-bilketa eta politika ditu, Elizarenak ez direnak. Kojunkturak eskatzen duenez, oinarrian militarra da hura, baina hala ere ez mugikaitzagoa bere estrukturetan, buruzagi eta aliantzetan, garaikideen aurrean Eliza konprometatzeraino, edo estaltzeraino ere". (G.LIVET)

borrokatu ziren Errege-Erregina eta politikariak ezin dira ahantzi, beraz.

Elkarbizitzarako jokabide jasanbera, utopikoa gertatzen zen XVI.ean, eta hurrengo mendean burutuko zen Absolutismoaren eraikuntzan boteredunek pentsaezina ere bai.

* 1. Herri katolikoetan

XVI. mendearen lehen partean Eliza Katolikoaren barnean tolerantzi korronte bat aurkitzen dugu, Humanismo kristauarena: Erasmismoak, kristauen arteko bakezko elkarrizketari leku bat ireki nahi izan zion. Urte batzutan (1517-40) bazirudien, gainera, Karlos Enperadorearen inguruan bildutako humanista kristau hauek aski laguntza eta indar izango zutela, tolerantzi politika zabal bat aurrera ateratzeko. Bide horretatik joaz, gaina har ote zekiokeen Berant Erdi Aroan bizi izandako fede-pertsegizioen tradizio odoltsuari?

Karlos Enperadorea gerrateek abaildu zutenean eta Alemaniako erlijio-batasuna ezinezkoa gertatu zenean, Augsburg-eko Bakeak lege bihurtu zuen intolerantzia. Ordutik aurrera, Europako katolikoen artean Aita Santuen eta Monarkia espainiarraren intolerantzia nagusitu zen (Frantzian erlijio-gerrateetan gorabehera handiagoko historia bizi izan zen, bitartean).

Pio V.ak buruz buru hartzen zuen parte Inkisizioaren ihardunkizunetan: herexia orotatik garbitu nahi zen Italia. Aita Santu honek, adibidez, aurreko beste Aita Santu baten idazkari izandako Carnesecchi humanista 1567an heriotzera

Minoria zigortuak

"Errege Katolikoekin euskal herrialdeak haien kezka eta zereginen gurdira uztartuta aurkitu ziren; honela, morisko eta juduen minorien irenspenerako politikan tartean hartuta gertatu zen Euskal Herria. (...). Ezin dugu segi auzitegi ezberdinek Euskal Herrian bete zuten egitekoa, batez ere Logroñoko auzitegiak zorrotz jokatu bait zuen Euskal Herrian eta Nafarroako mendialdean. F.Idoate-k Nafarroako sorginkeriaz egindako ikasketak datu ugari dakar J.Goñi-k eta Caro Baroja-k emandakoaz gain". (T.AZKONA)

eman zuen. Garai berean, Venezian bakarrik 82 Inkisizio-prozesu egin ziren.

Printzeei beren herrialdeetan nahi zuten erlijioa ezartzeko eskubidea eman zitzaienez, Errege katolikoek ere ez zuten eragozpenik izan Erreinuan, zerizkien erlijio-politika egiteko. Beren fede protestantea aitortzen zuten protestanteak ezezik, isilpekoak ere bilatu egin ziren, eta ahal izan zenean gogorki jazarri, gainera. Politika-molde honek luzaro iraun zuen: 1731n, adibidez, 20.000 Salzburg-eko protestanteek erbestera irten behar izan zuten, Austriatik. Saihespen erlijiosoak arrisku politiko bezala ikusten ziren.

Taldekako eraso hauen ondoan ez zen falta izan bakarkako prozesu luze eta sonaturik. Espainian, esate baterako, Bartolome Karrantza-rena (1503-1576). Nafarra zen hau eta Toledoko Artzapezpikua: herexi susmagarritzat emanik, hamazazpi urteko prozesua jasan behar izan zuen. Lehenengo, Valladolid-en preso zortzi urte, eta azkenik Erromara eraman zuten, Aita Santuak berak ere mesfidantzarik biziena bait zien Espainiako Inkisizioaren joko politikoei. Kontrarreformaren giro puntzuniatu hartan ez zen batere zaila honelakorik gertatzea.

Tolerantzia legeztatu, oso Estatu gutxitan legeztatu zen, eta hala gertatu zenetan ere ez zuen tolerantzia hark bizitza luzerik izan. Lehenengoz, Polonian lortu zen honelakorik, Segismun II.aren erregealdian (1548-72); Frantzian, berriz, Nantes-eko Ediktuak (1598) eman zien higanautei lege-babespea, baina Absolutismoarekin abolitu egin zen Ediktua (1685): Erabaki honen ondorioz, 200.000 higaunatek erbesterako bidea hartu behar

Geneva: Bizitza kontrolatuta

Geneva-k, bere independentziaz hain harroak, askatasuna erabat galdu zuen. Irakurgaiak, jokoak, kantuak, oturuntzak: zaharrek kontrolatzen zuten dena, eta hiritar guztiek --borondatez edo bortxaz-- onbidean bizi behar zuten. Zaharren eskuhartze hauen adibide asko dauzkagu, zorrotzak bezain barregarriak: dantza, karta-joko eta nobela-irakurketa debekatuz, ile-mozketa eta luxua kontrolatuz; zirimonia publikoetako asistentzia zaindu egiten zuten, eta jendaurrean erretzen "Amadís", garai haietan arrakastarik handienetakoa zuen nobela". *(G.MARTINA)*

"HIGANAUTEN ANKERKERIAK". Europan, erlijio-ideien aldeko eta kontrako bortxakeria zen nagusi oraindik. Egiten eta gertatzen zenaz aparte, alde bateko eta besteko propagandak gertakari asmatuak zabaltzeko ere ez zuen erreparo handirik. Hona hemen Katolikoek higanauten aurka zabaldutako irudi batzuk.



izan zuen, Suitza, Brandeburg, Danimarka, Ingalaterra eta Herbehereetara iheseginez.

* 2. Herri protestanteetan

Herri eta Estatu protestanteetan ere tolerantziaren ideia ez zen onartua izan, XVI. mendean, izan ere Protestantismoari berari lehenengo lege-babesa eman zioten nazioarteko akordioak ("norena eskualdea, harena erlijioa ere") eta Monarkia absolutu-nahien erabakiak tolerantziaren kontrakoak bait ziren, esan berri dugunaren arabera. Ez da, ba, batere txundigarria herrialde protestanteetan katolikoen nahiz heretiko saihestuen pertsegizioa politikaren ohitura bat izatea.

Alemanian, protestantetzat emandako lurraldeetan ez zegoen, noski, katolikoentzat lekurik; baina ezta Suitzan ere kantonamendu kalbindarretan. Geneva-ko hiriak garai bateko libertateak galdu egin zituen: irakurgai, joko, kantu edo oturuntzak kontrolatuta zeuden. Eta batez ere desbiderazio ideologikoak ziren zorrozkien zigortuak:

1542-46 urteetan, 70 lagun bidali ziren desterrura, eta beste 60 heriotzera kondenatu.

Ingalaterran ere antzeko jokabideak ezagutu ziren. Enrike VIII.ak bere burua "Elizaren Buru"tzat aitortu zuenetik, erabaki hori arazo erlijiosoa ezezik politikoa ere bihurtu zen. Mila bat zigortu egon ziren orduan: Thomas More, John Fisher eta hainbat erlijioso. Bestalde, Maria Katolikoaren urteetan (1553-58), Erreginak gogor eraso zuen, hirurehun bat lagun heriotzera emanez. Errezelo politiko eta erlijiosoek eraginda jokatu zen honela Koroa.

Eta beste hainbeste esan liteke Elisabet Erreginari buruz ere (1558-1603). Bi epe bereizi behar dira erregealdi honetan: 1570aren aurrekoa eta ondokoa, izan ere urte horretan eskomikatu egin bait zuen Aita Santuak Erregina. Aurreko urteetan nahiko tolerantziaz jokatu zen katolikoekin, baina ondorengoetan itsustu egin zen giroa, menpekoen Erreginarekiko obedientzi lokarriak hautsitzat eman bait zituen Pio V.a Aita Santuak. Politikoki ere katolikoetatik bere Koroa defendatu beharrean aurkitu zen, beraz, Erregina: 124 apaiz eta 61 herritar katoliko bidali zituen urkamendira, eta beste ainitz presondegietara.

Erregina hil ondoren ere, egoera larri hau areagotu baizik ez zen egin, katolikoen "bolboraren konplota" agerian jarri zenean (1605). Ezbeharra ezbeharraren gain, Ingalaterraren menpeko katoliko irlandarrek ez zuten beren erlijio-askatasuna 1829rarte lortu, XIX. mendean beraz.

Benetan, Ilustrazioko ideiak nagusitu ziren arte, Europan ez zen egoera eta bizimolde toleranterik ezagutu: XVI.a eramanpenik gabea izan zen alde guztietan.

Heretikoaren gorrotoa

"Heretikoarekiko gorrotoa zabalduta zegoen. Frantzisko I.ak Vaux-eko 3.000 lagun garbitzen utzi zuen. Felipe II.ak bost "auto de fe"tan garbitu zituen Espainiako protestante eta erasmistak. 30.000 bat erreformatu hil ziren San Bartolome Gauean edo ordukoaren ondorioz, Parisen eta probintzietan. Herbehereetan, 1572ko udazkenean, Mechelen hiria zakuratzea agindu zuen Alba-ko Dukeak, eta Zutphen-eko protestanteak lepamoztea. Baina elkarren artekoa zen gorrotoa: Ingalaterran, Maria "Odoltzaleak" hainbat lagun hil zituen Elisabetek ere". (DELUMEAU)

Tiranizidioa?

(Ingalaterra-ko Elisabet-en aurka katolikoen konplot isilik ez zen falta izan. Eta batzuetan hierarkiak ere izan zuen hor eskurik. Baina kasurik harrigarriena Gregorio XIII.a Aita Santuaren Idazkari Kardinalaren eritzi hau da:)

"Jainkoaren zerbitzu-asmoarekin Erregina hori garbituko lukeenak, bekatu egin ez, baizik merezimenduzko obra egingo luke... ez luke horregatik bekaturik". (T.GALLIO, 1580)

6
ESTATU MODERNOAREN GARAPENA: ABSOLUTISMOA

URTEAK	GERTAKARIAK
1603	Jakes I.a Eskoziakoa, Ingalaterrako Errege: Estuardarren dinastia.
1609	Hamabi Urteko Tregoa: Espainia/Herbehereak.
1610	Frantziako Enrike IV.aren asasinatua.
1618/1648	Hogeitamar Urteko Gerratea Europan.
1621	Berriz ere gerran Espainia-Herbehereak.
1623/1643	Olivares erret ministrari, Felipe IV.arekin.
1626	"Unión de Armas": Olivares-en programa "zentralista".
1627/1628	Richelieu higanauten kontra: La Rochelle.
1631/1633	Euskal Herrian "Gatzaren Matxinada".
1640	Katalunia ("Guerra dels Segadors" 1640/52) eta Portugalen (1640/68) independentzi gerrateak.
1640/1660	Ingalaterran gerrate zibila, Erregea heriotzera emana Cromwell-en diktadura (1649/58), Karlos II (1660).
1642	Richelieu Ministrariaren heriotza, Frantzian.
1648	Westfaliako Bakea.
1648/1653	Fronda errebolta: Parlamentariena (1648/49), Nobleziarena (1650/52).
1659	Pirinioetako Bakea (Bidasoan): Rosselló Frantziarentzat.
1661/1715	Erregealdi absolutista Frantzian: Luis XIV.a. Erreformak barnean: Administrazioan (1663), epaitegietan (1666), kodeetan (1667), kontseiluetan (1673); erregalien arazoa (1673/75); Nantes-eko Ediktua ezabatua (1685), Konkistak kanpoan: Itzul-Gerratea (1667/68), Holandakoa (1672/78), Augsburg-ekoa (1689/98), Espainiako Segida--Gerratea (1700/14).
1688	Ingalaterrako "Iraultza Aintzatsua": Orange-tarren dinastia.
1689	Eskubideen Agiria onartzen da Ingalaterran, askatasun hiritarrak aitortuz.
1707	Britainia Haundian, Ingalaterra eta Eskozia batuta.
1714	Utrecht/Rastatt-eko Tratatuak.



I. MONARKIA ABSOLUTUA

XV. mendearen azkenetan eta XVI. mendearen hasieran Europa-k lurralde-monarkia handien eraketa ezagutzen du, eta honela aginte-monarkia finkatu eta garatu egingo da. Aginte-monarkia, monarkia absolutuaren lehen urratsa izango da. Beraz, Estatuen eskakizun politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak gehitzen diren neurrian erret agintea indartuz joango da. Erregeek ahalegin guztiak egingo dituzte aginte absolutu hori onartua izan dadin. Baina xede hau ez da erabat lortuko Luis XIV.aren garairarte.

XVII. mendean Monarki erregimena Europa guztian nagusituta zegoen, Suitzan, Holandan, Alemaniako hiri askeetan eta Italiako zenbait errepublikatan (Genova, Venezia) ezik. Ezinezkotzat jo-

VERSAILLESeko Jauregia: 1667az gero, Luis XIV.aren egoitza eta Gortea hauxe izan zen. Eraikuntza hau Absolutismoaren sinboloa da.

LUIS XIV.a (1643-1715): "Errege Eguzkia" deitu hau, Absolutismoa bere unerik distiratsuenera eraman zuen Erregea da. Erregealdi luzea izan zuen.

tzen zen Herrialde handiak gobernatzeko errepublika-erregimenak balio zezakeenik.

Absolutismoa, bere era gogorrenean Errusian, eta Penintsula Balkaniarrean garatuko da. Polonia, hautapenezko monarkia zen, eta, ondorioz, nobleak ziren, sistema oligarkiko batean, erret boterea ahultzen zutenak. Ingalaterran, erregeek monarkia absolutua ezartzeko ahaleginak eginarren, ez zuten xede hau lortuko. Frantzia eta Espainian taxutuko da ongien absolutismoa, eta Italia eta Alemaniako zenbait Estatutan. Hauetan erret agintea absolutua izanarren, ez zen despotikoa izan, erregeren agintea zenbait lege eta pribilegiok mugatuta bait zegoen.



LEVIATHAN (1651). Liburu hau Londres-en eman zuen argitara Hobbes-ek, eta Estatuari eta botereari buruzko obra klasikoa da.

A) MONARKIA ABSOLUTUAREN TEORIZATZAILEAK

XVII. mendean, beste zientziekin batera zientzia politikoak ere garapen on bat ezagutuko du. Une honetan, idazle politikoek zenbait teoria sortuko dituzte, erret agintearen metatzea zuzenetsi eta defendatuz. Teoria hauek Erregearen aginte pertsonalaren zergatietan sakontzen saiatuko dira.

Absolutismoa defendatzen duen lehendabiziko teorizatzailea Tomas **Hobbes**, filosofo ingelesa dugu. "Leviathan" (1651) liburuan honela dio: gizakion artean, geurez, denok denon aurkako gerrate egoista batera goaz, horrela zibilizazioa bera ere ezinezkoa bihurtuz. Gizartean irauteko, gizakiak behartuta daude hitzarmen batez lotzera; honela, Estatuari transferitzen zaizkio norbanakoaren bidezko eskubideak, eta Estatuak menpekoekiko subiranotasun absolutua jasotzen du, ondorioz.

Absolutismoaren teorizatzaile nagusiena, Jacques **Bossuet** da (1627-1704), Meaux-ko apezpikua eta Luis XIV.aren Gorteko sermolaria. Bere "Proposamenetan" --zioenez, Idazti Santuetan oinarrituta--, monarkiaren aginte absolutua zuzenesten du. Haren ustez, aginteak, absolutua eta zentralizatua behar du izan. Erregeari agintea, Jaungoikoagandik datorkio zuzenki, Jaungoikoaren imajina bait da Erregea. Horregatik, legearen gainetik dago, edo hobeto esanda, bera da legea, eta Haren aurrean bakarrik erantzun behar du.

B) BOTERE-KONTROLAREN GARAPENA

Estatu absolutuen artean desberdintasunak egonarren, badituzte beren artean zenbait kidetasun.

Erregearen inguruan aginte-meta handi bat biltzen da, politika eta ekonomia berak pertsonalki kontrolatzen bait ditu, eta legeen menpe egotera behartuta ez dagoenez, Erregearen borondatea alor guztietan lege da.

Monarkiak antolamendu politikoa bere garapen osora eramaten saiatuko dira, eta beronen bidez gobernatzen dituzte lurraldeak. Aginte zentral honek bere esanetara dauzka menpeko guztiak, edo horretantxe ahaleginduko da. Helburu hori betetzean ez da liskarrik faltako, nobleziarekin nahiz nekazalgoarekin, Frantzian batez ere. Izan ere, bateratze-prozesu hau burutu dadin, talde sozial desberdinen autonomia mailaz maila deuseztu egingo bait da.

Hitzarmen soziala

(Gerra eta elkarren arteko liskarrak utzita, norberaren kontserbazioa segurtatzeko bide bakarra da Estatua sortzea eta beroni hiritar bakoitzak bere eskubideak pasatzea, gizaki bati nahiz giza biltzarren bati botere eta indar osoa emanez. Hala dio Hobbes-ek:).

*"Erabaki hau guztien adostasun edo ituna baino zerbait gehiago da: lagun bakar eta batberaren baitan lortutako batasun erreala da, gizaki bakoitzak gainerakoekin egindako abenikoz lortua, norbera bakoitzak denei zera esango balie bezala: "Baimentzen dut lagun hau edo giza biltzar hau eta hari nahiz beroni nere burua gobernatzeko dudan eskubidea ematen diot, zuek ere zuen eskubide bera hari berari ematekotan eta haren egintza guztiak nik bezala baimenduko dituzuelakoan". Hau eginik, lagun batengan bategin den giza-taldeari **Estatu** izena ematen zaio, latinez **Civitas**. (...). Estatuak halako botere eta indarra dauka ze gai da (herrian bakerik izan dadin) terrore eta izuikaraz guztien borondateak bategiteko".*

*(HOBBES, T.: **Leviathan**, 1651)*

Monarkia: Jainkozko jatorria

"Sakratua da erret agintea. Jainkoak ematen ditu Erregeak, bere ministraritzat, eta berauen bidez agintzen du herrien gain.
-- Sakratua da Erregeen pertsona. Esandako guztiagatik agerian dago Erregeen pertsona sakratua dela, eta haien aurka atentatzea sakrilegioa dela.
-- Erlijio-printzipioz eta kontzientziaz izan behar zaio esaneko Printzeari.
-- Erregeek beren botere propioari itzala zor diote, eta guztien onetan bakarrik erabili behar dute berau".
(BOSSUET, J.B., 1709)



BOSSUET (1627-1704). Gotzaina eta Gorteko predikaria izan zen. Hizlari aparta eta erret boterearen teoriko defendatzaile suharra.

Eboluzio politiko honetan, garrantzi handikoa izan zen hiri askeen askatasunen ezabapena ere; gehienetan, indarrez edo beraietako magistratua Estatuaren kontrolpera pasatzen zen aitzakiarekin kendu zitzaizkien hiriei askatasun horiek.

Zaila gertatu zen noblezia menperatzea ere. Traizio-bidezko prozesuak erabiliz, administrazio edo armadako karguak eskainita Gortera erakarriz, edota nobleen finantz egoera --ekonomi krisi orokorragoaz baliatuz-- ahultzen zutela, behartu zuten Erregeek noblezia bere autonomia baztertzera.

Goi-burgesia, bankari eta merkatariak datoz hurrengo, eskuetan dituzten industria eta merkatalgoa Estatuak babesten bait dizkie erreinu osoan; bestalde, talde horientzat Estatuaren burokrazian lanpostu ugari eskaintzen da. Burgesia honetatik, unibertsitate-ikastunek aukera ederrak aurkituko dituzte Estatu-aparatuan, beraz.

Elizen integrazioak ere ikaragarrizko garrantzia izan zuen. Elizak --pribilegioak mugatuz, eliz ondasunen sekularpenaren bidez, edota okerrenean talde erlijioso ezerosoak bortxaz zapalduz-- erret esanetara makurteraziko dira. Honen ondorioz eliz erakundeak Estatu-boterearen bitartekari bilakatuko dira.

Estatu absolutistak, botere politiko guztiaren monopolioa, berarentzat eskatzen zuenez, armada bereki baten sorketa asmo horren azalpen nabaria izango da, izan ere aldiberean Estatuaren funtsezko zutabe bilakatuko bait da armada hori. Dena den, Errege europarrek, oro har, ezingo dute Hogeitamar Urteko Gerrate arte armada bereki eta saripeko bat sortu.

FRANTZIA (XVII. mend.)

BOTERE POLITIKOAREN ANTOLAMENDUA



BULEGATEGI-KONTSEILUA

. Ministrari eta Estatu-Idazkariek osotua
. Erreinu(eta)ko eskualdeen arazoez arduratua

INTENDENTEAK
Probintzietako erret ordezkariak

JUSTIZIA: Erregearen izenean epaitzen dute, eta tribunal-buru izan daitezke
POLIZIA: Ordena ezezik, hornikuntza, bizitza ekonomikoa, administrazioa, arazo erlijiosoak, kaminoak eta abar zaintzen ditu.
FINANTZAK: Zerga-bilketa.
Erregearen aholku-emaileak.

Teorikoek beren aldetik eta praxi politikoak bestetik, Estatuaren boterea honela eratu zuten Absolutismoan. Frantziako egitura honek Iraultza arte iraun zuen.


CARTA,
LLEALMENT
VERTIDA DE PORTVGVES
EN CATALA, LA QVAL VN
Cabo Portugues escriguè a vn Religios Portugues; dona auis dels bons successos que han tingut las armas del Rey de Portugal, don Iuan, contra las armas del Rey de Castella.

El Rey D. de Portugal, que viua molts anys.

Iuã IIII.

Ab llicencia dels Superiors: En Barcelona;

ABSOLUTISMOA PENINTSULA IBERIARREAN. 1580-1640etan Peninsula osoa Koroa bakarraren menpe egon zen. Olivares-ek asmatu zuen Absolutismo batetarako egitasmoa, Penintsulako herri guztien indarrak projektu hegemonista baten zerbitzuan jarri nahirik. Baina herri ezberdin horiek ez zeuden abentura horietarako. Portugal eta Katalunia beren askatasunaren alde borrokatu ziren (1640-1652, 1640-1668). Gerra-propagandako liburu portuges honen itzulpen katalanean ikus daitekeenez, begi onez ikusten zuen batak bestea Gaztelaren kontrako gerran.

Burokraziak garapen handia jasango du zentralizapen-prozesu honetan, horri esker hemendik aurrera Erregeak emandako legeak erresuma osoan ezarri eta betearazi ahal izango dira. Fiskalizapena populazio guztira zabaltzen ahalegin guztiak egingo dira; zergak borondatezkoak eta Estamentuek onartuak izatetik, halabehartuak eta arautuak izatera pasako dira.

Administrazio zentrala garatu zen neurrian diplomazia ere areagotuz joan zen. Diplomazia eta enbaxadak Estatuen arteko harreman-tresna gertatu ziren, Europan zehar informazio-sare bat hedatzen zutela.

C) BUROKRAZIA ETA FUNTZIONALGOA

Administrazioa boterearen tresna bat izan da beti. Menperatze-sistema gehienek lege-erakunde eta antolamendu fiskal berekiak izan ohi dituzte: boterea eta Erregearen borondatea erreinuko lurralde guztian ezarriko dituzten zerbitzari leialak.

Erregeek --arma, hitzarmen edo dena delakoz-- lurralde berriak berenganatzen zituztenean, berauek bateratu eta erret interesetara jartzeko berebiziko tresna administrazioa zen. Horregatixe, askotan, efikaziaren izenean administrazio zentralizatu bakarraz baliatu zen Erregea bere agintea Koroapeko lurralde guztietan egiazki inposatzeko.

Administrazioak Erregearen posizioa fin-

katu zuen, eta Estamentuak (noblezia batez ere) haren borondatepean jartzeko erakunde bat izan zen: goi-funtzionariak XVIII. menderarte Gortean bizi izan ziren. Koroarekin nobleek izan zuten esanekotasun horren truke, funtzionariak nobleziatik bertatik aukeratzea eskatu zuten eta, halaber, hobekien ordaindutako administrazio-lanpostuak **funtzionarien noblezia** horrentzat gordetzea.

Funtzionariek, administrazioko karguen bidez, Estamentu-gizartearen barruan maila sozial bat eta pribilegioak bilatzen zituzten.

Oro har, funtzionarien artean hiru talde bereiz daitezke:

a) Talde batean zeuden, lurraldeko edo Gorteko jaunen edo **agintarien ordezkariak**; ugari ziren. Hainbat burges egonarren, goi-karguetan eta hobekien ordainduta zeuden funtzional egitekoetan noblezia nagusitzen zen. Nobleok, agintearen ordezkari izatetik at ez zuten eginkizun zehatzik, eta erret presupostutik bizi ziren. Karguduna izateko jatorriari eta hezkuntzari begiratzen bazitzaion ere, karguak erosi ere egin zitezkeen.

b) Bigarren taldean, **aholkulariak** daude: goimailako ikasketak, giza zientziak eta zuzenbidea ikasitakoak ziren. Goimailako karguak beteko dituzte administrazioan, eta gero eta garrantzi gehiago hartuz joango dira aholkulariok.

c) Hirugarren taldean, komisari edo **intendenteak** daude: funtzionari modernoak dira eta eginkizun bereziak bete behar dituzte. Frantzian, Koroaren agindu zuzenetara zeuden eta Richelieu-rekin betekizun handia izan zuten.

Frantziako absolutismoa

"Gobernu-erakundeen aldetik, absolutismoa Erregearen botere-antolamendu bezala definitzen da, izan ere Kontseilu eta Ministraritzen zeregina monarkaren erabakiak erraztea zen bakar-bakarrik. (...). Zentzu horretan, lagun bakar baten boterea da absolutismoa (...). Versailles-ko ipar hegalean ari ziren funtzionari handi eta txikiak ez ziren erret borondatearentzat inolako balazta edo kontrakarga, borondate haren tresna eta aurreagenteak soil-soilik baizik (...). Feudalismoaren garai zailetan bezalaxe, Erregearen baitan gorputz-hartutako botere pertsonala da Erregegoa.

Gobernuaren beraren mailan absolutismoa arrakasta lorgarria izan zen (...). Erreinuaren administrazio-mailan, ordea, absolutismoaren helburuak askoz ere zailagoak gertatu ziren". *(MANDROU, R.)*

NOBLE ZALDUNAK (Saint-Esprit, 1724). Versailles-eko ospakizuna da hau. Nobleen Ordena zen Izpiritu Santuaren hau, Enrike III.ak sortua (1578). Ondoko erregealdietan betekizun politikoa izan zuen: Noble izan behar zen elkartera sartzeko; erret izendapenen asmoa beti ere noble kontentagaitzak Koroaren ingurura biltzea izaten zen.





ANTWERPENeko BURTSA, 1531n zaharberritu zen. XVI. mendearen erdian, Europa-ko lehen diru-azoka zen, egunero 5.000 bat sal-erosle zituena; 500 bat itsasontzi eta beste hainbeste lehorreko ibilgailu iristen ziren hara eguneko. Nobleziaren aurreko irudia eta burgesiaren hau elkarri kontrajarrita daude Europan eta bi talde sozial hauen arteko interesak ere bai.

Administrazio **zentrala** kontseiluaren bidez osatuta zegoen bereziki, eta honi "Estatu-Kontseilua" zeritzan. Agintari kolegiatuak ziren, bigarren mailako arazoetan eskuhar zezaketen, baina erabaki garrantzitsuenak Erregeak berak hartu behar zituen. Oro har, aholku-eginkizuna zuten bakarrik, eta sailetan banatuta zeuden. Felipe II.aren garaian Penintsula Iberiarrean hamabi goi-kontseilu sortu ziren, lurraldez eta sailka eratuta. Aholkulariak, nobleak eta burgesak ziren, izan ere, hezkuntza zabala izan ohi zuten hauek (gehienetan zuzenbide-ikastunak ziren) eta ez zitzaien esperientziarik falta izaten.

Kontseiluak Ministraritza baten eginkizuna zuen, eta Kontseiluko Idazkaria, ministrariaren parekidea kontsidera daiteke. Baina Idazkariak berak ezin zuen ezer erabaki.

Bazegoen beste erakunde bat: Lehenengo Idazkaria edo lehenengo ministraria. Adibide onak dira Richelieu Frantzian edo Olivares Konte-dukea Penintsula Iberiarrean. Erregearen menpe bazeuden ere eta ahalmen bereki bat ez izanarren, haien itzala handia izan zen.



GUERRA DELS SEGADORS (1640-1652) deitzen zaio katalanek Botere zentralaren kontra egin zuten gerrari. Josep de **Margarit** (1602-1665) mariskalak gidatu zuen, Frantziako Luis XIII.aren babesean, gaztelauen kontrako gerrate luzea. Gerra galdu arren, Erakundeak salbatu egin zituzten katalanek. Abertzaletasun katalanaren erro modernoak gertakari hauetan ikusi ohi dira.

COLBERT (1619-1683) Finantz Ministrariaren ohorez egindako enblema. Azpiko esaldiak hola dio: "Hamaikatxo arrakasta ederretatik ezagutzen da nere ahalmena, nik baizik ez ditut egiten pardelik pisuenak: Batez ere Erregeren ohoretan denean, ez da oztoporik, nik baztertzen ez dudanik".

Par mille beaux succes ma puissance est connue,
Les plus pesans fardeaux ne sont faits que pour moy:
Sur tout quand il s'agit de la gloire du Roy
Il n'est rien que je ne remue.





ENRIKE IV.a, Frantziako eta Nafarroakoa: Errege honek, katoliko egin ondoren, Frantziako Koroa ere hartu zuen (1589-1610). Erlijio-arazoak arautzeko Nantes-ko Ediktua eman zuen, higanautei ere eskubide politikoak aitortuz.

II. FRANTZIAKO MONARKIA ABSOLUTUA

XVI. mendearen erdialdeko gerrate frantsesek, Felipe II.aren hegemonia espainiarra erraztu egin zuten. Enrike IV.a --Ligaren eta armada espainiarraren aurka borrokatu ondoren-- 1593an katoliko egiten da, frantsesek ez dutela monarka kalbinista bat onartuko pentsatuz. Honekin bukatzen da gerratea.

Higanautei, ordea, Enrike borroka-lagun ohiak, Nantes-ko Ediktua-ren (1598) bidez, kontzientzi eta kultu-askatasuna, berdintasun politikoa eta ehun babes-hiri sostengatzeko eskubidea eman zizkien. Enrike IV.ak berreskuratuko du agintaritza eta indartuko Monarkia, bai erresuma-barnean eta baita erresumarteko politikan ere. Koroaren arrakasta politiko horren proba Estatu Orokorrekin gertatuan dago: 1614.ean bildu ziren azkenekoz.

Oinarri horien gain, hurrengo Erregeek (Luis XIII., 1610-43; Luis XIV., 1643-1715), Richelieu eta Mazarin Kardinalak lehen ministraritzat dituztela, jasoko dute Monarkia absolutua. Horrela, eratuta eta sendo geratuko da sistema politiko hura.

ERREGEA ETA INTERESAK, JAINKO

"Galdera: Nor da Erregea? Erantzuna: Ez zenidan plazer hoberik emango, Jainkoa nor den galdetu bazenit ere (...). Gaur egun, izan ere, zurikeriak halakoxe egoeratara eraman bait du erreinua, interesak, handinahiak eta lukurreriak halako burutaziotara bultzatu bait gaituzte, ze Jainkoa bera lur honetara baletor --ez, Jesukristo bezala itxura apalean, baizik eta serafinen distira osoan ere-- ez luke apenas lekurik izango, erret etxean ezezik, ezta erret adiskideen zerbitzarien artean ere". *(Zergen kontrako katexima, 1649)*

* 1. Protagonistak

Richelieu-k (1624-1642) protestanteei babes-hiriak eta pribilegioak kendu egingo dizkie, baina askatasun erlijiosoa errespetatuz (1628). Goi-noblezia ere hezi eta menperatu egin behar izan zuen, izan ere erret boterearen aurka behin eta berriz altxa ohi zen eta. Gogorki erreprimitu zuen, beraz.

Mazarin-ek 1642-1661. urteetan bortizki jarraitu zuen Richelieu-ren politika. Atzerritarra izateagatik oposizio handiagoa jasan behar izan bazuen ere, gatazka haren gailurra Parlamentu eta Erregeren artekoa zen. 1648an Pariseko Parlamentuko errebolta lehertuko da: "noblesse de robe" deituak (funtzionari nobletuek, alegia) intendenteek lortutako eskubide berrien aurka protestatuko du eta Parlamentuaren baimenik gabe zergak biltzea eragotziko. Altxamendua erresuma guztira hedatuko



RICHELIEU KARDINALA (1585-1642). Luis XIII.aren Lehen Ministraria. Ahalegin guztiak egin zituen Habsburgtarren hegemonia hondatu eta Frantzian erret Absolutismoari oinarriak emateko.



FRONDA (1648-1653). "Fronde" (=abaila) deituriko errebol-taldi honetan Erret Boterea da Parlamentuek (auzitegiek) eta Nobleziak erasotzen dutena Frantzian. Luis XIV.aren adinaurreko eta Mazarin-en kontrako borroka izan zen. Azkenik, Koroa irabazle irten zenez, Nobleziak eta Parlamentuek men egin behar izan zioten hari.

Erret aginteaz

"Lankidetzat behar nituen lagunei buruz, edozein eratan ere lehen ministrariric ez hartzea erabaki nuen (...).

Hala ere, nahitaezkoa zen nere konfidantza eta aginduen betearaztea norbaitekin eramatea baina beti ere bati bakarrik erantzukizun osoa utzi gabe, baizik eta lagun ezberdinei --bakoitzaren argien arabera-- arazo ezberdinak banatuz: burubide hauxe da agian printze zuhur eta jakitunaren dohainik bikainena.

Eta oraindik beste zerbait ere erabaki nuen: jaun-aginte osoa nere eskuetan hobeki biltzeko (...), ministrariak aukeratu nituenean, noizbehinka hauetako bakoitzarekin, zernahitaz hitzegiteko, edozein ordutan eta gutxiena uste zuela egotea erabaki nuen.

Garrantzi handiko Estatu-interes eta isilpeko arazoetan (...), hauek ministrari bakar baten eskuetan utzi nahi ez nituenez, hiru izan ziren baliagarrigotzat hartu nituenak: Le Tellier, Fouquet eta Lionne. (...).

Pentsatzen dudana osorik eman behar bada, ez nuen gizonik buruargienak neregana inguratzen interesik".

*(LUIS XIV: **Mémoires pour l'Instruction du Dauphin**)*

da, goi-nobleziak ere eskuhartzen duela. Fronda deritzan mugimendu honek, Condé printzearen gidaritzapean, 1652-53an lur jo zuen, ez bait zekarren kontzeptu politiko berri baten indarrik.

Luis XIV.a (1643-1715) pertsonalki gobernatzen 1661ean hasiko da eta Mazarin-en politika jarraituko du; ordurako erabakien monopolioa eskuratuta zeukan Koroak. Mazarin hilda gero, Estatu-Kontseiluaren aurrean gobernu osoa ("absolutua") erreibindikatu zuen, "neu naiz Estatua" adieraziz. Monarkia absolutuaren kokalekua eta ispilua Versailleseko jauregi ederra izango da, Elizaren, burokraziaren eta aristokraziaren botereak bertan bilduz. Europako beste erresumek Versailles imitatuko dute, eta hango jai arranditsuetan partehartuko.

* 2. Antolamendu politikoa

Erret boterea burokrazian sostengatzen zen, eta boterea bereganatu ala **funtzionalgoa** ugaldu zuen. Baina honen eginkizuna, laguntza ematea besterik ez zen. Lurraldea, intendentzitan banatu zuen Koroak; berauen buru intendenteak ziren, eta botere zentralaren ordezkari bezala ziharduten beti. Politika zentralizatzaile honetan pertsona egokiak aukeratu zituen laguntzaile gisa: bereziki gogoratzekoak dira Colbert, gai ekonomikoetan trebea, eta Vauban injineru militar bezala.

Luis XIV.ak Erreinuko **Elizak** ere bere menpe jarriko ditu. 1685ean, Nantes-ko Ediktuak ematen zien askatasuna deuseztatuta, protestanteak katolikotasuna onartzera behartuko ditu. Are ge-



LA ROCHELLE (1627-28). Nantes-eko Ediktuaren ondoren, status politiko berezia zuten Frantziako Higanautak (protestanteak). Botere absolutistaren aldekoentzat (gogora Richelieu) egoera ezin eramana zen hori, eta zuzenean eraso zieten, beraz, Koroak orduan utzitako babes-hiriei. Hauetan ezagunena La Rochelle, Richelieu-k hartu zuen arte (1627-28), grabatuan ikus daitekeen bezala, itsaso eta lehorrez.

hiago, oraindik: erresumako Eliza katolikoa Erregek berak zuzenean eraman nahiko du, Erromatik saiestuz: galikanismoa deituaren politika frantsesa ezarriko da. Erregek apezpiku galikanoen izendapena defendatu zuen, baina Aita Santuak horretarako zenbait berme eskatzen zion: gatazka horretan, 36 gotzaindegietaraino geratu ziren hutsik, erregali eskubideez jabetu nahi bait zuen Erregek. Erabaki honen bidez apezpikuari zegozkion irabaziez jabetzen zen. Inozentzio XI.a Aita Santuak, gaitzetsi egingo ditu Luis XIV.aren ikuspuntuak. Baina honek, Kleroaren Asanblada orokorra bilduz, Aita Santuaren asmoak zapuztea lortuko du.

Monarkia absolutuaren antolamendu berrian, nahitaezkoa gertatu zen, Koroapera bildutako **lurralde historikoen** egoera politikoak botere berriaren konbenentzietara moldatzea. Luis XIII.ak Ediktu baten bidez (1620) **Nafarroa**-ko erresuma Frantziako Koroari erantsi zion. Dena den, nafarrek foruak eta askatasunak gordetzen jarraituko

Nafarroa Beherea (1620)

"Luis XIII.a expedizio armatu batekin etorri zen eta Pauen sartu 1620ko urriaren 15ean.

Hilaren 20an, kalez kaleko prozesioaren ondoren, ***Kontseilu Subiranoa*** *ediktu bat erregistratzera bortxatu zuen: Biarnoa eta Nafarroa Beherea Frantziako Erreinuari batuta geratzen zirela".*

(TUCOO-CHALA: ***Hist. du Béarn****)*

"Hala ere, baterakuntza honek ez ditu derogatzen gure menpekoei Erreinu hartan eta Biarnoko herrian dagozkien Foruak, Frankeziak, Libertateak, Abantailak eta Eskubideak, izan ere bortxarik gabe gorde eta mantendu nahi bait ditugu berauek",esan zuen Luis XIII.a Erregek. (GOIENETXE,E.:)

FRANTZIAREN MUGA BERRIAK. Diplomaziaz eta gerraz politika programatua eramango du Luis XIV.ak, Frantziaren ekialdeko mugak zabaldu eta eskualde berriak irabazteko. Mapa honetan ikus daitezke politika horren adibide batzuk: hau da absolutismoaren beste gisa bateko politika-azalpena. -- Strasbourg bezalako hiri mugaideak egiazko gotorleku ziren, egokiera hartan: indarrez zabaldutako erreinuen armazko defentsa-hiri, alegia.



GERRA BIDEZKO BAKEA

"Urte batzuetatik hona, gure ardurarik nagusiena izan da gure aliatuei laguntza eta geriza eskaintzea, arerioen erasoetan ere sostengurik izan zezaten (...), eta etenik gabe gure onginahiaz balia zitezen, beren etsai asperkaitzak diren espainiarren eta inperiotarren aurka baliabide hobeak izanez; baliabide hauei esker, maiz asko abantaila nabariz ere eraso ahal izan diete haiei. (...). Inperiotarrek eta espainiarrek Alemaniako Estatuetan dauzkaten probintziek erraztasuna ematen diete beroriei Kristandadea nahastatu eta bereziki Suedia-ko Koroaren eta gure Estatuen bakea hondatzeko, eta horrelaxe jokatu dira haiek hainbat aldiz, aukera eta baliabideak bilatuz. (...). Beraz, hau da hitzartu duguna: (...) Erregek, Rhin-aldean egingo die gerra Austria Etxearen probintzia heredagarriei, eta Suedia-ko Erreginak, ostera, Etxe beraren Bohemia eta Silesia-ko Erreinuei". (Frantzia-ko Luis XIII.aren eta Suedia-ko Kristinaren arteko Tratatua, 1636).

dute. Halaber, Frantziako Erregeek foruak zinegiten eta "Frantziako eta Nafarroako Errege" deitura erabiliz segitu zuten.

Zentralizapen-ahaleginak XVII. erdialdean hasi ziren, erret funtzionariak zerga berriak sartzen hastean. Bestalde, garai honetan Lapurdin ematen diren liskarrez baliatuko da Koroa erret ordezkarien agintaritza sendotzeko eta erakundeen funtzionamendua kontrolatzeko.

XVII. mendean aurrera goazen neurrian argi ikusten da Borbondarrek ezarri nahi duten Estatu-eredua zentralista dela, ez federalista alegia, eta Erregearen pertsona eta Estatua bat direla. Horrela erret ondare pribatua Koroari eransten zaio, eta periferiako zenbait lurralde Koroaren menpe geldituko dira, beraz: Quercy eta Dauphinè 1628an; Probentza 1639an; Rouergue eta Armagnac XVII. mendearen bukaeran eta Bigorre XVIII. mendean.

III. PENINTSULA IBERIARRA

Penintsula Iberiarrean sistema absolutista, erresuma desberdinen autonomiak mugatuta zegoen. Erreinu espainiarrak **Estatu federal** bezala antolatuta zeudelako, Erreinu bakoitzak (Gaztela, Aragoa, Nafarroa, Katalunia, Valèncià, Napoli...) bere erakunde eta ohizko legeak gordetzen zituen. Erakundeetan Erregearen ordezkariak zeuden (Erretordea Nafarroaren kasuan, edo Korrejidorea Gipuzkoa eta Bizkaian edo Diputatu Orokorra Araban); berauen betekizuna Koroaren eskubideak defendatzea zen.



ROSSELLO GALDUTA. Luis XIV.ak, ekialdetik ez ezik, hegoaldean ere irabazi zituen eskualde berriak: 1642an galdutako Rosselló-n, Espainiako Monarkiakkiak ezin izan zuen Kataluniaren batasuna zaindu (Pirinioetako Bakea, 1659). Frantsesek honela egiten zieten iseka soldadu espainolei.

"ESPAINIAKO ERREGE"

"Eduki beza Berorren Majestate horrek monarkiako eginbehar handi eta funtsezkoena bezala Espainiako Errege izatea: esan nahi bait dut, Jauna, ez dadila Berorren Majestate hori kontenta Portugal, Aragoa, Valencia-ko errege edo Barcelona-ko konte izatearekin, baizik eta saia dadila eta pentsa Espainia osatzen duten erreinu guztiok nola ekar ditzakeen Gaztelaren ildo eta legeetara, inolako diferentziarik gabe. Izan ere, Berorren Majestate horrek hori lortuko balu, munduko printze boteretsuena izango litzateke".

(OLIVARES KONTE-DUKEA: ***Memoria****, 1625)*



OLIVARES KONTE-DUKEA (1587-1645). Espainiako Felipe IV.--aren Lehen Ministraria edo izan zen. Indar-politika egin nahi izan zuen Erreinu-barnean eta kanpoan, horrela Katalunia eta Portugalen altxamenduak haizatuz. Ezagunak dira Konte-dukearen asmo zentralistak.

Herrialde bakoitzeko erakundeek, beren aldetik enbaxadariak izendatzen zituzten, Gortean Foru-interesak defenda zitzaten. Baina bazuten beste tresna juridiko bat **Foruaren defentsa**-rako eta erret agintekeria mugatzeko: "pase forala", "sobrecarta" eta "publicación" deituak.

Tresta horiek gorabehera, **integrazio-prozesua** XVII. mendean, Olivares Konte-dukearekin, indartu egin zen, zergak bateratzeko projektuaren bidez, arma-zerbitzuaren projektuarekin eta, berezikiago, erregimen politiko-administratiboaren baterakuntz projektuaren bidez: "Gaztelako erara eta hango legeen arabera" eratu nahi izan zen bizitza politikoa. Katalunian, 1640ean, asmo hauen aurka hamahiru urte iraungo zuen gerra sortuko da. Portugalen, aldiz, altxamenduak, gerrate luze baten ondoren (1640-1668), **independentzia** ekarri zuen.

IV. PRUSIA

Hogeitamar Urteko Gerratearen ondoren, Federiko Gilen Brandeburg-eko Hautesleak, bere lurraldeak (Brandeburg-eko Hauteslerria, Cleves eta Prusiako dukerriak) hedatu egin zituen: Ekial-

deko Pomerania eskuratuz, eta Magdeburg eta Minden-go eskualdeak ere bai. Baina ez zen hura lurralde-egoera ona: sakabanatuta zeuden ukantzak, eta, oro har, pobreak ziren, gainera.

Halaber, goitik eta behetik mugatua zegoen printzearen agintea, alde batetik Enperadorearen basailu zelako eta, bestetik, asanblada probintzialen muga zuelako.

Egoera aldatu nahiez, Federiko Gilen-ek biltzar probintzialetan bere aginpidea inposatzea, haietarako funtzionariak izendatzea eta zerga iraunkorrak ezartzea lortuko du. Horrela, 25.000 soldaduko armada profesional ahaltsua ordaindu ahal izan zuen. Bestalde, bere lurraldeetan onartutako 25.000 higanaut frantsesek nekazaritza eta industriaren garapena bultzatu zituzten. Beraz, Prusia Europako potentzia berri bat bilakatu da.



PRUSIAko ARMADA. (Kanpamentua). Federiko Gilen-ek (1640-1688) sortu zuen Armada Prusiarra, beronekin Prusiako Estatuari oinarria emanez. Hurrengo mendean, XVIII.ean alegia, handitu eta antolatuko zen era modernoan Armada hura, 1740an 83.000 soldadu izateraino.



ZERGAK. Estatua zergen gain jaso zen. Izan ere, burokrazia berria, armada eta egin nahi zen indar-politika ezinezkoak ziren diru-altxor on bat gabe. Hona garaiko marrazkilariak nola ikusi zuen zergalari baten biltokia.



PEDRO I.a (1689-1725). Haurtzarotik ezagutu zituen Zar honek boterearen inguruko borroka eta liskarrak. Irudian, Erretetxeko soldaduak ageri dira, noble gortesauak hiltzen, eta goian zerbitzariak dabiltza Pedro haurra defendatzen (1682).
Errusian botere-molde modernoa ezartzeko, nobleak bere esanetara jarri eta armada menperatu behar izan zuen Zar gazteak, eta Mendebaldeko teknika eta antolamenduak eraman Errusiara. (KREXTINen marrazkia: "Pedro I.aren bizitza", XVIII. mendekoa).

V. ERRUSIA

XVII. mendearen hasieran, --bere eraketa zaharkituagatik-- Errusiak Estatu ekialdetar bat ematen zuen, baina Romanof dinastiako lehen erregeekin, aldaketa sakonak lortuko dira.

Alexi I.ak (1645-1676), armada bere zerbitzuan ipini ondoren, indartu egingo du eta nobleziaren boterea hedatuko du, jopuak ugalduz. Pedro I. Handiarekin (1689-1725) emango dira Errusia moderno bat lortzeko lehen urratsak.

Erregea bera Mendebaldean egon eta berrikuntzak ezartzeko hemendik laguntzaileak hartu ondoren, Europako berrikuntzak sartu zituen, jazkeran eta teknikan. Estatu zaharra desegin, indarrez administrazio eta armada berri bat inposatu zituen, eta probintzi gobernuak sortu. Industria eta merkatalgoa babestu eta hiriburu berri bat sortu zuen, San Petersburg. Elizaren antolamendua ere aldatu egin zuen, patriarkari kendutako aginpidea Sinodoari emanez eta berau ordezkari batez kontrolatuz.

VI. PARLAMENTARISMOA

Ikusi ditugun bilakaera horiei kontrajarritako bestelako prozesu politiko jakingarri bat azalduko dugu orain. Ingalaterra eta Herbeheretako erregimen parlamentariak aipatzen dira, bereziki.

A) INGALATERRA

XVII. mendearen hasieran Tudor dinastiak, eta Elisabet-ek batez ere, Koroaren boterea zihurtaturik zuten. Baina **Jakes I.**ak (1603-1625) lehen Estuardarrak, erresuma guztia kontrolatu nahirik, lege-arazoetan erret eskubideari eutsiz (Parlamentua aholku funtziotara mugatuz, beraz), ingelesak aurka ipintzea lortuko du. **Karlos I.**ak (1625-1649), Parlamentua disolbatzean, erreinua gerrate zibilera eraman zuen.

Cromwell-en diktaduraren ondoren (1658) gobernatzeko era berri bat finkatuko da Ingalaterran, Parlamentarismoa. Honen arabera, gobernatu, oraindik Erregeak gobernatzen du, baina haren boterea Parlamentuak mugatu eta ikustatzen.



1689ko Eskubideen Agiria

"Honela, ba, Lord izpiritual eta denboral deituok eta Komunek, gutun eta hauteskundeen indarrez bilduta, nazioaren ordezkaritza osoa eta librea elkarrekin osotuz, eta aipatutako helburua lortzeko baliabiderik onenak serioski kontuan ditugula, zera aitortzen dugu:

***Lehenik** (antzekoetan beren arbasoek beti egin zuten bezala), aintzinako eskubideak eta libertateak segurtatzeko:*

***1.** Legeak zintzilik utzi edo Parlamentuaren baiespenik gabe legeak beterazteko erret aginteak omen duen balizko boterea legez kontrakoa dela.*

***2.** Legeak beterazteko nahiz dispentsatzeko erret aginteak omen daukan balizko boterea (iraganean botere hori usurpatu eta erabili izan den gisan) legez kontrakoa dela. (...).*

***4.** Koroarentzako, nahiz gastatzeko, edozein diru-eskaerari buruz: eskubide-aitzakiz, Parlamentuaren adostasunik gabe denbora lar luzatuz edo Parlamentuak onartuko ez lukeen eran aurkeztuz egindako eskaera legez kontrakoa dela.*

***5.** Gizabanakoen eskubidea dela Erregeri eskaerak aurkeztea, eta eskaera hauengatik egindako presohartze edo pertsegizioak oro legez kontrakoak direla".*

*(**Declaration of Rights**, 1689)*

LEHENENGO GERRATE ANGLO-HOLANDARRA (1652-1654). Itsasoen jabetasuna garrantzizkoa izan zen munduko merkatal hegemonia segurtatzeko. **Blake** (1599-1657) almirantearen ontziteria ikusten dugu hemen holandarrekin guduan: Ingalaterra eta Herbehereak elkarren lehiakide eta Frantziaren etsai izan ziren norgehiagoka honetan.

Merkatu-lehiaketa

"Frantziak gaur egun 200 ontzi ditu bere portuetan, egoera onean; holandarrek 16.000 zituzten 1658an. (...). Erregeren boterea lehorraldean gainerako Europako guztien gainetik dago, baina ahulagoa da itsasoan. (...).

Konbeni da, merkatalgoa zein egoera kaskarrera etorri den xeheki ikustea. Baina begira barne-merkatua eta portutik porturakoa: oihal- eta zirrikiton-manufakturak eta bestelako ehunak, papereria, kinkaileria, zeteria, miesak, xaboiak eta, oro har, gainerako eskuegin guztiak kasik erabat hondatuta egon dira eta daude oraindik ere.

Holandarrek oztopatu egin dituzte gure eskulanak, eta orain manufaktura berorietxek ekartzen dizkigute, horrela beren kontsumo eta trafikorako behar dituztenak guri ateratzearren (...)".

(COLBERT,J.B., 1663)

B) PROBINTZIA BATUAK: HOLANDA

Holandan burgesia eraginkor batek bultzatu zuen bere ekonomia. Europako eta kolonietako (Insulindia eta Ameriketa) merkatalgoari esker aberastutako burgesia zen. Klase indartsu horrek bere interesen araberako erregimena sortu zuen. 1648an Westfaliako Bakean, independentzia lortuko dute Probintzia Batuek.

Errepublika gisara antolatu zuten gobernuera, boterea burgesiaren eta aristokraziaren eskuetan jarriz. Beraz, Holanda sortzen denean, bere Errege Felipe II.aren aurka altxatzen denez, botere absolutuaren ideia arbuiatuz eratuko da agintea. Ordezkariak, Estatu Orokorretan edo Parlamentuan biltzen ziren; honek, Estatu buruzagi edo Pentsionari Nagusiarekin batera, zuzentzen du politika.

Errepublika honen ezaugarri nabarmena, bere askatasun-giroa izango da. Askatasun pertsonalak nahiz pentsamenduzkoak bermatuta daude: Descartes, Espinoza, etab., garaiko jakintsu eta pen-



HERBEHEREAK MUNDUAN
Westfaliako Bakean (1648), beren independentzia lortu aurretik Herbehereek Espainiaren aurka larogei urteko borroka luzea jasan behar izan zuten (1568-1648), tarteko tregoa batekin (1609-21). Nazioartean nortasun politikoa finkatu ala, mundura zabaldu ziren merkatari holandarrak (Ameriketa, Asia, Afrika).

tsalariak, hantxe bizi ahal izan ziren. Eta idazlanak ere han eman zituzten argitara.

VII. ESTATUARTEKO HEGEMONI BORROKA

XVII. mendean, Europako hegemoni grinak zenbait Estatu gerrara bultzatuko du. Lehenengo erdialderarte, Espainiak XVI. mendetik zuen hegemonia, ezabatzea izango da xedea. Bigarren erdialdean, Holanda, Frantzia eta Ingalaterra itsasoen eta kontinente europarraren hegemoniaren bila lehiatuko dira.

A) HOGEITAMAR URTEKO GERRATEA

1618tik 1648ra luzatuko da. Hasieran gatazka erlijiosoa baldin bada ere (Alemaniako katoliko eta protestanteen arteko borroka, alegia), Europaren hegemoni borroka izanik bukatuko du. Frantziak nazioartera eramango du istilua, Habsburgtarren bi potentziek (Espainiak eta Inperioak) inguratuta sentitzen bait zen. Alemanian ez zegoen askatasun erlijiosorik, enperadoreak --berau Habsburgtarra izaki--, bere Estatuetatik protestantismoa idoki egin nahi bait zuen; ondorioz, Bohemiaren altxamendua piztu zuen politika hark. Egun Txekoslovakia deritzogun herrialde honetan, Txeko(eslaviar) eta austriarren (alemanak) arteko ohizko ikusezina zegoen tarteko.



MONARKIA EZ-ABSOLUTUAK. Absolutismoaren garairik onenean ere, Europan erregimen ezberdinak zeuden: Monarkiak eta Errepublikak, Printzerri katoliko eta protestanteak, Monarkia absolutu eta parlamentariak... Ingalaterra-k lortu zuen parlamentarismorik heldueena. Hemen ikusten den eraikuntza hau (XIX.ean jasotako Parlamentua), aurreko mendeetako lorpen politiko ingelesen sinboloa izan daiteke.



HOGEITAMAR URTEKO GERRATEA (1618-1648). Erlijio-aitzakiekin, erreinuarteko hegemoniaz nor jabetu izan zen borroka. Sekulako triskantza eta hilketak ezagutu zituen gerrate anker honek. Hemen ikus daitekeenez, prisonerak hil egiten zituzten.

Txekiarrek, Palatinatuko Hauteslea (Federiko) onartu zuten enperadoretzat. Espainiako Erregearen laguntzari esker, enperadoreak (Ferdinan II.ak) garaipena lortu zuen; ondoriobidez, noble protestanteek beren lurrak galdu zituzten.

Baina ez zen erraza bakea: bazen, izan ere, beste liskar-biderik. Alemania-ko printze katolikoek enperadorearengandiko independentzia nahi zuten: horretara iristeko, Frantzia suertatu zekiekeen lagun interesatua. Hala ere, ezinezkoa gertatuko zaie irtenbide hori eta Danimarka-ko Kristian IV.a izango dute aliatua. Laguntza izanarren, garaipena, berriz ere, Ferdinan II.aren eskuetan geldituko da.

Hirugarren gerraldian, protestanteen gidaria Suedia-ko Gustav Adolf zen. Garaipen azkarrak lortu bazituen ere borrokan hil egingo dute. Nordlingen-go garaipen katolikoaren ondoren, Frantziak eskuhartuko du gerratean, Habsburgtarren garaipenari itzurtzeko. Azkenean, Westfalia-ko Bakera (1648) iritsi ziren: hemen hasten dira, garbi, hegemonia espainiarraren amaia eta frantsesaren hasiera. Espainiak Holandari independentzia ezagutu behar izan zion, orduan.



WESTFALIAko BAKEA (1648). Hogeitamar Urteko Gerratearen ondoren izenpetu zen. Europako Erreinuen artean oreka eta botere-banaketa berria ezarri zituen, batez ere Ipar eta Erteuropan. Frantziaren eta Espainiaren artekoak, ostera, geroago arautu ziren, Bidasoako irletan: Pirinioetako Bakea (1659).

B) FRANTZIAREN HEGEMONIA

Inperioaren eta Espainiaren aurkako garaipenek Frantziaren botere militar eta politiko handia erakutsi zuten. Luis XIV.aren erregealdiko lehenengo hogeitamar urtetarako hegemonia berria finkatua dago, horrekin. Luis XIV.ak politika oldalkor bat erabiliko du Europan, zenbait lurraldez jabetuz; baina, epe luzera, ahuleria dakarkiote borroka hauek, azkenik Europak aurpegi emango bait dio Luis XIV.ari. Frantziak lehen potentzia izatea galdu egiten du beraz, Utrecht-en (1713).



KARLOS II.a (1665-1700). Espainiako Errege hau Erreinu eroriaren irudi bat da. Frantziak bere indarraren gailurra jotzen duenean eta Ingalaterra hegemoniarako oinarriak jartzen ari dela, Espainiak galduta du garai batetako itzala (Westfalia, 1648; Pirinioak, 1659). Erreinuaren ahuleziak arrastaka eramango du dinastia austriarra ere: Borbondarrek irabaziko dute Espainiako Koroa, Karlos II.a hiltzean.

C) HEGEMONIA INGELESAREN HASIERA

Ingalaterrak, bere barneko krisiak gainditu ondoren, sutsuki eskuhartzen du Europako politikan. Beraz, Augsburg-eko Ligan partaide eragingarria izan zen, zortzi urtetan Frantziaren aurkako gerratea sostengatuz. Eta ez fruitu onik gabe, hain zuzen Ryswick-eko Bakeak (1697) Frantziaren lehen atzera-pausoa esan nahi bait du.



O.CROMWELL (1599-1658). Karlos I.aren heriotza ondoren, Lord "Protector" bezala diktadore bihurtu zen Ingalaterra, Eskozia eta Irlandan. Erreinu haren itsas hegemoniaren oinarriak jarri zituen (Navigation Act, 1651).

Espainiako Karlos II.ak, bere hilburukoan, ondorengotzat Anjou-ko dukea izendatuko du; horrela, Luis XIV.aren biloba gertatu zen erregegaia, Felipe V.a. Monarkia biek bategingo ote duten beldurrez, "Segida-Gerratea" (Guerra de Sucesión) pizten da. Utrecht-eko Tratatuarekin lortzen da berriro bakea, baina ez Ingalaterrari segurtasunak eskaini gabe: Felipek ezingo du Frantziako Koroa heredatu, eta Ingalaterrak Menorca eta Gibraltar eskuratzen ditu Espainiako Koroagandik.

VIII. BIZTANLERIA

XVII. mendeari buruz ematen diren populazio-zifrak ez dira zehatzak, estimazioak baizik. Honen arrazoiak honako hauek izan daitezke: estatistiketarako metodorik eza eta estatuarteko mugen zehaztasun-falta.

MUNDUKO BIZTANLERIA (1650)	
Kontinenteak	**Milioi**
Europa (Errusiarekin)	103
Afrika	100
Ipar Amerika	1
Hego eta Ertamerika	12
Asia	327
Ozeania	2
GUZTIRA	545

Ikus daitekeenez, Europa eta Afrika paretsuan daude; Ameriketak, ostera, gal du ditu milioikada ederrak (80 milioi zeuzkan 1492aren inguruan). Asia, Europa baino hiru bider gehiago da.



PARISEko OSPITALEA. Europako biztanleriak asko sufritu zuen indar politikoen arteko borroka armatuekin, baina izurritearen erasoak eta medikuntza onik ezak ere biziki hondatzen zuten gizon-emakumeen bizitza: ospitaleak eta osasun-zerbitzuak eskasak eta txarrak ziren. Pariseko ospitale hau salbuespen dotore bat da bakarrik.

XV-XVII. MENDEETAKO IZURRITEAK

Hiriak	Urteak	Zenbat izurrite
Besançon	1439-1640	40
Dole	1565-1637	5
Savoia	1530-1587	7
Limousin	XVI. mend.	10
Orléans	XVI. mend.	22
Sevilla	1507-1649	6

EUROPAKO BIZTANLERIA
(XVII. mend. Milioitan)

Herrialdeak	
Frantzia	16
Pen. Iberiarra	10
Italia	13
Ingalaterra/Gales .	4,5
Danimarka	0,6
Holanda	3
Alemania	20

Europako dentsitate ezberdinak begiratzekoak dira. Jendeztatuena, alde horretatik, Italia da, Holanda gero. Frantziak doblatu egiten du Penintsula Iberiarra.

Oro har, esan daiteke XVII. mendean populazioaren **geldiunea** egokitzen dela, eta herrialde batzutan atzerapena ere bai. Biztanleria ipar herrialdeetan hazi zen zerbait; Italian eta Frantzian, aldiz, pausaldi bat nabaritu zen; Alemanian eta Espainian, azkenik, jaitsi egin zen. Jaiotzak ugariak baziren ere, **hilkortasuna** handia zen, batez ere haurrena. Hilkortasun honen zergatien artean, noizbehinkako izurriteak, uzta txarrak eta gerrate ugariak gogoratu behar dira. Goseteak eta epidemiak maiz agertu ohi ziren.

Halaber, XVII. mende honetan **migrazio**-mugimenduek garrantzi handia izango dute; arrazoi politiko-erlijiosoek mugitu zuten migrazio hori:



PENN, INDIARREKIN TRATUAN. William Penn (1644-1718) kuakera zen; Karlos I.a Erregek zor zizkionen truke lurralde bat eman zitzaion Ipar Ameriketan. Kuaker pertsegituentzat Pennsilvania sortu zuen (1681). Kolonia berriak ekonomia merkantilistari laguntzeko ere eraiki izan ziren. Ihesi zihoazenen Erlijio-askatasunaren ametsez edo irabazien egarriz jaio ziren kolonia ingelesak.

protestante frantses askok ihesegin behar izan zuen, beste herrialdetara. Katoliko irlandarrak pertsegituak izan ziren, eta Ingalaterratik eliza ez-ofizialetako zenbait eliztarrek ere Ipar Ameriketara aldegin behar izan zuen (The Pilgrims: Mayflower, 1620). Penintsula Iberiarretik 300.000 **morisko** egotzi zituen Koroak (1609).

IX. EKONOMIA

A) MONETA-KRISIA

XVI. mendean, aurkikunde handiekin batera, metal preziatuen kantitate handiak iritsiko dira Europara, Penintsula Iberiarraren bitartez. Diru-ugaritasunak prezioak gora eraman zituen, *baina bultzatu zuen produkzioa ere.*

XVII. mendean Ameriketako zenbait urre- eta zilar-meategi agortu egingo dira, eta Estatu europarrak kobrezko moneta ugariago erabiltzen hasten dira ondorioz. Prezioak egonkor mantenduko dira; egoera honek, ordea, produkzioa moteldu egin zuen.

Moneta-agorraldi honi aurpegi emateko, gobernuek monetaren balioa aldatuz jokatu zuten. Horren ondorena, pentsa litekeena izan zen: finantzek segurtasuna galdu zuten eta moneta-anarkia sortu. Baina ez zen erraza sendagarri onik topatzea, izan ere baliabide finantzariak Monarkia Absolutuak gerrate eta luxutan txautzen bait zituen.

Zer zen merkantilismoa?

"Egoki izango da merkantilismoari bere esanahi teoriko eta historiko zehatza ematea: XV. mendetik XVIII.era, Estatu nazionalen dotrina eta praxi ekonomikoa da merkantilismoa. Dotrina honek, inportazioen gainetik, ondasun- eta zerbitzu-esportazioetan soberakin bat segurtatu nahi du, berau bait da, izan ere, urre- eta zilar-meatzik gabeko herrialdeetan, Estatu-boterearentzat eta nazioaren oparotasunerako ezinbestekoak diren metal preziatuak eskuratzeko baliabide bakarra... Erdi Aroaren eta Aro Garaikidearen artean merkantilismoa da kapitalismoaren eta industria modernoen etorrera prestatu zuena".

(DEYON,P.)



SISTEMA MERKANTILISTA. Estatuaren sarrerak (Ameriketatik edo urrerik ez datorrenean batez ere) herriarengandik datoz,laborariengandik bereziki, nobleziaren aberastasunak ere iturri bera bait du. Bilduta-ko zergak batez ere luxu eta armatan ematen dira, Monarkia absolutuetan; probetxuzko inbertsioak apalagoak dira askoz ere. Teoriaren arabera, esportazioak dira Erreinurako aberaspide nagusia.

Amerika, merkantilismoan

"Ez Koroari, ezta kolonizatzaileei ere, interesatzen zitzaien XVI. mendean Indietako industri garapena, hauek ez bait zuten esku-lanetarako zaletasunik, eta Koroak, berriz, metropoliko industriarentzat garapen hura kaltegarri ere bazela uste zuen. (...).

Meatz-industriak, ordea, sekulako garrantzia izan zuen, bizitza ekonomikoaren "nerbio eta muin nagusia" izateraino, izan ere kolonizatzaileen gutiziak eta Estatuaren beharrizan finantziariek elkartuta bultzatu bait zuten meagintza. (...). Urre- eta zilar-meatzek itxuratu zuten, faktore erabakior bezala, Indietako ekonomia, berau metalista eta merkatal-inportatzailea bihurtuz". *(VICENS-VIVES)*

AMERIKETAKO URREA, ESPAINIARA

Urteak	Pisuak (450 marai)	
1591-1595	42.221.835	Goraldia
1596-1600	41.314.201	
1601-1605	29.283.994	
1606-1610	37.686.248	
.....		Beheraldi
1626-1630	29.945.432	geldia
1631-1635	20.533.025	
1636-1640	19.577.522	
1641-1645	16.516.563	
1646-1650	14.124.656	Beheraldi
1651-1655	8.752.520	lasterra
1656-1660	4.033.339	

Ikus daitekeenez, 70 urteren buruan hamar aldiz urre gutxiago sartzen da Ameriketatik Espainiara. Beheraldiak oso-osorik hartzen ditu Felipe IV.aren erregealdia (1621-1665) eta garai bereko gerrateak (Hogeitamar Urtekoa, 1618-48; Frantziarekin 1659raino. Katalunia-Portugaletakoak, 1640-1652/1640-1668).

B) NEKAZARITZA

Janari-beharrak nekazal produkzioa zerbait bultzatu zuen; baina, dena den, ohizko eran produzitzen zen, produktibitate oso txikiz, alegia. Familia nekazari bakoitzak, irauteko eta errentak eta zergak ordaintzeko lain ateratzen zuen bakarrik.

Aurrerakuntza tekniko batzuk Holandan agertu ziren, eta Ingalaterran, gutxiago. Holandan, urte bizbateko itzul-sistema (errotazioa) hutsaren ordez zuhain-landareak tartekatzen hasten dira, baita artoa, patata eta tulipanak ere. Aurrerapen hauek gorabehera, ez da oraindik, hurrengo menderarte, nekazal iraultzarik gertatuko.

C) MERKANTILISMOA

Ekonomia bultzatzeko, Europako Herrialde gehienetan XVII. mendearen erdialdean, Merkantilismoa deritzan ekonomi sistema ezarri zen. Merkantilisten ustez, Erreinu baten aberastasuna metal preziatuen (**moneta**) kantitate handiak metatzean oinarritzen da. Hau lortzeko, Estatuak ekonomian zuzenki eskuhartu behar du. Dirua Erreinutik atera ez dadin, gutxi erosi behar da kanpoan; eta, kanpotik biltzeko, ahalik gehien saldu, ostera.

Ideia hauek, azkenean, **muga-babespena** dakarte: esportazioak lagundu egin behar dira, eta inportazioei hesiak jarri, lehengaiei batez ere. Herrialdeak, elkarren artean, merkatal lehiaketa batetan sartzen dira, eta ekonomiari ere halako zentzu nazional bat ematen zaio. Horrela, autarkia ekonomikoa sortzea izango litzateke politika ekonomikoaren azken desira.

Errege absolutuek bultzatu zuten merkantilismoaz eta politika muga-babestaileaz (protekzionistaz) gain, zenbait kasutan, lantegiak eta merkatal konpainiak ere sortuko dira: produkzio nazionala gidatu egin nahi da eta beroni merkatuak bilatu nahi zaizkio.

Frantzian, ekonomi sistema honi **Colbertismoa** deritza, hain zuzen Luis XIV.aren Hazienda-Ministrariak, Colbert-ek, ideiatu eta obratu zuelako.

Ekonomi sistema hau XVII. mendeko kontzepzio politikoen tresna egokia izan da.

Merkantilismoaren arauak

(Pagamendu-balantza norberaren alde jarri nahi zuen merkantilismoak: hori zen haren xede nagusia. Hona nola lortu nahi zen helburua:)

*"**Lehenengo:** Erreinuko produkzio guztiak emendatu behar dira, mespretxatua izan den izadia landuz eta probintzietako abildade berezi eta jeinuz hari lagunduz.*

***Bigarren:** Erreinuan sobran eman eta lantzen diren produktuak kanpora salduz.*

***Hirugarren:** Soberakin hauek atzerritarrei ahalik preziorik handienetan emanez.*

***Laugarren:** Erbesteko erosgaiak ahalik preziorik apalenetan, eta sobera ditugun horien truke, hartuz.*

***Boskarren:** Urre- eta zilarrezko eskueginak Erreinutik kanpora ateratzeko ohitura txarra eragotziz".*

(COLBERT,J.B.)

Merkantilismo ingelesa

"Gure ondasun eta aberastasunak areagotzeko baliabide arrunta kanpo-merkataritza da. Honi laguntzeko, berriz, beharrezkoa da ondoko arau hau betetzea: atzerritarrei, geure kontsumorako erosten dizkieguna baino gehiago saltzea, alegia". *(MUN,TH.:*

***A Discours of Trade**, 1621)*



(1419)

ANACT

FOR

Increaſe of Shipping,

And Encouragement of the

NAVIGATION

OF THIS

NATION.

Or the Increaſe of the Shipping and the encouragement of the Navigation of this Nation, which under the good Providence and protection of God, is ſo great a means of the welfare and Safety of this Common-Wealth; Be it Enacted by this preſent Parliament, and the Authority thereof, That from and after the Firſt day of December, One thouſand ſix hundred fifty one, and from thenceforwards, No Goods or Commodities whatſoever, of the Growth, Production or Manufacture of Aſia, Africa or America, or of any part thereof, or of any Iſlands belonging to them, or any of them, or which are deſcribed or laid down in the uſual Maps or Cards of thoſe places, as well of the Engliſh Plantations as others, ſhall be Imported or brought into this

NABIGAZIO-AKTA (1651). Beste Nabigazio-Akta bat berehala irakurri ahal izango badugu ere, hauxe da honelako Akta guztien sorburua. Holanda-rekin gerra piztu zuen honek lehenengo. Cromwell-en erabaki politiko-ekonomikoa izan zen. Ingalaterraren inperialismoari beronek ezarri zizkion oinarriak.

Nabigazio-Akta ingelesa

*"1660ko abenduaren lehenengotik hasita, Asia, Afrika, nahiz Ameriketan Bererren Majestateak dituen edo izan dituen kolonietara ez da eramango, ezta haietatik ekarriko ere, inolako salgairik, ez fruitu edo beste generorik ere, Ingalaterraren menpeko herrialdeetan egindako ontziz baizik, edo egiaz eta benetan Bererren Majestatearen menpeko direnetan ezpada. Eta, haietan nahiz hauetan, kapitainak eta marineletatik hiru laurdenek gutxienik ingelesak izan behar dute". (**Navigation Act**, 1660)*

D) MERKATALGOA

Merkatalgo handia itsasoz eta koloniekin egingo da batez ere, zeren talde pribilegiatuek kolonietako produktuak (zur preziatuak, indigo, kafe, kakao, arroz eta tea) gero eta gehiago kontsumatzen bait zituzten.

Inperio zabalena espainiarra bazen ere, bertako etekin gehienak Europako beste Herrialdeetara joaten zitzaizkion. Holandak, bi merkatal konpainia handi sortu zituen, Ekialdeko Indietakoa eta Mendebaldeko Indietakoa.

Ingelesek ere eratu zituzten koloniak, eta konpainiek Afrikatik lortzen zituzten esklabuak; Asiatik, espeziak, kotoizko ehunak, eta zeta; Ameriketatik, tabako eta azukrea. Errusia eta Herrialde Baltikoekin merkatalgo bizkorra zuen Ingalaterrak, bere merkatal zirkuitua osatuz.

Ipar Ameriketan, kolonia britaniarrak heldutasun oparoa lortzen ari ziren. Beraz, Nabigazio atlantikoan --zenbait hobakuntza medio-- garapen handia ezagutu zen: ontziak luzatu egiten dira, galeoiak karabelaren lekua hartzen du, mapen erabilgarritasuna ondu egiten da eta itsas korronteen ezagupen hobea dute itsas-gizonek.

Urte askotan Holanda izango da lehena itsas nabigazioan eta itsasoz harandiko merkatalgoan. Ingalaterrak, 1651.ean merkatalgo ingelesaren babestailetzat Nabigazio-Akta ezartzen duenean, Holandak atzerapen handia jasango du eta Ingalaterraren garapena dator ondorioz.



AMSTERDAM HIRIKO TRUKE-BANKUA (1609). Merkatarien finantz arazoak arindu eta merkatalgoari erraztasun handiagoak emateko erakundea izan zen.

Hazten ari zen merkatal mundu honek eskatzen zituen finantz erakundeak ere indartu egingo ziren: 1611n Amsterdam-go Burtsa irekiko da, geroago Lyon, Geneva eta Londres hirietakoak, negozioak erraztuz.



TXINA, ESTATU EUROPARRAK, AMERIKA.

Amsterdam: Bankuaren izenona

"Banketxe hau Amsterdam-eko hirian dago; duen bere altxorragatik da hain sonatua mundu osoan, ezagutzen direnetatik handiena bait da, benetako nahiz irudimenezkoa izan altxor hori. (...).

Baina Banku honen zuzendaritza daramatenak Burgumaisuak soilik direnez, ez dago inor han epez epe sartu-irteten direnen kontua bere gisara duenik. Ezin daiteke jakin, ziurtasunez, ezta asmatu ere, zein erlazio dagoen han egiaz daukaten altxorraren eta Bankuak duen kredituaren artean. Izan ere Bankuaren segurtasuna ez datza bakarrik eduki badaukan urre-zilarretan, hiri osoak eta Amsterdam-eko Estatuak ere dioten usteonean baizik.(...).

Arruntki, hiriko merkataritzaren arteko ordainketa handienak Banku-biletez egiten dira. (...). Banku hau da --hala esan daiteke-- norberak dirua, gordetzeko, ematen dion egiazko kutxa orokorra (...). Eta han utzi den diruagatik Bankuak interesak ematen dituenez, honegatik ere, ordainketak eskuz egiten direnean, moneta arruntak baino gehiago balio du. (...).

Hauek dira Amsterdam-eko Bankuari halako izenona eman dioten zernolakoak".

*(TEMPLE,W.: **Rémarques**, 1702)*

X. GIZARTEA

Mende honetako gizartea aldatzen ari da, baina antolamendu estamentala mantendu egin zen; aristokraziak eta nobleziak talde pribilegiatuak izanez jarraitzen dute. Estamentuak talde itsiak dira, eta bakoitza, jaiotzaz aurkitzen den Estamentutik nekez mugitzen da. Estamentuen arteko desberdintasunak ez daude egoera ekonomikoan oinarriturik (burgesia eta eskalea Estamentu berean aurkitzen dira, adibidez). Baina Estamentu bateko pertsonek eskubide eta eginkizun berdinak dituzte.

Gizarte honetan bi Estamentu pribilegiatu daude: Noblezia eta Kleroa, eta ez pribilegiatu bat: Hirugarren Estatua.

A) NOBLEZIA

Talde sozial itsia da, odolez da bat noble. Zenbait pribilegio dituzte: judizialak, fiskalak, ofiziozkoak, feudalak... Auzitegi eta eskubide bereziak zeuzkaten, ez zuten zergarik ordaintzen, zenbait ohorezko kargu erreserbaturik zeuzkaten, jabetza feudalari zegozkion eskubideak haien eskuetan zeuden.

XVI. Mendeko
ELIZBARRUTIEN SARRERAK

Toledo	250.000 dukat
Sevilla	100.000 dukat
Burgos	35.000 dukat
Santiago	65.000 dukat
Iruñea	20.000 dukat
Kalagurri	24.000 dukat

(VICENS-VIVES)

ESPAINIAKO HANDIAK

"Koroa hartu eta berehala Karlos V.ak ofizialki berreratu zuen Espainiako nobleziaren hierarkia. Erdi Aroko "ricoshombres" deitura galdutzat eman zuen, eta "Grandes de España"rekin trukatu. "Espainiako Handi" hauek lehen-lehen mailako nobleak ziren, eta berauen kopurua 25etara mugatu zen. (...). Geroago kopuru hori zabaldu egin zen, Felipe III.aren erregealdian ehunkada-erdi bat izateraino. 'Erregeren lehengusu' titulu gutiziatua zeramaten, eta haren aurrean buru-estalita egoteko eskubidea aitortzen zitzaien". *(VICENS VIVES).*

Nobleziak bere botere ekonomikoa gordetzen du: lurraren jabetza da sostengurik garrantzitsuena (garai feudaletatik datorkio hau), eta, honez gain, Koroaren zerbitzuan dituen karguen errentak dira nobleziaren bigarren zutabe ekonomikoa.

Botere politikoa ere badu, baina erret aginpidearen menpe dago, zeren XV. mendetik aurrera noblezia hau gortesaua bihurtzen da eta administrazio eta armadako karguetara pasatzen. Politika mailan independentzia galtzen badu ere, eragin sozial eta ekonomiko handia izaten jarraitu zuen.



Zisma-arriskua

(Eliz politikan ere azken mugaraino eraman zituen Absolutismoak bere eskakizunak:)

"Luis XIV.arekin beldur izan zitekeen Frantziako Eliza Zismaraino iritsiko ote zen. 1673an, erregaliak zirela eta, hogei urtetarako borroka hasi zen. Eskubide honen arabera --jatorri ilunekoa berau-- hutsik geratzen ziren gotzaindegien errentak Erregearen eskuetara joan ohi ziren, gotzaingabeko elizbarrutiari hark ematen omen zion babesaren truke. Era berean, usarioz gotzainak banatu ohi zituen benefizioen banatzaile ere Erregea zen, egokiera hori suertatzean. Denborala eta izpirituala zen, aldi berean, beraz, erregalia. (...). Baina, Hegoaldean bereziki (Midi), elizbarruti asko ziren honelako erregaliatatik libreak. (...). 1673ko erret gutunak, ordea, erreinuko guztietara zabaldu zuen erregalia hori.(...). 1678an, Inozentzio XI.ak kondenatu egin zuen

.../...

ARMIARMA eta EULIA. Irudi sinboliko hauen bidez ematen zen aditzera talde sozialen arteko harreman-mundua: lana eta fruituak nekazariak jartzen zituen; uzta, ordea, nobleak jasotzen zuen. "Zenbat eta gehiago daukan Deabruak, are eta gehiago nahi du beti".

.../...

erret nahikeria hori; Parlamentuak, ostera, buldak isil eraztea erabaki zuen. Gatazka, bi botereen arteko harremanetara zabaldu zen: Luis XIV.ak Frantziako kleroaren asanblada bat bildu zuen, 1682an; honek Erregeri bere adostasuna erakutsi zion, baina garai berean erregalia izpiritualetan erret ediktua mugatu egin zuen".

(Ondoko hilabeteetan gogor eraman zen Koroaren eta Erromaren arteko gatazka).

(G.LEPOINTE)

B) ELIZA

Elizgizonen artean bi talde nabarmentzen dira goi-kleroa: elizgizon hauek, gehienak noble familietakoak ziren, pribilegio handiak zituzten eta botere politikoaren defendatzaile agertu ziren. Eta behe-klero apala: ezjakina eta herri xehearen egoera berdinean bizi zena.

C) HIRUGARREN ESTATUA

Noble edo elizgizon ez zirenak Hirugarren Estatuko partaideak ziren, baina Estatu honen barruan desberdintasun handiak zeuden.

a) **Burgesia**: Bankariak, merkatariak, industri gizonak, maisuak, artisauak eta intelektualak dira talde honetakoak. Hirugarren Estatuko gailurra dira horiek. Legez pribilegiorik ez badute ere, botere ekonomikoaren bidez botere soziala eskuetan dute, eta zenbait herrialdetan Estatuko administrazio-postuen jabe izango dira. Era berean, ezkontzaz edo titulua erosiz, goi-burgesia noble bihurtzen ahaleginduko da Hirugarren Estatuko talderik jasoen hau.



b) Talde **hiritarrak**: Hirietan, burgesiatik at, gremioetako alokatu asko, ofizialak eta aprendizak bizi ziren. Marginatu asko ere ikus zitezkeen hirian: eskaleak, lapurrak.

BURGESIA. Pizkundetik aurrera, gora dator burgesen taldea gizartean. Monarkia handietan eta Errepubliketan (Venezia, Holanda) garrantzizko eginkizunak beteko ditu burgesiak. Hauxe da ekonomiaren bide berriak urratuko dituena; merkatalgoan zeregin azkarra izango du, batzutan funtzionalgora pasako da, inoiz nobletasuna ere irabaziz.

c) **Nekazariak**: Nekazari gehienak maizterrak ziren, lurren jabetza Nobleziarena edo Kleroarena bait zen. Jabe txikien eta maizterren bizimodua latza zen, izan ere gerrate zergek oso zigortuak izan bait ziren.



IKASTETXEETAKO IKASLEGOA. XVII. mendean oraindik ez zegoen erabat zabalduta jendearentzako eskola; bizilagunetatik gehienak alfabetatu gabeak ziren, baina gutxi batzuek bazeuzkaten ikastetxeak. Adibidez, hona nola banatzen zen, talde sozialen arabera, josulagunen etxe batzuetan ikaslegoa.

DEMOGRAFIA ZAHARRAREN MUGAK

"Beauvais-eko hirialdean, 1661-1665. urteetako bezalako gosete batek behera dakar jaiotzen kurba, eta gora darama --oso bizkor gainera-- hildakoena. Haur-hilkortasuna oinarrizko datua da, aipatutako baldintza orokor horiei lotuta dagoena; hilkortasun horrek, jaio berrietatik gutxienik erdiak garbitu zituen lehen urtea bete baino lehen. Aurreko urteetako, hamar-hamabost seme-alabako familia hain maizkoak sei-zazpi lagunetaraino murriztu ziren. 1670.ean Colbert-ek oso baliozko inkesta bati ekin zion: hamar-hamabi seme-alaba bizirik zituzten guraso nobleak topatu behar ziren, halakoei pentsio bat emateko. (...). Beste datu arrunta zera zen: heldutasunera iristeko segurtasunik eza. Batezbesteko bizialdia ez zen hogeitabi-hogeitahiru urtetik gorakoa, XVIII. mendea ongi aurreratu arte bederen (...). Honek zituen ondorio soziologikoak nabariak ziren: haurrek famili bizitzan zuten lekua, heriotze-beldurra, ezkontidearen hautapena, famili buru bezala alarguntsek zuten betekizuna, gizarte-bizitza baldintzatzen zuten gorabeherak". (R.MANDROU)



Aintzinako demografia, Krisia (1661-1662).

7
GIZARTE ETA KULTURA BARROKOAK

URTEAK	GERTAKARIAK
1543	Koperniko: "De revolutionibus orbium caelestium" Vesalio: "De corporis humani fabrica".
1575	Huarte Donibaneko: "Examen de Ingenios".
1582	Egutegi gregoriotarra.
1594	Palestrina musikagilearen heriotza.
1602/1604	G.Galileo: "Gorputzaren erorketaren Legea".
1609/1619	J.Kepler: "Astronomia nova". Kepler-en hiru legeak.
1616	Shakespeare eta Cervantes-en heriotza.
1620	F.Bacon: "Novum organum" (metodo esperimentala).
1627	J.Kepler: "Taula errodolftarrak.
1628	W.Harvey: Odol-zirkulazioaren aurkikundea.
1632	Galileo: "Munduko bi sistema handienei buruzko Elkarrizketak".
1633	Galileo Erroman kondenatuta.
1635/1636	Akademia Frantsesa.
1636	Corneille: "Le Cid" antzerkia.
1637	Descartes: Geometria analitikoa. "Metodoaren Diskurtsua".
1643	Axular: "Gero". Monteverdi musikagilearen heriotza.
1643/1644	Torricelli: Aidearen pisua (presioa), barometroa.
1659	Molière: "Les Précieuses ridicules".
1661	R.Boyle: "elementu" kimikoaren nozioa.
1665	J.Milton: "Paradisu galdua" poema.
1667	Racine: "Andromaque" antzerkia.
1670/1671	Newton: Hurrengo hamarkadetan argitara emango dituen teoriak burutzen (optika).
1675/1677	B.Spinoza: "Tratatu filosofikoa".
1680	Pariseko erret behategia.
1684	Leibniz: Kalkulu diferentzial eta integrala.
1687	Newton: Mekanikaren hastapenak eta legeak.
1690	Huygens: Argiaren uhin-teoria.

Kulturaren historilarientzat XVII. mendea "Urrezko Mendea" izan zen, "Le Grand Siècle". Europako herrialde garrantzitsuenetan Barrokoa eta Klasizismoa goimailetara iritsi ziren Artean eta Literaturan. Horretaz gain, Zientziak egindako aurrerapenak Iraultza intelektual bat ekarri zuen.





ALKIMIA ala ZIENTZIA? Urrea egiteko edo bizi-elixirraren bila, alkimistek ahalegin handiak egin zituzten, grekoen artean lehenago. XIII.az gero, Mendebaldean jakitun batzuk saiatu ziren metalen trasmutaziorako printzipio eragingarria bilatzen, eta ez zen iruzurrik franko falta izan alkimi munduan. XIV.ean hasi zen alkimia europarra,gauzen "boskarren esentzia" bilatuz. Bide horretatik hobetu ziren destilazio-teknikak, alkohol, edari eta sendagarriak asmatuz ("Benedictine", 1510). --XVI. mendeak oso bestelako bideak urratzen ditu; Zientzia modernoaren atarian gaude: materiari buruzko ideia aristoteletarrak baztertu egiten dira, oinarri teoriko berriak hartzen dira zimentarritzat, esperimentazioaren metodoak zehazki finkatzen. Pixkaka-pixkaka, Zientzia berriek aurrerapen handiak egingo dituzte, teorian eta praktikan. Alkimistak beren laborategi ezkutuetan gorde ziren, teoriarik bitxienak landuz, harik eta itzal dena galdu eta XIX. mendean desagertu ziren arte.

I. ZIENTZIAREN IRAULTZA

Zientzia berri baten oinarriak ziren XVII. mendeko jakitunek aurkitu behar zituztenak, eta, aurkitu ere, aurkitu zituzten. Aurkientzatan, adibidez, zientzilarien ekarpena txundigarria izan zen: Kepler-en legeak, Galileo-ren Mekanika, Harvey-en odolaren zirkulazio-sistemaren aurkikuntza, Descartes-en Geometria, Stēnon-en Geologia, Newton-en Optika Astronomikoa, Leuwenhoek-en "abere txikien" mundua, eta abar.

1620.aren inguruan Zientziaren metodoak aldatzen hasten dira. Eta metodo horiek ematen diote Zientzia berriari aparteko modernotasun-zentzua. Baina orduan gertatutakoa ez da, noski, geroko Zientziarekin gonbaratuz begiratu behar, 1600.aren aurrekoarekin baizik.

Euskal Herriko Unibertsitateaz

(Latinezko lehenengo Alkimi liburua Euskal Herrian idatzi zen, "Liber de compositione alchemie" tituluarekin. Robert Chester-ekoak, ingelesak, arabieratik itzuli zuen, XII. mendean, Iruñean bizi zela. Baina Unibertsitateraino iristea gehiago kostatu zitzaion Euskal Herriari:)

"Mendez mende, euskal lurrean Unibertsitate bat eraikitzeko asmoek porrot egin dute. XIII. mendean Teobaldo II.a ibili zen Unibertsitatea Tuteran jaso nahita: seguruena Iruñean jaun zen Gotzainarengandik aparte edukitzearren. Teobaldo hilik, Tuterako projektuak lur jo zuen. XIV.ean Karlos II.ak Uxuen egin nahi izan zuen, hau bait zuen bere egoitza kuttuna: Gaztelarekin gerrak xahutu zituen diruak. Azkeneko errege Albretek Iruñean egiteko asmoa izan zuten.

Konkista ondorenean, 1546, 1565, 1576, 1586, 1589, 1590 urteetan, Gorteak zertarako gabe enplegatu ziren behin eta berriro Unibertsitatearen projektuarekin. Beneditarren Iratxek (1613) eta domingotarren Santiago Eskolak, Iruñean (1630), titulu akademiko unibertsitarioak emateko baimenik izan dute. Oñatiko Unibertsitatea, beti ahula, hain zuzen XVIII. mendean indarberritu nahiko da (1772), hiru probintzien laguntzarekin, baina alferrik. Unibertsitate hau ez zen denbora berriek eskatzen zutena". *(J. AZURMENDI)*



ERRINOZERONTEA. Pizkundean, beste lurralde eta klima ezberdinetako fauna ezagutzeko aukera izan zuten europarrek, garaiko Aurkikundeen bidez. Artistak ere kezkatu ziren albiste berri hauetaz: ik. hemen Arbert Dürer-en marrazki hau (1515). Izadiaz edo Natur Zientziez jakin-min biziagoa ikusiko da, ondoko mendeetan, Europa-ko jakitunen artean.

* 1. Iraultza zientifikoaren garrantzia

XVII-XVIII. mendeetan Barrokoak eta Klasizismoak Europa-n sortu zuten Artearen eta Literaturaren berrikuntza baino garrantzi handiagokoa izan zen oraindik Natur Zientzia modernoaren oinarriak jartzea eta honek Europa-ko pentsamenduan izan zuen eragina.

Zientziaren berrikuntza hau gabe ez zen Europa modernoa ahalbideratu ahal izango. Horretaz ohartu behar dugu, lehenik. Baina Europa modernoa ezezik, ezta beronen bidez XVIII. mendetik aurrera mundu osoan zabaldutako iraultza teknikoa ere, edo horren ondoriozko produkzio-egoeraren aurrerapenak. Bestalde, hasieratik, munduari eta gizonari buruz ditugun egungo ikuspegiak zientziak eraldatu dizkigu.

Iraultza zientifikoa

"Aurrerakuntza zientifikoa XVII. mendean zehar indartuz joan zen, pausoz-pauso. Konkista honen garrantzia aipagarria da etengabeko prozesu batez garatu zelako eta lorpen kolektibo bat bezala azaltzen delako. Zientifiko eta filosofoak beren arteko harremanak mantentzen saiatu ziren, zalantzak eztabaidatuz eta egindako esperientziez elkarri idatziz. Zientzia ofiziala pixka bat alde batera utziz, eraikuntza segurtatu bat jasoz joan ziren eta honen ondorio praktikoak laster azaldu ziren. Mendearen bukaeran gizon talde batek lortu zuen atzeraezinezko prozesu bat indartzea". *(LOPEZ CORDON)*

* 2. Zientzia berrien berezitasun nabarienak

Zientzia berrien sorrera, **metodo zientifiko** baten sorrera da, batez ere. Metodo zientifiko hau, esperimentala eta matematikoa da.



N.KOPERNIKO (1473-1543).Astronomo poloniarra, Astronomia modernoaren sortzailetzat aitortua. Krakovia-n eta Bolonia-n egin zituen ikasketak, Zuzenbidea eta Medikuntza ere ikasiz. 1501.ean Frauenburg-eko Katedraleko Kalonje izendatu zuten. 1506.ean Poloniara itzuli eta bere osaba Gotzainarenean bizi izan zen, 1512-rarte. Urte honetan, Frauenburg-era berriz etorrita, bertan bizi izan zen heriotzerarte.

Esperimentala, lekukotasunen argudio guztien aurka doalako, eta Aristotele-ren metodo razional-deduktiboaren kontra. Aristotele-k egi orokorrak ezartzen zituen, haietatik egia partikularrak ondorioztatzeko.

Metodo esperimental induktibo honen sortzaileak (Bacon, Descartes eta Newton-ek) ziotena zera zen: lehenengo egitekoa, fenomeno naturalak behatzea da, eta gero, etengabeko errepika/ikuskaren ondoren, esperimentuen bitartez, hipotesiak egiaztatzea eta ekintza horietatik elkar erlazionatuz lege orokorrak ezartzea.

Metodo esperimentala eta **matematikoa** da. XVII. mendeko zientzilari berriek izadia hizkuntza matematikoz idatzita zegoela uste zuten, Galileo-ren arabera pentsatuz; ziurtasun honetara bultzatu zituztén arrazoiak ezberdinak ziren: alde batetik, platonismoaren eta pitagorismoaren ideiak zeuden, eta bestetik zenbait ideia erlijioso eta filosofia modernoa bera. Matematikak, beraz, behar-beharrezkoak ziren Unibertsoen ezkutukiak eta misterioak azaldu eta adierazteko. Horregatik izan ziren hain garrantzitsuak XVII. mendean matematika-arloan egin ziren aurrerakuntzak: hauek, Algebran, Vietta-ren eskutik etorri ziren; Napier-en logaritmoak ez dira ahantzi behar; Fermat-ek eta Descartes-ek Geometria analitikoa landu zuten. Probabilitate-kalkuluan, berriz, Pascal, Fermat eta Huyghens-i zor zaizkie lorpen berriak, eta azken aurrerakada Leibniz eta Newton-ek eman zuten, kalkulu infinitesimalean.

XVII. mendean metodo zientifikoaz gainera, aurrerakuntza nabariak egin ziren gizonari eta munduari buruz, batez ere Astronomian eta Fisikan

Unibertsoen **ikusmoldea** aldatuz: Koperniko-ren ikerkuntzek XVI. mendean, Kepler, Galileo eta Newton-enek XVII.ean, Unibertso itxi bati buruzko Aintzinateko eta Erdi Aroko ideia aldatu egin zuten. Erdi Aroan, Ludia Unibertsoen erdian, zegoela uste zuten, geldi, eta beraren inguruan Eguzkia eta planetak jirabiran. Ideia berriak zioena zera zen, ordea: Ludia da, beste planetekin batera, Eguzkiaren inguruan biran dabilena.

Astronomiaren aurrerakuntzekin batera, gorputzen erorketari buruz eta penduluaz egin zituen ikasketak Galileo-k. Newton-ek, grabitazio unibertsalaren mugimenduen legeak finkatu zituen. Honen eritziz, mugimendu guztiak kanpotik etorritako bultzada bati erantzuna dira, eta esplikazioa mekanikaren legeak kontutan hartuta aurkitzen da.



"ASTRONOMIA NOVA" Kepler-en liburuko marrazkiak (1609). "Ongi gogorra da gaur egun, liburu matematikoak idaztea eta, batez ere, astronomikoak, (...) izan ere irakurle on oso gutxi dituzte liburuok", idazten zuen Kepler-ek. Inguru horrekin ere Izadiaren matematizazioari ekin zion jakitunak.



TRESNA ASTRONOMIKOAK. Tycho Brahe astronomo sonatuak,Hveen irla daniarrean zuen Stelborg--eko behategiko tresnak ikus daitezke irudian. Batez ere begira koadrante astronomikoa ("Artronomiae Instauratae Mechanica" liburutik, 1598).



DIALOGO
DI
GALILEO GALILEI LINCEO
MATEMATICO SOPRAORDINARIO
DELLO STVDIO DI PISA.
E Filosofo, e Matematico primario del
SERENISSIMO
GR.DVCA DI TOSCANA.
Doue ne i congressi di quattro giornate si discorre
sopra i due
MASSIMI SISTEMI DEL MONDO
TOLEMAICO, E COPERNICANO,
Proponendo indeterminatamente le ragioni Filosofiche, e Naturali
tanto per l'una, quanto per l'altra parte.
CON PRI VILEGI.
IN FIORENZA, Per Gio. Batista Landini MDCXXXII.
CON LICENZA DE' SUPERIORI.

GALILEOren "ELKARRIZKETAK". (1632). Florentzian eman zen argitara. Galileo-k hiru pausotan ematen du bere metodoa: lehenik intuizio razionalez, bigarren laborategiko esperimentuz eta, azkenik, froga matematikoz. Bide honetatik dedukzio logikoak ere egin zitzakeen, sentipen-mundutik esperimentaziotara iritsiz.

Teleskopioa

"Gure filosofoei poza ematen dietenetakoak direla diot zeruan aurkitzen diren gauzak. Bai zeruko gorputz banakoetan, bai zeru zabaleko orokorretan ikusiak izan dira eta oraindik ere ikusten dira guk "sorkuntza" (generatio) eta "ustelkuntza" (corruptio) izenez ezagutzen ditugunak: astronomo ospetsuek ikusi dituzten kometa asko sortu eta itzali dira ilargi-mundutik

* 3. Aurrerapen zientifikoak

Tycho **Brahe** (1546-1601) daniarrak eta haren laguntzailea zen Johannes **Kepler**-ek (1571-1630) izarren eta planeten posizioei buruzko behaketa ugari egin zuten. Kepler planeten ibilbideak lerro makur bakar batez irudiztatzen saiatu zen eta horrela iritxi zen orbita eliptikoen ideiara. Zeruen irudi berri hau finkatzeko tresnarik baliotsuena teleskopioa izan zen.

Teleskopioa laster bilakatu zen astronomoen lanabes. **Galileo** Galilei (1564-1642) aurreratu zen batez ere beha-tresna hau erabiltzen. Honek, teleskopioaz baliatuz, Koperniko-ren teoria berretsi egin zuen. Bestalde, gorputzen higidura Matematikaz deskribatzeari ekin zion; esperimentazioaz baliatuz, ideia onartu guztiak zalantzan jarri zituen. Zientzia modernoaren historian lehenengo aldiz egingo ditu esperimentu kuantitiboak, eta teoria matematikoaren janzkera emango die. Galileo-k eta Kepler-ek Pizkundean jaiotako Matematika menperatzen zutelako egin zituzten beren aurkientzak. Galileo-k Matematikaren eta Mekanikaren konbinazio egokia erabiliz, Estatikari eta Dinamikari oinarri sendoak ipini zizkien, eta, bidebatez, ia mila urtez nagusi izan zen Filosofia aristotelikoa birrindu egin zuen.

Galileo-ren obrak ezagumendu ofizialei berebiziko desafioa egiten zien eta horrek, Elizaren, Gobernuen, Moral publikoaren eta jabetzaren erroak astindu zituen, munduaren ikusmolde zahar guztia kolokan ipintzen bait zuen. Horregatik egin zioten prozesu famatua: zientziaren eta erlijio-dogmaren arteko eztabaidaren dramatizazio bat izan zen. Erabakia oso arbuiatua izan zen jende

jantziaren aldetik, eta honek itzal izugarria eman zion zientzia esperimental iraultzaileari. Astronomiaren arloan hasitako iraultzak ere ondorio sakonak izan zituen, halanola giza gorputzaren ikusmolde berrirako.

William **Harvey**-k (1578-1657) Fisiologia esperimentalari ireki zion bidea. Odolak gorputzean dituen higidurei esplikazio mekanikoa bilatu nahi zion. Gorputza makina hidrauliko baten antzera interpretatzen zuen eta ez izpiritu misteriotsuz betetako zerbait bezala. Harvey-ren eredu berriak zirkulazio-bidez elkarrekin komunikatutako organuen multzo gisa aurkezten zuen organismoa. Komunikazio horrek elikadura banatzen zuela, eta izaera kimikoa zuela ikusi zuen. Aurrerago joan ez bazen, Kimika atzeratuta zegoelako izan zen batipat.

Bi aurkikuntza hauek (planeten biraketarena eta odolaren zirkulazioarena) eginda zeuden **Newton** (1642-1727) jaio zenerako. Munduaren irudi klasikoa apurtuta zegoen ordurako. Ordezko ideia berririk ez zen, ordea, ia sortzen hasi. Iraultzaren ondorio praktikoak nabarmentzen has zitezen, merkatari, itsasgison, industrigizon, eta kapitalistenganaino hedatu behar zuten zientzia berriak eskaintzen zituen ahalbideek. Bacon eta Descartes izango dira eginkizun hori praktikan ipiniko dutenak. Jakinduri berriaren baliabideak ezagutzen zituzten, eta jakitunen aurrean azaltzeari ekin zioten. **Bacon**-ek (1561-1626) pentsamolde berriari aplikazio praktikoak bilatzen zizkion. Descartes Frantziako Unibertsitateetan ongi erroturik zegoen Erdi Aroko pentsamoldearen kontra borrokatu zen. Bai bata eta bai bestea, zientziaren metodoaz biziki arduratu ziren. Bacon-ek indukzio-metodoa

harago, eta hori, 1572.ean eta 1604.ean agertutako bi izar berriak aipatu gabe, hauek planeta guztien gainetik igo bait ziren. Eguzkiaren azaleran ere ikusten dira, teleskopioari esker, jaio eta desagertzen diren materiazko nahaski trinko eta ilunak, beren itxuragatik Ludiaren inguruko lainoak gogorarazten dituztenak". *(GALILEO)*



J.KEPLER (1571-1630). Astronomo alemaniarra. Gorteko matematikari izendatu zuten, 1622-an, eta "Taula errodolftarrak" eman zituen argitara (1627). Kalkulu ongi neketsuarekin burutu zituen, horretarako logaritmoz ere baliatuz. Kepler-ek adierazi zuen, alde aurretik, Eguzkiaren eta Ludiaren artean nola pasako zen Merkurio, bere errainua Eguzkiaren gain projektatuz. Gassendi-k birretsi zion, bere behaketaz, aurreikuskizun hau.



W. HARVEY (1578-1657). Mediku ingelesa. Cambridge eta Padova-n ikasi zuen, eta hogeitalau urterekin itzuli zen Ingalaterra-ra; San Bartolome Ospitaleko mediku eta Erret Ikastetxeko kirurgi eta anatomi irakasle izendatu zuten. Jakes I.aren eta Karlos I.aren medikua izan zen.

erabili zuen, esperimentazio ugari egin ostean, ondorioak bilatuz. Descartes-ek, aldiz, esperiementazioa dedukzioaren lagungarritzat hartzen zuen. Bi pentsalariok elkarren osagarri zirela esan daiteke. Descartes-i zor zaio bestalde alderdi fisikoen eta moralen arteko bereizketa garbia, eta zientzia lehenengoetara mugatzea handik aurrera. Garrantzi handikoa izan zen hori, zeren eta ordudanik zientzilariek ez zuten erlijioaren hainbeste interferentzia izan.

Torricelli-k (1608-1647) eta **Pascal**-ek (1623-1662) presio atmosferikoaren aurkientza egin zuten, eta Elektrizitate eta Magnetismoari buruz lehen ikasketak ere bai. Boyle-k Ingalaterran eta Mariotte-k Frantzian, gasen presio-legeak mugatu zituzten. Papin-ek, lurrunaren indar hedakorra probetxatzeko, uraren lehen esperimentuak egin zituen. Tresna optikoen asmaketak (teleskopioa eta mikroskopioa) neurrigabeko handitasunaren eta mugagabeko txikitasunaren ikasketak ahalbideratu zituen.

Odoleko bakteria eta globuluez Leuwenhoek holandesa ohartu zen lehenengoz. Gorpuen ebaketari eta mikroskopioaren erabilpenari esker giza gorputza hobeki ezagutu zen, eta Medikuntza benetako metodo zientifikoetan oinarritzen hasi.

* 4. Zientziaren heldutasuna

XVII. mendearen bigarren erdian zientzia modernoa finkatzera heldu zen. Berrogeitamar urteotan egundoko aurrerapen azkarra izan zuen zientziak. Inoiz ez bezalako garapena izan zuen.

Lehenengo erakunde zientifikoen sorrerak zientziari instituzio-kategoria eman zion. Erakunde hauek batez ere merkatalgoak eta manufakturak zituzten premiei zegozkien arloak landu zituzten. Denetan landuena Astronomia izan zen nabigazioari eskaintzen zion laguntza estimagarriagatik. Astronomiarekin batera Optika eta argiaren teoria, Neumatika, Kimika, Fisiologia eta abar ere landu ziren.

Robert **Boyle** (1627-1691), "Royal Society" bultzatu zutenen lehenengoetakoa izan zen eta figurarik aipagarriena hasiera hartan. Teoria atomikoaz arduratu zen eta hortik abiatuta hutsari eta gasen legeei buruzko lanak egin zituen. R. **Hooke** (1635-1703), Boyle-ren laguntzaile izan zen eta esperimentatzaile trebea. Mekanikan, Fisikan, Kimikan, eta Biologian lan egin zuen.

Gizon hauek eta berauen garaikideek ez zuten Aristotele-ren Filosofia kritikatzen denborarik pasa; Koperniko, Galileo eta Harvey-ren teo-


ROBERTI
BOYLE,
NOBILISSIMI ANGLI
ET
SOCIETATIS REGIÆ
DIGNISSIMI SOCII
OPERA VARIA,
Quorum posthac exstat Catalogus,
Cum INDICIBVS necessariis, multisque FIGVRIS Æneis.

R.BOYLEren (1627-1691) idazlan hauek Geneva-n eman ziren argitara, 1680an. Esperimentuez baliatuz, zeraz konturatu zen Boyle: ordurarte uste zenaren alderantziz (beroa lortzeko haizea beharrezkoa zela, alegia), beroa sustantziaren beraren baitako osagaien dardaratik sortzen zela, alegia.



ZIENTZIEN AKADEMIAK. Monarkia Absolutuek Zientzien eta Letren Akademiak sortu zituzten, jakintza ere gidatzeko (Parise, San Petersburg).Hemen, Parise-ko Zientzien eta Behategiaren Akademia. Luis XIV.aren eskuinean Colbert ageri da, erreinuko jakintsuen erdian. (H.Testelin-en pintura).

Zientziaren garaipena

1655eko Martxoaren 15.ean, Anjou-ko parroki txiki bateko apaizak zera idatzi zuen: "Pasio-asteko lehen astelehenean, 1655eko Martxoaren 15ean,arratsaldeko laurak edo bostak inguruan, zerutik odola ixuri zen, euriaren itxuran, Bouillé-ko gazteluaren lorategian. Gaztelu hau padura eta baso handien artean dago, eta tantto asko Jeanne Malerbe zerbitzariari eskuetan, aurpegi, ile eta soin osoan erori zitzaizkion. Nik neuk ikusi nuen hau dena, bertako jaunak, Acigné-ko konte jaunak, deitu ninduelako. Hango ofiziale eta beste lagunak ere, gertatua ikusiz, harriturik zeuden".

1731.ean, apaiz honen ondorengo batek, orrialde honen bazterrean zera idatzi zuen: "Odol-euri honen ikusleak fisikoak izan balira, ez ziren harrituko zeren eta fisiko on batek esplikatuko bait zien nola inoiz haizearen eraginez lur gorriztak igotzen diren eta nola haizeak bultzatzen dituen hodeietan bildu eta hauek urez nahiz bestelako lurrunez nahikoa pisu dutenean, hodeia desegin eta euri gorriztatua nola erortzen den".

riak, ia guztiak, onartzen zituzten. Xede nagusi bezala, izadiaren arlo guztietara esperimentazioa hedatzea hartu zuten.

Esan bezala, Astronomiak interes praktiko berezia zuen. Nabigazioan, itsasontzia itsaso zabalean zegoenean, haren posizioa ezagutzeko zegoen oztoporik handiena longitude geografikoaren neurketa zen. Longitudea ezagutzeko, ordu absolutua ezagutu beharra dago. Gaur egun, adibidez, ordu hori Greenwich-ekoa dugu. Garai hartan ordu absolutua eta lekuan lekukoa ezagutzeko, eta bion diferentziaren bitartez longitude geografikoa, bi bide bakarrik zeuden: bata, Ilargiak izarrekiko egiten duen higidura erlatiboen behaketa, eta bestea meridiano-orduen erloju zehatz batez baliatzea.

XVII. eta XVIII. mendeetan bi soluziobide hauetan ahalegindu ziren, baina ez zuten gehiegi aurreratu. Hasieran bi metodoak gauza arras diferente bezala tratatu ziren: honek mekanismoak estudiatzen zituen; hark, aldiz, zeruko gorputzen higidurak. Azterketak aurreratuz joan ziren neurrian, haatik, bi metodoen estudioak oinarri aman-



PARISEko BEHATEGIA (1680). Luis XIV.ak 1667an erabaki zuen behategi hau sortzea. Lantegi honen inguruan bildu zen "Parise-ko Eskola Astronomikoa" deitua (Picard, Römer, Huygens, Cassini, etab.). Hemendik ikusi zen, adibidez, Saturno-ren eraztunen bikoiztasuna.

komun bat zutela konturatu ziren, eta gakoaren irtenbidea dinamikaren arloan zegoela. Astronomia hutsaren bidez ez zen soluzio praktikorik ekarri; baina geroko zientziarentzat garrantzi handia izan zuen hark, planeta-higiduraren problemari ebazpen matematiko eta dinamikoa bilatzen saiatu zelako.

Planeten ibilbideak eliptikoak zirela ikusi zutenean, erakarpen-indarren baten eragina zela pentsatu zuten. Grabitate-indar bat zela, eta distantziarekin aldatuz zihoala ere ikusi zuten, baina ideia orokor hauek ez zezaketen aurreramendu handirik egin forma matematikoa hartu eta esperientziak frogatzen ez ziren bitartean.

Bide honetan lehenengo urratsa Huygens-ek eman zuen 1673.ean, penduluaren indar zentrifugoak erradioarekin duen erlazioa aurkitu zuenean. Hortik abiatuta, Hooke, Halley eta Wren-ek grabitazio-indarra erradioaren karratuarekin alderantzizko arauean dagoela frogatu zuten. Oraindik ere bi problema geratzen ziren ebazpenik gabe: orbita eliptikoena eta gorputz handien erakarpen-moduarena. Isaac Newton izango zen soluzioa bilatu eta ondorio iraultzaileak ateratzeko gai. Kalkulu infinitesimala erabili zuen horretarako. Mendeetan zehar matematikariek egindako lanen ondorio bikaina zen hura. Kalkulua erabiltzeko modua problema mekaniko eta hidro-dinamiko asko ebazteko erabili zuen Newton-ek, eta beste askori erakutsi ere bai.

Grabitazioari buruzko Newton-en teoriak ere Astronomian egin zuen eraberritzeak, Kopernikok-k hasitako munduaren ikusmoldean, aristotelikoaren eraldakuntzaren amaia suposatu zuen. Grabitazio-teoriaren garrantzia ukaezina da, beraz; baina agian handiagoa ere izan zen kalkuluaren



I.NEWTON (1642-1727). Hamazortzi urte zituela Cambridge-ko Trinity College-ra joan zen, eta baita gainerako ikas-lagunen artean laster nabarmendu ere. 1665.ean, Londres-eko izurritea zela eta, Unibertsitatea itxi zutenez, bere jaioterrira itzuli zen Newton, 1667rarte. Garai honetan aurkikuntza garrantzitsuenak egin zituen: kalkulu infinitesimala, argi zuriaren natura eta grabitazio orokorraren teoria.

erabilpenarena, berrehun urtez problema fisikoak soluzionatzeko erabiliko zen metodo orokorra eman bait zuen. Newton-en ereduan oinarrituz aurkitu ziren, geroago, Elektrikaren eta Magnetikaren legeak.

II. FILOSOFIAREN MODERNOTASUNA

Filosofi modernoaren agerpena "Iraultza Zientifikoari" oso lotuta egokitu zen. Filosofia moderno hau "betiko filosofia" (=Philosophia perennis) deituaren aurka azaltzen da. Razionalismoan oinarritzean, Elizaren irakaskizunak baztertu egiten ditu eta baita aintzinako Filosofiarenak ere.

Zientziaren balioa (1620)

"1. Gizakia izadiaren zerbitzari eta interpretatzailea da: Izadi horren legeei buruz egindako aurkikuntza esperimental eta razionalen arabera bakarrik ulertu eta obratzen du gizakiak. Hortik kanpo, ez daki deus, ez dezake ezer. (...).

3. Gizakiaren zientzia da beronen ahalmenaren neurria, izan ere kausa ez ezagutzeak efektua ezin sortua dakar berekin. (...).

8. Honeraino egin ditugun aurkikuntza guztiak kasualitateari esker eta praktikaren irakaskizunei esker egin ditugu batez ere eta ez zientziei esker. Zeren eta gaur egun ditugun zientziak, lehendik egindako aurkikuntzen ababaki batzuk besterik ez dira. Gaurko zientziak ez digute irakasten ez konkista berriak egiten, ezta gure industria hedatzen ere. (...).

22. Metodo bata nahiz bestea esperientziatik eta gertakarietatik hasten da eta lehen hastapenetan oinarritzen; baina beraien artean ezberdintasun handia dago, zeren eta batak arinki eta bizkor aztertzen ditu esperientzia eta gertakariak, eta besteak, berriz, ikasketa metodiko eta sakona egiten du. Batak, hasieratik, printzipio orokorrak ezartzen ditu --abstraktu eta alferrikakoak--, bestea, ostera, naturarentzat bereagoak diren legeetara hurbiltzen da pixkanaka.

36. Gure pentsamenduak estimarazteko daukagun medio bakarra zera da, adimenak ekintzen ikasketara, berauen sail eta ordenetara gidatzea, eta ordutik, denboraldi batean behintzat, nozioen erabilera utz dezagula eta errealitatea praktikatzen has daitezela adimenak". *(F. BACON, 1620)*

F.BACON (1561-1626). Aldi berean ekintzara eta gogoetara emandako gizona dugu F.Bacon: politikaria eta filosofoa izan zen, batera. Elisabet Erreginaren garaian arrakasta sozialkik izan zuen: Komunen Ganbarakoa (1594) eta Erret Kontseilukoa (1587) izateraino. Baina haren handi-nahiaren tamainako ohore eta kargurik ez zuen lortu Jakes I.aren erregealdian baizik: Honen eta Buckingham dukearen konfidantzazko gizona izan zen, eta Kantziler Nagusi bilakatu zen, baina fondo publikoen bidegabeko erabileraz salatuta presondegira eman zuten, harik eta Erregek askatu zuen arte (1621-1624).



* 1. Francis BACON (1561-1626)

Londres-en jaioa eta hila, giro gortesau batean bizitakoa, Gantzelaria izan zen. Zientzia modernoaren lehen hasikina den "Novum Organum" Logika-tratatua idatzi zuen (1620.ean) eta bertan Izadiaren behaketa zuzena gomendatzen du. Metodo berri bat zehaztu zuen: **Metodo Induktiboa.** Zientzia eta Filosofiaren arteko batasuna, Bacon-en pentsamenduan nabaritzen dena, Descartes eta Leibniz-engan burutzen da osoki.



R. DESCARTES (1596-1650). Descartes-en sistemaren arabera, Filosofiak gainerako zientzia guztiak batzen ditu: "Zuhaitz baten antzekoa da Filosofia: Metafisika da sustraia; Fisika da enborra, eta honetatik ateratzen dira, adar gisa, beste zientzia guztiak". Hirutara bihurtzen dira zientzia denak: Medikuntza, arte mekanikoak eta morala. Filosofiaren oinarrizko hastapena zalantza metodikoa da.

* 2. René DESCARTES (1569-1650)

Europa-ko pentsamenduan eragin handiena izan zuena da pentsatzaile frantses hau. Fisikari eta matematikaria, Filosofiari oinarri sendo bat eman nahi zion, Zientzia zehatz batek duenaren modukoa. Horretarako **Zalantza Metodikoa** aplikatzen zuen: ez zuen ezer onartzen, arrazoi hutsez uler-

tzen ez zenik. Bere "Metodoaren Diskurtsua"n agertzen duen bezala, gauza guztiez zalantzak ditu, batez ere munduari eta gizonari buruzko azken aurkikuntzengatik. Berak segurtasun guztiaren azken arrazoia bere "Ni pentsatzailean" aurkitzen du: "cogito, ergo sum" (=Pentsatzen dut, beraz izan banaiz).


DISCOVRS
DE LA METHODE
POVR BIEN CONDVIRE SA RAISON,
ET CHERCHER LA VERITE' DANS LES SCIENCES.
PLVS
LA DIOPTRIQVE
ET LES METEORES,
Qui sont des essais de cette METHODE.
PAR RENE' DESCARTES.
Reueuë, & corrigée en cette derniere Edition.
A PARIS,
Chez MICHEL BOBIN & NICOLAS LE GRAS, au troisiéme Pillier de la Grand Salle du Palais, à l'Esperance, & à L, Couronnée.
M. DC. LXVIII.

Filosofia modernoaren idealismoak hemen du bere sorrera, jakintzaren oinarriez kezkatu eta zutoin horiek arrazoimenean aurkitzen ahalegintzen bait dira bai Descartes, Spinoza, Malebranche eta Leibniz-en razionalismoak, eta baita esperientzia sentigarrian Locke, Berkeley eta Hume ingelesen enpirismoak ere. Era honetan Filosofiak oinarri erlijiosoak oro baztertu egiten ditu, eta deismo eta ateismoaren bideak irekitzen nahiz eta XVII. mendeko filosofo askok Elizaren menpean jarraitu.

DISCOURS DE LA METHODE (1637). Liburu honekin R. Descartes-ek aro berri bat hasten du Filosofiaren historian. Honentzat, osagai bizigabe eta jarraia da materia, eta beroni dagokion mugimendua Jainkoak kanpotik emanda da. Materiatik bestelakoa da gogamena eta honek bere buruaz kontzientzia argi eta bihurtezina du.

GURUIN PINEALAREN BETEKIZUNA: "Nahitaezkoa da bi begietatik datozen bi irudiak bategingo dituen punturen bat egotea... arimara pasa aurretik batera bilduz". "Ikuspeneko objektuek nerbioen haritxoak lekuz mugierazten dituzte, eta gero nerbio haiek datozen garuneko xokoak ere".
(DESCARTES)





* 3. Wilhelm LEIBNIZ (1646-1716)

Pentsatzaile aleman hau ere matematikaria zen eta ikerkuntza matematikoetan saiatzen da, kalkulo infinitesimala formulatuz. Honen eritziz, unibertsoa "monaden" multzoz beteta dago. Monadak funtsezko izakiak dira, atomoen antzekoak, baina bizitza argia dutenak. Zientzian eta Filosofian ezezik, teknika eta teknologian ere trebea izan zen, teoria eta praktika lotuz. Errotak eta urak txukatzeko ponpak asmatu zituen. Bereak dira, baita ere, makinak automatizatzeko ideia aurreratu batzu. Leibniz, Descartes-en antzera, nahiz razionalista izan, fededuna zen. Spinoza, berriz ez.



W. LEIBNIZ (1646-1716). Hamabost urterekin jada menperatzen zituen hizkuntza klasikoak eta Filosofia eskolastikoa. Honen aurkikuntza zientifiko garrantzitsuena kalkulu infinitesimala izan zen (Newton-ekin batera formulatu zuena).

* 4. Baruch SPINOZA (1632-1677)

Amsterdam-en jaioa, Den Haag-en (La Haya-n) egin zituen bere urte gehienak gogoeta filosofikoari emanik. Mantenua irabazteko lente optikoak leuntzen zituen. Osasun ahulekoa izanik ere eta pobretasun gorrian bizi, ez zion etsi "pozik handiena" ematen duen jakinduria bilatzeari; Heildelberg-eko irakastaulkia eskaini ziotenean, errefusatu egin zuen, independentzia ideologikoa ez galtzearren eta filosofi lanak aurreratzearren. Razionalismo kartesiar batean hasi zen, eta panteismoraino --ateismoarekin nahiko berdintsua zena-- iristen da. Horregatik juduek beren komunitatetik bota egin zuten.

Descartes katolikoa zen, baina Eliza katolikoak haren doktrina kondenatu egin zuen, Unibertsoa bere gisara funtzionatzen duen mekanismo bat zela pentsatzen zuelako. Elizaren ustez, Jaun-



B.SPINOZA (1632-1677). Familia judu batean jaioa. Rabbitarako ikasketak egin zituen; baina, zuen *pentsakera libreagatik*, bota egin zuten Sinagogatik. Harez gero ez zen inolako kredo erlijiosori atxeki. Bere **Tractatus politicus**-ean (1675-77etan idatzia berau), ideiak obratan jartzeko hiritarrari aski libertate segurta diezaiotela eskatzen zien Spinoza-k agintariei.

goikoa ez zela beharrezkoa izango esan nahiko zukeen teoria horrek. Descartes-ek ez zuen honelakorik pentsatzen, hain zuzen Jaungoikoak sortu bait zituen mundua zuzentzen duten legeak. Europa osoan zehar Descartes-en Filosofiak hedapen zabala izan zuen.

* 5. GALILEO Galilei (1564-1642)

Pisa-ko hirian jaioa, Florentzia ondoko Arcetri herrian hil zen. Gazte-gaztetatik erakutsi zuen Galileo-k buruargikoa zena, 1583.ean penduluaren legeak asmatuz. 1586.ean balantza hidrostatikoa asmatu zuen; 1589.ean lehenengo aldiz eta Fisika aristotelikoak irakasten zuenaren aurka, gorputzen erorketaren legeak formulatzen ditu, hutsean gorputz guztiak abiadura berdinarekin erortzen direla berretsiz. 1609. urtean teleskopio bat egiten eta beronen bidez Ilargiko haranak, Eguzki-orbanak, Jupiter-en sateliteak, Artizarraren faseak, Saturno-ren eraztunak, etab. ikustea lortu zuen.



GALILEO (1564-1642). Mendebaldeko kulturaren historian, Galileo ikusi izan da, Erregimen Zaharreko kontrol-moldeen eta ideia moderno berrien arteko gatazkaren protagonista eta sinbolorik jatorrena bezala.

Aurkikuntza horiek guztiek Koperniko-ren doktrina behin-betirako ezarririk uzten dute. 1611. urtean Erroma-ra doa eta han ofizialki onartua izaten da. Baina forma ofizial guzti horien azpitik, batzuek ez dute Koperniko-ren doktrina onartzen: Unibertsoaren erdian Eguzkia omen dagoela eta ez Ludia, ez da onartzen gogoz. Ondorioz, 1616.ean "De Revolutionibus" Kopernikoren liburua Indizean jartzen da eta Galileo-ri argi eta garbi sistema kopernikarraren alde ez agertzeko gomendatzen zaio.

Baina 1632.ean "Ptolomeo eta Kopernikoren bi mundu-sistema handiei buruzko elkarrizketak" liburua ematen du argitara Galileo-k, non Aristotele-ren eritziak astintzen bait ditu. Azkeneko hau Elizarentzat gehiegi bait da, 1633. urtean, "Elkarrizketak" debekatu egiten da, eta Galileo-k bere eritziak jendaurrean gaitsetzi egin behar izan zituen. Gero Arcetri-n giltzapean sartzen dute; jadanik erdi-itsua zegoen Galileo. Bizitzako azken urteak hantxe joango zaizkio Galileo-ri. Baina haren jiteak irmo dirau eta Holanda-n, ezkutuan, "Discorsi" liburua argitaratzen du. Liburu horren bidez ospe unibertsala lortu zuen, bertan bi zientzia berri asmatu eta froga matematikoz finkatu bait zituen, Estatika eta Dinamika.

Aristotele-ri kritika

Sagredo. *Pozik nago. Egun batean Veneziako mediku oso estimatu baten etxean suertatu nintzen, zeren eta han biltzen bait ziren zenbait lagun (batzuk ikaskizunen aitzakiarekin, besteak jakin-min hutsez) anatomista jakintsu, trebe eta azkar baten ebakuntzak ikustera.*

Eta egun hartan, hain zuzen,nerbioen sortune eta jaiotunea bilatzen ari ziren, arazo honetan, izan ere, eztabaida sonatua bait dago galentzale eta peripatetikoen artean.

Garunetik irtenik eta garondoan zehar paseaz nerbio-sorta handia orno-muinean nola zabaldu eta bertatik nola adarkatzen zen erakutsi zigun anatomikoak, eta baita bihotzeraino zihoana nolako haritxo guztiz mehea zen ere.

Orduan, filosofo peripatetiko bezala ezaguna zen jentilgizon batengana zuzenduz (...), zera galdetu zion, ea nerbioen jaiotunea bihotzean ez baizik garunean zegoela konbentzituta zegoen, eta seguru.

Isilune baten ondoren, filosofoak honela erantzun zuen: "Hain argi eta garbi erakutsi didazue hau, ze Aristotele kontrako ez balitz (hain garbiki esaten bait du honek nerbioak bihotzetik irteten direla), nahitaez egiatzat eman beharko litzateke hemen ikusitakoa". *(GALILEO, 1632)*

* 6. Bi Zientzi Eskola (XVII. m.)

XVII. mendearen erdi inguruan Europa-n bi eskola filosofiko-zientifiko ezberdin zeuden:

1. Alde batetik esperimentala: Honen eritziz, esperimentuaren bidez bakarrik irits liteke Egiaraino.

2. Kartesiarra edo razionalista, bestea. Honek zioenez, esperimentazioa ez zen beharrezkoa, izan ere gizakiak, bere arrazoimenaren bitartez, kosmos guztia uler zezakeen.

Newton-ek ikasketa eta esperimentu garrantzitsuak egin zituen argiari buruz. Eguzkiaren izpia, prisma batean zehar, zergatik deskonposa-



AKADEMIA FRANTSESAren sigilua (1635): "Hilezkortasunerako" hautatuak ziren akademikoak.

tzen den esplikatu zuen, eta, ondorioz, eguzkiaren argia ez zela sinplea demostratu. Eguzkiaren argia konposatua dela zioen Newton-ek, ostadarraren margoek erakusten dutenez.

III. LITERATURA

Europa-ko herrialdeetan, Literaturan zenbait estilo Barroko garatu ziren, mendu bikainez eta sensibilitatez beteak. Espresio-joritasunera jotzen dute, sintaxian eta hitzen adiera berezietan lizentziak eta aldaketak erabiliz.

Eskola hau Ingalaterran **Euphuism** deitu zuten (John Lyly-k idatzitako "Euphues" elaberritik hartuta), Italian **Marinismo**, Giambattista Marini-ri jarraikiz. Espainian bi joera ezberdin suertatu ziren: **Kulteranismoa**-k, Luis Góngora-rengan izan zuen ordezkaririk jatorrena, eta **Kontzeptismoa**-k, berriz, hizkuntzaren laburtasunerantz jotzen zuen beste joerak, Quevedo eta Gracián. Bigarren honek hizkeraren labur-trinkotasuna maite zuen. Mende honetan, Literaturan Frantzia, Ingalaterra eta Espainia izan ziren herrialde aberats eta emankorrenak.

* 1. Frantzia

XVII. mendearen bigarren erdian, arkitekturan gertatzen zen bezala, **Klasizismoa** zen garailea. 1635.ean Akademia Frantsesa sortu zen,

hizkuntzaren txukuntasuna zain zezan. Arrazoimenaren menpean zegoen Literatura, eta lege batzuk gorde behar zituen. Boileau izan zen Klasizismo honen teorikaria.



N.BOILEAU (1636-1711). Artearen teoriko honek eman zituen literatur lanari zegozkion arauak, baina arauez luma-gizonen askatasuna ito gabe. Horrela, Molière eta Racine-ren balioa berehala ulertu zuen. (H. Rigaud-en erretratua).

a) Prezeptiba

Boileau (1636-1711). Bere "Art Poëtique" obran, poesiak eta antzerkiak kontutan hartu behar dituzten legeak adierazten ditu. Ideal klasikoak, arrazoia lehen planoan jarri eta kasu partikularrak adieraztea debekatzen du. Lortu nahi duena zerbait orokorra da, unibertsala, hortik bakarrik bait da posible ederra ateratzea. Idazle klasikoak nahiago du bere adibideak eguneroko bizitzatik ez atera eta Aintzinateko iturburuetatik dastatu. Eta jende arrunta azaldu beharrean, nahiago du errege eta printzeak aurkeztu.

Grinen bortizkeria geldi erazi egin behar da eta ez da azaldu behar eszenan hizkera edo keinu arraroen bitartez. Gartxutasuna, txukuntasuna eta egiantzekotasuna dira gizon onestak kontutan hartu behar dituen legeak. Garai bateko arruntkeria arbuiatu egiten da; preziosistek erabilitako hizkera puztua ere berdin. Arlo guztietan gizakiak bere gorputzaren eta bere sentimenduen jabe izan behar du.

Erregek zaintzen ditu idazle eta artistak, baina gusto oneko lege hauek gordez gero bakarrik. Pentsioak emanez eskaintzen du laguntza hori hark. Erizpide hauen bidetik literaturan arrakasta gehien eduki zuen generoa antzertia izan zen, Corneille, Racine eta Molière-ekin.



P. CORNEILLE (1606-1684). Nahikoa gazterik ezagutu zuen arrakasta soziala idazle honek. Richelieu-k eta lehenengo urteetan ere bai Mazarin-ek, beren babesa eman zioten. Funtzionari-lanpostu bat erosi ondoren, antzertira eman zen osorik, bere garaiko drama-olerkari handien bezala aitortua izateraino. Akademikoa izan zen. Fronda-zaletzat salatuta (1651), erretiroaldi bat gorde behar izan zuen. Azken hogei urteetan, Racine gaztea gertatu zen Corneille-ren lehiakide eta itzala.

b) Antzertia

Corneille (1600-1684). Autore honen "Le Cid" tragediarekin nagusitzen da Klasizismoa: 1636.ean izan zen estreinatua. Obra honetan eta beronen beste zenbaitetan, gizakia bere grinak borondate handiz menperatuz agertzen zaigu.

Racine (1639-1699). Port-Royal-en egin zituen ikasketak eta autore grekoak gustora ikasi zituen. Uzès-era bidali zuten teologia ikastera, baina berak antzertia aukeratu zuen bizibidetzat. Parise-ra itzuli zenean, arrakasta handia izan zuen "Andromaque"rekin (1667.ean). Racinek giza animan grinek duten indarra azpimarratzen du, errealismo handi batekin. Horretarako gai greko-erromatarretan oinarritzen da ("Phèdre", 1677), edo biblikoetan ("Esther", 1689).

XVII. mendeko Frantzia-ko antzertia komediarekin osatzen da eta Molière izan zen ordezkari behinena.

Molière (1622-1673). Parise-n jaio zen, burgesia oneko sendi batean; Clermont-en egin zituen ikasketak. 1643.ean "Illustre-Théâtre" antzerti-taldea sortu zuen, eta bi urte geroago poto egin. Gero, bere antzerti-lagunartearekin batera, hamahiru urtetan probintzietan zehar ibili zen. Lehen arrakasta Béziers-en lortu zuen, 1656an, "Le Dépit Amoureux" obrarekin. 1658.ean Parise-ra itzuli zen. Bere obretan satira sozialera jotzen du, aristokraziaren eta burgesiaren barregarrikeriak salatuz: "Le Précieuses ridicules" antzerkiak (1659) hizkuntz dotoreziak itsusten ditu edo "Les Femmes savantes"ean (1672) handiusteak, adibidez.

Pertsonaiak sakontasun psikologikoz burutuak ditu, eta edozein une edo lekutan ere interesgarriak gertatzen dira. Honetantxe eta tipoak dituzten balio komikoetan datza Molière-ren meritu handiena, "Tartuffe" eta "Le Bourgeois gentilhomme" komedietan ikusten den bezala. Azken finean haren obrek gehiegikeria guztiak kondenatzen dituzte, eta moderazioa eta oreka defendatzen.

Orobat garrantzi handikoak izan ziren La Fontaine, Bossuet, Mme. de Sévigné, Mme. de la Fayette eta La Rochefoucauld. Bakoitzak bere alorrean hizkuntza goimailara jaso zuen, prediku, eskutizketa, istudio psikologiko edo moral-idazlanetan. Gizakion grinak aztertzen fintasunez betetako lana egin zuten, eta balio estilistiko gorenak eskaini zituzten beren obretan.



MOLIÈRE (1622-1673). "Les Precieuses Ridicules" antzerkiaren arrakastak bultzatu zuen Molière bere antzerti-mundu osoa garatzera, autore bezala ezezik, baita eszena-zuzendari eta aktore bezala ere. Bere antzerkietan moralista bat zen Molière, gizakion zoriona sustatu nahi zuen bere artelanaren bidez. (Honela ikusi zuen P.Mignar pintoreak Molière).

* 2. Ingalaterra

Frantziak ezezik Ingalaterrak ere bere Literaturan sona handiko izen batzuk eman zituen. Bi aipatuko ditugu hemen.

W. SHAKESPEARE (1564-1616). Munduko Literaturan, antzerkigileetatik, le - henengo bizpahiru puntarenekoen artean dago Shakespeare. Estilo gihartsua du, eta irudiz aberatsa. Sonetuak ere idatzi zituen (1609). Honen obra osoan hiru une bereiz ditzakegu: 1) 1590--1601, gaztetako obrak: gogoberaz beteak, komedia arinak. 2) 1600-1608, tragedia handien garaia. 3) 1609-1616, gertakizunen aurrean egonarri hobekoa. (Irudian Shakespeare, Milton-ekinbatera agertzen da).



a) William SHAKESPEARE (1564-1616)

Ingalaterran izan zen Pizkundearen eta Barrokoaren arteko ordezkaririk garrantzizkoena da. Barrokoa baino gehiago manierista izan zen eta Literatura unibertsalaren historian mailarik gorenena du.

Shakespeare-ren obran bere herriaren une historikoen sintesi bat aurkitzen da: hedakuntza koloniala, domeinu ekonomikoa, garapen industriala, etab. Segurtasun-unea zenez, Shakespeare-k bere antzerki onenak gai klasiko-historikoetan edo bere herriko gaiez mamituta eman ahal izan zituen: Enrike V.a edo Rikardo III.a hartu zituen, adibidez, gaitzat. Baina Shakespeare-ren handitasuna giza zori eta patuaren miseria-handitasunak antzezten jakitean dago. Haren tragediak sinestezinezko sakontasunez landutako giza grinen katalogo bat dira: Hamlet-en zalantza, Macbeth-en antsia, Otelo-ren espak edo zeloak, Romeo eta Julieta-ren amodioa.

Tragediari eman zion zentzu egokian, pertsonaien indar dramatikoan eta, batez ere, haren tragedia garrantzitsuenek planteiatzen dituzten grina suhar eta giza gatazketan dago Shakespeare-ren munta unibertsala.

Shakespeare-ren esanahia

"Shakespeare-ren arteak ausardi fantastikoa du, katedrale gotiko handi batek bezalakoxea (...). Intentsitate kontraezinezko eremu magnetikoek erakartzen eta biltzen dituzte hitzak, eta halabehar miragarri batek lotzen ditu elkarrekin. (...). Baina Shakespeare gutxiago mozkortu du hizkuntzak eta magiak eta hitzaren sorginkeria honek, giza komunikaziorako tresna bezala hitzek duten ezdeustasunak baino. Hitzaren maisu honek ongi erakutsi du hitz oro gezurra dela eta hitzetara irekitako arima oro ilusio osoko mundu batetara doala: hortik irteteko aterabidea bakardadearen kontzientzia da eta isiltasuna". *(J.J.MAYOUX)*

b) John Milton (1608-1674)

Ingalaterrako Barroko-garaiko bigarren ordezkaria izan zen. Honen "Paradise Lost" (Paradisu Galdua, 1665) poeman izpiritualitate bibliko sakona aurkitzen dugu.

* 3. Espainia

XVI. eta XVII. mendeetan "Urrezko Aroa" ezagutu zuen gaztelaniazko Literaturak. Gehiagotarako egokierarik ez dugunez, aipa ditzagun izenik behinen-behinenak.

a) Miguel de CERVANTES (1547-1616)

Shakespeare-ren garaikidea izan zen, eta **"Quijote"** bere obrarekin elaberritan munduko goimaila lortu zuen. Obra honetan, Cervantes-ek ahalegin guztiak egiten ditu Espainia-k une historiko hartan zituen desegokitasunak argitan jartzen: elaberriko pertsonaia nagusia anakronismoak jota dago, garaiaz kanpo dabilelako, burutik jota alegia. Desmoldaturik bizi da gizona; errealitatea atzematen ez duen Erdi Aroko gizona da, nahiz eta Sancho ezkutariarekin elkarrizketa ugari eduki eta berau, gainera, errealismo hutsaren pertsonifikazioa izan. Cervantes-en obran, garaiko Espainia-ko gizarte-estamentu guztiak agertzen dira: goimailakoetatik --dukeak, adibidez--, behemailakoetaraino --pikaro eta petralak--, nekazal burgesia eta behemailako "hidalgo" handinahi eta ezinak ahantzi gabe.

Cervantes-ek bere obretan pertsonai ugaritasun handia du; bizibide, profesio, arraza eta burubide ezberdineko tipoak ditu: ijitoak, mairuak, lizentziatu eta batxilerrak, apezak eta sakristauak, soldaduak, "galeote" eta benturariak, txerpolari eta erretaulariak, bentari eta zolu-garbitzaileak, bidelapur eta Hermandade Santukoak, alkimistak, agoazilak eta mandazainak epaileak eta eskribauak, herriko alkateak, etab.



QUIJOTE eta SANCHO PANZA. Cervantes-en elaberri handian hauek dira lehen pertsonaiak. Hauengan haragiztatzen dira giza izaeraren bi alde kontrajarriak: ideala eta eguneroko arruntkeria, umorez onduta aurkezten ditu "Lepanto-ko mainguak".



"TORMESko ITSU-MUTILA". Honela itzuli zuen euskarara Orixe-k (1929) "El Lazarillo de Tormes" deitua (1554). Molde honetako elaberriek, garaiko gizartearen kritika zorrotza eskaintzen zuten.

b) Beste zenbait

Cervantes-ez gainera, bada besterik erdal Literatura honetan: **Lope** de Vega ("Caballero de Olmedo"), **Tirso** de Molina ("Burlador de Sevilla", 1630) eta **Calderón** de la Barca ("La vida es sueño", 1635), aipagarriak dira.

Elaberri pikareskoan, aurreko mendean "Tormes-ko Itsumutila"k urratutako bidea Mateo **Alemán**-en "Guzmán de Alfarache" (1599-1603) obrarekin jarraitu zen eta **Quevedo**-ren "El Buscón" (1603) obrarekin. Quevedo, Cervantes-ekin batera, pesimismoaren eta sentimenduen desengainuaren idazlea da, bere "Sueños" (1606-22) obran erakusten duen bezala.

Poesian Luis de **Góngora** da Barroko literarioaren izenik sonatuenetako bat: buruberoa, nahasgarria eta irudietan oso oparoa. "Polifemo" (1612) eman daiteke kulteranismo-estiloaren ereduri petoena, jatorrena, bezala.

Lazarotxo-ren boskarren bizilaguna

(Lazarotxo-ren historia herri-herriko pobreena zen, eta irabazbideren bat zuenarekin elkartu ohi ziren halakoak. Lazarotxo-k topatu zuen buldariaren aurkezpena da hau, Orixe-ren bizkaierazko itzulpenean:)

"Boskarren nagosia, bulda-saltzaile bat izan neban; nik ikusi dodan eta ikusiko dodan, eta inork ikusi daben bulda-saltzailerik nabarbenena eta lotsabakoena, inon diran bideak eta moduak eta asmakeri zorrotzak ba ebazen hatarako.

Buldea sartu nahi eban herrietan, aurrena beste ezerezkeri batzuk erakusten eutsezan abadeai: Murcia-ko ur-aza bat edo, garai zanean, limoe, laranja, mertxika, orri-gerezi, madari pare bana edo. Holan erakarten ebazen bere irabazpiderako, eta eliztarrak buldea hartzera deitu zegizen.

Eskerrak emoten eutsoezanean, euren jakintzaren barri hartzen eban. Ulertuten ez ebela autorten ba eben, ez eban hitzik egiten latinez, ez hutsegitearren. Orduan gaztelera txukun, ondo ebagia egiten eban mihin labanagaz. Eta abade hareik "Reverendo" zirala, hau da, jakitez ez baino diruz abade egin zirala jakiten ebanean, Santo Tomas bai litzan, bi orduz latin-hizketan iharduen".

IV. MUSIKA

XVI. mendeko azken urteetan eta XVII.aren hasieran, Italia-n musika polifonikoak loraldi ederra bizi izan zuen **Palestrina** (1526-1594) musikagileari esker. Musika hau taldekakoa, erlijiosoa, apaina eta melodikoa zen, musika laguntzagabekoa, "a capella" eta garai honetako sinbolo bihurtu zen. Palestrinak 93 Meza eta motete ugari egin zituen.

Tomas Luis de **Vitoria** (1548-1611) aipatu behar da Palestrina-ren ondoren: honen garaikoa da, espainola, Italian hezia. Motete ezagunak ditu: "O vos omnes", "Tenebrae facta sunt", "Vere languores nostros". Mezak, salmoak eta himnoak ere idatzi zituen.

Roland de **Lassus** (1530-94) ere joanetorri handikoa izan zen, batez ere Flandes eta Bavaria-n, bere obrei eman zien originaltasunagatik.



P. L. PALESTRINA (1526-1594). Arrakasta osoa ezagutu zuen Palestrinak, "Musikaren Printzea" deitua izateraino. Ez zen berritzailea izan, baina ongi menperatu zituen konposizio-teknika tradizionalak. Mezetan sentimendu erlijiosoari espresio musikal osoa eman zion. Bach-ek mende t'erdi geroago egin zuen bezala, ordurarteko teknika eta tradizio guztia laburbildu zuen. (XVI. mendeko pintura anonimoa).



TRESNA-MUSIKA. Barrokoan musika-ohiturek aldakuntza handi bat jasaten dute: musika instrumentalak lekua jaten dio koru-musikari, lehen planora paseaz (XVII. mendeko pintura: R. Le Vrac. Tournières).



STRADIVARIUS BIBOLINA. Antonio Stradivarius-ek milatik gora egin zituen; haietatik 400 bat erabilgarriak dira oraindik ere. Pinurik onena erabiltzen zuen bere lanean; bibolin-kaxaren osagaien proportzioak ezin hobeak ziren Stradivarius hauetan.

* 1. XVII. mendeko musikagileak

XVII. mendean azaltzen da musika modernoa, batez ere musika-instrumentuak gehitu eta hobetu egin bait ziren. Lauteak bibolinari uzten dio lekua. Cremonako Stradivari senideek bibolin famatuak egiten dituzte. Aldi berean musika instrumentalari musika-molde ezberdinak asmatzen zaizkio: sonatak, sinfoniak, oberturak eta kontzertuak.

a) Antonio VIVALDI (1678-1741)

Hau da musikaririk aipagarriena, musika instrumentalean. Obra sakona, oso aberatsa, barietate kromatiko handikoa Vivaldi-ren musika. Bibolin jotzaile bikain eta trebea. 40 opera idatzi zuen: "Judith Triumphans" haietatik bat (1716). Vivaldi-k eragin handia izan zuen Bach-engan. Aipagarriak dira "Concerti" (1717) eta Urtearoei eskainitakoa (1725) ere.



A. VIVALDI (1678-1741). Venezia-ko Pietate Ospitaleko musika-seminarioko bibolin-irakaslea izan zen. Solista-kontzertuari eman zion indar lirikoagatik, musika-modu honen sortzailetzat aitortu izan da Vivaldi. Hurrengo mendeetako musikagileetan ikus daiteke musikari honen eragina formetan bezala, erritmika eta tematikan; Bach, Haendel eta abarren lanak ikusi besterik ez dago.

Garai honetan operaren sorrerak ere garrantzi handia izan zuen Italia-n. Espresio dramatikoari eta Barrokoaren dramatizazio eszenikoari lotuta doa.


COMPENDIVM
MVSICAE LATINO-
GERMANICVM,
Studio & operâ Adami Gum-
pelzhaimeri, Trospergii
Boii,
NVNC EDITIONE HAC
Qvinta nonnusqvam correctum,
& auctum.
AVGVSTÆ,
TYPIS ET IMPENSIS
Valentini Schœnigii.
M. D C. XI.

COMPENDIUM MUSICAE (1609). Obra musikalek ezezik, honelako liburu teorikoek ere bultzatu zuten musikaren garapena, obra berrietako musikaren oinarri teorikoak argitara ekarriz edo hedatuz.

b) Claudio MONTEVERDI (1567-1643)

Monteverdi izan zen tragedia musiko-historikoa sortzen lehen musikaria: "Orfeo" (1607), "Arianna" (1608), "Il Ritorno di Ulisse" (1641), eta madrigal eta musika erlijiosoa konposatu zituen.

c) Alessandro SCARLATTI (1660-1725)

Scarlatti dator ondoren Italian: musikari jori eta emankorra.

Frantzian Jean-Baptiste **Lully** (1632-1827) izan zen aipagarriena: "Armide", (1686) eta Frantziako lehen opera (1673) eman zituen, adibidez. Ingalaterran Henry **Purcell** (1659-1695) aipatu beharko litzateke: "King Arthur" (1691), "Dido and Aeneas" (1689).

Musika Barrokoa XVIII. mendearen erdialderaino luzatzen da. Orduan **Gluck**-en (1714-1787) klasizismoak eta **Beethoven**-en (1770-1827) romantizismoak hartzen dute txanda.



PURCELL (1659-1695). Musikagile ingelesa da."Erregeen bibolin-musikagilea" deitu zitzaion.1679.ean, Westminster-eko organo handian jotzen hasi zen. Erregearen zerbitzuan zegoela, obra dramatiko, erlijioso eta instrumental ugari sortu zuen. Honen musikak folklore nazionalean ere aurkitu zuen oinarri onik.



J.S. BACH (1685-1750). Heriotze-ondoan ahantzia izan zen Bach, harik eta Beethoven, Mendelssohn eta Schumann-ek berpiztu zuten arte. Hemeretzigarren mendean ere Chopin, Liszt eta C. Franck-ek gogoz zabaldu zuten Bach-en musika.

* 2. XVIII. mendearen lehen erdiko musikagileak

XVIII. mendearen lehen erdi horretan musikagile ospetsuak bizi izan ziren: Bach, Haendel, Haydn eta Mozart. Musika goimailatara iritsi zen. Aurreko mendeetan egindako berrikuntza guztiak hobetu eta garatu ziren, eta pianoa agertu zen.

a) Johann Sebastian BACH (1685-1750)

Eisenach-en (Alemanian) jaioa. Musika modernoaren aita bezala hartu izan da. Musikagile handia, piano- eta organo-jotzaile trebea izan zen. Kontzertu, sonata, kantata ugariak idatzi zituen. Bi "Pasio" (Jon eta Mateo Deunarenak), Si Minor-ean Meza bat, "Jaiotzaren Oratorioa" (1734), "Magnificat", etab. ere idatzi zituen. Bach-en obra guztiak izpiritu erlijiosoz beterik daude. Haren musika, klasiko-klasikoa da.



b) Georg Friedrich HAENDEL (1685-1759)

Halle-n (Saxonian) jaioa, Londres-en hil zen. Bibolina eta organoa jotzen goiz ikasi zuen eta Hamburg-era joan zen. Bertako opera-orkestaren zuzendaria izan zen, eta han idatzi zituen opera batzuk. Italian egon ondoren Ingalaterra-ra pasa eta han oratorioak idaztera eman zen. Onenetakoak dira Haendel-ek idatzitako hauek: "Saul" (1739), "Messiah" (1742), "Susanna" (1749), "Solomon" (1749).

G.F. HAENDEL (1685-1759). Oratorioetan egin zuen Haendel-ek bere lanik jasoena. Italia-k eta Purcell-ek eragin handia izan zuten musikagile honengan. Irekitasunik zabalena zuen Haendel-ek aurrekoen ideia zaharrak eta garaiko berriak onartzeko. Beste herrietako lanak ere ongi ezagutzen zituen, eta gai zen musika, estilo nazional haietan ere lantzeko.

c) Franz Joseph HAYDN (1732-1809)

Viena ondoan jaio zen, 1732.ean. "Sinfoniaren aita" deitu izan zaio: 154 sinfonia idatzi zituen. Aipagarriak hauetxek: "Symphony No. 102" (agian berau ederrena, 1795), "Military" (1794), "The Clock" (1794), "The Creation" (1798), "The Seasons" (1801). Honen musika, jariakorra eta gardena da. Baikorra, alaitasunez jantzia, egilearen izaeraren antzekoa.

d) Wolfgang Amadeus MOZART (1756-1791)

"Haur miresgarri" horietakoa izan zen, musikari goiztiarra. Bost urte zituenerako konposatzen zuen musika, eta, zazpi zituela, kontzertuak ematen hasi zen. Erraztasun handia zuen eta operak alemanez, italieraz edo latinez konposatzen zituen. Oratorioak, sinfoniak, abestiak (lieder), mezak edo ganbara-musika ere idatzi zituen. Genero tragiko edo arranditsua, eta baita barregarria ere, berdintsu menperatzen zituen. Haren musika, goxoa eta graziaz betetakoa da. Idatzitako operen



W.A. MOZART (1756-1791). Mozart-en fenomeno musikala enigma bat da. Haren musikak, laburbilduta, jendarte zabal batera eraman zuen hizkera musikala. Beste edozein musikarik baino hobeto asmatu zuen, eguzkialde guztietako eraginak beretu eta haiei gaina hartzen. Mozart-en baitan denetarik biltzen da: aintzinako polifonia, Ertalemaniako eta Ipar Alemaniako musika barrokoa, Italiako opera-joera berriak, Viena eta Mannheim-eko eskoletako musika instrumentala eta orduko Frantziako musika-bereiztasun garrantzitsuetsuenak.



BEETHOVENen LANGELA. Bonn hirian gordetzen da hau, erakustoki gisa jarrita. Lan-mahaia: eskuizkribuak ikusten dira bertan. Musikariaren etorria eta emana oparoak izan ziren, halakoxe sormena bait zuen Beethoven-ek.

artean aipagarriak dira "Die Entführung aus dem Serail" (1782, Serailuko bahitura), "Le Nozze di Figaro" (1786, Figaro-ren Eztaiak), "Don Juan" (1787), "Zauberflöte" (1791, Xirula liluragarria). Konposizio erlijiosoen artean "Requiem" (1791), "Magnificat", "Miserere". 41 sinfonia ere idatzi zituen.

e) Christoph W. Von GLUCK (1714-1784)

Opera-kontzertua, drama musikaletik banatu zuen. Obra dramatikoa da aipagarriena: 100 opera baino gehiago idatzi zituen: "Alceste" (1767), "Paride ed Elena" (1770), "Orfeo ed Euridice" (1762), "Iphigenie en Tauride" (1779).

f) Ludwig Van BEETHOVEN (1770-1827)

Bonn-en jaioa, Viena-n hil zen. Obra ugariak idatzi zituen: Sinfoniak, oberturak, kontzertuak, sextetoak, kintetoak, kuartetoak, pianorakoak, sonatak, "Fidelio" opera (1805), bi "Meza" (1807-1823) eta "Christus am Olberg" oratorioa (1803).



L.BEETHOVEN (1770-1827). Musika-jakitun gehienek hiru alditan banatzen dituzte honen lanak:1) 1793--1802: Haydn eta Mozart-en eragina nabaria duen garaia. 2) 1802-1815: Gero eta pertsonalagoa ageri da, baliabide eta itxuran. 3) 1815-1827: "Askapen" unea, artistaren subjektibotasuna borborrean sumatzen zaion unea.

Aipagarria da Beethoven-en hari-kuartetoa. 17 kuartetotan jarrai liteke garapen osoa. Musikaren historian, egitur garapenean Beethoven-ena bakarra da. Beti zaindu eta gordetzen du oreka adierazpen subjektiboaren eta forma-osotasunaren artean.Gaur--gaurkoa gertatzen da Beethoven guretzat, gizatasun ideala eta anaitasun unibertsala aldarrikatzen dituelako ere.

* 3. Musika Barrokoa Espainian eta Euskal Herrian

Kanpoko berrikuntzen eraginari aurpegi ematen zaio, eta Pizkunde garaiko teknikak mantendu egiten dira. Musika erlijiosoa egiten da gehienbat. Bestalde zartzuela sortzen da.

Hona hemen autorerik aipagarrienak dira: Aita Antonio **Soler** (1729-1783), Escorial-eko monjea: "Klabe-sonatak". Gaspar **Sanz** (1640-1710), aragoarra eta kitarra-teknikaren hedatzailea. Luigi **Bocherini** (1743-1805), italiarra eta Karlos III.aren musikaria. Bibolin eta orkestarako kontzertuak, sonatak, minuetoa, etab. eman zituen. Domenico **Scarlatti** (1685-1757), italiarra hau ere, Portugal-etik Espainia-ra dator: "Klabe-sonatak".

Musika barrokoak Euskal Herrian izen handi bat eman zuen, guztien gainetik Juan Crisostomo **Arriaga** (1806-1826). Bilbon jaioa, hogei urterekin hil zen Parise-n. 1817.ean, hamaika urte zituela, eman zuen Bilbon bere lehen kontzertua; oso gazterik eskaini zuen lehen obra konposatua ere: "Nada y mucho" (1819), korda-orkestarakoa, kitarra, tronpa eta pianorakoa. 1820.ean "Los Esclavos felices" opera burutu zuen. 1821.ean "Obertura N°20" eta "Stabat Mater". 1821.ean, Arriaga-k Parise-n hasi zituen ikasketak, eta 1824.ean bere "Tres Cuartetos" argitara eman. Eta hain gazterik hil bazen ere, beste obra-sail bat ere onduta utzi zuen bilbotar harrigarri honek.



"LOS ESCLAVOS FELICES" (1820). Arriaga euskal musikagilearen obra. Musikagile bilbotar honek, bizitza laburrean obra gogoangarria utzi zuen. Mutil koskorra zela hasitakoa da obra hau. Beste euskal ikasle asko bezala, Arriaga Parisera joan zen, ikastera. Izan ere, XIX. mendean, goi-ikasketak egiteko, Euskal Herriko ikasleetatik erdiak Penintsulatik kanpora joan ziren (Parise, Brusela, Erroma, Milano).

V. ARTEA

Barroko hitzaren jatorrizko esanahia ez dago garbi. Batzuek diotenez, "barrueco" hitzetik dator eta perla irregularra, akastuna, esan nahi du; beste batzuek, berriz, "barroco"tik datorrela diote, eta silogismo artifiziotsua, adierazten duela; badira ere Barucci abizenetik datorrela uste dutenak, arkitekto eta margolari hori estilo honetakoa izan bait zen. Hitzak, XVIII. mendean, ez zuen zentzu onik, erdeinuzkoa zen...

Barrokoa Italia-n sortu zen eta handik hedatu zen Europa-n zehar Neoklasikoaren sorrera arte. Estilo neoklasiko hau, berriz, Winckelmann-ek zioenez, "sinpletasun noblekoa eta handitasun zorrotzekoa" zen. Gaur egunean Barrokoa ez da ikusten Pizkundearen azken fase beheranzkor bat bezala, kreatze-lanaren une garrantzitsu bat bezala baizik. Barrokoak bere artista bikainak izan zituen, lan ederrak eman zituzten artista handiz loratutako garaia da. Kontraerreformaren arte bezala ere kontsideratu izan da, batez ere Pizkunde-garaiko estilo geometriko, hotz, orekatu eta razionalisten aurkakoa dela kontutan hartzen bada.

Pizkundea/Barrokoa

"Batasuna, Pizkundeko arte-lanetan, nolabaiteko koherentzia logiko bat zen soilik, eta orduko irudiztakizunak beren osoan elkarren gehigarriak edo xehetasun-batuketa bat ziren. Osotasun horren barnean, osagai ezberdinak oraindik ere beren banakotasunean bereizgarriak gertatzen ziren Pizkundean.

Parteen autonomia erlatibo hau desagertu egiten da Barrokoan. Leonardo edo Raffaello-ren konposizioan osagaiak gozagarriak dira oraindik banaka ere; Rubens edo Rembrandt-en pinturan, ordea, xehetasun batek ere ez du zentzurik bere baitan.

Barrokoko maisuen konposizioak aberatsagoak dira Pizkundekoenak baino, baina aldi berean batasun handiagokoak dira. (...). Barrokoan, batasuna ez da "a posteriori" datorren emaitza, sorkuntza artistikoaren aurrebaldintza baizik".

(A. HAUSER)

* 1. Berezitasun orokorrak

Barrokoaren berezitasunak laburbil ditzagun lehenik: barietatea eta mugimendua, dinamismoa eta grina, giza errealitate ezinegon baten egoeraren espresioa... Hori dena eman nahi du, garai kezkati eta ezinegon handiko arazoak jasoz. Barroko-garaiko artistak ahalegin guztiak egiten ditu talde efektistak sortzen, fededunen jaiera narritatzeko eta katolikoak ekintzara bultzatzeko. Doktrina protestanteak fedeaz eta ekintzei buruz zioena ezaguna zen: obrak ez, baizik fedeak salbatzen gaitu. Barrokoa doktrina katolikoaren azalpen bat da: ekintzarako deia.

Horrez gainera, Barrokoak eraikuntza handi eta luxozkoak egiten ditu. Horrela, erregeen eta nobleen boterearen eta aberastasunaren agerpen bat ere bada.

Barrokoak arte plastiko guztietara eraman zuen bere arte-burubidea, eta denetan eskaini zituen artelan garaiak. Herrialde bakoitzeko historiara pasa aurretik, arte-barruti bakoitzeko berezitasun orokorrak ikusiko ditugu hemen.



QUITO: JESUITEN ELIZA. Amerikетan Barrokoak bere berezitasunak ezagutu zituen; "Barroko koloniala" deitu izan da berau. Ekuador-en, presentzia indiarra beste lekutan baino areago nabaritzen da. Quito-ko tailerrak oso biziak izan ziren. Hemengo eliza hau 1765ean bukatu zen.

a) Arkitektura

Arkitektura Barrokoak, berezitasun aipagarri bezala, mugimendua, argiluna eta handitasuna ditu.

- **Mugimendua**-ren lehia du: lerromakur eta lerronahasia da Barrokoa, lerrozuzenaren baretasun klasikoa hautsiz. Izpiritu hau topatzen dugu eraikuntzen oinplano, elementu eta estalkietan:

. Eraikuntz elementuetan. Frontoiak erdibitu egiten dira, arkitrabeak uhinduretan mugitzen, sigi-sagatan higitzen, sar-ateratzen. Bide honetatik, adibidez, zutabe "salomondarra" bere goranzko espiralarekin Barrokoaren adigarri jatorra da.

. Eraikuntzen oinplanoak. Lerromakurraren nagusitasunak zeihar-planoak lortzen ditu, argiaren efektuak piztuz eta zabal- eta sakon-perspektibak mamituz.

. Ganga eta kupuletan, berriz, margoek tartegune goranzkorrak lortzen dituzte.



BERNINIren KOLOMATA (1667). Vatikano-ko San Pedro plazan, kolomata honekin perspektibaren jokoa eta sakontasun-efektuak areagotu nahi ditu Bernini-k. Eliza ahalik hondoenean dagoen inpresioa sortu nahi du. Horretarako, aurrean plataforma zabala jartzen du. Kolomataren gorputz zilindriko ugariek ere urrundu baizik ez dute egiten elizaren aurrekaldea.

- **Argiluna.** Oinplano eta gainazaletako etenek argiaren bizitasun eta erditzalaren jokoak sortzen dituzte; marmolaren eta margo ezberdineko harrien erabilerak ere laguntzen du horretarako.

- **Handitasuna.** Bai eraikuntzen barnean eta baita barnealdeetan ere handitasuna azaltzen da bereziki.



STA. TERESA, ESTASIAN (1644). Bernini-ren eskultura bikaina-na da. Akitua, bere baitandik aterea ageri da Santa Teresa; begiak itxita ditu, ahoa erdi irekia. Aurpegi osoa patetiko ikusten da, antsi batez itxuraldatua.

b) Eskultura

Eskultura Barrokoaren berezitasunak oso laburki emango ditugu hemen: Mugimendua eta dinamismoa adierazteko lehia, lehenengo. Barnerantz hondoratuz eta kanporantz ateraz, formak zurrunbilotan korapilatzen dira. Apaingarriak nagusitzen dira eskultur masan. Keinu efektistei eta jarrera teatralei lehentasuna ematen zaie.

Arkitekturan gertatzen den bezala, Lorenzo Bernini italiarra da eskulturgintzan ere Barrokoaren sortzailea.

c) Pintura

Pintura Barrokoaren berezitasunak ondoko puntuetara labur ditzakegu:

Naturaltasuna-ren gustoa. Klasikoaren perfekziotik eta asebetetik aldendu egiten da, naturalismoari leku emanez, inoiz ikuskizun eskerga eta makabrotan plazer izateraino.

Gai-ugaritasuna. Gaien esparrua zabaldu egiten da, bodegoiak, paisaje independenteak, lore

eta abereak margotuz. Ugaritasun honegatik ere, gizartera irekiago dago artegintza hau.

Bezeria berria du artistak: Holanda-n, batez ere, gaur eguneko artistaren kontzeptu soziala azaltzen da. Obrak bezero burgesei erakutsi eta saltzeko margotzen dira.

Espresibitatea da beste berezitasun bat Barrokoan. Giza keinuak indar berria hartzen du pintura honetan. Arimaren egoera grinatsu eta odolgaiztoak interesatzen zaizkio, ikuslearen adorea hunkitu eta mugitzeko.

Pizkunde-garaiko **konposizio** lasai eta ordenatua hautsi egiten da. Elementuak diagonalean ordenatzen dira, batzutan. Argiaren bitartez dramatismo eta espresibitatea azpimarratzen dira. Leonardo-k erabilitako esfumaturaren ordez argilun biziak **tenebrismora** darama Barrokoa: kontraste izugarriak azaltzen dira argi distiratsu eta dardarkor baten eta iluntasun sakon beltzen artean.

Argiaren bitartez **aire-perspektiba**-ren jabetasunera iristen dira artista barrokoak (Velâzquez batez ere), Pizkunde-garaian lortutako horizontaltasuna gaindituz. Aire-perspektibaren bitartez sakontasunean plano ezberdinak lortzen dira, eta errealitatea margotara eramatea, gainera.

Teknika-mailan **freskoa** erabiltzen jarraitzen dute; tenplea baztertu egiten da eta oleo eta mihiseak nagusitzen dira. Gaur eguneko "kuadro" kontzeptua Barrokoarekin agertu zen.

Erroma barrokoa

"Urban VIII.a Barberini Aita Santuaren garaian (1623-1644) bihurtu zen Erroma guk ezagutzen dugun hiri barroko.

Aitasantualdi honen lehenen partean gutxienik, Erromak menperatzen zuen Italiako bizitza artistiko osoa eta Erroma da Mendebalde osoko erdigune artistikoa.

Nazioartekoa zen arte barroko erromatarra, garai batean gotiko frantsesa izan zen bezala; dauden indar guztiak beretzen ditu, eta bizirik dauden ahalegin artistiko guztiak biltzen ditu estilo horretan, berau bait zen orduko Europan garaiarekin ados zetorren bakarra. (...).

Pietro da Cortona, Bernini eta Rubens ziren orduan indarrean zeuden izenak".

(A. HAUSER)

* 2. Barrokoa Italian

XVII. mendeko Erroma, Arte Barrokoaren museo bat da: hain da aberatsa mende hartako obra eta lanetan! Elizek eta jauregiek, parke eta plazek garaiko lan bikainak erakusten dizkigute. Batez ere, arkitektura da obrarik helduenak emandakoa.

a) Arkitektura

Arkitekto Barrokoen artean, Italia-n aipagarrienak ondoko hauek izan genituen.

Vignola (1507-1573): **Gesù**-ko Elizaren oinplanoaren egilea da. Jesuiten eliza-ama hau beste askoren eredu izan zen: Nabe bakarreko oinplanoa du; aldare nagusiaren gainean kupula darama, eta erdiko nabeari, perpendikularki, kapera txikiak ematen zaizkio.

Gesù-ko eliza

1568an enkargatu zitzaion eliza honen eraikuntza Vignola-ri. Josulagunek eskatzen ziotenari erantzunez, nabe bakarrekoa izango zen: hala-koa predikuetarako egokiagoa zelakoan.

Eraikuntz molde honen araberako elizak eurrez jaso ziren munduan zehar, jesuitenak batez ere.

Hurrengo belaunaldietan hainbat osagarri eta aldakuntza izan zituen: Della Porta-ren portada (1575), Baciccio-ren fresko barrokoak (1672-79), eta San Ignazio-ren aldarea (1700).



G. VIGNOLA (1507-1573): GESÙ. Paul III.a Aita Santuak babestu zuen Vignola, eta honek bultzatutako Erreformaren ondotik, arkitekturan jesuita-estiloaren araurik jatorrenak berauen sortelizan eman zituen: **Gesú**. Hauxe da, izan ere, Vignola-ren obra maisua.

BALDAKINOA (1624). Erromako San Pedro Basilikan dago, elizaren gurutzeriaren erdian, Apostoluaren hilobiaren gaineko aldarea babestuz: lau zutabeak kiribilean doaz gora, goiko baldakinoaren euskarri. "Salomondarrak" deitzen zaie zutabe hauei errege haren tenplokoen antzera moldatuak omen zirelako.



Bernini (1598-1680) da estilo Barrokoaren sortzailea. Erroma-ko San Pedro Basilikako "baldaquino"a izan zen haren lehen obra, aldare nagusiaren estalkitarako egina; tenplete bat da: fusteak uztaituak eta espiralean ditu, eta lau zutabe, euskarritzat. "Salomondarra" deitzen da zutabe-molde hau, Salomon-en tenplutik hartua zela uste zutelako. Baina Bernini-ren obra garrantzitsuena San Pedro Plazako kolomata da. Arkitektura zibilari dagokionez, Erroma-n jauregi batzu egin zituen: Barberini, Montecitorio, Odescalchi Jauregiak.



Borromini (1599-1667). Izaera suharreko eta fantasia handiko artista zen. Jasotako eraikuntzen gainazalei mugimendu handia ematen zien: Erroma-ko San Karlos elizako aurrekaldea, adibidez, uhindua du.

BORROMINI (1599-1667): San Karlos eliza (1640). Zenbait arkitekto barrokoren antzera kolomak eta pontoiak pilatu ordez, hainbat aldakuntza sartzen ditu. Fatxadan osagaiak sar-irtenetan mugituko dira, gainazal konbexuak aurreratuz, albokoak atzeratuz, kurben jokoaz baliatuz.

b) Eskultura

Mugimendua, errealismoa, adorearen egoeraren espresioa eta efektismoa dira eskultura honen berezitasunak. Korronte honen barnean Maderno dugu aipagarriena.

Stefano Maderno-ren (1576-1636, ez da nahasi behar San Pedro-n lanegin zuen Carlo-rekin) obra garrantzitsua "Zezilia Deuna hilda" da, izen bereko Erroma-ko Elizan dagoena: lurrean etzanda dago, jarrera hunkigarri batean.

Bernini (1598-1680). Bete-betean hartu zuen eskultura Barrokoa Bernini-k, eta sona handiko lanak eman zituen: "Teresa Deunaren estasia"n aingeru batek bihotzean gezia iltzatzeko unean irudiztatu zuen Santa hau. "Dabid" ere oso efek-





BERNINIren Dabid. Ez da hau Michelangelo-ren antzekoa. Alde nabarmenak daude bien artean. Bernini-rena ekinean agertzen zaigu, habailarekin harria botatzera doan unean. Gorputzaren modelatuak erakusten duenez, zizel-lanean benetan artista zen Bernini.

STA. TERESA, ESTASIAN. Mukulu biribileko eskultura hau koadro baten gisa egindakoa da. Teresa, espazioan esekita ageri da, hodei eta janzki-tolestaduraz egindako jarleku batean. Janzkiok ematen diote aukera artistari forma-zurrunbiloak mugimenduan lantzeko; gorputza, berriz, ez da sumatu ere egiten. Esku-oinak eta aurpegia dira bakarrik agerian daudenak. Aingeruaren tunika, berriz, garretan dago; bizi eta poza gainezka aurpegian. Maitasunezko urre-gezia jaurtitzera doa aingerua, goitik datorren jainkozko argiaren amodio-erasoa osatuz.



CARAVAGGIO (1573-1610): "Bako". Barruan zuen naturalismo-kezkak bultzatu zuen Caravaggio ohitura-koadroak lantzera. Erizpide berarekin ulertu zuen Bako-ren gai mitologikoa ere.

G.RENI (1575-1642): "Egunsentia". Apolo, egunaren jainkoa, hodei artetik irtetera doa, zaldi indartsuek daramaten gurdi batean. Orduek inguratuta dator. Zaldien gainean, hegalari, aingeru irudipean, Artizarra. Aurretik Egunsentia doa, loreak ereiten.

tista da. Goliat erraldoiari harria botatzen ageri da. "Apolo eta Dafne" (taldea) ere dramatista da, eta kontraste handiak ditu. Oso ezagunak dira, gainera, Bernini-ren beste obra-modu batzuk: iturri oso ederrak egin zituen Erroma-n, "Triton-en iturriak", adibidez, Berberini Plazan.

c) Pintura

Caravaggio (1573-1610) da pintura barrokoaren sortzailea. Bizitza errealeko eszenak, gogorrenak ere mihisetara eramaten ditu. Irudiak begitara ekartzeko argilunaz baliatzen da, marrazkiaz baino areago, argi-ilunak elkarri kontrajarriz: horrela jaio zen "tenebrismoa" deituriko estiloa. Honen obren artean aipagarriak dira: "Kristoren ehorzketa", "Ama Birjinaren heriotza", "Pedro Deunaren gurutzeratzea", "San Paulo-ren konbertsioa".

Guido **Reni** (1575-1642) aipa dezakegu, azkenik, Caravaggio-rekin batera: dekoratiboa da, eta Barrokoaren izugarri-grina areagotu baizik ez du egiten bere "Egunsentian".



* 3. Barrokoa Frantzia-n

Estilo barrokoak garrantzi eskasa izan zuen Frantzian. Akademien sorrerak legeak kodetzeko beharrari erantzuten zion eta artistak eraikuntza guztiak estilo ofizialean egin behar izan zituzten, apainketa gisa berean eramanez. Luis XIV.ak **Klasizismoa** ezarri zuen arlo guztietan.

a) Arkitektura

Gogora ditzagun izen gutxi batzuk. Bereziki J. **Hardouin-Mansart** (1646-1708) gogoan hartzekoa da, berau izan bait zen Luis XIV.aren arkitekto gortesaua: Parise-ko "Dôme des Invalides" (Elbarrien Eliza) jaso zuen, kupulari danbor bikoitza emanez.

Frantzia-ko arkitektura barrokoaren obra handia Versailles-eko Jauregia izan zen, Hardouin-Mansart eta L. **Le Vau**-ren (1612-1670) eskutik eraikia. Eraikuntza bikain hau gertatu zen artearen nahitaezko ideia-topalekua eta erregimen politikoaren aurpegi artistikoa: "Errege Eguzkia"ren aintzarako jaso zen Versailles.



HARDOUIN-MANSART (1646-1708): "Elbarrien Eliza". Eliza dotore honek, danbor bikoitzeko kupula darama.

VERSAILLESeko JAUREGIA (1660-1680). Tamainaz eta lanez itzela da Erretetxe hau. Argazki bat ez da aski honen luze-zabalak, denak batera, emateko. Pizkundeko arkitektur osagaiak dira oraindik nagusi; baina, honelako eraikuntza handian sor zitekeen monotonia hausteko, ikutu barroko batzuk eransten zaizkio (estatuak, horma-ziskuak, trofeoak, eta abar).





A. COYSEVOX (1640-1720): "Luis XIV.a". 1666an "Erret eskultore" izendatu zuten. Erretratugile aparta zen Coysevox; bustoak egiten zituen. Honen estiloak Frantziako grazia eta dotorezia azaltzen ditu.

b) Eskultura

Eskultura ere erret Gortearen inguruma-rian oso hurbil izango da. F. **Girardon** (1628-1715) izan zen Luis XIV.aren eskulturagile handiena: ezaguna da Versailles-eko "Ninfak eta Apolo" eta Sorbona-ko Richelieu-ren hilobian utzitako lanak. Fineziaz ondutako lanak dira.

Honen ondoan, klasizismotik urrunduagoa hau, A. **Coysevox** (1640-1720) eskulturagileak zen-tzu barrokoz ihardun zuen: Tuilleries-etako haren zaldi hegadunak aipatuko ditugu. Eta Coysevox-en ondoan, jaso dezagun famili tradizio handiko beste izen bat: Nicolas (1659-1733) eta Guillaume (1677-1746) **Coustou** anaiena. Versailles-erako lanetatik, orain Parisen dagoen "Zaldiaren Hezlea" da ezagu-nena.



COUSTOU: "Zaldi-hezlea". Coy-sevox-en ikasleak izan ziren Coustou-tarrak. Berauen lane-tatik, Gilen Coustou-ren zaldi hauek dira aipagarrienak.

Azkenik, P. **Puget** (1620-1694) ez dugu ahantziko. Bete-betean hartu zuen Luis XIV.aren erregealdia. Maisua izan zen marmola lantzen: "Krotona-ko Milon" da bere obra garaia, hau ere Versailles-erako egina.

c) Pintura

Pintura barrokoak Herbehereetan sortu zuen eskola paregabera pasa aurretik, itxurazkoa izango da Frantzia-koaz zerbait esatea. Izen bakar batetara laburbilduko dugu dena: N. **Poussin** (1594-1665). Velázquez-en garaikoa izan zen. Kuadro mi-tologiko eta biblikoak egin zituen: Haietatik ba-tzuk Madril-eko Prado Museoan daude ("Parnasoa", "Bakanalak"), eta ugariak dira bestelakoak ere ("Moise-ren salbamendua", "Eliezer eta Rebeka", etab.).

Baditu gai historiko eta paisaje handiko kuadroak ere, "Germanicus" adibidez.



N. POUSSIN (1594-1665): "Et in Arcadia Ego". Poussin da pintura barroko klasizista frantsesaren ordezkaririk behinena. Urte askoren buruan lortu zuen, ikasiz eta lanez, bere estilo sakon, gartxu eta neurtua. Honen pinturek --garaiko oparokeria eta nabarmenkeriarik gabe-- adimen zorrotza erakusten dute.

* 4. Herbehereetako pintura

Barrokoaren garaian, pintura-eskolarik bikainenak Espainia-n eta Herbehereetan ezagutu ziren. Lehenengoaz geroago ikusiko dugu zerbait: bigarrenaz hitzegiteko aukera dugu orain. Herbehereak izenarekin une bereko bi eskualdetako eskolak eman nahi ditugu aditzera: flandestarra eta holandarra.

a) Flandes-ko pintura

Lehendik ere, Pizkunde-garaian aipagarria izan zen, eta XVII. mendean bere puntu gorenera iritsi zen eskola hau. Barrokoaren barnean Flandes-en ekarpenak handiak izan ziren. Hona zenbait izen jakingarri, eta guztien artean lehen-lehenik Rubens.

Peter Paul **Rubens** (1577-1640). Barroko-garaiko pintorerik barrokoena bezala ikusia dago bere errealismo, margo bizi eta mugimenduarengatik. Hau dena lortzeko, oreka egongaitzez, keinu espresiboz eta bonbaziaz baliatzen da, adibidez "Gurutzifikapena" ikus daitekeen bezala. Etorri eta oparotasun handiko margolaria izan zen Rubens, formatan ezezik kuadrotan ere: 4.000 bat kuadro egozten zaizkio, nahiz eta asko bere ikasleenak izan. Haren konposizioak ez ziren delikatuak, baina bai forma, kolore, argilun eta irudien mozkorraz aśeak. Honek ere, mitologiatik bezala,



P.P. RUBENS (1577-1640): "Autorretratua" (c. 1639). Herbeheretar honek, bere herriko tradizioa ahantzi gabe, Italia-koaren balio berriak ere bereganatu zituen, 1600-1608. urteetan hemen egon bait zen ikasten eta lanean: "garai hartan irakas zitekeen dena ikasi zuen" (Gombrich).



P.P. RUBENS: "Herkule eta Hidra". Grabatu hau Rubens-en artelan batetik hartua da, eta ongi ematen du aditzera, Rubens-ek mugimendua azaltzeko zuen trebetasuna.



A. VAN DYCK (1599-1641): "Karlos I.a". Bi erretratu egin zizkion Erregeri, bata hemengo hauxe da, Louvre-n dagoena.

libreki, jaso zituen bere kuadroetako gaiak kristau-fedetik ere.

Hona obra erlijioso batzuk, esate baterako: "Jaitsiera", bere diagonal tragikoarekin, irudiak kuadroan trabeskatuta ematen bait ditu. "Lantzada", batzuentzat pintore honen obra maisua; "Ignazio Deunaren mirariak". Obra mitologikoetatik ekar dezagun hona "Hiru Graziak", Madril-eko Prado-n dagoena.

Erretratuak ere egin zituen, "Monfort-eko zalduna", adibidez; autoerretratuak ere bai, bakarrik eta bere bi emazteekin.

A. **Van Dyck** (1599-1641). Rubens-en ikaslea izan zen. Honen artea neurritsua eta dotorea da. Baditu kuadro erlijiosoak, baina Van Dick-en obra aipagarrienak Ingalaterra-ko Gorteko pertsonaien erretratuak dira. Aipagarria da "Karlos I.a".

David **Teniers**, izen bereko bi aita-seme izan ziren (1582-1649, 1610-1690), genero-kuadroen margolariak: baso-jaiak, taberna eta ostatuetako barnetegiak, erretzaileak, edaleak, etab. margotu zituzten.

b) Holanda-ko pintura

Protestantismoaren eraginez eta burgesia gora igo ala, erlijio- eta mitologi gaiek indarra galtzen dute (salbuespena den norbaitengan ezik). Margotzen diren gaiak egunerokoak dira: bodegoiak, barnetegiak (argi efektista batetan blai), Holanda-ko paisajea ugari eta erretratu asko.

Aipagarrienak ekarriko ditugu hona.

Frans **Hals** (1585-1666). Erretratuen margolaria da. Irripar tipiko batez apaintzen ditu pertsonaiak: "Ijitoa". Rembrandt-ekin batera, talde-erretratuak sortzen ditu.

Rembrandt (1606-1669) da Holanda-ko eskola honetan margolari erraldoia. Argilunaren eta argi eta itzalaren arteko kontraste bizien maisua zen. Haren pertsonaia nagusiak ongi argituak agertzen dira; apalagoak, ostera, itzalpean. Erretratuak, paisajea eta kuadro historikoak margotu zituen.

Obra aipagarrienak hauek ditugu: "Anatomi ikasgaia", errealismo handienarekin. "Antwerpen-eko (Amberes-ko) oihalgizonen Sindikoak", pertsonaien mendu-azterketa abila erakusten duena; "Gau-Erronda"n, berriz, argi-joko apartak erakusten dizkigu. Rembrandt erretratugile paregabea da,



REMBRANDT (1606-1669): "Gau-erronda". Koadro honetan, Pumerland-eko jaunak bere loktenenteari soldaduteria martxan jartzeko agintzen dion unea adierazten da. Duen itxura heroikoagatik, herri holandarraren askatasunerako gudu-deia bezala ikusi izan da oihal hau.



J. VERMEER (1632-1675): "Pintatzailearen ikastokia". Vermeer-ek duen argi-zentzua, handia da.Barnetegiaren gaia pintatzaile honengan oso bizirik dago, Herbehereetako pintura osoan bezala. Ehun eta altzarien materiak izpirituzkoa ematen du, argiaren hori eta urdinetan blai.

bestalde: haren 60 autorretratu ezberdin gordetzen dira, denak zoragarriak. Lagun asko margotu zuen.

J. **Vermeer** Van Delf (1632-1675), maisua da kuadroen konposizioan, eta argi lehun eta poetikoz jazten ditu bere barnetegi ederrak. Gauzen kalitateak adierazten iaioa da. Estilo intimista dakar Vermeer-ek bere lanetan. "Durbantedun neskatxa" eta "Margolariaren lantegia", esandakoaren estilo eredu onak dira.



* 5. Barrokoa Espainia-n

XVI. mendearen bigarren partean Espainia-k osorik hartzen du kontraerreformaren bidea. Horregatik ere Barrokoa leku-lekuan zegoen Espainia-n. Bestalde, Italia eta Herbehereekin harreman handiak zeuden eta erbesteko eskola haiek ere beren eragina izan zuten.

P.DE RIBERA (1683-1742): Madrileko Montserrat eliza da (1720).Estipiteak dauzka kanpandorrean (lat. **stipes** = taket). Gerriak hiru gorputz ditu: lehenengoa, piramide alderantzikatuaren gisara dago; bigarrenak proportzio kubikoak ditu,eta hirugarrenak, txikia, bertikalki jarritako piramide itxura du.

a) Arkitektura

XVII. mendearen lehen herenean, Espainia-n estilo herreratarraren eragina oraindik nabaria zen: Madril-eko Encarnaciôn-en, Salamanca-ko Clerecia-n, edo Madril-eko Udaletxean ikusten den bezala. **Crescenci**-k Escorial-eko Panteoia egin zuen, eta Francisco **Bautista**-k Madril-eko Katedralea, estilo herreratarrean. XVII. mendearen bigarren laurdenean Alfonso **Carbonell**-ek Buen Retiro-ko Jauregia eta Kanpo-Arazoetako Ministraritza egin zituen, beti ere Escorial-aren itzala galdu gabe.



SANTIAGOko KATEDRALEA: "Obradoiro" (1739-1750). Casas Novoa-k egina da. Goranzko mugimendua du, ia-ia gotikoa izateraino.

Alonso **Cano** (1601-1667) izan zen XVII. mendeko Espainia-ko arkitektura barrokorantz abiarazi zuena, Granada-ko Katedralearen fatxada projektatuan ikusten den bezala. Bide honetatik jarraitu ziren **Herrera "el Mozo"** (1622-1685), Zaragozako El Pilar eraiki zuena, eta **Donoso**, Madril-eko Plaza Nagusian "Okindegi Etxea" egin zuenak. XVII. mendearen azken urteetan José Churriguera-k bere joeretan --dekorazio-aldetik, batez ere-- demasia gordinetaraino eramango du Barrokoa.

Churriguerismo delakoa José **Churriguera**-k (1665-1725) hasi zuen Salamanca-ko Udaletxean eta Plaza Nagusian, eta Alberto eta Joaquin beste anaiak bide beretik jarraitu ziren. Baina "churriguerismo"aren benetako hedatzailea Pedro de **Ribera** (1683-1742, ez nahas José pintatzailearekin) izan zen, berak eraman bait zuen azken



A.CANO (1601-1667): Granada-ko Katedraleko fatxada (1667).Arkitekto honek Espainiako Barrokoaren obra ederrenetako bat utzi zuen hemen. Fatxadako osagaiak plano ezberdinetan antolatzen dira, argi-itzalekin jokatuz. Lerro kurbatu eta zuzenak elkarrekin ageri dira, arku, leiho, ate eta abarretan.



J.CHURRIGUERA (1665-1725): Salamanca-ko Plaza Nagusia eta Udaletxea. Projektu nahiko herreratarra zen Udaletxekoa, baina gerora aldaketak jasan zituen.

ondorioetaraino XVIII. mendean joera estetiko hau. Honen obra nagusienak Toledo-ko Zubia eta Ospizioa (biak Madril-en) eta Montserrateko eliza dira.

Aipa ditzagun korronte honetako beste izen batzuk ere: Narciso **Tomé**-k (+1742) orfebre--lana egin zuen Toledo-ko Katedraleko "Transparente"an (Sagrarioa argitzeko eraikuntzan). F. de **Casas Novoa**-k (+1749) bere obra nagusia Compostela-ko "Obradoiro"ko fatxadan utzi zigun.



N. TOME (hil 1742): Toledo-ko "Transparentea" (1721). Argigarri bezala jasotako eraikuntza honi horrela deitu izan zaio. Girolako ganga ireki,eta bertan linterna bat jasotzen du Tomé-k,erretabloa goialdean eskultura bihurtuz.

Goienetxetarren "Baztan Berria"

Madriletik hurbil jasotako herriska bat da hau, Baztango Goienetxetarrek eskatuta Jose B. Churriguera-k eraiki zuen hirigunea (1709-1713).

***Nuevo Baztán** da Espainian lehenengo fundazio partikular kolbertarra, horregatik ere jendaurrean laudorioztatua izan dena eta arretaz begiratu beharko litzatekeena.*

Obra hau, gero mende berean Olavide-k jasoko zituen kolonizazio-herrien aintzindari bat izan zen. Goienetxetar hauek aurreratutako "ilustratu" batzuk baizik ez ziren: nobletasunik gabeak, nahi bada, baina ideia aurrerazaleak eta asmo ekintzaleak zituztenak.

b) Eskultura

XVII. mendean zehar zur-polikromatuen tailaren tradizioa jarraitu zen. Artelan-modu honen ezaugarri nabarienak hauetxek ditugu: Sentimendu erlijiosoa eta goimailako espresibitatea. Egiten direnak, erretabloak eta Aste Santurako

"Pasoak" dira. Ama Birjina Guztiz Garbiaren gaia eskulturagile gehienek sarritan erabiliko duten da. Eskola garrantzitsuenak Gaztela-koa eta Andaluzia-koa dira.

GAZTELAko ESKOLA. Valladolid-en izan zuen bere gunea eskola honek. Guztien gainetik izen handi bat nabarmendu zen: **Gregorio Fernández** (1576-1636). XVII. mendeko lehen erdiko urteak betetzen ditu. Honen estiloak errealismo sakon bat nabari du. Anatomia oso ederki menperatzen du, ez hainbeste tolesturak. Obra garrantzitsuenak espresio tragiko eta patetikoa azaltzen dutenak dira: "Kristo etzana" da gehien errepikatzen duen gaia, hainbat elizatan eta Valladolid-eko eskultur Museoan. "Kristo Gurutziltzatua"rena ere maite du. Gogoan hartzekoak dira, gainera, "Argiaren Kristoa", "Pietatea" eta "Ama Doloretakoa".

ANDALUZIAko ESKOLAK. Bi gune garrantzitsu ditu, bata Sevilla-n eta Granada-n bestea. Sevilla-ko taldearekin hasita, bizpahiru eskultore ekarriko ditugu hona: Juan **Martínez Montañés** (1568-1649) da sonatuena. Gregorio Fernández-en estiloari kontrajarriz, Montañés-ek, oreka eta lasaitasuna azaltzen ditu bere espresioetan. Sevilla-ko Sta. Klara eta San Leandro elizetan erretabloak egin zituen, eta bestalde Sortzez Garbiak eta Kristoak ere baditu, baina haren obra hilezkorra San Isidoro del Campo-ko erretabloa izan zen.

Hemen, Sevilla-n, beste artista gogoangarririk ere bada: Juan de **Mesa** (1583-1627): "Kristoak" egin zituen, "Jesús del Gran Poder" deitua. Pedro **Roldán**-en (1624-1699) Sevilla-ko lanetan azpimarratzekoak dira "Bizkaitarren Erretabloa" eta Karitate-Ospitalean.



G. FERNANDEZ (1576-1636): "Ama Doloretakoa". Aurpegi esanguratsu honetan, barne saminduaren indar guztia ageri da. Juni-renarekin alderatzean ere, ez da hau atzera gelditzen.



Mz. MONTAÑES (1568-1649): "San Jeronimo". Barrokoaren barnean ere nortasun klasiko bat erakusten du artista honek: ordena eta neurritasuna ditu lege. Oinazearen bortizkeria bera baretu egiten da Montañés-en eskuetan. Honen santuen goialdi mistikoetan ere gehiago aurkitzen da halako tristura baketsu eta isil bat.



J. de MESA (1583-1627): "Botere Handiko Kristo"a. Montañés-en ikaslea izan zen Mesa. Honelako prozesio-irudiak egin zituen batez ere. Bergara-n ikus daiteke "Kristo Agoniakoa" (ik. aurrerago).

Granada-ko eskolak ere arte-gizon sonatuak eman zituen: Alonso **Cano** (1601-1667) lehenik. Sevilla-n ikasi zuen Montañés-ekin. Grazia, fintasuna eta goxotasuna dira honen ezaugarri berezienak. Ama Birjina da gehien irudiztatu zuena: Lebrija-koa, Belen-ekoa, "Sortzez Garbiak", eta abar. Hauetatik bat Gasteiz-ko Museoan ikus daiteke.



A. CANO (1601-1667): "Lebrija-ko Ama Birjina". Irudi lirain eta sotila da hauxe. Gorputz lerdena du Ama Birjinak: Sorbaldetan ez batere zabal, janzkiak zurrunbilo bildu batean...

Pedro de **Mena** (1628-1688): Dramatismo sakoneko eta espresibitate handiko eskulturak egin zituen: "Magdalena Penitentea" (Valladolid-eko Eskultur Museoan) eta "San Frantzisko" (Toledo-ko Katedralean), "Ecce Homo"ak, Doloretakoak eta "Sortzez Garbiak" ere margotu zituen.

XVIII. mendean eta Murcia-n azaldu zen imajinagintzaren azken emanaldia. Francisco **Salzillo**-ren (1707-1783) Aste Santurako "Pasoak" oso ezagunak dira: "Atxilotzea", "Veronika", "Azken Afaria", eta guztietan onena "Baratzeko Otoitza".

c) Pintura

XVII.a Espainia-ko pinturaren "Urrezko mendea" izan zen, margolari ospetsu ugari bizi izan zirelako eta beraien obrak kalitate oso handikoak gertatu zirelako. Italia-tik margolari manierista batzu Espainia-ra etorri ziren, Escorial-eko lanek erakarrita. Haien ondoan, baina leku aparteko batean, Greco-a da beharbada lehenen aipatzekoa.



F. SALZILLO (1707-1783): "Baratzeko Otoitzaldia". Salzillo-ren puntareneko obra da, eta Espainiako talde eskultoriko aipagarrienetako bat gainera. Salbatzaileak, makalaldian duen aurpegikera, aingeruaren buru ederra, eta, oro har, obra osoaren harmonia dira baliorik nabarienak.

Pizkunde- eta Barroko-garaien artean, zubi bezala, Manierismoa aipatu behar dugu. XVI. mendeko bukaerako urteak eta XVII.eko beste batzu korronte horren barnean kokatzen dira. Estilo hau definitzea zaila egiten da, Pizkundeko eta Barrokoko berezgarriz, batera, mamitu bait zen. Pizkunde-garaiko klasizismoaren aurka sortu zen, eta orduan jaiotzen ari zen razionalismoarekin zer ikusi handia du.

- **El Greco** (1541-1614). Benetako izena Doménikos Theotokõpoulos zuen; baina, Kreta-n jaio zelako, "El Greco" bezala ezagutu izan da artearen historian. Venezia-n egon zen eta han ikasi zuen, Tiziano-rekin: pintore honen ikaslea ezezik mireslea ere izan zen. Erroma-ra pasa eta Michelangelo-ren obra ezagutu zuen. Gero Espainia-ra etorri zen. Doménikos-en ilusiorik minena, orduan egiten ari ziren Escorial-ean lan egitea zen, eta Felipe II.arentzat margotzea. Felipe II.ak "San Mauricio-ren Martirioa" kuadroa enkargatua zion. Erregeri ez zitzaion gustatu, eta Greco-a Toledo-ra joan zen; hiri honetan biziko zen hil arte.



EL GRECO (1541-1614): "Niño Guevara Kardinala". Sevilla-ko Artzapezpikua eta Inkisidore Nagusia zen berau. Pertsonaia gogor eta agintezalea agertzen zaigu hemen koadroan, El Greco-k erabili dituen gorri-horien harmonia betean.

Toledo-n Gaztela-ren izpiritua ondo ezagutu zuen eta, diotenez, "Gaztelako izpiritualitatea hobekien adierazi zuen margolaria izan zen". Toledo-ko herriak beretzat hartu zuen Greco-a eta beronen pintura-lana: hiriko idoloa bilakatu zen. Greco-aren nortasuna Espainia-n mamitu zen: Gaztela-ko giro gartxua eta paisaje aszetikoa, Espainiako tradizio artistikoa... orok ondu eta eraman zuen heldutasunera Greco-a.

Greco-aren dohain eta gaitasunak handiak ziren. Jeinu guztien antzera, Greco-a bitxia izan



EL GRECO: "Orgaz Kontearen ehorzketa". XIV. mendeko pertsonaia baten hileta da hau. El Greco-k honela iruditatu eta goraipatu zuen jaun hau: Ehorzketara San Augustin bera dator, Kontea augustindarren ongilea izan zelako. Lehen plano zabal batean, pertsonaien friso bat ageri zaigu; beltzez jantzita agertzen dira, aurpegiak lepoko ("lechugilla" deituak) zuriek inguratuta. Hauen gainetik zeruko eszena ikusten da, hainbat santurekin. Formen mugimendu bizikoa da koadroa; jantzien tolestadurak eta transparentziak ikustekoak dira.

zen. Irudiak luzatu egiten ditu eta gorantza mehetu, izpiritu gora-nahiez balihoaz bezala. Haren artea libratua eta askatua da, errealismo sakonekoa, izpiritualitate suharra. Margoak eta argia maisutasun berezi batekin erabiltzen ditu eta efekto liluragarriak lortzen. Haren paletan gama hotza nagusitzen da (zilarra eta grisa).

Eman ditzagun obra garaienak. Gai **erlijiosoek** garrantzizko lekua dute Greco-arengan; aipatu dugu bat, "San Maurizio-ren Martirioa": mihise honetan kolore-lana ezin hobea da. --"Espolio"a (Toledo-ko Katedralean): Kristoren irudia ageri da, bete-betean, tunika gorri naharoan bildua. Multzo guztian nagusitzen da Kristo, aurpegian majestate lasaia azaltzen duela eta maitasuna, ontasuna eta barkamena adieraziz. --"Orgaz Kontearen ehorzketa" Greco-aren lan maisu bat da: Orgaz-eko Jaunari lurrematean gertatutakoa irudiztatu nahi du kuadro honek. Orgaz Kontea Toledo-ko San Esteban Konbentu augustindarraren ongilea zen, eta berau saritzeko, Esteban eta Augustin Santuak jaitsi ziren mundura Kontearen ehorzketara. Guzti horren irudiztapena da kuadroa: behealdean, Augustin eta Esteban agertzen dira, Pontifize-jantziz apainkiro hornituak. Makurtuta daude, hildakoaren gorpua, hilobira aurretik, beren besoetan eutsiz. Atzean eta lehen planoan ere, dolua dago lutuz jantzita eta gertatu den mirariak jota, espresio ikaratu batekin. Zaldunek eta elizgizonek lerro bat osatzen dute; haur bat ere badago, beharbada Jorge Manuel, margolariaren semea. Eta, eskuinetan, otoitzak irakurtzen, erretore Jauna, Andrés Nũñez jauna --kuadroa enkargatu zuena--, eta beronen ondoan, txuriz jantzita dagoen sakristaua. Kuadroaren goi-partean zeru-hondo bat dago: Jaungoikoa, Ama Birjina, San Pedro Deuna giltzekin,



EL GRECO: "San Maurizio-ren Martirioa" edo "Legio tebatarreko martiriak". Legio hau kristau egin zen, eta Enperadoreak berau detxematu edo hamarrentzea agindu zuen. Une honetan armak utzi beharrean dira; nahiago dute kristau otzantasuna. El Greco-k San Mauriziogana zuzentzen ditu ikuslearen begiak, bera da koadroaren erdigunea. Kolore argi, horizta klaruak ditu.

zerutar dohatsuak eta Ama Birjina. Guztion aurrean, belauniko, hildakoa Jaungoikoa gurtzen.

Greco-aren beste kuadro batzu zerak ziren: "Hirutasun Santua" (Prado-n), "Jasokundea", "Igokundea", "San Frantzisko" asko (Toledo-n). Erretratu famatu batzuk ere egin zituen: "Eskua bularrean duen Zalduna" eta "Niño Guevara Kardinala" (New York-en), adibidez. Ez zaio paisajerik falta: "Toledo-ko Bista".

Greco-az aparte, Barroko-garaiko margogintzak Espainia-n izan zituen berezitasunik nabarienak hauek izan ziren: naturalismoa, espresio neurtu eta orekatua. Gai erlijiosoak eta erretratuak landu ziren batez ere. Hiru eskola garrantzitsu bereiz ditzakegu:



F. RIBALTA (1565-1628): "San Frantzisko, gaixo" (c. 1620) Tenebrismoaren atarian gaude, ikus daitekeenez: argi-itzalen jokoa nabaria da koadro honetan. Caravaggio-ren teknika hau goizik sartu zuen Ribalta-k Espainiako pinturan.

- **VALENCIAko ESKOLA:** Francesc **Ribalta** (1565-1628), beronen semea ere ahantzi gabe, lehenengoen artean jarri behar da. Gai erlijiosoak lantzen ditu, eta tenebrismoa jarraitzen du: "Azken Afaria", "San Frantzisko, gaixo".

Josep **Ribera** (1591-1652). Xâtiva-n jaio eta Napoli-n bizi izan zen; horregatik, bizitzan eta gero, "il Spagnoletto" bezala ezagutu izan da Ribera. Caravaggio-ren eragin handia jasan zuen eta tenebrismoaren hildotik ibili zen. Margoari garrantzi handia ematen dio; marrazkilari zehatza da eta konposizioan maisu trebea. Tenebrismoa eta naturalismoa dira haren bi ezaugarriak eta bietan goimailetara iristen da. Naturalismoaren beharrez batzutan itsusia ere margotzen du: "Emakume Bizarduna", "Hankokerra", etab. Argi-koloreak lantzean, itzalak beltz bihurtzen ditu. Ermitariak, penitenteak eta martiriak margotzean, azal-zimel aurkez-

ten ditu: "San Bartolome-ren Martirioa", "Magdalena Bekataria", "San Jeronimo", "Sortzez Garbiak". Mitologiatik eta Itun Zaharretik badu gairik franko: "Jakob-en ametsa" edo "Venus eta Adonis".

- **GAZTELAko ESKOLA**: Pinturaren historia osoko margolari garrantzitsuenetako bat eskola honetakoa izan zen eta batez ere honetaz esango da hemen zerbait zabalkiago: izen laburtuaz esateko, Diego **VELAZQUEZ** (1599-1660) da artista hau.

Sevilla-n jaioa, Herrera Zaharrarekin eta geroago bere aitaginarreba izango zen Francisco Pacheco-rekin ikasi zuen. 1623.ean Madril-eko Gortean sartu zen eta Felipe IV.aren Ganbara-pintorea izan zen. Hil arte Gortean bizi izan zuen bizilekua. Naturalismoan eta tenebrismoan hezi zen; erregeen pintura-bildumak ezagutu zituen. Espainia-tik kanpoko eraginik ez zitzaion falta izan: Rubens pertsonalki ezagutu zuen, eta 1629. eta 1649.etan Italia-ra joan zen eta han Pizkunde-garaiko pintoreekin izan zituen harremanak.

Izaeraz orekatua eta lasaia, lana patxara oneko gogoemanean burutu zuen. Horregatik, haren estiloa nahiz eta naturalista izan, ez zen zizkolatsua, lasaitasunez eta orekaz jantzia baizik. Errealitatera hurbiltzen da, eta errealitatea, den modura azaltzen digu. Haren obrek bizitzaren zatiak dirudite; une konkretu batean hartutako bapateko ikuskera baten antzekoak. Horregatik "Egiaren pintorea" deitu izan zaio. Argiaren arazoari dagokionez, ziklo oso bat betetzen dute haren lanek, garapen egoki bat lortzen dutelako. Orduan egiten zen tenebrismotik aire-perspektiba bikain batera heltzen da. Argiaren bitartez, gauzen artean dagoen aire-hutsarteari leku ematen dio, benetako



J. RIBERA (1591-1652): "Hankokerra". Koadro oso errealista dugu hau. Holako joera Ribera-ren obra guztian zehar nabaria da: aurpegietan, eskuetan, azalean, haragi gorrian... Tenebrismoaren maisu handietakoa da Ribera, baina kolorista bikaina ere bai. Argiari indar dramatiko bat atzematen dio, formari bolumena emateko.



D.VELAZQUEZ: "Sevilla-ko Urketaria". Gazte-denborako obra da hau. Sevilla-n egon zen urteetan saiatu zen bere sen naturalistari eta argiaren arazoari irtenbide teknikoak bilatzen. Mahai baten inguruan gorputz-erdiko hiru lagun jartzen ditu. Argia, ikus daitekeenez, tenebrista da.

perspektiba bat sortuz. Pizkunde-garaian lortutako perspektiba geometrikoa gaindituz, perspektiba "erreala" lortzen du, elkarren segidako planoak sakonean kateatuz, batabestearen ondoren. Horregatik, "airearen pintorea" ere esan izan zaio.

Margoarekin ere, argiari emandako trataera beretsua iristen du. Gaztaro tenebristan erabilitako margo ilunak, Rubens eta veneziarrak ezagutuz joan zen neurrian, argitu egin zitzaizkion, gris-zilarrezkoak eta orlegiak nagusitzeraino. Italia-ra lehen aldiz joan aurretik, tenebrismoa eta naturalismoa jarraitzen zituen, eta gaiek ere, gauzen kalitateaz eta bolumenaz zuen ardura sakona azaltzen digute. Sevilla-n egon zenean egindako obretan berezitasun hauek nabari daude. Erabiltzen duen gaia --erlijiosoa edo herritarra-- aitzakia besterik ez da objektuak sakontasun guztian agertzeko: "Atsoa arrautzak frijitzen", "Sevilla-ko Urketaria", "Erregeen Adorazioa", "Bako".

Italia-rako bidaiak mugarri erabakiorrak izan ziren Velázquez-engan: paleta argitu egin zuen, eta gai mitologikoak gizatartu, batere heroi-gisan azaldu gabe, "Vulkano-ren sutegia"n ikusten den bezala. Garai honetakoak dira Kristoa eta Gorteko jendeari egindako erretratu ugariak: Erregearenak, Olivares Konte-Dukearenak, Baltasar Karlos printzearenak... Orduan hasi zituen bufoien erretratuak. Bufoiak Gorteko pertsonaia desitxuratu eta tristeak ziren, baina Velázquez-ek errespetu handiz eta baretasunez beterik margotu zituen. Orduan egin zuen "Breda-ko Errendapena" ("Lantzen kuadroa" ere deitua), artista honen heldutasun-orekak hain egoki erakusten dituena.



D. VELAZQUEZ: "Atsoa arrautzak frijitzen". Gaztaroko lana da hau. Urketariak dituen berezitasun batzuk ditu honek ere: mahai-inguruan gorputz-erdiko bi lagun daude hemen, argia tenebrista da, margoak ilunak dira, eskuak brontzeatuak.

Erroman bigarren aldiz egon zenean (1649) Inozentzio X.aren erretratua eta Villa Médicis-eko paisaje ederrak margotu zituen. Kuadro hauetan inpresionismoaren (bi mende beranduago garatuko zen estiloaren) intuizioa eduki zuen. Erroma-tik itzultzean, "Gorulariak" eta "Meninak" margotu zituen. Biak lan maisuak. Bi kuadro hauetan, konposizioak eta aire-perspektibak gailurra jo zuten. "Gorulariak" kuadroak Arakne-ren alegi mitologikoa dakar eguneroko bizitzara; "Meninak"enak, berriz, zuhurtziaz egindako erretratu kolektiboa da: barne-eszena bat irudiztatzen du eta, "Gorulariak" kuadroan gertatzen den bezala, konposizioa eta aire-perspektiba kunplituki ematen ditu.

Velázquez-en eragina izugarria izan zen, eta Madril-en eskola bilakatu. Ingurune honetako zenbait lagun historian geratu da: J. **Carreño de Miranda** (1614-1685), Karlos II.aren erretratista izan zen; Claudio **Coello** (1642-1693) ezagunagoa da oraindik.



D.VELAZQUEZ: "Meninak" (1656). Erretetxean zerbitzaritarako hezitako haurrak ziren meninak; hemen, horietatik bi ageri dira, Margarita Infantaren ondoan. Koadroak, hain zuzen, honen erretratua izan nahi zuen. Menina batek, belauniko, edaria eskaintzen dio Infantari. Eskuinean bi ipotxa eta zakurra daude. Bigarren planoan, Marcela Ulloa-ko eta zerbitzari bat; hondoko atean Erretetxeko gelazaina, Jose Nieto, dago. Ispiluan Felipe IV.a eta Erregina ageri dira: itxuraz, Velázquez-entzat paratuta daude, pintatzailea lanean ari bait da, ezkerrean.

- **Sevilla-ko eskola**: Hiru lagun garrantzizkoenak ekarriko ditugu hona: Zurbarán, Murillo eta Valdés.

Francisco de **Zurbarán** (1598-1664). Fuentedecantos-en jaioa (Extremadura-n) zen, nahiz eta bere deiturak euskaldunak izan, eta Sevilla-n hezia. Naturalismoa eta tenebrismoa jarraitzen ditu. Gauzen kalitatea adieraztean benetako maisua da: oihalak, gauza metalikoak, paperak, tolesturak, etab. Bodegoi ederrak ere margotzen zituen. Ez da mugimenduen zalea (nahiz eta mugimendua izan Barrokoaren berezitasun bat). Sakontasunez jositako espresio gaitz eta arranditsua ere lasai eta gelditasunez konposatzen berebizikoa da Zurbarán. Gai mitologikoak ere margotzen zituen: "Herkule-ren lanak", eta historikoak ere: "Cádiz-en defentsa".

Baina, batez ere, santu eta monjeen pintorea da. "Santa Kasilda", "Ama Birjina Haurra". Trebezia aparta erakusten du konbentuetarako eta



F. ZURBARAN (1598-1664): "San Hugo, Kartusiarren jangelan". Cézanne gogoratzen du koadro honen espazio-kontzepzioak: Mahaiaren horizontalaren gain, mojeen bertikalak datoz errenkan, mahai-zapiaren tolesturak zurrunak eta paraleloak dira. Janzki-hormen zuri-grisek, bakea eta baretasuna ematen dituzte aditzera: distira berezirik gabeko egun arrunt bat.



B.E. MURILLO (1618-1682): "Familia Santua eta Txoritxoa". Argi-ilunek beren zentzu dramatikoa galduta dute koadro honetan, etxekotasun goxo bati leku emanez. J.Ribera-ren eragina oso argi dago artelan honetan.

ordena erlijiosoetarako egin zituzten kuadroetan. "Fraideen pintorea" deitu zuten eta mistika eta estasiak margotzean. Zurbarán izan zen animaren egoera sakonak, zeruko ikuskizunak eta goraldi mistikoak hobekien adierazi zituena: Pedro Nolasko-ren bisioak, San Bonaventura konbentuko bilduma, Jerez eta Cuevas-ko Kartusia-ko Hugo Abadeari eta hainbati eskainitakoak, Guadalupe-ko Monastegikoak... adibide onak dira.

Bartolomé Esteban **Murillo** (1618-1682). Sevilla-n jaio zen, Sevilla-n bizi, lanegin eta hil. Irudigile oso ona, margolari lilluragarria eta argiaren eta honen arazoen ezagutzaile trebe eta sakona. Murillo-ren estiloa orekatua da eta polita, pintura graziaz betea. Askotan zeru-hondoz inguratzen ditu bere eszenak. "Rococo"aren iragarle gertatu zen. Gai erlijioso eta herrikoiak ditu. Gai erlijiosoetarik badira Santuenak ("San Antonio"), Ama Birjiña eta Familia Santuarenak: gogora "Txoritxoarena", "Agurtza", etab. Baina Murillo ezaguna, batez ere bere "Sortzez Garbiengatik" da ezaguna; haren "Jesus Haurrak" ere oso ikusiak dira.



B.E. MURILLO: "Haurrak, meloia jaten". Genero-koadroa da: eszena arrunt bat hartu eta bere alde poetikoa eta grazia jaso nahi ditu. Artista heldu, eta adinekoa ere, zela, bizitza pikareskotik honelako anekdotak pintatu zituen Murillo-k.



J.VALDES LEAL (1622-1690): "In ictu oculi". Tenebrismoa eta izugarrikeria itsusi hauek denak elkartzen dira Valdés Leal-engan. Herio-dantzak gogorarazten ditu koadroak: Herioa, eskeleto gisa ageri da; besapean sega darama, biziaren sinboloa den kandela itzaltzera doa, "in ictu oculi" (begi-klisk batean, alegia). Munduko handinahiak eta ohoreak kritikatzen ditu: Erret Koroa, apezpikuen mitra-makuluak... Dena nahasmendu handi batean...

Gaiez, herrikoiak eta errealistak diren obretan berezitasun berdinak ditu: haur, pikaro, txorigaldu eta eskaleen mundua azaltzen ditu, orduko literatur obretan oinarrituta. Obra hauek ere ez dute deihadar eta kexarik, graziaz eginda daude. Haurrak meloi jaten margotzean, ez du gosea pintatzen, baina haurren piltzar eta zarpailek adierazten digute dena, zeharbidez beraz. Murillo-k gogorkeriarik gabe eman nahi du errealitatea.

Juan **Valdés Leal** (1622-1690) da Murillo-ren beste muturra. Sevilla-koa hau ere eta Murillo-ren garaikoa: honen obretan bestelako ikuspegi bat topatzen dugu. Margolari suhar eta urduria, honen lanak espresibitatez jantziak daude; horregatik, marrazkia askotan arduragabea da eta kalitateari begira, obra irregularra. Erabiltzen duen teknika, askatua eta kolorez betea da batzutan eta XIX. mendeko inpresionismoa gogoratzen digu. Naturalismoan murgildua, demasia sinestezinetaraino iristen da, nazkagarria eta makabroa ere margotzean. Sevilla-ko Karitate-Ospitalerako bi obra nagusi egin zituen, "Finis gloriae mundi" eta "In ictu oculi". Obra hauetan Valdés Leal-ek munduko gloria eta ospearen laburtasuna eta heriotzaren dantza errealismo harrigarri batekin adierazten dizkigu.

* 6. Barrokoa Euskal Herrian

a) Arkitektura: Elizak eta beste

Arkitekturan Barrokoaren hastapenetik bukaerara doazen XVI-XVII. mendeak oso ezberdinak

ditugu Euskal Herrian eta hemen garatuko den Artean. Elizgintza berri ugaria XVI.ean hasi zen, Ameriketatik iristen zen diruarekin: eliza ederrak egin edo berritu zituzten euskal probintzietan. Eliza guztiak ez ziren XVI. mendean bukatu eta hurrengoan eman zitzaion lanari segida, batez ere fatxadak egin eta dorrez apaindu zituztenean.

Ordena erlijiosoak izan ziren eraikuntza gehien bultzatu zutenak konbentuetan. Gipuzkoan XVIII. mendean ekonomiaren egoerak aldaketa nabaria izan zuen eta, ondorioz, bizitza erlijioso eta zibilean azalpen artistiko berriak ikusten dira: Loiolako Basilika eta Donostia-ko Santa Mariakoa.

Loiola-ko Basilika: Erroma-n sortutako estilo berria, Barrokoa, Fontana-k --Bernini-ren ikasleak-- ekarri zuen Loiola-ra; San Inazio jaiotako lekuan Jesuitei Ikastetxe bat eraikitzeko planoak ekarri zituen. Obrak 1681.ean eta 1738.ean bukatu ziren.

Elizak oinplano borobila du, errotonda monumental baten antzera, kupula naharo batez koroatuta dago eta duen ganga anulatuarekin Erroma-ko Santa Konstantza gogoratzen duena. Erromatar arkitektoak erantsi zion berrikuntza zera izan zen: absideko dorreak gurutzadurako kupulara manupetzea. Inazio **Ibero**-k, arkitekto azpeitiar famatuak, izugarrizko kupula batekin burutu zuen obra.

Donostia-ko Santa Maria-k ere komentario bat merezi du: 1743.ean hasi zituzten obrak eta 1774.ean estreinatu zen eliza. Lehenagp beste tenplu gotikoa zegoen toki berean finkatua. Planoak I. **Lizardi** eta M. **Salazar**-enak ziren. 1764.etik aurrera Frantzisko **Ibero**-k (Inazio-ren semeak) ere



LOIOLA (1681-1738). Loiolatarren dorretxearen ondoan jaso zen Basilika hau. Fontana-ri zor zaio beronen planoa. Errotonda handi baten gisa eraiki zen, kupula baten babespean. Linterna poligonal batek burutzen du berau. Iberotarrek eman zioten bukaera Loiolako eraikuntza bikainari.



DONOSTIAko Sta. Maria (1743-1774). Barrokoaren eta neoklasikoaren tarte-mugan jaso zen Sta. Maria. Horregatik ere bietatiko osagaiak ditu: Portada, adibidez, garbi-garbiki barrokoa dugu (lerromakurra da nagusi, dekorazio aberatsa du, alferrikako osagai dekoratiboak ditu, etab.); eliz barnean, erretabloan, berriz,neoklasikoa ere ageri da.



ELGOIBARko KANPANDORREA (1757) Ibero aita-semeek jaso zuten. Ibarran, Martin Karrerak hasitako (1700-1704) eraikuntz moldea da hau, gerora Euskal Herrian hainbeste hedatuko zena. Dorre lerdenak dira. Pisuz pisu honelatsu jasotzen dira: gorputz baxua, tarteko txikiago bat ondoren, kanpandegia dator gero, azkenik taulamentu hautsi eta erlaizaren gain kupula dator, bere linterna eta guzti. Kanpandorre hauek fatxada bezala agertu ohi dira eta sarritan atearen gain eraikita (Ibarra, Eskoriatza, Andoain...).

lanegin zuen. Saloi-oinplano eder bat du, hiru naberekin, hirurak altuera berdinekoak eta gurutze-ganga bikaina. Batzuen eritziz, azken euskal gotikoaren eredu bat da. Harrizko petxinen gaineko gurutzadura kaskotxo esferiko batek burutzen du, ganga erromatar baten marrazkera segiz. Sostengatzaile edo eustariak, Granada-n Siloé-k eta Florentzia-n Bruneleschi-k egin zuten bezala, pilareak dira eta berauen goiburuan taulamendu-zatiz dute erematea.

Fatxada XVIII. mendean egindakoen artean ederrenetako bat da. Kofamendu sakon bat du, dekorazioa babesteko ere. Estilo barrokoa du.

Eman ditzagun, azkenik, mende honetako, beste zenbait parrokia aipagarri: Elgoibar-ko Olasoko San Bartolome, Andoain-go San Martin eta Pasaia-ko San Pedro. Nabe bakarreko elizak dira. Kanpokaldean atari garai eta apainduak dituzte eta kanpandorre ederrak. Atarien artean aipagarriena Plaentzia-koa da, zurezko tailaz edertua, 1666.ean egina.

Mende hauetako Bizkaiko arkitektur historia jakingarria da: XVII. mendean ez zen egokiera onik izan eliza berriak eraikitzeko. XVI. mendeko azken urteetako izurriteak, Austria Familiako erregeek egin zituzten gudek, eta abarrek biztanleria urritu egin zuten. Bestalde, Bizkaiko Golkoan merkatalgoaren krisialdi sakon bat jasan zen, eta Bizkaiko burdinaren esportazioa gutxitu egin zen. Garaiko bi eliza bilbotar zerak ditugu: Joanes Santuena eta Nikolas Bari-koarena.

Joanes Santuak deitu elizak (Bautista eta Ebanjelariari eskainiak) Erroma-n Vignola-k egin-

dako Gesù elizaren planoak jarraitzen ditu. Altuera ezberdineko hiru nabe ditu. Gurutzaduran, petxinen gainean kupula eder batean margotuta daude Lagundiko Santuak. Nahiz eta Eliza handia ez izan, sapai aberatsak ditu peralte piXka bat duten erdi-puntuko arkuen gainean. Galeriak eta tribunek friso apainduak dauzkate eta eliza erromatarrak gogorarazten dizkigute. 1624. urtekoa da eliza hau.



BILBOko S.NIKOLAS (1743-1756). XVIII. mendeko eliz eraikuntzarik ederrenetakoa da hau. Hemen ondoan esaten dugunarekin begiratu behar da irudia.

San Nikolas Bari-koaren eliza, ostera, XVIII. mendekoa da, 1743.ean hasia eta 1756.ean bukatua. Lehen baseliza txiki bat zegoen lekuan eraiki zuten. Oinplano poligonala du. Fatxada Arenal-eko lorategien aurrean dago eta nahiko sinplea da. Ateak dintel zuzena du pilastra korintiarrez mugatua; hauen gainean erdi-puntuko arku peraltatu bat du eta tinpanoan San Nikolas-en bizitzako eszenak. Honen gainean Bilbo-ko harmarria, frontoi zatitu handi batean. Fatxada guztia, kalostra apainez, ezpataina barrokoz eta alboetan bi dorre bizki lirain eta ederrez bukatzen da. Barnean, gurutzerian, petxinen gainean eginda kupula handiosa du, kanpotik zinborio zabal batean nabaritzen dena.

Bilbo-tik at, Bizkaian, Urduña-ko beste eliza jesuitiko bat aipatu behar da. Barnea du batez ere interesgarria: Altuera ezberdineko hiru nabe dauzka, erdikoa zabalagoa. Gurutzadura oso zabala du, eta kupula eder bat petxinen gainean, eliz burua argitzeko. Estilo jesuitikoa duten eliza hauek argi natural ugari dute barnean.

Arabak eta Nafarroak ere badaukate garai honetako eraikuntzarik franko. Gasteiz-en bi dira aipagarrienak: Sortzez Garbia-ren konbentua (San



BALMASEDAko SAN SEBERIN. Eliza gotiko hau Barrokoan berritu egin zen fatxada eta kanpandorrean. Horrela, bi estiloak elkartuta ikus daitezke, harmonia egokian.



BILBOko SAN ANTON (1774-75). Bizkaian kanpandorre bikainak aurkitzen ditugu (Durango, Zornotza, Gordexola, Zeberio, etab.). Hemengo bilbotar hau ere kanpandorre barrokoa da, eta Elgoibar-koari buruz esan dugunak balio du, oro har, bizkaitarrentzat ere. Eliza kolomarien egiturarekin batera kanpandorreok dira Euskal Herriko eliz eraikuntzen bereizgarri bat.

Antonio deitua, alegia) eta San Prudentzio-ren Ikastetxea (Hospizio izenarekin ezagutzen dena).

Tutera-n, berriz, San Jurgi aipatu behar da, eta Mues-eko San Gregorio Ostiarra ezin da ahantzi, XVII. mendeko azken urteetan. S.Gregoriok fatxada hondoratua du, zutabe salomondarrez hornitua. Horrelako fatxadak Frantzia-n sortu ziren eta Murcia-tik Donostia-ra diagonal batean datoz. Lesakako eliza parrokiala ere erretaula barroko eder batez apaindua dago.

XVIII. mendean, Euskal Herrian eraikitako **KANPANDORREAK** aipatu behar dira orain. Oso bereziak dira. Harlandu zoragarriz eginak daude eta itxura lerdena eta polita dute. Eraikuntza hauek erakusten dutenez, benetako arkitekto- eta hargin-eskolak zeuden hemen: Karrerak, Iberotarrak, Kapelastegi, Beratua, Elejalde eta beste, batzuk

aipatzeko. Legazpi eta Elorrio-ko kanpandorreak ezik, gehienak XVIII. mendekoak dira.

Banan-banan gogoratzeko baino gehiago, alde aurretik prestatutako bidaiaren baterako gida-zerrenda gisa ematen ditugu hemen kanpandorre hauen elizen kokalekuak.

Gipuzkoan: Ibarra, Bergara-ko Sta. Marina eta San Pedro, Elgoibar, Eskoriatza, Hondarribia, Andoain, Usurbil, Hernani. Oñati-koa, neoklasikoa da.

Bizkaian: Portugalete-ko Sta. Maria, Balmaseda-ko San Seberin, Bilbo-ko San Anton, Zornotza-ko Sta. Maria, Bermeo-ko Sta. Eufemia.

Araban: Urarte, Urbizu, Bernedo, Bujanda, Arrieta, Oïon, Trebiño-ko San Pedro, Mendata, Argote, Paritza eta Antoñana.

UDALETXEAK. Euskal Herrian, XVII. eta XVIII. mendeetan, udaletxerik ederrenak eraiki ziren. Lampérez-ek dioenez, Gipuzkoako udaletxeak batez ere bi eratakoak dira: 1. Estilo barroko frantsestuak: Oñati, Arrasate, Elgoibar, eta 2. Espainia-koen antzekoak: Donostia-ko Udaletxe zaharra.



ARRASATEko UDALETXEA (1756an hasia). XVIII. mendean, Hego Euskal Herrian ekonomi bizkortze bat sumatzen da. Horrek ematen du aukera eraikuntza hauetarako. Egokiera hartan, eraikuntza zibilen artean, Udaletxe berriak jaso ziren (Oñati, Bergara, Elorrio, Otxandio, Orozko, etab.). Mende honetan, bestelako eraikuntza zibil ederrik altxa zen, jauregiak, hiri-etxeak, baserri berriak, etab. (Usurbil-en Atxega edo Zamudion Urgoiti, adibidez).

Barroko-garaiko udaletxeak berezten dituzten ezaugarri nabarienak hauek dira: harmarria daukate fatxadan, eta harmarri horrek daraman dekorazioak oso markatzen du eraikuntzaren aurpegia. Askotan herri txikiek udaletxe guztiz ederrak dituzte: hala gertatzen da Asteasu-n, Alegi-n eta Orozko-n. Horren arrazoia sozio-politikoa da: udal-bizitza aberatsa zuten herri hauek.

b) Eskultura: Erretaulak

Aurreko mendean egindako erretaulen egitura berdinez eratu ziren XVIII.ekoak. Pisuz eta kalez eratuak zeuden, eta erliebez jantzita, nitxo eta kuadroetan. Zutabe klasiko ildaskatu handiz hornitzen zituzten erretaulok, eta dekorazioa oso kargatua izan zen batzuetan, erromanismo garaiarekin gonbaratuz. Antxieta-k sortutako eskolaren ondorioak XVII. mendean nabariak ziren manierismoan. J.Bazkardo izan zen manierismoa jarraitu ez zuen eskulturagile bakarra.



LOIOLAko ERRETAULA. Barrokoa da hau ere, txurrigereskoa hain zuzen. Ez dago ikusi besterik: koloma salomondarrak, kapitel korintiarrak, azalera dena apaingarriz hornitua, lerromakurra da nagusi aukerarik den guztietan; erretaula, dena dekoragarriz betetako kalota esferiko batek burutzen du.

J.Bazkardo-k: Araban, Biasteri-ko Santa Maria elizan, Oion-en eta Argantzun-en lan egin zuen. Gipuzkoan, Tolosa-ko Sta. Maria-n, Bernabe **Cordero** (ahokatzailearekin) erretaula bat egiten lanegin zuen. Irun-go Junkal-eko erretablo ederrean ere parte hartu zuen Bazkardo-k, Cordero-rekin batera. Gero Bazkardo-ren ikasleek, **Zatarain-darrek**, Cordero-rekin batera berriz ere, Hernani eta Ordizia-ko erretaulak egin zituzten. Aldi honetan **Huizi** nafarrak Oiartzun-go erretaula nagusia landu zuen.

Honela, ba, apaingarri-irrikak eraginda, Araban eta Bizkaian gertatu zen bezala, "churriguerismo"a sartu zen Gipuzkoan ere: Azpeitia, Zes-

toa, Aizarna eta Aia-n adibidez. Aipagarria da Oñati-ko San Migel, Biana-ko Juan Bautista **Suso**-k egina.

Eman ditzagun Bizkaiko obra aipagarri batzuk: Joanes Santuen taldea, Elorrio-ko erretaula ederra, etab. Ermu-ko erretaulak zutabe salomondarrak ditu.

XVIII. mendean, Borbondarren etorrerarekin batera, Espainia-ko bizimoduen eitea aldatu egin zen, eta artea ere bai. Barrokoak, esate baterako, XVIII. mendeko lehen erdian "rococo" itxurak hartu zituen. Barroko-garaiko dekorazioari, Versailles-eko bizimodu arin eta ergela agertzen zuen dekorazioa erantsi zitzaion (arrokaiak, girnaldak, kornukopioak, etab.). Euskal Herriak ere onartu egin zuen mugimendu berri hau, biziberrituz zetorren ekonomi egoera berri batean abiatua bait zen. Mikel **Irazusta**, euskalduna, 1715az gero Madril-en zegoen lanean Erret Jauregian eta hango Alcazar-ean. Han bazegoen ere, hemengo herri-elizetarako erretaulen trazak ere egiten zituen: Bergara-ko Sta. Marina-koa eta Segura eta Idiazabal-goak ez dira adibide txarrak. Irazustak sartu zuen Euskal Herrian "rococo" frantsesa. Honen ikaslerik aipagarriena Diego Martínez de **Arce** izan zen.

Nafarroan, Tomas **Jauregi**-k, Irazustaren beste ikasle batek, Lesaka-ko erretaula egin zuen, eta Luis Salvador de **Carmona**-k (orduko eskulturagile aipagarrienetako batek) eskulturak. Beronenak dira, gainera, Segura-ko irudiak ere.

Irazustaren eskolakoak izan ziren, bestalde, Bilbo-ko San Nikolas-ko erretaulen egileak ere: Joan **Agirre** azpeitiarrak arkitekturan lanegin



JUAN DE MESA (1583-1627):"Bergara-ko Kristoa". Lehenago aipatu dugun Mesa bera da, Bergaran dagoen Kristo Gurutziltzatu honen egilea. Anatomia osabetea du, errealismo guztiz landua. Aurpegian du heriotzaren larria. Ikusten denez, barrokoa da, beraz, hau ere.

Mendeak aldatuz

"Zenbait euskal probintziatan arkitekturaren Urrezko Mendea bezala izan zen XVI.a: elizak berreraiki eta handiagotzen saiatu ziren orduan, Ameriketatik etorritako diruari esker batipat.

Baina elizak ez ziren erabat XVI.ean bukatu. XVII.ari geratu zitzaizkion egiteko batzuk: fatxadak egin, dorreak jaso. Horregatik, ez zen eraikuntza berririk egin. Ordena erlijiosoak izan ziren komentu-eraikuntzak jaso zituztenak.

XVIII. mendean aldatu egin zen egokiera ekonomikoa eta hobekuntza honekin batera Euskal Herrian loraldi artistiko berria ezagutu zen, eraikuntza erlijioso eta zibiletan". *(M.A. ARRAZOLA)*

zuen. Carmona-renaz gain kanpokoen artean gogora dezagun J.Pascual de Mena-k (Madril-eko San Fernando-ko zuzendariak alegia), Bilbo-n utzitako lana ere. Bergara-ko Kristo famatuarekin Martínez Montañés-en eskola egiten da presente Euskal Herrian: haren ikasle J. de **Mesa**-rena da irudia. Guretarren artean, berriz, egoki izango da F.**Arizmendi** eskultore donostiarra gogoratzea: Aste Santurako "Pasoak" utzi zizkigun.

Erretaula hauen balioa oso handia da. Beren trazaren aldetik, onak dira; dekorazio aberatsa dute: zutabe hornituak, lorez eta fruituz apainduak, girnaldaz inguratuak, arrokaiez eta kornukopioz beteta.

Sierra frantziskotarrak Segura-ko Kontzepzionistei erretaula aipagarri bat egin zien. Eta beronena da Bidaurretako Monastegian (Oñati) elizako erretaula ere. Bi erretaula hauek --hain dekoratuak izaki-- zaila dute hemen hitzezko deskripzio bat, ikustekoak dira inondik ere.

Zornotza-ko Sta. Maria-k ere erretaula bikaina du.

Araban, Kanpezu-n Valdivielso-k lan egin zuen. Garaiko arte arabarra Agurain (San Joan-eko ataria), Urizaharra, Oion nahiz Urbizu-ko elizetan ikus daiteke.

Antxietaren Eskultura

Arkitekturan ezezik eskulturan ere bere ekarpena ematen jakin eta ahal izan du Euskal Herriak, izenei dagokienean, Juan Antxietaren izena nahikoa da zernahi esan eta bete ahal izateko. "Jainkoak aditzera ematen didanez, ez da arte horretan Juan Antxietakoa beste pertsonarik aiputako obra (Medina de Rioseco-ko erretabloa) fida litzaiokeenik", hala zioen bere testamentuan, hiltzeko zorian, Juan de Juni eskultore gaztelar handiak.

Antxieta ez zen bere lurrean gelditu; kanpoan ere lan asko egin zuen. Bereak ditu Burgosko katedraleko erretablo nagusiko Jasokundea eta dokumentu bidez iratxeki zaizkion Burgosko Huelgas-etako eskulturak; parte hartu zuen Zaragoza, Briviesca, Jaca eta abarreko lanetan. Gizon apartekotzat hartu ohi zuten kritikariek: "Antxietari esker, Espainia izan zen kontrarreformako egoera izpirituala eskulturan laburbildu eta espresatu zuena..."; "...Michelangeloren ondorengo manierismoaren ordezkaririk jenialena da..."; "...klasizismoaren azkenaldeko eskultura faizuntzi (amaneratu) eta gainbeherakoari bere kementasun lakatz eta egiatia ezarri zion gipuzkoarra da...".

Antxietak eskola sortu zuen; bere zuzeneko ikasleek maisuari ohore egiten ere jakin zuten. Baina egia esan, eta aitortu behar da, bere "ilobek" eskultura-mota manierista, faizuntzia, bizirik gabea eta dekadentea egin zutela, eta ez zuela aurkitu XVII. eta XVIII. mendeetan bera baino gehiago izango zen euskaldunik; J. Bazkardokoa izan zitekeen salbuespen bakarra. Eta aldi barrokoan zeresanik ez, hain behera erori zen gure eskultura non beren erretabloetarako obra on bat nahi zuten herriek Madriletik ekarri behar izaten zituzten tailak, eskultore on batek han landuta; hala ditugu Luis Salvador Carmonak egindakoak Lesakan, Seguran eta Bergarako Santa Marinan; eta Juan Pascual de Menak egindakoak Bilboko San Nikolas Barikoan. *(M.A.Arrazola).*

8
EUROPA "ARGIZTATUA"

URTEAK	GERTAKARIAK
1700-1746	Espainian, Felipe IV.a Errege.
1700/1721	Iparraldeko Gerratea: Errusia indartuta, Suediaren kaltetan
1700/1714	Espainiako Segida-Gerratea.
1713/1714	Utrecht/Rastatt-eko Tratatuak: Gibraltar eta Menorca ingelesen eskuetara. Herbehere espainiarrak, Austriarentzat. Ingalaterra irabazten.
1714	Ingalaterran, Hannover dinastia: Parlamentarismoa indartzen.
1716	Espainian Borbondarrak: politika zentralista. Kataluniako zapalkuntza: Ley de Nueva Planta.
1718	Euskal Herrian Matxinada (batez ere, Nerbioi ibaiaren inguruetan eta Deba Garaian).
1733	Borbondarren Familiarteko Ituna (II: 1743, III: 1761).
1739	Espainia eta Ingalaterraren artean gerra koloniala.
1740/1748	Austriako Segida-Gerratea: Maria Teresa.
1751	Entziklopedia-ren lehenen liburukia.
1754	Erromak konkordatua Espainiarekin.
1756/1763	Zazpi Urteko Gerratea.
1759/1788	Karlos III.a, Espainiako Errege.
1763	Pariseko Bakea: Zazpi Urteko Gerratean, Ingalaterra Atlantikoan nagusi.
1765	Euskal Herriaren Adiskideak.
1766	Esquilache-ren aurkako mutina. Euskal Herrian Matxinada: Gipuzkoan, Azkoiti eta Azpeititik hasita.
1767	Jesuitak Espainiatik iraitziak.
1772	Poloniaren lehenengo partiketa (II: 1793, III: 1795).
1776/1783	Ipar Amerikaren Independentzi Gerratea, eta Versailles-eko Bakea (1783): Ameriketako Estatu Batuak.
1789	Iraultza Frantsesa.



1. Espainiako Borbondarrena. 2. Austriako Habsburg-etarrena. 3. Frantziako Erreinua. 4. Lehendik ere Austriarena. 5. Estatu-tanpoiak. 6. Ingelesen itsas baseak eta zubiburuak. 7. Holandarren langa. 8. Prusiarren langa.

Europan eta europarrek eskuratutako Ameriketan bizitza politiko, sozial eta ekonomikoak berehala aldatuko dituen berrikuntza prestatzen ari da XVIII. mendean. Berrikuntza hau Industri Iraultzak eta Iraultza Politiko burgesak osatzen dute.

Aldakuntza honetan, demografia, nekazaritza, industria, merkatalgoa, egitura soziala eta talde sozialen arteko produkzio-harremanak, denak itxuraldatzen dira; baina alderdi guztiok, ez doaz banaka eta bakarka, elkarri eraginez baizik.

Produkzioa gero eta gehiago dago merkataritzara begira: produktua, sal edo eros daitekeen zerbait da eta, horregatik, produkzioaren bultza-

EUROPA (1714). Hogeitamar Urteko Gerratearen eta Frantziako Iraultzakoen artean (1789) gerraterik bortitzena Espainiako Segida-Gerrate luzea da (1700-1714): Europako geografia politikoaren mugak eraberritu zituen. Utrecht eta Rastatt-eko Bakeen ondoren Espainian borbondarren dinastia sartu zen, bai, baina ez Monarkiak Europan eta Espainian bertan lurralde zabalak galdu gabe, Sardinia, Sizilia, Napoli, Milano, Luxembourg eta Flandes Austriaren eta Saboia-ren eskuetara joan bait ziren; Gibraltar eta Menorca, berriz Ingalaterrarenetara. Funtsezko galerak ditu, beraz, Espainiako Koroak Mediterraneoan. Frantzia, pixkaka,orain hasten da galtzen bere hegemonia, Ingalaterraren probetxutan.

Hemen ikusten dugun Utrecht--eko Udaletxean sinatu zen izen bereko Bakea, XVIII. mendeko politika europar berriari ateak ireki zizkiona.



garria. Salduz lor daiteke irabazia. Prozesu honek, nekazaritza eta industria ezezik, merkatalgoa ere aldatzen du: lehengo luxuzko produktuen emana bigarren mailara pasatzen da eta, alderantziz, eguneroko kontsumorakoak ugariagotu egingo dira merkatuan. Baina kontsumo-produkzioak irtenbide komertzialik izan dezan beharrezkoa da merkatu txikiak elkarrekin harremanetan jartzea, bakoitza bere baitan itxita mantendu gabe.



BRISTOLeko PORTUA. XVIII. mendean irabaziko du bere hegemonia Britainia Haundiak. Indar horren azalpen bizienetakoa merkatalgoa izan zen.

I. ALDAKUNTZA SOZIO-EKONOMIKOAK

A) DEMOGRAFIA

XVIII. mende honetan azkartu egiten da populazioaren gorakada Europan eta Ameriketan (eta, dirudienez, baita mundu guztian ere). Hala ere, Europa mendebaldarrean handiagoa dirudi hazkuntza honek Ekialdean baino; bestalde, azken hauetan, dentsitatea ere baxuagoa zen, garaiko ekonomian horrek izan zitzakeen ondorio guztiekin. Europa-Mendebaldean hazkuntza begetatiboa bizkortu egiten da, hilkortasun-tasaren jaitsieraren ondorioz (Frantzian ‰ 40tik 32ra; Ingalaterran ‰ 35-tik 28ra), jaiotze-tasak oso altuak mantendu ziren bitartean (Frantzian ‰ 36). Gorakadan garrantzi handia du izurriterik ez gertatzeak.

Europako Ekialdean, berriz, heriotz eta jaiotze-tasak, biak, oso altu mantendu ziren. Hala ere, Mendebaldetik lurralde berriak biztanleztatzera datozenei esker populazioa igo egiten da.

Populazio hau nekazaria zen ia erabat. Hiritarren portzentaiarik handiena Herbehereetan eta Ingalaterran gertatu zen: %50 baino gutxiago. Era berean ez zegoen oraindik hiri handirik: oso gutxik zuen ehun mila biztanletik gora.

Ingalaterra/Gales		
1700	.....	*5.500.000*
1750	.....	*6.500.000*
1801	.....	*9.000.000*
1831	.....	*14.000.000*

(T.S.ASHTON)

Hilkortasunaren jaitsiera

"Populazioaren hazkuntzak ez dirudi jaiotza-koefizientearen aldakuntza nabari baten ondorioa izan zenik. (...). Ezta erbesteko etorkin ugariei egotzi behar zaienik ere (...). Egiaz, hilkortasuna jaisteak ekarri zuen biztanleriaren gehikuntza. (...). 1740-1820etan kasi etengabe jaitsi zen hilkortasunaren ehunekoa" (1740-50ean, 35,8 zen; 1810-20an 21,1 bakarrik). (T.S. ASHTON)

B) NEKAZARITZA

Nekazaritzak eta abelazkuntzak aurrerapen handiak izan zituzten mende honetan. Ordurarte sistema feudala mantendu zen eta ordutik aurrera honen ordez eredu kapitalista hasi zen garatzen Ingalaterran.

Eredu feudala ia Europa osoan zen nagusi. Sistema honetan lurraren erdia edo heren bat lugorritan uzten da eta zereala laboratzen da batez ere (%85); lanerako erabiltzen diren teknikak oso zahartuak daude. Ondorioz, lurraren emaitzak ere guztiz kaskarrak dira, eta hortik goseteak baizik ez datoz.

Langile eta jaunen arteko harremanak ere Erdi Arotik datorren sistema feudalaren arabera erabakitzen dira: "jaun-nekazari" bikotean oinarrituak daude. Jaunak lurraren jabe izateagatik zituen eskubideez gain, bazituen jaun zelako ere beste zenbait eskubide: agintariak jarri, zenbait zerbitzugatik kobratu (errota, labea, etab.)



EUROPA NEKAZARIA. XVIII. mendean Europa oraindik oso nekazaria da. Ez zen aurrerapen teknikorik falta izan, eta Despotismo "argiztatua" ahalegindu zen, gainera, kolonoak lurberrietara erakartzen (Jose II.a Austrian, Katalina II.a Errusian). Nekazarien elikadura hobetu egin zen, baina laborarion bizitza oraindik oso gogorra zen: Errusian, adibidez, biztanleriatik bi heren serbuak ziren. (Marrazkia: Katalina II.aren garaiko nekazari errusiarrak, 1768).

Gizartearen beste ertzean nekazariak zeuden; baina berauen artean desberdintasun handiak ikusten ditugu, lurrarekin bakoitzak izan zezakeen lotura-mota ezberdinengatik, izan ere jabeak, maizterrak edo jornaleroak topatzen bait ditugu nekazarietan.

Europan zehar gauzak honela zeuden bitartean, Ingalaterra aldatzen hasten da XVII eta XVIII. mendeetan.

Teknikak hobetu egin ziren lurrak gehiago eman zezan: zimaurra erabili, goldea hobetu eta, batez ere, lurrak intentsibokiago lantzen hasi.

Aldakuntza garrantzitsuagoa suertatu zen, beste maila batetan, nekazariei lurrekiko zituzten eskubideak kendu zitzaizkienean eta lan bila industriara jo behar izan zutenean. Jauna, lur guztien jabe egin zen eta nekazariak handik bota. Hemendik aurrera jaun handi horrek berak nahi duen bezala landuko ditu lurrak nekazarien beharrak kontutan hartu gabe.

Labore berriak

("Industri Iraultza"ren barnean lurgintzan labore berriak ere sartu ziren Ingalaterran. Garrantzizko hobekuntza izan zen hori:)

"Labore berri bat baino gehiago sartu ziren. Arbiaren laboreek artalde-kopuruen emendioa ahalbidatu zuten, eta iparraldean janari oso herritarra bihurtzen ari zen patatak lurren erabileran funtsezko ekonomia ekarri zuen. Aski da jakitea, lehenago ekonomi iharduera-sistematik kanpo geratzen ziren lurrak produkzio-sistemaren barnera sartu ziren, erabilera hobeago batekin". (T.S. ASHTON)

C) INDUSTRIA

XVIII. mendean aurreko garaietako enpresa moetek berek diraute:

- Artisauen tailer txikiak.
- Nekazarien etxe-lantegiak: produkzio-prozesu osoaren parteak beren etxeetan egiten dituzten nekazarienak; gero, egiten dutena lehengaia jarri duen merkatariari itzuli ohi diotenak.
- Manufaktur sistema: langile multzoa horretarako toki berezietan biltzen zen, kasu honetan, eta produkzio-eginkizunak guztien artean banatuta egiten zen lan dena.

Baina XVIII. mendean datoz Ingalaterran lehen iraultza industrialaren hastapenak. Ekoizpena (produkzioa) erregularragoa eta ugariagoa bilakatzen da. Industri produkzioaren aro eta modu berrien aurrean gaude: lanaren espezializazioa agertzen da, eta lanari makina asmatu berrien laguntza ematen zaio.

Hau honela gerta zedin zenbait faktorek eragin bizia izan zuen:

- Lan-esku ugariak: Nekazaritzan sortutako aldakuntzek jende asko bultzatu zuten hirietara; baina, lan-esku ugaria bildu zenez, soldatek behera egin zuten.
- Koloniek: Lehengaiak lortzeko eta produktu landuak esportatzeko kolonietarako irtenbidea aurkitu zuen industriak.
- Kapitalak: Industrialtze honetarako lehengairik preziatuenak (ikatza, burdina, etab.) Ingalaterran bertan zeuden. Erraztasun handia zen hori.

Industri iraultza: Kronologia	
Ingalaterra	*1760-1830*
Frantzia	*1830-1860*
Estatu Batuak ...	*1843-1860*
Alemania	*1850-1873*
Euskal Herria	*1875-1920*
Japonia	*1878-1900*
Errusia	*1890-1914*
Kanada	*1896-1914*
India	*1950...*
Txina	*1950...*

Industri iraultza ez da munduan, toki guztietan, aldiberean egin, data oso ezberdinetan baizik.

"Industri iraultza"

"Aldakuntzak ez ziren "industrialak" bakarrik izan, sozialak eta intelektualak ere izan ziren. Bestalde, "iraultza" hitzak adierazten duen bapateko aldakuntz moldea ez da prozesu ekonomikoetan bereizgarriena. "Kapitalismoa" deitu izan den gizakien arteko harreman-sistemak 1760a baino askoz geroago lortu zuen bere garapen osoa. "Industri Iraultza" esamoldean badago, ba, segidatasunaren oinarrizko faktorea ez ikusteko arriskurik. Hala ere, historilari askok erabili du "Industri Iraultza" esaera hori, eta oso-osorik onartua izan da hizkera arruntean ere; barregarria ere izan daiteke, beraz, beste esamolde batekin trukatzea".

(T.S. ASHTON)

Guzti hauetaz gain makinismoa hartu behar da kontutan, makina berrien asmakuntza eta berorien aplikazio industriala. Lan-indarra oso hobetuko da makina berriei esker. Lehenago haizearen eta uraren indarrak erabiltzen ziren soilik eta horregatik lantegiak hirietatik kanpo jarri behar ziren. Orain, tresna berriekin, lantegiak hirietan ere jar daitezke. Tresna hauetan garrantzitsuena lurrin-makina izan zen.

Dena den, aldakuntza hauek mendearen bukaera-aldera hasten dira nabari, ordurarteko aurrerapena ohizko molde zaharretan egin bait zen.

D) MERKATALGOA

Merkatalgoan ere gorakada aro bat hasi zen garai honetan. Alde askotatik, hemen ere egoera berria sortzen da.

- Estatu askoren kanpo-merkataritza guztiz hazi zen.
- Merkatal bide zaharrak indartu egin ziren eta berriak sortu.
- Gero eta produktu gehiago zebilen joan-etorrian salerosketetan.
- Lurralde urrunagotaraino iristen zen merkataritza.

Harrikatza

Harrikatzak eta burdinak teknika berriekin topo egin zutenean piztu zen produkzioaren "iraultza". Ingalaterrako datu hauek poliki erakutsi digute hori:

Urtea		*Produkzioa*
1700	....	*2,50 milioi tona*
1750	....	*4,75 milioi tona*
1800	....	*10,00 milioi tona*
1829	....	*16,00 milioi tona*

Garraioak Ingalaterran (1750)

(Industri Iraultza bultzatzeko, premiazkoa izan zen Ingalaterrako garraioak hobetzea, industri garapen osoaren aurrebaldintza baitzen hori).

"Garraio-zailtasunak ezartzen zion produktibitate-muga industriari bere osoan, ez meatz-zuloetan bakarrik, baita aire zabalean ere. Iparraldean, zurezko erreiengain egiten zen harrikatzaren garraio-lana, meatzetatik ibaietara zihoazen bagoien bidez. 300 edo 400 tona osatzen zituen mila bat ontzik portu urrunetaraino eramaten zuen harrikatza. Barnekaldeko ikatz-eskualdeetan ez zegoen horrelako garraio-sistemarik; hauetan, zaldi-mandoz eramaten zen harrikatza, edota oso txarrak ziren bideetan zehargurdiz". *(T.S.ASHTON)*



NOBLEZIA eta ESTAMENTUAK. Kasi XVIII. mende osoan gizartea ohizko hiru estamentuen gain jasoa mantentzen da: Eliza,Noblezia, Estatu Laua. Nahiz eta burgesia indarrean etorri eta ideia berriek Elizari eta Noblezia zaharkituari eraso, funtsezko aldakuntzarik ez da burutzen Iraultza Frantsesa arte.(Marrazkia: XVIII.eko nobleen janzkerak).

Europatik kanpo, Ekialde urrunerako merkatalgoa hazi egin zen. Ingelesei tokatu zitzaien txanda, orduan. Ameriketara ere gero eta itsasontzi gehiago doa (gero eta ingeles gehiago, espainiar eta frantsesen kaltetan).

Afrikak ere garrantzia hartu zuen, bertako esklaberiaren bizkar "beltzero" europarrek irabazi oparoak eskuratzen bait zituzten. Urrunerako merkataritza honek etekin handia uzten zion merkatariari; baina, era berean, handia zen dena galtzeko arriskua ere.

Europa barruan, iparretik hegora eta ekialdetik mendebaldera zihoazen bideak mantendu egin ziren, eta ugaldu ere bai, balioz eta kantitatez, beraietako produktuak.

Alor honetan ere Ingalaterrak hartu zuen aurrea; aldakuntzak bazituen funtsezko arrazoiak. Honelatsu laburbil genitzake berauek:

- Merkatua osatuagoa zuen Ingalaterrak.
- Nabigaziorako portu ugari eta egokiak zituen, gainera.
- Nekazal eta industri produkzioak merkatalgora zuzenduagoak zeuzkan.
- Lantegi barruko lanaren zatiketa oso aurreratuta zegoen, horrek zekartzan aurrerapen industrial eta merkatariekin.

E) BURGESIAREN GORALDIA

Garai honetararte nekazaria zen Europa. Noblezia eta apezeria (klerua) gizatalde pribile-



BURGESIA. Hirugarren Estatuaren barnean (Estatu Lauean alegia) talde burgesa da nagusitzen dena. Beronen interesek eta ideiek gidatuko zituzten aldakuntza sozio-ekonomikorik handienak XVIII-XIX. mendeetan. Burgesiaren nagusitasun hau garbi agertu zen Industri Iraultza izan zuten herrietan; baina denetan ere talde sozial honek ongi erakutsi zuen bere indarra (XVIII.eko marrazki errusiarra: "San Petersburg-eko burgesak").

giatuak ziren, eta nekazari eta artisauak behe mailakoak. Bi talde hauen artean jende desberdinez osaturiko beste talde bat zegoen: burgesia. Merkatari, bankari, legegizon, lanbide liberaletakoak nahiz lantegien jabeak ziren burges deitu hauek. Talde eta ogibide ezberdinetako jendeak biltzen zituen, beraz, klase burgesak.

Talde dimanikoa zen oso, eta gero eta gehiago beronen inguruan mugitzen zen Europako mundu ekonomiko eta kulturala. Hauen aberastasunaren oinarria dirua zen, ez lurraren jabegoa, noble eta eliztarrekin gertatzen zenaren arabera. Eta, aberatsago bilakatu ala, handiagotuz zihoazen haien handinahi sozial eta politikoak ere.

Burgesia, talde berritzailea zen, beti ere etorkizunari begira, iraganari baino gehiago. Estatu batetik bestera desberdinak dira klase honen eragina eta indarra. Britania Haundian bere interesak zainduko dituen gobernua jarri zuen 1688an; ekonomian berritzailea bazen ere, ez zen gauza bera gertatu politikan. Frantzian eta Ipar Italian, berriz, egonezin politiko-sozialak sumatzen zaizkio: garaiko filosofo eta ekonomisten

JUDUEN TRISKANTZA. Erdi Arotik zetorren antisemitismoak Aro Modernoan ere jarraitzen du. XVII. mendean Errusian hilketa gaitzak ezagutu ziren; Prusian ere, XVIII.ean, lege mugatzaileak ezarri zitzaizkien. Kapitalismo modernoaren bultzatzaileak dira judu asko, eta Industri Iraultzan leku sinalatua izan zuten Mendebaldean. (Marrazkian: Frankfurt-eko judu-triskantza).



idazlanak burgesia kezkati honen bozeramaile gertatzen dira.

Hirietan bizi zen burgesia; hau da, oraindik merkatal eta finantz munduak industria baino garrantzizkoagoak ziren tokietan.

Bere zeresan ekonomikoa handituz zihoala ikustean, agintean ere partehartu nahi du burgesiak. Erregimen Zaharreko egiturak hautsi egin nahi ditu, beraz, aginte honetara iritsi ahal izateko. "Askatasuna eta berdintasuna" da burgesiaren ikurra, 1789tik aurrera ekintza politiko oso bat bultzatuko duen bandera, hain zuzen.

Asmakuntz patenteak

"Asmakuntzen garapena ongi ikusten da patenteen arduradunek zituzten zerrendetan. 1760aren aurretik urtean ematen ziren patenteen kopurua ez zen ia inoiz dozenatik pasatzen, baina 1766an 31taraino egin zuen jauzi,eta 1769an 36taraino. Urte batzutan, kopuru honen azpitik egon zen eskea,baina 1783an berriz ere jauzi bat gertatu zen, 85etaraino igoz. Hurrengo zortzi urteetan 67 inguru izan ziren urtero, 1802an ostera ere gora eginez, 107taraino oraingoan. *(T.S. ASHTON)*

II. ZIENTZIEN APLIKAZIO TEKNIKOA

Mende honetako zientziak asko zor die aurreko bi mendeei. Izan ere, Erdi Aroko mundu kulturalarekiko etena Pizkundetik aurrera egin zen. Erdi Aroan Filosofia-Teologien arteko lotura

hautsezina zen eta Elizaren dogma edo Aristotele-ren esana ezin zen dudatan jarri. Ernazimenduan, berriz, Filosofia eta Zientzien artean gero eta harreman garbiagoa ikusten hasi ziren jakitunak, ikerkuntza zientifikoa Eliza eta Boterearen menpetik askatuz. Eboluzioa belaunaldiz belaunaldi luzatu zen, XVIII. mendean osotasun helduago bat lortu zuen arte.

Aurreko mendean eginiko hipotesi zientifiko orokor askok orain gorputz hartuko du, lehenik ikerlan teorikoetan, eta gero, zientzia horren aplikazio produktiboetan. XVIII. mendean, laborategian egin daitezkeen esperientziak nahi dira: prozesu kimikoak nola gertatzen diren ikusi, makinak asmatu...

Oihalgintzan Asiako konpetentziari aurre egin behar zitzaion, han langile ugariago eta gaizki ordainduak zeudenez, oso produktu merkeak lortzen bait ziren. Beraz, berrikuntza teknikoak aplikatu beharko dituzte Europan, 1785.etik aurrera lurrin-makina ere aplikatuz.



MAKINA AEROSTATIKOA (1783). Fisikaren aurkikuntzez baliatuta, aplikazio teknikoak ere bilatu ziren. Aire-bidaietarako, adibidez, honelako tresna aerostatikoa entseiatu zuen M. Mongolfier-ek Frantzian: 6.000 oin kubiko hartzen zituen globo honek.



ILEKI-LANTEGIA. Industri Iraultzaren barnean artile- eta ileki-lantegiek garrantzirik handiena izan zuten, Ingalaterran eta Katalunian adibidez. Teknika- eta produktibitate--aurrerapen bizia izan zuen industri molde honek XVIII. mendean. (Marrazki honetan iraultzaurreko ohizko artisau--lantegi zahar bat ikusten da, 1747).

Burdingintzan, basoak geroz eta eskasagoak zirenez, egurrikatzaren ordez harrikatzaren baliagarritasuna bilatuko da, horretarako garraio--bidea irekiz, alde batetik, eta aurkikuntza berriak ere asmatuz, bestetik.

Unibertsitateak oso zaharkituta zeudenez, Zientzi **Akademiak** sortu zituzten erregeek, asmakuntza zientifikoak bultzatu nahirik. Aro Modernoko Zientzia positiboen grina zuzpertu eta indarberritu baizik ez zen egin, babes ofizial horiekin.

Fisikan Benjamin Franklin-ek (1706-1790) "tximistorratza" asmatu zuen, eta G.D. Fahrenheit (1686-1736) eta Anders Celsius-ek (1701-1744) merkuriozko termometroa; James Watt-ek (1736-1819) lurrin-makinari urratu zion bidea eta Alesandro Volta (1745-1827) elektrizitatearen fenomenoak aztertzen hasi zen.



JAMES WATT (1736-1819). Eskoziarra zen asmatzaile hau. Newcomen-en lurrin-makinari oinarrizko hobekuntzak egin zizkion Watt-ek: kondentsadorea, pistoietarako lurrina bakarrik erabiltzea, efektu bikoitzeko makina, etab. Energi erabilera berri hauek sekulako bultzada eman zieten teknikari eta industri berrikuntzari.

Zientzia eta Industria

(Jakitunen bilaketa zientifikoak eta meatz eta lantegietako lanak sarritan eman zioten eskua elkarri. Elkarren arteko laguntza hauei esker ere egin zuen aurrera Industri Iraultzak, XVIII. mendeko Ingalaterran:)

"Laborantzarako metodo berrien bila zebilela, arduratu zen James Hutton eskoziarra lurpearen eraikiduraz; gero egin zituen aurkikuntzen ondorioz, garaiko geologorik sonatuena bilakatu zen Hutton, baina lan guzti honek bazuen zerikusirik orduko hondeatzeko makinekin (...).

Franklin, Black, Priesley, Dalton eta Dave bezalako fisikari eta kimikariak industria britaniarreko gidariekin harreman hertsietan egon ziren. Joan-etorri handia egon zen laborategien eta lantegien artean, eta Watt, Wedgwood, Reinolds eta Keir bezalako asmatzaileak laborategi haietan bezain gogoz egon zitezkeen lantegi hauetan ere".

(T.S. ASHTON)

Kimikan E. Mariotte-k (1620-1684) eta J. L. Gay-Lussac-ek (1778-1850) lehenago hasitako ikerkuntzak jarraitu zituzten. A. L. Lavoisier (1743-1794) da, hala ere, Kimika modernoaren sortzailea. Airearen osagaiak zeintzuk diren argitan jarri ondoren, oxigenoak errekuntzan duen zeregina ere aurkitu zuen.

Natur Zientziak ere, zentzu modernoan, orain sortzen dira, Carl Von Linneo (1707-1778) suediarrak landareak eta animaliak klasifikatu zituenean. Gauza berdintsua egin zuen Georges Buffon (1707-1788) frantsesak ere.



C. LINNEO (1707-1778). Natur Zientziek aurreramendu handia ezagutu zuten mende honetan. Linneo suediarra da izenik sonatuena: hogeitalau urte zituela asmatu zuen landareen bere sailkapen-sistema. Inguruan izan zituen inbirietatik ihesi, erbestealdi baten ondoren, Erret Medikua izan zen Suedian.

Asmakuntzak

Ondoko kronologian ikus daitekeenez, Industri Iraultzaren barnean aldakuntza oso ezberdinak biltzen dira: lan-indarrari, izadiaren ezagumenduari, produkzio-teknikei, kalkuluari nahiz osasunari dagozkien asmakuntzak. Denak, elkarren ondotik, aurrera bultzaka zetozen XVIII. mendean.

1767 *Lurrin-makina*
Watt *(1736-1819)*

1771 *Airearen osagaiak*
Lavoisier *(1743-1794)*

1783 *Uraren osagaiak*
Lavoisier *(1743-1794)*

1785 *Ehule mekanikoa*
Cartwright *(1743-1823)*

1793 *Sistema metriko hamartarra*
Frantziako Konbentzioak

1796 *Baztanga-txertoa*
Jenner *(1749-1823)*

1800 *Pila elektrikoa*
Volta *(1745-1827)*

III. IDEOLOGIA ETA PENTSAKERA

Aldakuntza sozio-ekonomikoak gogoratu ondoren, komeni da ideologian eta politikan gertaturikoak ere begiratzea. Dena den, ezin da inolaz ere ahantzi maila hauek guztiek elkarren artean badutela eraginik, ez dagoela bata besteetatik bereizita ulertzerik.

A) ILUSTRAZIOA



IDEIEN ZABALKUNDEA. XVIII. mendean, nabarmena da ideia eta pentsamoldeen berrikuntza. Ideien zabalkunderako hedabide guztiak erabili ziren: liburuak, liburuxkak, orriak, hiztegiak; hitzaldi eta areto-bilerak. Eta kaleko propagandarik ez zen falta izan, XVIII. mendeko "Les affiches" deitu grabatu honetan ikus daitekeenez.

XVIII. mendeko jarrera intelektualak zabaltzen duen mugimendu kulturalari "Ilustrazioa" deitzen zaio (al. "Aufklärung" = argiztapena): era berean, "Argien Mendea" (fr. "Le Siècle des Lumières") ere esan izan zaio XVIII.eko garai honi.

Filosofo frantsesen idazlanak eta razionalismoa daude mugimenduaren oinarrian, ingelesen filosofia enpirista ahantzi gabe noski. Filosofo ilustratu edo "argiztatu" hauen helburua, errealitate fisikoak aztertzeko ordurarte erabilitako metodo bera era guztietako errealitateak aztertzen erabiltzea zen: ekonomikoak, politikoak, erlijiosoak... Errealitate guztiak neurtuak eta aurrez ikusiak izan daitezkeela pentsatzen zuten.

Abiapuntu honetatik hasita, Erregimen Zaharraren kritika egiten dute, ironiaz betetako kritika. Gizartea aldatu nahi zuten, printzipio orokor zenbaitetan oin harturik. Hastapen-ideia hauek, hemengo hauetara ekar litezke:

- Norbanakoaren balio jatorra: Berau zaindu egin behar da, aldatu ere behar direnetan aldatuz eta batez ere ezjakintasunetik atereaz.

- Arrazoimena, gizakiaren gidaria: Garapen osora eraman behar da gizakiaren ahalmen hau, eta zernahitarako eta zernahiren neurri bihurtu.

- Progresua eta ongizatea dira aurreramenduaren xedeak: gizakiaren hobekuntza zerbait dinamiko, etengabe eta irekia da; beti aurrera egin behar du, beraz.

Hiru printzipio guztiz razionalista hauekin batera, Izadia oinarritzat jartzen duen beste jarrera filosofiko bat ere badago Ilustrazioan: gizakiaren jatortasuna izadi-egoerara itzultzean jartzen du, gizarteak --korronte honetakoek diotenez-- hondatu egiten bait du gizakiaren jatorrizko izaera ona.



JUSTIZIA. XVIII. mende honetako ideien artean justizia hobeago baten eskea ere zabaldu zen. Beccaria (1738-1794) italiarra izan zen, alor honetan, teorikorik ezagunena. Heriotz zigorra eta tortura bortizki salatu zituen, izan ere grabatuko honen antzeko laurdenkamenduak, esate baterako, indarrean zeuden oraindik XVIII.ean.

TOLERANTZI EDIKTUA. Aro Modernoan tolerantziak ez du oraindik leku zabal eta iraunkorrik. Ilustrazioak ideia berrientzat toki zabalagoa eskatu eta lortu zuen, baina mendearen azkenetan (batez ere, Iraultza Frantsesaren ondoren, 1789) "Despotismo argiztatuak" zentsuran eta polizian bilatu zion berriz ere botereari babesa (XVIII.eko grabatua: Austriako talde sozial saihestuak Tolerantzi Ediktua ospatzen).



MONTESQUIEU, 1689-1755 **VOLTAIRE, 1694-1778** **DIDEROT, 1713-1784**

Egitura sozialen eraldaketarako Ilustrazioaren ideiak erabakiorrak gertatu ziren mende honetan. Montesquieu-ren iradokizun juridikoek geroagoko Iraultzari programa teoriko bat eman zioten. -- Voltaire-k, ostera, bere ideia filosofikoen eta erlijio-kritikaren bidez Europako pentsamendu laikoari bere oinarriak eraberritu eta eguneratu zizkion. -- Diderot-i zor zaio, batez ere, "Encyclopédie" deitua; etengabeko lana egin zuen Diderot-ek, eta beti ere diruz estu ibili bazen ere ez zitzaion itzal handiko adiskiderik faltatu (Katalina II.a, esate baterako).







B) ILUSTRAZIOA FRANTZIAN

Frantsesen artean bi belaunaldi bereiz daitezke Ilustrazioan: lehenengoan Montesquieu eta Voltaire lirateke idazle nagusiak.

Montesquieu-ren (1689-1755) lan gorena "Legeen Izpiritua" (=L'Esprit des Lois) liburua da, 1748.ean argitara emana. Parlamentarismoa dela sistema politikorik egokiena dio, eta botereek banatuta egon behar dutela: Alegia, Legeak egiteko ahalmena Parlamentuak eduki behar du; ahalmen beterazlea, ostera, errege eta ministrariei dagokie, eta epaitzekoa, azkenik, auzitegiei. Botereen banaketa-sistema hau erregetza absolutuaren aurka doa zuzenean, honek ahalmen guztiak bere eskuetan biltzen bait zituen.

Voltaire-k (1694-1778) Erregimen Zaharrari egiten dizkion erasoak ez dira hain zuzenak, baina bai oso deuseztaileak, erabiltzen duen ironiagatik. "Hiztegi filosofikoa" da beronen obrarik garrantzitsuena.

Bigarren belaunaldia, Montesquieu eta Voltaire-ren ondarea jasoz "Entziklopedia" deituriko obran elkartzen den zenbait pentsalarik osatzen du. Zientzia eta arteen hiztegia da Entziklopedia eta 1751.ean hasi zen argitaratzen. Absolutismoaren eta apezeriaren aurka hartzen duen jarreragatik, hau da Ilustrazioaren lanik adierazkorrena. Honetan partehartu zuten pentsalarien artean **Diderot** eta **D'Alembert** dira aipagarrienak.

Bigarren aldi honetan oso bestelako pentsalari bat aipatu behar da, esandakoak osatzeko: J.J. **Rousseau** (1712-1778). Honek ez du sinesten


ENCYCLOPEDIE,
OU
DICTIONNAIRE RAISONNÉ
DES SCIENCES,
DES ARTS ET DES MÉTIERS,
RECUEILLI
DES MEILLEURS AUTEURS
ET PARTICULIÈREMENT
DES DICTIONNAIRES ANGLOIS
DE CHAMBERS, D'HARRIS, DE DYCHE, &c.
PAR UNE SOCIÉTÉ DE GENS DE LETTRES.
DIX VOLUMES IN-FOLIO,
PROPOSÉS PAR SOUSCRIPTION.
M. DCC. LI.
AVEC APPROBATION ET PRIVILEGE DU ROI.

ENTZIKLOPEDIA (1751). Ilustrazioaren pentsamendua ("Filosofia") zabaltzeko tresnarik baliotsuena gertatu zen obra hau: garaiko jakitatea burgesia indarberrituaren eskuetan jarri zuen. Balio handiko lankideekin batera kaskarragoak ere izan zituen, baina ideia-barreiatzaile bezala egiteko zabala izan zuen. Erlijioaren kritikan ausartagoa izan zen politikan baino.Gizakiaren hobekuntzarako arrazoimenak duen egitekoan fede bizia erakusten du Entziklopediak. Aita Santuak gaitsetsi egin zuen argitalpena (1759).

Entziklopedia (1751-64)

"Argien Filosofia deituaren arrakasta segurtaturik zegoen 1760aren inguruan. Beren buruei "filosofo" deitzen zieten idazleek sortua zen, eta nobela, liburuxka, eskutitz eta elkarrizketetan,tratatu sistematiko eta hiztegietan zabaldu zuten "Filosofia" hura.

Hiztegi bat izan zen XVIII. mendeko "Suma Filosofikoa", d'Alembert eta Diderot-en ***Encyclopédie*** *delakoa. Honen lehenengo liburukia 1751n azaldu zen, uztailaren batean,eta d'Alembert-en sarrera-hitzaldi bat zuen. Agintariek jarri zizkioten eragozpen guztiak gorabehera, azkenik 1764ean bukatu zen obra osoa: 17 liburukitan eman zen testua eta 11tan laminak. (...)*

Encyclopédie*-ko idazlanetan 130 lankidek hartu zuen parte: abogaduak, medikuak, irakasleak, apaizak, akademikoak, industri gizonak eta fabrikariak; hauetatik gehienak posizio onekoak ziren eta titulu ofizialak zituzten. Prezioagatik burgesia handi "argiztatua"ri zuzenduta zegoen, obra burgesa zen".*

(R. MOUSNIER)



zientzia eta arteen aurrerapenak gizakia zoriontsuago egingo duenik. Izadiaren egoera naturalera itzuli behar dela uste du, gizakia bere jatorrean ona bait da, eta gizartea da berori hondatzen duena. Bere pentsakera politikoa "Kontratu soziala" (Le Contrat Social, 1762) deituriko liburuan azaltzen du, eta Estatua kontratu baten bidez finkatu behar dela dio, herria delako subiranotasunaren eta lege guztien jatorria. Honela ukatzen zuen

Pentsamendu rousseautarra

"1754ean "Discours sur l'origine de l'inégalité" eman zuen argitara Rousseau-k. Garai hartan ohi zenaren arabera, jatorrizko egoerako basati onaren erretratua ematen du, berau grazi egoeran begiratuz alegia: sendoa eta azkarra, bakartia, senekoa, erabat zoriontsua. 'Gogoeta-egoera egoera antinaturala da... gogoemanean dabilen gizakia animalia endekatua da'.

Baina badauka bere burua hobetzeko ahalmen zorigaiztoko bat. Urte agorrek, negualdi luzeek eta uda beroek, uholde eta lurrikarek beste gizabanakoekin elkartzera behartzen dute, eta ehiztari-taldeak lehenik eta artzain--taldeak sortzera gero. Taldekatze hauetatik sortzen dira espak, liskarrak, handiusteak, mezpretxua.

Halako batean halabeharrez burdina aurkitzen da, eta hau izan zen laborantzarako baldintza bazterrezina. Gizakiek, laborari bihurtuta, lurrak banatu eta jabetasun indibiduala eratu behar dituzte: Harez gero dena hondatu da, jatorrizko bekatua eginda dago, "espeziearen makurraldira" goaz.

Jabetasunak, ezberdintasunei ematen die leku, lehiaketari eta etsaigoari, handinahi eta lukurreriari, inbidiari, gaiztakeriari, klasearteko borrokei, gerrei. Nahitaez buruzagi bat aukeratu beharra dago; buruzagia,ordea, tirano bilakatzen da".

(R. MOUSNIER)

J.-J. ROUSSEAU (1712-1778). Rousseau-k ez du gizaki sozial-eskolatuaz entziklopedistek zuten baikortasunik: jatorrizko gizaki naturalean du berak usteona. Zibilizazioaren gizatasunik eza salatzen du bere obran: gizarteko aurreramenduek hondatu baizik egin ez duten "basati ona"ren min da Rousseau.

Rousseau-k jainkozko eskubidearen gain eraikitako errege-agintea.

C) ILUSTRAZIOA EUROPAN

Loraldi intelektual horrek bestelakorik iradoki baldin badezake ere, Ilustrazioaren lehen pausoak ez ziren Frantzian eman, Ingalaterran baizik. Hori, bai, lehenengo ekinaldiaren ondoren Frantziak hartu zuen argi-zuzia. Badaude, gainera, XVIII. mendean beste alde nabarmenak ere bi erresuma horien artean.

Garapen lasaiagoa izan zuen Ingalaterrak eta horregatik hemen ez ziren suertatu Frantzian bezalako borrokak, moderatu eta progresisten artean. Oro har, oso joera praktikoa izan zuela esan daiteke "Argiztapenak" Ingalaterran.

Alemanian, bestalde, berriztapen osoa suposatu zuen aro honek: "Aufklärung" izenaz ezagutzen da Alemaniako Ilustrazioa. Era guztietako pentsalariek hartu zuten parte mugimendu honetan: Christian von **Wolff** (1679-1754) matematikaria eta filosofoa da sortzailea. Jarraitzaile garrantzitsuenen artean, **Federiko** II.a, Prusiako erregea, eta Immanuel **Kant** (1724-1804) filosofoa aipa ditzakegu. Alemanian, idealismorako joera hartu zuen "Argiztapenak".

Italiari dagokionez, eta Espainian gertatuko den bezalaxe, Ilustrazioak etena sortuko du gutxiengo argiztatu eta herri katolikoaren artean. Askok kritika gogorra egingo bait dio Elizari, beste batzuk Ilustrazioaren ideiak jasoz kristautasuna defendatzen saiatzen badira ere. Pertsonaia garrantzitsuena Giambattista **Vico** (1668-1744) du-

I. Kant (1724-1804)

Langile apal baten semea. Errusia-rekin eta Finlandia-rekin ia muga egiten duen Prusia-ko Königsberg hirian jaio zen, eta bertatik irten gabe bizi izan zen larogei urtetan. Hala ere, garai hartako munduko gertaera nagusienak nahiko ondo jarraitzen zituen.

Frantzia-ko Iraultzaren eta Estatu Batuetako independentziaren zale porrokatua zen eta zientzietan ematen ziren aurkikuntzetara adi zegoen. Filosofiako gaiak ezezik, matematika eta geografia fisikoa ere irakatsi zituen. Gizon txiker eta herbal haren buruak mundu guztiko informazioa prozesatzen zuela zirudien. Tamesis inguruko geografiaz ihardun behar zuenean, han bertan ikasitakoa eta bizi izana bezala mintzatzen zen.

Luteranismoan eta pietismoan hezia izan zen Kant. Bizitzako egintza guztietan metodiko hutsa zen: eginkizun guztietarako ordu eta leku jakinak zituen eta ez zuen hutsegingo sekula ere. Bizimodua aurrera ateratzeko zailtasun asko gainditu behar izan zuen. Nahimen trinkokoa, saiatua, bere buruari opa ziona lortu arte ez zuen etsiko.

gu: historia etengabe bultaka ari dela, behin eta berriz errepikatuz gainera, dio Vico-k.

D) ILUSTRAZIOA ESPAINIAN

Nahiz eta Frantziako Ilustrazioaren eragina nabaria izan, Espainiakoa ez da izango frantsesena bezain kritiko, berritzaile eta ikuspegi sozial iraultzailetakoa.

Begirune handia dio Espainiakoak tradizioari; baita erregetza, erlijio, jabegoari ere. Dena den, bazter ezineko zenbait behar sozial eta hezitzaileri buruzko kontzientzia har erazten die garaikideei, egiten den lan intelektualak. Honetaz gain, Espainia Europako kulturan itsasteko egiten den lehen saio serioa da XVIII. mendeko hau.

Mendearen hasieratik hasten dira lorpenak, 1714ean Felipe V.ak "Real Academia de la Lengua" delakoa sortzen duenean. Berehala etorriko dira Medikuntza, Historia, Arte Eder eta abarrenak ere. Erret Liburutegia ere sortuko da. Nonnahi eraikiko dira Medikuntz, Kirurgi edo Albaitero-



ERDAL AKADEMIA (1713). Frantziako Borbondarren tradizioari jarraikiz, Felipe V.ak Gaztelako Koroa hartu eta berehala sortu zuen Akademia hau, Monarkiaren kultur politikarako erakunde egokia izango zelakoan. Errege berak Katalunian ezarri zuen hizkuntz politikarekin osagarri bezala kontrajarrita dago gaztelaniaren aldeko erret erabaki hau.

tza-ikastetxeak. Matematikaren edo Jurisprudentziaren Akademiak ere eratuko dira.

Izan ere, irakaskuntzaren aldetik gertatzen dira, gertatu ere, mendeko berrikuntzarik garrantzitsuenetakoak. Gero eta gehiago, irakaskuntza elizgizonen eskuetatik askatu egingo da eta laikoen eskuetara pasatuko, ikasketa teoriko eta espekulatiboak baztertuz eta zientzia aplikatuak bultzatuz.

Estatuaren eragina ere ikus daiteke alderdi guzti hauetan, baina ezin ahantz, bestalde, gizartetik bertatik jaiotako hainbat "Herriaren Adiskideen Elkarte". Hauetako lehena, berehala aipatuko den Euskal Herrikoa dugu. Hemengoaren ondoren, azkar zabaldu ziren antzeko elkarteak Penintsula guztira.

Maila guztietan ikus daitezke izpiritu berri honen emaitzak, baina argitalpen-lanetan beste ezertan baino hobeto. Herrizale sutsuak sortuko dira, han-hemenka artikulu eta idaztien bidez erreforma-egitasmoak aurkeztuz (sarritan errege ei zuzenduak), Estatuaren bizitzaren alor oso desberdinetara aplikatzekoak.

Euskal Herriaren Adiskideak

"Kulturaren eta lanaren arloan Karlos III.aren erregealdian, nabariena Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkargoa da. 1748an, Peñaflorida konteak Azkoitian sortua, Karlos III.aren garaian lortzen du bere garrantzi osoa. Araba-Bizkaietara zabaldu zen.

Lau sailetan eratu zen: Laborantza eta Nekazal Ekonomia, Zientzia eta Arte baliagarrik, Industria eta Merkatalgoa, Historia eta Letra Ederrak. Frantses eragina da, alde handiarekin, Elkargoa sortzean eta garatzean biziena, ohizkoa bait zen orduko euskal familia aberatsetan semeak Frantzian hezitzea.

Ondorio bikoitza izan zuen jokabide honek: Entziklopedizaleen ideien eragina, alde batetik, eta, bestetik, zientzia esperimentalen ikasketarako joera, mende hartan hain berarizkoa zena".

(F. SOLDEVILA)



AMERIKAREKIN MERKATALGO LIBREA (1778). Karlos III.ak hautsi zuen, Amerikarekin merkatal harremanetarako Sevilla-k eta Cádiz-ek izandako legezko monopolioa. Erabaki zuzpergarria izan zen hau ekonomi bizitzan, Kataluniarentzat bereziki. Lehenagotik zartatzen hasita zegoen monopolio bakar hura: aldakuntzan aintzindaria izan zen "Caracas-ko Konpainia Gipuzkoarra", 1728an sortua eta bere lehenengo urteetan sekulako irabaziak egin zituena. (1790eko koadroa: Karlos III.a Lege berria sinatzen).

Josulagunak, iraitzita

"Felipe V.aren garaitik zetorren Aita Santuaren eta Koroaren arteko norgehiagoketa erregalistaren adierazgarririk sonatuena izan zen josulagunen iraizpena (1766). Norgehiagoka horretan josulagunak ziren Aitasaindugoaren sostengurik onenak. 1753ko Konkordatua tregoa labur bat baizik ez zen izan Erromaren eta Monarkia espainiarraren artean. Erromak eta Koroak laster aurkitu zituzten liskarbide berriak".

(F. SOLDEVILA)

Hauen artean aipagarrienak gogoratuko ditugu: B. **Feijoo** beneditarrak (1676-1764) erlijioari eta beste hainbat arazori buruzko ikuspegi berriak eskaini zituen. Ekonomi arloa arretaz landu zuten "argiztatuek": honetan idazlanik handienak agian **Capmany**-i (1742-1813) zor dizkiogu, eta laborantzari buruz eskaini zizkiguten, berriz, beren gogoetak **Aranda**-k (1719-1798) eta **Floridablanca**-k (1728-1808). Izan ere, orduko Espainian (eta askoz geroagorarte) ekonomia batez ere nekazaritzari lotuta bait zegoen; ez da, beraz, batere harritzekoa M.G. de **Jovellanos**-en (1744-1811) lanak halako oihartzun soziala izan baldin bazuen: "Informe sobre la Ley Agraria" (1795). Hemeretzigarren mendean ezagutuko ziren lur-jabetzaren aldakuntzak sumatzen dira honen ideietan.



Konte PEÑAFLORIDAkoa (1723--1785). Xabier Maria Munibe eta Idiakezko izan zen "Adiskideen Elkargoa"ren sustatzailea. Frantzian ikasita, Gipuzkoara itzuli zenean, lagunarte akademiko bat sortu zuen Narros eta Altuna-rekin ("Azkoitiko Zalduntxoak"). Bergarako Erret Mintegia sortu zuen. Gipuzkoako Diputatu Nagusia ere izan zen.

E) ILUSTRAZIOA EUSKAL HERRIAN

XVIII. mendean, Euskal Herriak bere loraldi kultural ederrenetako bat ezagutu zuen. Hain zuzen, hemengo "argiztatuak" Penintsula osoan aintzindari eta eredu imitagarri bihurtu ziren. Beste alde batetik, ez da isildu behar, gainera, euskal literaturak orduantxe izan zuela Hegoaldean bere udaberri historikoa.

Mugimendu honen lehen pertsonaiak "Azkoitiko Zalduntxoak" izan ziren, hau da, Azkoitiko Insausti Jauregian, Peñaflorida kontearen inguruan biltzen ziren kulturtzaleak. Europako pentsamendu eta ideiei irekita, harreman aberatsak eta egun-egunekoak izan zituzten zalduntxoek beren "Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte"tik nahiz bakarka

(1763-65). Harreman jaso hauen adigarri ona da Rousseau-k bere aitorkizunetan Altuna zalduntxoari egindako laudoriozko aipua.

Ideiak ideia (eta hauek eraginda ere bai, noski), Euskal Herriko ekonomiak kezkatzen zituen Adiskideak, ez bait zen, adibidez, alferrik bizi izan "Caracas-ko Konpainia Gipuzkoarra"ren esperientzia zuzpergarri hura (1728). Ekonomiaren aurrerapenerako teknika berriak sortu edo erbestetik jasotzen, jakinkizun berriak zabaltzen arduratu ziren, errotik. Horretarako Bergaran Erret Mintegia (1771) sortu zen, orduko Unibertsitateak apenas ematen zituen zientzia berriak eskaintzeko. Zalduntxoen ahalegin honi esker, XVIII. mendearen bigarren partean zientzi argitalpenek ugarialdi bat erakusten du.

Era berean, gure herriaren kultur balioak hobetu nahirik burututako Aita Larramendi (1690-1766) andoaindarraren lan erraldoia dago. Hemen, batez ere, hizkuntzaren aldeko haren lana gogoratuko dugu, eta ez argitalpenetan egina bakarrik (Gramatika 1729, Hiztegia 1745), baita inguruaren su-piztaile bezala ere, literatur mugimendu oso bat sortuz.



AITA LARRAMENDI (1690-1766). Salamanca-ko Unibertsitatean, Madrileko Gortean eta garaiko eztabaida politiko-linguistikoetan sona handikoa izan zen Larramendi. Euskal erakundeen eta hizkuntzaren aldeko defentsan suharki ahalegindu zen josulagun hau.

Rousseauk I.M. Altuna "zalduntxoaz"

"Venezian bizkaitar batekin egin nuen ezaupidea; nere lagun de Carrio-ren adiskidea zen, eta edozein gizaseme presturena ere izateko gisakoa. Gazte maitagarri hau, talentu eta onbide orotarako jaioa, Italian itzuli bat egin berria zen hango artelan ederrak gozatzeko; eta, beste ikustekorik bururatzen ez zitzaionez, zuzenean berriro bere aberrira itzuli nahi zuen.

Zientziak lantzeko sortutako hura bezalako izpiritu batentzat artelanak atsedengarri baizik ez zirela esan nion, eta haietaz goza zezan Parisera bidaia bat eta sei hilabeteko egonaldi bat aholkatu nizkion. Sinetsi egin zidan eta Parisen egon zen. Haren egoitza handiegia zenez, erdia eskaini zidan. (...). Behar nuen laguna zela ohartu nintzen. (...). Gure egunak elkarrekin bizitzeko erabakia hartu genuen. Urte batzuetarako, harekin Azkoitira joan behar nuen haren herrian bizitzeko". (J.-J. ROUSSEAU. Egunkaria)



R. WALPOLE (1676-1745). Politikari ingeles honek XVIII. mendeko lehen parte osoa bete zuen ia (1701-1745). Ingalaterrako erakunde politikoen modernotzea lortu zuen, Parlamentuari zeregin zabalena aitortuz. Berau izan zen Ingalaterran lehenengo benetako Lehen Ministraria eta urte luzetan izan zen Gobernuaren buruzagi (1720-1742). Bakezko politika egin nahi izan zuen baina geroz eta boteretsuago zetozen indar sozio-ekonomikoek bestetara bortxatu zuten: Espainia eta Frantziari gerra egitera alegia. Nolanahi ere, Pitt-tarren politika kolonial oldartsuagorako ongi aberastuta utzi zuen Ingalaterra.

IV. POLITIKA. DESPOTISMO "ARGIZTATUA"

Mendearen lehen erdian monarkia absolutua zen nagusi Europan, bestelako salbuespenen bat ageri bada ere (Britainia Haundia, Probintzia Batuak). Nazioarteko harremanak oreka ezinegon batean oin-hartuta zeuden, noiznahi eztabaida dinastiko eta kolonialetan lehertzeko arriskuan.

A) GORABEHERA POLITIKOAK

XVI. mendean Espainiak, edo gero XVII.ean Frantziak izan zuten indarrik ez du orain inork. Ingalaterra goraka doa Frantziarekin parekatu nahian. Holanda eta Italiarentzat oso aro kaskarra da, eta Espainia aurreko mendeko ahulalditik nola irtengo dabil. Austriak, bere egoerari eutsi nahi dio Erteuropan. Ekialderago, berriz, Prusia hasi da, Alemania zatikatu hartan, bere garapenaren bidea urratzen. Errusia ere badator Europako politikaren plazara.



GIBRALTAR. Lurmutur hau izan da, Espainiarentzat, azkeneko kasik hiru mendeetan, Ingalaterraren itsas nagusitasunaren irudi mingarria. Itsasoaren bestaldean, marokkiarrentzat, Ceuta eta Melilla hiriak Espainiarenak gertatu diren antzera.

Mendearen bigarren partean, Ingalaterrak Frantziari gaina hartuko dio, Zazpi Urteko Gerratean, eta 1789ko Iraultzara eramango duten gatazkak agertuko dira Frantziako erresuman. Britainia Haundiak beteko du Europako lehen maila, bere inperio kolonialarengatik ezezik, baita Europan iraultza industriala beste inork baino lehenago hasi zuelako ere.

Absolutismoaren aurkako ideiak azalduko dira nonnahi; "Despotismo Argiztatua", ordea, egoeraren oinarriak aldatu gabe, zenbait erreforma egiten saiatuko da. Honela, 1789-1815 urteetan Erregimen Zaharraren egoera oinarritik aldatuko duen aro iraultzailea prestatzen hasten da, Europako Mendebaldean bederen.

XVIII. mendeko nazioarteko harreman hauen ezaugarriak labur eman behar balira, honelatsu egin liteke:

- Poliki poliki Estatu itsastarrak lurtarren gainetik jarriko dira.
- Errusia hurbiltzen denez, Europako mapa aldatu egiten da.
- Inperio Otomandarrak behera egiten du, prusiarren indarrak gora egiten duen bitartean.
- Arazo eta borroka europarrak kolonietara zabaltzen dira eta, ondorioz, ez da Europan bakarrik borrokatuko.
- Frantzia eta Ingalaterraren arteko borroka nagusitzen da, hots: egoera hegemonikoa mantendu nahi duen haren eta itsas indarretan oinarriturik gora datorren beste honen arteko gatazka, esan nahi da.



W.PITT (1708-1778). Pitt politikariak aita-semeak izan ziren; hau aita dugu. Walpole-ren arerio osoa izan zen, eta itsasoez haraindi Ingalaterrarentzako inperioa sortu eta moldatzeari ekin zion. Zazpi Urteko Gerratearekin lortu zuen bere politikaren garaitzapenik onena: Inperioa posible zen. Hala ere, USAren independentzi gerrateak (1776-1783) azken hilabete garratzak ezarri zizkion politiko zaharkituari.

B) GERRA ETA POLITIKA

Horiek dira garaiko politikaren lerro larrienak, xehetasunetara jaitsi gabe; baina komeni da hemen politika orokorrean mugarri gertatu ziren gertakari armatu jakingarrienak gogoan hartzea ere. Iparraldeko Gerratea (1700-21) eta beste zenbait txikiago albora utzita ere, gogora ditzagun Mendebaldea bertatik aldatu zuten batzuk:

* 1. Espainiako Segida-Gerratea (1700-1714)

Hil aurretik, Karlos II.ak Frantziako errege Luis XIV.aren bilobaren alde egin zuen testamentua, hau da, Felipe Anjou-koaren alde. Horrela, ordurarte agintari izandako Austria Etxearen ordez Borbondarrena egiten zen Espainiako Koroaren jabe.



BARCELONA HARTZEN (1714). Hau da Felipe V.ak Katalunia menperatzeko eman zuen azken gudua. Barcelona-ko hiria urtebete eta gehiago eduki zuen inguratuta armada borbondarrak, eta setiatzaileek erasotzea erabaki zuten: hauek zortzi ziren, defendatzaile bakoitzeko. Europa osoak mirespenez begiratu zuen gudua: Egun hartan herriak erakutsi zuen askatasun-nahia gogoratuz ospatzen da orain Kataluniako Aberri Eguna (Irailaren 11).

Frantzia-Espainiek elkarturik, Europako oreka puskatu egingo zela ikusi zuten eta gerrari ekin zioten. Gerra honetan Espainia eta Frantzia ari izan ziren batetik eta Ingalaterra, Austria eta Holanda bestetik.

Borroka hauek Utrecht-Rastatt itunetan (1713-1714) bukatu ziren. Hemendik aurrera, Europan urtetan mantendu zen oreka politikoa, inoren hegemonia garbirik gabe. Batez ere, Ingalaterrari komeni zitzaion egoera politiko hau, indarra itsaso eta kolonietatik bait zetorkion. Ingalaterrak Frantziaren edozein hegemoni saiori aurre egin zion, beraz. Gorabehera handirik gabe, honela iraun zuen Europak 1740. urterarte.



* 2. Austriako Segida-Gerratea (1740-1748)

Austrian Karlos VI.a hil zenean, honen Koroa eskuratzeko erregegai bat baino gehiago sortu zen, hain zuzen Austriarren indarra hautsi



PRUSIA, POTENTZIA BERRIA. Prusia izan zen, XVIII. mendean, Erteuropan, gora egin zuen potentzia berria, Austriaren kontra gerran nahiz harekin bakeak eginez. Soldadu-biltze (1726) hauek aditzera ematen dutenez, armada handi bat eratu zuen Prusiak Federiko Gilen I.a Errege Sargentuarekin (1713-1740), eta ondoren Estatu Prusiarrari antolaketa hertsi eta modernoa eman zion irudi honetan ikusten dugun FEDERIKO II.a Handiak (1740-1786): "Prusia ez da armada daukan Estatu bat, armadak daukan Estatua baizik" esan zuen Mirabeau-k.



MARIA TERESA, AUSTRIAko Erregina (1740-1780). Karlos VI.a aita hiltzean,Prusia eta Frantzia buru zirela, benetako gerra orokor bat zabaldu zen Europan, Maria Teresak Koroa har ez zezan. Baina armak eta diplomazia, biak, erabiliz,Akisgran-go Bakean aitortu zitzaizkion bere eskubideak. Handik aurrera Erteuropako potentziarik zabal eta konplexuenaren buru izango zen Maria Teresa.

nahirik eta Karlosen alaba Maria Teresa-ren aurka.

Karlos Albert (Bavariako Hauteslea), Felipe V.a (Espainiako erregea) eta Federiko II.a (Prusiakoa) ari izan ziren gerra honetan Austriarren aurka, Frantziako Borbondarrak ere lagun zituztela. Azkenik, Akisgrango Bakeak (1748) eman zion amaiera gerrateari. Prusiarren goraldia indarrean zetorrela ikusi zen orduan.

* 3. Zazpi Urteko Gerratea (1756-1763)

Akisgrango Bakeak Europa baretu zuen, baina interes kontrajarri gehiegi zegoen bakeak luzaroan iraun zezan. Frantziak eta Ingalaterrak kolonietan zuten eztabaida garraztu egin zen. Europan Maria Teresak Silesia berreskuratu nahi zuen, Prusiako Federiko II.aren zabal-nahiari muga hertsiagoak ezartzeko.

Orduan erresumen aliantzak trukatu egin ziren: Frantzia berera ekarri zuen Austriak; Prusia lagunik gabe gelditu zen, eta, ondorioz, Ingalaterra Federiko II.arekin elkartu. Gerrak Alemanian izan zuen borroka-lekua, eta XVIII. mendeko gogorrena izan zen hau.

Errege prusiarraren balio militarra eta ingelesak irten ziren garaile. Porrotaren ondorioa gogorra gertatu zen Frantziarentzat: garai bateko haren ospe militarrak asko galdu zuen eta egin behar izan zuen ahalegin finantzariak bere barne-arazoak larritu baizik ez zizkion egin. 1763ko Bakearekin eman zitzaion bukaera gerrari. Frantziak Kanada, Ohio bailara eta Mississippi ibaiaren ezker aldea utzi behar izan zizkien ingelesei

Gerra koloniala

"Britainiaren itsas nagusitasunak ondorio sakonak izan zituen kolonia frantses eta britainiarretan gertatutako gorabeheretan. Beste zernahiren gainetik, nagusitasun hark zera esan nahi zuen: Galeraz zitekeela, alegia, Frantziak Europan zeukan nagusitasun materiala itsasoan ere pareko nagusitasun bihurtzea. (...). Gertatzez, Zazpi Urteko Gerratean (gatazka anglo-frantsesaren egiazko krisi-unean), Frantziak Europan ar-

.../...

eta uko egin behar izan zion Indian izan zezakeen edozein asmo politikori. Frantziak, beraz, asko galdu zuen bere inperio kolonialean, Ingalaterrari leku eginez. Prusiak, berriz, lehen tokia hartu zuen indar militar bezala.

...matan zeuzkan 300.000 lagunetatik oso gutxi izan ziren itsasaraindi bidalitakoak. Muntaren bat izan zuten bi espedizio kolonial frantses bakarrek (bata Montcalm-ena, Kanadara; bestea Lally-Tollendal-ena, Indiara) bien artean 10.000 bat arma-gizon izan zituzten, ez gehiago. Ingalaterrak, aitzitik, 1757an 70.000 soldadu erregular zeuzkan Ipar Ameriketako kolonietan bakarrik". (M.S. ANDERSON)

* 4. Poloniaren partiketak (1772, 1793, 1795)

Hogeitabost urte eskasetan, Poloniak hiru banaketa jasan zituen: barne-ahuleziaren eta inguruko potentzia handien elkarren beldurraren eta handi-nahiaren fruitua izan zen arazoa.

Hasiera 1733an eman zitzaion, Augusto II.a hil zenean. Poloniako erregea hautagarria zenez, bi erregegai aurkeztu ziren: Errusiak eta Austriak babestutako Saxoniako Federiko Augusto bata eta Estanislao Lesczinski, bere herrikideen eta Frantziaren laguntza zuena, bestea.

Poloniako Dietak Estanislao aukeratu zuenean, erreinuaren gainera etorri zen Errusia, hautespena ezeztatu eta hautagai berria ezarriz: Federiko Augusto III.a izan zen aukeratua.

Ez zen egoera bakeatu eta etengabeko tirabirak gertatu ziren Polonian bi hautagaien aldekoen artean. Honela, Poloniaren egoera oso txarra zela aitzakitzat hartuz, Prusiako Federiko II.ak, Errusiako Katalina II.ak eta Austriako Maria Teresak Poloniaren lehen banaketa egin zuten (1772), bakoitzak erresuma horren zatiren bat bereganatzen zuela.

Frantziako giro iraultzaileak eta prusiarren interesek bultzaturik, poloniarrek Erreinuan



KATALINA II.a ERRUSIAko Zarina (1762-1796). Europako Ekialdean, XVIII.aren bigarren partean, hiru Estatu boteretsu zeuden: Austria, Prusia eta Errusia. Eta beste hiru, ahulak: Suedia, Danimarka eta Polonia. Une horretan Errusiak Katalina II.a izan zuen buruzagia: Inperioaren barnean, erreboltak zapaldu, industria zuzpertu eta Estatua berritu zituen. Atzerriko politikan, Polonia eta Turkiaren ahuleziaz baliatu zen, Errusiako lurraldeak zabaltzeko.



POLONIAren PARTIKETA. Garaiko grabatu honetan (1773) honela salatu zen, Poloniaren banaketarako Estatu hegemonikoen arteko akordioa: Katalina II.a, Jose II.a (Maria Teresaren semea), Estanislao II.a (Poloniako azken erregea) eta Prusiako Federiko II.a ageri dira marrazki alegoriko honetan.

erreforma instituzional sakonak egin nahi izan zituzten. Errusiak, ordea, prozesu horren kontrako politika eratu zuen, eta Polonia inbaditu; Prusiak ere gisa berean jokatu zuen. Bi potentzien arteko bake-konponketa izan zen, ba, Poloniaren bigarren banaketa hau (1793).

Baina altxamendu nazional batekin erantzun zion herriak egoera berriari: T. **Kościuszko** (1746-1817) buruzagi zuela, lehenengo armada atzerritarrak garaitu ondoren, borroka odoltsu batean errusiar-prusiarrek menperatu zuten arte luzatu zen altxamendu hura. Ez zegoen bakerik: Poloniaren hirugarren partiketa ezarri zuten garaileek eta Austriak (1795). Horrela desagertu zen Polonia Estatu bezala.

C) DESPOTISMO "ARGIZTATUA"

Aipaturiko gertakari politiko eta armatuon artean, hariak gidatu nahi izan zituen pentsamendu-korronte bat ekarri behar da hona: "Despotismo ilustratua"ren pentsamendu politikoa, alegia. Gogoan hartu behar da, gainera, ideien zabalkundea ezezik, politikaren praxia ere agintetik ezagutu zutela "argiztatuek": izan ere, agintari izatera iritsi bait ziren haietatik batzuk. Komeni da, beraz, politikari hauek zein xede zuten ezagutzea ere.

Esan bezala, Europan Ilustrazioa azaldu zenean, Monarkia Absolutua zen, Europa gehienean, sistema politiko nagusia. Horregatik, sistema hau egokia gerta zitekeela iruditu zitzaion ilustratu askori, bai edukin kulturalak aldatzeko, bai lurralde bateko egitura sozial eta ekonomikoak sakonetik trukatzeko ere. Beraz, idazle eta pentsalariak errege absolutuen laguntza jasotzen saiatuko dira, programa ilustratua aplikatu ahal izateko. Honi deitzen zaio Despotismo Ilustratua, hots, Ilustrazioaren zenbait helburu politiko bereak egiten dituen monarkia absolutuari.

Puntu hauetara laburbil litezke Despotismo "argiztatu" honen asmo eta burubideak:

- Politikan, administrazio zentralizatu bat lortu nahi zuen, sistema feudal zaharretik jasotako desberdintasunak deseginez.

- Politika fiskal moderno bat eraikitzea zen bigarren xede bat, ondasun guztien gain zerga bakar bat ezarriz, ondasun-jabe zergapetua zein estamentutakoa zen begiratu gabe.

Despotismo "argiztatua"

"Subiranoak, edo 'despota argiztatuak', beren Estatuen lehenen zerbitzariak dira; arrazoimenaren izenean, osorik zahar-berritu nahi dituzte. Estatuok 'arrazoizko' erreformak ezarri nahi dizkiete menpekoei: sarrerak gehitzeko herri-zamen bidezko banaketa; esanekoagoak izan daitezen, probintzia eta hiriei administrazio geroz eta berdinago bat eman nahi diete; aristokrazia apalagotuko duen oreka politiko-soziala; menpeko guztien gaitasun ezberdinez baliatu ahal izateko erlijio-tolerantzia; ekonomia gidatu bat, merkantilismoa, beti ere produkziorako beharrezkoak diruditen libertateez leundua. Hau dena, hizkera 'filosofiko' batekin emana". (R. MOUSNIER)



ARANDA KONTEA (1718-1798). Aranda, Gaztelako Kontseiluaren Lehendakaria izan zen (1766-1773). "Despotismo ilustratua"ren politikarietatik adibide bezala dakargu hona. Ideia entziklopedisten zalea zen, eta esku zuzena izan zuen Jesus-en Lagundia Espainiatik iraiztean. Bere projektu politikoetan benetan modernoa, alde aurretik asmatu zuen Iberoamerikaren nahitaezko independentzia:arrisku honi aurrea hartzeko, britainiarren "Commonwealth of Nations" baten antzekoa proposatu zuen Amerikatako kolonientzat.

- Estatuari betekizun kultural bat ezartzen zaio, hezkuntz munduan berorri eskuharmen bat aitortuz.

- Elizgizonen partaidetza politikoari muga hertsiagoak ezarri nahi dizkiote, eta orobat baita lurralde bakoitzeko Elizaren gain Aita Santuak zuen eskumenari ere.

Asmo hauen aurka zeuden indarrak (apezeria eta noblezia) handiak zirelako, ez dituzte xede politiko horiek lortuko. Gero eta handiagoa izango da, beraz, zenbait "argiztaturen" artean, onez lortzen ez dena indarrez lortu nahia.

Ikus daitekeenez, aldakuntzak kontrolpean egin nahi dituen sistema bat da Despotismo Ilus-



PARISE, IRAULTZA-BEZPERAN. Hamazortzigarren mendean, nahiz eta Ingalaterraren kontra Frantziak bere kolonien parte on bat galdu, metropolian ekonomia handia zuen, Ingalaterrak baino areago. Iraultza baino urte batzuk lehenago honela deskribatu zuen garaiko grabatu honek Pariseko merkatal mugimendua.

tratua. Herriari garrantzi handia ematen dio, dena herriarentzat lortu nahi bait du, baina herriak berak aldaketa horietan partehartu gabe, ez bait du uste berau horretarako prestatuta dagoenik. "Dena herriarentzat, baina herririk gabe". Goitik beherako iraultza bat izango litzateke, ba, Despotismo "argiztatu"aren hau.

* * *

Ideia politiko hauek obratzean, "argiztatuek" nolabaiteko arrakasta lortu zuten bakarrik. Ikusi dugu nolako harremanak ezagutu zituen nazioartean Europak; erdizka edo gaizki konpondutako gatazka guztiak bizi-bizirik zeuden, XVIII. mendeko azken hamarkadan, eta Iraultza Frantsesak xaxatu baizik ez zituen egingo ondoko urteetan, Europan bertan eta hemendik kanpoko kolonietan ere.

V. ARTE PLASTIKOAK

Aurreko ikasgaian aurreratu ditugu zertzelada batzu mende honetaz ere, baina saiatuko gara hemen espreskiago bere osoan ematen.

XVIII. mendeko arte-munduak konplexutasun handia du, izan ere estilo-modu ezberdinak aldiberean elkarrekin bizi izan bait ziren: Barrokoa, Rococoa, Neoklazismoa... Alde horretatik, batasunik ez dagoela esan liteke. Bestalde, ez da beti erraza gertatu eskolaok elkarrengandik bereiztea ere, Barrokoa eta Rococoa adibidez, hau haren segida bezala ulertu izan bait da sarrienik, baina geroz eta arte-kritikari gehiagok nortasun bereizia aitortzen diote Rococoari. Gu ez gara hemen, oraingoz, eztabaidagai hauetan sartuko.



DEKORAZIO-LANAK. Rococo-aren sorkarietan, batez ere dekorazioak eman zion nortasun ezaugarria estiloari.Izaditik hartutako gaiak bihurritu eta txirikordatu egiten ditu.

A) ROCOCOa

Mendearen hasieran Barrokoak zenbait aldakuntza jasaten du, 1720-80 urteetan gutxi gorabehera, Europako gorteetan batipat. Barroko itxuraldatu honi Rococo deitu zitzaion, jatorrizko korronte hura eta azken fruitu hau elkarren artean banatzea beti samurra ez bada ere.

Estilo Rococoaren ezaugarri nabarmenenak honela laburbil litezke: aristokratizismo nabaria, frantsesmendua eta hedonismoa. Hiru tasun hauen ondorioak dira besteak: politasuna eta formen joko-jolasak eta oparotasuna, fantesiaz betetako sorkuntza. Ez du Barrokoaren antsia mistikorik; sentsualitate mundutarra du rococoak, plazer, amodio eta erotismoaren mundua da. Emakumea, jardinak, festa galaiak, gorteko dantzaldiak, ezkutuzko dekorazioak.

Arkitekturan ordena klasikoak zituen arau zorrotzak baztertzeko joera dago eta eraikuntzak, ematen zaien funtzioaren arabera, bereiziko dira eta garrantzi handia hartuko du "barruak", apainketa orokorretik detailetaraino.

Eskulturan eta pinturan neurri eta asmo handitako gaiak baztertuz, arin eta atseginagoetara ematen da, kolore biziz eginak. Arte moeta honetan, azkenik, toki berezia hartuko dute arte txikiek: ispilu, tapiz, zilar, altzari eta portzelanak.

Arte honek Frantzian du hasiera, baina arkitektura mailan Alemaniak egingo ditu eraikuntza gehienak. Dena den, benetan nazioartekoa izan

Rococo-a

"1950. urteetatik honakoan, Hans Sedlmayr-ek irekitako bideari jarraikiz, jakitun batzuek rococo-a estilo-kategoria beregaina bezala ikusten dute. Rococo-a, beraz, aurretik izan zuen Barrokotik bereizia izango litzateke, eta berdin ondoko Neoklasizismotik ere: Nortasun bereizikoa izango litzateke, beraz, rococoa. Berrikiagotan argitara emandako argitalpen historizale eta filosofikoek indartu baizik ez dute egin eritzi hori". *(G.BRUNEL)*

zen estilo hau, eta Parisek eragina zuen lekuetan topa liteke batez ere (San Petersburg, Saxonia, Bavaria, etab.).

Hona iristean, ezin dira ahantzi, gainera, pinturan rococoak utzi dizkigun izen batzu: Antoine **Watteau** (1684-1721) da izenik gorena. Gorteko galaitasuna, baso orlegiz gozatuak, fineziaz landutako barnetegiak... denetatik du Watteau-k. Pintura hau ere ez da Frantziako mugetara bildu behar, A. **Canaletto** (1697-1768) edo F. **Guardi**-ren (1712-1793) ikusmundu hiritarrak ere ameskizunik franko eskaintzen dio ikusleari. Eta, Calais-eko kanaletik hara, historiako lehenengo pintura-eskola nazionala agertu zen Ingalaterran: W. **Hogarth**-en (1697-1764) lana gizarte ingelesaren ispilu satiriko bat izan zen, bizia eta kritikoa; J. **Reynolds** (1723-1792) pintorearen erretratuek eskola berri bat sortu zuten, eta Th. **Gainsborough**-ren (1727-1788) begiek paisaje zoragarriak jaso zituzten, ezaguna denez.



A. WATTEAU (1684-1721). Koadro hauetan koloreen grazia eta zoriona jaso ditu Watteau-k: ekaitzik gabeko plazerrak, urrunean galdutako itzal gozoak, ametsezko munduren baten erakarmena... Inguru horretan erromantizismoa ere ez zen arrotzegia.



HONDAKIN KLASIKOAK. Mundu klasikoa ere errealitatetik ihesegin eta oreka berri bat bilatzeko bide egokia zen. Italian hondakin klasikoak aurkitzean, estilo-bilaketa berri bat hasiko da Europan. Hona nola marraztu zituen G. B. Piranesi-k tenplu klasiko baten hondakinak (1748. urtean argitara zen marrazkia).



PITXERRANDI NEOKLASIKOA. Mundu klasiko greko-erromatarraren mirespena bizia izan zen mende honetan, eta Aintzinateko gai eta formak arkitektura eta pinturan ezezik, honelako ontzietan ere eman ziren. Pitxerrandi hau Wedgwood ingelesarena da, eta diseinua Flaxman-ena (1785).

B) NEOKLASIZISMOA

Korronte berri honen aroa XVIII. bigarren partean eta hurrengoaren lehenengoan jar dezakegu. Eskola honen iturri eragileak bizpahiru lekutan eman genitzake: a) Zalantzarik gabe, Herkulano (1711) eta Ponpei-ko (1748) aurkikundeak barrutik hunkitu zituen artistak. b) J.J.Winckelmann (1717-1768) eta G.E. Lessing baten (1729-1781) idazlanek hezi zuten garaiko sentiera neoklasikoa, zentzu honetan Goethe-ren ekarpena (erromantikoa ere bai) ahantzi gabe. c) Eta azkenik, A.R.**Mengs** (1728-1789) pintorearen obra teoriko eta praktikoa dauzkagu oinarrizko mezu osagarri bezala.

Bere fruituak, emanaren emanaz, zimeltzen ari ziren Rococoaren ondoren, Neoklasizismoaren bide berrien gogoa piztu zen, beraz. Bestalde, aldakuntza sozio-politikoak barruntatzen dira (lehertu ere laster lehertuko da Iraultza Frantsesa), eta Erregimen Zaharrean puri-purian zegoen Rococoak korronte berriari leku egin beharko dio. Egokiera sozio-politikoak ere lagundu zuen, beraz; aldakuntzak, bestalde, eraikuntz politika zehatz batek bortxatuta ere egin ziren (Madrilen, adibidez, San Fernando Akademiak, 1780tik aurrera,gertutik zain- du zituen projektuak).

Sen neoklasikoak bi arkitektura modu emango ditu:

1) Lehenengoa, nolabait, Rococo beraren luzapen itxuraldatua izango da, oraindik ere boterearen zerbitzaria dena, baina orbel rococoak erantziko dituena, soiltasun batera iritsi arte.

Molde honetako eraikuntza sonatuak dauzkagu Frantzian, bereziki Parisen: J.-G. **Soufflot** (1713-1780) arkitektoak Santa Genobebaren eliza jaso zuen, gerora "Panteoia". Barrokoaren eta Neoklasikoaren arteko zubi izan zen Soufflot, estruktura klasikoak eta kupula ere erabiliz. Italian, Alemanian eta Ingalaterran, eta Estatu Batuetan ere, ez da korronte honetako alerik faltako.

Espainiako lanik interesgarrienak modu honetako Neoklasizismoan aurkitzen ditugu: F.**Sabatini** (1722-1797) italiarrak "Alcalako Atea" eta Hazienda Ministraritza utzi zituen Madrilen; Ventura **Rodríguez**-i (1717-1785) zor zaio, berriz, Madrileko San Marko eliza; hirukote neoklasizista J. de **Villanueva**-rekin (1739-1811) osatzen da Espainian: Villanueva-k proportzio-sen aparta erakutsi zuen eta beronen obra maisu bezala Prado Museoa aipa genezake.

2) Bigarrena, arrazoimenaren arkitektura izango da, funtzionala eta biluzia, gizarte berrituaren zerbitzurako asmatua. Batez ere, eraikuntza praktikoak eskaintzen ditu Neoklasikoaren bigarren korronte honek: bibliotekak, ospitaleak, burtsak, industriak, etab.

Eskulturan eman dezagun izen nagusi bat: Frantzian J.-A. **Houdon** (1741-1828) izan zen garaiko pentsalarien eskultorea, haien izpiritua miresi jasoz (Diderot, Voltaire, etab.).

Pinturan, aipatu be ugun **Mengs**-en ondoan, beste izen bat gogora ko litzateke bereziki: J.L. **David** (1748-1825). Frantsesa da honen artea, ideologia iraultzailearekin hertsienik lotua. Garaiko pintatzailerik esanahitsuena



J.-A. HOUDON (1741-1828): "Mirabeau" hau bezalako ainitz busto egin zuen Houdon-ek.



J.L. DAVID (1748-1825): "Horaziotarren zina". Iraultzaren eta Inperioaren pintatzaile izan zen David. Artearen eta ideologia politikoen arteko harreman konplexuen historia bat da arte-gizon honena. Estilo serios eta dramatikoa da hau.



F. GOYA (1746-1828): "Autorretratua" (1815).Pinturaren teknikak hobetuz lantzen, eta artea gizarte-molde eta une historiko eta pertsonal ezberdinetan txertatzen maisu aparta izan zen Goya.

bezala eman dezakegu, mundu klasikoa eta errepublikarra elkartzean.

C) FRANCISCO DE GOYA (1746-1828)

Baina XVIII. mendea ez da izen horietan agortzen: esan nahiz isildutako guztien gainetik, jeinu erraldoi bat topatzen dugu garai honetan: Goya. Aurreko maisu handien heredentzia berera bildu ondoren, pintura garaikidearen funtsezko berrikuntzen maisua bilakatu zen. Estilo rococotik erromantizismorainoko bide luzea bete zuen bere bizitzan; sozialki, pintore gortesau izatetik gizarte-kritikaririk zorrotzena izateraino pasa zen. Tartean jasandako gaixoaldia (1792) izan zen aldakuntza horren mugarria.



F.GOYA: "Caprichos" (1792-99). 84 akuaforte dira bilduma honetakoak. Gorreria eman zion gaixoaldiaren ondoko lanak dira. Gizarte ezjakin eta sineskeriaz betetako baten kontrako kritika dirudite, eta teknikarik ausartenarekin eginak. Irudimen zorabiatu baten emaitzak. Inkisizioari ere salatuak izan ziren lan hauek.

Bizitzaren ikusera baikor bat erakutsi zuen Goya-k bere lehen aldian, 1776-91. urteetan erret tapiz-fabrikarako lanegin zuenean. Handia da, orduan, Goya-ren arrakasta soziala (Erregearen Ganbara-pintatzaile, Akademiko...); baina, heldutasunera iristean, guztiz aldatu zena izpiritu haren jitea: ikusmolde hura ilundu egingo zaio gizonari. Bizitzaren alde gogorra eta atsekabea jabetu ziren Goya-ren pinturaz.

Izan ere, barnea ezezik ingurua ere belztu zitzaion Goya-ri: Frantsesek Espainian nahiz haien kontra espainolek egindako gerrak eta orduan ikusitako krudelkeria okaztagarriek bete egin zuten Goya, eta urte haietako koadro eta grabatu ugarietan utzi zuen bere sentimendu zauritua. Gertakarien testigu kezkagarria da Goya-ren obra gaur egun ere.

Lurrin-makina eta trena

(Lurrin-makina asmatu (1767) eta trena eta burdinbideak sortu arte (1812) bide luzea egin behar izan zen trena ahalbideratu ahal izateko:)

"Hasierako burdinbideetan trakzio-indarra zaldiek eskaintzen zuten, baina 1760tik aurrera Ingalaterrako eta orobat Frantziako buru argienek lurrin-energiaz baliatzeko ikerlanak egiten zebiltzan, aurkitu berria bait zen hau. 1784ean, W. Symington-ek eta W. Murdoch-ek aldi beretsuan tren-makina ereduak egin zituzten, baina Watt kontra agertu zen, eta ordukoz asmoa baztertua izan zen.

Watt-en patentea hiltzean, Trevithick-ek (1771-1833) goi-presioko makina bat asmatu zuen, eta 1803an lurrinez mugitutako "gurdi" bat ibili zen Londres-eko kaleetan. Hala ere, kaminoak ez ziren egokiak gertatu honelako ibilgailu batentzat, eta Trevithick-en esperimentu ausartak ez zuen berehalako ondoriorik izan.

Halako makina bat bereziki egindako erreietan gidatzeko ahalbidea atzeratu egin zen uste bitxi honegatik: burdinazko gurpil leun batek orobat leuna zen errei baten gain ez zuela aski itsaspenik izango uste zen. 1812rarte itxaron behar izan zen, W. Hedley-k (harrikatz-meatz bateko injineruak) bi asmaketak elkar zitezkeela erakutsi zuen arte. Zerbait geroago, beste harrikatz-injineru batek (G.Stephenson-ek, 1781-1848) tren-makinari efikazia hobea eman zion, sutegiko aire korrontea biziagotuz. (...)

Lurrinezko tren-makina, iraultza tekniko osoaren gailurra da: Britainia Haundiko eta mundu guztiko bizitza ekonomikoaren gain izan dituen efektuak handiak eta sakonak izan dira". *(T.S. ASHTON)*

Hiztegia

Ondoren ematen den zerrenda hau testuliburu ***honetarakoa*** *da. Ez du, bere horretan, zentzu lexikografiko eginik, balio pedagogikoa baizik. Arrazoi askorengatik, ezin izan da, gainera, UZEIko hiztegietako maila bereraino iritsi, erabakien aurretik egin beharko zen lanean ere. Hala ere, ikasle-irakasleek beren artean iharduteko, argibide gisara ematen da zerrenda, datorren edizioren batetan gauzak helduagoak izango ditugulakoan.*

Hemen zer ematen dugun? Liburuan erabili behar izan ditugun a) histori hiztegi berezia, eta b) hizkuntza arrunteko hitz arraroagoak.

*Ahalegindu gara, modu sistematiko batean gainera, hitzen idazkera beti berdin ematen. Beren osagaietan euskal adjektiboren bat duten izen propioetan, artikulu eta guzti eman ditugu izen horiek: "Itsaso Gorri**a**", "Izurrite Beltz**a**", etab. Izengoitietan ere gisa berean jokatu da: "Luis Germaniar**ra**", "Karlos Burusoil**a**", etab. Gogoan har oharra, batez ere deklinabiderako: "Itsaso Gorri**an**", baina "I. Gorri**ko**, "I. Gorri**tik**", etab.*

Zerrenda hau lantzean topatu ditugun arazoez ezingo dugu hemen deus esan. Ez da lekua. UZEIn barnean eta kanpotik eman zaizkigun laguntzengatik eskerrik asko. (J.I.).

Euskara	*Español* *Espainiera*
A	
abantaila	privilegio
abatetxe	abadía
abelazkuntza	ganadería
acheuldar	achelense
adarkatu	ramificar(se)
adoba	adobe
Adrian VI.a (1522-1523)	Adriano VI
aginte goren denboral	suprema autoridad temporal
aginte-batasun	unidad de autoridad
aginte-hierarkia	jerarquía de autoridad
aginte-monarkia	monarquía autoritaria
aginte-piramide	pirámide de autoridad
aginterri	dominio
Agurain	Salvatierra
ahalbideratu	posibilitar
ahari	ariete
ahitu	agotar(se)
ahokatzaile	ensamblador (erretaulen muntatzailea)
aholku-emaile	consejero
aholkulari	consejero
ahuleria; ahulezia	debilidad
aire zabal	aire libre
aire-berritu	airear
aire-berritzeko kanale	canal de aireación
aisia	ocio
Aita Santu	Santo Padre Papa
Aitasaindugo	Papado
akadar	akadio
akaiar	aqueo
Akenaton	Akhenaton
Akisgran	Aquisgrán
akitaniar	aquitano
Akraga	Acragas
Akropoli	Acrópolis
alano	alano
alboko nabe	nave lateral
alde	diferencia
aldiberean	simultáneamente
Alexander Handi(a) (-356-323)	Alejandro Magno
Alexandria	Alejandría
Alfontso Borrokari(a) (1104-1134)	Alfonso el Batallador
Allah	Alá
almohade	almohade
alogatzaile	árbitro hombre bueno
alokatu	asalariado
Alpeak	Alpes

Euskara	*Español* *Espainiera*
Ana Bolena (1507-1536)	Ana Bolena Anna Boleyn (ing.)
Anaxagora (-500-428)	Anaxágoras
Anaximandro (-610-546)	Anaximandro
Anaximene (-588-524)	Anaxímenes
anbare	ámbar
Andaluzia	Andalucía
anega	fanega
angeluzuzen	rectangular
anglo-saxoniar	anglo-sajón
Anibal (-247-183)	Aníbal
antzaldatu	transformar
apaizgo; apezgo	sacerdocio
apaizgo unibertsal	sacerdocio universal
Apeninoak	Apeninos
apezgo; apaizgo	sacerdocio
apezpiku = gotzain	obispo
arabiar	árabe
Aragoa	Aragón
arakne	aracne
arautu	regular reglamentar
arbaso bibliko	patriarca bíblico
arbuiatu	despreciar
Argantzun	La Puebla de Arganzón
argilun	claroscuro

Euskara	*Español* *Espainiera*
ariar	ario
arima-ardura	cura de almas
Aristotele (-384-322)	Aristóteles
arkibolta	arquivolta
Arkimede (-287-212)	Arquímedes
arku zorrotz	arco apuntado
"Arkularien Erliebea"	"Relieve de los Arqueros"
arma-zerbitzu	servicio de armas
armada	ejército
Aro Garaikide	Edad Contemporánea
aro helenistiko	época helenística
aro klasiko	edad clásica
arpilaketa = zakuraketa	saqueo
arrabol	rodillo
arrain ondu	pescado seco
arrakasta	éxito
arrandi	ostentación
arranpa	remolino
arro	cuenca
arrokaia	rocalla (dekoraziogai asimetriko, uhintsu eta oso kargatua)
arrotz	extraño extranjero
arruntkeria	ordinariez grosería

Euskara	*Español* *Espainiera*
arta zilo	silo de maíz
artatxiki	mijo
arte erabilkor	arte mobiliar
artisau	artesano
artisautza	artesanía
artxipelago	archipiélago
Artxipelago Malaiar(ra)	Archipiélago Malayo
asaldu	turbulencia perturbación
asegarri	satisfactorio
Asia Txiki(a)	Asia Menor
Assyria	Asiria
assyriar	asirio
atari	atrio
ate-zango	jamba
ate-zerga	portazgo
Atena	Atenas
atena(ta)r	ateniense
atesari	portazgo
Atika	Atika
atu	mobiliario bagaje
atzerritar	extranjero
augustindar ermitau	agustino ermitaño ermitaño de S. Agustín
aurignakaldi	época auriñaciense
aurkientza	invento descubrimiento
aurkitzaile	descubridor
aurpegibiko aizkora	hacha bifacial
aurrebaldintza	condición previa
autrigoin	autrigón
"Auxerre-ko Dama"	"Dama de Auxerre"
azafrai	azafrán
azildar	aziliense
"Azken Judizio(a)"	"Juicio Final"
azken-mugatu	definir delimitar
B	
babes-hiri	ciudad de refugio ciudad de asilo
badia	bahía
baimendu	autorizar
Bako	Baco
balazta	freno
balaztatu	frenar
baliabide	recurso
balizko	**ustezko** supuesto
Baltiko	Báltiko
baltxamamendu	embalsamamiento
baltsamatu **= hilondu**	embalsamar
banaketa sozial	división social
bandalo	vándalo
baogune	oquedad vano (iz.)

Euskara	*Español* *Espainiera*
baraila	mandíbula inferior
"Baratzeko Otoitzaldia" (Salzillo)	"La Oración del Huerto"
barbareria	barbarie
barla	patio corral
barne-merkatalgo	comercio interior
baroin	barón
barrundegi	dependencia habitaciones interiores
basailu	vasallo
basailu-jaurespen	homenaje vasallático
basailutza	vasallaje
basailutza anizkoitz	vasallaje múltiple
"basati ona"	"el buen salvaje"
bataiategi	baptisterio
baterakuntza	unificación
baztanga	viruela
baztanga-txerto	vacuna de la viruela
beha-grina	pasión por la observación
beha-tresna	instrumento de observación
behaketa astronomiko	observación astronómica
behategi	observatorio
behategi astronomiko	observatorio astronómico
behatu	observar

Euskara	*Español* *Espainiera*
Behe-Inperio	Bajo Imperio
behe-noblezia	baja nobleza
Behe-Paleolito	Paleotítico Inferior
beheraldi geldi	descenso lento
beheraldi laster	descenso rápido
beheranzkor	decadente
behinen	principal propio característico
beira	vidrio
beirate	vidriera
bekain-arku	arco superciliar
bekozkotasun	frontalidad
bela-ontzi	velero
belamendu	velamen
belatz	halcón
beltzero	negrero
Berant Erdi Aro	Baja Edad Media
bereki	propio
beretar	partidario de sí
berezko hautespen	selección natural
beroin	berón
berrantolaketa	reorganización
berreraikuntza	reconstrucción
berretsi	confirmar
bertakotar	aborigen autóctono
bertset	versículo

Euskara	*Español* *Espainiera*
berun	plomo
beterazle	ejecutivo
beterazteko boterea	poder ejecutivo
bezeria = klientela	clientela
bezero	cliente (Erroma-n)
"Bi Larrosen Gerrate(a)" (1455-1485)	"Guerra de las Dos Rosas"
Biasteri	Laguardia
Biblia soiletiko hutsezin	infalibilidad por la sola Biblia
bide-zerga	impuesto de peaje
bidesari	peaje
bihurtezin (Descartes)	irreductible
bihurtu	reducir(se)
bilakatu	venir a ser
biltegi	almacén
biltzaile, ekonomia	economía recolectora
biltzarre kuriar; kuri biltzarre	comicio curiado
birkonkista	reconquista
bitarteko erauspen	percusión indirecta
bitasun	dualidad
bizi-elixir	elixir de vida
Biziera Elkartuko Anaiak (1380)	Hermanos de la Vida Común
bizigarri	víveres
bizilekutu	establecer(se) sedentarizar(se)

Euskara	*Español* *Espainiera*
bizitegi	morada
biztanleria	población
biztanleria trinko-bildu	población densa
bolbora	pólvora
"Bolboraren Konplot(a)" (1605)	"El Complot de la Pólvora"
boli	marfil
bonbazia	pomposidad
Borbondar	Borbón borbónico
Bordale	Burdeos
bortizkeria	violencia
bortxa	fuerza
bortxa-leku	escenario de violencia
bosten	un quinto
botere	poder
botere denboral	poder temporal
botere lurtar	poder terreno
botere-antolamendu	organización del poder
botere-sistema	sistema de poder
boteredun	detentor del poder
Branderburg-eko Hautesle	Elector de Brandeburgo
"Breda-ko Menerapen(a)"	"Rendición de Breda"
britainiar	británico
Brugge	Brujas
bular-erroi	endurecimiento mamario

Euskara	*Español* *Espainiera*
Bulegategi--Kontseilu	Consejo de Despachos
bulegokeria	burocracia
bulegokrazia	burocracia
bultaka	por arranques
burdina	hierro
burgu	burgo
burgumaisu	burgomaestre
burtsa	bolsa
burualde	cabecera
buruaski	autosuficiente autárquico
burutu	poner término poner fin
buruzagitza	jefatura caudillaje
C	
buztingintza	cerámica (industria)
buztinki	cerámica (pieza)
Cape Town (ing.) = **Kaapstad** (afrik.)	Ciudad del Cabo
Champagne	Champaña
Cluny	Cluny
Cro-Magnon	Cro-Magnon
D	
"Dama Erdinude Zuriz Jantzi(a)" (El Greco)	"La Dama del Armiño"
Damas	Damasco
Danimarka	Dinamarca
debet	barbecho
Dekan	Deccan
"Delfos-ko Auriga"	"Auriga de Delfos"
Demokrito (-470-370)	Demócrito
desorekatu	desequilibrar(se)
"Diadumeno"	"Diadumeno"
dignatari	dignatario
Dionisio Halikarnasoko(a) (-I. K.a.)	Dionisio de Halicarnaso
dobela	dovela
dohaintza	donación
doitu	ajustar
dokumentategi	documentación archivo documental
domeinu	dominio
domingotar	dominico
doriar	dorio
doriar, ordena	orden dórico
dorretxe	casa-torre
dotorezia	elegancia
duke	duque
dukerri	ducado

Euskara	*Español* *Espainiera*
E	
ebaketa	disección
ebazpen	solución resolución
edertzapen, eskuizkribuen	iluminación de manuscritos
ediktu	edicto
Egeo-ko Irlak	Islas del Egeo
egiantzekotasun	verosimilitud
egitura	estructura
egoiliartasun	sedentarismo vida sedentaria
egonarri	paciencia
egonkor	estable
egonkortasun	estabilidad
egontegi	dependencia
egotzi	destituir deponer
egotzi	imputar atribuir
egozte	expulsión deposición
egutegi gregoriotar (1582)	calendario gregoriano
eguzki-orban	mancha solar
egyptiar	egipcio
Egypto	Egipto
Egypto Behere(a)	Bajo Egipto
Egypto Garai(a)	Alto Egipto

Euskara	*Español* *Espainiera*
ehiza	operación o jornada de caza
ehizaldi	operación o jornada de caza
ehizi	pieza de caza
ehule	tejedor
"Ehun Urteko Gerrate(a)" (1337-1453)	"Guerra de los Cien Años"
Ekaitzen Lurmutur(ra)	Cabo de Tormentas
ekarkin	aportación elemento aportado
Ekialde	Oriente
Ekialde Hurbil(a)	Oriente Próximo
Ekialdeko Indietako Konpainia	Compañía de las Indias Orientales
Ekialdeko Pomerania	Pomerania Oriental
ekialdetartu	orientalizar(se)
ekilore	girasol
ekoitzi	producir
El Kairo	El Cairo
eliz botere	poder eclesiástico
eliz selauri	galeria de la iglesia
eliz zaingo	patronato real
eliza ebanjeliotar	iglesia evangélica
eliza ikuskor	iglesia visible
eliza ikustezin	iglesia invisible
eliza kolomari	iglesia columnaria
elizgizon (iz.)	eclesiástico

Euskara	*Español* *Espainiera*
elkarretaratze, lursailen	concentración de tierras
emankor	fértil
emankortasun	fecundidad fertilidad
emendatu	aumentar
emendio	aumento
enbaxada	embajada
endekatu	degenerado depravado
Enpedokle (-490-430)	Empedocles
enperadorego	dignidad imperial
eoliar	eolio
epealdi	etapa
eraberdintasun	uniformidad
eragin-gune	centro de influencia
eragotzi	derribar
eraikidura	constitución
eraikuntza	construcción
erakundetu	institucionalizar
erakundeztapen	institucionalización
eraldaketa = **eraldakuntza**	transformación
eraldatu	transformar
eraso-dorre	torre de asalto
erasole, politika	política agresiva
eratsi	destituir deponer
erauspen zuzen	percusión directa

Euskara	*Español* *Espainiera*
erbeste-arazoak	asuntos exteriores
erdeinuzko	peyorativo
Erdi eta Hegoaldeko Europa	Europa Central y Meridional
Erdi-Paleolito	Paleolítico Medio
erdi-puntuko arku	arco de medio punto
erdiarotar	medieval
erdibanaketa	división reparto
erdigune	centro
Erdiko Inperio	Imperio Medio
erdiko nabe	nave central
erdirako	aparcería
erdirakodun	aparcero
erditzal	penumbra
ereintza	siembra
erlaiz	cornisa
erlijio-aniztasun	pluralismo religioso
erlijio-ospakizun	celebración religiosa
erlojugile	relojero
ermandade	hermandad
Ernazimentu = **Pizkunde**	Renacimiento
eroraldi	caída
erraldoitasun	gigantismo
erregalia	regalía
erregario	regadío

Euskara	*Español* *Espainiera*
erregario- -nekazaritza	agricultura de regadío
errege	rey
Errege Eguzki(a) (Luis XIV.a)	Rey Sol
erregealdi	reinado
erregexka	reyezuelo
errei	riel
erreinu	reino
errentagarri	rentable
errepublika	república
erreserba	reserva
erresuma	reino
erresuma helenistiko	reino helenístico
erret /-	real
erret aholku-emaile	consejero real
erret botere	poder real poder regio
erret kontseilu	consejo real
erret zaingo	patronato regio
erretaula	retablo
erretaulari	retablero
erretaulki	trono real
erreterri	señorío real tierras de realengo
erretetxe	casa real
erretorde	virrey
Erribera	Ribera

Euskara	*Español* *Espainiera*
errolda	empadronamiento
Erroma	Roma
Erroma-Germaniar Inperio Saindu(a)	Sacro Imperio Romano-Germánico
erromanizazio	romanización
erromatar	romano
erromatartu	romanizar(se)
erromeria	peregrinación
erromes	peregrino
errusiar	ruso
Ertamerika	Centroamérica
ertar	compatriota indígena
Ertasia	Asia Central
Ertasialde	región del Asia Central
Erteuropa	Centroeuropa Europa Central
ertz-ganga	bóveda de arista
Eskandinavia	Escandinavia
Eskeko Ordena	Orden Mendicante
eskeletu	esqueleto
esklaberia	esclavitud (conjunto de esclavos)
esklabu	esclavo
esklabutza	esclavitud (condición de esclavo)
esku-langile	*obrero manual*
eskubanda	antepecho
eskubide-dohaintza	donación de derechos

Euskara	*Español* *Espainiera*
eskuegin	manufactura
eskuharmen	jurisdicción
eskusatu	evitar
eskuzkribu	manuscrito
eslabiar	eslavo
Esmirna	Esmirna
Espainia	España
"Espolio(a)" (El Greco)	"Expolio"
estalki	cobertura
estamentu	estamento
estamentuzko gizarte	sociedad estamental
estatua	estatua
estatu	estado
estatu lau	estado llano
estatu hesi	estado tapón
estatu orokorrak	estados generales
estatu-boterearen eraketa	organización del poder estatal
estatu-kontseilu	consejo de estado
estatua Venus	estatua Venus
Estrasburg	Estrasburgo
eten	discontinuidad discontinuo
etesiar	etesio
etorkin	inmigrante
etruriar	etruscos
etxekotu	domesticar

Euskara	*Español* *Espainiera*
etxetiko lan	trabajo a domicilio
Eufrate	Eufrates
Euklide (-IV-III.)	Euclides
Euripide (-480-406)	Eurípides
Europa	Europa
eurrez	abundantemente profusamente
eustari = sostengatzaile	sustentante
ezarkuntza	imposición dominación implantación
ezegonkor	inestable
ezegonkortasun	inestabilidad
ezeroso	molesto incómodo
ezpataina	espadaña
eztainu	estaño

F

Faisto	Festo
falkaire	cuneiforme
familia	familia
faraon	faraón
Federiko Gilen I.a (1713-1740)	Federico Guillermo I
fedezko zuzenespen	justificación por la fe
feniziar	fenicio
Ferdinan II.a (1619-1637)	Fernando II

Euskara	*Español* *Espainiera*
feuderri	dominio feudal
Fidia (-490-430)	Fidias
finantz erakunde	institución financiera
finantzari	financiero
Florentzia	Florencia
franko	franco
franko-kantauriar	franco-cantábrico
frantsestu	afrancesado afrancesar(se)
frantziskotar	franciscano
fresko	fresco (artea)
funts	fundamento
funtsak (pl.)	fincas fundo
funtsezko	fundamental
funtzionalgo	funcionariado

G

gain eman, norbaiten	atribuir a alguien
gainazal	superficie
gaineratiko = soberakin	excedente
gaio-errota	noria
gaitu	dotado capacitado
gako	clave
galdaketa (ekintza)	fundición (acción)
galdategi (lantegia)	fundición (fábr.)
galendar	galénico
Galen(o)	Galeno
galentzale	galenista
galeoi	galeón
galeria	**selaru; selauri**
ganbara-pintore	pintor de cámara
ganga	bóveda
gangadura	abovedamiento
gantzileria	cancillería
gara	edad madura
garagar	cebada
garai	hórreo
garaikin	trofeo
garaipen-arku	arco de triunfo
garako	de edad madura
garapen	desarrollo
garapen demografiko	desarrollo demográfico
garatu	desarrollar(se)
garezur	cráneo
garondo	nuca
gartxutasun	sobriedad
Gaztela	Castilla
gaztelau	castellano
gelazain	aposentador

Euskara	*Español* *Espainiera*
Geneva	Ginebra
gerlari	guerrero
gerra	guerra
gerra-gatibu	cautivo de guerra
gerra-harrapakin	despojo de guerra botín de guerra
gerrate	período de guerra
gerrate italiar (-90-89)	guerra itálica
gerrate kantauriarrak (-29-19)	guerras cántabras
gerrate medotar (-V.)	guerra médica
gerrate puniko (-III-II.)	guerra púnica
gimnasi-leku	*gimnasio*
ginbela	capitel
gizarte-zatiketa	división social
gizatartu	humanizar
glaziazio	glaciación
glaziazioarte	interglaciación
gleba-serbu	siervo de la gleba
gogoeman	reflexionar
gogoeta-egoera	estado de reflexión
goi-burguesia	alta burguesía
goi-funtzionari	alto funcionario
goi-kontseilu	consejo superior
goi-noblezia	alta nobleza
Goi-Paleolito	Paleolítico Superior

Euskara	*Español* *Espainiera*
goi-presioko makina	máquina de alta presión
goi-zelai	meseta
Goiz Erdi Aro	Alta Edad Media
gomendazio	encomendación
gora egin	prosperar
goraldi	ascensión ascenso
goranzkor	ascendente
gorenaldi	época de encumbramiento
Gorgia (-487-380)	Gorgias
gorpu = hilotz	cadáver
gorpuen ebaketa	disección de cadáveres
gorputz-hartu	tomar cuerpo encarnar(se)
gortesau	cortesano
goru	rueca
goruburu	rocadero
"Gorulariak" (Velázquez)	"Las Hilanderas"
gotorki	firmemente
gotorleku **= indarleku**	fortaleza
gotu	godo
gotzain = apezpiku	obispo
gotzaindegi	obispado sede episcopal
gotzaineria	episcopado
gotzainerri	señorío episcopal

Euskara	*Español* *Espainiera*
grabitate-erdigune	centro de gravedad
Grakotarrak	los Gracos
greko-erromatar	greco-romano
greko-mazedoniar	greco-macedonio
Grezia	Grecia
Grezia arkaiko	Grecia arcaica
Grezia Handi(a)	Magna Grecia
Grezia klasiko	Grecia clásica
greziar	griego
grina	pasión
guda-orga	carro de guerra
gudasaio	torneo justa
Guiana	Guayana Guyana
Guiena	Guyena
gurutzada	cruzada
gurutzada-bulda	bula de la cruzada
gurutzadura	crucero
gurutze eraztuneztatu	cruz anillada
gurutze-ganga	bóveda de crucería
Gutun Bikain(a) (1215)	Carta Magna
H	
Habsburg-(e)tarrak	los Habsburgos
hainbanaketa	prorrateo
halabehar	necesidad hado
halabehartu	obligado obligatorio
"Hamabi Tauletako Legeak"	"Leyes de las Doce Tablas"
Hamburg	Hamburgo
handios	grandioso
hankabikotasun	condición bípeda
hanpuruskeria	arrogancia
hara(i)ndiko, itsasoz	de ultramar
haraindi	más allá de
hari-kuarteto	cuarteto para cuerda
harizko laukote	cuarteto de cuerda
harlandu irten	sillería salediza
harlauza	losa
harmoni(aren) sen	sentido de armonía
harmonia	armonía
harmoniko	armónico
harrapakari	depredador
harrapakeria	depredación
harrapakin	botín
harresi	muralla muro
Harresi Handi(a)	la Gran Muralla
harrespil	cromlech
Harri Landuaren Aro	Edad de la Piedra Labrada

Euskara	*Español* *Espainiera*
Harri Leunduaren Aro	Edad de la Piedra Pulimentada
hartzuri	alabastro
hasberri	incipiente
hastapen-ideia	idea de principio
haur miresgarri	niño prodigio
hautabidezko = hautapenezko	electivo
hautapenezko monarkia	monarquía electiva
Hautesle(a), Brandeburg-eko	Elector de Brandeburgo
hauteslerri	electorado (territorio)
hedakuntz gerrak	guerras de expansión
hedakuntza	expansión
hedatu	difundir extender expandir
Hegiratiko urte	año de la Hégira
Hego Amerika	Sudamérica
Hego Itsaso(a)	Mar del Sur (= Océano Pacífico)
Hego-mendebalde	sudoeste
heladetar	helénico heleno
helenistiko	helenístico
Herbehereak	Países Bajos
herio-dantza	danza de la muerte
Hermandade Santu(a)	Santa Hermandad
herri-biltzarre	asamblea popular

Euskara	*Español* *Espainiera*
heziketa fisiko	educación física
hezurdura	esqueleto
hierarkizatu	jerarquizar
hieratikotasun	hieratismo
hieroglifiko	jeroglífico
higadura	erosión
higanaut	hugonote
hilkortasun	mortalidad
hilondu = baltsamatu	embalsamar
hilotz = gorpu	cadáver
hiltegi	cámara mortuoria
Hipokrate (-460-377/59)	Hipócrates
hiri estatu	ciudad-estado
hiri gotortu	ciudad fortificada
hiri-mundu	mundo urbano
hiri-zibilizazio	civilización urbana
hiribildu	villa
hirigintza	urbanismo
hirigune	espacio urbano centro urbano
hiritar	urbano ciudadano
hiritar-eskubide	derecho de ciudadanía
hiritargo	ciudadanía
hitzarmen sozial	contrato social
hitzartu	acordar comprometer(se)

Euskara	*Español* *Espainiera*
Hogeitamar Urteko Gerrate(a) (1618-1648)	Guerra de los Treinta Años
hondeatzeko makina	máquina excavadora
hondoratu	rehundido
horma-pintura	pintura mural
horma-zisku	hornacina
hornibide	ruta de aprovisionamiento
hornikuntza	aprovisionamiento abastecimiento
hornizio	aprovisionamiento avituallamiento
hortzadura	dentadura
hortzaginak	dentadura
I	
ibaiondo	ribera
ibi	vado
ibil-jende	gente nómada
ibilgune	camino habitual
ikaslari	aprendiz
ikuskatu	inspeccionar
ikuskatzaile	inspector
ikusmen estereoskopiko	visión esteroscópica
ilargialdi	fase de la luna
ildaskatu	estriado
ildo	surco estilo

Euskara	*Español* *Espainiera*
iltze-belar	clavo
inbeztidura	investidura
inbeztitu	investir
indar-gaztelu	fortaleza
indarleku = gotorleku	fortaleza
Indiak	Indias
Indietako Ontziteria	Flota de Indias
Indietarako Ibili(a)	Carrera de Indias
indo-europar	indoeuropeo
industriaurreko	preindustrial
industu	excavar
Ingalaterra	Inglaterra
ingerada	contorno
ingurubiratu	circundar
injineru	ingeniero
inkimanka	forcejeando ten con ten
Inperio Otomandar(ra)	Imperio Otomano
inperio-hiri	ciudad imperial
inperio-zaldun	caballero del imperio
intxaur muskatu	nuez moscada
Ipar Afrika	Africa del Norte
Ipar Italia	Italia del Norte
Ipar Itsaso(a)	Mar del Norte
iparrorratz	brújula

Euskara	*Español* *Espainiera*
ipotxa	enano
iragarri	anunciar predecir
iraitzi	expulsar
iraizpen, josulagunen (1767)	expulsión de los jesuitas
irakastaulki	cátedra
iraultza	revolución
"Iraultza Ospagarri(a)" (1688)	Revolución Gloriosa
irudikatu	representar (en imagen) imitar
irudiztatu	representar
iruinarri	menhir
iskriba; izkriba	escriba
islamdu	islamizar(se)
isun	multa
italiar	itálico italiano
itsasarte	estrecho
Itsaso Beltz(a)	Mar Negro
Itsaso Gorri(a)	Mar Rojo
Itsaso Ilunbetsu(a)	Mar Tenebroso
Itsaso Mediterranear(ra)	Mar Mediterráneo
Itsaso Mortu(a)	Mar Muerto
itsasontziteria	flota marina
itzeltasun	grandiosidad
itzul-sistema	sistema de rotación
itzuri	evitar escapar
izkriba; iskriba	escriba
izkribakera	escritura
izpi	rayo
iztuku	estuco
izuikara	terror
izurrite	peste epidemia
Izurrite Beltz(a) (1348-1350)	Peste Negra
J	
jagole	vigía vigilante
jaiera	devoción
jainkozko	divino
Jakes I.a (1603-1625)	Jacobo I
jaki	alimento
jan-edariak	víveres
jaregin	soltar librar desprender
jaregin-sari	pago de rescate
jasanbera	tolerante paciente
jasoin	fundamento
jaun-eskubide	derecho señorial

Euskara	*Español* *Espainiera*
jaun-zerga	impuesto señorial
jauralde; jaurerri	dominio señorial señorío
jauregi gaztelu	palacio-fortaleza
jaurerri; jauralde	señorío dominio señorial
jaurespen	homenaje (al señor)
jauretxe	casa solar casa solariega
jazarraldi	persecución
jeinu	genio ingenio
jentilgizon	gentilhombre
jite	carácter aptitud
joglare	juglar trovador
joko	juego
Joko Olinpiko(ak)	Juegos Olímpicos
Jon Lurraldegabe(a); Joanes L. (1199-1216)	Juan Sin Tierra
joniar	jonio
joniar, ordena	orden jónico
jopu; serbu	siervo
joputza; serbutza	servidumbre condición de siervo
josulagun	jesuíta
Juda	Judas
judutasun	judaísmo

Euskara	*Español* *Espainiera*
K	
kainoi-ganga	bóveda de cañón
kakalardo	escarabajo
kalamu	cáñamo
kalatu	calado
Kaligula (37-41)	Calígula
kalostra	balaustrada
kalota esferiko	casquete esférico
kaltiar	perjudicado
Kanaria Handiko Las Palmas	Las Palmas de Gran Canaria
Kanariak	Canarias
Kanisio (1521-1597)	Canisio
kanon	canon
kanpanaire	campaniforme
Kanpezu	Santa Cruz de Campezo
Kantauri Itsaso(a)	Mar Cantábrico
kantauriar	cántabro
kapelagile	sombrerero
kapera	capilla
Kapera Sixtoren(a) = Sixtoren Kapera	Capilla Sixtina
kapetar	capeto
Kaapstad (afrik.) = **Cape Town** (ing.)	Ciudad del Cabo
Karakala (211-217)	Caracalla
karistiar	caristio

Euskara	*Español* *Espainiera*
Karlomagno (768-814)	Carlomagno
Karlos Burusoil(a) (843-877)	Carlos el Calvo
karmeldar oinuts	carmelita descalzo
karolingiar	carolingio
kartagotar	cartaginés
kartesiar	cartesiano
Kartusia (1084)	Cartuja
kartusiar	cartujo cartujano
katakunba	catacumba
Katalunia	Cataluña
kima	crin de caballo
kinkaileria	quincallería
klankide	miembro del clan
Klazomene	Clazomenes
klientela = bezeria	clientela
klima-kontrastasun	contraste climático
Klistene (-600-570)	Clístenes
klunitar	cluniacense
Knoso	Cnossos
kofamendu	ahuecamiento rehundimiento
kokamendu	asentamiento
koloma oroikarri	columna conmemorativa
kolonaurreko	precolombino
kolonizazio	colonización
kolonizazio-gune	centro de colonización

Euskara	*Español* *Espainiera*
kolonutza	colonato
koloregai	colorante
komizio	comicio
komizio kuriar; **kuri komizio**	comicio curiado
komizio zenturiar; **zenturi komizio**	comicio centuriado
komuna	comuna municipalidad
Komunen Ganbara	Cámara de los Comunes
Konstantinopoli	Constantinopla
Konstantza	Constanza
konte	conde
konterri	condado
kontrahorma	contrafuerte
kontralehia	resistencia
kontrastasun	contraste antagonismo
kontsul	cónsul
kontsumari	consumero
kontzientzia argi eta bihurtezin (Descartes)	conciencia clara e irreductible
kopernikar	copernicano
Koperniko (1473-1543)	Copérnico
korintiar	corintio
korintiar, ordena	orden corintio
koroa	corona
kosta-zirrinda	franja costera

Euskara	*Español* *Espainiera*
kotoi	algodón
kotoizko	de algodón
kotoizko ehun	tejido de algodón
Kremlin(a), Mosku-ko	el Kremlin de Moscú
kretar	cretense
krisiaren funts	fundamento de la crisis
Kristandade	Cristiandad
kristautu-betebehar	obligación de cristianizar
"Kristoren Antz--bide(a)" (1441)	"Imitación de Cristo"
kultu-askatasun	libertad de culto(s)
kulturatze	aculturación
kuri biltzarre; biltzarre kuriar	comicio curiado
kuri komizio; komizio kuriar	comicio curiado
kutun	amuleto
L	
labar	panel de roca
laborantza	agricultura cultivo agrícola (actividad)
laboratu	cultivar
labore	cultivo (producto)
labore-lur	tierra de cultivo
labore-sail	campo de cultivo
laborebakar	monocultivo

Euskara	*Español* *Espainiera*
laburbildu	resumir
lagin	muestra
laido	afrenta ultraje
landa	campo
landaredi	flora
lanesku	mano de obra
larru	cuero
Lateran	Letrán
laun, kolore	color plano
laurdendu	descuartizar
laurdenkamendu	descuartizamiento
laute	laud
lazgarri	terrible
laztasun erlijioso	austeridad religiosa
legionari	legionario
lehengai	materia prima
lehentasun	prioridad
lehiakide	émulo
"Lehoi Hego--adardun(a)"	"León Alado con Cuernos"
"Lehoi Zauritu(a)"	"León Herido"
lehor-bide; lehorpide	ruta terrestre
leihoburu	dintel de ventana
leinargitasun	hidalguía nobleza
leinu	linaje
lekadun	legumbre

Euskara	*Español* *Espainiera*
lekuak hartu	aclimatarse
lekugunezko zenbaki-sistema	sistema de numeración posicional
lekumendu	asentamiento
lekuztapen	localización
lemazain	piloto
"Lepantoko Maingu(a)"	"Manco de Lepanto"
lerrokadura	alineamiento
lerromakur	curvilíneo
lerronahasi	mixtilíneo
lerrozuzen	rectilíneo
leundu	pulir
leunketa	pulimentación
Libya	Libia
liho	lino
Lleida	Lérida
loia	lonja
loktenente	lugarteniente
Londres	Londres
loraldi	florecimiento
Luis Germaniar(ra) (843-876)	Luis el Germánico
lur-ekonomia	economía rural economía agrícola
lur-sailen elkarretaratze	concentración de tierras
lurjabe	propietario de la tierra
lurjabetza	propiedad de la tierra
lurralde historiko	territorio histórico
lurralde mugakide	territorio fronterizo región fronteriza
lurralde--baterakuntza	unificación territorial
lurralde-monarkia	monarquía territorial
lurtar	terreno (adj.)
Luter (1483-1546)	Lutero
lutertar	luterano
luzetarako ebakidura	sección longitudinal

M

magdalenaldi	edad *magdaleniense*
magdalendar	magdaleniense (adj.)
magistratu	magistrado
mahasti	viña viñedo
mailakatu, piramide	pirámide escalonada
mailorkar	mallorquín
mainel	mainel parteluz
maizter	arrendatario
malda	ladera
maneakuntza	laboreo
marai	maravedí

Euskara	*Español* *Espainiera*
Maria Odoltzale(a) (1553-1558)	María la Sanguinaria
marineleria	marinería
markerri	marca
marraizkora	raspador
marraizkora bikoitz	raspador doble
Martitz	Marte
martiztar	marciano
matriarkatu	matriarcado
Mazarin (1642-1661)	Mazarino
mazedoniar	macedonio
meategi	depósito de mineral
meatz	mina
meatzari	minero
mediterranear	mediterráneo (adj.)
medotar	medo
mehatxu	amenaza
Meka	La Meca
mende	siglo
Mendebalde	Occidente
"Mendebaldeko Indietako Konpainia"	"Compañía de las Indias Occidentales"
mendikate	cordillera
Mendiskak, Erromako Zazpi	Las Siete Colinas de Roma
mendoitz	talud
mendoitz-horma	*muro en talud*
mendu	carácter

Euskara	*Español* *Espainiera*
mengoatu	obligar
menpehartu	ocupar conquistar
menperatze-sistema	sistema de dominación
merkatal elkartrukeak	intercambios comerciales
merkatal iharduera	actividad mercantil actividad comercial
merkatal lehiaketa	competencia mercantil emulación comercial
merkatalgo; merkataritza	comercio
merkatalgune	centro mercantil centro comercial
merkatari	mercader comerciante
merkataritza; merkatalgo	comercio
merkatu	abaratar(se)
merkatu-lehiaketa	competencia de mercado
Mesopotamia Garai(a)	Alta Mesopotamia
metropoli	metrópolis
mezena	mecenas
miesa	lienzo tela
milakada	milenio
Milano-ko Ediktu(a) (313)	Edicto de Milán
Milanalde(a)	Milanesado
ministrari	ministro
ministraritza	ministerio

Euskara	*Español* *Espainiera*
Mino	Minos
minoar	minoico
Mizena	Micenas
mizenatar	micénico
mohamatar	mahometano
Moise (-XIII.)	Moises
moje-erreforma	reforma monacal
mojego	monacato condición de monje
monastegi	monasterio
monastegi-erreforma	reforma monástica
moneta-anarkia	anarquía monetaria
mongoliar	mongol
mortu	desierto
mozkin	beneficio
mozorrotu	enmascarar(se)
muga-gotorleku	fortaleza fronteriza
muga-babes(tai)le, politika	política proteccionista
muga-babespen	protección fronteriza protección aduanera
muga-langa	barrera
mugalde	zona fronteriza
mukulu	bulto
mukulu biribil	bulto redondo
mukulu biribileko eskultura	escultura de bulto redondo
munta	importancia
musikagile	compositor

N

nabigazio	navegación
Nabigazio-Akta (1651)	Acta de Navegación
Nafar-auzo(a)	Navarrería
Nafarroa Behere(a)	Baja Navarra
naharo	
Napoli	Nápoles
nardari	desdeñoso
narritu	excitar
neanderthaldar	neanderthalense (adj.)
nekazaltze	ruralización
neobabiloniar	neobabilonio
Neolito(a)	período Neolítico
nerbiodura	nervadura
neurritsu	sobrio comedido
noria	noria
Norvegia	Noruega

O

oasi	oasis
obrantza	acción

Euskara	*Español* *Espainiera*
obratu	llevar a cabo ejecutar
-ohi(a)	ex- (lagun-ohia = el ex-compañero)
oihal	paño
oihalgai	producto textil
oihulari	pregonero
oin	piso
oinartu	tomar pie tomar como fundamento
oinetxe	casa solar casa solariega
oinplano	planta (ark.)
ojibazko arku	arco ojival
olibadi	olivar
oligarkia	oligarquía
olio-hazi	semilla oleaginosa
ondare	patrimonio
ondorio balaztagarri	consecuencia que frena
ongarriztatu	abonar
ontzi	barco embarcación
ontziteria, itsas-	flota
opaldu	sacrificar
opil, gatz-	pan de sal
orainaldiaren historia	historia del presente
oramen	prensilidad
Ordena Teutoniko(a)	Orden Teutónica
ordezkotasun	representatividad
oreka natural	equilibrio natural
orno-muin	espina dorsal
oroatzemaile, historia	historia globalizante
osagai bizigabe eta jarrai (Descartes)	elemento inerte y continuo
ospakizun-hilketa	matanza conmemorativa muerte ritual
ostrogotu	ostrogodo
ostruka	avestruz
oti	langosta
otomandar	otomano
P	
Palatinatu(a)	Palatinado
paleokristau, arte	arte paleocristiano
Paleolito(a)	Paleolítico
Parmenide (-VI-V.)	Parménides
Partenoi(a)	Partenón
pausaldi	detención estancamiento
Penintsula Balkaniar(ra)	Península Balcánica
Penintsula Iberiar(ra)	Península Ibérica
Penintsula Italiar(ra)	Península Itálica

Euskara	*Español* *Espainiera*
Pentsionari Nagusi(a)	Gran Pensionario
pertsegizio	persecución
Pertsepoli	Persépolis
Pertsia	Persia
pertsiar	persa
petxari	pechero
piperrauts	pimienta
pisu (moneta)	peso
Pitagora (-IV.)	Pitágoras
pitxerrandi	jarrón
Pizkunde Garatu(a)	Alto Renacimiento
Pizkunde Goiztar(ra)	Renacimiento Temprano
pizkundetar	renacentista
Plantagenetarrak (1154-1485)	los Plantagenet
plebe	plebe
plebetar	plebeyo
plebetarren biltzarre	asamblea de la plebe
plubiositate	pluviosidad
Po Ibar(ra)	Valle del Po
ponpa	bomba
populazio	población
praktikari	practicante
prediku	predicación
prehistorilari	prehistoriador
presioz printzak ateratze	esquirlado por presión
presiozko printzaketa	esquirlado por presión
pretoriar	pretoriano
printze	príncipe
printzerri	territorio del principado
Probentza	Provenza
produkzio-baliabide	recurso productivo
profil	perfil
proletari	proletario
Protagora (-485-410)	Protágoras
R	
rabbi	rabino
Roda	Rodas
S	
sabai laun	techo plano
Saboia	Saboya
saihesbera	disidente
saihespen erlijioso	disidencia religiosa
saihestu, talde sozial	grupo social marginado
sakailakatu	acribillar
salomondar, zutabe	columna salomónico
San Bital Ravenna-ko(a)	San Vital de Ravena

Euskara	*Español* *Espainiera*
San Joan Lateran-go(a)	San Juan de Letrán
San Marko Venezia-ko(a)	San Marcos de Venecia
San Paul Harresiz Kanpoko(a)	San Pablo Extramuros
San Zernin	San Cernín
Sandrati	San Adrián
Santa Maria Erreteliza (Olite)	Santa María la Real
Santa Maria Nagusi(a)	Santa María Mayor
Santa Sofia Konstantinopo-liko(a)	Santa Sofía de Constantinopla
Santiago-Bide(a)	el Camino de Santiago
sare-gailurreria	crestería reticulada
saripeko	mercenario
sarraldi	entrada
sarraski	matanza
sastagai	puñal
saxoin	sajón
Saxonia	Sajonia
saxoniar	sajón
Segida-Gerrate(a) (1700-1714: Esp.) (1740-1748: Austr.)	Guerra de Sucesión
Segismun II.a (1548-1572)	Segismundo II
segizio	séquito
Segovia-ko Akueduktua	Acueducto de Segovia

Euskara	*Español* *Espainiera*
sekularpen	secularización
senatu	senado
sendi	familia
seneko	instintivo juicioso
serailu	serrallo
serbiar	servio
serbu; jopu	siervo
serbutza; joputza	servidumbre condición de siervo
sigi-saga	zigzag
sinestun	creyente
siroko	siroco
sistema hirurogeitar	sistema sexagesimal
Sixtoren Kapera = Kapera Sixtoren(a)	Capilla Sixtina
soberakin	excedente
sorbaldako	espaldarazo
sorkuntza	generación
sorteliza	iglesia madre iglesia matriz
sortetxe	casa solar casa solariega
soslai	de costado de soslayo
sostengatzaile	sustentante
Suedia	Suecia
sufre	azufre
sustatu	estimular

Euskara	*Español* *Espainiera*
T	
taket	estaca
talasokrazia	talasocracia
talde sozial	grupo social
talde sozial saihestu	grupo social marginado grupo social disidente
tartegune	espacio
Taula Errodolfotarrak (Kepler, 1627)	Tablas Rudolfinas
taulamendu hautsi	entablamento quebrado
tenplu	templo
teorikari (iz.)	teórico
termak	termas
Titikaka Laku(a)	Lago Titicaca
Tiwanaku (kitxuaz)	Tiahuanaco
tona	tonelada
trantseptu	transepto
tregoa	tregua
tribu-biltzarre	comicio por tribus
trikuharri	dolmen
trinkotasun	densidad
triskantza	matanza
trukalari	cambista
truke-letra	letra de cambio
txanpondu	acuñar
txanpongintza; txanponketa	acuñación

Euskara	*Español* *Espainiera*
txautu	gastar malgastar
txekiar	checo
txerpolari (saltzaile ibiltaria)	buhonero
tximino	simio mono
tximistorratz	pararrayos
Txina	China
Txipre	Chipre
txukatzeko ponpa	bomba de achicar
txurrigeresko	churrigueresco
U	
ugate	compuerta del saetín dique
uhindura	ondulación
ukantza	propiedad posesión
untziteria; ontziteria	flota escuadra
ur-eraikuntza	construcción hidráulica
ur-etorri	caudal
uresi	errotara datorkeen zaborra gelarazteko hesia
ureztapen = erregario	irrigación regadío
ureztapenezko nekazaritza	agricultura de regadío

Euskara	*Español* *Espainiera*
urgaineztatu	desbordar(se)
"Urketari(a)"	"El Aguador"
Urrezko Adar(ra)	El Cuerno de Oro
ustelkuntza	corrupción
ustiapen-kolonia	colonia de explotación
ustiatu	explotar
uzkur	reacio
uzta	cosecha
V	
Valencia	Valencia
X	
xaboi	jabón
Xenofane (-VI-V.)	Jenófanes
Z	
zakuraketa; arpilaketa	saqueo
zaldiketaldi	cabalgada
zaldun	caballero
zango, leiho-	jamba de ventana
zapalda	bancal terraza
zarrastelkeria	despilfarro
zeharkako zerga	impuesto indirecto
zeihar-plano	plano oblicuo
zelatatu	acechar espiar
zelta	celta
zenbakikuntza arabiar	numeración arábiga
zenbakikuntza hamartar	numeración decimal
zentralizapen--prozesu	proceso de centralización
zenturi biltzarre	comicio centuriado
zenturi komizio; komizio zenturiar	comicio centuriado
zenturia	centuria
zenturioi	centurión
zereal	cereal
zerga-bilketa	recaudación de impuestos
zergari	recaudador de impuestos
zerutar dohatsu	bienaventurado del cielo
Zesar (-102-44)	César
zeta	seda
"Zetaren Bide(a)"	"La Ruta de la Seda"
zibilizazio(aren) erdigune	centro de (la) civilización
zibilizazio-gune	centro de civilización
zientzilari	científico
zilargin	platero
zinborio	cimborrio

Euskara	*Español* *Espainiera*
zingiber	cingíber
zinginarri (Ataun)	historiaurreko kutun bat
zingo	calado
zirrikiton	sarga (oihal-mota bat)
zistertar	cisterciense
zizel	cincel
zizkolatsu	estridente
Zornotza	Amorebieta
zorpetu	endeudar

Euskara	*Español* *Espainiera*
zubiburu	cabeza de puente
zuhain-landare	planta forrajera
zuhaizti	arbolado
zuhur	prudente
zur preziatu	madera preciosa
zurrunbilo	remolino
zutoihal	estandarte
zuzeneko zerga	impuesto directo
zuzenestapen ideologiko	justificación ideológica

A U R K I B I D E A

* AUTOREAK 5
* HITZAURREA 7
* KRONOLOGIA 11

1. LURRALDE-MONARKIA MODERNOAK

Azalpena

I. BATASUN-MOLDE EZBERDINAK, EUROPAn 15

1. Erteuropatik Ekialdera 15
2. Erteuropa eta Italia 16
3. Monarkia berri handiak 17

II. FRANTZIAko ERREINUA 20

1. Monarkiaren oinarri ekonomikoa 20
2. Monarkiaren lurraldeak 22
3. Estatuaren tresneria berria 25

III. PENINTSULA IBERIARRA 28

1. Lurraldeen bilketa 29
2. Monarkia federala eta pluralista 32
3. Koroapeko Estatuen erakundeztapena 34
4. Balioztapen historikoa 38

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 473. or. Ik. 473. or.

****

2. AMERIKETAKO JATORRIZKO KULTURAK

Azalpena

I. AMERIKETAKO LURRALDEAK ETA HERRIAK 43

1. Geografia ezberdin ugariak 43
2. Gizakia eta herriak 44
3. Kultur oinarriak 47
4. Tribuak eta Estatuak 49
   a) Gizarte tribalak 49
   b) Gizarte "zibilizatuak" 50
5. Zibilizazioen erdiguneak 51
   a) Ertamerika (Mexiko, Guatemana, Honduras, Nikaragua) 51
   b) Karibe-ingurua (Antilak, Venezuela, Kolonbia, Panama) 51
   c) Andeak (Kolonbia-Txile) 51

II. ERTAMERIKAKO ZIBILIZAZIOAK 53

A) Maiak 53
   1. Gizartea eta ekonomia 54
   2. Gizarte antolamendu politikoa 56
   3. Jakintza eta artea 57

B) Aztekak 64
   1. Gizarte-antolamendua 65
   2. Eraketa politikoa 68
   3. Bizitza ekonomikoa 71
   4. Pentsamendua eta kultura 74
      a) Hazkunde demografikoa 74
      b) Aldakuntza ideologikoa 75
      c) Artelanak 76

III. ANDEETAKO ZIBILIZAZIOA: INKAK 77

1. Lurraldeak bategiten 80
2. Antolamendu sozio-politikoa 83
3. Sistema ekonomikoa 87
4. Kultur bizitza 89

IV. ITURRIAK. KIDETASUNAK ETA ALDEAK 92

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 474. or. Ik. 474. or.

****

3. ERNAZIMENTUA: EUROPAren PIZKUNDEA

Azalpena

I. PIZKUNDEKO GIZARTEA 101

A) Hiriak eta bizilagunak 101
B) Estamentuzko gizartea 104
C) Herritar xumeak 106
D) Oinarri ekonomikoak 109
E) Europa: boterea ala idealak? 114

II. PIZKUNDEAREN IZPIRITUA 115

A) Humanismo pizkundetarra 116
1. Gizaki eredua 116
2. Iturrien jatortasuna 118
3. Hezkuntza berria 118
4. Nazioarteko gizartean txertaturik 120
B) Hizkuntzak. Literatura 123
1. Herri-hizkuntzak 124
2. Literatura nazioanalak 125
C) Erlijio-bizitza 128
1. Erlijiotasunaren bizipena 129
2. Eliza eta Estatua 131
3. Hierarkia eta apaiz xumeak 132
D) Pizkundeko artea 134
1. Artearen sorburuak eta garapena 134
2. Balioztapen sozialak 136
3. Tresnak eta arazoak 139
4. Maisu handiak: Florentzia/Venezia 140
5. Europa-n zehar 143
a) Burgundia 143
b) Alemania 144
c) Espainia 144
d) Frantzia 147
6. Arte pizkundetarra Euskal Herrian 149
a) Gizartea eta ekonomia 149
b) Arte-bizitza 151
E) Pizkundeko zientzia 159

III. BIZITZA POLITIKOA 165

A) Ideia politikoen lerro nagusiak 165
B) Projektu eta praxi politikoak 168
C) Botere ezinkonponduak 172
1. Italia gutiziatua 172
2. Karlos V.a / Frantzisko I.a 174
3. Gerratea, lege 175

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 476. or. Ik. 476. or.

****

4. AURKIKUNDEAK ETA KONKISTAK

Azalpena

I. AURKIKUNDEAK, ZERGATIK? 180

1. Arrazoi geopolitikoak 181
2. Arrazoi sozio-ekonomikoak 185
3. Arrazoi politiko-ideologikoak 190
4. Aurkitzaileen gizartea 192

II. AURKIKUNDEEN HISTORIA 194

1. Lehen baldintzak eta tresnak 195
2. Portugesen Aurkikundeak 198
3. Gaztela ere Indietara: Kolon 200
4. Ameriketako Indiak 203
5. Ludiari itzulbira: Elkano 206

III. AMERIKA, AURKIKUNDEAREN BIHARAMUNEAN 208

1. Konkista handiak 208
   a) Mexiko-ren konkista 209
   b) Peru-ren konkista 214
2. Konkistaren arrazoizkotasunak? 216
3. Herri eta zibilizazioen topaketa 223

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 478. or. Ik. 479. or.

****

5. EUROPAREN EZINEGONAK: ERREFORMA

Azalpena

I. ERLIJIO-ERREFORMEN MENDEA 234

1. Bi Erreformak 235
2. Erdigune, molde eta belaunaldiak 236

II. ERREFORMAREN ARAZO SOZIO-ERLIJIOSOAK 238

1. Egiturak eta erabaki pertsonalak 239
2. Kausa erlijioso-kulturalak 240
3. Arrazoi sozio-ekonomikoak 244

III. ERREFORMA PROTESTANTEAK 247

1. Luteranismoa 247
a) Martin Luter (1483-1546) 248
b) Erreforma, mugimenduan (1517-1555) 249
c) Luteranismoaren doktrina 253
2. Anglikanismoa 256
a) Erreforma-garaiko sozio-politika 257
b) Erabakiak eta doktrina 258
3. Kalbinismoa 261
a) Suitza eta Kalbin (1509-1564) 261
b) Finkapena eta doktrina 263
c) Kalbinismoaren hedakuntza 266

IV. ERREFORMA KATOLIKOA 272

1. Erreformako indarrak 273
2. Trento-ko Kontzilioa (1545-1563) 277
3. Trento-ondoko erreforma 280

V. BOTEREA. TOLERANTZIAREN UTOPIA 284

1. Herri katolikoetan 285
2. Herri protestanteetan 287

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 480. or. Ik. 481. or.

****

6. ESTATU MODERNOAREN GARAPENA: ABSOLUTISMOA

Azalpena

I. MONARKIA ABSOLUTUA 290

A) Monarkia absolutuaren teorizatzaileak 291
B) Botere-kontrolaren garapena 292
C) Burokrazia eta funtzionalgoa 295

II. FRANTZIAKO MONARKIA ABSOLUTUA 299

A) Protagonistak 300
B) Antolamendu politikoa 301

III. PENINTSULA IBERIARRA 304

IV. PRUSIA 305

V. ERRUSIA 307

VI. PARLAMENTARISMOA 307

A) Ingalaterra 308
B) Probintzia Batuak: Holanda 309

VII. ESTATUARTEKO HEGEMONI BORROKA 310

A) Hogeitamar Urteko Gerratea 310
B) Frantziaren hegemonia 312
C) Hegemonia ingelesaren hasiera 312

VIII. BIZTANLERIA 313

IX. EKONOMIA 315

A) Moneta-krisia 315
B) Nekazaritza 317
C) Merkantilismoa 318
D) Merkatalgoa 319

X. GIZARTEA 321

A) Noblezia 321
B) Eliza 323
C) Hirugarren Estatua 324

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 481. or. Ik. 482. or.

****

7. GIZARTE ETA KULTURA BARROKOAK

Azalpena

I. ZIENTZIAREN IRAULTZA 327

1. Iraultza zientifikoaren garrantzia 328
2. Zientzia berrien berezitasun nabarienak 328
3. Aurrerapen zientifikoak 331
4. Zientziaren heldutasuna 333

II. FILOSOFIAREN MODERNOTASUNA 337

1. Francis Bacon (1561-1626) 338
2. René Descartes (1569-1650) 338
3. Wilhelm Leibniz (1646-1716) 340
4. Baruch Spinoza (1632-1677) 340
5. Galileo Galilei (1564-1642) 341
6. Bi Zientzi Eskola (XVII. m.) 342

III. LITERATURA 343

1. Frantzia 343
a) Prezeptiba 344
b) Antzertia 345
2. Ingalaterra 346
a) William Shakespeare (1564-1616) 347
b) John Milton (1608-1674) 347
3. Espainia 348
a) Miguel de Cervantes (1547-1616) 348
b) Beste zenbait 349

IV. MUSIKA 350

1. XVII. mendeko musikagileak 351
a) A. Vivaldi (1678-1741) 351
b) C. Monteverdi (1567-1643) 352
c) A. Scarlatti (1660-1725) 352
2. XVIII. mendearen lehen erdiko musikagileak 353
a) J.S. Bach (1685-1750) 353
b) J.F. Haendel (1685-1759) 353
c) F.J. Haydn (1732-1809) 354
d) W.A. Mozart (1756-1791) 354
e) W. Von Gluck (1714-1784) 355
f) L.V. Beethoven (1770-1827) 355
3. Musika Barrokoa Espainian eta Euskal Herrian 356

V. ARTEA 357

1. Berezitasun orokorrak 358
a) Arkitektura 359
b) Eskultura 360
c) Pintura 360
2. Barrokoa Italian 362
a) Arkitektura 362
b) Eskultura 364
c) Pintura 365
3. Barrokoa Frantzia-n 366
a) Arkitektura 366
b) Eskultura 367
c) Pintura 367
4. Herbehereetako pintura 368
a) Flandes-ko pintura 368
b) Holanda-ko pintura 369
5. Barrokoa Espainia-n 371
a) Arkitektura 372
b) Eskultura 373
c) Pintura 375
6. Barrokoa Euskal Herrian 385
a) Arkitektura: Elizak eta beste 385
b) Eskultura: Erretaulak 391

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

Ik. 482. or. Ik. 283. or.

****

8. EUROPA "ARGIZTATUA"

Azalpena

I. ALDAKUNTZA SOZIO-EKONOMIKOAK 398

A) Demografia 398
B) Nekazaritza 399
C) Industria 400
D) Merkatalgoa 402
E) Burgesiaren goraldia 403

II. ZIENTZIEN APLIKAZIO TEKNIKOA 405

III. IDEOLOGIA ETA PENTSAKERA 409

A) Ilustrazioa 409
B) Ilustrazioa Frantzian 412
C) Ilustrazioa Europan 414
D) Ilustrazioa Espainian 415
E) Ilustrazioa Euskal Herrian 417

IV. POLITIKA. DESPOTISMO "ARGIZTATUA" 419

A) Gorabehera politikoak 419

B) Gerra eta politika 421
1. Espainiako Segida-Gerratea (1700-1714) 421
2. Austriako Segida-Gerratea (1740-1748) 422
3. Zazpi Urteko Gerratea (1756-1764) 423
4. Poloniaren partiketak (1722, 1793, 1795) 424

D) Despotismo "Argiztatua" 426

V. ARTE PLASTIKOAK 428

A) Rococo-a 429
B) Neoklasizismoa 431
C) Francisco de Goya (1746-1828) 433

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

1. LURRALDE-MONARKIA MODERNOAK

1

Testu aztergarriak

Erregeak, Enperadore? (Luis XIV.aren Memorietatik) 16
Estatuen eta hizkuntzen mugak (Bec: Okzitania) 16
Luis XI.a, etsaien aurka (Commynes kronikaria) 18
Estatu-hazkundearen arrazoiak (Lapeyre) 19
Burgundia eta Frantzia (Joana Ark) 22
Bretainia: Ezkon-politika (Dom Morice: ezkon-hitzarmena) 24
Erret ordenantzak (Villers-Cotterêts, 1539) 26
Espainia = Gaztela + Portugal (J.H. Elliott) 28
Aginte osoagoaren egarria (F. Soldevila) 31
Nafarroaren konkista (1512) (J.M. Lacarra) 32
Gaztela eta Aragoa (A. Domínguez Ortiz; J.H. Elliott) 33
Juduen lege-egoera berria (H. Kamen) 33
Moriskoak, Espainian (H. Kamen) 34
Baionako Elizbarrutia (E. Goihenetxe) 35
Gaztela, erregeen morroin (F. Soldevila) 35
Inkisizioa, monarki euskarri (H. Kamen) 36
Germanien kontrako zigorra (1523) (E. Duran) 37
Frantzian frantsesez? (Biard) 38
Nafarroa: Egoera politiko berria? (J.Vicens Vives; F.Soldevila) .. 39
Amaiur (1522) (J. Estornes) 40

Irudi-ohar baliagarrienak

Penintsula bat, bost Errege. Mapa 14
Europako Ekialde Urruna 15
Britainia Haundiaren batasuna 17
Frantziako Luis XI.a (1461-1483) 18
Ingalaterra Euskal Herrian 20
Ehun Urteko Gerratea (1337-1453) 21
Joana Ark-eko (1412-1431) 22
Herbehereak eta Burgundia: Mapa 23
Frantzia (1440-1589): Lurralde baterakuntza. Mapa 25
Bretoiera galtzen. Mapa 27
Zerga-biltzailea 27
Batasunik behar ote? 28
Batasunean galtzaileak (Penintsula Iberiarrean) 29
Isabel, Fernando: Errege Katolikoak 30
Errege Katolikoak, Granadan sartzen 31
Euskal Herriko Foruak 34
Gaztela, Erregeen menpe 36
Inkisizioak kondenatuak 37
Funtzionarien Estatua 40

Testu aztergarriak

Bering itsasartea (Ll. Pericot) 44
Artoaren jatorburua (G.W. Beadle) 45
Artoaren garrantzia (G.W. Beadle) 46
Ameriketako garraio-indarra (F. Braudel) 48
Indiarrekin zer egin? (Kolon, 1492) 48
Kulturaren sorlekua (L. Séjourné) 50

Historia isilerazia (L. Séjourné) 51
Artoa: balio sozio-ekonomikoa (G.W. Beadle) 55
Artoaren zabalkundea (G.W. Beadle) 59
Maiak (R. Mousnier) 59
Kultura ekologista (Betty Bell) 59
Maiak. Teknologia eta lana (Morley/Bell) 59
Apez maiak (B. Bell) 60
Maien hiriak (B. Bell) 62
Maien arkitektura (B. Bell) 63
Maien eskultura eta pintura (B. Bell) 63
Maien hondamendia, zergatik? (B. Bell) 64

Azteken justizia (W. Krickeberg) 69
Gizaki-opalkuntzak (J. Soustelle) 69
Azteken iragarkizunak (J. Mendieta, 1525-1604) 72
Munduaren sorkuntza, azteken arabera (M. Simoni) 74
Munduari segida ematen (J.E. Fagg) 75
Tlacaélel-en erreforma (M. León-Portilla) 76
Aurpegi eta bihotz (M. León-Portilla) 77
Inkak: Erreinuko lurraldeak (D. Lavallée) 82
Inken hizkuntza (G.H.S. Bushnell) 83
Agintea eta zoriona (F. Morales Padrón) 84
Agintekeriaren ajeak (D. Lavallée) 85
Inken bideak (Zelaia) 86
Nekazarien produkzioa (G.H.S. Bushnell) 88
Quipu-a: Estatistika eta Historia (J.E. Fagg) 88
Inken eraikuntzak (J.E. Fagg) 90
Inperioaren bi ahuleziak (G.H.S. Bushnell) 91
Inken sozialismoa? (H. Lehmann) 93
Amerikarren ekarpenak 94
Kultura amerikarren mugak (P. Chaunu) 95
Indietako Peru-n: Sistema ekonomikoaren etena (D. Lavallée) 96

Irudi-ohar baliagarrienak

Eskimalak 42
Mundu Berria: Barruti etnikoak 42
Amazonia 43
Amerika-Siberia 44
Herriska indiarra (1590) 46
Urrea urtzen 47

* * *

Laborantza 47
Indiarren tribu-bizitza 49
Aimarak 50
Antilak. Ipar Amerika 52

Ertamerikako kulturak. Mapa 53
Zapoteka (Mitla hirikoa) 54
Apez nagusia (maia) 54
Artoaren jainkoa 56
Bonampak-eko pinturak 56
Pertsonaia maia 57
Eraikuntz teknikak. Marrazkiak 58
Maien arrantzale-herria 60
Zenbakiak 61
Egutegi maia 61
"Caracol" behategia 61
Maien hiria 62
Chichen Itzá-ko "Gaztelua" 62
Arku faltsua 63

Aztekaurreko Historia. Laukia 65
Aztekaurreko hiriak 66
Gerlari azterkak 66
Indiarren arteko gerrak 67
Merkatari aztekak 67
Tenochtitlan/Mexiko 68
Esklabu zigortuak 70
Zerga-bilketa 70
Janariak 71
Arta ziloak 71
Zerga bilduak 72
Mexikoko kultur aroak. Laukia 73
Tlacaelel erret aholku-emailea 75
Azteken opalkuntzak 76
Tenplu-piramidea 77

Inkaurreko kulturak. Tximu indiarrak 78
Tiwanaku/Inkaren Urkamendia 78
Inkaurreko Historia. Laukia 79
Inken Inperioa. Mapa 80
Peru-Bolivietako kultura eta Inperioak. Laukia 81
"Inka" izena 82
Cuzco hiria. Harginak 83
Printzesa inka 84
Antolamendu politikoa. Laukia 85
Patataren uzta 87
Maldetako zapaldak 87
Quipu-a 89
Sacsahuaman 89
Machu Picchu 90
Aribaloa 91
Aita Mendieta (1525-1604) 92
Ekonomia deseginda 93
Gurpilik ez 94
Kultura zahar eta berriak 95

Testu aztergarriak

Gaztelaniaren eskakizuna 100
Akademia Frantsesa (1632-36) 100
Garraioa eta prezioak (J.R. Hale) 102
Estamentuen zereginak (Caxton: Mirror of the World, 1481) 104
Nobleak eta Burgesak (U.von Hutten, 1488-1523) 104
Ingalaterra-ko pobreak (J. Simon) 106
Pobreak zergapean (Erasmo) 107
Jatordu eskasak (Braudel) 110
Jendearen handinahiak (S. Champier Kronikaria) 110
Gremioa: Elkargo itxia? (J.R. Hale) 112
Esklabutzaz (B. Castiglione) 113

Jakitate humanistikoa (Ciceron) 113
Merkatarien matematikak (J.R. Hale) 113
Inprimategia: Indar soziala (J.R. Hale) 115
Idazle klasikoen egarri (Machiavelli) 116
Argitalpen pizkundetarrak (J.R. Hale) 117
Inprimategia Europa-n (F.Braudel) 122
Inprimategia Euskal Herrian 123
Maximilian-en hizkuntzak (J.R. Hale) 124
Gaztelaniaren alde (C. de Villalón, 1558) 124
Erlijiotasun ahula (Tüchle) 129
Debekuak: Judu sasi-kristauen ondokoei (Torquemada, 1494) 130
Kultura burgesa (J.R. Hale) 133
Diruzalekeria Elizan (J.R. Hale) 133
Artisten lorpen sozialak (H. Hauser) 134
Erroma, Mezena-hiria (H. Hauser) 136
Florentzia / Venezia (B. Berenson) 138
Venezia-ren kolorea (J. de Encina) 139
Estilo nahastuen aurka (Sigüenza, 1605) 145
Aberatsen mezenazgoa (M.A. Arrazola) 149
Bedua: Errenteria 151
Jakintsua, bakarrik (J. Roger) 160
Kosmologiatik gizonaganaino (Koyre; Rosen) 160
Anatomia berria (K. Sprengler) 162
Huarte-ren ideiak (G. Marañón) 163

Europa politikoa (XVI. mend.) (P. Jeannin) 166
Europarrak, Gurutzadara? (Bayazid Sultana) 167
Nongo enperadorea? (Filofei Abadea, 1510) 168
Estatu-arrazoia (N. Machiavelli, 1515) 171
Europa bakarrik kristau? (J.R. Hale) 172
Italia, babesik gabe (N. Machiavelli) 172
Gerra bizia (F. Guicciardini) 173

Irudi-ohar baliagarrienak

Europa, XVI. mendean. Mapa 98
Bidaiak (1500). Laukia 99

* * *

Bizitza hiritarra: Nürnberg (L. Strauch, 1599) 100
Antwerpen (Amberes) 101
Bilbo, XVI. mendean 102
Brugge-ko nazioak. Grafikoa 102
Klase sozialen jatorduak (Ingalaterra, 1517) 102
Sandrati-ko Bidea (Hoefnagel, 1567) 102
Euskal Herria (Bizilagunak, 1500) 105

Burgesiaren irabaziak (1500). Laukia 105
Nekazarien itxaropenak (Parise, XV-XVI. mend.). Laukia 107
Bankariak Erregerekin (Ingalaterra) 108
Europako industria (XVI. mend.). Mapa 108
Klasearteko harremanak 109
Aberatsak/Pobreak 109
Patataren hedakuntza. Mapa 110
Meatzak 111
Ontzigilea 112
Izkribauak 114

Machiavelli (1469-1527) 114
Lateran-eko Klaustroa: Mezenazgoa 116
Gizaki-eredua 117
Alcalá: Unibertsitatea (1498) 118
Pico della Mirandola (1463-1494) 119
Erasmo (1469-1536) 120
L. Vives (1492-1540) 120
T. More (1478-1535) 121
Migel Egiako, inpramatzailea 122
Orlando Furioso (1516-32) 125
Euskarazko lehen liburua (1545) 126
La Celestina (1499-1502) 127
Sorginak erretzen 130
Savonarola (1452-1498) 131

Adrian VI.a (1522-1523) 132
Vatikanoa 132
Leon X.a (1513-1521) 135

Pizkundeko Musika 135
Florentzia: Quattrocento 137
Artearen teknika berriak 139
Leonardo da Vinci (1452-1519) 140
Giza anatomia (Michelangelo) 141
Borgo-ko Erreketa (Raffaello) 141
Cinquecento 142
J. Van Eyck (1385-1441) 143
R. Van der Weyden (1400-1464) 144
Albert Dürer (1471-1528) 144
San Juan de los Reyes 145
Ernazimentuko arkitektura eta eskultura espainiarrak 146

Donostia (XVI. mend.) 150
Bakailaoa 151
Igartzako burdinola (1615) 152
Euskal arkitektura (Guenes, Oñati, Agurain, Ziortza) 153
Arte flandestarra 154
Eliza kolomaria 155

Bizkaiko eraikuntzak (XVI. mend.) 155
Antxieta Jauregia 156
Pizkundeko euskal musika. Laukia 156
Oñati: Pietateko erretaula 157
Portugalete: Santa Mariako erretaula 157
Joanes Antxieta: Jasokundeko Ama (Zumaia) 158
A. Bengoetxea: San Bizenteko erretaula (Donostia) 159

Eskola eta zientzia 160
Koperniko 161
Vesalio eta giza gorputza 162
Huarte Donibaneko (1529-1588) 163
Martin Azpilkuetako (1493-1586) 164

Julio II.a (1503-1513) 164
Maximilian I.a (1493-1519) 165
Karlos V.a eta Aita Santua 166
Suleiman I.aren Istambul 167
Monarkien Hierarkia 168
Maximilian-en armada 169
Gran Capitán (1453-1515) 170
Il Sacco di Roma (1527) 171
XVI. mendeko Italia. Mapa 173
Karlos V.a (1517-1547) 174
Frantzisko I.a (1515-1547) 175
Karlos V.a Enperadorea 176
Yuste 176

4. AURKIKUNDEAK ETA KONKISTAK

4

Testu aztergarriak

Vikingoak Ameriketan? (P. Chaunu) 179
Vikingoak aurretik (P. Celerier) 180
Ameriketarako Ipar Bidea itxita (XVI.ean) (Baardson, 1341-63) 180
Aurkikundeetan, zer gertatu zen 1441ean? (P. Chaunu) 184
Espezien merkatal iraultza (G. Lefranc) 185
Piperrautsa 186
Aurkikunde-eskubidea Aita Santuak Erregeri (Nikolas V.a) 190
Euskaldunak bi tekniken artekari (J. Heers) 192
Tongoak ziren euskal ontziak (J. Heers) 193
Euskal Herria, tekniken erdigunean (P. Chaunu) 193
Euskal teknika eta gerrak (J. Caro Baroja) 194
Karabela harrigarria (P. Chaunu) 194
Euskaldunak tekniken zabaltzaile (J.Heers) 195
Irudimenik ez, mundua "ikusteko" (J.R. Hale) 196
Itsasaldi motelak (P. Chaunu) 196
Euskal teknika aurkikundeetan (P. Chaunu) 197
Zergatik ez txinarrak? (J. Needham) 198
Euskaldunak Kanarietan (J. Caro Baroja) 199
Kolonen kontrako eritziak (S.E. Morison) 201
Kolon: Kapitulazioak (Sta. Fe, 1492) 201

Euskal marinelak (F. del Pulgar) 203
Indietarako bidai moldeak (P. Chaunu) 203
Euskaldunak itsasoetan (J. Caro Baroja) 204
Mundu berria (A. Vespuccio, 1501) 204
Kolon-en asmo kolonialak (1492) 205
Mundua, eskuragarria (P. Chaunu) 206
Pazifikoa (1513) (F. Morales Padrón) 208
Lurralde berrietarako teknikariak eta tresneria (J. Caro B.) 209

Konkistarien arteko borrokak (J. Séjourné) 210
Tlaxcalarrekin (B. Sahagún) 211
Cuauhtémoc-ek Cortés-i 212
Aztekak, gorrinak jota (Códex Florentinus, azteka) 213
Peru-rako kapitulazioak (F. Morales) 214
Cortés = Quetzalcóatl? (P. Chaunu) 216
Indiak, erregeentzako (D. de Encina, 1531) 217
Aurkikunde-bidaiak eta ekonomia (1488-1520) (J.R. Hale) 217
Noble azteken triskantza (B. Sahagún) 218
Indiarren kontra, zergatik? (A. de Montesinos, 1511) 220
"Asiento" (J.-P. Berthe) 221
Bi ekonomien elkar-osagarritasuna (Indietako Kontseilua, 1786) ... 225
Casa de Contratación (1503) (F. Morales Padrón) 230

Irudi-ohar baliagarrienak

Penintsularen hegoaldea. Mapa 178
Vikingoak Ameriketan 179
Zaldun-literatura 181
Txina, mundua zabaltzen. Mapa 182
Munduaren irudia: Afrika. Mapa 183
Enrike Nabigaria (1394-1460) 184
Nabigazio berrietarako aurrerapenak. Laukia 186
Karabana-bideak. Mapa 188
Esklabu-merkatalgoa 188
Urre-bilaketa 189
Aita Santuen Buldak 190
Merkatalgo koloniala. Mapa 192
Sevilla (XVI. mend.) 193

Koka baionesa 195
Joanes II.a (Portugal) 197
Ekialdeko merkatalgoa 198
Portugesak Indiara 198
Vasco da Gama (1469-1524) 199
Afrika 200

Kolon (1451-1506) 200
Bidaiak eta haizealdiak 202
Amerika "basatia" 205
Elkanoren Bidaia (1519-1522). Mapa 207
Cortés eta Moctezuma 208
Europarrek ezagutzen zuten Ameriketa (1527) 209
Hernán Cortés (1485-1547) 210
Cuauhtémoc (1502-1525). Laukia 212
Mexikoren konkista 213

F. Pizarro (1478-1541) 215
Konkistarien altxorra 216
Kolonizazioaren ezaugarri orokorrak 219
Indiarren hizkuntzen trataera koloniala 219
Las Casas domingotarra (1474-1566) 222
Eskola koloniala 223
Tirania espainola 223
Europa: Bizilagunak (1450) 223
Aita Vitoria (1483-1546) 224
Amerika despopulatzen: Anáhuac 225
Indiarren gomendaria 226
Potosí: Meatzak 227
Paraguay-ko Misio-herriak 228
Lurgintza berritua 229
"Jauregi Haundi" dorretxea 230
Filipinetatiko itzul-bidea (1565). Mapa 231
Hego Ameriketako konkistak 232

5. EUROPAren EZINEGONAK

5

Testu aztergarriak

Erlijioa eta politika (H. Lapeyre) 268
Eliza eta Estatua (H. Lapeyre) 235
Protestantismoa: batasunik ez (M. Luter) 236
Hierarkia aberatsa (J.R. Hale) 238
Erreforma, gizartean (Alexander Nuntzioa) 239
Jainko errukiorra (Delumean) 240
Bataiatuen apaizgoa (Delumean) 240
Doktrina lutertarren indarra (K. Holl) 242
Erroma galdua (M. Luter) 243
Luter Worms-eko Dietan (M. Luter) 245
Luter-en erantzuna (M. Luter) 247
Luter, dilema politikoa (E. Iserloh) 249
Augsburg-eko Bakearen berezgarriak (1555) (E. Iserloh) 251
Monastegiak, Ingalaterran (G.R. Elton) 253
Erreformara, konturatu gabe (G.R. Elton) 256
Kalbin-en Genevan. Estatua, elizaren sostengu (E. Léonard) 258
Kalbinismoa eta ekonomia (G. Martina) 263
Kalbinismoaren abantailak (J.H. Elliott) 264
Geneva-ko Akademia (G. Livet) 265
Erreforma eta politika (H. Tüchle) 265
Erlijio-gerrateak (1562-1598) 267
Erlijio-gerrateak 268
Eliza, erregeren menpe (A. Domínguez Ortiz) 272
Heretikoen kontra (S. Ignazio Loiolakoa, 1554) 273
Kontzilioaren asmoa (Kontzilioa) 278
Kontzilio historikoa (G. Martina) 278
Bortxa erlijiosoa (G. Livet) 283
Eliza ala alderdia? (G. Livet) 284
Minoria zigortuak (T. Azkona) 285
Geneva: Bizitza kontrolatuta (G. Martina) 286

Heretikoaren gorrotoa (Delumeau) 288
Tiranizidio? (T. Gallio, 1580) 288

Irudi-ohar baliagarrienak

Europa-ko gatazka-guneak (XVI. mend.). Mapa 234
Protestantismoaren erdiguneak. Mapak 236
Erreformatzaileak 239
Unibertsitariak Alemanian. Laukia 241
Unibertsitatea eta Erreforma 241
Martin Luter (1483-1546) 248
Nekazarien gerratea (1524-25) 251
Karlos eta Saxoniako Joanes Federiko 252
Luter: Bibliaren itzulpena 255
Irla Britaniarretako erlijio-arazoak. Mapa 256
Enrike VIII.a 259
Elisabet I.a Parlamentuan 260
John Knox (1514-1572) 260
Zuinglio eta Suitza 261
Joanes Kalbin (1509-1564) 262
Teodor Bezakoa (1519-1605) 266
Predikari higanautak 267
Erlijio-hilketak 268
Joana Albretekoa (1528-1572) 268
Enrike IV.a (1589-1610) 269
Maria Stuard (1542-1587) 270
Herbehereak (1566-1648) 271
Maurizio Nassau-koa (1567-1625) 271
San Ignazio Loiolakoa (1491-1556) 274
Frantzisko Xabierrekoa (1506-1552) 274
Felipe II.a (1556-1598) 275
Trento-ko Kontzilioa 277
Galera veneziarra (Lepanto, 1571) 280
Itsasarmada Garaitezina (1588) 281

6. ESTATU MODERNOAREN GARAPENA

6

Testu aztergarriak

Hitzarmen soziala (T.Hobbes) 292
Monarkia: Jainkozko jatorria (J.B.Bossuet) 293
Frantziako absolutismoa (R.Mandrou) 296
Erregea eta interesak, jainko (1649) 299
Erret aginteaz (Luis XIV.a) 301
Nafarroa Beherea (1620) (E.Goihenetxe) 302
Gerra bidezko bakea (Tratatua 1636) 303
"Espainiako errege" (Olivares) 305
1689ko Eskubideen Agiria 308
Merkatu-lehiaketa (J.B. Colbert, 1663) 309
Zer zen merkantilismoa? (P. Deyon) 316

Amerika, merkantilismoan (J. Vicens-Vives) 317
Merkantilismoaren arauak (J.B.Colbert) 318
Merkantilismo ingelesa (Th. Mun, 1621) 318
Nabigazio-Akta ingelesa (1 60) 319
Amsterdam: Bankuaren izenona (W.Temple, 1702) 320
Espainiako handiak (J.Vicens-Vives) 321
Zisma-arriskua (G.Lepointe) 322
Demografia zaharraren mugak (R.Mandrou) 324

Irudi-ohar baliagarriak

Versailles. Luis XIV.a 290
Bossuet (1627-1704) 293
Botere politikoaren antolamendua. Laukia 294
Absolutismoa Penintsula Iberiarrean 295
Noble zaldunak 297
Antwerpen-eko Burtsa 297
Guerra dels Segadors (1640-1652) 298
Colbert (1619-1683) 298
Enrike IV.a (1589-1610) 299
La Rochelle (1627-1628) 302
Frantziaren muga berriak. Mapa 303
Rosselló galduta (1659) 304
Olivares Konte-dukea (1587-1645) 305
Prusiako armada 306
Zergak 306
Pedro I.a (1689-1725) 307
Lehenengo gerrate anglo-holandarra (1652-1654) 308
Herbehereak munduan. Mapa 309
Monarkia ez-absolutuak 310
Hogeitamar Urteko Gerratea (1618-1648) 311
Westfaliako Bakea (1648) 312
Karlos II.a (1665-1700) 312
O.Cromwell (1599-1658) 313
Munduko biztanleria (1650). Laukia 313
XV-XVII. mendeetako izurriteak. Laukia 314
Europako biztanleria (XVII. mend.) 314
Pariseko Ospitalea 314
Penn, indiarrekin tratuan 315
Sistema merkantilista. Laukia 316
Ameriketako urrea, Espainiara. Laukia 317
Nabigazio-Akta (1651) 319
Elizbarrutien sarrerak (XVI. mend.) 321
Armiarma eta eulia 322
Burgesia 323
Garapen demografikoa. Laukia 324
Ikastetxeetako ikaslegoa 324

7. GIZARTE ETA KULTURA BARROKOAK

7

Testu aztergarriak

Euskal Herriko Unibertsitateaz 327
Iraultza zientifikoa..... 328

Teleskopioa 331
Zientziaren garaipena 335
Zientziaren balioa (1620) 337

Aristotele-ri kritika 342
Akademia Frantsesa 343
Shakespeare-ren esanahia 347
Gesù-ko eliza 362
Pizkundea/Barrokoa 357
Erroma barrokoa 361
Goienetxetarren "Baztan Berria" 373
Mendeak aldatuz 393

Oin-ohar baliagarrienak

Alkimia ala Zientzia? 326
Errinozerontea 328
N. Koperniko (1473-1543) 329
"Astronomia Nova" (1609) 330
Tresna astronomikoak 330
Galileo-ren "Elkarrizketak" (1632) 331
J. Kepler (1571-1630) 332
W. Harvey (1578-1657) 333
R. Boyle (1627-1691) 334
Pariseko behategia (1680) 335
I. Newton (1642-1727) 336
R. Descartes (1596-1650) 338
F. Bacon (1561-1626) 338
Guruin pinealaren betekizuna 339
"Discours de la Méthode" (1637) 339
W. Leibniz (1646-1716) 340
B. Spinoza (1632-1677) 340
Galileo (1546-1642) 341
N. Boileau (1636-1711) 344
P. Corneille (1606-1684) 345
Molière (1622-1673) 346
W. Shakespeare (1564-1616) 346
Quijote eta Sancho Panza 348
Tresna-musika 350
P.L. Palestrina (1526-1594) 350
A. Vivaldi (1678-1741) 351
Stradivarius bibolina 351
"Compendium musicae" (1609) 352
Purcell (1659-1695) 352
J.S. Bach (1685-1750) 353
G.F. Haendel (1685-1759) 353
W.A. Mozart (1756-1791) 354
L. Beethoven (1770-1791) 355
"Los Esclavos Felices" (1820) 356
Quito: Jesuiten eliza 358
Bernini-ren Kolomata (1667) 359
Sta. Teresa, estasian (1644) 360
Vignola (1507-1573) 362
Borromini (1599-1667) 363
Baldakinoa (1624) 363

Santa Teresa, estasian 364
Bernini-ren Dabid 364
G. Reni (1575-1642) 365
Caravaggio (1573-1610) 365
Versailles-eko Jauregia (1660-1680) 366
Coustou: "Zaldi-hezlea" 367
A. Coysevox (1640-1720) 367
N. Poussin (1594-1665) 368
P.P. Rubens (1577-1640): "Autorretratua" 368
A. Van Dyck (1599-1641) 369
P.P. Rubens: "Herkule eta Hidra" 369

Rembrandt (1606-1669) 370
P. de Ribera (1683-1742) 371
J. Vermeer (1632-1675) 371
A. Cano (1601-1667): Granada-ko fatxada 372
Santiagoko Katedrala 372
M. Tomé (+ 1742) 373
J. Churriguera (1665-1725) 373
G. Fernández (1576-1636) 374
Mz. Montañés (1568-1649) 374
J. de Mesa (1583-1627) 375
A. Cano (1601-1667): "Lebrija-ko Ama Birjina" 375
F. Salzillo (1707-1783) 376
El Greco (1541-1614): "Niño Guevara" 376
El Greco (1541-1614): "Orgaz" 377
El Greco (1541-1614): "San Maurizio" 378
F. Ribalta (1565-1628) 379
J. Ribera (1591-1652) 380
D. Velázquez: "Urketaria" 381
D. Velázquez: "Meninak" 382
D. Velázquez: "Arrautzak frijitzen" 382
F. Zurbarán (1598-1664): "San Hugo" 383
B.E. Murillo (1618-1682): "Meloia jaten" 384
J. Valdés Leal (1622-1690) 385
Donostiako Sta. Maria (1743-1774) 386
Loiola (1681-1738) 386
Elgoibarko Kanpandorrea (1757) 387
Bilboko San Nikolas (1743-1756) 388
Bilboko San Anton (1774-1775) 389
Balmasedako San Seberin 389
Arrasateko Udaletxea 390
Loiolako erretaula 391
Juan de Mesa (1583-1627) 392
René Descartes-en bizitza 394

8. EUROPA "ARGIZTATUA"

8

Testu aztergarriak

Ingalaterra/Gales (demografia, 1700/1831) 398
Hilkortasunaren jaitsiera (T.S. Ashton) 398
Labore berriak (T.S. Ashton) 400

Industri iraultza (Kronologia, herrialdez) (T.S. Ashton) 401
Harrikatza (Produkzioa Ingalaterran, 1700-1829) 402
Garraioak Ingalaterran (1750) (T.S. Ashton) 402
Asmakuntz patenteak (T.S. Ashton) 405
Zientzia eta Industria 407
Asmakuntzak. Laukia 408
Entziklopedia (1751-1764) (R. Mousnier) 413
Pentsamendu rousseautarra (R. Mousnier) 413
I. Kant (1724-1804) 414
Euskal Herriaren Adiskideak (F. Soldevila) 416
Josulagunak, iraitzita (F. Soldevila) 417
Rousseau-k I.M. Altuna "zalduntxoaz" (J.-J.Rousseau) 418
Gerra Koloniala (M.S. Anderson) 423
Despotismo "argiztatua" (R. Mousnier) 426
Rococo-a (G. Brunel) 429
Lurrin-makina eta trena (T.S. Ashton) 434

Irudi-ohar baliagarriak

Europa (1714) 396
Europa nekazaria (XVIII. mend.) 399
Noblezia eta Estamentuak 403
Burgesia 404
Juduen triskantza 405
Makina aerostatikoa (1783) 406
Ileki-lantegia 406
James Watt (1736-1819) 407
C. Linneo (1707-1778) 408
Ideien zabalkundea 409
Justizia 410
Tolerantzi Ediktua 411
Montesquieu / Voltaire / Diderot 411
Entziklopedia (1751) 412
Rousseau (1712-1778) 413
Erdal Akademia (1713) 415
Amerikarekin merkatalgo librea (1778) 416
Peñaflorida Kontea (1723-1785) 417
Aita Larramendi (1690-1766) 418
R. Walpole (1676-1745) 419
Gibraltar 419
W. Pitt (1708-1778) 420
Barcelona hartzen (1714) 421
Prusia, potentzia berria 422
Maria Teresa (1740-1780) 423
Katalina II.a (1762-1796) 424
Polonia-ren partiketa 425
Aranda Kontea (1718-1798) 427
Parise, Iraultza-bezperan 427
Goya (1746-1828) 433